Joseba Intxausti

GURE HERRIKO FRANTZISKOTARRAK

Herrietako historia garaikidea (1791-2000)

Idoia Unzurrunzaga
Argazki lankidetza berezia

ARANTZAZU
Edizio franciscanas · Ediciones franciscanas
Oñati, 2002

Arantzazuko Frantziskotar Probintziak
sustatzen du liburu honen argitalpena
Arantzazuko V. Mendeurrenaren barruan

Laguntza berezia:
Kulturaren Aldeko Euskal Fundazioa

Mendeurreneko Erakunde babesleak:

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

kutxa

Bibliografi fitxa
INTXAUSTI, Joseba
Gure Herriko Frantziskotarrak. Herrietako historia garaikidea (1791-2000)
[The Franciscan Friaries in the Basque Country (1791-2000)]
Arantzazu E.F. Oñati [Basque Country], 2002
304 or.; 229 x 210 mm
[Written in basque language]

Argitalpenaren arduraduna: Paulo Agirrebaltzategi
Liburuaren diseinua: Imanol Tapia
Inprimaketa: Litografía Danona

© Arantzazu EF
ISBN: 84-7240-183-9
L.G.: SS 612/02

Eskabideak:
Frantziskotar Anaiartea
20567 Arantzazu. Oñati
Tln. 943780951 - Tlx. 943783370
P.E.: anaiak@arantzazu.euskalnet.net

AURKIBIDE OROKORRA

HITZAURRE GISARA ZENBAIT OHAR 11
1. Azter-eremuaren mugaketa 11
2. Lanbideak eta gaiak 12
3. Gure zorrak 15
4. Liburuko irudiztapena 16

I. Atala

KOMENTUEN HISTORIARI BEGIRATU OROKORRA

I. DIOZESIAK ETA INSTITUTU ERLIJIOSOAK 21
1. Euskal Herriko Diozesiak 22
2. Institutu Erlijiosoak (VIII-XIII. mend.) 23
2. 1. Lehen urratsak (VIII.az geroztik) 23
2. 2. Nafarroako Monasterioak (IX-XIII. mend.) 24
2. 3. Beste Herrialdeetako Monasterioak (XI-XIII. mend.) 24
2. 4. Eskeko Ordenen hedapena (XIII-XVIII. mend.) 25
2. 5. Esklaustrazioak eta Izanberritzea 26

II. FRAIDE FRANTZISKOTARRAK EUSKAL HERRIAN (XIII-XX. MENDEAK) 27
1. Frantziskotarrak: Familiartea eta Ordenak 28
2. Frantziskotarrak[ofm] Euskal Herrian (XIII-XVIII. mend.) 29
2. 1. Fraide eta mojen Komentuak, mendez mende 30
2. 2. Frantziskotarren[ofm] estatistika zenbait 31
3. Frantziskotarrak[ofm] Aro Garaikidean 32
3. 1. Esklaustrazioak: fraide ohiak (1791-1876) 33
3. 2. Komentuak izanberritzen (1851-1976) 35
3. 3. Komentuetako fraideen estatistikak (1881-1995) 36

III. NOLA IZANBERRITU ZIREN PROBINTZIA ETA KOMENTUAK (1851-2000) 37
1. Erregimen Zaharreko Komentu-bizitza 38
1. 1. XVIII. mendeko arauak (1719) 39
1. 2. Bisitarien irizpideak (1878, 1880) 41
2. Egiturazko eten eta iraupenak (1876-2000) 44
2. 1. Inguruko aldakuntzen zurrunbiloan 44
2. 2. Egiturazko lehen baldintzak 45
- Komentuko ondasunak 45
- Kantabria edo Arantzazuko Probintzia 47
• Euskal Herrian eta Erbesteetan 47
• Nondik zetozen indarrak? 50
• Nola banatu ziren giza baliabideak? 52
• Arantzazuko Probintzia eta Penintsulako besteak 55
3. Komentuetako bizitza 56
3. 1. Komentuetako bizimoduak 56
3. 2. Komentuetako zereginen bilakaera 58

4. Komentu eta Anaiarteen tipologiak 60
4. 1. Esklaustrazio-aurreko aniztasun mugatua 61
4. 2. Izanberrikuntza-ondoko aniztasuna 61
- Komentu klasikoak (1876...) 61
- Komentu hiritarrak (1923...) 62
- Anaiarte Txikiak (1968...) 62
IV. IKUSITAKOA, IRAGAN LUZEAREN ARGITAN 63

II. Atala

KOMENTU-ETXEAK HERRIZ HERRI

ARANTZAZU: ANDRE MARIAREN KOMENTUA 67
Oñati frantziskotarra 67
Lehen mendeetako historiaz (XV-XVIII m.) 69
Esklaustrazio-aurreko hamarkadak (1794-1834) 71
Esklaustrazio-aldia (1834-1878) 73
Fraideartea eta Santutegia izanberritzen (1878-1918) 74
Hiru hamarkada aldartetsu (1918-1950) 78
Basilika berriaren arrastoan (1950-1970) 79
Kontzilio-ondoko hamarkadak (1965...) 80
Arantzazuko Nagusiak (1792-2000) 72
Seminarioko Errektoreak (1909-1990) 72

ARRASATE: SAN FRANTZISKO KOMENTUA 83
Arrasate frantziskotarra (XVI-XVIII. m.) 83
Krisia eta izanberritzeko lehen urratsak (1794-1951) 84
Komentua izanberritzen (1953...) 84
Lehen aldiko pastoraltza (1954-1974) 88
Parroki eginkizunetan (1974...) 88
Arrasateko Nagusiak (1792-2000) 86
San Frantziskoko Eliz Arduradunak (1974-2000...) 86
Santa Marinako Eliz Arduradunak (1974-2000...) 86

BERMEO: SAN FRANTZISKO KOMENTUA 91
Frantziskotarrak Bermeon (1357-1793) 91
Gerrate eta krisi politiko-erlijiosoen artean (1794-1839) 92
Esklaustrazio nagusia (1839-1859) 95
Izanberritzearen nekeak (1859-1895) 96
XX. mende emankorra (1895-2000...) 99
Fraideak eta ekimen pastoral berezituak 101
Bermeoko Nagusiak (1792-2000) 98
San Frantziskoko Parrokoak(1974-2000...) 98
Mañuko Parrokoak (1974-1992) 98
Muruetako Parrokoak (1980-2000...) 98

BILBO-IRALABARRI: SAN ANTONIO KOMENTUA 105
Hiri handi baten bihotzean 105
Bilbo frantziskotarrari begiratu orokorra 105
Aro Garaikideko krisialdian (1794-1833) 106
Iralabarrin komentua eraikitzen (1930-1945) 108
Auzoko Kristauartean eta gizartean (1945-1970) 110
Sakramentuak eta eliz zerbitzuak 110
Elkarte eta taldeak 112
Ekimenik emankorrenak 113
Parroki urteak (1970-2000) 115
Abandoko San Frantzisko eta Iralabarriko Nagusiak (1792-2000) 114
Iralabarriko Parrokoak (1970-2000...) 114

DONAPALEU: SAN FRANTZISKO KOMENTUA 117
Iparraldeko frantziskotarrak, oro har (XIII-XX. m.) 117
Izanberritzeko lehen ahaleginak: Donapaleu 118
Frantziara begira, baina Euskal Herrian (1851-1903) 119
Etxetik kanpo, baina lanean (1903-1938) 122
Euskal Herriaren zerbitzuanago (1938-2000...) 125
Birlandaketa pastorala (1938-1960) 125
Elizaren euskal inkulturazio berrian (1960-1984) 126
Etxea berbideratzen (1984...) 128
Donapaleuko Nagusiak (1851-2000) 127

DONOSTIA-EGIA: SAN FRANTZISKO KOMENTUA 131
Lehen Donostia frantziskotarra 131
Txurrutaleko Komentuaren azkenak (1794-1836) 132
Komentu berria eta inguru soziala (1923) 138
Fraideen Senitartea 140
Eliz Elkarte eta Erakundeak 141
Hirugarren Ordenako Senitartea 141
Arantzazuko Amaren Kofradia 142
Katekesia 143
Antoniotar Gaztedia 143
Beste zenbait elkarte 143
Sakramentu-bizitza eta Parrokia (1965...) 144
Donostia-Txurrutal eta Egiako Nagusiak (1794-1836, 1923...) 142
San Frantziskoko Parrokoak (1965...) 142

DURANGOKO ANAIARTEA 147
Durango frantziskotarraz 147
XX. mendeko frantziskotarrak 148
Durangoko Nagusiak (1968-2000) 150
Durangoko Kapilauak eta Ordekoak (1969-2000) 150

ERRIBERRI/OLITE: SAN FRANTZISKO KOMENTUA 151
Lehen historia frantziskotarraz (1243-1794) 151
Gerra artean eta Esklaustrazioan (1794-1880) 154
Erriberri Arantzazuko Probintzian (1880) 157
Komentuko eraikina eta bizilekua 158
Fraideen jarduera-alorrak 159
Herrietako Misioak, eta elizako Sakramentuak 159
Gizartean txertaturik: Hirugarren Ordena, "Anaien Etxeak" 163
Komentuko bertako lan-jarduna: eskolak eta kultura 165
Kontzilio-ondoa gure egunak arte 168
Erriberriko Nagusiak (1745-1837) 162
Erriberriko Beneragarrien Erretoreak (1837-1880) 162
Erriberriko Nagusiak (1880-2000) 162
Beireko Parrokoak (1981-2000...) 163
Traibuenasko Parrokoak (1989-1996) 163

FORUA: SAN FRANTZISKO ETA STO.DOMINGO KOMENTUA 169
Komentu zaharretik garai berri zailetara (1794-1839) 169
Komentu izanberrituan (1886) 171
Komentu eta ikastetxearen artean 172
Seminario Txikia (1930-1968) 173
Pastoraltza eta Kontzilio-ondoa 176
Foruko Nagusiak (1792-2000) 174
Seminarioko Errektoreak (1930-1994) 174

Ajangizko Parrokoak (1987-2000...) ... 175
Albizko Parrokoak (1981-2000...) ... 175
Errigoitiko Parrokoak (1997-2000...) ... 175
Foruko Parrokoak (1976-2000...) ... 175
Gernika-Lumo Parrokoak (1972-2000...) ... 175
Gorozikako Parrokoak (1997-2000...) ... 175
Ibarruriko Parrokoak (1997-2000...) ... 175
Mendatako Parrokoak (1978-2000...) ... 175
Morgako Parrokoak (1985-2000...) ... 175
Muruetako Parrokoak (1980-2000...) ... 175
Muxikako Parrokoak (1985-2000...) ... 175

GASTEIZ: ARIZNABARRAKO ANAIARTEA ... 179
Gasteiz frantziskotarra (XIII-XX. mendeak) ... 179
Iraultza-ondoko krisialdian (1793-1834) ... 180
Komentu-eraikinen historia (1834-1930) ... 184
San Frantzisko Komentua ... 184
San Antonio Komentua ... 185
Itzulera berantiarra (1973), eta lanbide anitzak ... 185
Gasteizko Nagusiak: San Frantzisko (1792-1834) ... 186
Gasteizko Nagusiak: San Antonio (1792-1834) ... 186
Gasteiz-Ariznabarrako Nagusiak (1967, 1973-2000...) ... 186
Abornikanoko Parroko-ordeak (1992-2000...) ... 186
Anda eta Andagoiako Parroko-ordeak (1992-2000...) ... 186
Izarrako Parroko-ordeak (1992-2000...) ... 186

IRUÑEA: ITURRAMAKO KOMENTUA ... 191
Iruñe frantziskotarra (XIII-XX. mendeak) ... 191
Historia izanberritzen (1837-1976) ... 193
Iturramako Etxe eta Parrokia berrietan ... 194
Iruñe-Iturramako Nagusiak (1976-2000...) ... 196
Iruñe-Iturramako Parrokoak (1980-2000...) ... 196

TOLOSA: SAN FRANTZISKO KOMENTUA ... 197
Tolosa frantziskotarra (1587-1793) ... 197
Gerra eta gudarosteen artean (1794-1840) ... 198
Udala, fraide ohiak eta apaizak (1840-1915) ... 200
Komentu izanberrituan (1915) ... 202
Komentu-etxea eta eliza ... 204
Komentu-etxea ... 204
Eliza ... 204
Fraideen Anaiartea (1915-2000) ... 205
Fraideen lan-jarduerak ... 206
Sakramentuak ... 206
Sermolaritza ... 206
Erromesaldiak ... 208
Komentuko eliz Elkarteak ... 209
Jostun-neskameen Elkartea ... 210
Hirugarren Ordena (Senitarte Frantziskotar Sekularra) ... 210
Jaiera-Batasunak ... 211
Arantzazuko Andra Mariaren Kofradia ... 212
Kontzilio-ondoko bilakaera (1965...) ... 214
Parrokia eta elizguneetan ... 214
Sakramentu-bizitza ... 214
Fede-heziketa ... 215
Zerbitzu soziala ... 216

Kultur ekimenak 216
Tolosako Nagusiak (1792-2000...) 213
Komentuko eliz Arduradunak (1979-2000...) 213
Elduko eliz Arduradunak (1970-2000...) 213
Berrobiko eliz Arduradunak (1978-2000...) 213

ZARAUTZ: SAN JOAN BATAIATZAILEAREN KOMENTUA 219
Komentuko lehen historiaz (1610-1793) 219
Garai berrietako gerratan (1794-1814) 221
Komentu bergaina (1817-1840) 222
Esklaustrazio-urteak (1840-1867) 222
Fraideartearen izanberrikuntzak (1867, 1876) 223
Fraidearteko xehetasun estatistiko zenbait 224
Eraikinen bilakaera 226
Gatozen elizara 226
Komentu-etxea 227
Eskolagintza 227
Fraide gazteen heziketarako Senitartea 228
Zenbait izen Fraidearte zabalean 230
Fraide-bizimodu hertsi eta berritua 234
Eliz Elkarteak 236
Sakramentuak eta predikua 237
Parroki lanetan 238
Irakaskuntza: eskolak eta kultura 240
Zarauzko Nagusiak (1746-2000...) 242
Komentuko Eliz Arduradunak (1977-2000...) 243
Langintza-Eskolako Zuzendariak (1944-2000...) 243
Lehen Hezkuntzako Zuzendariak (1925-2000...) 243
Batxilergoko Zuzendariak (1960-2001...) 243

III. Atala
ANAIARTE TXIKIAK HERRIZ HERRI

BEASAIN: SAN MARTIN IGOKUNDEKOA: 247
Sorrerako urteak 247
Fraide Anaiartea eta bertako kristauartea 249
Beasaingo Nagusiak (1972-1994) 248
Beasain-Loinazko Parrokoak (1972-2000...) 248
Arriarango Eliz Arduradunak (1972-2000...) 248
Astigarretako Parrokoak (1972-2000...) 248
Olaberriko Parrokoak (1972-1984) 248
Garingo Eliz Arduradunak (1984-2000...) 248

BILBO: ERREKALDEBERRIKO ANAIARTEA 251
Errekaldeberriko Nagusiak (1970-1982) 252

DOMINTXAINEKO ANAIARTEA (1972-1982) 253

DONOSTIA: JAKIN-EKO ANAIARTEA (1978...) 255

DONOSTIA: KAIALDEKO ANAIARTEA (1970-1982) 257

ERRENTERIA: ZAMALBIDEKO ANAIARTEA (1977-1991) 259

GERNIKA-LUMOKO ANAIARTEA (1972-1994) 261

IRUÑEA: SOTO/LEZKAIRU-KO KAPILAUTZA (1932-1976) 263
Iruñea-Soto Lezkairuko Kapilauak (1931-1976) 263

KARRANTZAKO ANAIARTEA (1975-1997) 265

OBANOSKO ANAIARTEA (1969-1977...) 267

OÑATI-BIDAURRETAKO ANAIARTEA (1915-2000...) 271
Oñati-Bidaurretako Nagusiak (1915-2000...) 272

SANTURTZIKO ANAIARTEA (1990-2000...) 275

SEGURAKO ANAIARTEA (1981-2000...) 277
Herriaren soslai frantziskotarra 277
Senitarte frantziskotarra[ofm] 278
Segurako Nagusiak (1981-2000...) 278
Segurako Parrokoak (1981-2000...) 278
Zegamako Parrokoak (1981-2000...) 278
Zeraingo Parrokoak (1981-2000...) 278
Mutiloko Parrokoak (1981-2000...) 278

ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA 281

A) Erabilitako iturriak 281
B) Bibliografia orokorra 282
C) Bibliografia berezitua 283

HISTORI HIZTEGI LABURRA 289

IZEN ETA KONTZEPTUEN AURKIBIDEA 293

HITZAURRE GISARA ZENBAIT OHAR

Hitzaurreko atari honetan, komenigarria izango da liburuko testua idaztean eta berori irudiztatzean izan ditugun asmo eta mugak irakurleari azaltzea.

Xedea oso labur ager daiteke: Euskal Herrian Aro Garaikideko frantziskotarrek[ofm] (herri-hizkeran esanda, "Arantzazuko fraideek") izan dituzten Komentuen eta Anaiarteen historiak bildu nahi izan ditugu orrialde hauetara, banan-banan, herriz herri. Eta testu horren ondoan, Komentuetako txoko ederrenak argazkitan bildu, berorietako ondare artistiko estimagarriena ere bai, eta fraideak berak, noski.

1. Azter-eremuaren mugaketa

Horretarako, abiaburua 1791/1794an jarri dugu, Iraultzan eta berehalako gerratean, eta helmuga, gure egunetan.

1791ko datak Iraultzakoan Iparraldeko Komentuak nola itxi ziren gogorarazten digu, eta 1794ak, berriz, Konbentzioko Gerra, hau da, garaiko modernitateak arma eta guzti Hegoaldeko Komentuei nola eraso zien, hau ere Frantziako Iraultzaren arrasto berean zetorrela. Urte horiek burdina goriz markatu zituzten fraideen bizkarrak. Liburu honetako gure azalpenen azken muga, ostera, bukatu berria dugun milaurtekoan jarri nahi izan dugu. Hortaz, 200 urte pasatxoa hartu da kontagaitzat.

Komentuak eta Anaiarteak aipatu ditugu, eta horrek ere behar du argibideren bat. Nortasun juridiko jakin bat, edo/eta komentu-etxea eta eliza, biak, dituztenak dira "Komentuak". Legez eta eraikinez horrela eratutako egoitzen ondoan, ordea, formaltasun gutxiagoko Anaiarteak ere badira gure Euskal Herrian: egoitza apalagoak, juridikoki "komentutasun" osorik aitortzen ez zaienak, azken hamarkadetan sortutako "Anaiarte Txikiak" eta nolanahiko beste fraide-talde ofizialki onartuak. Bai Komentu haiei eta bai Anaiarte libreago hauei monografia bana eman nahi zaie liburuan, llaburra noski.

Azken berrehun urte hauetan ezagunak diren frantziskotarren[ofm] Anaiarteak mota ezberdinetakoak izan dira, hasi Esklaustrazio-ondoko "Beneragarrien Etxe" haietatik (Oñatiko Bidaurreta, Erriberri), segi fraide ohiek herrietan eratu zituzten "Egoitza Apostolikoetatik" (Aizarnazabal, Bermeo) eta Izanberrikuntzak[1] ekarri zituen Komentu formaletaraino (Bermeo, 1859; Zarautz,

[1] Ik. liburu-azkenean euskarazko hiztegia.

1878). Hogeigarren mendeak are aniztasun handiagoa ekarri du, 1968tik hona, eta frantziskotarrak[ofm] mota oso ezberdineko Etxe eta Taldeetan bizi dira. Guztiak izan ditugu nolabait gogoan.

Nolabait, diogu, zeren ez baitugu jaso orrialde hauetan berrehun urtetan bizi izandako dena. Zehazki esanda, izanberrituta gure egunak arte heldu diren Egoitzak eta Anaiarteak dakartzagu hona.

Adibidez, Esklaustraziokoan itxi (1834-1840) eta gero izanberritze propio edo ondokorik izan ez dutenen historiarik ez dugu jasoko: horrelakoen artean daude Elgoibar edo Sasiola Gipuzkoan, Kanpezu-Piedrola edo Bastida Araban, Urduña edo nahi bada Lekeitio eta Izaro Bizkaian (azken biok lehenagotik desagertuak), Baiona eta Ziburu Lapurdin, Tutera, Lizarra edo Zangoza Nafarroan.

Alderantziz, Izanberrikuntza iristean –herri edo hiri berean, nahiz eta eraikin berean ez izan– segida frantziskotarrik[ofm] izan duten Komentu zaharrei beti eskaini diegu lekuren bat monografian, nahiz eta oraingo eraikina erabat berria izan. Hala egokitu da Bilbo, Iruñea, Donostia eta Foruan. Eta, horrezaz gain, ez dago zer esanik: Komentu-eraikina eta Anaiartea, biak, izanberrituak izan diren kasu guztietan bildu dugu hona bakoitzaren historia (Erriberri, Zarautz, Arrasate, eta nahi bada, Arantzazu).

Anaiarte Txikiak dei ditzakegunak denak begiratu ditugu, hain zuzen oso gure egunetakoak izan direlako, nahiz eta une honetan batzuk desagertuak izan (Errekaldeberri Bilbon, Zamalbide Errenterian, Karrantza Enkartazioetan, Kaialde Donostian). Hauen lekukotasuna XX. mendekoa izanik, eta garaiko ezaugarria ere bai, ez dugu baztertu nahi izan.

Hala ere, bada hor lehenagoko Anaiarteren bat, bizialdi oso laburra izan zuelako edo albisteak biltzea batere samurra ez zelako, ahaztu ez baina utzi bai egin duguna: Aizarnazabal edo Espejo egongo lirateke hauen artean.

Azkenik, aztergai ditugunen mugaketa honetan ez da ahantzi behar Euskal Herriko Etxeez edo Anaiarteez ari garela liburuan, eta ez euskal frantziskotarrek[ofm] nonahi sortu dituzten Komentu, Egoitza edo Anaiarteez. Zeharbidez bakarrik aipatzen ditugu Penintsulako beste Etxeak, nahiz eta arrazoiren bat baino gehiagogatik gure barruan ate joka izan ditugun. Hortaz, Gaztela, Kuba eta abarretako Komentuen historiarik ez dugu bildu hemen. Aukera bat izan da, egin dugun moldera lana egitekotan zorrotz gorde behar izan duguna. Hala ere, lehen atalean aipatu dira horiek ere.

2. Lanbideak eta gaiak

Komentu hauetako historia garaikideaz orokorrean egiten den lehenengo saioa da hau, dakigunez. Badu historiatik, badu kronikatik. Milaurteko bihurgunera iristean, azken bi mendeok horrelako lan bat eskatzen zutela iruditu zitzaigun. Artxiboetako paperak ez ezik lekukotasun pertsonalak ere bildu behar zirela uste izan dugu, horrek dituen balio eta arriskuak ahantzi gabe.

Saiatu gara, alde batetik, artxiboetan puntu bateraino bederen iristen, baina ezin izan da hortik harago pasa, berez Komentu bakoitzak eskatuko

bailuke liburu monografiko zabal bat, eta horrelako gutxi dago Aro Garaikideaz idatzita. A. Uribek Bermeoko Komentuari eskaini diona izango litzateke bat (2000); bestea, Arantzazuko V. Mendeurren frantziskotarraren[ofm] karietara elkarlanean Santutegi hartaz egindakoa (2001), eta hirugarrena geure lantegian moldiztegirako bidean dugun Donostiako Komentuaz ari dena. Liburutan, besterik apenas.

Artikulutan ez gabiltza hain urri, komentuen historian. Zoritxarrez, aldizkarietan sakabanaturiko idazlanak sistematikoki biltzerik ez dugu izan, baina, eremua guztiz agortu gabe, bilaketa zabala egin dugu, eta alde handirik gabe gehientsuena bildu dela pentsatu nahi dugu.

Bestalde, bada argitaragabeko idazlan onik, eta autoreek erraztasun hori eman digutenean erabili ahal izan ditugu horrelakoak. Honetan, aitortuko ditugu berehala gure zorrak.

Hegoaldeko Izanberrikuntza-aurrekoaz (1794-1876) Z. Solaguren-en lana izan dugu harrobi ia bakarra; gerokoaz, iturri behinena izan dugu *Actas Capitulares y Definitoriales* bezala aipatutakoa (1878...). Azken mende-erdirako (1950-2000), iturri horrek berak lagundu digu, iturri gidari bezala[2]. Hortik hasita, Komentuetako artxiboetan ere hainbat bilaketa egin da, ezarrita genituen mugen barruan.

Bada beste argibide-iturri garrantzizko bat: tokian tokiko lekukotasun pertsonalena. Azken mende-erdirako balio izan digu honek, eta inoiz baita 1930-1950. urteetarako ere. Komentu-Etxe eta Anaiarte bakoitzean eskaini zaigu erraztasun hori, eta beharbada albistegi pertsonal hori da liburu honetan aberastasun estimagarri bat, eta geroko historialariei bizi berria dugun aldakuntza-bihurguneaz jabetzen ongien lagunduko diena. Lankidetza honek paperetan hain argi ez zegoen hainbat datu zehatz argitu du, eta 1970-2000ko bilakabideari gorputz-osotasun bat eman dio.

Testua idaztean, iturri ezberdinon notizia ere eman nahi izan dugu, egunen batean etor daitekeen historialariari informazioak berresteko erraztasuna emanez; baina oharrak orrialde-oinetan edo idazlanaren bukaeran ematen ibili gabe. Pasarte nagusien ondoren, testu-barnean bertan aurkituko dira iturri eta bibliografiaren aipuak.

Bibliografiaren berri liburuaren azkenean emango da, baina ez du horrek erabat osoa izateko asmorik, eta lanerako erabili ditugun argitalpenen berri ematen da, ez besterik.

Iparraldeak zailtasun bereziak izan ditu guretzat, baina, zorionez, badago zenbait lan Aita Areso eta Donapaleukoari buruz, eta geuk ere izan dugu aukerarik 1960tik hona Etxe horretaz albisteak bertatik bertara jasotzeko. Beste Komentuetan bezala hemengoan ere, erabilitako iturriak adierazita daude, dagokien lekuan.

---

[2] Azpimarratzekoa da Akta-Liburu horren erabilpenerako K. Zubizarretak prestatutako gai-aurkibidea.

Monografia bakoitzeko lehen ataletan, Erregimen Zaharreko komentu-sistemak Esklaustraziorainoko ibilbidea nola egin zuen erakusten ahaleginduko gara, une politiko ezberdinak gogoratuz batik bat. Izanberrikuntzaren ondotik, ordea, Komentu eta Anaiarte barruetako garapenari eman diogu lehentasuna, estatistikak bilduz, eraikuntzak nola egin diren erakutsiz, eliz elkarteen garapena zein izan den esanez. Dena ere oso laburki, noski.

Halakorik ahal izan denetan, Euskal Herriaren nortasunarekin zerikusirik duten balioak gogoan hartu dira, hizkuntzena, esateko. Donapaleu, Zarautz edo Tolosako kasuak izan daitezke horren adibideak. Eta, tokian tokikoari so eginez, Komentu bakoitzeko berariazko ekimen ezaugarriei axola gehiagoz begiratzen saiatu gara (Bilboko obra soziala, Iruñeko parroki proiektua, Tolosako erromesaldien antolaera, Donostiako katekesia, Zarauzko eskolagintza, etab.).

Oro har, Komentuak prozesu orokor berrietan nola sartu diren erakusten ere egin dugu ahalegintxoa (Komentu eta Anaiarteen parrokiatartzea, adibidez), eta monografia bakoitzean, zegokion azalpena eman diegu horrelako bilakaerei.

XIX-XX. mendeetako Komentuen aldabidean Probintziako testuinguruan eta Komentu bakoitzaren baitan epekapen historikoa marrazten ere saiatu gara. Oro har esan daiteke, Komentu bakoitzeko xehetasun ttipiek ez dutela horretan pisu handirik, eta gehienetan, Probintziako bilaka-lege orokorrak direla nagusi.

Datu kronologiko zehatzagoetara gatozela, arreta berezia jarri nahi izan da datak ongi finkatzen, eta beti ez dugula asmatu seguru izanda ere, horretan jarri den axola lanaren parte zaindu bat izan dela esan nahiko genuke.

Liburuak hiru atal ditu: I. Komentu eta Anaiarteei begiratu orokorra. II. Komentuen historiak. III. Anaiarte Txikien historiak. Lehen parte horrek tokian tokiko historia sakabanatuak prozesu historiko orokorretik begiratu nahi ditu, batez ere Izanberrikuntzaren aroa deskribatuz (75en bat urte, gutxi gorabehera: 1876-1950, edo nahiago bada: 1876-1965), frantziskotartasunaren ondoko bilaketa orokorra erakutsiz. Bigarren parteak Komentuetako antolaera klasikoena erakutsi nahi du, historiak ekarri dituen aldarteetan haiek nola moldatu diren azalduz. Hirugarren atalak, azkenik, erakunde-esperientzia gazte eta libreagoak bildu nahi ditu, Kontzilio-ondoko olatuaren gain datozenak baina historia frantziskotarraren modernitate-aurpegi bat bederen badutenak.

Liburu hau euskaraz idatzi da, eta horrek ere izan ditu bere zailtasuntxoak idazlearentzat, agian irakurleren batentzat izango dituen bezala. Horregatik, hiztegi llabur bat jarri diogu liburuari, irakurleari gauzak apur bat samurtu, eta, esan beharra dago, geure burua behar zenetan zuritzeko.

Liburu honetako testua saiakera historiko gisara aurkezten dugu, aztertu dugun eremu honetako ikerkuntzak dituen muga hertsiez oharturik gaudelako. Hala ere, komentziturik gaude, bere aurrebaldintzak eta guzti, egindako lanak zerbitzu praktiko bat eskain diezaiokeela irakurleari, eta historialari lagunari. Batez ere, aztertutako historia honen lerro nagusiak aski nabarmen

geratzen direla uste dugu, eta hainbat datuz mugarriztatuak. Lehen urratsa da, berehala eta beti harago iristeko.

3. Gure zorrak

Honelako historia orokorreko testua, gaiek aurrera egin ahala, zorrak metatuz idazten da beti. Eta ez da liburu hau lege nagusi horren kontrako inolako salbuespena. Zorrak, dagoeneko argitara emanda dauden idazlan eta idazleekin; zorrak, artxibo-bilaketan lagundu dutenekin; zorrak, argitara eman gabeko ikerlan eta ikertzaileekin; zorrak, azkenik, argitaratzaileekin.

Hori guztia gabe liburu hau ez zen iritsiko irakurlearen eskuetara. Horretarako, idazlearen beraren lana bezain premiazkoak dira beste laguntza horiek.

Eskerronez aipatu nahi ditut lanbide honetan nire maisu izan ditudanak, aspertu gabe irakurritako autore eta idazlanak. Ondare bikaina jasoz eta bere aldetik lan gaitza burutuz idatzitako *La Provincia Franciscana de Cantabria*, ***Anjel Uribe***-rena, da hemen lehen aipatzekoa. Aztertuko dugun gure aroa ez du arakatu oraindik obra horretako lehen bi liburukietan; baina, Erdi Aroa eta Modernoaz premiazko argibideak azaltzeaz gain, gure monografietan aurreko mendeetako sarrera laburrak emateko, bera izan da, duen segurtasunagatik, gidari saihestezina, Orrialdeok moldiztegirako irtetean galdu dugu Aita Anjel adiskide maitea (Bermeo, 2002-02-26). G. B.

"Ogibidezko" historialaria izan gabe, Nafarroaz egindako lanengatik ***Lukas Arizeta***-k († 1996) bere lekua merezi du hemen: honen obra sakabanatuek, *Navarra franciscano-observante. Monografias conventuales navarras* eta *Olite franciscano (1243-2000)* deritzen liburuak osatzen dituzte nire liburutegian. Horrekin esanda dago, behar izan dudanean, Arizeta lagun ona izan dudala, Nafarroako komentuen historia orokorra ezagutzeko, eta berezikiago Erriberrikoak jakiteko. Lagun ona, eta hala ere tentuz irakurri beharrekoa.

Zorionez, hemen, beste autore batekin ere topo egiten dugu: ***Pio Sagues*** († 1989). Honek zerbitzu bikoitza egin digu: batetik, Nafarroako historia frantziskotarraz[ofm] arduratu zen, eta bestetik, Iparraldeko historia garaikidearekin osatu zuen hori, Aresoren biografia heldu bat ematean. Biongatik naiz zordun Aita Pio adiskide zenarekin.

Izan ditu Iparraldeak, espero zitekeenez, Pirinioez haraindiko historialariak ere. Zor berezia dut Anaia ***Hugues Dedieu*** artxibozain eta ikertzailearekin, argitara eman dituen lanengatik ez ezik artxiboetatik bidali dizkidan agiri eta fotokopiengatik. Bestalde, erraztasun handia izan da niretzat Donapaleun bertakoa, ***J. J. Iturriotz***-en eskutik etorri zaidana. Nire eskerrak biei.

Hegoaldera itzuliz, Izanberrikuntzaren aurreko hamarkadetan (1794-1875), argitalpen-hutsunea erabatekoa da, eta betetzen oso zaila, hain zuzen parte handiz Komentu itxietatik iraitzita gizarte gorrira joan behar izan zuten fraide ohi sakabanatuen historia delako. Bestalde, Etxeak izanberritzeko ahaleginen historia frantziskotar[ofm] hau ez du inork oraindik ikertuta argitara

eman, Solaguren/Maiz-en liburu laburrean ezpada. Horregatik, aitortu behar dut, liburu hau ahalbideratu duen mesederik eskuzabalena Aita ***Zelestino Solaguren***-i zor diot, oraindik argitaragabeko bere *Los franciscanos vasco-cántabros en el siglo XIX. Vicisitudes y nomenclador bio-bibliográfico* deritzan laneko sarrera historikoak eskueran jarri dizkidalako[3]. Solaguren-en hau lotsa gutxiz erabili dudala esango nuke, baina saiatu nahiz behin eta berriz informazio-iturria garbiki adierazten. Ez dakit zorra kitatzeko lain izango den!

Liburu honetako alde kuantitatiboak asko zor die (XX. mendeaz ari naiz orain, bereziki) Manolo ***Beraza*** eta Luis ***Agirrezabala***-ri († 2000-05-05). Aipatuta daude berauen lanak bibliografian, eta monografietan daude beste inondik jaso ez ditzakegun datu estatistikoak.

Frantziskotarrek[ofm] beren artxibategietan eman dizkidaten erraztasunak mugarik gabeak izan dira, Zarautzen bezala Donostian edo Arantzazun; behin baino gehiagotan, gainera, zenbait bilaketa ere egin dute lan honetarako Komentu horietan eta bestetan. Horrek guztiak urrea balio izan du nire lanean. Joseba ***Etxeberria*** ahazteke, Aita Kandido ***Zubizarreta***-ren prestutasuna aipatu nahi nuke. Azken hiru hamarkadetako albisteak esku onetik etorri izan zaizkit, eta sarritan gainera: Probintziako Idazkaria den Xebero ***Zinkunegi*** izan dut nire itsu-mutila. Gaurgero, lasaitu ederra hartuko du, noski, Xebero adiskideak, liburu hau bukatu zaiola jakitean! Azkenik, Paulo ***Agirrebaltzategi***-ri edizioan jarri dituen arreta eta bihotza zor dizkiot. Eskerrik asko argitaratzaile adiskideari.

Juan ***Zelaia Letamendi*** jaunak, gure Fundazioko Lehendakariak, Erakundean eman didan erraztasunik gabe ezingo zen lan hau abian jarri eta burura eraman. Lanaren beraren oinarrian dago hori: bihotzez eskerrak berari.

Lankidetza emankorra izan da Komentu edo Anaiarte bakoitzeko hainbat lagunena; tokian tokiko laguntzaile hauen izenak aipatuta daude, dagokien lekuan. Handia izan da guztiek laguntzen jarritako interesa, eta batzuetan orduak eskatu dituen lankidetza eskaini didate. Eskerrik asko Komentu bakoitzeko lankide lagunei.

4. Liburuko irudiztapena

Testuarekin batera, liburu honetan Komentuetako espazioak eskaini nahi izan ditugu, eta barruan gordetzen diren obra historiko-artistikoak, gaur egungo Anaiek ere leku bat dutela.

Eraikin eta espazioak Komentuetako giza lagunartearen testigu hotz ez ezik Anaia bakoitzaren izpiritu-gordeleku izan dira, berorien altzoan piztu eta garatu da norberaren gogoa, hortxe lekutu da balioen gordailua, elizan bezala klaustroan, logela isilean legez liburutegian, sakristian eta baratzean, kantuan nahiz otoitzean, elkarrizketan edo isiltasunean...

[3] Hori, izendegi bio-bibliografikoarekin batera, argitaratzean, egoera berri batera pasatuko da XIX. mende horren gure ezagutza.

Horrek guztiak bere estetika izan du, batzuetan ohartuta bizi izandakoa (adibidez, Arantzazuko komentu-txokoez bazuen Gandiagak bere gogoeta poetikoa eskaintzeko asmorik), edo askotan sobera begiratu gabea baina beti eraginkorra bizilagun bakoitzaren baitan. Arreta handiz zaindu du hemen ***Idoia Unzurrunzaga***-k espazio horien dardara eta argia nola jaso, forma landu horiek beren soiltasunean irudiz nola edertu. Begiratzekoa den lan arretatsu baten aurrean gaudela esango nuke. Horren ondoan, eta beste betekizun batekin, nire argazki lekuko zenbait ere lagungarri izango dela uste dut.

Jakina denez, eliz erakundeek zizel- eta margolan asko metatu izan dute mendeen etorrian. Bada hortik azken urteetan Erakusketa ederrik franko, eta baita Museo bereziturik ere, hori dena erakusteko. Euskal Herriko frantziskotarrek[ofm], altxor handi paregaberik ez izan arren, gorde eta sortu duten baliozkoa bederen aurkeztu nahi digute, partez behintzat, ondoko orrialdeetan. Larrinagak bere garaian eman zuen horren berri (1923), eta katalogatu dira behintzat geroztik obra horiek (1993).

Santutegiko Mendeurren hau ospatzean, beste balio sozial eta dokumentala bildu nahi izan da Fraidearteei dagozkien argazkietan, hain zuzen erlijioso-bizitzaren kapitulu handi bat ixtera doan honetan Arantzazuko Frantziskotar Probintziaren lekuko grafikoa ondoko belaunentzat uztearren.

• • •

Mendeurreneko Batzordeak hola erabakita dator argitara liburu hau. Argitalpena bideratu dugun guztiontzat ohore bat da egiten zaigun harrera hori. Mila esker anitz, ba.

Euskal Herriko historia erlijioso eta sozialaren mugimendu frantziskotar zabaleko euskal erakuskaria da orrialde hauetan ageri dena, baina iraganaz eta promesaz ernaldurik datorren albistegia izan nahiko luke.

Itxaropen horrekin, ba, "baginenak bagara; etortzekoa, jinen da".

J. I.

1. Atala

Komentuen historiari begiratu orokorra

Liburu honetako orrialdeetan frantziskotarren[ofm] Komentuetako Euskal Herriko historia garaikidea bildu nahi izan dugu[1]. San Frantziskok ez omen zituen fraideentzako *komentuak* eta *etxeak* maite (ik. 2C 58), beldur baitzen halako eraikinek pobretasunari kalte egingo ote zioten. Baina geroko historian ehundaka Komentu frantziskotar ezagutu da, Europa eta Ameriketan batik bat. XIII. mendetik hona, bizileku horietan eman dute beren bizialdia fraide eta moja frantziskotarrek, milakak eta milakak.

Hona bildu dugun historia, esan bezala, Euskal Herrikoa da, eta 1791tik 2000 artekoa. Horrek, ordea, bere historiaurrea izan zuen, XIII. mendetik zetorrena, eta garaiko bere inguru sozio-eliztarra ere bai, egon ere euskal gizartean eta gainerako eliz erakundeen artean lekututa egon baitzen Komentuon bizitza.

Hortaz, Komentu-historia hori bere testuinguruan ulertzeko, bidezkoa izango da hemengo Diozesi eta beste Institutu Erlijiosoei buruz zertxobait esatea, ondokoaren atariko bezala. Frantziskotartasunaren Euskal Herriko pisu erlatiboa ulertzeko ere ezinbestekoa da inguru orokor horri begiratu bat ematea, eta hauxe da lehen atalburu honetan egingo duguna.

Bestalde, gainerako Institutu Erlijiosoetakoak bezala, frantziskotarren[ofm] Komentuak Euskal Herrian beren berariazko historia eginez etorri ziren Aro Garaikidea arte, eta 1794a aurreko erro historikoak ezagutzea premiazkoa gertatzen zaigu ondoko urteetako nondik norakoa argitzeko. Ondoren datozen Komentu-mografietan, ba, tokian tokiko Komentu bakoitzari 1794aren aurrekoaz atari historiko labur bat eskainiko diogu liburuan.

Frantziskotarrek[ofm] eta berauen Komentuek Euskal Herriko Institutu Erlijiosoen artean leku estimagarria izan dute, pisu erlatibo handiago batekin Erdi Aro eta Aro Modernoan, eta apalago baina indartsu Aro Garaikidean.

I. Diozesiak eta Institutu Erlijiosoak

Euskal Herriko kristautzean epekapen eta erritmo bereziak bizi izan ziren: Europako beste hainbat herri baino beranduago joan zen kristautzen euskal gizartea, eta kristautze horren barnean eliz erakundeen sortze eta garapenak ere ez ziren gure Herrialde guztietan aldi berean egin.

Une historiko bakoitzak eskaintzen du, beraz, bere berariazko aurpegia, Euskal Herriko Diozesi eta Parrokien geografian. Dena den, hori zen euskal kristauartearen gobernu arrunterako antolaera.

---

[1] Esan dezagun, hasieratik bertatik, frantziskotar hitzaren hiru adiera aurki ditzakeela irakurleak liburu honetan: 1. San Frantzisko Asiskoren jarraitzaileen mugimendu osoa (erlijioso eta sekularrena, katoliko eta ez-katolikoena); 2. Izen hori daramaten Institutu Erlijioso katolikoen multzoa (Lehenengo, Bigarren eta Hirugarren Ordena Erregularrekoak); 3. Institutu Erlijioso frantziskotar horien artean, berezikiago "frantziskotar" bezala izendatu ohi den Ordena edo Institutua, hau da, ofizialki Elizak "Ordo Fratrum Minorum" bezala ezagutua (=OFM); kasu honetaz ari garela, testuinguruak argi uzten ez duenetan frantziskotar[ofm] bezala aipatuko dugu Ordena edo Institutu erlijioso hau. Esan gabe doa, liburua oro har frantziskotarren[ofm] Komentuez ari dela, behar denetan bestelako frantziskotarren albiste osagarriak ere bilduz.

Ohar horrek berdintsu balio du Institutu Erlijiosoentzat ere, baina, kasu honetan, kristauarteko gobernu bereizi eta ez-ohikoaz ari gara. Hauen Euskal Herriko garapenak ere bere ibilera izan du, alde batetik Ordena edo Institutu bakoitza bere garaian sortua zelako, eta euskal gizartean bakoitzaren errotzea pausuz pausu gertatu zelako. Horrela, bilakabide luze baten ondorioz, XVIII. mendean eman daiteke osorik bukatutzat Monasterio eta Komentuen Euskal Herriko sarea. Eta gero, gerokoak.

1. Euskal Herriko Diozesiak

Eliztarren ohiko gobernu eta zerbitzuetarako, Eliza Katolikoak bere barruti propiotan antolatu zituen herri eta auzoak, askotan botere politiko zibilak zituen eremuekin ados ez zeuden barrutitan banatuta. Elizbarruti horiek Diozesi eta Parrokiatan zeuden eraturik.

Euskal Herria historian zehar aldi bereko eta elkarren jarraiko Diozesi ezberdinetan banaturik egon da, batzutan Gotzaindegien egoitza Euskal Herrian bertan zelarik (Iruñea, Armentia, Baiona), eta bestetan, inguruko lurraldeetan lekuturik (Kalahorra, Akize, etab.)[2].

Euskal Hegoaldea, nagusienik, bi Diozesi handitan bildurik ageri zaigu Erdi Aro eta Modernoan: Iruñeko Gotzainak Nafarroa eta Gipuzkoa gehienak zituen bere ardurapean, Araba eta Bizkaia ia osorik Kalahorrako Apezpikuaren esanetara zeuden bitartean. Hori izan zen Hegoaldeko eliz geografi diozesitarra, nahiz eta ez den ahantzi behar Hegoalde horretako ertzetan Santandere, Burgos, Tarazona eta Zaragoza ere sartzen zirela.

Bestalde, Baionak Hegoaldean izandako eremuaz esango da, berehala, behar dena. Tutera beregainak bizitza laburra izan zuen (1783-1851), eta Tarazonatik eraman izan zen hango gobernua, XX. mendeko bigarren erdialdia arte. XIX. eta XX. mendeetan aldatu zen aspaldidaniko egoera orokor hori.

Adibidez, Gasteizko Diozesia jaiotzean (1862) Iruñekoari Gipuzkoa kendu egin zitzaion. Eta, Gasteizkoa hiru barruti berritan zatitzean (1949), Bilbo eta Donostiako Diozesiak eratu ziren. Geroztik, Nafarroa ere berrantolatu egin da: e. b., Tuterakoa Iruñera bilduz, eta berrikitan zenbait parrokia ere irabaziz Erriberan (1955).

Aldaketa hauek guztiak Araban Trebiño Gasteiza ekarri dute, Bizkaia osoa Bilbokora, eta Donostiakora Gipuzkoako Herrialdea osorik. 1956an Iruñeari Artzapezpikua eman zitzaion, eta Gipuzkoa Eliz Probintzia horren barruan gertatu zen, Bizkaia eta Araba Burgoskoan utzi ziren bitartean

Oro har, ba, Hegoaldeko lau Herrialdeak Diozesi banatan daude ezarriak gaur egun: Araba/Gasteiz, Bizkaia/Bilbo, Gipuzkoa/Donostia, Nafarroa/Iruñea.

Iparraldeko historia aski bestelakoa izan zen, Erdi Aroan eta Modernoan, Hegoaldeari Iruñeak eta Kalahorrak eman zioten batasunik gabekoa, alegia. Hain lurralde mugatua gorabehera, Ipar Euskal Herria Baiona, Akize eta Oloroeko Diozesietan banaturik egon zen.

Baionakoaren orduko barrutiak Lapurdi eta Nafarroa Behereko parte bat ez ezik Hegoaldeko Baztan, Bortziriak eta Hondarribia ere hartzen zituen (1567a arte). Hegoaldeko hau gorabehera, Iparraldean Akizek ezartzen zizkion mugak Baionako Diozesiari, Nafarroa Behereko Amikuze eskualdea eta Zuberoa bere menpe baitzituen Akizek.

XVI. mendean Baiona/Akizeren arteko egoera hark garrantzizko aldakuntza ezagutu zuen: Zuberoa Oloroeko Apezpikuak hartu baitzuen bere ardurapean (1566). Horrela, Erdi Aroan bitan banatutako Iparraldea (Baiona/Akize), Aro Modernoan hiru Diozesitan sakabanatuta geratu zen.

[2] Hemen ez gara Euskal Herri historiko galduaz ari, gaur egunekoaz baizik.

Leire-ko Monasterioa (IX. mendea): Monasterioetan, Eskeko Ordenen aurreko tradizioa batez ere beneditarra da Euskal Herrian.

1789ko Iraultzarekin batasun-bide berri bati heldu zitzaion. Irizpide politiko berriei jarraiki, Diozesiak Departamentu zibilen eremuetara mugatu nahi izan ziren. Horrela, zalantza batzuen ondoren, 1801eko Konkordatuaren arabera, Baiona berriro apezpiku-hiri bilakatu zen, Oloroe-ren kaltetan, eta 1823az geroztik Diozesi-barrutitzat Pirinio Behereetako Departamentua eman zitzaion, Oloroe desagertuaren, Akize murriztuaren eta Leskar irentsiaren kaltetan. Gaur egun egoerak horrelaxe dirau.

Diozesien bilakaera geografiko horren barnean joan ziren Parrokiak sortzen, eta herritarrak berorietara biltzen. Elizako bizitza arrunta eraturik zegoen beraz.

Baina, historia diozesitar horren parekide, beste antolamendu eliztar bat joan zen garatuz, kristau biziera bereiziak eta ez-ohiko zerbitzu pastoralak eratuko zituen Institutu Erlijiosoena.

2. Institutu Erlijiosoak (VIII-XIII. mend.)

Eliza Katolikoan, eta beste zenbait Eliza kristautan, Diozesiek eta berauetako Parrokiek ez dute agortu, berek bakarrik, Elizaren lurralde-antolamendu instituzional osoa; aitzitik, berorien barruan eta ondoan, goizik agertu ziren Ordena Erlijiosoak, hainbat kristau kezkati elkar-bizitzara bilduz eta halakoei aparteko bizimodu instituzionala legez segurtatuz. Horrek, eliz geografia eta zuzenbidearen antolaera berria ekarri zuen.

Institutu hauetako hainbat izan dugu Euskal Herrian, frantziskotarrak hemen agertu aurretik eta ondoren, eta ongi etorriko zaigu, testuinguru historikoaren mesedetan, Erakunde hauen Euskal Herriko historiari begiratu xume bat ematea.

2. 1. Leben urratsak (VIII.az geroztik)

Kobazulo, ermita edo monasterioetako banakako edo taldekako biziera erlijiosoa, dakigunez, Penintsulako euskal hegoan (erran nahi baita, Araban eta Nafarroan) ezagutu zen lehenik Euskal Herrian.

Araban ezagunak dira eremiten kobazuloak (Laño, Faido, Albaina, etab.), agian arabiarrengandik ihesi etorritako monjeren batzuek beren bizilekutzat hartutakoak, VIII-X.mendeetan edo.

Bestalde, ermitau gisara edo bestela bizi izandako eremitatasuna historia luzeko zerbait gertatu zen Nafarroan, Lehen Erdi Arotik aurre-

ra. Adibidez, hainbat mende geroago, XVII.ean, 65 ermitetan zeuden ermitauak Nafarroan. Ermitau haiek beren erreforma formalak ere izan zituzten, eta inoiz antolamendu arautua eman zitzaien, gainera, Nagusi Jeneral batekin (1585, 1670). Euskal Herrian, bizitza erlijioso antolatu herritarrena ermitauen hau izan zela esan daiteke, eta monasterioetakotik aski urrun egon arren, aipatzekoa zen hemen gure lurraldean izandako garapen eta iraupenagatik. Baina Monasterioen historia da berezikiago begiratu nahi duguna.

2. 2. Nafarroako Monasterioak (IX-XIII. mend.)

Monasterioetara gatozela, IX-XIII. mendeetako, eta geroko, Monasterioen Euskal Herriko historia orokorra egiteke daukagu, eta horregatik ere, ongi etorriko zaigu kronologia bederen gogoraraztea. Lehenengo albisteak IX.ekoak ditugu, eta Pirinio-aldekoak dira: Usun-goaren sagaratzea (829); San Eulojioren bisita, hainbat Monasterioren aipuarekin (848), etab.

IX. mendeko Monasterioak bisigotuondoko korrontean zetozenak ziren, batez ere San Fruktuoso-ren Erreglaren bidetik Penintsulan sortu zirenen moldera, baina inoiz mundu karolingiarrekoen arrastoan ere iradokizunik bilatuz. Erromatik gidatutako monasterioen beneditartzeak ez zuen izan, artean, Euskal Herrian eta Penintsulan XI. mendearen hondarretatik aurrerakoan irabazi zuen indarrik. Beneditar aurreko lehenengo saio hartan oinarritu zen, parte on batez, aipatzera goazen Errioxako hurrengo monastegien sortze-berritzea.

X. mendean, Nafarroako ipar mendialdean baino Ebro-aldeko lurralde irabazi berrietan izan zuen bere garapen-lurraldea, Errioxan. Gogora ditzagun, gaurko Nafarroatik at dauden baina orduko Erreinukoak zirenak eta/edo bertatik gidatutakoak: Albelda (924) eta Donemiliaga (*c.* 931), adibidez. Kulturgune bizi eta eraginkorrak gertatu ziren Ebro-aldeko hauek, eta ez lehen mende hartan bakarrik, zeren XIII.a izan baitzen, e. b., Donemiliagako unerik ederrenetakoa. Errioxatik mendialdera itzuliz, Aralarko San Migel jaiera handikoa zen Nafarroan. Azken datu arkeologikoen arabera, lehen eraikinak mende honetakoak izango lirateke Aralarren, nahiz eta San Migelen eliza ez den azaltzen agiriztaturik 1032a arte.

XI. mendean —Santiago-Bidetik Europara irekitzean eta eliz egituren erreforma gregoriotarrari gogoz ekitean— Nafarroako Monasterioak ere biziberritu egin ziren, alde batetik Abade atzerritarrak gidaritzat hartuz eta, aldi berean, arautegiaren beneditartzea onartuz. Bi monasterio handi izan ziren sistemaren ardatz, mendearen azkenean: Leire eta Iratxe. Klunitar monje beltzen arauetara moldatuz zihoan monasterioen sare nafarra une hartan.

Hurrengo mendean, ordea, XII.ean, ordenamendu hain ongi eratu hura dena mugitzen hasi zen, berriz ere Europa aldetik zetozen eredu berrien enbataren eraginez. Zistertarren gizaldia izan zen hamabigarren hau, "monje zuriena", eta Europan, eta Euskal Herrian ere, Monasterio berreratuak nahiz berriak sortu ziren: Fitero (1140), La Oliva (1150) eta Irantzu (1176); eta emakumezkoentzakorik ez zen falta izan: Tulebras (1149) eta Martzilla (*c.* 1160). Monasterio beneditar edo beneditartuen ondoan, jada bazen bestelakorik ere, eta Ospitalari sanjoandar (1120) eta tenplariek (1131), eta Orreagako Ospitale-Kabildoek (1127) osatu zuten, orduan, eliz erdigune nagusien Nafarroako mapa.

XIII. mendea iristean, Monasterio jasoenen erakundezko pisua handia zen Erreinuan; horregatik, beronen egitura politiko orokorrak antolatzean, leku jakina eman zitzaien monasterioei, Gotzainarekin batera Gorteetan Eliz Besoa osa zezaten, geroko Eskekoek ez bezala.

Ibilera honen guztiaren ondorioz, Erreinua aski heldua zegoen XIII.ean Eskekoen indar berriak onartu eta garatzen laguntzeko.

2. 3. Beste Herrialdeetako Monasterioak (XI-XIII. mend.)

Nafarroan hau dena burutzen zen bitartean, Monasterio handien presentzia askoz eskasa-



Tibalt II.a, Nafarroako Erregea (1253-1270):
XIII. mendean Nafarroako Erregeek (bereziki Tibalt I.ak eta II.ak) Eskeko Ordenei eman zieten sarbidea beren Erreinuan. Horren agiri lekukorik onena Tibalt II.aren hilburukoa da, komentuak banan-banan izendatu eta laguntzean (1270).

goa izan zen, edo apalagoa behintzat, Euskal Herriko beste Herrialdeetan, Hegoaldeko hiruretan eta Iparraldean. Azken honetan, Lehuntzeko monasterio premontretarra (XII.ean) eta Baionako San Beñat gogora daitezke (azken hau, 1245ean, zistertar emakumezkoen etxe bilakatua).

Hegoaldean, ostera, Araba oso loturik ageri zaigu Errioxako Donemiliagarekin (ikus herrien 1025eko zerrenda), eta euskal monasterioen beneditartzeak bere lekua izan zuen hemen ere. Bitartean, Bizkaia eta Gipuzkoa Iparraldeko egoeratik hurbilago zeuden, beren "monasterio-parrokia" laikoekin, Gotzaindegi eta monasterio handirik gabe, baina Nafarroa edo Errioxakoek han-hemen eskuren bat zutela (Donostian, adibidez).

XIII. mendearen erdi aldera bestelako epealdi bat hasi zen Monasterioentzat, eta esklerosi sozio-instituzional batek jota garai berriei erantzuten ez zuten asmatu, nonbait, hurrengo mende t'erdian, behintzat. Berant Erdi Aroko monasterio-munduak, ba, aurreko mendeetako adorea galdu zuen.

Erakunde berrien ordua gertatu zen hura.

2. 4. Eskeko Ordenen hedapena (XIII-XVIII. mend.)

Eskeko Ordenek XIII. mendean bertan ezarri ahal izan zituzten beren oinarriak Euskal Herrian, nahiz eta Gipuzkoa eta Bizkaira sartzea askoz gehiago kosta zitzaien. Iparraldean, berriz, Baiona eta gainerako lurraldea bereizi behar dira, ikusiko dugunez.

Berriro ere Nafarroako Erreinua izan zen Erlijioso-Erakunde berriei ateak berehala ireki zizkiena, baina Araba eta Baiona ez ziren atzera geratu. Tibalt II.aren hilburukoak (Gurutzadan zegoelarik Kartagon 1270ean emanak) zabalki erakusten du, Ordenaz Ordena eta herriz herri, Eskekoen zenbat fraide-etxe ireki zen hogeita hamar edo berrogei urtetan, nahiz eta zerrenda osoa ez den: frantziskotarrenak 8 aipatzen ditu (horietako bi, eraikitzeko zirenak), domingotarrenak lau (bi eraikitzeko zeudenak), hirukoiztarrek bat zuten eta moja klaratar frantziskotarrek bi.

Gasteiz eta Baiona izan ziren Eskeko Ordenen hedapenaren beste lekukoak XIII.ean, artean Bizkaia, Gipuzkoa eta Iparraldeko Barnealdea halakorik gabe geratzen ziren bitartean. Ondoko mendeetan beteko zuten hauek Herrialdeotan beren ibilera.

Ez da hau Ordena edo Institutu guztien historia egiteko parada, baina argigarria izan daiteke, adibide gisara, Erregimen Zaharreko azken orduetako egoera euskal hiriburuetan zein zen ezagutzea, zeren Aro Modernoan ere haziz joan baitziren Eskekoak eta Ordena gazteagoak ere (Jesus-en Lagundia, adibidez), eta XVIII.aren azkenetako komentu-sareak aurreko ia milakada osoan metaturiko garapena ongi islatzen baitu.

Euskal Hiriburuetako balantze hori egiteko, bi data jakin hautatu ditugu: bata Frantziako

Iraultzarena Iparralderako (1789), eta bigarrena, Historia Akademiaren Hiztegiarena (1802). Laburtuz, hauek dira datuak: gizonezko eta emakumezkoen Monasterio-Komentuak 14 ziren Iruñean, 13 Bilbon, 12 Baionan (1789), 6 Gasteizen eta 5 Donostian. Ez da ahantzi behar, gainera, Jesusen Lagundiko Etxeak hamarkada batzuk lehenago itxi arazi zirela eta ez ditugula hemen zenbatu.

Berehala, frantziskotarrenari heldu beharko diogunez, esan dezagun Hiriburuetako 50 erlijioso-etxeetarik 16 zirela data horietan frantziskotarrak[ofm], moja nahiz fraideenak. Herrialdeak osorik hartuta, Etxe frantziskotarren portzentaia are gorago zihoan, gainera.

2. 5. Esklaustrazioak eta Izanberritzea

Erdi Arotik zetorren monasterio eta komentu-sareak astindu-aldi bortitza jasan zuen, politika-aldarteen arabera, Iraultzatik berehala Iparraldean (1791) eta erreforma liberalekin Penintsulan (1834-1840).

Esklaustrazioarekin desagertu ziren komentu denak Iparraldean, gizon eta emakumezkoenak, eta gizonezkoenak Hegoaldean. Eten historikoa izan zen gertakari hau erlijiosoentzat. Estua zen, bestalde, Hegoaldeko mojen egoera ere, zeren eta Konbentzioko gerrateak lehenendabizi (1794), eta Gerrate Napoleondarrak (1808-1814), Hirurteko Konstituzionalak (1820-1823) eta Gerra Karlistak gero (1833-1839) gogor jo baitzuten Komentu-Monasterio anitz.

Gertaera haien ondoren, Euskal Herriko Institutu Erlijiosoen izanberritzea IPARRALDEAN hasi zen (1850aren inguruetan), eta Hegoaldean berehala. Baina ondoko hazkuntza goiztarrak Iparralde horretan bere etenak izan zituen 1880an eta 1903an, Frantziako III Errepublikako lege eta politikaren ondorioz. Eskuindarren ("zurien") eta errepublikazaleen ("gorrien") arteko liskarrek luze iraun zuten Iparraldeko herrietan, eta Kongregazio erlijiosoena izan zen auzietako bat erregimen errepublikarrarekin.

Frantziako krisi haiek ondorio zuzenak izan zituzten Hegoaldean ere, zeren euskal Hegoaldera fraide eta moja anitz pasatu baitzen babes bila, Penintsulan etxe berriak eratuz. Hegoaldeko Irakaskuntzan, batik bat, XX. mende osoko ondorenak izan zituzten erbesteratze haiek. Handik jaioak dira, esateko, Gurutzeko Alaben Etxeak, edo Lasalletarren Gipuzkoako Ikastetxeak.

Baina, Frantziako azken gertakari horien aurretik ere, HEGOALDEAN beren baitandik lehia bizian garatu ziren Institutu Erlijiosoak berriro, batez ere sistema politiko kanobistaren hamarkadetan (1875-1931), eta II. Errepublika eta Gerrate Zibilaren ondoren (1939...).

1950-1965.etako urteetan bere indar betean ageri da Euskal Herriko erlijiosoen mundua, eta frantziskotarrentzat ere hori da garairik oparoena. Hori dena XX. mendean nola joan zen ikusteko deigarriak dira lauki honetako datuak.

EUSKAL HEGOALDEKO ERLIJIOSO-ETXEAK[3]

Herrialdea	*1917*	*1953*	*1999*
Araba	34	47	82
Bizkaia	128	210	249
Gipuzkoa	131	228	208
Nafarroa	111	206	219
Iparraldea*	99	92	53
Orotara	***503***	***783***	***811***

* Iparralderako bildu ahal izan ditugun urteak beste hauek dira: 1880, 1971, 1998. Ik. beheko oharra.

[3] ITURRIAK: (1917): *Anuario Eclesiástico*. Barcelona.– (1953): *Anuario católico español*. Madrid.- CONFER (1999): *Guía de las Comunidades religiosas*, Madrid. Argitalpen honetako kopuruak berrikusi egin beharko dira Diozesietako gida-liburuetan, ez baitu berorrek fidagarritasun osorik. Esan bezala, Iparraldeko urteetarako (1880, 1971, 1998) erabili diren iturriak hauek izan dira: (1880): *Ordo divini Officii recitandi*. Baionae: E Typis E. Lasserre. 152-154; (1971): *Annuaire du Diocèse de Bayonne*. S.l. 99-112*; (1998): *Annuaire du Diocèse de Bayonne*. Bayonne: Évêché de Bayonne.160-172. Hortaz, ematen ditugun batuketetan

Ikus daitekeenez, azken Gerrate Karlistaren ondoko berrogei urteek ongi hedatu zuten erlijiosoen etxe-sarea (1880 + 1917.etan 503 Etxe), batez ere Kongregazio modernoen zabalkuntzarekin (irakaskuntzan, osasun- eta gizarte-zerbitzuetan), eta, hein apalago batean, Institutu zaharrak izanberrituz. Baina loraldi handiaren urteak hurrengo mende-erdikoak izan ziren (1917-1953/1971), aurreko egoera kasik bikoiztu egin baitzen.

Laukiko datu hotzek, eta nabartu gabeek, ez dute ispilatzen Hegoaldean azken hamarkadetako aldakuntza, ezkutatu baizik (1917-1999). Izan ere, beste albiste-iturrietatik jakin badakigu Institutu guztiek egin dutela behera Euskal Herrian, 1970az geroko hamarkadetan; hala ere, Hegoaldeko etxe edo komunitateen estatistikek (Gipuzkoan salbu) oraindik zerbait gora egiten dute 1953tik mende-bukaera artean (783 Etxe/ 811 Etxe). Zer da zinez gertatutakoa?

Hegoaldean bezala Iparraldean (datu kontrajarriekin: batean gora eta bestean behera) prozesu bera islatzen dute: bokazio gazteak batbatean urritzearen ondorioz eta hainbat lagunek bizitza erlijioso instituzionala utzi duelako, Institutuen pertsonala nabarmenki urritu da; hortaz, etxe-kopurutan edo/eta komunitatetako pertsonalean birmoldaketak egin behar izan dira. Eta egokitzapen hori, lehenagotik zetozen egoera ezberdinen arabera, bi modutan egin da:

- *Iparraldean*, serora-taldeak lehendik ere normalean txikiak, eta ugari, zirelako (herrixketako eskola-zerbitzuetan zebiltzan bizpahiru laguneko taldetxoak), pertsonal-eskasia etortzean hainbat talde desagertu egin da (herri anitzetako etxeak lagata).
- *Hegoaldean*, arrazoi beragatik, zenbait Etxe handi hustu egin da, eta talde txikiagotan banatu, bizitza eta lana beste modu batean eramateko (beraz, 1953-1999.etan Etxeak ugaritzeak ez du esan nahi, erlijioso gehiago dagoenik), edo egitura orokorrak gora egin duenik.

Laukiko zenbakiek, beste gabe, ez dute garbiki erakusten Institutuen prozesu osoko zinezko indarra, 1953ko Etxeen eta 1998koen "barnebalioa" oso ezberdina izan delako data bietan, eta biziera eta lan-planteamoldea aldatu̇rik daudelako orain (Institutu Erlijiosoen ardurapeko lantegietatik kanpo ere egiten da lan, presentzia sozialak aniztasun handiagoa du bere moduetan, eta elkarbizitza ere ez da lehengoa bera).

Baina laukiak zera uzten digu argi: Etxe erlijiosoen XX. mendeko sarea benetan trinkoa izan dela euskal geografia osoan, eta presentzia eta seguraski eragin handikoa, Institututan, Etxetan eta fraide-seroratan. Hori zen esan nahi genuena.

Testuinguru garaikide garatuago eta Aro Modernokoa baino askoz zabalago honetan, Ordena frantziskotarraren[ofm] presentzia erlatiboki apalagoa bilakatu da Aro Garaikidean; hala ere, frantziskotar arrasto zabalean datozen gaurko beste Institutuak ez dira garai bateko Ordena izanberrituak bakarrik, Euskal Herrian ere Kongregazio moderno frantziskotarrek beren garapena izan baitute.

Begiratu orokor honen ondoren, pasa gaitezke orain frantziskotarrei buruz orokorki eta frantziskotarrez[ofm] berezikiago oinarrizko albisteak ematera.

II. FRAIDE FRANTZISKOTARRAK EUSKAL HERRIAN (XIII-XX. MENDEAK)

Esan bezala, XIII. mendean gure herrira etorritako Eskeko Ordenen artean lehenengoetakoa izan zen frantziskotarrena (segur aski 1220.ko hamarkadan). Handik hona beti egon da Euskal Herrian fraide edo moja frantziskotarrik, Esklaustrazioak berak ere ez baitzituen itxi

urte ezberdinak nahasten ditugu Hego-Iparraldeetan. Horretarako arrazoiak zerak izan dira: erabilitako iturrien mugak, alde batetik, eta bestetik, bi Aldeetako histori erritmo ezberdinak. Hala ere, ematen dugunaren arabera, Aro Garaikideko iraupen luzea aski hurbiletik ispilatzen dela uste dugu, prozesu historiko orokorra eta berorren tamaina-modua alegia.

Izaroko Komentua (1422):
Irla honetan frantziskotarrek jarri zuten Komentua Obserbantziako zen. Etxe honekin hasi zen sartzen Euskal Herrian, frantziskotar korronte berri hau.

arazi frantziskotar emakumezkoen Monasterioak, eta euskal fraide asko erbesteratuta ere bere bizimoldean jarraiki baitzen.

Frantziskotar mugimendua Familiarte zabala izan da, ez Ordena edo Erakunde jakin batera mugatua: gizonezkoak eta emakumezkoak izan ditu bere Ordena nahiz Kongregazio ezberdinetan, erlijiosoak ez ezik herritar laikoak ere bai bere Hirugarren Ordena eta bestelako Eliz Elkarteetan. Mende luzetan, sare sozial ongi hedatua izan du mugimendu honek. Hain zuzen, horixe izan da bere indarretako bat.

Eliz Erakunde eta Elkarteen krisi guztien ondoren ere, frantziskotartasunari erakarmen eta xarma berezia aitortu izan zaizkio, Eliza Katolikoan noski, baina baita berorretatik kanpo ere: Eliza Ebanjeliko protestanteetan, erlijio ez-kristauetan, erlijiorik gabekoen artean. Batez ere, mugimenduaren Gurasoa, Frantzisko Asiskoa, da jendeak eta bihotzak irabazi izan dituena. Munduaren eta gizakiaren ikusera frantziskotarrak ez du gaurkotasunik galdu, azken argitalpen ez frantziskotarrek ere erakusten digutenez.

Beren barnean zekarten funtsezko erakarmen-balio horrekin batera, Elkarte frantziskotarrak -jatorrizko balioei helduz, nahiz egokiera historikoez baliatuz- ongi errotu ziren Mendebalde kristauan, eta Euskal Herrian. Horretaz gogorarazi nahi dugu zenbait albiste.

1. Frantziskotarrak: Familiartea eta Ordenak

Jada San Frantzisko bizirik zela (1282-1226) ezagutu zituen fraideen garaiko Anaiarteak bere barne-gatazkak, eta Santuak uko egin zion guztien buru ofizialki izateari, guztiek aitortzen zizkioten maisugoa eta gidari-zeregina ez baztertu arren. Horrela, gatazka haiekin, mugimenduaren eta Ordenaren lehen mendean bertan ereinda zegoen geroko erreforma eta berrikuntzen hazia.

Hau da, izan ere, Ordena frantziskotarraren ezaugarrietako bat, bere barnetik eta baitan aldian aldiko Erreformak piztu eta eratzea, ez noski barruko harremanak tenkatu eta noizbehinka ozpindu gabe, Egoitza Santuaren onarpenak bilatzen ziren bitartean, edo inoiz baita berorren eskumikua irabaziz ere ("espiritual" eta "fratricelli" deituen historia da hori, XIV. mendean). Baina jatorrizko bizimolde eta izpiritura itzuli nahia da Erreforma berriei eta Elkarte beregainei bidea irekiko diena, lehenengo

"komentutartasun" ofizialaren barnean biziera berezia onartzen zitzaiela, gero gobernu-erregimen berezia, eta azkenik aparteko beregaintasun osoa.

Erreforma hauen artean, Obserbantzia deitua izango da XIV-XV. mendeetan indarrik handiena hartuz garatuko dena, hainbat Erreforma txikiago Erakundera bilduz. Azken buruan, Aro Modernoko premia berriei hobeki erantzuten zielako, edo Boteredunek ere (Monarkia modernoek, alegia) beren eliz politikarako egokiago ikusten zutelako, Obserbantziari eman zitzaion frantziskotarren arteko lehentasun instituzionala (1517). Handik aurrera, fraide frantziskotarrak gutxienez "obserbanteak" eta "komentutarrak" izan zitezkeen, Ordena-Erakunde ezberdinetan banatuak.

Baina XVI. mendea ere emankorra izan zen Erreforma berritan, eta obserbanteen eta komentutarren arteko bitasun instituzional hura sortu eta biharamunean, "frantziskotar kaputxinoen" Ordena jaio zen (1528). Ondotik etorri ziren, gainera, Italiako "erreformatuak" (1579), Espainiako "ortozak" (alkantararrak: 1557) eta Frantziako "errekolektoak" (1612). Praktikan Ordena ezberdinak ziren azken hiru hauek, denbora batez edo beti Ministro Jeneralarekin loturarik izan arren, beren gisara gobernatzen baitziren.

Hortaz, ondoko hauek izan ziren Aro Modernoan indarrean egondako fraide frantziskotarren sei Ordena handiak: komentutarrak, frantziskotarrak^{ofm}, kaputxinoak, erreformatuak, ortozak eta errekolektoak. Denak San Frantziskoren jarraitzaileak, baina sei Ordena ezberdin.

Eta gatozen historia honetan guztian frantziskotarrak^{ofm} deitzen ditugunetara, hau da, modu batera nahiz bestera antolaturik ere, "Anaia Txikien Ordena" deritzan Institutu Erlijiosora.

2. Frantziskotarrak^{ofm} Euskal Herrian (XIII-XVIII. mend.)

Erdi Aroan, Euskal Herriko frantziskotarrak Ordena osoko egitura-bilakaeraren arabera joan ziren antolatzen: hasierako ermitau-bizitzari (gogora lehentxeago edo geroxeago zer izan zen Zangozako Rocaforte) komentu-antolaerak hartu zion gaina, Iruñean edo Gasteizen, adibidez. Hortaz, "komentutartasuna" izan zen Euskal Herriko fraideon bizimolde bakarra, harik eta XV.ean hasita Obserbantziak bere lehen urratsak eman (Izaro, 1422; Abandoko Santimamine, 1446, etab.), *c.* 1490-1525etan Hiru Probintzietako komentu guztiak eskuratu eta, ondoren, Nafarroan Erregeren erabakiz eta Aita Santuaren baimenarekin komentuak oro Obserbantziaren eskumenera ekarri ziren arte. Era berean Baionako komentua ere obserbante bihurtu zen. Oro har, 1567an amaitu zen Penintsulan, bortxazko modu txarrean amaitu ere, frantziskotar komentutarren historia[4].

Esan bezala, familia frantziskotarreko erreformatu eta ortozak ez ziren Euskal Herrian sekula sartu, eta errekolektoak oraindik ere Donibane-Ziburuko portuan zutik dagoen Komentua izan zuten bakarrik, Axular eta inguruko lagunen biltokia izandako Etxea.

Mende-erdi bat geroago iritsi ziren frantziskotar kaputxinoak Euskal Herrira (Iruñea, 1606), eta XVII. mendea da berauen goraldi garaia, beren lurralde-gune nagusia Nafarroan zutela; 1657an eratuko zuten barruti beregaina eta 1679an Nafarroa-Kantabriako Probintzia.

Hegoaldean, Aro Modernoko gizonezkoen artean, ba, 1567tik hona hemengo frantziskotar denak Obserbantziakoak izan ziren (hau da, frantziskotarrak^{ofm}) edo kaputxinoak; ez zegoen besterik. 1897ko "Batasun Leondarrarekin" bi Ordena hauek lehengoan segi zutenez, Euskal Herriko fraide frantziskotarren egoera instituzionala ez zen aldatu orduan ere.

[4] Aldakuntza hauen historiarako, ik. Uribe 1988: 235-246, eta Izaro, Santimamine, Bastida, Piedrola, Urduña eta Bilboko San Frantzisko komentu obserbanteetako albisteak: Uribe 1988: 257-292.

Bi Ordena horietako barruti geografiko-instituzionaletan Euskal Herriak ez du batasunik izan, eta gutxiago bakartasunik. Hau da, Erakundeon barrutiek ez dute Euskal Herria osorik eta bakarrik besarkatu; aitzitik, Penintsula eta Iparraldea, bakoitza bere bideetatik joan da. Euskal Iparraldeko komentu-eraikierak iparretik egin ziren, eta Hegoaldekoak, ostera, Nafarroako Erreinutik edo Gaztelatik. Frantziskotarretan Hegoaldeko Hiru Herrialdeak "Kantabriako" Probintzia Erlijiosoan zeuden, Gaztelako Etxe gutxi batzuk ere tartean zirela, Nafarroakoak Burgosko Probintzia Erlijiosokoak ziren bitartean. Gisa berean banatzen ziren mojen Monasterioak ere.

2. 1. Fraide eta mojen Komentuak, mendez mende

Hemen bereziki fraideez ari garen arren, Aro Modernoko moja frantziskotar itxiak ere gogoan hartu behar ditugu, Aro Modernoan fraide Nagusi bat beraren menpekoak baitziren fraide eta mojak. Emakumezkoetan hiru Elkarte aipatu behar dira: klaratarrak (XIII-XX. mendeak), sorkundetarrak (XVII-XX. mendeak) eta elisabetarrak (XIII-1963). Moja hauek komentu edo monasterio itxietan egiten zuten bizitza, Trento ondoren (1580tik 1620a bitartean edo) klausura itxira behartu zituztenetik.

Fraide eta moja Elkarte frantziskotar[ofm] ezberdin hauen komentu-sarea mendez mende zabalduz joan zen, harik eta XVIII.ean bere sabaia jo zuen arte. Esklaustrazio-bezperako datuek erakusten digutenez, 58 ziren fraide frantziskotarren[ofm] eta familia bereko mojen Etxeak Euskal Herrian: Araban 8, Bizkaian 15, Gipuzkoan 18, Nafarroan 14 eta 3 Lapurdin. Horietako 26 fraideenak ziren[5], eta 32, mojenak.

Etxeok sortzeko urratutako bidea honela egin zen, mendez mende: XIII. mendean bertan jarri zen lehen abiapuntu sendoa, 13 komentu-rekin. Lehenengo etxe guztiotako hamar Nafarroa eta Araban zeuden, baina Nafarroa bakarrik izan zen Hiriburutik at ere Etxeak zituena. Gasteizko Hirian bi eta Baionakoan bat eraiki ziren mende horretan.

XIV. mendean Etxe berri oso gutxi sortu zen (3): Baionan klaratarrena (1326), eta Bizkaiko gizonezkoen komentuetako lehenengoa Bermeon (1357); mende horretako azken partean dator beste bat, Santimamineko elisabetarrena (*p.* 1366; gero Abando eta Begoñara pasatakoa). Horren ondoan, hurrengo mendea askoz emankorragoa etorri zen.

Hamahiru Etxe berri (13) dauzkagu XV.mendean: plataforma berria, hortaz, kopuruz, eta geografiaz ere. Batez ere Bizkaiaren mendea da XV. gizaldia (8 Etxe), eta ez lur lehorrean bakarrik (Abando-Bilbo, Urduña, Durango, Gernika, etab), baita itsaso erdian ere, Izaroko Irlan. Araba eta Nafarroako banaka batzuk gehituz, XV.eko hau izan zen frantziskotartasunaren bigarren olatualdi bizkorra: Bastida eta Kanpezu-Piedrola Araban, eta Aras-Biana eta Tafalla Nafarroan.

XVI. mendea Gipuzkoako loraldiarena izan zen batik bat, aurreko mende-azkenetan Azpeitian hasita (1497): 19taraino Etxe ireki ziren Herrialde horretan, batek ezik (Donostiako Antigua) denak ere ondoko mendeetan indarrean iraungo zutenak. Ordukoak dira, adibidez, Oñatiko moja-komentu frantziskotarrak, edo Tolosa-Arrasateko fraideenak.

Hori guztia buruturik eta euskal lurraldean frantziskotartasunaren hedapen instituzionala egin samartuta zegoela zirudienean, beste Institutu frantziskotar gazte batek indarberritu zuen berriro gora-bidea Euskal Herrian, kaputxinoen Ordenak, alegia. Baina historia hori beste baterako utzi beharko dugu.

XVIII.a da Euskal Herrian (oro har, Europako Mendebalde osoan bezalatsu) Institutu Erli-

[5] Ez dira kopuru horretan Kapilau-Etxeak zenbatu, nahiz eta kasu batzuetan Kapilautza horietan lauzpabost laguneko Anaiarterik egon zitekeen.

Deba-Sasiolako Komentua (1503-1840):
Fraideen gainerako Komentu guztiak bezala, Sasiolakoa ere lege-erabakiz itxi arazi zuen Gobernuak. Hondakin hauek dira gaur egun ere historia haren lekuko.

jiosoek ezagutu zuten menderik jasoena, beren Etxeen aldetik eta lekaide-lekaimeen kopuruarenetik. Ia osorik aurreko mendeetan egina zegoen, eta orduantxe bere heldutasuna lortu eta pasata ere.

2. 2. Frantziskotarren^{ofm} estatistika zenbait

Zoritxarrez, ez daukagu Erdi Aroko euskal frantziskotarren^{ofm} estatistika orokorrik; hala ere, bistan da, baditugu euskal herritarrak ziren fraide edo serora frantziskotar batzuren izen-deiturak; horietako batzuk agintari ere izan ziren hemengo edo kanpoko komentu eta barrutietan.

Ez ziren gutxi, nonbait, eta, azkenik, XVI.eko erdi aldera, 1514an sortutako Burgosko Probintzia Obserbantea hain zegoen euskaldunez hornitua, nonbait, ze gaztelauek ezin izan zuten jasan gehiago berauen nagusitasuna (esan nahi baita, gobernu-nagusitasuna, baina beharbada demografikoa ere), eta fraide euskal herritarrak berauen gogoz kontra Probintzia berria sortzera bortxatu zituzten (1551).

Geroko estatistikak, oraindik behar bezala lantzekoak izan arren, eskueranago dauzkagu, zeren 1585ean Gonzagak ia komentu guztietako albisteak bildu baitzituen, eta data hurbilagoetan ere bilduta daude (1646, 1680, 1700, 1797, etab.). XVI. mendeko data hartan, 463 fraide frantziskotar bizi ziren Euskal Herriko komentuetan, eta 468 moja, gutxienez. Artean, laster eraikiko ziren Etxe gipuzkoar berriak irekitzeke zeuden.

Aro Modernoa amaitzear zegoela, milatik gora fraide frantziskotar zegoen Euskal Herrian, kasu honetan kaputxinoak ere zenbatuz. Estatistika hauetan, 1770 inguruan lortu zen unerik gorena.

Moja frantziskotarrei buruzko albistetan eskasago gabiltza, baina zerbait barrunta daiteke, Iruñeko Diozesiko moja-komentu frantziskotarrei buruz dakigunetik (1723), Diozesiko lurralde gipuzkoarra ere barne zela. Zortzi komentutako lekaime-kopurua ezagutzen dugu: 216 moja ziren guztira Elizbarruti horretan;

komentuko 27 laguneko batezbestekoa ematen zuen horrek.

1797ko Godoy-ren Zentsuan Euskal Hegoalde osoko moja-komentuetan ikus daitekeen batezbestekoa apalagoa da: komentu bakoitzeko ez zen iristen 15 laguneko batezbestekora. Zentsu horrek moja frantziskotarren[ofm] 30 komentu zenbatzen ditu Hegoaldean, eta, esaten zaigunez, 439 lekaime ziren orotara.

Aro Modernoa amaitzean, Familiarte frantziskotarraren (hau da, Ordena frantziskotar guztien) Euskal Herriko presentzia zifratara ekarri nahi bada, lauki hau izango genuke berorren lekuko:

EUSKAL HERRIKO FRAIDE ETA MOJA FRANTZISKOTARRAK (1797)[6]

Herrialdea	*Fraideak*	*Mojak*	*Orotara*
Araba	168	62	230
Bizkaia	175	164	339
Gipuzkoa	150	180	330
Nafarroa	406	202	608
Iparraldea* (1791)	45	12	57
Guztiak	***944***	***608***	***1.552***

* Mauleko kaputxinoen zifrarik ez dugu eskuratu.

3. Frantziskotarrak[ofm] Aro Garaikidean

Iraultza Frantsesa erabakigarria gertatu zen Institutu Erlijiosoentzat, Iparraldean (1791) eta Hegoaldean (1794). Frantzian, eliz politika orokor funtsez berria nagusitu zelako, eta Penintsulan, 1794ko Konbentzioko Gerrateak lehenengo astindu latza ekarri zuelako: iraultzaileak Komentuetako atarietan agertu ziren, arma eta guzti, eta ahal izan zutenean fraideak preso hartu zituzten, erbestera eramanez (hala gertatu zen Zarautzen, adibidez).

Bi data horiek muga-lerro historiko beltzlodia marraztu zuten, gisa batean lehenengo Iparraldean, eta beste modu batez, Hegoaldean gero. Orduko gertakarien aurrean eliz jendeak nekez eta oso gutxitan azaldu zuen Iraultzako ideiekiko zalantzarik. Harez gero, alde bakoitzak bazekien non zegoen, eta nondik nora egin behar zuen tiro.

Izan ere, data haien aurretik, hartuta zuen Iraultzak zenbait erabaki: 1789ko azaroan eliz ondasunak "ondasun nazionaltzat" aldarrikatu zituen, 1790ko otsailean Ordena Erlijioso batzuk desagertarazi egin zituen[7], eta, larriena, urte bereko maiatz-uztailetan Kleroaren Konstituzio Zibila onartu zuen, abuztuan Erregek berretsi baina 1791ko apirilean Aita Santuak kondenatuko zuena. Konstituzio haren onarpenaz geroztik, Frantziako elizgizonek berarekiko leialtasuna agindu beharko zuten, zin eginez. Gehienek ez zuten halakorik onartu, eta, horrekin, Iraultzaren aurrez aurre gatazka berri bat altxatu zen Frantzian. Iraultzako gatazka politikoari gatazka erlijiosoa gehitu zitzaion, eta urtebete geroago gatazka militarra eta atzerriarekikoa. Iraultzaren beraren segurtasun-ikuspuntutik begiraturik, zera idatzi da berrikitan: "Toutes les erreurs qui étaient à faire ont été faites" (J. Tulard)[8].

---

[6] ITURRIA:"Censo de Godoy" deitua: (1801): *Censo de la población de España de el año 1797*. Madrid. Datuak geure irakurketaren arabera landuta. Ik., gainera, INTXAUSTI, j. (1998): *Euskal historialariak eta frantziskotarrak*. Arantzazu. 164, 169, 178, 183.

[7] 1790eko otsailaren 13ko dekretuak zera zioen: "La loi ne reconnaîtra plus de voeux solennels monastiques de personnes de l'un ni de l'autre sexe: déclare en conséquence que les ordres et congrégations régulières où l'on fait de pareils voeux sont et demeureront supprimés en France".

[8] Iraultzaren politika erlijiosoaz liburutegi oso bat sortu zen historiografia zaharrean, alde eta kontra. Lehen albiste laburtu baterako, ikus orain kolore ezberdinetako historialariak: G. Lefebvre (*La Rev. Francesa y el Imperio*. México, 1960. 71-74), A. Soboul (*La Rev. Francesa*. Madrid, 1966. 154-156), N. Hampson (*Hist. Soc. de la Rev. Francesa*. Madrid, 1960. 124-129), J. Tulard (*Hist. et dict. de la Rev. Franç*. Paris, 1988. 71-74). Eliz historiatik emandako azalpenetako bat Jedin-en aurki daiteke, R. Aubert-en eskutik (*Manual de hist. de la Igl.* VII, 46-51), M. Vovelle (*La chute de la Monarchie*, 1787-1792. Paris, 1972. 151-152, 157-159, 183-184) eta zabalago, kapitulu luze argigarrietan, A. Dansette-ren obra: *Histoire religieuse de la France contemporaine*. Paris, 1965. 55-159.

Bermeo:
Komentu izanberritua (1896-1996).
(Argazkia: 1996).

Hala ere, ibilera politiko hura eta Iraultza-prozedurak gorabehera, kleroaren eta Institutu Erlijiosoen erreforma eta beraien indar ekonomiko-sozialak tamaina egokiago batera ekartzea premiazkotzat jotzen ziren Iraultza aurretik ere, Frantzian bezala Espainian. Horretaz, 1760-1770.etako hamarkadetan adostasun hori nahikoa zabaldua zegoen, Europako Monarkietan eta Ordena erlijiosoetan beretan ere. Besterik da gero zer egin zen, edo zer ez, Iraultzaren aurretik.

3.1. Esklaustrazioak: fraide obiak (1791-1876)

Iraultza hark erabateko garbiketa egin zuen Iparraldean, fraideenak bezala emakumezkoen Komentuak ere itxiz: hirurogei urteko itxialdia izan zuten Iparraldeko frantziskotarrek[ofm], eta klaratarrak ez ziren itzuliko sekula garai bateko beren Baionara, ezta Iparraldera ere; fraide frantziskotarrak[ofm], ostera, Nafarroa Behereko Donapaleu-ra etorriko ziren, XIX.eko bigarren partean.

Iraultzak, noski, lehen kolpetik harrapatu zituen Iparraldeko erlijiosoak, eta politika berriak izan zuen unerik gogorrenean, gainera (1789-1791). Konbentzioko Gerratekoan -Konbentziotarrak Hegoaldean sartu zirenean (1794)-urak, artean, harro zetozen, baina Iraultzaren ibilera "zentzatuko" zenetik (Thermidor, 1794ko uztailean) 1801ean Napoleon-ek Erromarekin Konkordatua sinatu zuenerainoko tartean, egoera berria ez ezik Iraultza liberalean eliz politikarako "ziklo eredu" osoa burutu zen, beste herrietara eramangarri izan zitekeena.

Zer zen hori? 1789-1801.etan gertatutakoak ikusita, argi zegoen bata bestearen ondoko urrats jakinetan burutu zitekeela eliz iraultza liberala: lehenengo, ondasunak desamortizatu eta erlijiosoak esklaustratu, ondoren bildutakoa Estatuaren Ogasunaren edo eroslegai leialen onetan erabili, eta azkenik, egintza burutuen ondoren, Erromarekin konponketa bilatu. Hori gertatu zen Frantzian urte haietan, eta bere haundi-maundian hori egingo zen Espainian (1833-1851).

Hegoaldeko fraide frantziskotarren[ofm] Etxeak (gainerako erlijiosoenen antzera) behin eta berriz itxi ziren XIX. mendeko lehen erdian. Hegoaldeko Komentuek eta Iraultzak 1794an izan zuten elkarren lehenengo ezagumendu zuzena, eta bigarrena -jada bide ofizialagotik- Jose Bonaparterekin, 1809an. Berehala, Cádiz-

ko Gorteek ere jaso zituzten, eremu honetan, Despotismo Argiztatuko eta Iraultzako ideiak[9].

Gero eta gehiagoren ustez, Penintsulan ere Elizaren erreforma-arazoa egitarau politikoa ez ezik eginbehar ekonomiko bihurtzen ari zen, izan ere zama baldintzagarri handiegia baitzen aurreko mendeetatik jasotako egoera ekonomiko eliztarra eta Estatu-Ogasunaren porrota sarritan ate joka baitzetorren.

Horregatik, politikako ibilerak bide liberala hartu zuen bakoitzean, Elizaren hau programa politikoetatik egintzetara pasarazi nahi izan zen, Hirurteko Konstituzionalean berriro (1820-1823)[10] eta Maria Kristinarekin politikari liberalek agintea eskuetan izan zuten orduko (1833). Nagusiki, hamar urteko lana izango zen Espainiako Elizaren ondasunak desamortizatu eta gizonezkoen esklaustrazioa egikaritzea; gerrate karlistako urteetan eta Esparteroren agintealdian eman samartu zitzaion guztiari amaiera (1833-1843). Lege eta arau ugari asmatu zen horretarako.

Gerra dinastikoarekin batera, 1833-1840.etan itxi arazi zituen Gobernuak gizonezkoen Komentuak Penintsulan: hauxe da "Lehenengo Esklaustrazio handia" deitu izan dena. Bigarrena -lehen Etxe izanberrituen (1851-1867) ondoren etorri zena- 1870.etako lehen urteetan suertatu zen Hegoaldean. Bestalde, III. Errepublika frantsesak 1880 eta 1903an birritan itxi zuen Donapaleuko Komentua, gainerako erlijioso-etxeak bezala.

Fraideen esklaustrazio-ondoko berrantolakuntza juridikoaren ondorioz, moja itxiak Gotzainen menpe geratu ziren, eta ez garai batean bezala Nagusi erlijiosoenean. Esan behar da, gainera, lekaimeen Kongregazio modernoak ez direla izan sekula fraideen menpekoak. Beraz, Esklaustrazio-ondoko egoera juridiko horri jarraikiz, ez haietaz, ez hauetaz esango dugu hemen deus.

Esklaustrazioak, fraideak hemengo herrietan sakabanatu edo erbesteratzea ekarri zuen: bakoitzak ahal eta/edo nahi izan zuen bidea hartu behar izan zuen orduan. Une larria izan zen askorentzat, hautatutako bizi-proiektua oso zaila bihurtzen zitzaielako ez ezik Komentuek eskaintzen zuten segurtasun pertsonala deuseztatu egiten zitzaielako ere.

Horregatik, erlijioso-bizitza berreskuratu nahi izan zutenek, Erakundeak berriro zutik jartzeko eginkizuna hartu zuten beren bizkar, zirrikitu ireki guztiez baliatuz. Elkarren ondoan geratu ahal izan zuten batzuek: "Beneragarrien Etxeetan", Kapilau-Etxeetan edo Komentuondoko etxebizitzaren batean. Horrela, Oñatiko Bidaurretan edo Erriberrin izan zituzten Etxeak apaiz fraide ohi zahar "beneragarriek"; edo kapilautzak eramanez ageri zaizkigu Azpeitia, Segura, Eibar edo Portugaleteko mojen Komentuetan; Komentu ondoko "egoitza apostolikoetan" Bermeon, edo etxebizitzaren batean Zarautz eta Tolosan; azkenik, apaiz-etxe arruntetan baina elkarturik Arroa edo Aizarnazabalen.

Beste askok Diozesietako Parrokien zerbitzuan aurkitu zuen bere ogibidea, erbesterako bidea hartu ez zuenean (Frantzia, Italia, edo urrunago Amerika). Bide batez, horrela erein ziren erbestean Ordena izanberritzeko asmoak, fraide deserriratu hauen bidez alegia.

Izanberrikuntzak frantziskotarren[ofm] artean protagonista bi izan zituen bereziki, biak ere Erromatik horretarako izendatuak: Iparraldean, Aita Jose Areso nafarra (1797-1878) eta Hegoaldean, Aita Mariano Estarta larrabetzuarra (1804-1878). Biak urte berean hil ziren, baina testuinguru sozio-politiko oso ezberdinetan bete zituzten beren bizialdiak.

---

[9] ARTOLA, M. (1999): *La España de Fernando VII*. Madrid: Espasa. 384-390. "En este momento [1811-1812] se enlazan dos problemas que en el siglo anterior corrieron separados: la reforma eclesiástica y la desamortización, con la particularidad de que los liberales se apoyarán en la primera para llevar a cabo la segunda, desentendiéndose luego de aquel grave problema" (393).

[10] Artola 1999: 597-614.

Aresok Nafarroa Behereko Donapaleutik hasi zuen frantziskotarren izanberritzea (1851), egoera eta baliabide oso apalekin, baina Napoleon III.aren garaiek lagunduko zioten Iraultzatik zetorren lehorteari aurre egiten, eta bere izanberritzaile-lana nahikoa epe laburrean beteko zuen, Nagusi bezala (1851-1863). Ondoko urteetan besteren eskutik joan zen aitzina proiektua. Aresok ez zituen ezagutuko III. Errepublikako politikak ekarriko zituen krisi-uneak (1880, 1903).

Hegoaldean, Estartaren lana geldiago joan zen, eta arduradun bezala luzeagoa izan zen haren Nagusitza, heriotza artekoa (1853-1878), eta hasitakoaren krisiak jada bere Nagusi-garaietan ezagutu zituen, Komentu-bizitza hasi berria eteteraino (1870). Bere zereginean, lehen kolpea Bizkaian eman arren (Bermeo, 1859), bigarren izanberritze-aldiari Gipuzkoan ekin zion, Zarauztik (1876). Bi une historiko horien artean, Iraultza-aldi bat (1868-1874) eta bigarren Gerrate Karlista ezagutu zituen Estartak, eta ez harathonat politikorik gabe: izan ere, Isabel II.aren babestua izatetik (1859) Karlos VII.aren okasiozko predikari suhar izatera pasatu baitzen (1875).

3. 2. Komentuak izanberritzen (1851-1976)

Hegoaldean, azken Gerra Karlistaren ondoren hasiko dira berriro irekitzen komentu frantziskotar[ofm] formalak (1876...), nahiko bizkor lehenengo ekinaldian (5 Komentu, mendea bukatu baino lehen). Horiekin eta barrutiari eman zitzaion "Probintzia" aitorpenarekin (1886) oinarrizko egitura segurtaturik geratu zen Hegoaldean; baina gerokoak ez zuen eramango, inondik ere, abiada bera, hurrengo Komentu berriak eraikitzean.

Ordena[ofm] Euskal Herrian errotzea Komentuen bidez segurtatu da. Ez dira izan hauek kopuruz gehiegi, baina bai herrian ongi txertatuak, eta halakoak izan diren neurrian fraidegai gazteak erruz bildu zituztenak. Denboraren harian urratsez urrats ugarituz joan ziren komentudun herriak, eta beren sortze-urteekin aipatuta utzi nahi ditugu:

KOMENTUEN IZANBERRITZE-URTEAK

Komentu-herriak	*Sortze-urtea*
Donapaleu	1851
Bermeo	1859, 1895
Zarautz	1867, 1876
Arantzazu	1878
Erriberri	1880
Forua	1886
Tolosa	1915
Donostia	1923
Bilbo-Irala	1930
Arrasate	1953
Gasteiz	1973
Iruñea	1976

Fraidearte berrien eraketa aldi eta molde ezberdinetan egin da azken mende eta laurdenean. Prozesu honen epekapen bat eman behar balitz, berori holatsu izan dela esango genuke:

A) *Herrietako Komentuak (1876-1915).* Berrogei urte eskas hauetan, Hiriburuetatik kanpoko Komentuak izanberritu edo eraiki zituzten. Goian emandako laukian ageri denez, irekitako zazpi Komentuak, denak, probintziakoak dira, Herrialdeetako Hiriburuetatik kanpokoak. Albiste handi bat azpimarratu behar da hemen: 1602az gero Euskal Hegoaldea besarkatzen zuen barrutitik kanpo egon zen Nafarroa Aro Modernoan, baina 1880an izanberritutako Komentu nafar bakarra Arantzazuko Probintziara bildu zen (Erriberri/Olite). Lorpen honen ondoan, ordea, epealdi honek hutsune nabaria du: ez da lortu, garai batean hain indartsu egondako Hiriburuetan Etxerik irekitzerik.

B) *Hirietako Komentuak (1923-1976).* Komentuen historiaz ari garela, Donostia eta Bilbon nahikoa garaiz sartu ziren frantziskotarrak, baina saio eta ahalegin franko kosta zitzaien Iruñe eta Gasteiza iristea. Bietan izan zen zaila Komentuen izaera juridiko hori lor-

tzea: Gasteizen 1973an, eta hiru urte geroago Iruñean, 1976an. Bien bitartean, ordea, euskal gizarteko balio erlijiosoak, Elizako mentalitate kontziliotarra eta frantziskotarren beren jokamolde instituzionala aldatuta ageri zaizkigu: ondorioz, komentu-izaerako antolamendua bera krisian, edo kritikatua, ageri da.

C) *Komentuak eta Anaiarte txikiak (1968-2000).* 1960.etan Probintziak bere goia jo zuen, pertsonalaren aldetik, erbesteko bere hedapenean, Komentu inguruetako ekimen sozio-pastoraletan; hala ere, etorkizuna guztiz segurtaturik zegoela zirudien unean hasi zen, bat-batean, beheraldia, fraide gazteek Ikastegiak utzi, hainbat fraide heldu sekulartu eta gaztetxo fraidegaien "perseverancia" hura behera etortzean. Dena den, molde berriko frantziskotartasuna jaioko da, krisiarekin batean: Anaiarte Txikiena.

Epekapen hori aurrean dugula, begira dezagun orain Komentuetako pertsonal-garapena nola joan zen.

3. 3. Komentuetako fraideen estatistikak (1881-1995)

Iparraldeko Komentu frantziskotar^{ofm} bakarrak bere bidea egiten zuen bitartean (ik. liburuan Donapaleu-ri dagokion atalburua), Kantabria edo Arantzazuko Probintziako Komentuetan^{ofm} bildu ziren Euskal Herrian jaio eta bertan frantziskotar egindako fraide gehienak, eta hauek izan dira (jasoko dugun fraide-kopuruak, alegia) euskal gizartean jardundakoak[11].

Komentu berrien sortze-kronologia ikusi dugu gorago. Orain esan dezagun, lehen hirukotearen ondoren eta 1880.etan sortutako bi berriez gero (Forua, 1886; Bermeo, 1895), hogei/hogeita hamar urte iragan zirela besterik ireki gabe (Tolosa, 1915). Ez zen, beraz, abiada

HEGOALDEKO KOMENTUETAKO ANAIAK (1881-1916)[12]

Komentuak/Sortze-urtea	*1881*	*1891*	*1900*	*1910*	*1916*
Arantzazu (1878)	15	46	41	42	71
Bermeo (1895)	(3)	-	22	32	19
Erriberri (1880)	22	46	52	55	55
Forua (1886)	-	19	16	14	17
Tolosa (1915)	-	-	-	-	3
Zarautz (1876)	34	38	35	35	39
Orotara, data jakinetan	71 (74)	149	166	178	204

[11] Gehienak diogu, eta ez denak, ondoko salbuespen esanguratsuak ezin baititugu aipatu gabe laga. 1) Euskal Herrian jaio baina Arantzazuko Probintzia erlijioso horretatik kanpo frantziskotar^{ofm} izandakoak: batzuk Penintsulako edo Frantziako beste Probintzia Erlijiosoetan; besteak, Ameriketako Probintzietan. (Barruti-arrazoi horregatik, Euskal Herrian bizitzeko aukera instituzionalik izan ez duten frantziskotar euskal herritarrak dira guztiok). 2) Euskal Herrian jaio, Arantzazuko Probintziakoa izan baina Euskal Herritik kanpoko komentu-etxeetan bizi izandakoak (Misio-lurraldeetan, adibidez). Izanberrikuntzatik hona zenbatu ahal izan diren frantziskotarretan^{ofm} (orotara, 2.654 lagun abitua hartutakoak) 1.984 izan dira Kantabriakoak, eta 53 Akitaniakoak (hau da, Komenturen bat Euskal Herrian zuten Probintzietakoak); baina 553 izan dira beste Probintzia Erlijiosotakoak. 3) Azkenik, Euskal Herriarekin sortzez zerikusi pertsonalik izan ez duten Probintziako frantziskotarrak gogorarazi behar dira: 375 izan dira kanpoko hauek, eta hauetatik batzuk Euskal Herriko Etxeetan ere bizi izan dira. Ik. AGIRREZABALA, L.; BERAZA, M. (1998): *Aportación de personal de Euskalerria al movimiento regular franciscano.* Zarautz (argitalpen mugatua).

[12] ITURRIAK: Hemen bildu ditugun zifrak ondoko iturrietatik jasoak dira. **1881ekoak**: *Libro de la Provincia* edo *Actas Capitulares y Definitoriales I* (6-15. or.). **1891ekoak**: *Estado general de las Provincias, Conventos, Misiones y demás Residencias depen-*

handia, nahiz eta tartean Kuba (1904) eta beste tokitarako jendea behar izan zen.

Izanberrikuntzako lehenengo berrogei urteetan, Komentuetako fraide-kopuruak aurreko laukikoak izan ziren.

Ikustekoa da, garai bateko Anaiarte handietatik bat bakarra ageri zaigula hemen: Arantzazukoa; esan bezala, Hiriburuetakorik ez dago, ezta bat ere. Eta 1916ko Anaiarte handiena ere (Arantzazu: 71 lagun) ez da iristen Etxe berak Esklaustrazio aurretik izandako fraide-kopurura (Arantzazun bertan 95 fraide, 1768an).

Esklaustrazio-aurreko tamainatik, artean oso urrun zegoen Hegoaldeko frantziskotarren[ofm] izanberritzea. Hurrengo 50 urteetan (1916-1965) aldatu ziren gauzak bizkorrago. Epealdi berriko datuak begiratu besterik ez dago. Komentuak eta beherago aipatuko diren Anaiarte Txikiak, denak batera, hartuko dira lauki honetan, frantziskotarren[ofm] "euskal-herrikotasun" praktikoaren neurria agerian utziz (ik. ondoko laukia).

Esan dugun epealdi berriko goranzko joerak mende-erdialdera (1945-1965) jo zuen sabaia, eta Arantzazuko Komentua 173 fraide izatera iritsi zen orduan. Mende beteko ahaleginen eta garaien fruitua izan zen hori. 1970etik honantz koiunktura berri batean sartu da bigarren aldiko bilakabide bizkor hura.

Azpimarratzekoa da XX. mendeko Fraidearterik handienetan gazteek izan ohi zuten lekua: hala gertatu zen, batez ere, Arantzazu eta Erriberrin, eta beste gisa batean Zarautzen. Esan daiteke, ba, Komunitate handienak direla gazteenak ere. Halakoen ondoan, Komentu txikiek beren lagun-kopuru mugatuari ongi eutsi izan diote (Tolosa, Arrasate, Donostia, etab.).

Etxe eta erlijioso horiek izan dira Euskal Herrian frantziskotar[ofm] bizitza bizi eta zaindu dutenak, hau da, euskal historia erlijiosoaren parte estimagarria, behin baino gehiagotan eta beste askorekin batera gure gizartea mugiarazi eta zegokien neurrian eta moduan erlijiotasun erakundeztatua gidatu dutenak.

Bestalde, gure artetik erbesteetara joandako fraide-taldeak (ikusiko dugu zenbatekoa izan den berori) bere erlijioso-erreferentzia nagusienak Euskal Herrian izan ditu, gehienak euskal herritarrak zirelako, heziketa-etxeak eta barne-ikastetxeak gure Hegoalde honetan zituztelako eta Probintziako gobernua ere, aurreko arrazoien ondorioz, euskal herritarrek eraman dutelako. Arantzazu, Forua, Zarautz eta Erriberrin egon ziren heziketa-etxeak orain hogeita bost urte arte. Azken urteetan Probintzia erlijioso horrek sustatu duen dinamikarik erlatiboki biziena ere Euskal Herrian lekutu dela esan daiteke.

Kanpoko hedapen guztien ondoan, Euskal Herriko bertako Komentuak izan dira Ordenaren harrobia eta bizkar-hezurra, Institutuari hemen erroak emateko, bertako tokikotasun bizia lortzeko eta Erakundeari segida segurtatzeko. Berorien balio kualitatiboaz esan nahiko genuke orain zerbait.

III. NOLA IZANBERRITU ZIREN PROBINTZIA ETA KOMENTUAK (1851-2000)

Oso egonkor ageri zaigu Komentu zaharretako fraide-biziera, mudantza txikiko mundua, alegia. XX. mendera ere halatsu iritsi ziren Etxeok, izanberritzean horixe nahi izan zelako, hau

dientes de la Comisaría General de Franciscanos de España, en que se detallan los nombres, clases, edad y antigüedad en la Orden de cada uno de los religiosos pertenecientes a la misma. Madrid, 1891 (69. or.). **1900ekoak:** *Estado general de las Provincias, Conventos y Residencias de la Orden de Menores de San Francisco en España, Misiones que tiene a su cargo y relación individual de los nombres, clases, edad y antigüedad de hábito de los religiosos en el año de 1900.* Madrid, 1900 (86. or.). **1910ekoak:** [Titulu bereko argitalpena...] *en el año 1910.* Madrid, 1910 (94. or.). **1916koak:** *Estado general de la Orden franciscana en España y sus Misiones. Relación individual de los nombres, edad, clase y antigüedad de hábito de los Religiosos en el año 1916.* Madrid, 1916 (130. or.).

[13] Lauki honetako datuen iturria Arantzazuko Frantziskotar Probintziako Idazkaritzatik 1997an banatutako "Komentuetako Anaiak, XX. mendean zehar" deritzan agiria da. Berrikusteko datuak izan daitezke, baina errealitatetik oso hurbilak.

KOMENTU ETA ANAIARTEETAKO FRAIDEAK[OFM] (XX. MEND.)[13]

Komentuak	*1933*	*1952*	*1964*	*1982*	*1995*
Arantzazu	62	125	153	66	51
Arrasate	-	-	8	10	8
Beasain	-	-	-	3	-
Bermeo	16	15	16	12	11
Bilbo-Errekaldeberri	-	-	-	3	-
Bilbo-Iralabarri	5	14	28	29	13
Donapaleu/Domintxaine*	-	4	10	5	1
Donostia-Kaialde	-	-	-	2	-
Donostia-Jakin	-	-	-	6	4
Donostia-Egia	13	12	21	19	17
Durango	-	-	1	5	3
Errenteria-Zamalbide	-	-	-	5	-
Erriberri	59	80	101	15	17
Forua	15	18	19	11	13
Gasteiz	-	-	-	3	7
Gernika-Lumo	-	-	-	3	-
Obanos/Iruñea-Milagrosa	-	-	-	3	5
Iruñea-Soto Lezkairu	2	1	3	-	-
Karrantza	-	-	-	3	5
Oñati-Bidaurreta	4	4	3	5	4
Santurtzi	-	-	-	-	5
Segura	-	-	-	3	6
Tolosa	11	11	13	9	11
Zarautz	40	55	57	36	30
OROTARA, DATA JAKINETAN	227	339	433	256	211

*Donapaleuko urteak zerak dira: 1951, 1963, 1981, 2000

da, ahal zelarik lehengoa, bere izaera zaharrean eta toki berean birlandatua.

200 urteko ibilera honetan (1794...), edo nahiago bada, 150 urtekoan (1851-2000), hiruzpalau puntu ukitu nahi ditugu hemen: 1) Abiapuntu tradizionaleko fraidetasun-moldea; hori deskribatzeko, 1719ko argitalpen bat erabiliko dugu. 2) Izanberrikuntzak Komentuak irekitzean hartu zuen bidea (1851...). 3) Historia horrek erakutsi dituen eten eta iraupenak. 4) Aro Garaikideko Anaiarte-tipologia.

1. Erregimen Zaharreko Komentu-bizitza

Komentuetako barne-idazkietan, sermoietan, gogoeta-liburuetan, Ordena nahiz Probintziako lege eta abarretan "komentu-biziera arautua" ("vida regular" deitu ohi zena) etengabeko


ESTATUTOS
MUNICIPALES
DE LA
SANTA PROVINCIA
DE
CANTABRIA,
DE LA REGULAR OBSERVANCIA
de Nueſtro Seraphico Padre
SAN FRANCISCO.

Año 1719.

Con las Licencias neceſſarias.

En S. Sebaſtian, Por Pedro de Ugarte, Impreſſor.

***Estatutos Municipales* (1719):**
Fraideen Komentuetarako oinarrizko arautegia.

leloa gertatzen da izanberritze-urteetan eta gero. Baina Esklaustrazio-aurreko mendeetatik zetorren errepika zen hori, kezka edo aholku gisara ez ezik komentuetako errealitate bezala ere.

Lehen orduetan izanberrituriko Komentuetara itzulitako fraide zaharrek, fraide-biziera definitzean, lehengora itzuli nahi izan zuten batez ere (bestelako asmorik zuena ez baitzen Komentura itzuli), lehengoari etorkizunerako segida eman alegia. Eta balio zaharren artean hiru zin-botoekin batera funtsezkoa zen "biziera arautuarena" segurtatzea. Horregatik izan lezake interesik Esklaustrazio-aurreko bizimoldeez zerbait jakiteak.

1. 1. XVIII. mendeko arauak (1719)

XVIII. mendeko Hiru Herrialdeetako frantziskotarrek[ofm] aurreko mendeetatik zetorkien Komentuetako arau-tradizioa jaso eta neurriren batean eguneratzeko eman zituzten argitara *Estatutos Municipales* deituak. Besteak beste, liburu honek azaltzen du fraideek Komentuetan zein bizi-molde egin behar zuten, nahiz eta ez duen agortzen fraideen eguneroko bizierari dagokion oro[14].

Liburuak bederatzi atalburutan ematen ditu Probintzia eta Komentuetarako arauak, fraidegaien harrera eta hezkuntzatik hasi eta hildakoentzat eskaini beharko diren errezoetaraino; tartean arututakoak dira besteok: otoitza, pobretasuna, hizketa eta gartxutasuna, ikasketa eta fraideen gaikuntza, etxez kanpoko harremanak, gaizkileen zuzenketa, hauteskunde eta ofizioak.

Hemen egunerokotasunari zegozkion arauak hartuko ditugu aintzakotzat, Komentuen mota-sailkapena gogoan dugula, Komentuak ez baitziren denak berdinak, baizik eta gutxienez bi moldetako sailkapena zuten beren artean: bata, Komentu "Nagusi" eta "arruntei" zegokiena, eta bestea, "Obserbantzia arrunteko" Komentuei eta "errekolektoei" zegokiena.

Komentu Nagusiek (*Mayores*), fraide-kopuruz handiak izateaz gain, Probintzia Erlijiosoaren zerbitzuko zenbait zeregin beren bizkar izan ohi zuten, eta 1719an "nazio" bakoitzari izendatu zitzaion horietako bat: Araban Gasteizko San Frantzisko, Bizkaian Bilboko San Frantzisko, "Montaña"rako Santandereko San Frantzisko, eta Gipuzkoan Arantzazuko Komentua; Ikastegiak izan ohi zituzten hauek, eta baita Nobiziategia ere[15]. Bestalde, adibidez, Tolosa eta Bastidako Komentuetan ere bazegoen Ikastegirik.

---

[14] *Estatutos Municipales de la Santa Provincia de Cantabria de la regular Observancia de Nuestro Seraphico Padre San Francisco.* San Sebastián: Pedro de Ugarte, 1719.

[15] Kantabria edo Arantzazuko Probintzian "nazio" hitza erabiltzen zen Probintziako lau herrialdeak aditzera emateko: Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta "Mendialdea" (edo "Montaña)". Banaketa Laukoitza deitu zitzaion honi, eta Probintziako gobernuan pisu handiko egituraketa gertatu zen. Aita Santuek onartu eta berretsia izan zen hau: 1616, 1671, 1698, 1702. Ik. URIBE, A. (1996): *La Provincia Franciscana de Cantabria.* II. *Su constitución y desarrollo.* Arantzazu: EFA. 278-290.

Era berean, Probintziaren barruan (eta ez aparteko Ordena bezala) Errekolekzioko Etxeak eratu ziren, biziera hertsiagoa eraman nahi zuten fraidegai eta fraideentzat. "Nazio" bakoitzak izan ohi zuen horietako bat, Etxe jakin batean ezarria: Arabako Errekolekzio-Etxea Gasteizko Sorkundekoa izan zen, Bizkaikoa Santimaminekoa eta Gizpuzkoakoa, ostera, Donostiakoa. Esan bezala, Etxe hauek bizimodu estuagoa zuten beren barne-arauen arabera; baina hemen Komentu arruntei buruz hitz egingo dugu bakarrik.

Izatez ez ezik, eskubidez ere Etxe bakoitzak fraide-kopuru jakina izan zezakeen, ez gehiagorik; batez ere, XVIII.ean, fraideak eta fraidegaiak erruz ugaritu zirenean, Fraidearteen neurria mugatu beharra ikusi zen, eta agintari zibil eta eliztarrak bat etorri ziren horretarako neurriren batzuk hartzeko asmoetan. Ezagunak dira, alde horretatik, 1768ko neurriak: une horretan Arantzazu ageri zaigu handiena bezala (95 fraide), eta Bilboko San Frantzisko hurrena (90); Gasteiz dator gero (78). Dezente txikiagoak dira ondokoak: lehenik, Ikastegia duten Komentuak (Bastida, 49; Tolosa, 46, eta Bermeo, 43), eta gero, gainerakoak.

Fraideartean Anaia denak ez ziren klase berekoak: alde batetik, Apaizak zeuden, eta bestetik Anaia Laikoak. Dena den, Anaia Apaizak ere ez ziren maila berekoak: Apaiz Soilen ondoan, Aitor-entzuleak zeuden, Predikariak eta Irakurleak ("Lektoreak" edo Irakasleak). Apaiz Soilak Mezakoak ziren, noski, eta Sakristau, Atezain eta abar izan zitezkeen. Goragoko mailatara igotzeko, azterketa eta merituak egin behar ziren. Gorako kurrikulua burutzeko arauak ongi zehaztuta zeuden, gainera.

Elkar-bizitza horretan, bakoitzaren lehentasun-ondokotasunek pisu handia zuten, Komentuko bizitzan, eta "prezedentzia" famatuari pisuko garrantzia eman ohi zitzaion Komentuetan: bakoitzaren meritu ofizialak agerian jartzeko modua zen hori. Berdintasuna baino areago "meritokrazia hierarkiatua" ote zen galde liteke, sistemak zituen zehaztasun eta zurruntasunagatik.

Nolanahi ere, norberaren gela edo eguneroko jatena arretaz zaintzen ziren, guztientzat berdinak izan zitezen, gaixotasunak edo zahardadeak bestelakorik eskatzen ez baldin bazuten behinik behin. Nagusiek, berdin zaindu behar zuten bakoitzari premiazkoa ematea, eta janaritan edo gelatan neurritasun apalez ibiltzea.

Otoitzaldiek leku zabala zuten eguneko ordutegian. Estatutuok hiru motatako otoitza arautzen zuten: gogozkoa, ahozkoa eta *Breviarium* zeritzanaren araberakoa (*officium divinum*). Ordenako Konstituzioen arabera, denen arteko otoitz-orduetara behartuta zeuden erlijioso guztiak, salbuespenik gabe, eta Etxeko zerbitzu-bulegoak itxi egin behar ziren ordu horietan (sakristia, atezaintza, etab.).

Eliz otoitz ofizialean arretarik handiena jarri ohi zen: eguneroko betebeharra zen, eta errezoliburuaren edo Berviarioaren arabera betetzekoa. Horretarako, Koru-Bikario baten esanetara zegoen otoitzaldi hori, urtero Probintzia osorako prestatu ohi zen gidaliburu baten arabera. Nobiziategia zuten Etxeetan urte osoan gauerdiz errezatu behar ziren Matutiak; beraz, horrelaxe Komenturik handienetan. Besteetan, urtaro edo lan-premien arabera eratu ohi zen ordutegia, baina betiere hilabete jakin batzuetan bederen gauerdiko otoitz-araua betez.

Lanaren banaketa, norberaren fraide-klaseari zegokiona zen bakoitzarentzat, nahiz eta etxegarbiketa guztien egitekoa zen, larunbatetan denen artean egitekoa. Aisiak ere bazuen bere lekua. Janari eta jantziak Komentuak ematen zizkion fraideari, eta honek eskaintzen zitzaionera egon behar zuen; abitutan, edo beronen azpian, ez zuen janzkera edo ehun-mota aldatzeko askatasunik. Oinetakotan, sandaliak ziren onartutako bakarrak.

Etxe-barneko ohiko giroa eta kanpoko harremanak oso zainduta zeuden. Oro har, Komentuko bizitza isiltasunean egiten zen, eta behar izanik baxu hitz egin behar zen, "isiltasun arineko" orduetan, izan ere "isiltasun handikoetan" arrazoi larriagoak behar baitziren hizketarako. Jatorduetako isiltasuna bereziki gorde ohi zen, aurrikusita zeuden egun edo egokieretatik



Gasteiz (a. **1236**): San Frantzisko Komentu zaharrak ez du Aro Garaikidean bere historiaren tamainako segidarik izan.

1. Eliza.
2. Presbiterioa.
3. Madalenaren kapera.
4. Anuntziazioa.
5. Ataurrea.
6. Herrialdeari utzitako Aretoa (?).
7. Klaustro gotikoa.
8. Klaustro barrokoa.
9. Jantokia (?).
10. Baratzea.
11. Posta-kalea irekitzeko desjabetzean ezarritako hesia.

aparte; jaten zen bitartean, irakurgai jakin batzuek egin behar ziren, gainera (Biblia, hagiografia, Erregla, etab.).

Kanpokoekiko harremanak zuhurtziaz eta hertsiki araututa zeuden, "bizitza arautua" arriskutan jar zezaketelakoan: "ordenamos, que cuanto sea dable, se eviten las palabras, y conversaciones de los Religiosos con los seglares". Herritarrak Komentu-barnera sartzea, edota lan-bulegoetan agertzea susmoz begiratuta zegoen. Hala ere, bazegoen Komentuetan arrotzak hartzeko Ostaturik (edo horretarako gelarik), baina 1719ko Estatutu hauek zera zioten puntu honetaz: "escusen, cuanto sea dable, dichos Superiores hospedar en los Conventos a seglares".

Komentua, zinez, mundu bereizia zen, gizarteko harreman ez-erlijiosoetatik urrundua, teorian bederen; gero, eguneroko bizitzak ekar zitzakeen, kasu bakoitzean, premiazko edo komenentziazko harremanak. Batez ere, Etxearen gobernua zeramatenek zuten inguruko herritarrekiko ardura, eta fraide arruntak mundu nahiko buruaskia zuen Komentuan.

Arau orokor horien barnean eta aipatu ez ditugun beste xehetasun txikiagoekin jarri nahi izan ziren abian, 1859tik aurrera, Euskal Herriko Komentu frantziskotar izanberrituak, lehengoari segida emateko.

1. 2. Bisitarien irizpideak (1878, 1880)

Komentuak izanberritzean, arau eta irizpide zaharrak indarrean zenbateraino egon zitezkeen jakiteko, badago lehen orduetako agiriren bat edo beste, eta, hain zuzen, horrexegatik esanahitsuago gerta dakigukeena.

Bigarren Izanberrikuntzari ekitean, Erromatik izendatutako Bisitariak (1877ko urrian) Euskal Hegoaldean bere ikustaldi orokor pertsonala 1877ko azaroaren 11an egin zuen: Zarautzen bildu zituen Aita Mariano Estarta Komisariaren menpeko fraide denak, eta bakoitzarekin hizketaldia izan.

Bisitari hau Jose Ramon Irigoien izan zen, frantziskotar esklaustratua, eta artean eta gero ere Komentura itzuliko ez zena, baina Erromako Komisari Jeneralaren konfiantzazko gizona.

Errenteriako Parrokoa zen urte haietan Irigoien. Bisitaldi hartan, Jose E. Epelde izan zuen Idazkari eginkizunetarako. Ikustaldia bukatzean, argibideak Erromara bidaltzeko testu bat prestatu zuen, eta Erromatik ziotena ere jasoz, ohargutun batekin itxi zuen Bisitaldia, 1878ko otsailaren 12an.

Modu beretsuan, bi urte geroago, 1880ko uztailaren 4an, Erromatik bidalitako bigarren Bisitaria iritsi zen Euskal Herrira; José María Gallego zen berori, eta Jose Lertxundi oriotarra Idazkari zuela etorri zen. Bigarren honek ere komentu-biziera arautzeko bere oharrak idatzita utzi zituen, 42 puntutan[16].

Ikusitakoak Bisitariari sortu zizkion kezkak honela azaldu zituen Irigoienek:

> *...los defectos principales que he visto y sabido, versan sobre transgresiones de la Regla en los preceptos que atañen a nuestra altísima pobreza, la pecunia, calzado y caballos, la lesión de la caridad, la falta de silencio, la omisión de la lectura en el refectorio, la del oficio divino en el coro, la de la oración mental y la de los ejercicios espirituales* (Libro I de Acuerdos, 28).

Hutsegiteok bazituzten arrazoi aringarriak, eta Esklaustrazioko bizimoduetatik jaioa zen, gehienbat, Komentuko eskastasun hori:

> *...la Revolución, la falta de local en las Residencias, el no vestir el hábito fuera del convento y una mala inteligencia que entonces a nada más está obligado el religioso que al rezo de la Corona y a media hora de meditación* (Ib.).

Indar handiz azpimarratu zuen Irigoienek, fraideek dirua erabiltzeko zuten Erreglako debekua; eta zaldiz ez ibiltzekoa modurik hertsienean ulertu zuen: "es infractor de este precepto el que sin dicha necesidad y licencia camina en cualquier bestia, carro, coche u otra invención". Trenbidez ibiltzea, Erromak onartu zuen arren, Irigoienek horretan ere erreparoak zituen, batez ere dirua tarteko izan zitekeelako (Id., 30). Guztiaren ondorioz, zera dio: "exhorto a todos [...] que mientras puedan, y el Superior por justos motivos no se lo prohiba, prefieran siempre viajar a pie" (Id. 31). Badirudi irizpide hau fraide askok bete zuela, baita bidaia luzeetan ere[17].

Harreman pertsonaletan, hika jardutea debekatu egin zuen (*tú*-ka, alegia), eta ezizenez deitzea ere. Komentuko isiltasuna urrezko araua zen, erlijioso-biziera jatorra ezagutzeko. Horregatik, kritika biziz zera zioen Bisitariak:

> *Inútil es decir que no se guarda por desgracia el silencio. Se infringe a todas horas, en todas parte: en la sacristía, en el refectorio, en los claustros y dormitorios, y es tal la manía de hablar, que hasta en las horas de silencio más riguroso [...] se quebranta por no contener la pasión de dar rienda suelta a sus lenguas (id. 32. or.).*

Ez dago zalantzarik, isiltasunari balio jasoa eman nahi zitzaiola, eta aldi berean, Komentuetan zegoen funtsezko arazoetako bat bezala aurkezten duela Irigoienek hori. Mintzoa eta isiltasuna ordutegiaren arabera araututa zeuden, eta ordutegi hori zen, gainera, Komentuko egunerokotasuna zehaztasunez lotzen zuena (ikus ondoko laukian).

Ahal zelarik, Matutiek gauez izan behar zuten, baina artean ez zen hori posible; esan dugu gerora, batez ere Nobiziategi-Etxeetan,

---

[16] Irigoienen eta Gallego-ren bi agiriok *Libro primero de los Acuerdos del Vble. Definitorio* deritzanean ikus daitezke (hau da, *Actas Capitulares y Definitoriales* deituko zirenen lehen liburuan): 27-38. or. (Arantzazuko Probintziako Artxiboan). Bi Bisitaldi hauen inguruko giroa eta arazoak ezagutzeko, ik. Aita J. J. Maiz-ek idatzita utzi zuena: SOLAGUREN, C.; MAIZ, J. J. (1978): *La Exclaustración y Restauración de los Franciscanos de Cantabria y el P. Mariano Estarta (1804-1878)*. Arantzazu: EFA. 65-67, 79-81.

[17] Ik. Solagurenek gogorarazten diguna (aip. liburuan, 66): irizpide hori jarraituz, Aita Maiz zarauztarra La Aguilera-tik (Burgos) oinez etorri omen zen Arantzazura.

06,00	Jaiki.
06,30	*Prima* eta *Tertia*-ren errezoa.
06,45	Komentutarren Meza.
07,15	Gogoeta-otoitza.
.....	.....
11,00	*Sexta* eta *Nona*-ren errezoa.
11,30	Bazkaria, eta Koruan esker-otoitza. Lagunarteko ordua.
13,00	Isilaldia (siesta).
14,00	Bezperak eta arrats-otoitza (Konpletak).
14,30	Moral-ikastaldia (astean behin).
18,00	Matutiak eta gogoeta-otoitza
19,30	Afaria.
20,15	Koroa (errosarioa) Koruan
20,45	Lagunarteko atsedenaldia.
21,15	Erretiroa.
24,00	(Koruan, Matutiak).

arauzkoa izango zela gauezko otoitzaldi hori, udaberritik udazkenera.

Jatorduei buruz, Irigoienen agirian xehetasunik ageri ez bada ere, Komentura sartzean Nobizioei eska zekizkien zera pertsonalak honela mugatu zituen Bisitariak, edozein gehiegikeria mozteko asmoarekin:

> *Ordeno y mando que, en adelante, nada se les exija, o a lo sumo mientras dure la penuaria de las actuales circunstancias, sólo pueden exigirse a los pretendientes al S^to.^ Hábito 3 frazadas, 2 ó 3 pares de calzoncillos, un hábito con capilla y cordón, 2 túnicas y manto, 2 pares de sandalias y 4 pañuelos, sin que para la profesión se les pida más; debiendo consistir la cama del novicio y de todo religioso, si la edad o achaques no piden otra cosa, en una tarima, es decir, 3 tablas sobre 2 banquillos, un jergón de paja y un cabezal del mismo género (Id. 33-34).*

Gallego Bisitariaren 42 arauetan daude, goikoak berretsi eta osatuz esaten ziren hauek: jaiki goizeko 5etan jaikiko ziren fraideak, eta komentutarren Meza *Tertia* ondoren izango zen, goizeko 9etan; kafea eta edari alkoholdunak debekatuta zeuden, "excepto algunos días clásicos", erretzea ere bai, leku publikoetan. Fraideen gelek zinez pobreak izan behar zuten, eta hori segurtatzeko urtean birritan ikuskatuko zituen beroriek Nagusiak Kontseilariekin batera.

Gallegoren kezken artean zegoen harremanak ongi arautzea. Komentuak otoitzaren, ikasketaren eta gogoeta pertsonalaren mundua izan behar zuen, horregatik jatorduen ondoko bi ordu-erdietatik aparte, "se observará silencio riguroso". Arau orokor horren ondoan dago Gallego Bisitariaren kanpoko harremanekikoa, eta hau zehaztasun handiagoz zaindu nahi du, hainbat puntu eskaintzen baitio gaiari.

Kanpoko ateek giltzaz itxita egon behar zuten; herritarrak ez zitezkeen sar Komentura, Nagusiaren baimenik edo larrialdiren bat izan ezik; prozesioetan ere, emakumezkoak ez ziren klaustrora sartuko; bisitaldietarako ordu jakinak izendatuko ziren, eta beroriek laburrak izan behar zuten; emakumezkoen ikustaldietan, beti lagunen batekin agertu behar zuen fraideak, bidaietan ere lagunduta joango zen, posible zenetan behintzat. Ez zegoen eskutitzik bidaltzerik, aldez aurretik Nagusiari aurkeztu gabe. Astean behin eta egun izendatuan, ordubeteko pasiera egin zezaketen fraideek Komentutik kanpora.

Bizi-sistema zurruna zen, beraz, hau, baina betidaniko tradizioarekin leial zena. Orduan eta ondoko hamarkadetan, Komentu izanberrituak ildo eta arrasto honetan eramateko ahalegin guztiak egin ziren, eta lortu ere xedea nahiko ongi lortu zela esan daiteke 1880-1950. urteetan, eta hein handi batean lehen ordu hartan Irigoienek aurkeztutako salakizunen arrazoiak desagertu ere egin zirela uste liteke.

Komentuetako bizimodu arautu hari segidatasun ahalik finkoena emateko egitura seguruak ezartzen saiatu ziren izanberritzaileak, ondasunetan bezala egoera juridikoan, eta -zer esanik ez!- Probintzia erlijiosoko Anaiartean. Horrela, Esklaustrazioko haustura eta jarraitasun historikoak elkarren artean txirikordatuz joan ziren ondoko hamarkadetan.

2. Egiturazko eten eta iraupenak (1876-2000)

Etenak eta iraupenak: maila eta mota ezberdinetakoak izan dira Komentuetan honelakoak, azalekoak nahiz oso mamizkoak, barrukoak nahiz kanpokoak. Hemen, batez ere egiturazko bi aipatu nahi ditugu: estreina, Komentu izanberrituek jaso zuten, edo ez zuten, errealitate fisiko-juridikoarena, eta bigarren, Komentu guztien onetan inguruan garatu zitzaien Probintzia erlijiosoarena. Baina, horietaz deus esan aurretik, gogora ditzagun lehendabizi gizarteko eta Elizako aldakuntza batzuk, bederen.

2. 1. Inguruko aldakuntzen zurrunbiloan

Aro Garaikidean, Estatu-proiektu bakoitzak ekarri izan du bere politika erlijiosoa, eta erlijiosoentzako politika ere. Sarritan, gainera, aldi bereko politika ezberdinak ere izan dira, antzekoak edo kontrajarriak, borroka politiko zitaleraino irits zitezkeenak, eta ez bakarrik XIX.ean, geroago ere bai (gomuta 1911ko "Ley del Candado", edo II. Errepublika).

Komentuz kanpoko bilakabide eta gertakari politikoek Etxe erlijiosoak zenbateraino uki zitzaketen ikusteko, Euskal Ipar-Hegoaldeen arteko mugaz gaindiko joan-etorriak gogora daitezke. Frantziako Iraultza handia lehertu eta berehala, Hegoaldera etorri behar izan zuten hango fraideek eta mojek (1791); aro berriko lehenengo eliz errefuxiatuak ziren haiek.

Alderantziz, Iparralderako bidea hartu behar izan zuten Penintsulatik legez eta bortxaz esklaustratuek (1834-1840). Bordale, Paue eta Baiona artean bilatu zuen aterpea hainbatek. Iheslari haien eskutik, Uztaritze (1842), Donapaleu (1851) eta Baiona (1856) izan ziren, adibidez, Iparraldeko izanberritzearen abiapuntuak, Hegoaldeko kaputxino eta frantziskotarrentzat[ofm], Penintsulako izanberritzeari aurrea hartuz, noski (Bermeo, 1859).

Komentuak ireki, bai, baina berriz ere izan zen ixteko trantzerik: aipatu ditugu arestian Iparraldeko bi data (1880 eta 1903), historia zaleagarentzako data interesgarriak; baina, Hegoaldean ere, 1858-1867an hasitako lanak berehala izan zuen haustura, esan dugunez. Azkenik, 1876an hasi ahal izan zen, Monarkiaren Izanberrikuntzak sortutako baldintza berrien barruan, Komentu frantziskotarren bigarren berritzealdia; Iparraldean, ostera, 1903ko itxierak ez zuen izan konponbiderik 1938a arte.

Komentu irekiek beren hartan irauten zutenetan ere, XX. mendeko Euskal Herriko testuinguru historikoan badago berezikiago aipatu beharreko zenbait aldakuntza-une, beren alkantzu orokorrean Komentuetan oihartzunik izan zuena. Horren adibide nagusiak izan daitezke ondoko hauek: a) Industri Iraultza eta langileriaren historia; b) Abertzaletasunaren sortzea eta garapen sozio-kulturala; c) Bi Euskal Aldeetako gerrateak: G. Handia (1914), G. Zibila (1936), Munduko Gerratea (1940), Aljeriakoa (1954), ETA-ren sortzea (1958); d) Erregimen-aldakuntzak Hegoaldean: Diktadurak (1923-1930, 1936-1975), II. Errepublika Espainiarra (1931-1939), Iragapen-aldi espainola (1978...); e) Eliz barneko aldakuntzak: Euskal Diozesi berriak (1949) eta Kontzilioa (1962-1965).

Horrek guztiak Fraidearteekin zerikusi hurbila izan du, askotan: ekonomia orokor eta pertsonalean, mentalitateen aldakuntza etengabe eta batzuetan bizkortuan, otoitz-moldeetan, eta baita eliz bizitza orokorrean ere (erlijiotasun herritarra itxuraldatu egin da, gizarte sekulartuaren garapenak era guztietako aniztasunak ekarri ditu, etab.). Atzerapen nabaria zekarren eliz sektore anitzek aldabide azkarra ezagutu du Vatikano II.aren ondoren. Eliza bera da oso barrutik aldatu dena, bere funtsezko edo ez hain funtsezko balioei eusten zien aldi berean.

XIX.ean, Izanberrikuntzarekin hasteko, frantziskotarren[ofm] artean hain oinarrizkoa den Probintzi barrutia bera izanberritu eta berrantolatu behar izan zuten (horrek dituen alde instituzionalak ongi zainduz), eta lehen Komentu-barrutietatik kanporako hedapen-politika gidatu, zuhurtziaz; horretarako, estraineko urrats gisara, Komentuetako ondare galdua berreskuratzen edo garatzen ahalegindu behar izan zuten. Eta

Arantzazu kiskalita (1834): XIX. mendeko Esklaustrazioaren sinbolo adierazgarria hauxe, nahiz eta jada eraikin berririk ere ageri den, geroagoko argazki honetan.

azken buruan, *last but not least*, Anaiarteetara fraidegaiak erakartzen saiatu.

XX.ean, aipatutako testuinguru lerrakor horietan aurkitu ziren erlijiosoak, aurreko mendeetan baino segurtasun gutxiagoko inguru bizi batean murgilduta, eta, komunikabideak Komentuetara sartu direnetik, azkenean mundumunduan sartuta, Komentuen lehen berritzaileek inola ere aurrikus ahal izan ez zuten moldean.

2. 2. Egiturazko lehen baldintzak

Probintzia Erlijiosoa eta Komentuak izanberritu nahi zituztenek, besteak beste, bi galderari erantzun beharrean aurkitu ziren behintzat: Nola eta zein oinarri ekonomiko emango zitzaizkion Komentu izanberrituari? Tokian tokiko baldintzetatik harago zein segurtasun aurki zezakeen Komentuak Probintzia erlijiosoan?

Bi kezka hauei buruz esango da orain zerbait.

- Komentuko ondasunak

Ondasunak eta mota guztietako baliabide ekonomikoak (jabetasun osoarekin edo gabe) Komentuen Izanberrikuntzarako aurrebaldintza izan dira beti. Oro har, Komentuek hiru motatako ondasun higiezinen jabe izan ohi ziren: Komentu-Etxebizitza bera, Komentuko eliza eta berorien ondoko orube eta baratzea. Desamortizazio-legeen eta ondoko politikaren ondorioz (1834-1843), hauetako bakoitzak bide ezberdina ere egin zezakeen, Estatuaren beraren erabakiz eta/edo enkante bidez.

Oso arrunta izan zen *eliza,* egoki ziren eliz zerbitzuetarako herriko Parrokiaren edo Diozesiaren esanetara geratzea, eta herritarrentzat irekita egonik, Parrokiako edo berariazko apaizen batek eramatea (arduradun hori behin baino gehiagotan fraide esklaustratu bat zelarik). Honelakoetan, Komentua legez izanberritzean ez zen zailegia fraideek eliza bere hartan

berreskuratzea (Tolosa, Bermeo edo Arrasateko kasuak).

Komentu-etxearena nahasiagoa izan ohi zen, zeren eta enplegu asko izan baitzitzakeen horrelako eraikin batek. Zerbait moldatuz gero, balio zezakeen etxebizitza arruntetarako, eskoletarako, erietxe gisa, kaserna nahiz biltegitarako, adibidez. Honelakoetan, ba, komentu-etxea berreskuratzeak Elizaz kanpoko interes finkatu batzuk mindu zitzakeen, edo Komentuan jarritako herriko zerbitzuei beste irtenbiderik eman gabe ez zen posible politikoki komentua fraideei itzultzea (Erriberri, Bermeo). Fraideen eskubiderik ezagutuenak ere praktikan irteera zaila zuen, hortaz.

Baratzea edo *ortuari*, desamortizatu eta biharamunetik bertatik, merkatu librerako bidea eman ohi zion Estatuak, "ondasun nazional" bezala beronen eskuetan gelditu baitziren ondasun desamortizatuak. Orube horiek estimatuak eta baliosak ziren enkantera atera eta Estatuaren eta erosleen onetan saltzeko (garaiko burgesia dirudunarentzako aukera ona, gainera), edo herriko hedagune bezala erabiltzeko (Gasteiz, Bilbo, Donostia). Enkante-unean, komentu-baratzeak merkatu libreko urek eramaten zituzten (Tolosa, Arrasate, Arantzazu), baldin eta fraideen konfiantzazko bitartekari aitortugaberen batek garaiz bere kontura erosten ez zuen (Zarautz-en gertatu bezala).

Azken batean, eraikinen jabetasun-izaerak eta egoera fisikoak guztiz kontrajarriak izan zitezkeen, batzuetan erabat atzera-martxarik gabekoak zirelako, eta besteetan, ostera, konponbideren bat izateko modukoak.

1) Alde batetik, denboraren edo suteren baten poderioz behera etorritako eraikinak zeuden (Arantzazu, Donostia, Bilbo, Sasiola, Tolosa, Urduña, Argantzun), edo oso hondatuak (Bastida); bestetan, agintarien edo jabeen erabakiz eraitsiak izan ziren (Baiona, Gasteiz, Elgoibar), gehienetan lehendabizi komentu-etxea, eta gero, eliza.

2) Bestetik, egoera juridiko batean nahiz bestean, baldintza fisiko on edo txarragotan, zutik iraundako eliza-komentuak zeuden. Honelakoak izan ziren beren garaian, aldi batez eta partez bederen, Bermeo, Tolosa, Arrasate, Gasteizko biak, Zarautz, Elgoibar, Urduña, etab.

Ahal zenetan eta eragozpen gehiegirik gabe tokiko eske edo aukerei erantzuteko paradarik izan zenetan, Izanberrikuntzaren gidariek lehengo Komentu zaharrez baliatu ziren, Fraidearte berriei aterpea emateko. Hala ere, beste Ordenaren bati utzi ere egin zizkien Komentuak, indarrak falta zitzaizkielako (Zangozako Komentuan kaputxinoek aurkitu zuten egoitza), edo buruhauste berririk ez sortzearren (Gasteizen klaratarrak daude orain Hiriko frantziskotar errekolektoen komentuan: San Antonio).

Baina, behin baino gehiagotan, Fraideartea izanberritzeko eraikin berriak jaso behar izan ziren: komentu-etxea bakarrik (Bermeo, Tolosa) edo komentu-elizak, biak batera (Donostiako Egia, Bilboko Iralabarri, Gernika ondoan Forua), edo etxebizitza arruntean bizitzen jarri. Badago, gainera, azken orduko irtenbide eredurik ere, egoera zahar lardatsak txukundu eta herrirako bezala Komenturako irtenbide egokia aurkitu duenik (Bermeo).

Liburuan zehar ikusi ahal izango du irakurleak gaurdaino iritsi zaizkigun Komentu zaharren historia zein izan den; baina ezin dira ahaztu guganaino heldu gabeko Komentu zaharrak. Araban, ez dira izanberritu Gasteizko San Frantzisko, Bastida, Argantzun eta Kanpezu-Piedrola; Bizkaian, Bilboko biak (Santimamine eta Abandoko San Frantzisko) eta Urduña; Gipuzkoan, Sasiola, Elgoibar eta Donostia-Txurrutal; Nafarroan, Iruñea, Tutera, Tafalla, Lizarra eta Biana; Iparraldean, Baiona eta Ziburu (hau partez zutik). Bestalde, Anaiarte frantziskotarrak[ofm] galduta baina eraikinak zutik dituztenak hiru behintzat baditugu: Zangozakoa (kaputxinoen Anaiartearekin orain), Gasteizko Sorkundea edo San Antonio (klaratarren Ahizpartearekin) eta Ziburukoa Lapurdin (Donibane/Ziburuko portuan zutik, baina Fraidearterik gabe).

Liburu honetan, horietako zenbaitek badu bere azken urteetako historia, baina inolako

jarraipenik izan ez dutenak ez dira hemen agertuko, hala nola, Bastida edo Urduña, Tutera edo Ziburu. Beren historia eskaini diegunetan, ordea, izango du irakurleak tokiko antzinako Komentu bakoitzari dagokion xehetasunen bat.

Nolanahi ere, Izanberrikuntzako frantziskotarren[ofm] segurtasunak/ahuleziak tokian tokikoak baino erakundezko orokorragoak izan dira, hau da, Probintzia erlijiosoari lotuak. Hori da ikusi nahi duguna.

- Kantabria edo Arantzazuko Probintzia

Frantziskotarren artean, Probintzia da oinarrizko gobernu- eta bizi-erakundea eta barrutia: beronen esku egon ohi dira Komentuak (izan ere, tokiko autonomia goitik mugatuta dago, boterez, ekonomiaz eta pertsonalez): Probintzia arduratzen da fraidegaien hezkuntzaz (belaunsegida), Probintziak hornitzen ditu Komentuak fraidez (pertsonal-politika), Probintziak nonahira bidal ditzake fraideak bere barrutian (demo-geografia dinamikoa), Probintziak du Etxe bakoitzeko bizieraren goi-ardura (arautegiak), etab.

Dena den, Probintziaren izana hutsala izango litzateke Komenturik ez balu, hauen sareak ematen baitizkio hari haragiztadura soziala eta tokian tokiko izana eta finkotasuna. Horregatik, Mariano Estartari Erromatik izanberritze-zeregina eman zitzaionean (1853), garbi zeukan honek Komentuak izanberritzetik hasi behar zuela. Kantabria edo Arantzazuko Frantziskotar Probintziaren izanberritzea Bermeoko Komentuarekin hasi zela esan izan da, eta ez, adibidez, Estartaren Komisari-izendapenarekin (1853), nahiz eta Komisari izanberritzaileen politika guztiz erabakigarria izan zen ondoko gertabidean.

Esklaustrazioa osorik egikaritzean (1840), ehundaka frantziskotarrek[ofm] utzi behar izan zuen Komentua. Komentu handi eta txiki, denak itxi ziren. Probintzia Erlijiosoa gorputzik gabeko izaki juridiko hutsa bilakatu zen, eta legezko izatasun zibila ere ez zitzaion aitortzen. Erromako Aulki Santuaren borondatearen, atzerritik eskain zekiokeen laguntzaren eta Penintsulako barne-klandestinitateko gorabeheren aldarteetara geratu zen dena Hegoaldean.

Hogei-hogeitabost urteko esperientziaren ondoren, esklaustratuak edo hilak ziren, edo legezko egoera eta kanpoko bizitza praktikora -bietara- ongi moldatuak, gehienak. Bien bitartean, itxitako Nobiziategiek ez zekarten odol berririk. Hala ere, 1859 ondoko hamarkadetan, fraide ohien talde egokia bildu zen Komentuetara: 25 lagun Bermeon, eta 44 edo, gainerako orduko Etxeetan; Bermeoko Nobiziategi berrian abitua hartutakoak 61 izan omen ziren lehen ordu haietan (1860-1868)[18]. Horrela, Etxe berrietara hainbat lagun bidaltzeko lain izan zen Estarta 1865ean (Donemiliaga) eta 1867an (Zarautz). Baina horrek guztiak bigarren etena izan zuen laster, 1870ean.

Bigarren Izanberrikuntzari ekin zitzaionean (1876...), giza baliabide berriak ez ziren metatu berehala, eta lehenengo Komentuetan (Zarautz, Arantzazu eta Erriberri) zeudenak (nobizio, fraidegai eta guzti) 71 ziren bakarrik (1881)[19]; baina errealitate apal horren gain Probintziaren hedapena, Komentuz Komentu joan zen egiten.

• Euskal Herrian eta Erbesteetan

Komentuek, juridikoki, lurralde-eremu bat izan ohi dute berekin, *Komentu-barrutia*; eta komentu-eskualde horiekin osatzen da Probintzia, hau da, Komisari edo Ministro Probintzialaren menpe egongo den Barrutia. Eta hemen

[18] Begira "Catálogo de los religiosos exclaustrados que se agregaron [...] en el Comisariato del M. R. P. Estarta". Aita Maiz-en eskuizkributik egindako zerrenda, eta *Libro de ingresos y salidas de Hermanos Novicios* deritzanean jasoa. Zerrendak badu errakuntzarik franko (adibidez, J. R. Irigoien, esaten denaren alderantziz, ez zen Komenturatu sekula), eta hainbaten itzulera-urtea ez da ematen agirian.

[19] *Libro de la Provincia* (=*Actas Capitulares y Definitoriales* I): 6-15. Hemen ez ditugu aintzakotzat hartu Bermeoko Egoitzako 3, eta Euskal Herritik kanpoko Soto-ko (Santander) 13.

Arantzazuko Probintzia (1949):
Orain gutxi arte "Kantabria" deitutako barruti hau Penintsulan aski hedatuta dago.



dator lehenengo eten historikoa. Penintsulaz ari garela, Kantabria zaharra (1551-1840) eta orain izanberritua (1859...) lurraldez, bederen, ez dira gauza bera izango. Horretan Probintzia eratu berriaren ekimenek agindu zuten, baina baita inoren ahuldadeak ere.

Ekimen haien artean batek izan zuen Euskal Herriarekin berarekin zerikusi zuzena. Aipatu dugu nola Erriberri/Oliteko Komentua 1880an Arantzazuko Probintziari atxiki zitzaion. Handik aitzina, Komentu hura ez ezik Nafarroa osoa "euskal" Probintzian egon da Hegoalde osoa barruti probintzial bat beraren barruan izateko[20] (Erdi Aroan Aragoikoan, eta Modernoan Burgos-koan egon zen arren). Erabaki historikoa, beraz.

Hurrengo urratsak Gaztela eta Aragoirantz eman zituen Kantabria izanberrituak. Erdi Arotik hain indartsu izandako frantziskotartasun gaztelaua XIX.eko Izanberrikuntzaren lehen hamarkadetan, eta gero, ahul agertu zen; halatsu Aragoikoa ere. Hortaz, *no man's land* baten aurrean aurkitu zen Kantabria edo Arantzazuko Probintzia goiztarra, eta, aukerarik sortuz gero, geografia horretako bi mugaldeetan aurrerapausoa emateko moduan.

Lehen egokiera Aragoien suertatu zen, geroxeago Gaztela hurbilean, Errioxa nafar historikoan, eta azkenik -zerbait geroago- Gaztela Zahar zabalean. Ikus ditzagun banan-banan hiru kasuok.

Probintzia Erlijiosoaren ekimenez baino tokiko deiari erantzunez ireki zen lehenengo komentu izanberritua Aragoien, eta ez Zaragoza bezalako hiribururen batean, Caspe-n baizik (1889). Komentu berriaren albokotasun hori gorabehera, beraren irekierak beste ondorio bat ekarri zuen Arantzazuko Probintziarentzat, Nafarroan jazotakoaren antzera: Aragoi osoa bere lurraldegai bilakatu zen. Horrela, askoz geroago izanik ere, Zaragozan ere eraiki ahal izan zen bigarren Komentu aragoitarra (1938). Erabaki goiztar haren ondorioz, Arantzazukoa izan zen Aragoiko lurraldea, Valentziako Barrutira pasatu zen arte (1949).

Erdi Aroan eta Modernoan Gaztelako frantziskotartasuna indar handikoa izan zen (bere "komentutar" eta erreformatuekin), eta euskal Hiru Probintzietan ez ezik Nafarroan ere itzal eta inoiz aginte osokoa ere bai. Pentsa zitekeen, beraz, tradizio historiko hari jarraiki, hango jato-

[20] Agian ongi etorriko da gogoratzea, frantziskotarren artean Erdi Aroan Nafarroa Aragoiko Probintziakoa izan zela. Felipe II.ak egoera hori aldarazi nahi izan zuenean (1567: beraz, Baionako Diozesia Penintsulatik bota zuenean), Nafarroa bitan banatu zuen, hiru Komentu "euskal" Kantabriari lotuz (Iruñea, Zangoza eta Arabako Kanpezu-Piedrolakoa), eta gainerakoak Burgosko Probintziari utziz (Tafalla, Erriberri, Tutera, Lizarra eta Biana). 1602ko azken banaketan, Iruñea eta Zangoza Burgoskora pasatu ziren (hortaz, Nafarroa osoa gelditu zen Probintzia horretan), eta Kantabriari, trukean, Poza eta Miranda Ebrokoa eman zitzaizkion Burgosko Probintzia zibilean. Horrela geratu ziren gauzak Esklaustrazioa arte.

rrizko Probintziak ere indar onean izanberrituko zirela. Ez zen, ordea, halakorik gertatu.

Arantzazuko Probintziaren Gaztelako lehen hedapena lurralde nafar historikoetatik hasi zen, Ebro-ondoko Errioxatik, eta hori XIX. mendea amaitu baino lehen. Bi Etxe ireki ziren urte berean, 1895ean. Bata Alfaro-n, 1547tik han bertan egondako lehengo Komentuari segida emanez, eta irakaskuntzaz ere arduraturik. Bestea, Naxeran: herri honek lehenago ere izanik zuen komentu frantziskotarrik, baina berriro itzultzean hartutako Etxea beneditarren Monasterio bat zen, Nafarroako Erregeen hilobitegi izana, hain zuzen. Alfarokoak 1988a arte iraun du irekita, eta Naxerakoak gaurdaino bere indar betean dirau, Fraidearte eta Monumentu Nazional bezala. Bi Etxe hauek garai bateko Burgosko Probintzia frantziskotarreko[ofm] lurraldean oinak jartzeko balio izan zuten, Gaztelarantz atea ez bazen leihoren bat irekitzeko behintzat.

Hurrengo urratsa Errioxatik askoz harago iritsi zen. Arantzazuko Probintziarekin zerikusi juridikorik gabe, Perutik Penintsulara itzulitako frantziskotarrek[ofm] Komentu bat izanberritu zuten Burgosko La Aguilera-n: *Domus Dei* Santutegia (1888)[21]. Kubarako Misiolari-Kolegioa izan behar zuen honek; egitez, hurrengo hamarkadetan Kuban lan egingo zuten La Aguilerako frantziskotarrek. Bestalde, euskaldun franko egin zen fraide Komentu horretan, eta hauetako hainbat joan zen Karibeko Irla hartara.

Horren aurrean, 1903an asmo bikoitzeko proiektua aztertu zen Arantzazuko Probintziako Definitorioan. Urte haietan, beldur zen eliz jendea ez ote zetorren hirugarren esklaustrazioa Penintsulan (urte berean Frantzian gertatu zen bezala)[22], eta Probintziak komenigarri ikusi zuen ustezko erbestealditarako hizkuntza espainoleko Amerikako herriren batean aterperik segurtatzea. Horrezaz gain, Arantzazukoa gorantz zetorren Probintzia zen baina erbesteko Misiorik gabea[23], eta Komisari Jeneralaren ustez une ona izan zitekeen hura[24] La Aguilerako Misiolari-Kolegioari etorkizuna segurtatzen zitzaion aldi berean Karibeko Irla hartan Misioordeko lurrak eskaintzeko. Probintziak ongi ikusi zuen proposamena[25].

Ondorioz, Arantzazuko Probintziari bi lurralde berri ireki zitzaizkion: Penintsulako hedapenerako, Gaztela Zaharra, eta hemendik kanporako, Kuba. Kubarako hitzarmena onartzean eta hara lehen euskal fraide arantzazuarrak bidaltzean (1904), La Aguilera-ri berari Probintzia honetara biltzea eskaini zitzaion, indarrean zetorren barruti horretan leku emanez (1906). Harez gero, Ordena barruan Probintzia honek Gaztela Zahar osoa eskueran izango zuen bere hedapen librerako.

---

[21] Gaztelako tradizio historiko handiarekin loturik zegoen Etxe hau, bertan baitaude San Pedro Regalado (heriotza, 1456) erreformatzailearen erlikiak, eta bertatik egin baitzen XV. mendean Obserbantziara bilduko zen Erreformetako bat. La Aguilerako historiaz, ikus: CARRION, L. (1930): *Historia documentada del Convento de La Aguilera*. Madrid.

[22] XIX. mendearen hondarretan, Ordena Erlijiosoak ostera programa politikoetako eztabaidagai bihurtu ziren, elkarte horiek hartu berri zuten indarra ikusita. Sagastaren garai antiklerikalena da 1901ekoa, baina pertsonalki komentzimendu handirik gabekoa, nahiz eta bere inguru hurbilak zirikatuta Parlamentuan Ordena erlijiosoen *status* juridikoa berraztertzea proposatu zuen. Handik aurrera, Alderdi Liberalaren (Sagasta, Canalejas) egitarauan agertuko da gai politiko hau. Une historikoa ezagutzeko, ik. ANDRES GALLEGO, J. (1972): "Planteamiento de la cuestión religiosa en España, 1899-1902", in: *Ius Canonicum*, XII, 1972, 173-221.

[23] 1902an Arantzazuko Probintziaren aurretik zeuden beste Probintziek (Santiago/Galizia: 412 lagun; San Gregorio/Gaztela Berria: 315), hurrenez hurren 132 eta 64 fraide zituzten Marokko/Lur Santuetan, eta Filipinetan, La Aguilerak (denak 53 izanik) Kuban 20 zituen bitartean. Arantzazukoak ez zuen horrelako hipoteka edo erantzukizunik eta eskuak libreago zituen ekimen berriak bere bizkar hartzeko.

[24] Frantziskotar agileratar dezente euskal herritarra zen: La Aguileran bertan 33etatik, 10; Kuban, berriz, 20etatik beste 10. Horrezaz gain, Definitorioan esan zenez, Irlako guztiek edo nahi zuten Arantzazuko Probintziak Misio hura bereganatzea (ik. *Actas Capitulares y Definitoriales* II, 57).

[25] Testu interesgarria da 1903ko apirilaren 17ko Definitorio-bilerak utzitako akta: Amerika osoa errepasatu zuten, segurtasunaterpea zein izan zitekeen erabakitzeko. Arazo hari Ameriketan irtenbidea eman ziezaiokeelako eta, bide batez, Penintsulan eremu berriak zabal zitzakeelako hobetsi zuen Definitorioak Kubakoa, gainerako hautabideen artean.

Horrela, iradoki dugun Gaztela Zaharreko lehen hedapen-ekitaldia aski goiztar etorri zen (Errioxan, 1895, eta La Aguileran, 1906, ikusi dugunez), baina hurrengo pausoak mantso eta bakan eman ziren: Soria (1920), Valladolid (1923), Madril-San Fermin (1933), Santander (1955) eta Liébana (1959). Madrileko Nafarren San Fermin Komentuak aparteko historia du, etxea bera Hiribildu hartako nafarren Elkartearen menpekoa baita, izatez, ez fraideena[26].

Penintsulatik at, Arantzazuko Probintzia beste zenbait Herritara ere zabaldu da (beheragoko laukian ikus dezake hori irakurleak). Hona ekimen berri horien kronologia: Kuba-Sto. Domingo-Puerto Rico-Miami (1904, 1967, 1966), Txinako Ipar Shaanxi (1913), Paraguay-Uruguay-Argentina (1938, 1944, 1957), Bolivia-El Beni (1957), eta Probintziakoak izan gabe baina bertakoekin, Japonia eta Hego Korea (1957, 1965). Barruti hauetako bakoitzean hainbat Etxe izan da, komentu edo ez-komentu[27].

• Nondik zetozen indarrak?

Arantzazuko Probintzia euskal herritarra izan den heinean, hedapen horretako pertsonala ere neurri beretsuan halakoa izan zitekeela uste dezakegu. Eskuarki, halaxe pentsatu izan da Arantzazuko Probintziaz: batez ere euskal herritarra izan dela XX. mendean. Hala ere, ez da aztertu izan hori zenbatekoa izan den frogatuko lukeen zehaztasunik. Urtez urte mende osoko datu estatistikoak jasotzen ibili gabe, lagin batzuk bederen ekarri nahi ditugu hona.

Probintziaren gizaldiko hazkuntza segituz, bertako Fraideartearen jatorri-geografia bitan banatzen badugu (Euskal Herria eta Erbesteak: azken multzo honetan, Penintsula eta beste Herriak emanik), nahiko agerian geratuko zaigu fraideen sorterriek adieraz dezaketen Probintzia erlijiosoaren sortzezko jatorria. Zenbat izan dira euskal herritarrak eta erbestetarrak?

Hona, aukeratu ditugun urteetan ikus dezakeguna:

ARANTZAZU PROBINTZIAKO FRANTZISKOTARREN SORTERRIAK (XX. MEND.)[28]

	1916		*1930*		*1946*		*1969*		*1998*	
Probintziako Fraideak	352	—	438	—	476	—	712	—	389	—
Sortzez Euskal Herrikoak	300	%85	380	%87	403	%85	609	%86	313	%80
Sortzez Erbesteetakoak	52	%15	58	%13	73	%15	103	%14	76	%20

[26] Ik. SAGÜÉS, P. (1963): *La Real Congregación de San Fermín de los Navarros*. Madrid.

[27] Ez naiz sartuko hemen xehetasun juridikoetan, denak ez baitute izaera bera izan eta berori ere aldatuz joan baita denborarekin.

[28] Lauki hau osatzeko erabili ditugun iturriak estatistika ofizialak izan dira, aurreko oharretan aipatutakoak noski, eta 1946 eta 1998rako: ZULUAGA BILBAO, A. (1946): *Estado general de la Orden Franciscana en España y sus Misiones*. Madrid: San Francisco el Grande; KANTABRIAKO FRANTZISKOTAR PROBINTZIA (1998): *Pertsonal egoera*. Donostia (Estatistika honen barruan daude beste Probintzietara atxikirik, Arantzazukotzat ere hartu izan diren 26 fraide ere). Oro har, sorterriak ezagutzeko, *Estado personal* direlakoekin batera, AGIRREZABALA/BERAZAren lana izan da albistegi erabiliena: (1998): *Aportación de personal de Euskalerria al movimiento regular franciscano*. Zarautz. (Argitalpen mugatua; Ordenako *Schematismus*-etan oinarritua). Ez da ahantzi behar liburu honetan Arantzazu Probintziako fraide denak daudela, baita Euskal Herritik at jaiotakoak ere. Altuenik ere, urte bakoitzean dozena-erdi bat lagunen sorterria ez da ezagutu ahal izan (hau da, batez ere 1946ko kasua), eta, erdal deitura zutenez, erbestekoen artean sartu ditugu. Azken emaitzak, beraz, errealitatetik oso hurbil daudela uste dugu; agian errakuntza-tarte oso txikiarekin (%2?), eta hori, izatekotan, erbestekoen portzentaien alde emandako desbideratzea izango litzateke.



Munduan zehar (XX. mendea): Euskal Herriko frantziskotarrak hainbat Herritara iritsi izan dira. (1964ko datuak).

Sortzez Euskal Herrikoen artean ez da egon, dakigunez, Euskal Iparraldean jaiotakorik (hango frantziskotarrak Akitania Probintziakoak izan dira), eta 1880an geroztik Arantzazu Probintziakoak izan dira, oro har, frantziskotar nafarrak, nahiz eta ez den falta izan, dakigunez, Penintsulako beste Probintzia erlijiosoetan frantziskotar euskal herritarrik.

Arantzazuko Probintzian fraidegaiak euskal Herrialdeetan jaioak izan dira gehien-gehienak: nahikoa da hori ikusteko laukian dauden ehunekoak begiratzea; aztertu ditugun urteetan ehuneko 85etik gora izan dira ia beti sorterria Euskal Herrian izan duten Probintzia honetako fraideak (azken bi hamarkadetan jaitsi da zerbait ehuneko hori). Aldiz, gainerako Erbeste guztietatik Probintzia honetan fraide egindakoak (Penintsula nahiz Amerika gogoan hartu) ez dira pasa ia inoiz ehuneko 15etik.

Hamarkadak iragan ahala, portzentaiak ez dira apenas aldatu. Probintziako barne-ikastetxeak gehienbat Euskal Herrian lekutuak egon ziren, eta, inondik ere, fraidegaitarako erakarmen sozialak –eta instituzionalak— hemengo komentuetatik izan zuen indarrik handiena (gogora Oñati, Zarautz edo Bermeo herrietako kasuak). Alderantziz, Gaztelako komentuek (eta han zeuden fraideek: sarritan euskaldunak) ez zuten lan bera egin, gazteak hain urrun eta arrotza zen Euskal Herrira bidaltzeko.

La Aguilerako komentuaren historia berezia tarteko (inguruko herrien Santutegia izan da San Pedro Regalado-ren hau), eskualde hartatixe izan zen, uste dugunez, bere eskasean ere fraidegai gaztelauen ekarririk ugariena. Soriako kasuak, bestelako analisia eskatuko luke, zeren eta hango Ikastetxe handiak bokazioen eremu honetan izandako historia interesgarria dela pentsa bailiteke; bestalde, Probintziak azkenik Sorian Seminario bat sortu zuen, hain zuzen Gaztelako gazteak hara biltzeko pentsatua (1971-1985): dena delako arrazoiengatik (bat, behintzat, bokazioen koiuntura berria), ez zuen hark emaitza handirik eman.

Bukatzeko, esan dezagun Ordenak bere jarraitasunerako izan zuen politikaren eta inguru sozialetik eman edo ezarri zitzaionaren historia egiteke dagoela, Euskal Herrian bezala Penintsulan edo Misio-herrietan. Beraz, oraingoz eta beste gabe, bego hori horretan, eta goa-

zen han-hemen bildutako giza indar haien Probintzi barrutiko banaketa nola egin zen ikustera.

• Nola banatu ziren giza baliabideak?

Arantzazuko Probintziako banaketak bere gobernu-politika izan zuen fraideen artean, ez nahitaez aldez aurretik bere orokorrean erabakia, baina gisa batean edo bestean bai ezarian-ezarian bere bidea egin eta emaitzak eman zituena. Hortaz, fraideen sorterria gorabehera, nahiko garbi ageri da, erbestetarrak errazago bidali izan zirela beren sorterrietara, Gaztela edo erbesteko beste herrietara, Euskal Herrira baino (hizkuntzen arazoa tarteko zela ere bai). Euskal herritarrek, bestalde, ugari zirelarik eta hemengo Komentuak bete samartuta, erbestean zabalki lagundu izan dute, Penintsulan bezala beste herrietan.

Datuek esaten dute horretaz zerbait: Mendehasieran, Penintsulan Probintziako 28 lagun ziren Euskal Herritik kanpoko Komentuetan (1900). Laster aldatu zen egoera hura: 1907an, Penintsulan eta beste herrietan, jada 92 ziren (Probintziako fraideetako % 37,8). Ondoko hamarkadetako datuek erakutsiko dute fraide aktiboen[29] banaketa nola egin izan zen Probintzian, Euskal Herrian eta Erbeste guztietan.

Gorago ikusita dauzkagun bi datuetatik has gaitezke laukia begiratzen: a) Arantzazuko Probintzia sortzez euskal herritarra izan da batik bat (%80/85 artean ibili dira mende osoan euskal herritarren portzentaiak), b) Probintziako fraidearte aktiboa altua izan da, fraide-erakundeetan ohi denaren antzera: %80tik gorakoa.

Hori horrela, galde daiteke zenbateraino lan egin duen fraide-jende aktiboak Euskal Herrian, edo, aldiz, atzerrian gehiago bizi izan ote den.

ARANTZAZU PROBINTZIAKO FRAIDE AKTIBOEN LURRALDEZKO BANAKETA [30]

	1916		*1930*		*1946*		*1969*		*1998*	
Probintziako fraide aktiboak[31]	298	%85	357	%82	377	%79	587	%82	377	%97
Fraide aktiboak Erbesteetan[32]	148	%49,7	205	%57	209	%55	331	%56	179	%47
Fraide aktiboak Euskal Herrian	50	%50,3	152	%43	168	%45	256	%44	198	%53

[29] "Fraide aktiboak" diogu: zer da hori, ordea? Haragoko xehetasunetan sartu gabe, Probintziako pertsonala bi multzotan banatzen du kontzeptu honek: alde batetik, fraide ikasle gazteak (definizioz ez-aktibotzat hartuko ditugunak), eta, bestetik, gainerako fraide guztiak, era batean nahiz bestean lanean dihardutenak. Hortaz, zaharrak eta gaixoak ere aktiboen artean ematen dira hemen, Euskal Herrirako bezala Erbesteetarako ere.

[30] Berriz ere, lauki hau osatzeko erabili ditugun iturriak estatistika ofizialak izan dira, aurreko oharretan aipatutakoak noski, eta 1946 eta 1998rako: ZULUAGA BILBAO, A. (1946): *Estado general de la Orden Franciscana en España y sus Misiones*. Madrid: San Francisco el Grande; KANTABRIAKO FRANTZISKOTAR PROBINTZIA (1998): *Pertsonal egoera*. Donostia (Estatistika honen barruan daude beste Probintzietara atxikirik, Arantzazukotzat hartu izan diren 26 fraide ere).

[31] Pertsonal aktiboaren ehunekoa, Probintziako pertsonal osoaren gain aterata dago.

[32] "Erbesteak" kontzeptua Euskal Herria ez diren lurraldeak adierazteko darabilgu: Penintsulakoak eta hemendik kanpoko nonahikoak ere. Ilara honetan eta hurrengoan eman diren portzentaiak pertsonal aktibo osoaren gain emanda daude, ez Probintziako pertsonal guztiaren gain.

Laukian daude erantzunak, eta beha ditzagun zenbakiak.

XX. mendeko lehen erdian, 1946a arte bederen, Euskal Herrian jada finkatuta eta iraunkor ageri zaigu fraide aktiboen zenbatekoa: 150, 1916an; 168, 1946an. Hogeita hamar urteetan ez da aldakuntza handirik izan. Hurrengo hogeita bost urteetan (1946-1969), ordea, jauzi handi bat eman zuen horrek, Euskal Herrian Etxe berriak sortu zirelako baino batez ere zeuden hemengo egiturak pertsonalez eta zereginez aberastu zirelako: bertoko Komentuak 168 bizilagun aktibo izatetik 256 izatera pasatu ziren[33].

Eta zer esan, aldi berean, Erbesteez? Mendeko lehen hamarkadak aski finkatuta utzi zuen arantzazuarren Erbesteetako presentzia, eta 1916an baziren 148 lagun kanpoan. Ondoko hamabost urteetan, Euskal Herrian gertatu ez zen moduan, beste jauzi bat egin zen erbesteko jardueran: 50en bat fraide gehitu zitzaizkien kanpoan lehendik zeudenei (205 izateraino); baina horrek ez zuen balaztatu berehalako hamarkadetako goraldia eta Probintziak gero eta jende gehiago bidali zuen atzerrira: 122 gehiago (1946-1969).

Zifra absolutuetan ikus daitekeena, ehunekotan ere agerian geratzen da: Mendeko lehen hamarkada pasatuz gero, eta euskal herritarren portzentaia hain gorena izan arren, ia parean egiten da Probintziako pertsonalaren banaketa, Euskal Herriaren eta Erbesteen artean (1916: %50,3 hemen bertan eta %49,7 Erbesteetan). Hortik aurrera oreka hori Erbestearen alde aldatuz joan zen bere ehunekoetan, eta Probintziaren goraldirik jasoenean ere Euskal Herriko Anaiarteetan %44 inguru fraide bildu izan zen, 1969a arte, Erbesteetan %56 inguruko portzentaiak ditugun bitartean.

Mendeko azken herenean, 1969tik aurrera, jada hainbat daturekin ikusita daukagunaren arabera, Probintziako demografiak egiturazko aldakuntzak ezagutu ditu, gazteriaren presentzia galtzean, eta 1969ko 712 lagunetatik 389tara etorri da (1998). Aldi berean, aurreko hamarkadetako jendetza ez-aktiboa ia osorik desagertu egin da, eta gainerako pertsonala zahartuz eta urrituz joan: 389 lagunetatik, dozenaren bat da orain ez-aktibotzat eman dezakeguna, ez besterik.

Pertsonal-politikak oreka berria bilatu behar izan du, Erbesteko zenbait eginkizun utzi eta

Arantzazu (c. **1955**): Aurrerapen teknikoei bide ematen.

[33] Urte horietan, Euskal Herriko Komentu berri bakarra Arrasatekoa izan zen (1953).

Euskal Herrira eta Penitsulara bilduz; horren ondorioz, portzentaiak aldatu egin dira: orain Euskal Herrian dago Probintziako %53 fraide aktibo arantzazuar (1998).

Ondoko lauki honekin osatuko dugu atal hau, berak dakartzan argibide geografiko xeheagoak hona bilduz: Probintzia bere unerik jasoenean zegoenekoa dela esan daiteke (1964), eta Koreako hedapena (1965) ageri ez arren, ongi ispilatzen du arantzazuarren munduko presentzia geografiko azkarra, eta pertsonalaren hedapen handia. Munduko zabalkuntzaren barnean, azpimarragarria da Probintziak Penintsulan zituen 112 lagun horiena ere. Aipatuta dauzkagun komentuetan zeuden hauek, eta beste zenbait kapilau-etxetan (Trillo-Guadalajara, Burgosko klaratarrak, Medina del Campo-Valladolid, Villimar-Burgos, Madril).

Mende osoari behatuz, datuotatik zenbait ondorio atera daiteke, noski:

a) Probintziak iraunkorki Erbesteko lanari eman izan dion leku zabala.
b) Gaztela eta Aragoiko frantziskotartasuna finkatzeko mende eta laurdenean Euskal Herritik egin den lana.
c) Amerika eta Asian euskal herritarrek emaniko indarren tamaina erlatiboki altua izan da.
d) Oro har, hainbat herri ezberdinetan Arantzazuko Probintziak bizi izan duen nazioartekotasuna pisu handikoa gertatu da.

Hemengo Komentuez hitz egitera itzuli aurretik, eta laukiotan ikusi duguna ikusita, galde dezakegu, argibide osagarri gisara, Arantzazuko Probintzia frantziskotarrak zein leku erlatibo izan duen Penintsulako besteen artean,

ARANTZAZU PROBINTZIAKO FRAIDEAK (1964) JARDUERAREN ETA BANAKETA GEOGRAFIKOAREN ARABERA		
Datu orokorrak		
Probintziako fraideak[34]	735	—
Probintziako fraideak Euskal Herrian	439	%60
Probintziako fraideak Erbesteetan	296	%40
Jardueraren araberako datuak		
Fraide aktiboak Probintzian[35]	556	%76
Fraide aktiboak Euskal Herrian[36]	267	%61
Fraide aktiboak Erbesteetan	289	%98
Fraide ez-aktiboak Euskal Herrian	172	%39
Fraide ez-aktiboak Erbesteetan	7	%2

[34] 1964ko *Estado personal*-ak 743ko fraide-kopurua eman zuen, bere azken batuketan; gure batuketa berrikusiak 735era mugatu du denen kopuru hori. Honen arabera ematen dugu, ba, hemengo kalkulu osoa.

[35] Fraide aktiboen portzentaia, noski, Probintziako lagun-kopuru osoaren gain aterata dago. Portzentaia zerbait baxuago hori urte horretako fraide-ikaslego gaztearen zenbaki altuagoek erabakitzen dute.

[36] Bi alde horietako (Euskal Herria/Erbesteak) aktibo eta ez-aktiboen portzentaiak barruti bakoitzeko fraide-kopuruaren gain aterata daude, eta hori da, hain zuzen, esanahitsua: barruti bietan portzentaiak ezberdinak izatea (bi ez-aktiboen arteko alde nabarmena, alegia).

PROBINTZIAKO FRAIDEEN BANAKETA GEOGRAFIKOA (1964)			
Europa (EH salbu)	**134**	Espainia Alemania Belgika Italia Suitza	112 1 1 17 3
Amerika	**154**	Argentina Paraguay Uruguay Bolivia Peru Kolonbia Venezuela Guatemala Mexiko Estatu Batuak Puerto Rico Sto. Domingo Kuba	20 23 15 36 6 1 2 2 3 9 6 11 20
Asia	**8**	Japonia Lur Santuak	7 1
Orotara Euskal Herritik kanpo zeuden fraideak			**296**

Ordena barruko ikuspuntutik gauzak balioetsiz. Hona esan daitekeen pare bat datu.

- Arantzazuko Probintzia eta Penintsulako besteak

Estatu Espainolean, XX. mendean, Probintzia frantziskotarrak zortzitataraino heldu ziren, eta bakoitzak bere sortze-data ofiziala izan zuen (Arantzazukoak, adibidez, 1886koa).

XIX. mendea amaitzean (1894), Santiagokoa (Galizia) eta San Gregoriokoa (Gaztela Berria) ziren fraide-kopuruz guztien aitzindariak, alde handiarekin, gainera. Estatistika ofizialek ziotenez, San Gregoriok 473 fraide zituen[37], eta Santiagokoa ageri zen bere ekimenengatik indartsuen bezala (Santiagoko Kolegio handia, Marokkoko Misioak, argitalpenak, etab.); atzerago zetorren urte hartan Arantzazuko Probintzia: 163 lagun bakarrik zituen, artean kanpo-hedapenik ez, dinamika kultural eskasa, etab. Probintzia honetako fraideak Estatuko frantziskotarretako % 11 ziren soilik[38].

[37] Gero, 1898ko Gerrateak osorik aldatu zuen Probintzia horren aurpegi estatistiko ofiziala, San Gregoriok Filipinetan baitzuen bere hedapen handiena.

[38] Estatuko Ordenako Komisariak argitara emandako *Estado general*-etatik geuk landu ditugun zifrak dira hauek.

Belaunen segida (1958): Aita Sepinski Jenerala, Arantzazuko irakasle eta ikasleekin.

Urte batzuk geroago, Estatuko egoera frantziskotarra[ofm] aski aldaturik ageri zaigu, eta batez ere Arantzazuko Probintziak aurrea hartu zien gainerako zazpiei, eta Estatuko fraideetako % 18,3 ziren jada 1916an Arantzazuko barrutikoak (352 fraide). 1930ean, Probintzia honek 438 fraide zituen (Estatuko frantziskotarretako % 20)[39]. Arantzazuko Probintzia gertatu zen, azkenik, Penintsulako XX. mendeko handiena, lurraldez eta lagunez (unerik onenean 754 fraide).

Honela eman zitzaion, ba, jarraipena Esklaustraturik gizartera joan behar izan zuen Kantabria edo Arantzazuko Probintzia zaharrari, eta XX.aren erdi-aldera fraideak azkarki ugaldu ziren, eta fraideekin batera baita Komentu-Etxeak ere, ez bereziki Euskal Herrian baina bai bertotik gidatzen zen Probintzi barrutian. Etxe horietako bizitzaz esan nahi dugu, ba, orain zerbait.

3. Komentuetako bizitza

Berreraikitako etxeetan eta iradoki den geografia hedatu horretan, fraidearte jakin batek izan zuen Euskal Herriko Komentuetan bere bizimodua eratu eta lanean jarduteko aukera. Proiektuaren abiaburuko irizpideek ez ezik unean uneko baldintzek eta garaien aldakuntzek gidatuko zuten izanberritze haren bilakabidea.

Horrek guztiak Komentuetako barne-biziera ez ezik komentutarren etxez kanporako lanbideak ere ukituko zituen, eta azkenik erlijioso-etxeetan tipologia ezberdina garatu zuen, 125 urteetan, nahiz eta garai bateko komentutar (†1567) edo errekolekto beregainik (Ziburu) ez dagoen orain Euskal Herriko frantziskotarren[ofm] ondoan.

3. 1. Komentuetako bizimoduak

Bizimoduak, diogu, pluralean, zeren eta, alde batetik, Komenturik arautuenek ere beren bilakaera izan baitute denboraren harian Anaiarteko bizimoduetan, arauetan bezala praktikan ere; bestalde, XX.eko lehen erdian Euskal Herriko Komentuetan ez hainbeste baina bai Ameriketako hainbat Etxetan bizimodu berriak gero

[39] Aipatutako iturri beretan oinarritutako datuak dira.

eta nabariagoak izan ziren (Kuban batez ere, Parrokien ardura hartzean), eta XX. mendeko bigarren erdialdian aldakuntzak nabarmenagoak gertatu dira Euskal Herrian berton, Komentu-komentuetan ere (ordutegiak, otoitzaldiak, lanbideak, etab.). Hemen ezingo dugu hori dena zehazki deskribatuta laga, baina ezta aipatu gabe ere.

Azken hamarkadetara gatozela, Komentu-Anaiarteak eta Anaiarte Txikiak oso kontrajarriak agertu ziren 1970aren ingurutik. Egitura oso ezberdinetan bizi zirelarik (eta horixe nahi zen), ez da harritzekoa.

Bisitarien oharretan ikusi dugu Komentuko "biziera arautuaren" mantentzea lehen arduretako bat izan zela bizitza erlijiosoaren izanberritzaileen artean (1881).

Komentuen estreinako Izanberrikuntzan parte hartu zutenen asmoetan, haien lehen helburua bi modutara ager zitekeen:

a) Zenbaitek Probintzia eta Komentu zaharretako bizimoldea osorik eta erabat bere hartan birlandatu nahi izan zuen Etxe ireki berrietan: lehengora itzuli behar zen.

b) Bestek, Probintzia izanberrituak eta bertako Komentuek zituzten baldintzak gogoan hartuta, egokitzapen juridikoak onartzen zituzten ("nazioen" txandaketa, adibidez, hobe zen ahaztu, egoera berrian), baina bizimoduak ahalik hurbilen zaindu behar ziren, aurreko mendeetakoetatik.

Oro har, esan daiteke Izanberrikuntzak ez zuela ekarri erlijioso-bizitzaren ikusmolde edo proiektu berririk. Lehendik ezaguna zenak balio zuen, berriz ere, eta bestelakorik egitekotan, hobe zen izanberritze-lanetan ez sartu. Lehenengo jarrera erabat zurruna baldin bazen, bigarrenak, egia esan, ez zekarren berritasun handirik. Oro har, Bisitarien oharretan deskribatutako bizimoldea izango da Komentuetan ezarriko dena, XIX. mende-hondarretan. Hortaz, oinarrian segidatasun historikoa da izanberritzaileen ideia ardatzetako bat.

Etxeko ordutegian, isiltasun-ohituretan, otoitz--moduetan, janzkeran, etxeko nahiz kanpoko lanetan, fraidearteko harremanetan (fraide-klaseak, Nagusiekiko harremanean), fraidegaien hezkuntzan, herritarrekiko joan-etorrietan, etab. eredu zaharra nagusitu zen hasiera haietan. Modernitateak zekartzan berritasunetan, betiere nekez sartzen zen sistema, baina errazkiago fraideak bakarka, beren gisara. Dena den, badirudi 1950 edo 1960a arte, Penintsulan behintzat, aldakuntza sakonagorik ez dela ageri.

Baina urak ez ziren inoiz egon erabat geldirik. Gauzak mugitu, komentutarren lanak aldatzean, edo inguruko gizarteak nahitaez ukitzen dituenean gertatuko dira. Eta Elizako molde berri orokorrek aldakuntza oso bizkorrak ekarri zituzten garai jakin batean: Kontzilio eta Kontzilio-ondoan.

Horren guztiaren adibiderik ez da falta: Komentu herrietara trenbidea iritsi edo berebilak Komenturako erostean (bidaiak), diruaren erabilpen pertsonala praktikan nahitaezkoa suertatzean, Komentu ondoetan eskola-lanak gora egitean (lan-ordutegiak), hirietako premiei erantzun behar izan zitzaienean, limosnarien onarpen soziala desagertzean, kanpoko komunikabideak arruntki Komentura sartzean (egunkariak lehenengo, eta irrati-telebistak gero), parroki eginkizunak ofizialki hartzean, etab. Egokiera horietako bi kasu ekar daitezke hona kasu zehatz bezala: diruarena eta Matutien errezoarena.

Frantziskotarrek debekatuta zeukaten dirurik erabiltzea, eta Komentuak nahiz Probintziak bere ekonomian behar zituen diru-erabilpenak fraideen eskumenean ez, baizik Sindikari laikoenean zeuden. Horretarako konfiantzazko herritarrak aurkitu behar ziren, eta ez zen beti erraza gertatzen. Egoera arintze aldera, lehen urratsa fraide edo Komentukoren bat Sindikari izendatzeko baimena lortzea izan zen. Baina, aldatuz zetorren biziera modernoak, Sindikarienaren ondoan, besterik ere eskatzen zuen: fraide bakoitza dirua erabiltzeko baimendua izatea, beti Nagusiarekiko menpekotasun osoarekin. Horrek denak kasuistika xehea izan zuen, Erro-

matik zetozen baimenak eta San Frantziskoren debekua elkarrekin ezkontzeko.

Gauezko Matutiena samurragoa izan zen: lehenengo udaberri-udazkenetara mugatu zen gauezko otoitza, eta batez ere Nobiziategi-Komentuetara, eta azkenik, erabat desagertu zen honelako Komentuetan ere.

Oro har, baliabide modernoen erabilpen amakomuna errazago eta lehenago onartu izan zen (ura, argindarra, telefonoa, etab.), berorien erabilpen pribatua baino (irratia, berebila, logelatako irratia, patrikako diru arrunta, edo telefono mugikorra, etab.). Komentu barneko "pribatizazio" hauek pixkanaka etorri dira, 1960tik honakoan batez ere, eta ez Komentu guztietan erritmo ber-berean. Erantzukizun modernoek eta lanbide berriek agindu dute azkenik, eta gauzen jabetasuna bere amankomuntasun juridikoan mantenduta, erabilpen praktikoa norberaren bakartasunera etorri da maiz, hein handi batean.

Funtsean, gizartearekiko harremana da aldatu dena, lanbide berriek hori ezarri dutelako, komunikabideak bizkorki komenturatzeak pentsamoldeak ere aldarazi dituelako, bizi-ohiturak bilakatuz joan direlako. Harreman horrek etxebarruko ordutegiak ere aldatzera eraman ditu, gizartekoetara egokituz.

Hori horrela dela, beharbada 1900eko fraidea gertuago zegoen bere bizimodu arruntean XVI. mendeko fraidearen ohitura eta bizimodutik, gaurkoa 1900ekoarengandik baino. Hau da, XX. mende bakar horretan aldakuntza handiagoa burutu da, lehenago hainbat mendetan baino, eta Komentuak izan dira aldaeraren testigurik onenak, beren lan-modu berriekin.

3. 2. Komentuetako zereginen bilakaera

Komentuak, beren eraikin-aurpegietan, zurrunak eta itxuraz aldakuntzarik gabeak otu izan zaizkigu, ustez. Hala ere, horietako gutxi izan da eraikuntza edo moldaketa berritan sartu gabekorik, alboetara zabalduz, solairu berritan gora igoz. Komentuetako giza errealitatean ere halatsu jazo da, baita fraide denak eta jarraiko berauen belaunak abitu berdinez janzten zirenean ere; gero, zer esanik ez. Azken aldakuntza hauetan pisu berezia izan zuten Probintzia erlijiosoko eskakizunek, eta kristauarterako pastoraltzak.

Komentuek beti izan dute, beren barruko biziera erlijiosoko zereginen ondoan, kanporako eman pastorala, batez ere Sakramentuen pastorala (Mezak, Aitortzak) eta Hitzaren predikua (sermolariak). Hori ezin baztertua izan da beti, eta batzuetan kapilautzaren bat ere izan du ondoan, ez gutxitan moja itxien zerbitzuan. Jarduera hauen berri Komentuetako Kroniketatik jakin daiteke, hainbat estatistika jaso baitute mendean zehar, batez ere 1920-1970 bitartean. Gogoan izan bedi, ba, pastoraltza izan dela, berriz ere, Komentu izanberrituetako lanbide tradizionalena eta iraunkorrena.

Arantzazu, Donostia, Tolosa, Bermeo, Forua edo Erriberrin beti egon da predikari-taldetxoren bat, eta, bestalde, urteroko jai edo ospakizun handienetan Komentuak hustu egin izan dira, apaiz gehienak herrietara bidaltzeko (Aste Santua, Sortzez Garbia edo herrietako Zaindarien jaietan). Dena den, ohiko eremu horren ondoan, sarri beste lan-barrutirik ere sortu eta landu da Komentuetan. Ikus dezagun.

Probintzia izanberrituko premien artean, Komentura fraide ohiak erakartzea bezain premiatsua izan zen fraideen arteko belaun-segidatasuna segurtatzea, fraidegai gazteen bidez. Horregatik, lehen orduko Komentu gutxi haien artean banatu zen barne-hezkuntzaren ardura, hau da, fraidegai guztientzako Nobiziategiak eta fraide apaizgaientzako Ikastegiak.

Zarauzko Etxea baldintzatu du batik bat Probintziako Nobiziategiak: Etxea izanberritu eta berehala izan zuen Nobiziategia Komentu honek (1876; formaltasun osoarekin, 1878tik), berariazko eraikin eta guzti (1884); geroztik 1968a arte bertan egon zen Probintziako Nobiziategi nagusi edo bakarra[40].

[40] Beste Nobiziategien berri jakiteko, ik. Homenaje 1935: 469-472.

Donostia (1923): Hemen eraikitako Komentua izan zen Izanberrikuntzan hirietako frantziskotarren lehenengo Komentua. (Argazkia, 1923).

Fraidegaien Hezkuntzaren arlo berean ibili izan dira Euskal Herrian, a) Humanitateetan Arantzazu (beti), Bermeo (1897-1913) eta Forua (1930...) eta partez Erriberri ere; b) Filosofian, Erriberri (1880-1884, 1828-1976) eta Arantzazu (1884-1928); c) Teologian, Erriberri (1884-1928) eta Arantzazu (1928-1978). Berrikitan eta epe laburragoz Bilbo, Iruñea eta Gasteiz ere gogoratu behar dira arlo berean.

Hortaz, Aro Garaikidean antzinako bi Misiolari-Kolegio historikoetan (Zarautz eta Erriberri) Nobiziategia eta Ikastegia izan ditu Probintziak. Hala ere, esan beharra dago, Ikastegiaren garaietan Erriberrin pastoraltzak erlatiboki pisu txikiagoa izan bazuen ere, Zarautzen horretan eta bestetan (kanpoko eskolagintzan bereziki) jarduera bizkorra bizi izan dela, bertako eliz elkarteak azkarki sustatuz (antoniotarrak, hirugarrendarrak) eta maiz eremu berean Probintziako ardura ere bertatik eramanez (Ugarte, Olaizola, Agirretxe, etab.). Ikusten da, ba, nolako aldakuntzak bizi izan dituzten bi Komentu izanberritu hauek.

Handia zen Arantzazu Esklaustrazio aurrean, eta Ikastegiak eta kulturak beren tokia izan zuten orduan; baina Arantzazu izanberrituan Irakaskuntzak are leku handiagoa hartu zuen, batez ere 1884tik 1990a arte, bere fraidegai ikasleekin ez ezik (Filosofia, Teologia), Seminario Frantziskotarreko mutiko-gazteriarekin. Fraideen eguneroko jardueretako bat bilakatu zen Hezkuntzaren hau, eta osorik horretara emandako irakaslegoa eskatu zuen horrek. Foruko kasua, ostera, bere barne-orekan erlatiboki Irakaskuntzara emanagoa izan da oraindik, 1930an Seminario Txikiaren luzapena bertan jarri zenetik, berau erabat itxi zen arte (1994). Oro har, frantziskotarren[ofm] irakaskuntza historia -iraganekoa eta berriagoa- idazteko dago oraindik.

Probintzia barnerako Hezkuntza eta Irakaskuntzaren ondoan, Komentuz kanporako Ikastetxeak ezin dira laga aipatu gabe. Aditzera eman da zerbait, Zarautzi buruz: 1910. hamarkadatik hona indar handiak eman ditu Probintziak eta Komentuak bertako Eskolagintzan, hasi haur txikietatik eta Unibertsitate-atariraino. Esan beharrik ez dago, lan sistematiko eta jarraituenetakoa izan dela hau[41]. Apalago baina gogoz ageri dira,

[41] Probintziak Euskal Herritik kanpo ere franko lan egin du Ikastetxeen bidez, Soria, Alfaro eta Ameriketako zenbait lekutan, adibidez, baina ez da hau horretaz jarduteko unea.

eskola-lan hauetan, Forua 1910-1920. hamarkadetan eta Bermeo (1919-1974).

Komunikabideetarako idazlanetan jardundako fraideak Komentu ezberdinetan aurkitzen ditugu (gehienbat Arantzazu, Zarautz eta Tolosan), baina, nolanahi ere, Etxe bakoitzean eta aldi berean gutxi izan dira halako ofiziodunak, Probintziako denen artean talde estimagarria izan arren.

Komentuen eliz proiekzio sozialak ibilera ezberdinak ezagutu ditu. Eliz elkarteena aipatu dugu (Hirugarren Ordena, Arantzazuko Kofradia, etab. garrantzizkoak izan dira kasik Komentu guztietan), eta berorien bilakaeraren ezagutzarik gabe zaila izango da Komentu frantziskotarrek[ofm] izan duten alkantzu sozio-historikoa ulertzea. Hori esanda, behartsuenen aldeko ardura sozialak ere badu historia honetan kapitulu bat, Komentu gehienetan San Antonioren inguruko "Jaierazko Batasunean" bere lanabes praktikoa izan duena: honetan, badirudi Bilbo-Iralabarrin lortu dela egitaraurik zabalena betetzea ("San Antonio Jangela": 1954tik gaur arte).

Fraideen lanaren mundu honetan, 1960.etatik berritasun handiko zerbait gertatu da, Euskal Herriko Hegoaldeari gagozkiola behintzat: Komentu eta Anaiarte gehienetan Parroki lana onartu ez ezik bertako lanik nagusiena bilakatu da fraideentzat. Alde batetik, Komentu batzuetako elizak Parrokia edo Eliz-bilgune bilakatu dira, Gotzainen eta Probintzia Erlijiosoaren arteko hitzarmenen ondorioz (Donostia, Bilbo, Iruñea, Tolosa, Zarautz, Arrasate, Beasain-Segura). Bestetik, Diozesiko elizetan parroki ardura hartu dute fraideek, batzutan berek antolatutako kristauarteetan (Gernika-Lumo), edo apaiz faltaz Diozesiak eskatuta halako zerbitzuen beharra zutenetan (Erriberri, Karrantza edo Foruan gertatua izan daiteke adibide).

Uste dugunez, Probintzia eta Anaiarteen historian bihurgune historikoa da "parrokiatze" hau, Anaiarte Txikien sortzearena bezain garrantzizkoa, baina, hain zuzen, kontrako esanahia izan dezakeena: hark eliz egitura instituzional-pastoralari lotzen du Fraideartea, Anaiarte Txikiek ostera Ordenako bertako egitura tradizionaletatik libreago izatea bilatzen duten bitartean. Geroak esango du bataren nahiz bestearen etorkizuna zein izan daitekeen, baina esan dezagun zerbait azken hauetaz ere.

Liburu honetan irakurleak bi parte nagusi aurkituko ditu: Komentuei dagokiena eta Anaia Txikiei eskaintzen dieguna. Badute kontra-izaera bat bi errealitate horiek, eta hortik dator gure atalen bitasuna; hala ere, 1968az geroko urteek beren bidea egin dute eta bi formulen tarteko bide-zidorrak ere sortu dira agian (Karrantza, Oiartzun-Zamalbide, Segura edo Domintxaine?), eta Komentuek berek ere, fraideartea urritu ahala, Anaiarte Txikiak izatera pasa daitezke, lagun-kopuruz ez ezik beren planteamolde berrietan.

Zuzenki frantziskotartasunaren berrikuntza teorikotik batez ere, edo euskal gizarteak eskatzen zituen lan-molde berrien eskakizunetatik sortu dira Anaiarte Txikiak, edo, nahiago bada, aldi berean kezka-iturri bietatik edanez. Nafarroako Obanos, bere toki-jarraipenekin, edo Durango lehen jitekoak izan direla esan genezake (nahi bada, frantziskotar iturrietan oparoago hats hartuak alegia), eta Donostiako Kaialde edo Jakin eta Bilbo-Errekaldeberrikoak bigarrenekoak (espreskiago euskal gizarte-kezketatik pentsatuak). Guztiotan, eliz egitura instituzionaletan ez sartzeko erabakia nabaria da.

Hain zuzen, bestelako bidea eraman dute Errenteriako Zamalbide, Bizkaiko Karrantza edo Beasain-Segurakoek, Diozesiko elizetan parroki lanak hartuz baina Anaiarte Txikietako egitura xumeetara bilduz.

Dena den, Komentuek eta Anaiarte Txikiek batera osatzen dute Probintzia, eta guztiei buruz arduratuko gara liburu honetan, Komentu eta Anaiarteen tipologia finkatzeko saio bat egin ondoren.

4. Komentu eta Anaiarteen tipologia

Komentuetako oinarrizko egiturak eta Anaiarteetako biziera gogoan izanda beharbada posible da guztien sailkapen tipologikoa aurreratzea. Horixe da atal honetan egin ahi duguna.

4. 1. Esklaustrazio-aurreko aniztasun mugatua

Aipatuko ditugun Anaiarte-molde ezberdinen sorrera eta garapen librea ia osorik XX. mendeko bigarren parteko gertakariak dira; baina, egon zen horrelakorik lehenago ere "Komentu-ereduaren" sistema tradizionalean, hau da, Probintzia Zaharrean eta Izanberrikuntzaren ondoko ehun bat urtetan (1859-1969). Aipatu ditugu gorago Komentu "nagusi" eta "txikiak", baina bereizketa honetan Anaiarteko bizimoldeak baino gehiago batzuei eta besteei zegozkien zereginak eta tamaina ziren elkarren arteko bereizgarriak.

Erregimen zahar hartan bazen, ordea, komentu-ereduan gutxieneko baina funts gehiagoko aniztasun bat ere, "nazio" bakoitzeko komentu errekolektoek zekartena. Hauek, bai, berariazko bizi-erregimena zuten, hertsiagoa, beren etxe barruko arautegi berezia zutela, eta Probintziako Estatutuek berek ere gogoan hartu eta neurriren batean arautzen zuten biziera[42].

Bizitza frantziskotarraren aldaera errekolekto horren ondoan, eta Probintziako moja itxien premiei erantzuteko baina Anaiarte-eredurik sortzeko asmorik gabe, Kapilau-Etxeak zeuden, moja Monasterioen zerbitzuan; hauek, ordea, lan jakin bati aurre egiteko ziren, ez besterik.

4. 2. Izanberrikuntza-ondoko aniztasuna

Izanberrikuntzak aurreko egoera hura ispilatu zuen -halaxe nahita- lehenengo hamarkadetan. Leialtasun horretan jarri zuten ahalegin guztia agintariek eta menpekoek ere. Esan dugu jada. Gero, hartutako zenbait erabaki eta lanbideri erantzutean, hasi ziren zalantza praktikoak lehenengo eta erabaki ofizialak ondoren. Uste dudanez, Kubako lanak ekarri zituen lehen haize berritzaileak Euskal Herriko fraideen artera ere, ez berehala (1904), baina bai urte batzuren buruan.

Prozesuaren epekapen bat aurreratu behar balitz, segidako hiru aldi hauek emango genituzke Euskal Herrian, nahiz eta batak aurrekoa edo ondokoa ez duen ezabatzen, eta ondokoak, sortu ahala, aurrekoekin batera bizi diren: hau da, komentu klasikoa bere funts sakonean ez da sekula desagertu, komentu hiritarrak hor daude bizirik, eta guztiei Anaiarte Txikiak gehitu zaizkie azken aldian: 1) Komentu klasikoak (1876...). 2) Komentu hiritarrak (1923...). 3) Anaiarte Txikien garapen-aldia (1968...).

- Komentu klasikoak (1876...)

Gure kasuan, Komentu klasikoa lehenik egitura fisikoek definitzen dute: Eliza handi propioa du, berorri atxikita Komentu-Etxe handia jendearentzako bere zerbitzuekin, azkenik ahal delarik baratzea ere izango du. Oro har, eliz zerbitzu arruntak etxeko eliza horretan eskaintzen dituzte, formaltasun osoarekin (urteko jai-egitaraua, astero eta eguneroko elizkizunak); Parrokia izan gabe para-parrokia bat dela esan genezake.

Fraideen bizitza betidaniko arauen arabera egin ohi da, eta Komentuak nortasun juridiko osoa du, Goardianoarekin, ekonomia beregainarekin. Probintziako Biltzarretan Komentuei dagokien boza dute Etxeok, eta Nagusiak ere Probintziatik izendatzen zaizkio.

Normalean, eliz elkarteen inguru eratu jakina izan ohi dute Komentuok, juridikoki finkatua, eta Komentu guztietan erabat berdina izan gabe, elkarte hautatu batzuk Komentu orotan aurkituko ditugu, Hirugarren Ordenatik hasita. Elkarte hauek Komentuaren menpe egon izan dira, baina Ordena barnean antolaera zabalagotan txertatuta (Eskualdea, Probintzia, Estatua, etab.).

Oro har, ba, egitura pisua du Komentu klasikoak. Dagoeneko irakurleak soma dezake zein Etxetan gorpuztu zen orduan Komentu kontzeptu hau: Donapaleu, Arantzazu, Zarautz, Erriberri, Forua, Bermeo, Tolosa.

[42] Iragan mendeetan, Ordenako Erreformek ere bilatu izan zuten, modu batera edo bestera, Anaiarte-eredu propioa; baina ez gara hemen hain urrun joango: Euskal Herriko Obserbantziara mugatzen gara apunte labur hau ematean.

- Komentu hiritarrak (1923...)

Komentu klasikoaren aldaera egokitu bat izango litzateke hau, eta Donostiako Komentuarekin eman zitzaion eredu honi hasiera.

Komentuko barne-bizitzan hemen ere irmoki eutsi nahi izan zaio betiko ereduari; ezin da pentsa Aita N. Bikuña fundatzaileak Donostian bestelakorik nahi zuenik, ezta Probintziak ere. Arazoa ez zen izan, ba, teorikoa, baizik praktikoa: Nola txerta gizarte hiritar aldakorrean Komentu klasikoaren eredua? Dinamika berri bat ezarri zuen horrek.

Honelako bi esperientzia ezagutu zituzten bereziki frantziskotarrek[ofm] Euskal Herrian: Donostia (1923) eta Bilbokoak (1930). Hiri handietako hurrengo biak, une historiko oso ezberdinean iritsi ziren, Iruñean (1973) eta Gasteizen (1976).

Donostiako Egian bezalatsu Bilboko Iralabarrin, Komentuak *rol* sozial eta pastoral azkarra izan zuten beren lehen hamarkadetan, baita Auzoaren beraren egituratze sozialean ere, eliz elkarteen bidez betetako egitekoa eredugarria izan baitzen, gazteen eta behartsuen zerbitzuan bereziki.

Kanpoko dinamika horren ondorioz, fraideen komentuko bizitza ere, jardun-askatasun bila ibiliko da, eta beste Komentuetako eredu zurrunagoak mugitzen hasiko dira hirietako Komentuetan. Moderniak lehenago ukituko ditu, zenbait jokabide tradizional arrunt zalantzan jarriz edo errazkiago baztertuz.

Herritarrekiko harreman sozialak bizkorragoak izango dira Komentu hauetan, herri txikietako Komentuetan baino. Paradoxaz eta tartean Nobiziategia egon arren, Hirietatik kanpokoetan Zarauzko Komentua hurbilduko litzaioke gehien Komentu hiritarren ereduari, bere proiekzio sozialean behintzat.

Azkenik, hirietako Komentuok Parrokia beregain bilakatuko dira, Kontzilioaren haizeak eta aldakuntzak iristean, Donostia (1965) eta Bilbo (1970) ez ezik baita Iruñea ere (1980); hots, Ordenako Komentu-elizari eta bertako Fraidearteari Parroki erantzukizun osoa emango zaie.

Gasteiz-Ariznabarrako kasua besterik da: Anaiarteak ez du kristauarterako berariazko eliza irekirik jarri nahi izan, eta nahiago du Diozesiak beste tokitan dituen premietan lagundu, zerbitzu horri erakundeztapenik ahalik apalena emanez. Hortaz, Gasteiz-Ariznabarra Anaiarte Txikietako eredura hurbiltzen da.

- Anaiarte Txikiak (1968...)

Esan bezala, Anaiarte-eredu berrien bilaketa teoriko eta praktikoa, ikusiko dugun modu eta aniztasunean, Kontzilio-ondoan hasten da Euskal Herrian. Bilaketa honek zutabe jakin batzuk izan ditu bere euskarri bezala:

- Karismaren ulerpen berritua, betiere Ordenako iturrietatik hurbilagoa.
- Eliz erakunde komentuarrekiko balioespen kritikoa.
- Anaiartearen barne-antolaeran eta egitura fisikoetan pobretasun xumeagoa.
- Gizarteko eta kristauarteko premietan pobreenekiko hautapena.
- Batzutan, Anaiartearen lan-eremu berezitua.
- Oro har, Anaia-kopuru txikia (lauzpabost lagun, gehienez).

Pertsonal-egituraren aldetik, Anaiarte Txikiek Kapilau-Etxeetan (Iruñea-Lezkairu, Durango), Kubako zenbait landa-parrokietan (El Mariel, San Cristóbal, adibidez) edo Misioetan izango lituzkete beren aurrekariak, hiruzpalau laguneko taldeekin; hala ere, Anaiarte Txikien planteamoldea, Penintsulan garatu zen eta fraide-belaun gazteak jarri nahi izan zuen abian.

Lagunarte txikia izateaz gain, eraikin-egitura ahalik xumeenetara ekarriko da egoitza; batzuetan, ez du elizarik ere izango eta eliz ospakizunak etxe-barruan egingo ditu Anaiarteak. Taldeak kanporako pastoralik eraman nahi duenean, inguruko elizetara joko du, zerbitzari gisara, Diozesiak etxe-ondoan utzi dion elizgunera (Errenteria-Zamalbide, Beasain, Gernika), edo eliz zerbitzu ez-parrokiarretara (Iruñeko Cáritas, etab.).

Karisma frantziskotarraren ezagugarriak bilatu zituzten Anaiarte Txikiok (apalagotasuna, esku-lana, pobretasuna, bakardade-balioak gizartekoekin lotzea, etab.). Nahikoa maiz,

Donostia-Kaialde: Alde Zaharreko Etxe honetan egon zen (1970-1982) lehenengo Anaiarte Txikietako bat.

Anaiarte Txikiek inguru sozial hautatuak hobetsi zituzten (langileria, baserriartea, drogazaleak, arrantzaleak, kultur mundu ahulena, etab.); hori gertatu zen, adibidez, Domintxainen, Donostiako Kaialde edo Jakin-en, eta Santurtzin.

Azkenik, esan beharra dago frantziskotar Anaiarteetan gero eta lausoagoa dela komentutasunaren eta anaiarte-txikitasunaren arteko muga, Komentuetako Anaiarteak lagunez txikiagoak direlako (horrek Anaiarteko proiektuan izan ditzakeen ondorio kualitatiboekin) eta Anaiarte Txiki batzuek Parroki lanen ardura ere har dezaketelako. Karrantza, Segura, Bidaurreta edo Gasteiz bera zer dira? Anaiarte Txiki pastoralak? Bestalde, handia da Anaiarte Txikien artean bertan guztien arteko aniztasuna.

Probintziako Etxe eta fraide guztien bilakaera orokorra -mentalitate eta errealitateena, dena batera- da jokoan dagoena, eta zaila da prozesuaren ulerpen finkatu bakarra.

Historia eta bilakaera hauen sakona ezagutzeko nahitaezkoa da funtsezko bi iturritara jotzea: alde batetik, bazterrezina da Anaiarte Txikiei buruz Ordenan, Probintzian eta batez ere esperientzia jakinetan egin den gogoeta teorikoa eta hartu diren erabaki praktikoak nondik norakoak izan diren ezagutzea, horrek guztiak sortu dituen agiriak aztertu eta tokiko lekukotasunak bilduz; eta, bestetik, Komentuetako Anaiarteek azken hamarkadetan landu dituzten bizi-proiektuak ez dira zokora utzi behar, Komentu-tradizioaren lekuko eta berritzaile baitira beroriek, batez ere Komentu-Kapituluak eta urteroko gogoeta-aldi trinkoak abian daudenetik.

IV. IKUSITAKOA, IRAGAN LUZEAREN ARGITAN

Dagoeneko, irakurleak ikusi du nolako eta zenbat eten/iraupen duen Aro Garaikideko Euskal Herriko frantziskotarren[ofm] Komentuetako historiak. Ez goaz, ba, gauzak errepikatzera, esandakoa laburtuz edo monografietan esango dena hona aurreratuz. Hala ere, historia honen lerro nagusiak behintzat azpimarratu nahiko genituzte, iragan luzeago baten argitan.

Erdi Aroan (XIII-XV. mendeetan, alegia) lortu ez zen Komentu-sare trinkoa Aro Modernoan osatu zuten frantziskotarrek[ofm] Euskal Herrian, Gipuzkoa eta Bizkaia bereganatzean. Hiriburuetan jarri zirenetik (garai haietan Tolosa hiriburuago, Donostia baino), frantziskota-

rren[ofm] presentzia indar betean egon zen euskal gizartean, herritarretan eta Herri-Erakundeetan ere. Indar sozio-instituzional horren adibiderik garbienak, agian Gasteizkoa, eta, beste modu batean, Bilboko San Frantzisko izango lirateke. Gipuzkoan presentzia hura Probintziatik segurtatu zen batez ere. Nafarroan, frantziskotartasunak[ofm] indar sozio-instituzionala XVII.etik aurrera zerbait galdu ote zuen nago (besteak beste, bertako frantziskotarrak[ofm] Burgos-i lotuta zeudelako, eta frantziskotar kaputxinoek txanda hartu zietelako ere). Iparraldean bi Etxe estimagarri izan zituzten (Baiona eta Ziburu), baina Baionako domingotarren neurria eman gabe.

Hala ere, XVIII. mendea amaitzean frantziskotarrak[ofm] ageri ziren Euskal Herrian Institutu Erlijiosoetan indartsuen, eta Komenturik handienekin. Lortutako botere soziala eta eliz oihartzuna handia zen. Handiegia, beharbada? Hala balitz, horrek ere argituko lituzke, gero Izanberrikuntzarako aurkitu ziren erresistentziak: eliz indarrek berek ere ez zuten nahi, ondoan, garai bateko lehiakide boteretsurik.

1850-1950. urteetan, absolutuki eta erlatiboki aurreragoko bi mendeetan (1650-1850) baino apalagoak izan dira frantziskotarren[ofm] presentzia eta erabilitako baliabideak Euskal Herrian, garatutako Komentu-sareari eta fraidearteari begiratzen badiegu behintzat. Hegoaldeari gagozkiola, Fraidearte hau eta sare hura oreka geografiko onean zeuden hedatuta lau herrialdeetan. Izanberrikuntzak gaurdaino ez du hori lortu, eta eskasenak Nafarroa, Araba eta Iparraldea izan dira (azken honetan Donapaleuko Komentura mugatu delarik).

Geografia desorekatu horretan, Arantzazuko Komentuaren *rol*-a garrantzizkoa egokitu da, euskal gizartean present izateko: hein on batean, bertatik eta bertarako lan eginez lortu zuten Komentuek herritarrengana iristea, gainerako lanabes eta bideak atzendu gabe (sermolariak, esaterako). Herriratze honetan, ezin da ahaztu, Ekintza Katolikoa jaio aurretik (1923), Eliza Katolikoan ofizialki kristauarte sekularrarentzat frantziskotar Hirugarren Ordenari eman zitzaiola gidari-ikurra (1883), Euskal Herrian frantziskotarrek[ofm] gogoz baliatu zutena.

Hauxe da agian -eliz elkarteena, esan nahi dut- Aro Garaikidean frantziskotarrek arretaz zaindu duten eremua, eta, itxura guztiz, aurreko mendeetan askoz gutxiago garatu zena. Bere hedapen bizkor eta zabalagatik, gogoraraztekoa da Arantzazuko Kofradia berria (1917-*c.* 1970), dozenaka mila lagun bildu zituena, edo Arantzazu aldizkariaren harpidedungoa. Hau guztia Komentuetatik lagundu zen, eta Komentuetan bertatik bertarako ondorioa izan zuen, eliz lagunarte eta ekimenetan (Donostia-Egiako Katekesia, adibidez: 1932...).

Komentuek duten tokian tokikotasuna galdu gabe (batzutan hori ere indartuta), 1850-2000. urteetan, Euskal Herriko frantziskotarrek[ofm] ekimen orokorrak sustatzean arrakasta nabariak izan dituzte, baina betiere Komentuen laguntzarekin. Horren adibide aski esanahitsurik bada hortik: Arantzazurako erromesaldiak (1910...), hirugarrendarren batzar herritarrak (gerraurrean eta ostean), ospakizun bereziak (aurtengo Mendeurrena bera, etab.). Baina Komentuek lagundutako ekimen orokor horiek ez dute ilunpera bota behar Etxeek beren herri eta eskualdeetan gidatutako bizitza (hala nola, Hirugarren Ordenarena eskualdeko Komentuaren ardurapean egin izan da beti).

Komentuek eta Probintziak ziklo historiko oso bat borobildu dutela esan daiteke, 125 urteren burua: a) izanberritu, b) jendez hazi, etxez garatu, barrutiz hedatu, Anaiartez ugaldu, eta c) fraidez bakandu eta garai berrietarako erakunde-saioak egin. Itxura guztiz, frantziskotartasunaren etorkizuneko aurpegia ez da historia zaharrean ezagutu duguna izango, baina, segur aski, gure egunetan marrazten ari da bizirik dauden Anaiarteetan.

Ondoko orrialdeetako monografietan, Komentu bakoitzeko denbora-segidako lana begiratzean, edo aldi jakin batean berrikuntzari eman dioten lekua argitan jartzean ikusi ahal izango dugu Aro Garaikidean Komentuek eta komentutarrek egin dutena.

Horixe da hurrengo orrialdeetan erakutsi nahi duguna.

II. Atala

Komentu-etxeak herriz herri

ARANTZAZU: ANDRE MARIAREN KOMENTUA

(...1794-1834, 1878...)

Udalerriz, Oñatiko baserri-auzo bat da Arantzazu, Gipuzkoako Probintzian, eta herrigunetik bederatzi kilometrotara dago. Bertan dago Arantzazuko Andre Mariaren Santutegia. 2000. urtean 123 bizilagun ditu Auzoak, erlijiosoak barne.

Oñatiko herriak historia frantziskotar zabala du, eta berori gogoratuz hasiko gara, Santutegiko Komentuarenari heldu baino lehen.

OÑATI FRANTZISKOTARRA

Mende luzetan, Konderria izan zen Oñati, Gebaratarren menpekoa, eta 1845ean batu zen Gipuzkoako Probintziarekin. XVI. mendearen hasieratik, gutxienez, Oñati oso frantziskotarra izan da, bertan sortu ziren Erakunde erlijiosoei begiratu nahi baldin bazaie, behintzat.

Testuinguru horretan hona ekartzekoak dira Arantzazuko Komentua bera, baina baita Bidaurretako Kapilau-Etxea ere, biek Fraidearte bana dutela. Gainera, Bidaurretako hau garrantzizko Kapilautza izan zen, bere lauzpabost fraiderekin; horregatik, Gaordiano-Etxe ez izan arren, bertako fraide Nagusiak boza zuen Probintziako Kapituluetan, Goardianoekin batera (Uribe 1996: 285). Kapilautza, klaratarren Bidaurretako Monasterioa eraikitzean sortu zen (1511). Hortaz, frantziskotar klaratarrek ere badute beren Etxea Oñatin.

Aldi beretsuan, Arantzazuko serorak Oñatiko herrira jaitsi ziren 1509ean, Zubikoa zeritzan lekura, eta bertan hartutako komentuan egon izan dira gure egunak arte Hirugarren Ordenako serora frantziskotar haiek, elisabetar bezala moja bihurtuak, eta berrikitan klaratar bilakatuak. Orain Monasterio berria dute, eta beraz lekuz aldatu dira (1982). Hona, ba, moja frantziskotarren bigarren Monasterioa. Bi Monasterio hauen Kapilautzak Bidaurretako Fraidearteak eramaten ditu.

Baina bada oraindik hirugarren Ahizparte frantziskotar bat Oñatin, Arantzazuko Gogartetxean bizi diren Sortzez Garbiaren Frantziskotar Misiolariena. Jada mende-erdia bete dute Santutegian, eta Gogartetxe berrituan ere berak izango dira Etxearen arduradun.

Honela, bost Senitarte erlijioso frantziskotar ditu Oñatik bere herrigune eta auzoetan, hiru emakumezkoak eta bi gizonezkoenak.

Bistan denez, halako presentzia frantziskotarrak bestelako fruitu instituzionalak ere eman ditu herrian. Kristau sekularren artean ez da falta izan eliz elkarte frantziskotarrik, hasi Bidaurretako "Vera Cruz" Kofradia eta Hirugarren Ordenako Senitartetik eta garai bateko eta XX. mendeko Arantzazuko Amaren Kofradiaraino.

Oro har esan daiteke oñatiarren soslai frantziskotarra zabala bezain errotua izan dela, Arantzazuko Santutegi frantziskotarrarekin izan dituen harremanetan ez ezik kristautasuna bizi izateko elkarte eta moldeetan ere. Horren emaitza izan da hainbat herritar gazte eta helduago Institutu erlijioso frantziskotarretara sartu izana.

Arantzazuko Basilika (1950-1969). (Argazkia 2002).

Ordena Frantziskotarrean[ofm], kaputxinotan eta emakumezko Institutuetan gazte oñatiar anitzizan da abitua hartutakoa XX. mendean.

Arantzazuko Santutegia ez da, hortaz, herriko errealitate frantziskotar bakarra, nahiz eta berau den indarrik eta historiarik ederrenak izandakoa. Horregatik eskainiko diogu liburu honetan, dagokion kapitulu hau.

LEHEN MENDEETAKO HISTORIAZ (XV-XVIII)

Fraide mesedetakoak egon ondoren (1493), frantziskotar fraide hirugarrendarrak (*tercerones*) egon ziren bertan, harik eta hauek Lehen Ordenara pasa ziren arte. Horrela, badakigu 1501aren aurretik bederen, I. Ordenako frantziskotarrek beren eskuetan zutela Santutegia, nahiz eta ondoko urteetan lehenengo jeronimotarrei (1509) eta gero domingotarrei (1511-1514) leku egin behar izan zieten. Azkenik, 1514ko apirilaren 22tik aurrera frantziskotarrak geratu ziren behin-betirako Santutegiko arduradun eta jabe bezala (Lizarralde 1950: 54; Uribe 1988: 310, 312, 317. Ik. Zubizarreta-ren *Frantziskotar bizitzaren hasiera Arantzazun*. Arantzazu, 2001).

Santutegia, bere barruko bizitza eta kanpoko erakarmen sozialean, indarra hartuz joan zen ondoko hamarkada eta mendeetan, gertatu ere gertatu ziren sute larriek ekarritako hondamendiak gorabehera (1553, 1622). Bizitza haren eta erakarmen honen oinarri bertako fraideak ziren, noski, halako bakardadean espero zitekeen baino handiagoa baitzen, gainera, hango Fraideartea (Lizarralde 1950: 76, 115; Uribe 1996: 48, 54).

Jada XVI. mendean ongi finkatuta zegoen Senitarte frantziskotarra, eta ondoko bi mendeetan gora egin zuen oraindik. Ezagutzen ditugu gorakada horretako zifra batzuk: 36 ziren Arantzazuko erlijiosoak 1585ean; 80, 1680an eta 95, 1768an; hala ere, hogei urte geroago —seguraski Ordenan ezarritako fraidegaien harrera-politi-



Basilika: Eliza, barrutik (2002)

ka berriaren ondorioz— 55 lagun ziren. Nahiz eta leku malkartsu eta urrunean zegoen, ez zen txikia Arantzazuko komentua, eta bere Nobiziategia bazuen fraide gazteen heziketarako (Uribe 1996: 277, 290-297; Lizarralde 1950: 221-222, 333).

Erromesak bertan hartu eta zerbitzatzea zen fraideen Senitartearen lehen egiteko pastorala. Urtero milaka etorri ohi ziren haiek Arantzazura, inguru hurbileko herriek herri bezala urtero igotzeko ohitura baitzuten, eta urrunagokoak ere inguratu ohi ziren talde handiago edo txikiagotan, Euskal Herriko Herrialde guztietatik.

Alde honetatik adibiderik deigarriena Iparraldeko arrantzale-familiena da: urteroko irtenaldi handiaren aurretik, edo ondoren, arrantzaleak nahiz beren familiak Arantzazura etortzeko ohitura izan zuten, Donibane Lohizunetik eta. Bestalde, ospakizun handiren bat tarteko zenean ere, erromes-andana handia bildu ohi zen Aloñape honetan.

Arantzazura etorri bai, baina bertatik irten ere berdin: ezagutzen zituzten, bai, bertako fraide predikari eta limosnariek Euskal Herriko bideak. Lehenengo, bide eta herri hurbilenak, baina behar zenetan baita urrunak ere, predikupremia edo garai berezietan batik bat. Historialariek Nafarroa eta mugaldeko lanak gogorarazi zituzten XVII. mendean, baina badakigu Santutegiak bazituela hitzartutako urteroko predikuegutegiak inguruko herriekin, eta hortik aparte estimatuak zirela, nonahi, Santutegiko sermolariak.

Apaiz-lan horien ondo bazen gainera Arantzazun beste zereginik franko, zeren eta, fraide gazteen heziketa-etxea izateaz gain, Komentu honek Ikastegi bat baitzuen, fraide apaizgaientzat gutxienez. Latin- eta Musika-Eskolak egon ziren bertan, Nobiziategia, Filosofi Ikastaroak (gutxienez XVI.eko erdialdetik) eta asteroko Teologi Moral eta Kode-ikastaldiak. Sekular herritar batzuk ere egon izan ziren ikasketak

egiten hemen, Esklaustrazio aurretik, eta inoiz fraide irlandarrak ere bai (1632). Probintziako Ikastetxe nagusi-nagusietakoa izan gabe, Arantzazuko honek bere tamainako ikas-tradizioa beti izan zuen (Lizarralde 1950: 221; Uribe 1996: 283, 291).

Oro har, esan daiteke, ba, kultur tradizio erabakia izan duen Santutegia dela Arantzazu, baina ez bakarrik irakaskuntzan, baita Musika eta Arte Plastikoetan ere. Lehenagotik zetorren ildoari jarraikiz, XVIII.ean eman zitzaion koroa Santutegiko musika bizitzari, bere alde artistiko eta teknikoan. Koruak ez zituen ahotsak bakarrik, eta organuarekin batera bestelako tresneria ere zaindu ohi zen. Eta musika abestu edo jotzearekin zihoan bertako musikagileen lana ere, konposizioari bere lekua emanez. Guztiorren lekuko da Musika-Artxiboko altxorra.

Badirudi XVII-XVIII. mendeak izan zirela Aro Modernoko historian Santutegiko gizaldirik distiratsuenak, bere alde erlijioso eta kulturalean; gero, Aro Garaikideko atarian, indarrak zerbait mendratuta ageri dira fraidetan bezala berauen lanetan.

ESKLAUSTRAZIO-AURREKO HAMARKADAK (1794-1834)

Gainerako Hegoaldeko komentuetan bezalatsu, Arantzazuko Aro Garaikidea Konbetzioko Gerratearekin hasi zen (1793-1795), ez orduan bereziki sofritu behar izan zuelako, garai berrien ataria huraxe izan zelako baizik. Hain zuzen, gerrateko hilabete haietan aterpe seguruagoa izan zen Arantzazu, beste komentuetxeak baino, eta hara joan zen ihesi zebilen hainbat elizgizon. Dena den, Santutegiak ere bere urre-zilarrak gerrarako utzi edo eman behar izan zituen (Solaguren s. d. 79, 84).

1809ko Esklaustrazio-Dekretuek zuzenago harrapatu zuten komentua, eta bertako Senitartea irailaren 11n desegin zen; baina ez zenbait deliberamendu hartu gabe. J. M. Uralde apaiz diozesitarra geratu zen bertan kapilau gisara. Hil hartan bertan, esklaustratuetako zenbait frantziskotar oñatiar bertara biltzea erabaki zen, Auzokoen eta inguruetako artzainen zerbitzuan. Ofizialki "Casa de Corrección" izango zen Santutegia. Horrela, hamabost edo bederatzi lagun egon ziren bertan, 1811ko apirilaren 24an soldadu frantsesak heldu ziren arte: orduan, hartu eta preso eraman zituzten Agurain eta Gasteiza lehenengo, eta haietako zazpi Baiona eta Nancy-ra gero. Zegoen segurtasun falta ikusita, Andre Mariaren irudia bera ere Oñatiko Parrokiara eraman zen azkenik, 1811ko uztailaren 2an (Solaguren s. d. 94, 99-100).

Gerra amaitzean, Aldundiari eskatu zitzaion lehenbaitlehen izendatzeko komenturen bat Gipuzkoako frantziskotar xaharrek, gaixoek eta behartsu zebiltzanek babesik izan zezaten (1813ko ekaina). Aldundiak Arantzazu izendatu zuen horretarako (abuztua), eta, azkenik, 1814ko urtarrilean bildu ahal izan ziren fraideak Santutegian. Irudia, berriz, apirilaren 20an igo zen Santutegira. Nobiziategia ere berehala izan zuen komentuak (Solaguren s. d. 112-113, 137).

Hirurteko Konstituzionalean (1820-1823), Legearen aldetik Arantzazuko komentuak ez zuen arazo berezirik izan irekita egoteko, zeren Bidaurretakoak ez baitzuen komentu-izaerarik (Arantzazukoaren eranskin izaki) eta, hortaz, komentu frantziskotar bakarra zegoen Oñatin, Legeek eskatzen zuten baldintza hori gordez. Hala ere, legeak itxi arazi ez zuena urte haietako gerra-egoerak itxi zuen: Santutegiaren inguruetan gerrilari antikonstituzionalak zebiltzan, eta seguraski Santutegiarekin ere harremanen bat ere izan zuten.

Hori zela edo ez zela, zurrumurruak zabaldu ziren Gipuzkoan, baita Donostiako Prentsan ere. Horren karietara, Castañón teniente koronela igo zen Oñatitik bere gizonekin: fraideak mehatxatu eta komentuari su eman zion, zortzi egun barru berriz itzultzean, dena errerik ikusi nahi zuela esanez, eta mehatxu berriak eginez. Etorri ere halaxe etorri zen, zortzi egunen buruan, eta komentuko bizilagunek ahal izan zuten moduan ihes egin zuten. Azkenik, Gipuzkoako Buru Politikoak (Gobernariak), denen onerako Santutegia itxi zuen, eta fraideak eta Irudia Bidaurretara jaitsi ziren, beste behin.

Hirurtekoa amaitzean itzuli ahal izan zuten atzera (Solaguren s. d. 153, 164, 176-179).

Laburra izan zen lehen Gerrate karlistako historia Santutegian. Oñati Karlos-en alde altxatu zen (1833ko urrian), eta hiru Probintzietako bilpuntu bilakatu laster: Arantzazu inguruak karlista armatuen eskuetan zeuden, bada. Hurrengo hilabeteetan, ordea, egoera hori oso aldatuko zen. Rodil liberalak hartu zuen Gobernu-armadaren buruzagitza; baina gerra-planak bururatzea ez zitzaion gertatuko samurra, Zumalakarregi aurrez aurre zuela.

Gerra-ekintzak are zitalagotu ziren, orduan. Jada Oñati bere menpe zeukan, eta Santutegia erretzeko agindu zuen. 1834ko abuztuaren 18ko arratsaldean iritsi ziren Arantzazura 500 "Gipuzkoako bolondres" liberal; A. Iñurrigarro komandantearekin zetozen. Goizeko lauretan eman zioten su Santutegiari, eta Fraide-Senitartea eta Irudia Oñatirako atera ziren. Bidaurretan aurkitu zuten lehenengo aterpea (bertan egon zen Irudia 1846a arte), eta fraideak berehala Penintsulan sakabanatu zituzten. (Solaguren s. d. 263-271).

ARANTZAZUKO NAGUSIAK (1792-2000)

1792	Nikolas Balantzategi
1795	Pablo Errazti
1797	Frantzisko Bizente Zabala
1800	Frantzisko Bizente Zabala
1803	Frantzisko Bizente Zabala
1804	Santiago Jauregibarria
1806	Frantzisko Bizente Zabala
...	1808-1814.etako Gerrateko hutsartea
1814	Simon Antonio Ezpeleta
1816	Simon Antonio Ezpeleta
1818	Antonio Estabillo
1820	Antonio Estabillo
...	Hirurteko Konstituzionaleko hutsartea
1824	Frantzisko Orueta
1827	Jose Ugartondo
1830	Jose Ugartondo
1833	Domingo Lazkaibar
...	1834-41: Senitartea Bidaurretan
1846	Jose M. Egiluz (Kapilau Nagusia)
1847	Elias Arregi (Kapil. Nagus.: †1877)
1877	Mariano Estarta (Kap. Nag.-Pres.)
1878	Jose E. Epelde (Pres.)
1882	Jose Esteban Epelde
1884	Ignazio Egia (Goardianoa)
1886	Ignazio Egia
1888	Felix Maria Olariaga
1890	Juan Luis Arrue
1892	Juan Luis Arrue
1896	Frantzisko Ertzilla
1898	Frantzisko Ertzilla
1899	Ignazio Egia
1901	Ignazio Egia
1902	Elias Mz. de Zuatzo
1904	Elias Mz. de Zuatzo
1906	Jose Luis Alberdi
1907	Jose Luis Alberdi
1909	Jose Maria Barinaga
1910	Jose Maria Barinaga
1912	Jose Domingo Arrinda
1915	Jose Maria Azkue
1918	Agustin Guibert
1922	Agustin Guibert
1925	Deogracias Igartua
1928	Jose Antonio Urkiola
1931	Basilio Gerra
1934	Domingo Aranguena
1937	Roke Mitxelena
1940	Leonardo Zelaia
1943	Arkanjel Mitxelena
1946	Arkanjel Mitxelena
1949	Pedro Aranguren
1952	Pedro Aranguren
1955	Karlos Gastesi
1958	Demetrio Garmendia
1961	Pedro Aranguren
1964	Jon Zubieta
1967	Jon Zubieta
1970	Jon Zubieta
1973	Jose Manuel Garaialde
1976	Jose Manuel Garaialde
1979	Juan Telesforo Zuriarrain
1982	Juan Telesforo Zuriarrain
1985	Juan Telesforo Zuriarrain
1988	Juan Telesforo Zuriarrain
1991	Juan Ignazio Larrea
1994	Juan Ignazio Larrea
1997	Juan Ignazio Larrea
2000	Telesforo Zuriarrain

Hilabete batzuren buruan (1835eko irailean) hasi ziren Arantzazuko fraideak erbestetik itzuli eta Bidaurretan biltzen. Neurriren batean, horrela berregin zen Santutegiko Senitartea Oñatin. Datu ezagunek diotenez, ez zen, gainera, hain txikia: 30, 1836an (maiatza); 1838an, 37 lagun Etxean bertan eta beste 10 komentu-barrutian esklaustratuta. Une hartan Oñati karlisten menpe zegoen eta sarritan Karlosek berak ere bertan zuen bere egoitza (Solaguren s. d. 329-333, 342).

ESKLAUSTRAZIO-ALDIA (1834-1878)

1835-1841.etako urteetan Arantzazu ez zen guztiz utzia egon. Fraideek halaxe eskatuta, ezer baino lehen Santutegia sute-ondoko hondakinetatik garbitu zuten Karlos Erregegaiaren menpekoek. Eta igandeetarako fraide esklaustratu bat ere egon zen Arantzazun bertan, Sindikan kaperatxoa zuela. Azkenik, 1841ean, eliz ardura hau hitzarmen baten bidez segurtatu zen Tomas Etxenagusia fraide esklaustratu arrasatearrarekin (Solaguren s. d. 333, 430).

Urte haietan, piztu zen, gainera, Bidaurretako fraideen artean Satutegiaren etorkizunaz eztabaidarik: Santutegia berreraiki egin behar zen, ala Bidaurretan laga behin-betirako Irudia? Azken Goardiano izana (Lazkaibar) eta fraide batzuk, gutxienak, azken irtenbide honen aldeko agertu ziren; baina laster herritarrek sustatutako ekimenek ekarri zuten erantzuna, etxe barrukoen argitasunek baino gehiago.

Denbora aurrera zihoalarik, 1844an herriko lau enpresarik lehenengo eta 1845ean herritar multzo batek (140 sinadura) Santutegia ostera jasotzeko egitasmoa sustatzen hasi ziren. Bien bitartean, Probintziako Buru Politikoarekin (orain liberal moderatua) eta Kalahorrako Gotzainarekin ere hitz egin zuten, beharrezko baimenak lortuz. Eginkizuna burura eramateko borondateak elkartu zirenetik, lanerako xede eta baldintzak Gotzainak proposatu zituen. Harpidetza ofizial eta eskealdi orokor baten bidez egin zen diru-bilketa hiru Probintzietan. Obrek azkar egin zuten aitzina, eta 1846ko udazkenean Irudiari aterpea emateko moduan zen Santutegia, eta, beraz, azaroaren 19an egin zen beraren igoera (Solaguren s. d. 331-332, 431-441).

Gotzainaren baldintzen artean zegoen, noski, Santutegian kapilauak jartzearena (Nagusi bat eta bi laguntzaile, gutxienez), eta uste eta beti pentsatu zenaren arabera fraide esklaustratuen artean egin beharko zen kapilautzarako hautapena. Kapilauentzako arautegi bat ere onartuta zegoen jada. Lehen izendapenean Aita Jose Maria Egiluz hautatu zuten Santutegiko Kapilau Nagusi, eta E. Arregi eta J. D. Albeniz Kapilau Laguntzaile. Hirurak frantziskotarrak, baina erlijioso bezala ez, baizik eta apaiz sekular bezala jardun beharko zuten Santutegian (indarrean zeuden Esklaustrazioko legeek ezarritako egoera zen hori). Handik hilabete gutxira hil zen Egiluz, 1847ko maiatzean, eta orduan izendatu zuten 1877raino Santutegiko Kapilau Nagusia izango zen Elias Arregi arrasatearra (Solaguren s. d. 439, 440).

Santutegiko obrek, arrazoi ezberdinengatik, ez zeramaten aurreko hilabeteetako abiadurarik, eta Kapilauek berek hartu behar izan zuten proiektuaren zama: 1849an, Obra Batzordeari 42.500 erreal ordaindu zizkioten, jada egindakoagatik, eta, auziren bat edo beste gorabehera, ondoko eginkizunetarako eskuak libre izan zituzten. Aurrerantzean, limosna-biltzeak eta lanak gidatzea esku beretan geratu ziren, Kapilauenetan (Solaguren s. d. 441-442, 452).

Esan bezala, Arantzazun ez zegoen fraiderik ofizialki, eta bizi ere apaiz sekular bezala bizi ziren bertako esklaustratuak, baina enbor zaharreko ezpalak ziren denek ere, Probintzia izanberritzean bertan Senitarte erlijioso gisan bil zitezkeenak alegia. Arregi kapilauak eta Estarta izanberritzaileak desadostasunen bat izan bazuten ere, argi dago Estartak oso gogotan zuela Arantzazuko Santutegia, indarrean jarri nahi zuen Probintziarako, eta horretarako bazuela Arantzazukoen adostasuna ere. Eta hori jada 1856an (Solaguren s. d. 494-495).

Hil zen arte Arregiren ardurapean egon zen Santutegiko gobernua (1877). Tarte horretako urteetan gogoratzekoa da Albeniz azkoitiarrak eratutako Latin-Eskola (1847), urtetan iraun

zuena eta ondoren Seminario Frantziskotarrerainoko bidea burutu ahal izan zuena (1909) (Lizarralde 1950: 373-374). Artean ere behin eta berriz etorri ziren gorabeheretan (Desamortizazio Orokorra, 1856; Bigarren esklaustrazioa, 1870) Santutegiak Esklaustrazioko egoera hartan segi zuen, Kantabria edo Arantzazuko Probintzia Erlijiosoa izanberritzen ari zen bitartean (1859tik aurrera).

II. Karlistada amaitu eta Errestaurazio politika canovastarra finkatzean iritsi zen egitasmo berrietarako unea, baina gatazka pertsonalik gabe. Zenbait fraide suhar eta gaztek berehala nahi zuen ikusi kapilau-taldea ofizialki frantziskotar bilakaturik, eta Arregik ez zuen uste izan horretarako iritsita zenik legezko egokiera, 1877ko urtarrilaren 7an hil aurretik. Aita Mariano Estarta Kantabriako Komisari Probintzialari eman zitzaion orduan Santutegiko Kapilautza Nagusia, baina urtebeteren buruan hil zen hau ere (1878ko otsailean), eta Santutegia Aita J. E. Epelderen eskuetara pasatu zen.

Fraideartea eta Santutegia izanberritzen (1878-1918)

Gizon eta aukera politiko berriek erraztu zuten orduan Santutegian berriz ere Senitarte frantziskotarraren eraketa. Epelde Zarauztik Arantzazura Kapilau Nagusi bezala ekartzean, egitez, kapilau-taldea barne eta kanpo fraidebizimodua egiten jarri zen. 1878ko abuztuan, Cánovas Santutegira ekarri zuen Epeldek, eta, harreman haien ondorioz, irailaren 7an zera idatzi zion Ministroak Diozesiko Gotzainari: "S. M. se ha servido resolver se manifieste a V. E. I. que por parte de la Potestad Civil no hay inconveniente alguno en que se funde dicha comunidad [Arantzazukoa, alegia], haciendo vida religiosa con arreglo a la Constitución de su Orden". Irailaren 17an eman zuen Gotzainak horretarako baimena (Lizarralde 1950: 381-382, 385).

Santutegi-komentuaren etorkizunerako lehen premia larrienak begi-bistan zeuden: komentua zabaldu, garai bateko ondasunak berreskuratu, kamino berria urratu. Guztirako bilatu behar ziren baliabideak. Aurreko urtean obra Aldundiak bere bizkar hartu nahi izan ez arren, Cánovas-ek berak jarri zituen kaminorako lehenengo 500 errealak, eta ondoren etorri ziren Diputatuak, Oñatiko Udala, etab. Lehendik irekita zeuden zazpi kilometro eta erdiek (1857-1861, bidesaria ordainduz ibil zitezkeenak) beste hiru berri behar zituzten Santutegiraino iristeko. Irailaren 20an baimendu zuen Gobernuak kaminogintzarako limosna-eskea, eta ahots ozena izan zuen ekimen horrek; A. Daniel Baertel ibili zen herriz herri, espero zen baino arrakasta handiagoarekin. 648 lagun etorri ziren Gipuzkoa eta Bizkaitik auzolanean jarduteko, eta fraideek jatena eman zieten, ez besterik. Orduan egin ziren, kaminoarekin batera, Erosarioko kapera ezagunak (1886an estreinatu ahal izan zirenak) (Lizarralde 1950: 386-390).

Hain ederki erantzun zuten herritarrak estreinaldirako deitzea pentsatu zuen Epeldek (horretan saiorik egina baitzen 1879-1880etan); egindako lanaren berri bazekiten herriek, eta 1881eko urtea erromes-aro berriko jai handiena ere izan zitekeen. Urte hartako ospakizun eta erromesaldiak historiara pasatu dira: Lizarraldek bere Historiako kapitulu ia oso bat eskaini zien festa haiei (Lizarralde 1950: 419-437).

Propaganda azkarra egin zen herritarren gogoa sustatzeko (Gotzainaren *Gutuna* tarteko): ordukoak dira Arrese Beitiaren Santutegiko kondaira (zortziko handitan), Arana-ren "Arantzazuko", Orkaiztegiren "Itz neurtubak", Pastor-en *Historia del Santuario* eta urteko Kronika inprimatua; 35.000ren bat lagun bildu zen Santutegian Bederatziurreneko egunetan (Agurain, Dulantzi eta Barrundiatik 2.000 lagun etorrri ziren, adibidez, Donostia eta Bilbotik 9.000); Gasteizko Gotzaina (M. Miguel) egunero igo zen Zapatatik gora herrietatik zetozen erromesekin, Iruñekoak lagundu zien Burundatik zetozenei.

Epelde eta Santutegiko fraideak ohartu ziren ongi gida zezaketen oldar soziala zein tamainatakoa zen. Erronka hari erantzuteko Santutegiari oinarri hobeak eman behar zitzaizkion. Bidea ireki ondoren, komentu berria egin behar zen: elizaren parean, harkaitz erauziaren kontra jaso zen komentu hura, bidearen beste aldean, eta 1884an estreinatu ahal izan zen. Beronen finan-

Arantzazuko erretabloa: Luzio Muñoz, 1962. (Argazkia: 2002).

Arantzazuko Anaiartea. (Argazkiak: 2001).

1. ***Gobernua*:**
   Patxi Agirre, Telesforo Zuriarrain, Jon Zubieta (eserita). Iñaki Beristain, Pello Zabala, Juan I. Larrea, Julian Letona (zutik).
2. ***Argitaletxea*:**
   Patxi Agirre, Jesus Barronea, Agustin Pz. de Arenaza.
3. ***Idazleak:***
   I. Beristain, Jose L. Zurutuza, Jose L. Albisu, Pello Zabala.
4. ***Ekonomia*:**
   Juan Elizegi, Julian Letona.
5. ***Liburutegi/Artxiboak*:**
   Martin Mendizabal, Kandido Zubizarreta, Joseba Etxeberria.
6. ***Erromes-zerbitzua*:**
   Jose M. Arozena, Jose M. Zelaia, Antonio Larrea.
7. ***Predikariak:***
   Jon Zubieta, Luis Esnal, Eleuterio Errasti (eserita); Pello Zabala, Martin Mendizabal, Juan I. Larrea.
8. ***Etxeko lanak:***
   Julian Lete, Juan Etxezarreta (eserita); Txomin Garro, Juan Aramendi, Jose A. Salas (zutik).
9. ***Zahar-gaixoak:***
   Valentín González, Bizente Zubiarrain, Jose M. Aranburu, Jose Atxukarro (eserita); Julian Alustiza, Luis Agirre, Eulojio Agirregabiria, Bittorio Beain (†), Jose M. Beristain (†) (zutik).
10. ***Aldizkari-zabalkundea:***
    Enrike Arozena, Patricio García, Mariano Lizarrondo.
11. ***Gomiztegiko baserrian.***
    Aurrean: Luis Arraiago, Juan Zelaia. *Atzean*: Nikolas Segurola, Bitoriano Zubillaga, Andres Etxeberria.

tzaketa, ia erdia fraide esklaustratuen diru aurreztuek segurtatu zuten, eta Hiru Probintzietan bildutakoak. Esan behar da, gerora, 1909an mutiko fraidegaien ikastetxe bihurtu zela eraikin hura. Aldi berean, ahalegin guztiak egin ziren Santutegiko orube desamortizatuak enkantera atera ez zitezen. Ongi kostata, Epelde hil eta gero lortu zen Fraideartearen aldeko komentu-orubearen, baratzaren eta Kapilau-Etxearen jabetza-ezagupen ofiziala (1887), hiru horiek desamortizaziotik at zeudela aitortzean (Lizarralde 1950: 386).

Bidea, legezko segurtasuna, komentua eta 1881eko arrakasta: ekin zekiokeen hurrengo egitekoari, Arantzazuko Andra Mariaren Koroazioari (1886-06-06). Euskal Herriko beste Santutegien artean jaierazko lehentasun ofizialari bide ematen hasteko modua zen, noski, hau. Erromesaldiekin batera, literatur lehiaketarik ere egin zen: sarituen artean zeuden Arrese Beitia, K. Etxegarai eta G. Arrue. Santutegiaren historialdi berrirako oinarriak jarrita geratu ziren, baina Epelde Probintzialak ezin izan zuen etorkizunaz gozatu, 1886ko abenduan zendu baitzen. Baina Santutegiak aurrera egin zuen.

1891n, 42 fraide bizi ziren Arantzazuko komentuan. Albeniz-ek gidatutako Latin-Eskola (1847), 1890ean Eskola Serafiko bihurtu zen, hau da, zinez fraidegai izan nahi zutenentzako ikastetxe (1890-1902, 1907-1909), eta Filosofiako fraide korutarrei ere Santutegian eman zitzaien beren ikastegia (1884-1926). Epelderen nagusialdiaren ondoren, Kantabriako Nagusiak Probintziako beste zereginetan ibiltzeko eskuak libreago izan zituen.

Arantzazu eraberritu zuen hurrengo gizona Elias Mz. de Zuazo Goardiano (1902-1906) eta Ministro Probintziala izan zen (1909-1915), Santutegia bertatik bertarago begiratzeko Probintzial-egoitza ere han jarri zuena. Kasik aidean, amildegiaren gain jaso zuen sei solairuko eraikina, 1912an (1930.etan Gogartetxe bihurtuko zena), eta bertan eta elizondoko eraikin berrietan bildu zituen Fraide Senitartea, Filosofi ikastegia, liburutegia, barneko ostatu-gelak.

Bestalde, 1909an eman zitzaion hasiera Kolegio Serafiko deituari, 1922tik aurrera fraidegai frantziskotarrentzako bakarrik izango zen Seminarioari. Eta garai horretan lan osagarririk ere bada: ura, argindarra, telefonoa, komentu aurreko enparantza txikia, etab. Komentua, bada, osatuta zegoen jada (Lizarralde 1950: 390-399).

Arantzazu izanberrituan, Etxe honi zegokion komentu-barrutiak bere eremuan zuen hainbat herri, limosna-eske eta lanerako: gutxienez, Arrasate, Bergara, Aramaio, Segura, Araia, Zigoitia, Gasteiz eta Dulantziko artziprestazgoetarako aitortzen zitzaion eskumen hori (1915); komentuarteko hurrengo lurralde-moldaketa orokorrean (1949), Arrasate, Bergara, Ordizia eta Segurako artziprestazgoak, eta Arabako Probintzia (bertako Errioxa eta Artziniegako artziprestazgoa izan ezik) hartu zituen Santutegiak. Azkenik, Arrasateko komentua izanberritu ondoren (1953), komentu honi eman zitzaizkion Arrasate eta Legutioko Artziprestazgoak (1962). Berezikiago lurralde horretan izango zituen bere zeregin eta ardura arruntak.

Santutegiaren zaintzaileen lagunartea indartu ahala, 1878tik aurrera handitu egin zen Arantzazurako fededun herritarren emana: Aro Garaikideko erromesaldien garaia da, eta horrek, gainera, baditu bere data handiak ere: 1881, 1886, 1918, 1955. Lizarraldek lehenengo hiru haien kronika utzi zuen bere historiako kapitulu banatan (Lizarralde 1950: 405-524).

Herritarrekin batera, Gipuzkoako eta beste Probintzietako Erakundeekin ere harreman erosoak lotu ziren. Dena den, horretan Gipuzkoako Aldundiaren lehentasuna nabaria da: hasteko, kaminoaren jabetasuna eta ardura bere gain hartu zituen, eta gero, Arantzazuko Andre Mariaren Zaindaritza eskatu zuen, J. Lojendioren iradokizunez eta Zuazo-ren eta Oñatiko Udalaren eraginez (1912). Oñatiko Eusko Ikaskuntzen I. Batzarrean bizi izan zen gertakaria (1918) (Lizarralde 1950: 473-474).

HIRU HAMARKADA ALDARTETSU (1918-1950)

Euskal kulturarako bezalaxe, 1918ko data hau mugarria izan zen Santutegian ere, eta hala-

xe sumatu zuten Arantzazun. Ondorioz, Santutegiaren inguruan ikusmolde historiko-teologiko berritu bat lantzen saiatu ziren frantziskotarrak, eta lantegi horretan gogoratzekoak dira Sarasola, Lizarralde edo Aperribai gerraurre hartan. Bestalde, fraidetarako ikasketak ere eraberritu egin ziren (1909), eta ikaslegoaren beharretara egokitu, Gasteizko Seminarioko eredua hartuz (1916-1917).

Aberatsa izan zen ikasketak berritzen 1920.etako hamarkada, batez ere Ordenako ikas-egitarau berria ezartzean (1927, B. Madariagaren ardurapean). Musikak berriro leku ederra irabazi zuen, abesbatza eta tresna-taldearekin (J. Arrue, J. M. Arregi). Bestalde, badirudi artean inkulturazio linguistikoa —euskarazkoa, alegia— gisa erlatiboki apalago batean zaindu zela gerraurrean (B. Gerra, A. Arruti, J. Arrue). Azkenik, Santutegiko kultur lanabesen artean euskal gizartearekin harreman-bide zuzena izango zen *Aránzazu* aldizkaria sortu zen, 1921ean (Homenaje 1935: 125-126)

1926-1928an Santutegiko Filosofi ikasleak Erriberriko Teologi ikasleekin trukatu ziren, Koruari heldutasun jantziagoa emanez. Baina ez ditzagun ahantz betidaniko eginkizunak: Santutegiko erromesekiko ardura (aitortzak, elizkizunak) eta bertan nahiz bertatik bete ohi zen prediku-lana. 1930.etako urteetan, Santutegia barnetik kulturaz biziberritzen ikus dezakegu, Eusko Pizkundearen berotan; gogoratzekoa da, zeregin horretan, I. Omaetxebarria Alemaniatik berrikitan bertara itzulia (1934). Gerra Zibila lehertu zenean zeuden Santutegia eta frantziskotarrak, finezia eta kalitate hobeagoko euskal zerbitzuak eskaintzeko puntu-puntuan (Homenaje 1935: 75; Tokiko lekukotasunak).

Gerraurreko euskalgintzan frantziskotarrek ez zuten izan lidergo distiratsurik, eta politikagintza abertzalean ere ez ziren nabarmendu frantziskotarrak. Beharbada, hori bera ere ongi etorri zen gero, zeren eta, garaiko zailtasunak zailtasun, Arantzazun ez zen, nonbait, gerraosteko etxe-barruko zigorra beste zenbait Ordenatakoa bezain itogarri eta iraunkorra gertatu, eta 1940.eko erdi aldera, aurreko hamarkadako gora-nahiari eutsiz eta eragozpenei aurre egi-



Arantzazu: M. Zinkonandiaren erretratoa (X. Alvarez de Eulate, 1949).

nez, euskal lanei erlatiboki goiz heldu zitzaien berriro.

Hortik agertu ziren estilo berriko predikari prestuak (Garmendia, Alustitza, Agirretxe), eta luma gazte prometagarriak, hain zuzen Santutegiaren inguruan Lizarraldek eskainitako historiografiaren gain eta erromantze-tradiziotik dastatuta sinbologia erakargarria eta itxaropen euskaltzalea sortu zituztenak (S. Mitxelena: *Arantzazu. Euskal poema*, 1949; *Bizi nai*, 1955). Obra jasoen ondoan, herri-herriraino helduko zen ekimenik ere egon zen (*Egutegia*, 1947).

BASILIKA BERRIARREN ARRASTOAN (1950-1970)

Santutegia, frantziskotartasuna eta Euskal Herriaren balioak batera aurkeztu nahi izan zituen ahalegin erlijioso-intelektual honek. Itxura guztiz, badirudi bestalde, egitasmoak antolatu eta gidatu behar zituen Aita Pablo Letek ongi ohartuta ikusi zituela pentsamendu horren funtsa eta xedeak. 1950ean hamarkada (edo hogeikada) paregabea hasi zen Santutegiarentzat: Basilika berriaren eraikuntza, bere arrakasta, buruhauste eta herritarren partaidetzarekin,

Arantzazuko Urtea (1955-1956), gazteen igoaldiak (1952-1968), argitalpen kultural berriak (*Jakin*, 1956; *Goiz-Argi*, 1958). Euskal kulturari inoiz baino begirago agertu izan da Santutegia 1945-1970. urteetan, L. Villasante, B. Gandiaga, edo J. Alustizaren lanen bidez, esateko.

Esan beharrik ez dago, Santutegiko fraideen eta Euskal Herriko beste frantziskotarren[ofm] lanak oso elkarrekin ibili zirela, argitalpenak adibidez Arantzazutik bertatik edo Zarautz eta Tolosatik zabalduz. *Arantzazu* aldizkariak 1956an (hortaz, Arantzazuko Urtea amaitzean) 10.000 harpidedun zituen eta bere unerik onenean (1970.ean edo) 22.000 ale zabaltzera heldu zen; E. Arozena Anaiak (1956-2000...) etxez etxe segurtatu izan dituen harpidetzen bidez, 2000.ean ere, 12.000ren bat harpidedun ditu, Gipuzkoako 80 herritan, Bizkaiko 26etan, etab. banatuta. *Egutegia*-k bere lehen urtean 25.000 ale saldu zituen; mende-bukaeran, 12.000ren bat aleko argitaraldiak ditu, orain beste euskal Egutegiekin lehian (E. Arozena; Tokiko lekukoak).

Hirugarren Ordena, herri-misioaldiak, ohizko prediku-lana, iganderoko Irrati bidezko Mezak (Donostia Irratia, 1946), dena bizirik dago fraide ugari dituen Santutegiarentzat. Alor berri bat ere ireki zen gerraostean Gogartetxearekin: hogeita hamarren bat urtetan dozenaka mila lagun iragan ziren etxe horretatik. Lehenengo gogo-jarduleak Errepublikak beren etxeetatik iraitzitako 30 josulagunak izan ziren (1931) (Mitxelena 1951: 234).

Elizaren ondoan, etxagintzarik handiena Seminario berrikoa izan da: 1950.etan zetozen fraidegai ugariek behartuta, 1960-1968.etan burutu zen eraikuntza (16.000 m^2-ko erakina), B. Mendia Probintzialaren ardurapean (Probintzial: 1955-1967) eta Alustiza arkitektoaren proiektuen arabera. Hogeita bat urteko bizialdia izan zuen ikastetxe honek, 1990ean itxi zen arte. Frantziskotarren Santutegiko V. mendeurrenaren karietara, abian dira erakinarekiko asmo berriak.

KONTZILIO-ONDOKO HAMARKADAK (1965...)

Azkeneko hogeita hamar urteetan ere badago zer konta komentu-barruko bizitzaz. Kontzilio-ondoak berritze-lan handia eskatu du Liturgi langaietan, Ikastegien berrantolakuntzan, ekonomi sistemaren egokitzapenean, kristauartearekiko harremanetan, etab. Krisi orokor baten barnean ardurazko erabakiak hartu behar izan dira (Teologi ikaslegoa Bilbo, Gasteiz edo Iruñera eramatea, adibidez, 1978an; Seminario Txikia ixtea, 1990).

Betidaniko eta XX. mendeko historiaren sostengua Santutegiko bizilagunak izan dira, noski, eta gogora dezagun Fraide-Senitarte eta inguruko lagunarte osoa. Aro Garaikidean frantziskotarren Arantzazuko Probintziako etxerik handiena izan da Santutegiko hau; jada emandako datuei zera gehi daiteke hemen : 46 (1891), 42 (1910), 101 (1941), 173 (1964: fraide ikasle gazteak eta guzti), 69 (1980) eta 44 (2000). Bilakaera estatistiko honek erakuts ditzakeen aldakuntzei aurre eginez, Senitarteak gogoetari ere eman dio bere lekua, "Senitarteko Egitasmoa" aztertuz, esaterako (1996) (Zinkunegi 1997).

Senitarte honetan, ondoan, frantziskotarren Seminario Handi eta Txikia egon dira beti. Komentuan bertan Filosofi (1884-1928) eta Teologi Ikastegia (1928-1978) egon da fraidegai gazteentzat. Mutiko fraidegaientzako Seminarioak ia mende eta laurdena bete du lanean (batez ere: 1909-1990). 3.266 ikasle iragan dira bertatik (1897-1989) (Agirrezabala/Beraza 1997).

Ikastegi guztien zerbitzuan, liburutegi ederra du komentuak, XV. mendeko inkunablez eta ondoko mendeetako liburuz hornitua. Euskal Herriari eta frantziskotartasunari leku berezia eskaintzen die beronek. Bestalde, garrantzizko Musika-Artxibo historikoa dago komentuan, eta aberatsa da XX.ekoa.

Inprimategia ere izan du Santutegiak (1921-1995), eta gaur egun lanean du bere Argitaletxea (EFA = "Editorial Franciscana Aránzazu", 1952). Moldiztegi hartan agertu izan ziren San-

SEMINARIOKO ERREKTOREAK (1909-1990)

1909	Basilio Gerra	1938	Leonardo Zelaia
1915	Gil Barandika	1940	Ignazio Agirre
1918	Gil Barandika	1943	Jose A. L. de Guevara
1922	Gil Barandika	1946	Alejandro Ezkurdia
1925	Bizente Gorostiza	1964	Jose Maria Galdos
1928	Basilio Gerra	1973	Eusebio Untzurrunzaga
1931	Jose A. Urkiola	1982	Dionisio Arruti
1937	Nikolas Bikuña (†1938)	1990	*Seminarioaren itxiera*

tutegiko aldizkariak, batez ere Anaia Laikoen lanari esker.

Gaur egun hiru aldizkari argitaratzen dira Santutegian: *Arantzazu* (elebiduna: 1921...), *Misiones Franciscanas* (gaztelaniaz: 1914...), *San Antonio de Padua/SAP* (gaztelaniaz: 1946...). *Goiz-Argi* astekaria Arantzazuko aldizkariaren eranskin bezala agertu zen hasieran (1958). *Jakin* euskal kultur aldizkaria ere Santutegian sortu zen, eta gero frantziskotarrek gidatu zuten urtetan (euskaraz: 1956-1990), eta geroztik Administrazio-Kontseiluan daude. Komunikabideetako Arantzazuko fraideen lana ezaguna da gaur egun: Irrati-telebisten artean, ETBn (I. Beristain: saio erlijiosoak), Euskadi Irratian (P. Zabala: eguraldia eta musika klasikoa) eta Segura Irratian (eguneroko Meza).

Era berean, frantziskotartasunari eskainitako liburu-sorta bat ateratzen da Arantzazun gaztelaniaz, munduko berezilari onenen idazlanekin: "Hermano Francisco" (1975...). Dagoeneko, berau da, aldizkari berezitu gutxi batzuren ondoan, frantziskotartasunaren alorrean gaztelaniazko liburu-bildumarik preziatuena.

Komentuak ostatu eta baserria ere baditu: "Ostatua" deritzana (1912an berrantolatu zena) eta Gomiztegiko baserria. Santutegirako laguntza handia izan da hau, bere nekazal fruitu eta artaldearekin, eta kalitateko emaitzak zor zaizkio (barazki eta gazta sarituak). Azken urteetan Artzain-Eskola ere badago bertan (N. Segurolaren laguntza zuzenarekin).

Erromesentzako elizkizunak arreta bereziz zaintzen dira, liturgiaren, musika eta hitzaldien aldetik. Urteko "une trinkoak" Aste Santua eta Andre Mariaren Bederatzirurrena izan ohi dira Santutegian. Zeregin horiekin batera, Santutegiko fraideek eraman izan dute, gehienbat, Arantzazu Auzoko eliz ardura, eta Urbiako artzain eta mendizaleentzako iganderoko Mezak ere beraien ardurapean egon dira osorik (jada 1923an hartutako erabakiaren arabera).

Data jakingarriak dira Santutegian ondoko hauek: Andre Mariaren Koroazioa (1886), Gipuzkoako Zaindaritzaren aldarrikapena (1918), Basilika Berriaren eraikuntza (1950-...), Arantzazuko Urtea (1955-1956), bertako frantziskotarren V. Mendeurrena. Jaialdi handiz ospatu ziren denak ere.

XXI. mendearen hasieran, garai bateko erromesaldiek molde berri batean datoz orain, unean uneko xede berriz aberastuta (bakea, jubileua, eta abar), lehengo peregrinazio erro-tuenak ere beren ibilera galdu gabe. Aldi berean, bakarka nahiz familian datozenak ugaritu egin dira, eta ohiz kanpoko liturgi ospakizun zainduagoak nahi dituenak sarritan jotzen du Arantzazura.

Beren bosgarren mendeurrena ospatzean (1501-2001), asmo-berritze lanetan dabiltza Santutegiko frantziskotarrak, "Arantzazuko Adiskideak" eta "Kultur Topagunea" sustatuz. Itxaro denez, jarraipen historiko berri bat eman ahal izango zaio Arantzazuko komentu honi.

ARRASATE: SAN FRANTZISKO KOMENTUA

(...1794-1840, 1953...)

Gipuzkoako Udalerria da Arrasate, Deba Goienean. Alfontso X.a Jakitunak sortu zuen hiribildu hau "Mondragón" bezala bataiatuz (1260), eta 1332an berretsi zitzaizkion bere Hiri-Gutuneko eskuduntzak. Arrasatek betidanik elkartu ditu baserri-ekonomia eta industria, eta XX. mendean, industri kooperatiben garapen-eredu bilakatu da, bertan eta inguruetan lagundu duen mugimenduagatik. Era berean, Arrasate inguruan bideratu da, berrikiagotan, euskararen aldeko hainbat ekimen sozial jakingarri.

Betiere Gipuzkoako hiri nagusietakoa izan ondoren, Arrasateren garapen demografiko azkarra XX. mendekoa izan da, izan ere 1787an 2.601 bizilagun baldin bazituen, ikustekoa da ondoko hamarkadetako abiadura hau: 2.851 (1877), 3.713 (1900), 7.720 (1950) eta 24.573 (1996).

Herri honetan Erakunde frantziskotarren lekua aski indartsua izan da, Aro Modernoan batik bat, eta herriak herri bezala beti izan du Arantzazurako joera eta grina ere.

ARRASATE FRANTZISKOTARRA (XVI-XVIII. M.)

Arrasaten bi komentu frantziskotar egon izan dira: fraide frantziskotarrena[ofm] eta moja sorkundetarrena. Azken hau, fraideena baino lehenagokoa zen (1511), eta ia mende oso batean Hirugarren Ordenako elisabetarrak izan ziren, gero sorkundetar bihurtzeko. Moja-Komentu hau biziki estimatua zen herrian, eta fraideen Komentu berria eraiki nahi izan zenean, Araotz fundatzailearen baldintzak betetzen lagundu zuen lekaime hauenak, fraideentzako ondasunak bere izenpean hartuz.

Arrasateko emakume gazteen artean, arrakasta ona izan zuen Monasterio honek, XVII.ean 48 lagun izateraino (1679), arauz zegozkion baino lau lekaime gehiago. Aro Garaikidean ere bere indarra mantendu zuen, eta 1948an baziren bertan 39 moja. Gaur egun, 2001.ean, 15 dira, herri-gunetik aldatuta orain Uribarri auzoan duten Komentuan (1978) (Uribe 1996: 405-408).

Mojen Komentuaren historian pisurik aski izandako arrasatear frantziskotar-zale bat ezin da hona ekarri gabe utzi. Esteban Garibai historialariaz ari gara, Felipe II.aren historialari ofizial eta *Compendio Histórico* (1571) sonatuaren egileaz. 1566tik aurrera serora-moja haientzako klausura arazoa sortu zenean, bere lekaime herritar hauen alde saiatu zen Madrilen, haiek betiko askatasunean laga zitzaten (1573). Garibaik Ordenako zenbait Ministro Jeneralekin izandako harremanak erabakigarriak gertatu ziren orduan, eta baita fraideen Komentua sortu nahi izan zenean ere.

Izan ere, aurrekari horiekin, XVI. mendean eraiki ahal izan zen fraideen lehenengo Komentua Arrasaten (1582), Juan Araozkoaren eskuzabaltasunari esker. Behin-behineko eraikinak zutik jarri ondoren (1583), 1614-1633.etan jaso ziren geroko eliza-komentuak, eta XVII.eneko azken laurdenean zenbait hobekuntza nagusi

ere egin zen (Klaustrua zabaldu, erretablo berria eman, etab.) (Uribe 1996: 125-128, 130-131, 148-149).

Fundazio berriak Komentu eta Ikastetxe izan behar zuen, bi eginbeharrak elkarren ondoan zituela. Ondoko bi mende eta erdian, izan ere halakoxea izan zen Etxea: erlijiosoen komentu eta ikasle-irakasleen Ikastegi, betiere eskualdean eta Probintzian izen eta estimu onekin, gainera. Aita Gonzagak 40ren bat erlijiosotarako lain edo ikusi zuen komentu hura (1585), baina horren azpitik ibili zen, dakigunez, 20ren bat lagunen inguruan 1680-1768.etan (Uribe 1996: 150-151, 277).

KRISIA ETA IZANBERRITZEKO LEHEN URRATSAK (1794-1951)

Hegoaldeko beste komentuak bezala, Konbentzioko Gerrateak jo zuen Arrasateko Etxea ere (1794), eta bertako bitxiak gerrako premietarako eman behar izan ziren (hauek 330 ontza pisatu omen zuten). Gerrate napoleondarraren ondoren (1814) komentua bere lehengo bizitzara ekarri zen (30en bat fraiderentzako Etxea zen hura), eta Hirurteko Konstituzionalean (1820-1823) herriko fraide-komentu bakarra izanik salbatu ahal izan zen beste zenbaiti suertatu zitzaion itxieratik (Solaguren s. d.: 84, 154).

Lehen Gerrate Karlistakoan (1833-1839), On Karlos-en menpeko eremuetan izatea egokitu zitzaion, eta garaiko Gobernu liberalen Esklaustrazio legeek ez zuten harrapatu orduan; Gipuzkoako beste lau komentu frantziskotarrek[ofm] bezala, irekirik iraun zuen Arrasatekoak. 1838an 21 fraide zituen, 19 bertan bizitzen eta 2 komentu-barrutian esklaustratuta. Gerra amaitzean, Arrasatekoa izan zen Gipuzkoako komentu frantziskotarren artean azkena itxi zena: 1840ko abenduaren 31n agindu zitzaien fraideei komentutik irteteko. Une hartan 9 apaiz eta 2 Anaia Laiko omen ziren guztira (Solaguren s. d.: 329, 334, 342, 375-376).

Honelakoetan egin ohi zen bezala, Udaletxeak bere premietarako eskatu zion komentua Estatuari, berau "ondasun nazional" bihurtu baitzen, Desamortizazio-legeen arabera. 1846an komentuko baratza 360 errealetan utzi zen errentan, eta 1848an, Madoz ikuskatzaile ofizial gisara etorri zenean, komentua Erruki-Etxe eta Eskola bihurturik zegoen, hori nola eta noiz gertatu zen ez badakigu ere (Solaguren s. d.: 376).

Komentua berreskuratzeko lehen ekimen ezaguna 1939koa izan zen, eta 1946an, Arantzazuko Probintziako Kapitulu Probintzialak eskatuta, Aita Bernardo Madariaga egin zen arazoaren kargu. Orduan aztertu zen egoera juridikoa, eta berreskuratzeko lanak sustatu. 1949an berriro ere aztergai da arazoa Probintziako Definitorioan. Donostiako Gotzainak erantzun garbirik ematen ez zuenez, Aulki Santura jotzea erabaki zen 1951n; arazoa ez zen eskutik utzi, eta hurrengo urtean ere azterkizun da Arrasateko komentuaren hau Definitorioan (ACD III: 59, 211, 238, 271-272, 274-275, 317, 363-364; IV: 111).

KOMENTUA IZANBERRITZEN (1953...)

1953an berretsi zituen Erlijiosoen Kongregazio erromatarrak frantziskotarren[ofm] eskubideak; orduan bertan izendatu zen, gainera, Senitarterako Burua (1953-ekaina-25). Sarrera ez zen berehala egin ahal izan, herriko eliz antolaera berria zela eta, izandako eragozpenengatik, baina, azkenik, 1954ko otsailaren 7an itzuli ziren frantziskotarrak[ofm] Arrasateko komentu honetara.

Etxe izanberrituko lehenengo Senitarte-Burua Aita Demetrio Garmendia izan zen (†1999), eta laster egin nahi izan zen Etxe hau Goardiano-Komentu, baina egoitzaren eskastasunak bestelakorik aholkatu zuen orduan (1955). 1967an eman zen ontzat berau Goardiano-komentutzat ezagutzea, eta halaxe erabaki zuen hurrengo Kapituluak (1970-uztaila-15). Lehenengo Goardianoa Aita Jose M. Garaialde izan zen (ACD IV: 2, 312; V: 8, 16).

Komentu honen barruti geografikoak, Arantzazurekin adostu eta onartutakoaren arabera (1962), Arrasate eta Legutioko Artziprestazgoak hartzen zituen. Ez da Senitarte handia izan Etxe

Arrasateko Komentua (2002).

ARRASATEKO NAGUSIAK (1792-2000)

1792	Martin San Bizente
1794	Raimundo Aranguren
1797	Migel Karrera
1800	Frantzisko Gojendi
1803	Frantzisko Gojendi
1806	Raimundo Leizaur
...	1808-1814: Gerra napoleondarra
1814	Raimundo Leizaur
1815	Nikolas Balantzategi
1818	Antonio Etxebarria
1820	Frantzisko Etxeberria
	1820-1823: Hirurteko Konstituzionala
1824	Pedro Zubia
1827	Jose Ignazio Zabalo
1830	Rafael Zubeltzu
1833	Jose Urdailleta
...	18331-1840: Gerra karlista
1839	Juan Balentin Urtatza
...	1840: Esklaustrazioa
1953	Demetrio Garmendia (pres.)
1955	Demetrio Garmendia
1958	Jose Manuel Garaialde
1961	Jose Manuel Garaialde
1964	Iñaki Albizu
1967	Jose Manuel Garaialde
1970	Jose Manuel Garaialde (goard.)
1973	Frantzisko Beristain
1976	Ildefonso Alustiza
1979	Karlos Urbieta
1982	Julian Letona
1985	Julian Letona
1988	Jose Luis Agirretxe
1991	Jose Luis Agirretxe
1994	Jose Luis Agirretxe
1997	Jose Luis Agirretxe
2000	Karlos Urbieta

ITURRIA: *Actas Capitulares y Definitoriales* liburua.

SAN FRANTZISKOKO ELIZ ARDURADUNAK (1974-2000...)

1974	Frantzisko Beristain
1976	Ildefontso Alustiza
1986	Jesus Elortza
1991	Jose L. Agirretxe
2000	Jose Luis Arrizabalaga

STA. MARINAKO ELIZ ARDURADUNAK (1974-2000...)

1974	Jesus Elortza
1986	Benito Arregi
1997	Migel Noble

izanberritu honetakoa: 1957an, 4 lagun zituen; 10, 1977an, eta 8, 1995ean. Bestalde, behinbehineko datuek diotenez (2000ko otsaila), 46 gazte arrasatearrek hartu du fraide-abitua, XX. mendean (ACD IV, 58, 180; Zinkunegi 1997; Personal 1998).

Tolosa edo Bermeon bezalatsu, Arrasaten ere frantziskotarrek ez zuten berreskuratu antzinako komentu-eraikin osoa: eliz eraikina bai, baina gainerakoan eliz ertz batean joan behar izan dute bere bizilekuak eta eliz pastoraltzarako etxalekuak. D. Garmendiak utzi digun kronika laburtuan ikus daitezke komentu izanberritu bat bere baitandik berreraikitzeko ibili behar diren bideak: herritarren lankidetza, udalaren eskuartzea, familien limosna-laguntza, gainerako komentuetatik lortutako laguntzak, eskualdeko enpresari ongileen eskuzabaltasuna, etab. Izenik ematekotan, Arrasateko bigarren sorrera honetan herriko alkate Julio Otadui da nahitaez aipatu behar den izen bat (Arrasateko alkate 1952-1961.etan).

XX. mendearen bukaeran ezagutzen dugun eraikina, bere osoan, apurka egindako zerbait

da, handik eta hemendik eraikin osagarriak irabaziz, eta herriko hirigintzaren eskakizunei ere erantzunez, udalarekin elkarrizketan, alde bietako interesak zaindu nahirik.

Itzultzean (1954), elizkizunetarako hornikuntza izan zen lehen urratsa, eta orduantxe bertan fraideentzat bizilekua eratzea. Lehen kokalekua herriko Sorkundetarren kapilau-etxean aurkitu zuten etorri berriek, harik eta hiru hilabeteren buruan fraide-komentura bertara etortzerik izan zuten arte. Lehen etxebizitza berriaren bedeinkapena 1954ko maiatzaren 2an egin zen, J. Egiluz Probintzialaren eskutik. Jaialdira Arantzazuko Abesbatza ere etorri zen, eta S. Mitxelenak egin zuen predikua (Garmendia 1990: 8-14).

Hortik aurrera, urtez urte, etorri ziren beste etxe-berritze, zabaltze eta hobekuntzak: bi sakristiak (handia eta txikia: 1955, 1956), gela berriak (1955), jendearentzako harrera-gela (1956), taldeentzako areto berria (1960). Lehen ekimen horien ondoren, bi lantegi nabarmenago etorri ziren: eliza barneko arkuen irekitzea (1963), barnealde osoari itxura berria emanez. Lehenengo obra handi hau 307.000 pta. kostatu zen, gutxienez, eta Udalak eta herritarrek eman zutena 351.000taraino iritsi zen, beste berrikuntza osagarriei ere leku emanez.

Hurrengo obra handia herriko hirigintzak ezarririk etorri zen, 1969ko asmoen arabera. Osoko etxe berritzea izan zen hau, eta batez ere udal plangintzak agindu zuen horretan: 1972ko irailetik 1973ko otsaila artean burutu zen eraikin-parte berriko lanaldia, eta bigarren hegala —komentu zaharra bota ondoren, parte horren berritzea— 1974ko urte-hondarrean zegoen bukatuta. Lantegi honek guztiak (bi hegalek eta arkitektoak) bere diruak eraman zituen: 7.107.555 pta. Eta laguntzarik ere izan zen: Udalak 850.000 pta. eman zituen, eta Arantzazuko Probintziak, maileguak eta bestelako erraztasunak (Garmendia 1990: 36-38).

Azkenik, eraikin zahar-berrietako osaketa eta itxuratzeak etorri ziren: elizako fatxada 1976), dorre-barruaren egokitzea (1976), elizako pintaketa (1979), ospitale zaharreko aretoak

Arrasateko Anaiartea (2002).
Eserita: Lukas Iruretagoiena, Karlos Urbieta, Migel Noble
Zutik: Frantzisko Irizar, Jose L. Arrizabalaga.

(1986-1987). Dorrekoa eta aretoen hau bereziki praktikoak izan ziren pastoralerako, oro har (katekesi, helduen bilera, elkarte-leku, etab.). Jende-harrerako gela berriek eta kaperak osatu zuten hobekuntzen aro hau (1987). 13.099.392 pta. eralgi ziren obra hauetan, altzariak eta osagarriak kontatu gabe. Hau dena janzteko, aitorleku (1959), eserleku (1962), kanpai berri (1964), sagrario (1958), Kontzilio-ondoko aldare-berritze (1966) eta abarrez osatu zen eliza (Garmendia 1990: 24, 27, 35, 40-43).

Interesgarri izan daiteke, Komentuko bizimodu modernotzea nola joan den jakiteko beste daturen bat gehitzea ere: argindarra berehala sartu zen, noski (1954), eta baita lehen telefonoa ere (1954); berogailua erlatiboki goiztarra izan zen, inguruko elizetakoarekin alderatuta (1954), eta ongile eta herritarrei esker aurre egin ahal izan zitzaion gastu honi (1954-1956.etako eskeak); elizako bozgorailuak etorri ziren geroxeago (1957), eta dezente geroago Fraide-Seni-

Arrasate: "Jaiotza" (J. L. Iriondo).

tarterako telebista ere bai (1965) (Garmendia 1990: 16-20, 22).

LEHEN ALDIKO PASTORALTZA (1954-1974)

Komentu honetako historia pastorala bi epealditan bana daiteke: komentuan bertako elizaren inguruan —ia osorik eta bakarrik edo— burututako garaia (1954-1974), eta komentuko elizan bertan eta herriko beste elizguneetan zuzendutako parroki jarduna (1974...).

Estatistika jarraituak falta diren arren, dakiguna bederen gogoratzekoa da: igandeko Mezetan 3.200 lagun biltzen ziren 1961ean komentu honetako elizan; 1966an, ostera, 4.820 zenbatu ziren otsailean egindako inkestan. Hogeita hamar urte geroago, 923 izan ziren igandean zenbatuak (1993). Bestalde, 1957-1958.eko urtealdian jakin ahal izan zenez, ospakizun berezi handirik gabeko zazpi hilabete hautatutan 71.800 jaunartze zenbatu ziren. Ez dugu geroko berri osagarririk (Garmendia 1990: 21-22; Tokiko lekukotasunak).

Pastoral laneko sare soziala eratzean, lehen aldi hartan ohizko tresnak erabili ziren: Hirugarren Ordena (1960an Batzar Nagusi handi batekin, adibidez), Gazteria Frantziskotarra, San Antoniorekiko jaiera eta ospakizunak, Misio-elkarteak (UMF), familietarako kaperatxoak (San Antonio, Arantzazuko Ama: batez ere 1956tik aitzina)), etab. (Garmendia 1990: 15, 21-22, 28-29).

Azkenik, eskualdera eta bertatik harago ere zuzendutako ekimenik ez da falta izan Arrasateko fraideen aldetik. Honelakoen artean jarri behar dira Arantzazuko Seminarioaren aldeko ahaleginak (1973...), eta fraidegai gazteak inguratzeko eskoletan egindako lana (gogora Aita J. Arabaolatza, †1988), eta Erromara edo beste santutegietara zuzendutako erromesaldiak (1963...) (Garmendia 1990: 28, 38-39).

Kultur ardurarik ere ageri da Etxeko jardunean. Komentua ireki eta biharamunean, gazteen abesbatza sortu zen, S. Abaituaren ardurapean (1954), eta ahal izan zelarik, 1974ko harmonifoia utzi eta organua jarri zen, organugile karmeldarrei esker, hiru milioi pasatxo ordainduta (1981). Kezka kultural hauek euskal mundura ere iritsi ziren. 1960ko hamarkadaren hastapenean, elizkizunetako euskararen erabilpenean aurrera-pausoak artean emateko egon arren, lehenagotik ere Garaialdek sortu zuen komentuan ikastola-hasikin bat (1955), eta sustapenasmo berarekin Unión Cerrajera-ko Ikas-mutilen Eskolan jardun zuen euskara ematen (Garmendia 1990: 15, 29, 41-42).

Garaiko testuinguru sozio-politikoaz franko arduraturik ageri zaigu Senitarte hau, frankismoaren azken urteetan, Arrasate erresistentzi gunea izan baitzen eta ekimen sozialetan azkarra. 1968ko urtea bereziki kezkagarria gertatu zen, B. Garmendia Anaia preso hartua izan zelako. Dena den, Etxea eta fraideartea finkatuz joan ziren, eta ikusi dugunez, hain zuzen urte haietan ezagutu ziren Goardiano-Etxetzat Arrasateko hau (Garmendia 1990: 35-36).

PARROKI EGINKIZUNETAN (1974...)

Esan den bezala, 1974an epe berria hasi zen komentu honentzat: parroki lanetarako gaitasuna aitortu zitzaien bertako eliza eta fraidearteari. Horrek pastoral lanean berrikuntza nabaria zekarren: inguruan zuen kristauartearekin lotura hertsiagoak izateko aukera berria zen hori, eta

Arrasate: Komentuko eliza, barrutik. (Argazkia: 2002).

herriko pastoral bateratuan ere eskurik izateko egokiera. Handik aurrera, ba, parroki lan horrek definitu du gehienbat komentuko pastoral-lana.

1974ko urtarrilaren 5ean izendatu zen San Frantziskoko eliza hau "Elizkizun eta ebanjelizatze-gune" gisara, betiere Setien Gotzainaren irizpidearen arabera, herrian parrokia bakarra mantenduz eta gainerako elizguneak pastoraltza bateratura eramanez. Horren barruan, San Frantziskori ere bere eliz barruti ofiziala izendatu zitzaion, eta hiru fraide arduradun ezagutu zituen Diozesiak bertarako.

Harez gero, Arrasaten bertan eta eskualdean ere ardura horietan dabil komentua. Gaur egun sei elizgune daude Arrasaten, eta horietako bi daude frantziskotarren eskuetan: San Frantzisko bera eta Sta. Marina (besteak: San Joan parrokia, Musakolako Sta. Teresa, San Andresko Jasokundea, eta Uribarriko Esperantzako Andre Maria dira).

Elizgune bakoitzak autonomia osoa du Diozesiko nahiz eskualdeko irizpideak tokian eginkaritzean: Katekesia, Sendotzarako heziketa, gazte-taldeen gidaritza, helduen pastorala, etab. Kristauen heziketa kateketikoari batez ere 1980.eko hamarkadan eman zitzaion bultzada berria: orduko ekimen batzuk oraindik indarrean daude (asteroko katekesi-bilerak, adibidez), eta beste batzuk behera etorri dira, edo Sendotza-aurreko ikastaroetan bezala unean uneko taldeen dinamika librean bildu ohi dira (adibidez, katekisten heziketarako ikastaroak, bi urte iraun zutenak). (Garmendia 1990: 39-40; Tokiko lekukotasunak).

Bukatzeko, Senitarteaz esandako datuak osatuz, esan dezagun 28 lagun izan direla urteak zehar komentu honetan bizi izandako erlijio-

soak, sekula ez hamaika baino gehiago elkarrekin batera (1954-2000), eta 7 dira XX. mendea amaitzean. Bertan bizialdirik luzeena emandakoa D. Garmendia izan da, Etxea sortzetik bertatik bere heriotza arte (1953-1999), parentesi labur bat tarteko dela (1958-1961: Arantzazuko Goardiano). Azkenik, herriaren ekarria ezagutzeko, esan dezagun 46 arrasatearrek hartu dutela frantziskotarren[ofm] abitua, 1881-1993. urteetan.

BERMEO: SAN FRANTZISKO KOMENTUA

(...1794-1839, 1859-1870, 1895...)

Bizkaiko Udalerria da Bermeo, itsasertzean arrantza-portu ederra duela; "Caput Viscaiae" deitu izan zitzaion garai batean, hau da, "Bizkaiko Burua". XI. mendean ezaguna zelarik, 1236an eman zion bere Hiri-Gutuna On Lope Díaz de Harok, Bizkaiko Jaunak.

Batez ere itsas mundura begira bizi izan dira bermeotarrak, eta itsasorako eta itsasotiko lanbidea izan da Bermeoko beharginena: untziak, tresneria, arrantzua, kontserbak, etab. Erlatiboki herri handia izan da hau Jaurerrian: Aro Garaikidearen hasieran (1802), 4.227 bizilagun zituen. Mende bereko bigarren partean, 8.222 (1877), eta gaurdainoko datuak hauek dira XX.ean: 9.061 (1900), 12.517 (1950), 17.190 (1996).

Bermeo: Klaustroko kapitel bat (Argazkia: 2002)

FRANTZISKOTARRAK BERMEON (1357-1793)

Historian zehar hiru Komentu eta Ostatu-ospizio bat izan ditu Bermeok, frantziskotarrak, herritik bertan ez ezik herrigunetik urrun ere. Fraideen lehenengoa, herrigunearen ondoan, murruz kanpo eraiki zen (1357). Obserbantziako erreformen aurrekoa zenez, frantziskotar komentutarrena zen berau, bere sortzean. Komentu frantziskotar[ofm] hau izan zen Bizkaiko Jaurerriko lehenengo fraide-etxea, Mañarikuak erakutsi digunez (Mañaricua 1956).

XV. mendean ireki zen Bermeon frantziskotar erreformatuen Komentua, baina lehorrean, herri-herrian jarri ordez, Izaro Irlan ezarri zuten beren Etxea hauek (1422). Lekumenduaren zailtasun guztien gainetik, honek bere historia bete zuen Izaron, 1719an Fraideartea Foruko Komentura pasa zen arte.

Izarokoek, bestalde, Komentu formalik izan gabe lur-lehorrean premiazkoa zuten ostatu-moduren bat, herrira bertaratzean harreman-lekua eta aterperik izateko; horrela sortu zen Bermeon fraide izarotarren ostatu-etxea (1438). Hau izan zen fraide frantziskotarren hirugarren egoitza.

Azkenik, XX. mendean, moja elisabetarrak etorri dira Bermeora, Ahizparte berria eratuz (1962). Oñatiko Sta. Anatik etorri ziren lekaime hauek, hau da, garai bateko Arantzazuko serorek sortutako Ahizparte beretik. Berehala, azkeneko beste elisabetarrekin batera, klaratar bihurtu ziren hemengo mojak.

Herrian bertako fraide-komentuaz ariko gara orain orrialde hauetan, bera baita gaur arte bere bizialdia luzatu duen fraide-komentu bakarra.

Arantzazuko Probintzian fraide-kopuruz ez zen izan Bermeoko hau komenturik handienetakoa: 1585ean 20 fraide zituen, baina gora egin zuen, eta 1768an 43 ziren Komentu honi zegozkion erlijiosoak (Uribe 1996: 277).

GERRATE ETA KRISI POLITIKO-ERLIJIOSOEN ARTEAN (1794-1839)

Aro Garaikideko aldarte politiko larriak iristean, komentu bermeotarreko fraideek ere garai haietako zama eraman behar izan zuten. Solaguren-i zor dizkiogu batez ere hemen bilduriko XIX.eko albisteak (nahiz eta berehala gogoan hartu behar den Uriberen liburu argitara berria ere: Uribe 2000).

Konbentzioko Gerratean (1793-1795), gainerako komentuek bezala honek ere bere zilar eta urrezko ontzi eta pitxiak eman egin behar izan zituen gerra-gastuetarako: 6.914 erreal balio izan zuen eskainiak (Solaguren s. d.: 83).

Jose Bonapartek ezarritako lehen Esklaustrazioan (1809), abuztuaren 18an emandako Legea bete araziz, urriaren 7an egikaritu ziren itxierarako formaltasunak Bermeon: Komentua utzi egin behar zutela adierazi zitzaien fraideei, eta ondasunen inbentarioa egin zen aldi berean, sukaldeko ontzietatik hasita. Urriaren 19an laga zuten Etxea erlijiosoek. Berehalako urteetan, gudaroste ezberdinen kaserna izan zen komentua, eta eraikinean hondamendi latzik ere nozitu zen (Solaguren s. d.: 93-94).

Gerra napoleondarra amaitzean (1814), itzulera ez zen bat-batekoa izan, zeren eta Parrokiako kabildoak hainbat eragozpen jarri baitzuen horretarako. Azkenik, Erret Dekretu baten babespean eta alkatearen laguntzaz etxeratu ziren fraideak, baina horretarako prozedurazko formaltasunak guztiz errespetatu gabe, harik eta 1814ko ekainaren 4an ofizialki itzuli ziren arte. Ez zen, ordea, auzia hor bukatu: Parrokiak gora jo zuen, izatezko egoera berria onart ez zedin; Bizkaiko Aldundiak fraideen alde emandako txosten baten ondorioz, segurtatu ahal izan zuten erlijiosoek beren itzulera (1815) (Solaguren s. d.: 117-119; Uribe 2000: 36-38).

Ondoren, komentua itxuratzeak bere diruak eskatu zituen; 1816ko irailean esaten zenez, 57.593 erreal eralgi ziren horretan, bermeotarren esku-zabaltasunari esker eta fraideek berek jarritakoaz baliatuz. Tartean izandako auziak ere berea eraman zuen epaitegietan (guztira 3.000ren bat erreal) (Solaguren s. d.: 119).

Hirurteko Konstituzionaleko Esklaustrazioa iristean (1820-1823), legearen babesa izan zuen Komentuak, Bermeoko Etxe hau herriko fraidekomentu bakarra baitzen eta Kalahorrako Gotzaina ere alde izan baitzuen, herrian eskaintzen zuen zerbitzuagatik. Horri esker, Senitartea handia izan gabe, badakigu 22 fraidetaraino har

zitzakeela Etxeak, eta 1821ean 12 fraide apaiz bizi zirela bertan.

Garaiak zailak ziren, eta Gobernuaren kontrako gerrila lehertu zen ondoko hilabeteetan. Horregatik, gutxiena uste zenean, Madrileko Gorteek Bermeo eta Foruko komentuak ere ixtea erabaki zuten (1822ko ekainaren 19), hain zuzen komentuko Anaia Donatu batek altxamendu armatu bat gidatu omen zuelako, nahiz eta herriak, Udaletxeak, Parroki Kabildoak eta Fraide-Senitarteak zurrumurruaren kontrako argitasun eta probak eman zituzten. Legezkoa zen fraideen erantzun-txostena ezagutu gabe, itxura guztiz, zeren eta Gobernuaren itxiera-

Bermeo: Frantziskotarren Komentua, mendebaletik. (Argazkia: 2002)



Bermeo: Frantziskotarren Komentua, ekialdetik (Argazkia: 2002)

Dekretuak erantzun haren data bera baitarama. Gobernuaren agindu eta mehatxuz Bermeoko eliz Bikarioak —luzamendutan ibili ondoren— aurkeztu egin behar izan zien fraideei Bizkaiko Buru Politikoaren (Gobernariaren) komentua uzteko mandatua (eta berori egikaritzeko Gotzainarena). 1822ko irailaren 24an utzi zuten Etxea erlijiosoek, baina ez denbora luzerako, ze, Hirurteko Konstituzionala amaitu ostean, 1823ko apirilaren 21ean itzuli baitziren berriro komentura (Solaguren s. d.: 156, 179-182; Uribe 2000: 42-43, 44-46).

Berehalako hamarkadan (1823-1833), komentu barruko fraide-bizitza berriz ere moldatuz joan zen, eta Nobizio-Etxe ere bihurtu zen komentu hau, Bilboko San Frantzisko eta Foruko Etxearen ondoan, eta bazuen herritarrentzat doaneko lehen Letra eta Latin-Eskola ere. Horrekin eta apaiz-lanekin, ostera komentua ongi errotuta zegoen Bermeon: 1833an 23ren bat fraide ziren bertako bizilagunak.

Karlos-en aldeko altxamendua abian jarri orduko (1833), Bermeoko Udala beronen alde agertu zen, nahiz eta herrian bestelako iritzikorik ere bazen. Komentua —lekua egokia eta fraideak ere gehienbat behintzat berorren aldekoak zirelako— bilera-leku eta biltegi ere bilakatu zen. Bestalde, Bilboko San Frantziskotik karlistetara ihes egindako hamarren bat fraide Bermeoko Etxera bildu zen. Harez gero, gerrako aldarteek Komentu hau aurrez aurre harrapatzeko arriskua nabaria zen, beraz.

1833ko abenduan, Espartero jeneral liberala Gernikatik Bermeorako eskualdean bete-betean sartu zen. Liberalak herrira hurbiltzean, behin

baino gehiagotan karlistekin joan behar izan zuten fraideek, segurtasun nahiez. 1834ko uztailean Bermeo Esparteroren eskuetan erori zen, eta zenbait armada-zerbitzutarako puntu baliosa bilakatu zen herria liberalentzat.

Berriro ere komentutik ihes eginak zebiltzan fraideak, eta une horretaz baliatu zen Gobernua komentua itxi arazteko. 1834ko uztailaren 17an eman zen horretarako Erret Dekretua. Alkateak, ordea, ez zuen Dekretua bete arazterik izan, zeren karlistek hartu baitzuten ostera herria udazkena baino lehen, eta bertako jabe izan ziren 1839ko iraila arte (Solaguren 1978: 24; Solaguren s. d.: 353).

Gerra bitartean, Markina eta Larreako karmeldarren edo Durangoko agustindarren komentuak bezala, Bermeoko frantziskotarre-na ere irekita egon zen karlisten eskualdean. Ikastegi zaindu bat izan zuen, orduan, Bermeoko komentu honek (bi Teologi Irakasle eta Ikasle-Maisua), eta Senitartea bera ere hazi egin zen, 1838an 62 lagun izateraino, Etxean bertan 21 eta eskualdeko komentu-barrutian 41 (Solaguren s. d.: 274-277, 335, 342, 345; Solaguren 1978: 29; Uribe 2000: 54, 56).

Gerraren amaierak Gobernuko eliz politika liberalari indar berriak eman zizkion Euskal Herrian: lehenengo pausua, behintzat, lehendik ixteko agindutakoetan agindu zaharrak bete araztea izan zen. Bermeokoa horien artean zegoen. Data zehatzik ez jakin arren, badirudi 1839ko irail-urrietan itxi arazi zela komentu hau.

ESKLAUSTRAZIO NAGUSIA (1839-1859)

Fraideak komentutik kanpo eta ondasunak Estatuaren eskuetan zirela, honelako kasuetan segi ohi zen prozedurari heldu zitzaion: inbentarioa egin, eliza herriko parrokiari eskaini, komentua koartel bihurtu. Udaletxeak eliza elizatarako, eta komentua eta beronen baratzea Eskoletarako eskatu zituen (1841), eta 1842an ofizialki eskuratu, azkenean, gainera, inolako ordainik gabe (1843) (Solaguren s. d.: 353-354; Uribe 2000: 57, 59-68).

Ondasunen banaketa ez zen berehala konpondu ahal izan, Udalaren eta zenbait interesaturen gogoak ezin elkartu zirelako. Azkenik, ortua enkantean saldu zen (1844), eta komen-

Bermeo:
Belauniko: Txopi Etxabe* (sukaldaria), Karmina Serna* (erizaina).
Eserita: Sabin Zubieta, Jerman Agirre, Tomas Olazabal, Jose Antonio Garate.
Zutik, lehen lerroan: Patxi Arruti, Adrian Zabalgojeaskoa, Andres Uberuaga, Pedro Jauregialtzo, Bizente Labaka, Biotza Bilbao* (zerbitzaria), Esti Bilbao* (erizaina), Jaione Santiago* (zerbitzaria).
Zutik, atzean: Antonio Zubizarreta, Justo Abaroa* (zerbitzaria), Pedro M. Urionabarrenetxea, Roman Azkue, Jose Antonio Obieta, Lorentzo Madinabeitia, Juan Aristi, Jon Zabalgojeaskoa.

**Herritar sekularra.*

Bermeo: Elizako San Antonioren kapera. (Argazkia: 2002).

tuaren eta elizaren gozamena Udalaren eskuetan geratu (Solaguren s. d.: 353-355).

Hori guztia gorabehera, hogei urte geroago hemendik, Bermeotik, hasi zen, ikusiko dugunez, Euskal Hegoaldeko frantziskotarren[ofm] ondoko historia berria (1859). Aita Mariano Estarta (†1878) larrabetzuarraren gidaritzapean ekin zitzaion izanberritze horri. Horrela, "Kantabria" deituriko Frantziskotarren Arantzazuko Probintziako lehenengo Etxea gertatu zen orduan Bermeoko hau (Uribe 2000: 93-101, 102-116).

Horretara heldu arteko lana ez zen samurra izan, eta elizan eta gizartean atzera-aurrera franko egin behar izan zen, 1853tik aurrera, hau da, 1853an Erromak Estarta izanberrikuntza horren arduradun izendatu zuenetik. Oso laburtuz, esan dezagun Bermeoko komentu hau irekitzeko egin zena. Hasteko, 1855ean Erreginari "Erregu" bat idatzi zion Estartak, legean proposatutako Kubarako misiolarien prestakuntza Bermeoko komentu izanberrituan has zitekeela iradokiz. Ez dakigu eske horrek zein bide egin zuen, ezta Erreginari iritsi zitzaionik ere.

Madrilekoak ahantzi gabe, Bizkaitik bertatik bere asmoa sustatzea izan zen Estartaren hurrengo erabakia: 1857ko urtarrilaren 15ean Jaurerriko Aldundiari egin zion deia, Kubarako lan hura Bermeotik oso egoki egin zitekeela esanez, berriz ere. (Parentesian esan dezagun, bide batez, Kubakoa aitzakia besterik ez zela Estartarentzat, hain zuzen Ordenako izanberritzeari Penintsulan ekiteko legezko zurigarria). Aldundiak bere eskuetan hartu zuen arazoa, eta Madrileko Ministerioetara jo, bi une ezberdinetan (1857, 1858); hala ere, azken irtenbidea ez zen hortik etorri, erraz pentsa ez zitekeen beste aukera batetik baizik.

Lau pertsonaia erabakior ditugu orain protagonista: Estarta bera, Toledoko Kardinale Alameda y Brea frantziskotarra (gerrate karlistakoan Euskal Herrian ibilia berau), Sor Patrocinio moja sorkundetarra eta Isabel II.a. Erreginarenganako sarrera zuzena zuen Sor Patrocinio-k, eta Estarta mojarenganaino Alamedaren bidez iritsi zen, Toledon Misioaldi bat eman ondoren (1859ko martxoan). Handik aurrera gauzak abiada bizkorrean mugitu ziren: Erreginarekin egon (beharbada, apirilean Aranjuez-en), eta uztailean Bermeorako baimena eskuetan zuen Estartak, nahiz eta Isabel II.ak sinatzea irailean egin zen (hilaren 4an). Bi aste geroago eman zitzaion Estartari komentua (irailaren 17an), eta 1859ko urriaren 4an sartu zen bertan Fraide-Senitarte berria. Erreginaren erabakiz, komentuarekiko jabetasuna berriro irabazi zuten frantziskotarrek (Solaguren s. d. 491-493, 505-507, 510-518; Solaguren 1978: 54-55; Uribe 2000: 106).

IZANBERRITZEAREN NEKEAK (1859-1895)

Bermeoko Etxe hau, Bizkaian, Misiolari-komentu bizkorra gertatu zen berehala, Estarta bera, Uriarte, Etxezarraga eta Ozollorekin. Aita J. A. Uriarte (†1869), euskal idazlea hemen bizi izan zen, bai Estarta izanberritzaileari laguntzen, bai Bonaparte Printzearentzat itzulpenak egin eta euskararen berri ematen, behar zenean Londresa itzuliren bat eginez (1862).

Arantzazuko Probintzia izanberritzeko, berehala antolatu zen Bermeon Nobiziategia eta Ikastegia, fraidegai gazteak prestatzeko. Hango ikasle eta irakasle izan zen, adibidez, Kubako Santiago hiriko Artzapezpiku izango zena, Frantzisko Saenz de Urturi arabarra (†1903), eta bertako ikasle M. Dañobeitia ere, urte luzez Probintzial izango zena (†1917). Oinarri onekin hasi zen izanberrikuntza hura, baina Senitartean laster sortu zen une zailagorik ere, esklaustratuak birkomenturatzea ez baitzen egiteko samurra beti, zetorrenarentzat bezala hura hartu nahi zuen Senitartearentzat. Horregatik, barne-krisi gatazkatsu bati aurre egin behar izan zitzaion, arazo juridikoren bat ere tartean zelarik (1864) (Solaguren 1978: 48-51; Uribe 2000: 112).

Hori gorabehera, Bermeoko Etxeak balio izan zuen Euskal Herrian, eta inguruetan, komentu berriak irekitzeko. 1863an 44 fraide bizi ziren bertan, eta 1866an Estartak dioenez, 32 fraide geratu ziren Bermeon, aurreko urtean bertatik beste 20 lagun Errioxako Donemiliagara bidalita gero ere. Goraldi horri esker ireki zen Zarauzko komentua (1867) (Uribe 2000: 110; Solaguren 1978: 51-52).

Indarrak indar eta asmoak asmo, bat-batean 1868ko Iraultzak moztu zion bidea komentu gazteari. Komentua ixteko Dekretua eman zuen Gobernuak (1868-10-27), eta fraideek lau hilabeteren buruan itzultzerik izan baldin bazuten ere, 1870ko irailean etorri zen ostera Gobernuaren itxiera-ordena, esklaustrazioa (1870-09-21)

Bermeo: Komentuko eliza, barrutik. (Argazkia: 2002).

BERMEOKO NAGUSIAK (1792-2000)

1792	Jose Ugalde
1794	Frantzisko Ugalde
1795	Ignazio Aurtenetxe
1798	Antonio Gorostitza
1801	Frantzisko Azkuenaga
1804	Pedro Bengoa
1807	Pedro Bengoa
...	Gerrate napoleondarra
1814	Santiago Zubero
1815	Santiago Zubero
1818	Santiago Aginaga
1820	Santiago Aginaga
...	Hirurteko Konstituzionala
1824	Santiago Aginaga
1825	Domingo Añibarro
1827	Domingo Añibarro
1830	Domingo Añibarro
1833	Juan Uribe
...	Gerrate Karlista
1839	Antonio Geregiz (izendatua)
...	Esklaustrazioa (1839)
1859	Angel Gómez de Segura (pres.)
1864	Felix Arteaga (goard.)
1870	1870: Felix Arteaga (pres.)
	1881: Bartolome Bengoa
1895	Migel Gereka (pres.)
1896	Migel Gereka (goard.)
1898	Migel Gereka
1899	Justo Treku
1901	Justo Treku
1902	Jose Daniel Esnal
1904	Jose Daniel Esnal
1906	Jose Maria Olaskoaga
1907	Jose Maria Olaskoaga
1909	Pedro Luis Zaloña
1910	Pedro Luis Zaloña
1912	Lazaro Madinabeitia
1915	Jose Domingo Epelde
1918	Jose Maria Barinaga
1922	Bernardo M. Lopategi
1925	Pedro Luis Zaloña
1928	Gregorio Baltzategi
1931	Benito Orbegozo
1934	Eustakio Arronategi
1937	Aingeru Madariaga
1939	Kasildo Zaldua
1940	Fidel Idoiaga
1943	Eustakio Arronategi
1946	Nikolas Iturbe
1949	Anjel Izagirre
1952	Kastor Apraiz
1954	Aingeru Madariaga
1955	Aingeru Madariaga
1958	Ignazio Ajuria
1961	Luis Esnal
1964	Bitor Anasagasti
1967	Antonio Zubizarreta
1970	Antonio Zubizarreta
1973	Antonio Zubizarreta
1976	Adrian Zabalgojeaskoa
1979	Adrian Zabalgojeaskoa
1982	Adrian Zabalgojeaskoa
1985	Antonio Zubizarreta
1988	Antonio Zubizarreta
1991	Jon Zabalgojeaskoa
1994	Jon Zabalgojeaskoa
1997	Jon Zabalgojeaskoa
2000	Pedro Jauregialtzo

SAN FRANTZISKOKO PARROKOAK (1974-2000...)

1974-... Antonio Zubizarreta

MAÑUKO PARROKOAK (1974-2000...)

1974	Hilario Barrena
1978	Bitor Anasagasti
1980	Jose Antonio Obieta
1992	(Abade diozesitarrek hartu zuten ardura)

MURUETAKO PARROKOAK (1980-2001)

1980	Andres Uberuaga
1992	Pedro Jauregialtzo (Forutik)
2001	Jose Antonio Irazabal

eta Udaletxea komentu-elizez berriro jabetzea (1870eko abenduan). Egoera juridiko berri honek eta ondoren Udalak komentuko eraikinei emango zizkien zereginek (eskola eta abar) luzaroan eragotziko zuten gero fraideen itzulera, herrian beti baitzegoen eraikin haien premiarik bestetarako (Uribe 2000: 126-129, 132, 135-137).

1870eko bigarren Esklaustrazioarekin eta komentu hartara berehala ezin itzulirik galdu zuen Bermeoko komentuak Arantzazuko Probintziako izanberrikuntzako lema, beste Etxeetara pasatu baitzen horretarako ekimena (Zarautz, Arantzazu).

Handik aurrera, inoiz komentuan (1880-1881) eta sarrienik komentutik kanpo baina bertako Hirugarren Ordenako kaperaren zerbitzuan, herriko etxe batean jarri ziren bizitzen esklaustratu berriak: "Egoitza Apostoliko" deitu bat ireki zen, taldetxoan fraide-bizitza zainduz. Gerra karlistaren ondoren (1875) berriro komenturatzea posible bilakatu zenean, Udala uzkur agertu zen komentu-etxea itzultzeko, unean uneko bestelako beharrek loturik. Eta Udalaren aldetik aukera hoberik agertu zenean, A. Antuñano Probintzialaren eskakizunek eta goi-politikak hondatu zuten egun berean egin behar zen fraideen sarrera (1882-02-12). Azkenik, komentu zaharreko eraikinik gabe ere, fraideak Bermeoratzea egingarri zela erabaki zenean eta Aita M. Gerekaren esku onari esker itzuli ziren frantziskotarrak beren betiko elizara (1895-07-15) (Uribe 2000: 117-118, 124-125, 137-140, 142, 151-).

Gerekak bi ardura nagusi izan zituen: herriko harremanak berritzea (herritar eta agintariekin), eta komentu berriko eraikina ahalbait lasterren jasotzea. Honetarako, Bermeon bertan eta Bizkaian limosna-eskeari heldu zitzaion, eta herritarren erantzuna bizkorra izan zen: hamar pezeta edo gehiagoko limosnatan bildutakoa 56.245 pezetataraino iritsi zen, gainerako limosna txikiak zenbatu gabe. Sei hilabeteko epea jarri zitzaien obrei, eta 1896a bukatu aurretik amaituta ziren baratzean jasotako komentua eta elizako zaharberritzeak. Urte bereko Kapituluak Goardiano-Etxe izendatu zuen Bermeoko hau, eta Aita Gereka bertako lehen Goardiano (Uribe 2000: 156-158).

XX. MENDE EMANKORRA (1895-2000...)

Frantziskotar komentuen barruti-banaketan (1915), Bermeoko komentu izanberrituari zegozkion artziprestazgoak Bermeo, Bilbo, Durango, Mungia, Urduña eta Balmasedakoak izan ziren (Santandereko Probintzia osora luzatuz), eta Amurrioko epaitegi-barrutia (Gaubeakoa albora utziz). 1949an, ostera, Bermeo eta Lekeitioko artziprestazgoak izendatu ziren beronen barrutiko bezala (ACD II: 170-176).

Etxea egokitua zelarik, Bermeoko komentua hautatu zen Arantzazuko Probintzian fraide gazteeen Nobizio-ondoko Humanitate-Ikastegitarako, eta 1897tik 1912a arte Bermeon egon zen berori. Hemen ikasitakoen artean gogora daiteke, adibidez, Antonio Arruti euskal olerkaria (†1919). Bestalde, 1912-1913.eko ikastaroan Zientziak irakatsi zitzaizkien fraide gazteei Bermeon (*Homenaje* 1935: 70, 77).

Irakas-tradizio hau ez zen amaitu Bermeoko komentuan, fraide ikasleak Arantzazura eramatean; aitzitik, horren ondoren urratu zen bigarren ildo bikoitz bat: urte berean ireki ziren Ber-

Bermeo: Klaratarrek sortutako azken Monasterioko (1962) Ahizpartea. (Argazkia: 2002).

Bermeo: Frantziskotarren Komentuko klaustroa. (Argazkia: 2002).

meon Seminario-aurreko Eskola ("Preceptoría" deitu ohi zena), eta, bestalde, herritarrei irekitako Haurrentzako eta Lehen Irakaskuntzako Eskola (1919), antoniotarren aretoko eskenatokia eta gela erabiliz (1933an egoitza horren erreforma egin zen arte); dena, 25 urtetan, J. Uriarteren (†1972) ardurapean egon zen. Batezbeste, 100-150ren bateko ikasle-kopurua izan zuen lehenengo berrogei urteetan bederen. 1949an eman zitzaion Eskolari behin-behineko aitorpen ofiziala, 1959an behin-betirakoa. Bermeon Itsas Eskola egon zenean, hamalau urteak arte luzatu ohi zen antoniotarren Eskola honetako haurren bertako ikastaldia, eta gero, Bermeon Bigarren Mailako Langile-Institutua ireki zenetik (1953), gehienetan hamar urterainoko haurrak biltzen zituen antoniotarren honek, batxilergorako presta-ataria eskainiz, izan ere Bermeoko komentu honetan bertan ez baita sekula batxilergorik izan. Haurren eta Lehen Mailako Irakaskuntza 1974an itxi zen azkenik, eskakizun berriei ezin erantzun zielako, J. Aristiren ardurapean urte-sail bat eman ondoren (1958-1974) (Homenaje 1935: 143; ACD II: 232; B-Kronika III: 199-200; Aristi 1961: *passim*; tokiko lekukotasunak).

Eliz elkarte laikoen artean bi dira berezikiago aipatuko ditugunak. Hirugarren Ordenak (edo Anaiarte Frantziskotar Sekularrak) betidanik bizirik iraun du, gure egunak arte, Bermeoko komentu honetan, baita Esklaustrazio-urterik txarrenetan ere. 1936ko gerraurrean 900en bat hirugarrendar zeuden herrian, eta 2000. honetan beren ohiko bilera eta elizkizunak indarrean daude, taldeak adinez gora eta kopuruz behera

egin arren (Ocerin 1928: 64; Homenaje 1935: 249; Tokiko lekukotasunak).

FRAIDEAK ETA EKIMEN PASTORAL BEREZITUAK

Pastoral-bide berrien bila, J. D. Epelde-ren goardianoaldian (1915-1918) Antoniotar Gaztediaren lagunartea eratu zen Bermeon (1915eko urriaren 3an), hurrengo hamarkadetan herriko gazte askoren bilgune bilakatu zena. Gazteekiko lana, ba, gehienbat Lagunarte honen bidez egin zen, 1969an, garaiko gatazka politikoen ondorioz, Elkartea desagertu zen arte (Kronika I: 169-171; Tokiko lekukotasunak).

Antoniotarren ekimen ezagun bat Zinema-Aretoa eratzea izan zen. Gerraostean, berehala erosi zen lehen zine-makina (1940), eta 1945-1947.etan egokitu-berritu zen Aretoa: irabaziak Arantzazuko Seminariorako izango ziren. 1953 eta 1958etan zinema berriztatu ("cinemascope") eta kudeakuntza arautu ondoren, 1998a arte luzatu zen zinema-areto honen bizialdia. Luzeenik ekimen honen erantzukizuna izan dutenen artean J. Ibabe eta J. Aristi leudeke (ACD III: 324, 356; IV: 57; J. Abaroa-ren lekukotasuna).

Areto horrek bestelako kultur eginzunetarako ere eman izan zuen bide: antzertia, hitzaldiak, etab. Kultur kezka beretsuarekin sortu zen, bestalde, "Bermeoko Orfeoia" (1956-1964), fraideek gidatua (J. Zubieta, P. Agirre, A. Uberuaga, J. Galarraga, etab.), herritarrena (90 abeslari, 1959an) eta herriko beste eliz abesbatzetatik ere osatua, eta Txistulari Taldea ere izan zuena. Lehen hiru urteetan 25 kantaldi eskaini zituen Orfeoiak, musikari ezberdinetatik hautatuz (Haendel, Arrue, Arregi, Sorozabal, Guridi) eta hainbat herritan abestuz: Bermeo (10), Mundaka (3), Zornotza (2), Bilbo (3), Donostia, Eibar, Gasteiz (2), etab. (Tokiko lekukotasunak).

Bermeo arrantzale-herria izaki, frantziskotarrek molde ezberdinetan egon nahi izan dute itsasgizonen artean: pastoral arruntaren bidez, noski, baina baita beraiekin itsasora joanez ere (I. Berriatua: 1957-1965; Alberto Aurrekoetxea: 1957-1964). Bestalde, ia hogeita hamar urtetan, marinelen prestakuntza profesionala arreta bereziz begiratu da komentu honetan (Patxi Arruti: 1972-2000...), eta bertatik eramandako zenbait ekimenetan (Orion, Hondarribian ere). Bermeon arrantzale-eskola ofizialik izan aurretik, komentuko arrantzale-eskolan prestatutakoak Pasaiara joan ohi ziren azterketak burutzeko, eta orain Bermeoko Eskola berrian egin ohi dituzte (Tokiko lekukotasunak).

Bermeoko gaixoen eliz ardura hein handi batean frantziskotarren lana izan da Bermeon, batez ere azken hamarkadetan; A. Zabalgojeaskoa bilakatu da, praktikan, herri osoko gaixoen "kapilau" arruntena (1970-2000...). Bestalde, lan hori oso bertakoa dela, urrunerako bestelakorik ere egin izan da komentu honetatik, Lur Santuetarako erromesaldi eta bidaiak, adibidez. A. Uberuagaren eskutik joan dira hauek (1977-2000...), eta jada 2000ra iristean 150 bidaia hortxe nonbait izanen dira, 40/45 laguneko taldetan egindakoak (Tokiko lekukotasunak).

Bermeo: Komentuko Egoitza. (Argazkia: 2002).

Komentu-barnera begira, Bermeokoa fraide-esperientzia berri baten lekuko izan zen 1950eko hamarkadan, berori "Biziera Hertsiagoko Etxetarako" aukeratu (1953) eta 1954ko urriaren 4an horretarakoxe antolatu ondoren. A. Madariaga eta I. Berriatua izan ziren asmo horren sustatzaile, betiere Probintziaren ardura-



Bermeo: "Bilboko Uria"
(X. Alvarez de Eulate, 1980).
(Argazkia: 2002).

pean. Bizimodu hertsiago horretarako behin-behineko Arautegia 1954an onartu zen, eta 1959an eman zitzaion behin-betirakoa, Sepinski Ministro Jeneralaren onespenarekin. Baina proiektua ez zen sobera luzatu, zeren eta, besteak beste, etxeko lan-egiturak eta pertsonal aldaketek eraginda, ondoko urteetan bukatutzat eman baitzen esperientzia hura, bukatzeko erabaki ofizialik hartu ez zen arren (1961a aurretik edo) (ACD III: 36; IV: 115; Curia 1954, 1960; Tokiko lekukotasunak).

1974an onartu zuen Probintziak, Bermeoko komentuko eliza Parrokiatarako eskaintzea, eta 1974ko urrian hartu zuen Senitarteak ofizialki parroki arduraren erantzukizuna, Bilboko Gotzaindegiaren dekretuaren arabera. Hurrengo urteko hil berean sinatu zen hori dena lotuko zuen hitzarmena, Gotzaindegiaren eta Probintziaren artean. Parrokia honen sortzeak beste baldintza jakin bat ekarri zuen: Mañuko Parrokiaren ardura ere hartzea. Horiek horrela, esan beharra dago bermeotarrek familietan belaunarteko atxikimendu finkatu eta banatuak izan dituztela herriko eliza eta komentuei, inon gutxitan aurkitu ohi den gisan, eta komentuko parroki izaerarekin are lotuagoa ageri dela berorren ingurumen soziala (1974) (ACD V: 142; BOOB. 1974, núm. 284: 10-11).

2000. urtean badira lau frantziskotarrek zaintzen dituzten Bermeoko kapilautzak: klaratarrena (1962-2000...), Karitateko Karmeldarrena (vedrunatarrak: 1967-2000...), Karitateko Alabena (1993-2000...), eta Ospitale Psikiatrikokoa (1998-2000...). Horrela, ba, kristau sekularren ondoan, Komunitate erlijiosoek ere jaso dute komentu honetako zerbitzurik. Esan bezala, aipatutako lan hauek guztiak bertako Anaiartearenak izan dira, eta egoki da bertan bizi izan den Senitarte horretaz zerbait esatea.

1897an, 20 ziren fraideak, eta ezagutzen ditugun geroagoko zifrak horren azpitik daude: 19 (1916), 18 (1940), 16 (1964), 14 (1988), 11 (1995). Bestalde, behin-behineko datuek diotenez (2000ko otsaila), 63 gazte bermeotarrek hartu du fraide-abitua, XX. mendean (zehazkiago, 1881-1993. urteetan). Hauen artean, bat Gotzain izan da (K. Anasagasti), bi idazle (Pedro Anasagasti, L. A. Bilbao) eta frantziskotartasunaren teorikari eta berritzaile bat (J. Garrido); Probintziako Nagusien artean hainbat bermeotar egon da. Ezin dira ahantzi, gainera, beste bi fraide bermeotar: Aita Gil Barandika (†1937), Pro-

bintziako Ikasketen Buru izana (XX.eko lehen hiru hamarkadetan 15 urtez), eta A. Aingeru Madariaga (†1963), euskal idazlea eta bertako Goardiano ere izana (beste zenbait komentutakoa izan ondoren: Donostia, Forua).

Udalarekin 1982an hasitako elkarrizketak burutzean, 1996ko urtea giltzarria da Bermeoko komentuko jabetasunak birmugatuta uzteko, urte horretan lortu baitzen Ordenaren eta Udalaren arteko hitzarmen berria (1996-05-11), orube eta eraikin guztien jabetasun, egokitzapen, berritze-lan eta geroko erabilerak denen artean hitzartuz. Ondorioz, Ordena bilakatu da komentu-eraikinaren beraren jabe ere (klaustrua barne eta komentu-eraikin zaharra guztiz berriturik), eta horren truke fraideek beren baratza eskaini zuten, auzuneko Hiriztapen-Plana bidera zedin. Horrela hartu zaio gaina mende eta erdiko frantziskotarren eta Udalaren arteko tirabirari (Uribe 2000: 181-182).

2000.ean, eraikinaren aldetik, erabateko berrikuntza burutu da Bermeoko komentuan: 1896ko komentu-eraikina osorik desagertu da, eta betidaniko komentu-etxea erabat berri-egokitu. Erlijiosoek Probintziako Gaixotegiari egin diote leku bertan, aspaldiko premia bati erantzunez, eta Udalak, ostera, herriko hirigintzari bere ekarria egin dio: horrela, betiko komentuko klaustrua berreskuratu da fraide eta herriarentzat, etxea zeregin berrietarako egokitzen zen bitartean, eta plaza ireki eder bat irabazi da herrirako, garai bateko komentuko ortuaz baliaturik.

Honek guztiak bere kostu ekonomikoa izan du: 465.163.203 pezetako udal-aurrekontu onartuaren emaitza izan da (1996). Azken kostua 569.834.683tara iritsi da. Akordiora heldu aurreko joan-etorriak B. Garamendik eta A. Uribek azaldu dizkigute zehazki (Garamendi 1996; Uribe 2000: 163-185). Guztiaren estreinaldi eta irekiera 2000.eko ekainaren 13an ospatu zen, komentuan bizi izandako fraideak eta frantziskotar bermeotar guztiak bertan zirela, eta herritar eta agintariak tartean izanik.

Bilbo-Iralabarri: San Antonio Komentua

(...1794-1833, 1930...)

Euskal Herriko beste Herrialde-Hiriburuetan bezalatsu, Bizkaiko Jaurerri eta Probintziakoan ere frantziskotarrek[ofm] Komentu-Etxe handiak izan zituzten Aro Modernoan, eta gero. Horregatik, eta Etxe eta Institutu frantziskotarrak Euskal Herrian beste inon baino ugariago hemen izan direlako, Bilbok arreta zainduagoa merezi du orrialde hauetan.

Hiri handi baten bihotzean

Itsaso hurbilak, bertako ibaiak, ondoko meatzek, industriak eta merkataritzak egin zuten Bilbo batez ere Aro Modernoan, eta XIX. mendeko Industri Iraultzatik honakoan ere halatsu gertatu da. Gizarte bizkor horretan, ordea, Elizak oro har eta Ordena erlijiosoek berezikiago bere lekua izan dute, eta berauen artean frantziskotarrek[ofm] ere bai.

Gogoan hartzekoa da Hiri honek izan duen gorabide demografikoa: 8.107 bizilagun zituen 1802an, eta abiapuntu horretatik hasita zortzitan biderkatu zen Bilboko biztanleria mendean zehar: 10.234 (1845), 35.227 (1877), 83.306 (1900). Abiada bizkor hori ez zen, ordea, XIX.ean amaitu, aitzitik, zenbaki absolutuetan populazioa azkarki ugaldu da XX.ean ere: 229.334 (1950), 358.977 (1996). Biztanlez, Euskal Herriko Udalerririk handiena da Bilbo.

Lehendik goraka zetorren industrigintzak, abiadura bizkorra hartu zuen azken Gerra Karlistaren ondoren (1875). Euskal Herritik eta erbestetik etorkin asko bildu da hiri honetara. Bilbo Handia deituaren erdigunea da, gainera. Portu-hiria, industriala, hiri finantzaria.

Bilboko Iralabarri Auzoan frantziskotarrek komentu bat izan dute XX. mendean. 1981ko estatistikek ziotenez, Iralabarriko bizilagunetako erdia edo zen Bilbon bertan jaioa, % 18 zen Bilbotik kanpo Euskal Herrian jaioa, eta % 32 Euskal Herritik at sortutakoa (Informe 2000: 8).

XX. mendean, komentu bezala, Bilbo-Iralabarriko hau bakarrik izan dute frantziskotarrek Hiriburu honetan, eta beronetaz mintzatuko gara orrialdeotan. Hala ere, esan beharko da zerbait honen aurreko Bilboko historiaz, zeren Erregimen Zaharreko Euskal Herriko Hiriburuetan komentu frantziskotar gehien izandakoa Bilbo baita, eta, horregatik, egoera erlijioso hiritar horrek lehen argibideren bat merezi du.

Bilbo frantziskotarrari begiratu orokorra

Fraide eta moja frantziskotarren sei komentu egon ziren Bilbon Aro Modernoan, hiruna gizonezko eta emakumezkoenak (betiere klausurakoak). Santimamine[ofm] (1446-1834), Abandoko San Frantzisko[ofm] (1475-1833), Deustuko kaputxinoak (1743-1835) ziren fraideen Etxeak, eta bi komentu klaratar eta beste bat sorkundetarra gehitu behar zaizkie horiei.

Geroxeago helduko diogu hauen historia garaikideari, osorik ez bada partez bederen; izan ere, Bilboko frantziskotartasun garaikidea

ez da izan bakarrik aipatutako hauen segida, eta sorkari berriak eman ditu frantziskotarren Familia zabalak Bilboko Hirian, Izanberrikuntzaren ondotik (1886tik aurrera).

Aro Garaikidean kaputxinoak itzuli ziren lehenengo Bilbora (Basurto, 1886-1977) eta frantziskotarrak[ofm] gero (Iralabarri, 1930). Eta Bilboko Auzoetan Senitarte Txikiak ere izan dituzte, gainera, bai frantziskotarrek[ofm] (Errekaldeberri, 1970-1982) eta baita kaputxinoek ere (Zorrotza, 1970-1980; Olabeaga, 1987-2000...; Otxarkoaga, 1978-2000...; Errekaldeberri, 1993-1999).

Hirugarren Ordena Erregularrak (TOR: "amigotarrak") bi Etxe izan ditu, baina dagoeneko biak utzi egin dira: "El Cristo" Zentroa (1957-1996) eta Kontsultaleku eta Kuria (1970-1980).

Emakumezko moja itxien artean gauzak beste gisa batean joan dira Bilbon berrikitan: Sta. Krutz komentuko klaratarrak Loiura (1966) eta Begoñakoak Derio-Artebakarrara aldatu dira (1971). Hortaz, sorkundetarrak dira, antzinako Ahizparteetatik (baina 1861etik Vista Alegre/ Espinako Auzoan) Bilbon geratu diren moja frantziskotar itxi bakarrak. Baina sortu berriagoak diren klaratar kaputxinoak ez dira ahantzi behar: Basurtoko Elejabarrin dute beren komentua, 1935etik hona (Clarisas 1993: 525, 483; Klaratar kaputxinoena: Tokiko lekukotasunak).

Emakumezkoen Kongregazio frantziskotar modernoen Etxerik franko egon da Bilbon: 9 Etxetaraino zenbatu ahal izan dugu, denak 1897tik 2000 artekoak. Hauen artean, fraideen komentuarekin izan dituen harreman hurbilengatik, hemen berezikiago aipatzekoa da San Salbatore Hortakoaren ikastetxea (1938-2000...), Iralabarrin bertan (Sortzez Garbiaren Misiolari Frantziskotar mojena berau).

ARO GARAIKIDEKO KRISIALDIAN (1794-1833)

Santimamine guztiz baztertu gabe, ongi etorriko da hemen Bilbo-San Frantzisko deitu izan zen komentuaz, XIX. mendeko zenbait albiste biltzea, berau izan baitzen berezikiago gogoan izango dugun Iralabarriko Etxearen aurreko komentu leinargia.

Sarrera-burutik Bilbori buruz ari bagara ere, San Frantzisko ez zegoen Bilbon, Abandon baino, nahiz eta bere garaian bilbotarrek eskatuta eraiki zen (1475). 1539an "El Imperial" goitizena eman zitzaion, Karlos V.ak bere koroapean hartu zuelako. Pedro Astarloa idazle frantziskotarrak gogoratzen zuenaren arabera (1820), Abandok bost auzune zituen inguruetan eta 400en bat biztanle. Gaur egun ez dago komentu hartatik deus, San Frantzisko kalearen izena ez bada (Solaguren s. d.: 35).

San Frantziskoko komentu hura Probintzia erlijiosoko handietakoa izan zen Aro Modernoan, Gasteizko San Frantzisko edo Arantzazu bezala. 1585ean 40 fraide bizi ziren bertan, 1768 baziren 90, eta geroago 100dik gora izateraino hazi zen. Jaurerriko historialariek beti aipatu izan zuten komentu hau eta Labairuk berririk franko eman zuen honetaz (Uribe 1996: 277; Intxausti 1998b: 114-122).

Konbentzioko Gerratean (1794), 100.000 erreal eta zituen pitxi guztiak (enkanterako 24.594 errealetan tasatuak) jarri zituen Senitarte honek Jaurerriaren eskuetan, gerrako laguntzatarako; bestalde, kartutxeria egiten ere lagundu zuten fraideek (bi milioi kartutxo). Orduko gerra-eskarmentuak itzal luzea izango zuen, hurrengo hamarkadetako aldarteetan (Solaguren s. d.: 83; Intxausti 1998b: 115-116).

Urte batzuk geroago, 1808ko abuztuaren 6an altxatu ziren berriro ere bilbotarrak frantsesen aurka. San Frantziskoko fraideak buru-belarri ibili ziren herritarrekin, babes morala emanez ez ezik armaturik zebiltzan bilbo-abandotarrei komentua utziz. Abuztuaren 16an frantsesek tiroka sartu behar izan zuten Bilbon, eta besteak beste, San Frantziskoko komentua izan zen erresistentziako puntuetako bat. Garbi geratu zen fraideak ez zeudela Napoleonen Armadarekin, eta guduaren egun berean ihes egin zuten komentutik, beste herritar askok Hiritik bezalatsu. Hilaren 22an sute ikaragarri batek irentsi

zuen San Frantziskoko komentua (Solaguren s. d.: 87-89).

Pare bat aste geroago, irailaren batean, Jose Bonapartek Bilboko komentu frantziskotarrak ixteko agindu zuen, Logroñotik: Abandoko San Frantzisko eta Santimaminekoa, eta Deustuko kaputxinoena. Inbentarioak egin, eta fraide iheslarien kontrako erabakiak hartu ziren, gero. Errauts bihurturik omen zegoenaren orubea 1809an Bilboko Udalari eman zitzaion. Hala ere, gerra amaitzean, 1814ko urtarrilaren 5ean bildu ziren berriro fraideak suteak erretako komentuan. Ondoko urteetan, joan ziren itxuratuz soldaduek ere hondatutako Etxea (Intxausti 1998b: 116-117; Solaguren s. d.: 89. 113).

1817an ireki zen ostera ere San Frantziskoko Nobiziategia, 1820a arte irekirik egon zena. Hirurteko Konstituzionalak, ordea, atzera haize zakarrak ekarri zituen indarrean zegoen komentu honetara (60 fraide, eta horietako 37, apai-

Bilbo: Iralabarriko Komentu-Parrokia. Hamabosgarren mendetik zetorren frantziskotartasun bilbotarrak ez du gorde bere fraide-komentu zaharretatik bat ere. Iralabarri Auzoko beste hau berria da; 1945ean estreinatu zen argazkian ageri den eraikina. Geroztik, urte luzetan izan da Auzoko bilgune ezaugarria, batez ere 1950-1975. urteetan. Gaur egun Parrokia da, eta bertako fraideetakoren batzuek izan ohi dute berorren ardura pastorala. (2002).

zak). Lege berriek ziotenez, hiri edo herri berean ezin zitekeen egon Ordena bereko Etxe bakarra baino, eta San Frantziskoren zoritxarrerako, hau ez zegoen Bilbon, Abandon baizik, Santimamineko beste komentu frantziskotarra bezala; hautatu egin behar zen, beraz, bietako zein itxi. San Frantzisko zen, handiena izanik, salbatu beharrekoa, Abandoko Udalak, Probintzialak eta Gotzainak adierazi zutenaren arabera: honek zioenez, bat ixtekotan, Santimaminekoa zen itxi behar zena.

Gauzak bideratuta zeudela uste zenean, Madrileko Gobernuak 1821eko maiatzaren 14an adierazi zion Gotzainari San Frantzisko zela zerratu behar zena. Itzela izan zen ezustekoa, eta bilbotarren artean 2.111 sinadura bildu ziren halako erabakiaren aurka. Azken unean, itxuraz ez zen batere fin ibili Gotzaina, eta Madrilen ate berriak jo partez, Bizkaiko Buru Politikoari (Gobernariari) komentuko fraide bakoitzaren norakoa erabakitzeko baimena eman zion. Oraindik tenka gogorrik egon zen Buru Politikoaren eta Gotzainaren artean, baina azkenik 1821eko ekainaren 25ean itxi zen komentua. Arrazoi instituzional guztien kontra. Seguraski, komentuak irabazita zuen liberalen ezinikusi politikoaren arrastoan hartu zuen Gobernuak Bizkaiko komentu nagusi hau ixteko erabakia (Solaguren s. d.: 137, 157-164).

1823an kaserna eta presondegitarako izendatu zen San Frantzisko, baina urte horretan bertan "Aliantza Sainduak" ekarritako iraulketa politikoaren ondorioz, denak lehengora egin zuen: komentuak eta bertako ondasunak, denak, jatorrizko jabeei itzultzeko agindu zuen Erret Dekretu batek uztailean. Egia esan, gauzak erabaki horri aurreratu ere egin zitzaizkion, zeren San Frantziskoko Nobiziategia irekirik baitzegoen jada ekainaren 7an. Aurrerantzean, hurrengo hamar urteetan, fraideek beren komentu-bizitza arruntasun osoan eramateko modua izan zuten (Solaguren s. d.: 182, 192, 201, 202).

Baina 1820. hamarkadako bigarren partea ez zen, ez, Penintsulan baretasun politiko onekoa izan: aldian aldiko ekintza armatuak ez ziren falta, eta batez ere Erregeren ondorengotasuna eta herentzia politikoa nork hartuko zuen ez zegoen batere argi, Koroaren inguruko indarrak bitan banatzen ari baitziren nabarmenki (absolutistak eta konstituziozaleak).

Jaurerrian bizi izandako erasoengatik ere, Bizkaiko frantziskotarrak[ofm] guztiz erregetiarrak ziren, hau da, antiliberal jatorrak, eta, besteak beste, komentu-etxe eder hori zuten, gerra-eginkizunetarako nornahiri egokia gertatzeko modukoa. Dena elkartu zen 1833ko urrian San Frantzisko gerra-leku bilaka zedin. Matxinatuek lehenengo eta Jaurerriko Gobernuaren armagizonek gero hartu zuten komentua. Bertako Goardianoa zen Aita J. A. Ormaetxearen berriematea irakur daiteke egunez egun zer gertatu zen jakiteko.

Zurrumurruek ziotenez, gainera omen zetorkien mendekuak izututa ihes eginez joan ziren fraideak komentutik; beldurrez, zeren bertako Aita Negrete (jada Gerra Napoleondarretik biziki ezaguna) eta kideko fraideek arrazoirik bazuten eta, beldur izateko. Eta 1833ko urriaren 29an, Gobernuaren mandatuz, azkenekoek etxea utzi egin behar izan zuten. 104ren bat fraide ziren gertakari hauen bezperan San Frantziskon. Ofizialki, dekretu bidez, 1834ko uztailean izan zen itxia berori. Komentua 1859an eraitsi zuten, eta eliza 1866an (Solaguren s. d.: 228-239).

Historiaurre hori ezagututa, hobeki ulertuko da orain Bilbo-Iralabarrin frantziskotarrek[ofm] XX. mendean izandako San Antonioren komentuaz esango duguna.

IRALABARRIN KOMENTUA ERAIKITZEN (1930-1945)

1875eko bakearen ondoren, frantziskotarrek beren izanberrikuntza abian jarri zutenetik, nola-hala Hiriburuetara iritsi beharra garbiki ikusi zen Arantzazuko Probintzian, baina ez zen hori samurra gertatu. Gogo eta ahalegin horretan Bilbo izan zen lehenik begiratu zen xedea, Donostia edo Gasteiz baino lehenago. Inondik ere, Bilborekiko oroimen historikoa bizirik zegoen euskal frantziskotarren[ofm] baitan.

Bilbo: Barkamenaren kapera (J. L. Iriondo). (Argazkia: 2002).

Hala ere, XX. mendeko bigarren hamarkada arte ez ziren hasi lehenengo joan-etorri ofizialak Bilbon komenturen bat edo ireki ahal izateko: horretarako, 1915ean, kapilau-zereginetarako moja sorkundetarren Bikario-Etxea hartzea erabaki zen, bide batez beste asmo hari lagunduko ziolakoan, eta baita bidaietan fraideen ostatuleku izan zedin ere (horren premiarik izaten baitzen Bizkaian). Hori horrela, komentu berria eraikitzeari zuzenean heldu nahi izan zitzaion 1918an, Bilbon bertan edo inguru hurbilean ezartzeko asmoarekin. Urak, ordea, ez ziren nahi zen errotaraino berehala iritsiko, eta Erromatik ezezkoren bat ere jaso zen (1920) (ACD II: 168, 180, 193; Arantzazuko Artxiboan: A, 1, 3).

1929an eskuratu ziren Bilbon komentua irekitzeko baimenak (Aulki Santu, Ministro Jeneral eta Gasteizko Gotzaindegiarenak), baina, Gotzainak zioenez, Iralabarriko Auzoan izan behar zuen horrek, hau da, artean eraikitzeko zegoen ertzeko Auzo batean. Badirudi batez ere M. Mujika Gotzainak frantziskotarrekiko zuen hurbiltasunak eta Auzoko zinezko premiek lehundu zutela bidea horretarako. Definitorioaren erabakiz, A. Rekondo Probintziala eta J. R. de Larrinaga Probintziako Kronikaria arduratu ziren egiteko praktikoez.

Aita Larrinaga 1929ko irailaren 16an iritsi zen Bilbora, eta sorkundetarren kapilau-etxean jarri zen bizitzen momentuz. Ondoren, 1930ean eman ziren oinarrizko urratsak: urtarrilean orubea erosi zen Iralabarrin (240.140 pta.), eta Senitartea eratu beste bi fraiderekin; behin-behineko kapera ireki zuten, martxoaren 2an, "Laugarren Etorbidea" zeritzan 20. zenbakian, eta lehen Nagusia izendatu zuen Probintziak (J. Larrinaga). Ongile batek eskainitako etxeari esker, kapera erosoago bat ere egokitu ahal izan zen, eta berehala zabaldu, "Bigarren Etorbideko" 19. zenbakian, "Gure Etxea" zeritzan xaletean (gaur eguneko Kirikiño plazan zegoen hori, zutik dagoen magnoliaren ondoan). 1932-1933. urteetako lana izan zen hori dena (ACD II: 368, 371, 372, 373, 431, 481; Homenaje 1935: 29-30; Iñurritegi 1996: 56-57).

Bilboko honen lehen historia ulertzeko (eraikuntzako atzerapenak eta ezinak, alegia), Donostiako eskarmentua gogoan eduki behar da. Komentu donostiarra 1923-1926.ekoa da, baina hurrengo urteetan luzaro eraman behar izan ziren egindako lanen zorra eta ordain-gastuak, eta nolanahi ere jatorrizko proiektua burutu gabe utzi. Probintziako ezin haiek beren betean harrapatu zuten Bilboko asmoa. Hori horrela, harik eta "Amodio Errukitsuko" Institutuaren sortzaileak, Ama Esperantza Jesusenak (Josefa Alhama) alegia, Pilar Arratiaren bidez 800.000 pezetako laguntza luzatu zuen arte ez zen modu onik izan obrei zinezko bultzada emateko. Gerra osteko lehen urteak ziren, 1941a, eta 1.800.000 pta. beharko zen komentuelizak eraikitzeko (Intxausti s. d/a, Donostia: 49-50, 66-67, 188-191; Iñurritegi 1996: 57-58).

Jada 1939an eliza eta komentuko eraikuntzari heldu nahi izan zitzaion, horretarako Batzordea eratuz (Apraiz Probintziala, Egiluz Kustodioa, S. Larrañaga Definidorea), eta "Sociedad Inmobiliaria de Iralabarri"rekin konponketa ekonomikoa bideratuz. Bazirudien jasotako laguntzak lainoak desegin zituela, baina, gutxiena uste zenean edo (*un giro inesperado*), Lauzurika Gasteizko Administrari Apostolikoak —baliozko eliz baimenik ez zegoela eta— eraikuntza-lanak geldiarazteko agindua eman zuen (1942ko ekainaren 26). Ateka gaiztotik irteteko, eta bestelako irtenbiderik aurkitu arte, zera erabaki zuen Definitorioak: "Las

obras... no se destinarán a convento ni iglesia" (1942-uztaila-1). Urtebete behar izan zen egoera iraultzeko, eta, horri esker, berriro lehengo asmoetara itzuli ahal izan zen, eraikuntza "komentu" eta "eliza" izango zela berrerabakiz (1943-maiatza-18) (ACD III: 52, 102, 111, 112, 118; Iñurritegi 1996: 58).

Ondoko buruhausteak batez ere ekonomikoak izan ziren (1943-1946); baina, horiek gorabehera, 1945eko maiatzaren 13an estreinatu ahal izan zen Iralabarriko eliza berria. Arantzazuko Abesbatzari deitu zitzaion elizaren estreinaldian parte har zezan. Ospakizunak arranditsuak izan ziren, Cicognani Nuntzioa ere tartean zela. "Cantabria Franciscana"ren ale berezian geratu zen orduko oroitzapena (ACD III: 154, 155, 168. 178, 182, 200; Cant. Franc. 1945; Iñurritegi 1996: 55, 59).

Komentuari itzal hobeko nortasuna eman nahirik edo, jada 1943an behatu zen Iralabarriko hau Goardiano-Etxe egitea, baina ezagupen hori 1946ko Kapituluak eman zion, aho batez. Batzar berak izendatu zuen K. Apraiz lehenengo Goardiano (ACD III: 126, 228); hala ere, gogoratzekoa da, 30.eko hamarkadatik hasita, hogeita bost urte erabakiorretan, batez ere L. Basabe gernikarraren eskuak gidatu zituela Etxearen eraikuntza eta garapena (Basabe izan zen bertan Nagusi eta Goardiano 1938-1946 eta 1949-1957.etako urteetan).

Komentu-barrutiaren aldetik, Arantzazuko Probintzia izanberritzean (1886) Bilboko Hiria Bermeoko komentu-barrutian suertatu zen, eta halaxe ageri da 1915eko banaketan ere; 1949ko barrutietan, komentu honi berariazko eremua eman zitzaion, eta beronen barrutiak Bilbo (Larrabetzu gabe), Zeberio, Urduña eta Artziniegako artziprestazgoak, Ezkerraldea, Mena Harana eta Santandere hartu zituen (ACD III: 269, 280, 301).

AUZOKO KRISTAUARTEAN ETA GIZARTEAN (1945-1970)

Iralabarriko Auzoan, urte askotan, erakunde ardatza izan da komentu hau bere elizarekin, bertako kristauartearentzat ez ezik baita Auzoko bizitza orokorrerako ere. Oro har, pastoraltza arruntaren, presentzia frantziskotarraren eta hiri bizitza neketsuaren baldintzen barruan burutu izan da fraideen bertako zeregina.

Pastoraltza arruntean, hirigintzaren ondorioz Auzoz kanpo geratutako parrokiaren hutsunea bete behar izan zuen. Izan ere, artean Iralabarriko San Luis Beltrán parrokia sortu gabe zegoen (1948), eta orduan jatorriz zegokion Bosgarren Parrokiak 60.000 arima zituen (1930), eta horietako 8.000 ziren Iralabarrin aparte bizi zirenak. M. Mujika Gotzainaren asmotan, komentua sortzea, beste gabe ere, Auzoari, zegokion fede-gunea eskaintzea izan zen, erlijiosoen presentziarekin.

Sakramentuak eta eliz zerbitzuak

Berehala (1931) eratu zen Katekesia. Hasteko, jesuitek auzoan lehendik zuten haur-taldea (200en bat, 1931n) frantziskotarren eskuetara pasa zen nolabait, Kronikak dioenez, baina, iturri beraren arabera, formalki lanari ekitean behetik hasi behar izan zen ostera. Bildutako estatistikek zera diote Katekesiko haurrei buruz: 20 haur 1932an, 103 (1934), 220 (1935), 190 (1937, azaroan), 326 (1939), 340 (1943-1944), 400 (1944-1945), 400 (1945-1946), 500 (1946-1947), 400 (1951), 500 (1952), 450 (1964), 180 (2000) (Kronika I, 4, 131, 174, 176; II, 70, 118, 199; V 57; VII: 15).

1948-1949.etik aurrera, haur bakoitzaren segimendu pedagogikoa egin zen, horretarako fitxa baten bidez. Bestalde ezagunak dira erabili ohi ziren baliabide sustagarriak: zinemarako baleak, gozokiak, talde-ibilaldiak, sariak, etab. Gurasoek eskatuta, euskarazko katekesiak ere bere historia izan du: haur euskaldunen lehenengo Jaunartzea 1959an izan zen estreinakoz. Euskal Katekesi honen mantupean eratu zen, gainera, lehenengo ikastola, goiz-arratsaldez euskaraz aritu zena, 30 haurrekin, eta poliziak itxi arazi zuena (1958-1959) (Kronika II, 70; III, 39; VI, 70).

Sakramentu-bizitza klasikoa ere estimagarria izan da Iralabarrin; aitor-entzuleek ospe ona izan dute, auzoan eta kanpotik ere etor zitezke-enentzat. Jaunartzeetara gatozela, hona daturen bat edo beste: 12.981 jaunartze 1932an, 13.662 (1933), 15.054 (1934), 23.415 (1938), 46.256 (1945), 70.000 (1950), 145.195 (1960) (Kronika: hilerokoen batuketak).

Iganderoko Meza-entzuleen estatistika jarraiturik ez badugu ere, hona behintzat datu adierazgarriren bat: 1951ko maiatzeko igandeetan jasotako albisteen arabera. 2.803 zen batezbesteko lagun-kopurua igandero Mezatan. 2000. urtean, 800/900en bat kristau dira eliza honetan igandeko Meza entzuten dutenak (Kronika; Tokiko lekukotasunak).

Kontzilio-aurreko molde pastorala ongi ispilaturik dago eliza honetako kultuan: adibidez, bederatziurrenak ugariak izan ziren urte haietan (1930-1960): 8 bederatziurren urtero (San Antonio, San Frantzisko, Arantzazu, Begoña, etab.), eta tartekazko beste ospakizun jarraituak (San Joseren Poz-Atsekabeak, S. Antonioren Astearteak, etab.). Jaiera modu hauek beste eliza eta parrokietan ere indarrean zeudenez, Iralabarriko sermolariek bazuten horrelakoetan Bilbon prediku-lanik franko.

Garaiko prediku zainduagoak (misioak, gogo-jardunak, etab.) ez ziren baztertu: 9 Gogojardun 1934an, baina 9 Gogojardun eta 11 Misioaldi 1948an; hamar urte geroago (1958), 23 Gogojardun eta 2 Misioaldi eman zituzten berta-

Bilbo: Komentuko eliza, barrutik. (Argazkia: 2002).

ko fraideek, eta 1968an 31 Gogojardun eta 2 Misioaldi. Lantegi hau, plangintza baten arabera baino, bertan bizi ziren erlijiosoen gaitasun eta zaletasunen arabera burutu ohi zen (Orokieta, Suárez, Kerexeta, etab.). Hemen aipatu behar da, gainera, herri-misioetako idazkaritzan Iralabarritik A. Uberuagak egindako lana (1961-1970) (Kronika; Iñurritegi 1996: 56, 60-61; Tokiko lekukotasunak).

Etxe honetatik eraman izan den bestelako lanik ere aipa daiteke, eta, hasteko, mota ezberdinetako kapilautzak. Hauek moja-etxeetan edo erietxeetan izan dira: Sortzez Garbiaren Misiolari Frantziskotarrenean (S. Salbatore Hortakoa: 1938-2000...), Amodio Errukitsuarenean ("Amor Misericordioso": 1941-2000...), Mariaren Frantziskotar Misiolarien etxean (Sondika: 1956-1970), Seguros Bilbao (1960-1967) eta Usparitxa Kliniketan (1968-1980) (Tokiko lekukotasunak).

Ezohiko kapilautzarik ere izan da, itsasuntzietakoa. Jada 1940an hasita bizpahiru urtetan Transatlántica-ren untzietan, eta 1964-1967.ean berriro. "Naviera Vizcaína"ko untzietan ere bete zen eginkizun bera (1962-1972). Beste alorretako zerbitzu orokorragoak aipatu behar dira: moja klaratar eta sorkundetar itxien bi federazioetako gidaritza-ardura (K. Apraiz: 1954-1974), edo Lur Santuetako Ordezkaritza, Palestinarako bidaietan milaka erromes lagundu izan dituena (J. Biain: 1976-2000...), eta denbora luzez A. Uberuagak Bermeotik ere lagundu duena (Iñurritegi 1996: 64-64).

Elkarte eta taldeak

Lehen hamabost urteetan jasotako azpiegiturari esker, inguruko gizarteari biltokiak eta gidaritza eskaini ahal izan zitzaizkion, eta Iralabarriko kristauarteari ez ezik Auzoari berari ere elkartzeko aukera aurrean jarri. Garrantzizkoa izan zen hori, Auzoa jaiotzen eta hazitzen ari zenean, herritarren askatasun-sen bizkortuak garaiko sistema sozio-politiko hertsiarekin topo egin zuenean, frantziskotarretako etxelekuak aterpe aringarri bilakatu baitziren hainbat ekintzale sozialentzat (1960-1977) (Iñurritegi 1996: 62).

Bilbo: Behartsu eta pasaerakoentzako komentuko jangelak. (Argazkia: 2002)

Baina egokiera mugatu jakin horretako eskaintza zibil orokorraren ondoan, eta aurretik ere, Iralabarrin eliz elkarteek muntarik onena izan zuten, frantziskotarren[ofm] komentuetako ohiko eliz talde ezagunenak eratu eta azkartzean: Hirugarren Ordena, Antoniotar Gaztedia, San Antonioren Jaierazko Batasuna (Pía Unión de San Antonio), San Frantziskoren Kofradia edo Gau-Adorazioa. Elkarteok zer ziren Donostiako komentuaz diharduen monografia batean ikus daiteke, eta nola hedatu ohi ziren ere bai (Iñurritegi 1996: 61-62; Intxausti s. d.a Donostia: 140-163, 192-199, 242-257).

Hirugarren Ordena 1933ko apirilaren 16an eraiki zen Iralabarrin, nahiz eta lehendik ere bazegoen hirugarrendarrik bertan (1931). Iralabarrin ez ezik Begoña, Basurto, Portugalete eta Urduñan ere egon zen halako Senitarte laikorik. Era mugatuan izan arren, gaur ere bizirik dago hemen Hirugarren Ordena (Kronika I, 7, 11; Tokiko lekukotasunak; Informe 2000: 29-30).

Iralabarriko Antoniotar Gaztedia (JAI: "Juventud Antoniana de Iralabarri") beranduenik 1934an sortu zen hemen, Kronikako beraren lehen albisteak frogatzen digunez. Gerratean eten bat izan ondoren, 1941ean berreratu zen elkartea, eta 1975a arte iraun zuen bizirik indarrean. Ekimen handiko elkartea izan zen berau,

biziera erlijioso pertsonalean eta etxe-barruko jardunean, eta bertan eta kanpoan kultur munduan izan zuen oihartzunagatik. Dantza-talde, abesbatza, kirol talde eta antzerkiek JAIren itzala azkarki luze-zabaldu zuten, bere baitandik ekimen franko izan zuelako eta gizarteko talde kezkatuak babesten ere asmatu zelako ("Biotz Alai", "Txinparta", etab.) (Kronika III, 32; Tokiko lekukotasunak).

San Antonioren Jaierazko Batasuna ("Pía Unión de San Antonio") 1938an sortu zen, eta gaur arte iraun du bizirik. 500dik gora bazkide zituen 1948-1951.etan, eta San Antonioren 100en bat kaperatxoren bidez Bilboko familia anitzetara iritsi ohi zen Paduako Santua, betiere Santuarekiko jaiera eta behartsuekiko arreta soziala bizirik mantenduz. "Behartsuen Ogia" deritzanaren bidez, aipatuko den Jangelari ere lagunduz. Alde batetik, elkarte honen bidez Iralabarriko komentu-elizetako kultua eta etxeberrikuntzak ere lagundu izan dira, eta, bestetik, zenbait hilburuko jaso eta kristauartearen eskuzabaltasuna bideratzeko balio izan du, betiere behartsuen mesedetan. Isilean baina eraginkorki betetako eginkizuna izan da Batasun honena (Kronika III, 159; Tokiko lekukotasuna).

Eta deboziozko bi elkarte gogora daitezke, bukatzeko. San Frantziskoren Kofradia 1948an sortu zen, eta indarrean iraun 1967a arte, eta Aste Santuko eliz ibilaldietan parte hartzea zuen bere xedea. Gau-Adorazioa zertxobait lehenago eratu zen, 1946an, eta "Aingeruen Andre Maria" talde-izenpean, bizirik jarraitzen du XXI. mendea hastean (Kronika III, 158; IV, 14).

Ekimenik emankorrenak

Elkarte, talde eta fraideen ahaleginen ondorioz hainbat ekimen jarri izan da abian komentu honetan, batzutan fededunen heziketa kristauarekin zerikusi zuzena izan dutenak (horietan nabariena Katekesia, noski), eta bestetan Auzoko beharrizan sozialei erantzuteko batez ere (mota ezberdinetako ekimenak).

Betekizun soziala izan duten lanak hiruzpalau kapitulutara bil daitezke: "San Antonio Paduakoaren Jangela", Osasun-Zaindegia, "Esperantzaren Telefonoa" eta azken xedeetan beronen segida den "Itxaropenaren Ahotsa".

San Antonio Paduakoaren Jangela deitua (1954-2000...) da, agian, frantziskotarrek[ofm] Euskal Herrian behartsuentzat izan duten obra sozialik handien eta iraunkorrena. Hona baieztapen hori oinarrituko luketen azken hamarkadako datuak: 61.273 jatordu (1991: batezbeste, eguneko 168 bazkari-afari); 67.391 (1992: egunero 184), 74.163 (1993: 204), 76.745 (1994: 211), 71.066 (1995: 195), 74.456 (1996: 204), 74.932 (1997: 206), 71.860 (1998: 198), 70.072 (1999: 192). Jangela "Behartsuen Ogiak", elizako limosnek, aldian aldiko ongileek edo inoiz edo beste jasotako hilburukoek mantendu izan dute, eta azken hamarkadetan Herri Erakundeetatik datozen laguntzek. 1999an, 35 milioi pezeta kosta zen Jangela, eta berorietatik 16 Bizkaiko Aldundiak eman zituen.

Hirugarren Ordenaren ekimena izan zen Jangela hau sortzea, 1954ko azaroaren 19an egindako bilera baten erabakiz. Lehenengo epealdi batean Auzoko behartsuei edo lagundu ohi zitzaien (1954-1975), eta batez ere komentuko bertako limosna eta kristau bolondresei esker eraman ahal izan zen aurrera; gero, 70. hamarkadako krisi ekonomikoak halaxe behartuta, Auzoz kanpoko langabetuei, egoera zaileko gazteei, etxerik gabekoei eta pasaerako iragaleei ere lagundu izan zaie. Lagunduen artean, 19996ko datuen arabera, %40k ez du 30 urte. Bi sukaldari eta 70en bat gizon-emakume txandatzen da egunero, jatorduak emateko. Jangelak beti izan du bere fraide arduraduna: L. Basabe (1954-1957), B. Iñurritegi (1963-1967), P. L. Zaballa (1967-1974), I. Untzurruntzaga (1974-1983), J. Biain (1983-2000...). Azpimarratzekoa da, noski, herritar zenbaiten lankidetza: Pura Iturralde (1957-1974), Karmen García Aresti edo Micaela Martin (biak ere, 1954-2000...) (Iñurritegi 1996: 64-65; Tokiko lekukotasunak).

Osasun-Zaindegia (1968-2000). Zerbitzu honek ez du izan halako garapen handirik, baina urte luzez jardun du eguneroko bere zerbitzu praktikoa eskaintzen, Auzoko behartsu eta adinekoentzat batik bat, bertan ari diren erizain

ABANDOKO SAN FRANTZISKO ETA BILBO-IRALABARRIKO NAGUSIAK (1792-2000)

1792	Alejandro Urrejolabeitia
1794	Alejandro Urrejolabeitia
1795	Jose Antonio Etxebarria
1797	Joakin Soparda
1800	Juan Jose Iturralde
1803	Pedro Astarloa
1806	Pedro Astarloa
1807	Pedro Astarloa
...	Gerrate napoleondarreko hutsartea
1814	Pedro Astarloa
1815	Frantzisko Barandika
1818	Frantzisko Barandika
1820	Nikolas Artetxe
...	Hirurteko Konstituzionaleko hutsartea
1824	Nikolas Artetxe
1825	Frantzisko Sagarminaga
1827	Jose Joakin Eitzaga
1828	Jose Joakin Eitzaga
1830	Jose Joakin Eitzaga
1832	Jose Joakin Eitzaga
1833	Juan Antonio Ormaetxea
...	Gerrate karlista: ihesa, esklaustrazioa
1930	Juan Rz. de Larrinaga (pres.)
1931	Jose Adrian Lizarralde
1934	José Adrian Lizarralde (dim.)
1934	Jose Martin Arrue
1937	Juan Rz. de Larrinaga (pres.)
1937	Segundo Bilbao
1938	Jose Bernardo Biain
1938	Luis Basabe
1940	Luis Basabe
1943	Luis Basabe
1946	Kastor Apraiz (goard.)
1949	Luis Basabe
1952	Luis Basabe
1955	Luis Basabe (†1957)
1957	Adrian Kerexeta
1958	Kastor Apraiz
1961	Ignazio Sudupe
1964	Pedro Urrutia
1967	Jesus Biain
1970	Jesus Biain
1973	Iñaki Etxebeste
1976	Felix Torrealdai
1979	Felix Torrealdai
1982	Tomas Larrañaga (1984: Erromara)
1984	Bitoriano Iñurritegi (Bikar.-Goard.)
1985	Bitoriano Iñurritegi
1988	Bitoriano Iñurritegi
1991	Bitoriano Iñurritegi
1994	Bitoriano Iñurritegi
1997	Jose Maria Arregi
2000	Bitoriano Iñurritegi

IRALABARRIKO PARROKOAK (1970-2000...)

1970	Jesus Biain
1973	Iñaki Etxebeste
1976	Imanol Untzurruntzaga
1979	Bitoriano Iñurritegi
1991	Arturo M. Apraiz
1994	Bitoriano Iñurritegi

titulatuen eskutik. Aita A. Intxaurbe izan da beti hemengo zerbitzu-burua (Iñurritegi 1996: 65).

Itxaropenaren Telefonoa (1968-1993). Bizitzako eskualdi larritan daudenentzako zerbitzua izan da, jendeari entzun, lagundu eta talde profesional baten zerbitzuak eskaintzeko, egun oro eta ordu guztietan. Ezagumendu sozial zabala irabazi zuen zerbitzuak, harik eta barneko lanprozeduratan desbiderazio bat sortu zen arte (1993). Honegatik, lehen elkarte hori desegin eta erantzukizunak "Itxaropenaren Ahotsa" deituak hartu behar izan zituen berehala (1993-2000...). Bere bizialdian inguruko zerbitzu berezituak ere sustatu ahal izan zituen Telefonoak: Neska Gutxituen Jostundegia (1973-2000...), Ezkongabeen Kluba (Club 25: 1969-1990), Alargunen Bitariko Kluba (Club V-2: 1972...), Banatuen Bitariko Kluba (1976...), etab. Hauetako batzuek gero beren berariazko bideak urratu dituzte (Iñurritegi 1996: 65-67; Tokiko lekukotasunak).

Arreta sozial horrekin batera, Iralabarriko komentuak euskal kulturapena axolaz zaindu zuen, Bilboko euskaldungoaren zerbitzuan bere

baitandiko eta kanpotiko ekimenak sustatu eta babestuz. Bertako Eskola-Katekesian dago — hain zuzen haurrak euskaraz hezitzeko gurasoekin sortutako Eskola hartan (1958-1959)— geroko Lauro Ikastola handiaren historiaurrea. Bestalde, 1960.eko hamarkadan hasita, euskara estandarraren garapenak Iralabarrin izan zuen gidari sozialetako bat (Aita I. Berriatua), beronek *Anaitasuna* aldizkarian eta Euskaltzaindian ere egindako eguneroko lanaren bidez (1968-1981). Hizkuntzaren hau, esan behar da, frantziskotarren[ofm] aspaldidaniko tradizioan zetorren. Gau-Eskolen garaia da, gainera, euskal alfabetatzearena, eta horretan Iralabarrik eman zuen beste fruiturik ere: alfabetatze-taldeak Bilboko euskal idazle frantziskotar[ofm] baten izena hartu zuen, "Juan Mateo Zabala" (1977), eta proiektu hura,1980an, "Juan Mateo Zabala Euskaltegia" bihurtu zen (Iñurritegi 1996: 68-70).

PARROKI URTEAK (1970-2000)

Ikusi ditugun pastoral eta kultur lanek, komentuaren funtsa eta zerbitzu-moldea ongi zizelkaturik utzi zituzten, eta, harez gero, bidezkoa ikusi zuen Diozesiak urrats instituzional berri bat ematea Iralabarriko Etxe honetan. Bilboko Gotzaindegiaren proposamenari (1969) erantzunez, eliza hau Parrokia bihurtu zen, horrela, dagoeneko egiten zen lanari osotasuna eta elizartean elkartasun berria emanez (1970eko urtarrilaren 1ean). Parroki barrutia txikia zen, komentuak lehendik bere ingurura erakarrita zeukan kalearteko parte bat bakarrik, 3.500 bizilagunekoa, orduan egindako erroldak erakutsi zuenez (ACD IV: 388).

Erakundeztapen horrekin batera, Etxe honetan ere Kontzilio-ondoko eliz eta sakramentu-bizitzak jite berria hartu du, kopuruz eta moldez: iturri biblikoen ezagumendu eta bizipenak indar berria erakutsi du (horretarako ikastaro eta otoitzaldiak), eta fedearen pertsonalizazioa sustatu da. Pastoralean eta eliz bizitzan laikoen partehartzea bizkortu egin da. Auzoko mugimendu eta taldeekin hurbiltasun handiagoa izan da azken hamarkadetan, eta, beste alor batean, esan behar da Diozesiko eta sektoreko plangintza eta lan-egitarauekin hurbiltasun-loturak hertsiagoak direla orain.

Sakramentuen inguruko fededunen prestakuntzari arreta berezia jarri zaio: bataiatzeko haurren gurasoentzat, jaunartze-aurreko katekesian, sendotzarako prestaketan, ezkontzarakoan, etab. Sendotzako estatistikak interesgarriak gerta daitezke gizarte hiritar honen bilakaera erlijiosoa balioesteko: 79 lagun sendotza hartutakoak 1976an, 84 (1979), 46 (1980), 57 (1982), 22 (1984), 22 (1986), 62 (1987), 16 (1990) 31 (1991), 26 (1993), 37 (1995), 17 (1997), 13 (1999), 9 (2000). Hor ageri den azken urteetako behera-beharra, orokorra izan da Euskal Herri osoan (Hegoaldean bederen), eta, zalantzarik gabe, arrazoi ezberdinak eta sakonak ditu (Estatistiken iturria: "Libro de Confirmaciones").

Azkenik, parrokiari bere gobernu-egitura eman zaio, eta zerbitzu-moldeak osa-berritu egin dira: guztiaren ardatza Parrokiako Kontseilu Pastorala da, 1982an sortua. Lehengo bertako historiatik zetozen eliz egiturez baliatuz eta betiere Diozesiko egitarauak Auzora moldatuz, Diozesiko Proiektu Pastoralaren bidetik lan egiten da (1. Proiektua, 1990-1995; 2. Proiektua, 1998-2003). Bigarren proiektu honek lau zutabe ditu: 1. Gizartearen berreraketarako konpromezua sustatzea; 2. Pertsonalki eta taldean fede-proposamena indarberritzea; 3. Otoitz-bizitza esanahitsu bat indartzea; 4. Ebanjelizatze misiolari baterako sustatzaileak eta egiturak berriztatzea. Egitasmo hau bultzatzeko parrokiak bere giza eta egitura-baliabideak identifikaturik edo ditu (Informe 2000: 16-22).

Gaur egun 65 lagun dira parrokiako zereginetan ardura zuzena eta iraunkorra hartzen dutenak, Liturgia eta Sakramentuak prestatzen (Bataioa, Sendotza, Ezkontza), eliza bera eta elizguneko ekonomia zaintzen (garbiketa, kontabilitatea), elkarteetako talde-lanean (Gauezko Adorazioa, Frantziskotar Sekularrak, Mariaren Legioa), bertako lantaldeen arta jasoz (Katekesia, Gazteria, Ezkontzaurreko heziketa, etab.), zerbitzu sozialetan (Caritas, Jangela, Jostundegia). Badago abesbatza bat ere (47 lagun), zuzeneko alde pastoralik gabe (Informe 2000: 24-34).

Bilbo-Iralabarri:
Ezker-eskuin (goian),
Andres Intxaurbe,
Antonio Pérez,
Salvador Biain,
Jose Larrañaga,
Xabier Andonegi,
Benjamin Erezuma,
Jesus Maria Aranzabe,
Tomas Gondra eta
Jesus Biain.
Ezker-eskuin (belauniko),
Tomas Larrañaga,
Felipe Larrinaga eta
Biktoriano Iñurritegi.

Parrokiaren lehenengo mende-laurdenean (1970-1995), Sakramentu-Mezatan datuok gogoraraz daitezke: 1.161 Bataio, 445 Sendotza, 505 Ezkontza eta 958 Hileta izan dira parroki eliza honetan (Iñurritegi 1970: 70-71).

Iralabarriko komentua fraide gazteen Ikastegia eta egoitza ere izan da. 1956an jarri zen bertan apaiz gazteen prediku- eta pastoral-trebakuntzarako ikastegia, eta han egon zen ikaslego hau, harik eta 1967an beste Ikastegietara bidaltzea erabaki zen arte. Esperientzia hark, gero, aukera eman zuen 1970.etan Probintziako Ikastegiak berrantolatu eta birlekutzean, fraide ikasleak Bilboko honetara biltzeko: UBI/COU (1975-1978) eta Teologi (1978-1988) Ikastegiak eratu ziren Iralabarrin, Etxean bertan eta Deustuko Unibertsitatean ikasketak egiteko. Ikasmunduaz ari garenez, esan dezagun, azkenik, Bilboko Etxe honetan izan dutela beren egoitza Deustuko Unibertsitatean eta kristau-taldeetan jardun duten irakasle frantziskotarrek[ofm]: F. Alluntis-ek (Filosofia, 1969-1985) eta urte batzuetan J. Goitia-k (Eskritura Santua, 1968-1996), adibidez. Horren emaitza da, gainera, "Goitia Katedra", Abandoko San Bizente parrokian bizirik dagoena (ACD IV: 40, 311, 345; Iñurritegi 1996: 71-73).

XX. mendeko komentu honek 6 bizilagun zituen, 1940an, eta urtez urte honela izan dira hurrengo hamarkadetan: 28 (1964), 28 (1988) eta 13 (1995). Azkenik esan dezagun, gure behin-behineko datuek diotenez, frantziskotar[ofm] eta kaputxinoetan abitua hartutako gazte bilbotarrak 26 izan direla gutxienez XX. mendean (gutxienez, diogu, zeren Gaztelako kaputxinoen estatistikak ez baititugu oraindik eskuratu ahal izan, eta Basurtoko komentua probintzia horretakoa izan baitzen).

DONAPALEU: SAN FRANTZISKO KOMENTUA

(1851-1880, 1886-1903, 1938...)

Donapaleu (*Saint-Palais*) Nafarroa Behereko Amikuze eskualdeko herria da, Iparraldean. Komentu hau hemen eraiki zen arte, itxura guztiz Nafarroa Beherean ez zen sekula Komentu frantziskotarrik izan, ez baitakigu Tibalt II.ak aipatutako Donibane-Garazirakoa eraiki zenik (1270).

Donapaleu Nafarroa Behereko Administrazio zibilaren Hiriburua izan zen, 1512az geroztik batik bat, eta Amikuzeko buru ere bai; gaur egun izen bereko kantonamenduko burua da (26 udalerri dituen barrutia berau, 8.306 biztanlerekin, 1999an). Biztanleria handi batengatik baino bertatik eskualdeari ematen zaizkion zerbitzuengatik du berariazko pisua herri honek. Data ezberdinetan ondoko biztanle-kopuruak izan ditu herriak: 1.579 bizilagun (*a.* 1914), 2.260 (1975), 2.055 (1990).

Donapaleuko gaur egungo frantziskotarren komentua XIX. mendekoa da, bere eraikieran, eta Etxerako Estatutuetan komentua "San Frantziskorena" bezala izendatu zen, eta eliza "Sortzez Garbiarena" gisa. Etxe honen esanahi historikoa ongi konprenitzeko, komeni da berorren Iparraldeko iraganaz zehaztasunen bat edo beste ematea.

IPARRALDEKO FRANTZISKOTARRAK, ORO HAR (XIII-XX. M.)

Frantzia eta Espainiako Institutu Erlijiosoen beste kasuetan bezala, bitan banatu behar da Erakunde horien historia: Iraultza aurrekoa eta ondokoa.

Erregimen Zaharrean, Baiona eta Lapurdi izan ziren Iparraldeko frantziskotartasunaren gune azkarrenak, betiere Hexagonotik zetozen iradokizun eta indarren arabera, jada XIII. mendetik hasita. Baionak hiru komentu izan zituen: frantziskotar[ofm] (*cordeliers* deituak: 1242), klaratar (1326) eta kaputxinoenak (1615). Bestalde, Baionako klaratarrek denbora labur batez Uztaritzeko Jatsun ere izan zuten beste etxe bat (1636-1640).

Baionatik at, kostaldeko eskualdean, Ziburuko errekolektoen komentua da bereziki hona ekartzekoa (1611), besteak beste Lapurdiko Elizari eman zion laguntzagatik (predikua, eta apaizentzako heziketa iraunkorra) eta XVII.aren lehen partean euskalgintzarekin izan zuen zerikusiagatik.

Azkenik, Iparraldeko barnealdean, Iraultza aitzinetik izandako fraide-komentu frantziskotar bakarra Mauleko kaputxinoena izan zen (1669), herriak eskatu eta Maitiatarrek babestua (Intxausti 1998b: 155-158).

Iraultza ondotik, aipatu ditugun Etxeak itxi arazi ostean (1791-1793), bi gertakari dira azpimarratzekoak, Donapaleuko komentuarena hobeki konprenitzeko:

a) Ordena erlijioso zaharren izanberritzea zenbait kasutan (eta ez frantziskotarrenean bakarrik) euskal Iparraldetik hasi zela, bertarako, noski, baina baita Frantzia eta Penintsulara-

ko ere. Kaputxinoek lehen egoitza Uztaritzen izan zuten (1842) eta lehen komentu formala Baionan (1856), eta Areso frantziskotar[ofm] nafarrak, Erriberritik joan ondoren, Donapaleun sortu zuen lehen komentua (1851) (Pérez 1988, 1990).

b) Emakumezkoen Kongregazio modernoetako hiru iritsi dira Iparraldera: Sortzez Garbiaren Frantziskotarrak (Bordelekoak), Espiritu Santuaren Frantziskotarrak (Montpellier-koak) eta Mariaren Frantziskotar Misiolariak. Bordelekoak egun "San Frantzisko Asiskoaren Ahizpak" deituriko elkartasunean bilduta daude, eta hiru Etxe izan dituzte Euskal Herrian: Donapaleu, Atharratze eta Izpuran, eta Montpellier-koek Baionan izan dute Etxea. Mariaren Frantziskotar Misiolariek Kanbon dute beren Etxea ("Azantza" deitua). Hau idaztean (2000), Donapaleuko Sta. Elisabete Ospitalea eta Kanboko hau daude oraindik Iparraldean beren indar betean.

Historiaurre orokor hori aipatuta, Donapaleuko Etxe frantziskotarrari[ofm] buruz esan nahi dugu hemen zerbait, gainerakoak beste aukera baterako lagata. Komentu honen historia guztiz estimagarria izan da, Iparraldeko euskal gizartean ez ezik Ordena frantziskotarraren[ofm] historian ere. Bertan izan dute beren sehaska Akitania eta Frantziako Probintzia frantziskotarrek[ofm], eta hauen luzapen bezala Altsazia-Lorena, Andaluzia eta Kanadakoek, Ingalaterrako zenbait Etxek bezala. Horregatik ere arreta ohartua merezi du Donapaleuko honek (Pavie 1910: 100-103; Dedieu 1988: 32; Sagüés 1960: 462-44; E.R. 1938).

IZANBERRITZEKO LEHEN AHALEGINAK: DONAPALEU

Frantziskotarren izanberritzea, gutxienez, birritan entseatu zen Frantzian, XIX. mendeko lehen partean: lehenengoan berehala hutsegin zen (1816), eta bigarrenean, zenbait joanetorriren ondoren, Gobernuaren erabakiz amaitutzat eman behar izan zen saioa (1829-1839). Hamar urte geroago Ordenari egokiera berria suertatu zitzaion asmoari ekiteko, eta Aresoren ardurapean utzi zuen Erromak egitekoa.

Aita Jose Areso Nafarroa Garaikoa zen, Biotzarikoa (*Bigüezal*) (1797-1878). Ordenaren izanberrikuntzan bideak errazteko, Lur Santuetako Kustodiaren Frantziako Komisari Orokor izendatu zuten, Frantziaren Atzerri politikan onartu samarturik baitzegoen Palestinako eliz presentzia frantsesari babesa ematea. Izendapen horrek hainbat ate jotzeko parada eman ziezaiokeen Aresori Hexagonoan, eliz agintarien artean bezala mundu zibilean ere (Sagüés 1960: 11-26).

Lur Santuetan zegoelarik eman zioten Frantziarako mandatua, eta, izendapena eskuetan zuela, euskal Iparraldera itzultzea erabaki zuen orduan, izan ere Areso, Erriberriko komentuan Misiolari izandakoa (1824-1837), Bordele, Pabe edo Libourne-n lan egina eta Ipar Euskal Herrian bizi izana baitzen hainbat urtetan. Mandatua onartuta, 1849ko uztailean zegoen Areso atzera Baionan (Sagüés 1960: 43-95, 99-102, 142-148, 155-156).

Baiona inguruetan zituen lagun ezagunekin batera hasi nahi zuen lanean, Lur Santuetakoaz arduratuz baina batez ere Ordenaren berreraikiera sustatzeko asmoz, honetarako mandatu zuzena zuenez. Bestalde, Donapaleu inguruak ez zituen arrotzak Aresok, Mithiriñako gazteluan bizi izana baitzen (1837-1847), eta, horregatik ere, Nafarroa Beherera jo zuen (Sagüés 1960: 145-146).

1851ko lehen hilabeteetan eman ziren komentua irekitzeko urratsak: Etxeko arautegiaren idazketa, Erromako baimena, Lacroix Apezpikuarena, fraide lagunei deia, kaperaren bedeinkapena. Bere ondoan izan zituen Penintsulako zenbait erbesteratu eta bereziki Hegoaldeko hiru laguntzaile bipil; Zarauztik joanda Italian babestuak (Bellegra) eta handik Iparraldera etortzeko deituak lehenengo biak, eta Hegoaldetik ekarria hirugarrena: Aita J. Obieta gernikarra (†1857), L. Izagirre adunarra (†1873) eta M. A. Beobide azpeitiarra (†1877) (Sagüés 1960: 164-176).

Lortutako babesei esker eta ondoan zituen lankideekin, 1850.eko hamarkadan bideraturik utzi zuen Aresok Frantziako frantziskotarren[ofm] izanberrikuntza, abiapuntua Euskal Herriko Donapaleuko honetan zuelarik.

1851ko ekainaren 2an bedeinkatu eta ireki zen ofizialki Donapaleuko komentua. Handik hona, berau izan da (itxirik egon ez denean) Iparraldeko frantziskotar[ofm] komentu bakarra, garai bateko Baionako "sokadunena" edo Ziburuko errekolektoa ez baitira sekula izanberritu.

Komentu donapaleutarraren historia hiru epealdi handitan bana daiteke: eraikieratik bigarren itxierara doan komentu-aldia (1851-1903); bigarrenez kometua itxita zelarik, fraideak herrian ahal izan zuten gisara bizi izan zirenekoa (1903-1938), eta Etxea eskuraturik azken komentu-aldia (1938-2000). Lehen epealdian Gobernuak ezarritako lehenengo etena aipatu behar da, gainera (1880). Haustura horiek markatu dute Etxeko ibilera historikoa.

Komentuko lehen eraikin eta egoitza Agoten karrikako Mahatto etxean jarri zen: 10.000 libera ordaindu ziren eskribauaren aurrean paperak sinatzean; geroztik, Etxe hartan eman zituzten fraideek hogeita hamar urte (1881ean 25.000 liberatan saldu zen berau, eta ondoko eraikuntza berria ordaintzeko balio izan zuten diruok) (Sagüés 1960: 232bis; Dedieu 1988: 91-92).

Gaur eguneko komentu-eraikina Areso hil ondotik jasoa da, eta Aita Auguste Etxekopar betarrandar Nagusi eta aresozalearen adiskidetasunari esker 3.200 liberatan erositako orubean eraiki zen berori. 1880ko Legea eta itxiera-ordenua egikaritu arren (1880ko azaroaren 6an), eraikuntza-lanek aitzina egin zuten, burutu arte (1881-1883) (Pavie 1910: 54-55, 65-66; Dedieu 1988: 87, 90; Sabarots 1996: 85-97).

FRANTZIARA BEGIRA, BAINA EUSKAL HERRIAN (1851-1903)

Donapaleuko lehen Etxe hau segurtatu orduko, bertatik hasi zuen Aresok Frantziako

Donapaleu: Komentua, baratzetik. (Argazkia: 2002).

Donapaleu: Komentuko klaustroa. (Argazkia: 2002).

komentu berrien irekitzea: Amiens (1852), Noirétable (1853), Limoges (1854), Branday (1860), Bourges (1860), etab. Eta azkenik, 1860ko urriaren 20an jardetsi zuen Probintzia Erlijioso berria eratzea ere (Sagüés 1960: 195, 205, 219, 279, 286).

Donapaleuko komentua, ba, Komisaria Probintzialean egon ondoren (1851-1860), "Frantziako San Luis Probintziakoa" izan da lehenik (1860-1892), "Akitaniako San Luis Probintziako" gero (1892-1996), eta berrikitan "Frantzia-Mendebaldeko Pazifiko Anaia Beneragarriaren Probintziakoa", 1996A geroztik (Pavie 1910: 84-84; Vents 1996: mai, 19-20).

Bestalde, Donapaleuko komentuaren lurralde-barrutiari gagozkiola (hau da, zenbait erantzukizun juridikotarako berari zegozkion mugez ari garela) esan behar da lehen hogei urteetako barrutia guztiz zabala izan zuela, eta 1871n bildu zirela zerbait muga horiek, Paueko komentua eraikitzean. Ordutik hona Donapaleukoaren ardurapean geratu zirenak zerak izan dira: Maule eta Baionako arrondisamenduak, Ortesekoan Paueko Gave ibaiaren ezkerraldea, Akizeko arrondisamenduan Landetako gehiena (Sabarots 1996: 99). Milaka kilometro karratu asko, beraz. 1938an, erbestealdia pasata itzultzean, Baiona eta Mauleko arrondisamenduak eta Landetako Departamendu osoa eman zitzaizkion (L'Echo 1938: 2). Gainerako komentuen historietan bezala, barrutiak bere garrantzia izan du, Hirugarren Ordenaren bizitzan, eta komentuaren ekonomian ere (limosna-eskea).

Lurralde-eraketa, bistan da, azken finean zerbait etxez kanpokoa zen; ez, ordea, Senitarte bizitzari eman nahi izan zitzaion arautegia:

komentu hau eta Probintzia osoa ere, Misiolari-Kolegio eta sare bezala eraiki nahi izan zituen Aresok, eta lehen Estatutuak Areso, Izagirre eta Obietak Zarauzko eta Erriberriko Misiolari-Kolegioetako Estatutuen gain landuak izan ziren. Baina, zenbait eztabaidaren ondoren, Probintziako fraideek eta Erromak nahiago izan zuten Ordenako bide arruntari jarraitu, eta 1873an idazkera berri batez emanak onartu ziren Probintziako Estatutuak (Sagüés 1960: 171-172, 205-209, 249-254, 310-327).

Hala ere, barruko bizimodurako arautegi horrek ez du esan nahi Donapaleuko komentua Misio-prediku zereginetan utzi-zabartu zenik; aitzitik, herrietako Misioak izan ziren beti XIX. mendean Etxe honen ezagugarri pastoral nagusiena. Horrela behatu zuten fraideek beren zeregina, horretxek irabazi zien apaiz-jendearen estimua, eta, Gobernutik komentua itxi arazi nahi izan zenean ere, horixe gogorarazi zuten agintari errepublikarrek (Sabarots 1996: 56-70, 120, 155-156).

Misioaldiak zortzi edo hamabost egun luza zitezkeen, eta normalean astindualdi zirraratsua ekarri ohi zuten herrira; baina nola iraun arazi bere leialtasunean halakoetan herritarren artean sortutako atxikimenduak? Zerbait iraungarriagorik sortu nahirik, Donapaleuko fraideek Hirugarren Ordenari eman zioten lekurik behinena. Komentua ireki eta berehalako hamarkadetan egin zen berezikiago hirugarrendarrekiko lan hau, eta kontakizuna zerbait aurreratuz izango bada ere, komeni da honetaz geroago gabe berri ematea.

Komentuaren lehenengo hogei urteetan, hirugarrendarren 20 Senitarte sortu zituzten fraide haiek eta beraien apaiz lankide sekularrek (Hazparneko misionestak barne). Dakigunez, XIX. mendeko hirugarrendarren loraldi hura berezikiago fraide jakin batzuren ekimena izan zen: L. Izagirre (6 Senitarte), Beobide (11). Hirugarren Ordenaren zabalkuntza, 1880a arte, kasik erabat Nafarroa Beherean egin zen (20 eta gehiago herritan), eta handik aitzina hedatu zen Kostaldera (Donibane-Lohizune, Ziburu, Baiona, Miarritze). 1890-1940.etan kaputxinoek osatu zuten Iparraldeko geografia hori (L'Echo 1941: 1-4).

Komentuaren lokarri sozialik hertsiena hauxe zen, Hirugarren Ordenarena; hurrengoa, agian, San Antonioren Jaierazko Batasuna, izan ere 1898an 9.354 bazkide izatera iritsitako elkarte frantziskotarra zen berau (Sabarots 1996: 108). Frantziskotarren[ofm] sare honek, kaputxinoenarekin batera, Diozesiari herritar sekularren atxikimen pastoral zabalena eskaini zion, Ekintza Katolikoa hedatu aurretik. Hain zuzen, 1903ko eztabaidan zera idatzi zen funtzionarien paper ofizialetan: "Leur influence [frantziskotarrena, alegia] dans les classes populaires égale celle qu'exercent les Jésuites dans les classes privilégiées" (Sabarots 1996: 159). 1941ean (Iparraldeko Senitarte haien guztien zerrenda argitaratzean), artean haietako 36 Senitarte frantziskotar[ofm] bizirik ageri ziren Iparraldean.

Egindako lana bere heldutasunera iristen ari zen unean etorri zen, ordea, komentuaren lehenengo itxiera bortxatua: Errepublikako Lege berriak bete araziz, *manu militari* iraitziak izan ziren komentutik fraideak, 1880ko azaroaren 6an. Erlijiosoek lagun adiskideen etxeetan bilatu behar izan zuten aterpea, eta batzuek bederen Donapaleun bertan izan zuten babesa; hori gorabehera, komentu berriko eraikuntza ere aitzina jarraiki zen. Bestalde, fraideek ez zuten Donapaleuko herria sekula laga.

1880ko abenduan bertan Donapaleuko herrian jarri zen bizitzen fraide eraikuntza-lanen arduradun bat, eta badirudi komentu berriko bizilekua zerbait itxuratu zenean, besterik ere etorri zela, formaltasun handirik gabe. Fraide Senitartea, berriz ere, bilduz joan zen, 1886aren inguruan, eta laster formaltasun osoa eman zitzaion Etxeari, Nagusi eta guzti. Esan beharra dago hemen zenbait donapaleutarrek babes eta laguntza onik eman zuela, eraikuntzako dirukontuak eta ardura eramaten (horietakoa izan zen, adibidez, Diriart, herriko notarioa, fraideen Sindiko ere izan zena). (Sabarots 1996: 85-97).

Bi itxieren arteko urteetan (1880-1903), nortasun handiko fraide euskaldun bat izan zen Donapaleuri bere bertakotasunean eutsi ziona: Aita Urrutibeheiti Ithorrotzekoa (1853-1935), Probintzial (1885-1888), eta Donapaleuko Nagusi (1891) eta Bikario (1891-1895) izan zen. Bero-

ni zor zaio Hirugarren Ordenako hedakuntzan bigarren olatualdia, Donibane, Ziburu eta Getariara heldu zena (L'Echo 1941: 4). Zalantzarik gabe, euskal herritar euskalduna izateak ez zion gutxi lagundu Aita Urrutibehetiri, beste halako fraideren bati gertatu zitzaionaren antzera, inkulturazio linguistikoaren arazoa baitzen komentu honek beti izandako erronka zail bat.

Donapaleuko Etxea sortzean, Senitartea euskaldun eta erdaldunez osatu zen, eta gero ere halaxe izan zen hori beti. Baina Aresok gogoan izan zuen berorren Euskal Herriko lekumendua, eta saiatu zen neurri handi batean bere lehenengo lankide minenak itzal oneko fraideak ezeze euskaldunak ere izan zitezen; horregatik, ez zuen eraiki nahi izan hura, pastoralerako behintzat, gutxieneko euskaltasunen bat segurtatu gabe. Horregatik deitu zituen Donapaleura Aita L. Izagirre, J. Obieta eta M. A. Beobide predikari euskaldunak (Sagüés 1960: 166-168).

Hala ere, hasieratik bertatik, Donapaleuko etxearen euskaltasun pastorala gordetzea ez zen samurra gertatu, nahiz eta berori lan-motagatik Etxetik kanporakoa izan. Batzuetan, aitortza eta predikurako euskaltasun mugatu hau bera ere arazo eta buruhauste bilakatu zen, fraide euskaldunen eskasiaz; geroago, XX. mendean, nabaria izango zen hizkuntzaren arazo hau. Areso bera ere, berriro, azken hondarreko egunetan, kezkati agertu zen honetaz, komentuak predikuetarako beharreko zituen euskaldunak eskas zituelako (Sabarots 1996: 102.103, 106, 120; Sagüés 1960: 365).

Euskal Herriko hizkuntz egoera ezaguturik, heriotza-aitzineko azken hilabeteetan Aita Aresok asmo handi bat ere azaldu zien bere inguruko minenei: Donapaleu, Zarautz eta Erriberriko misiolari-komentuak elkartuta, zergatik ez moldatu Ipar eta Hegoaldeko frantziskotar[ofm] euskaldunen artean —erran nahi baita euskal mintzatzaileen artean, bereziki— euskarazko herri-misioetarako plangintza instituzional bateratu bat? Honetaz, lekuko eta adiskide baten testu jakingarriak baditugu (Saguës 1955: 312; 1981: 28; Intxausti 1996: 19).

Aresok izan zuen hizkuntz gaitasun pastoralaren kezka horretaz Probintziako fraideak ere —batzuk, bederen— ohartuta ageri zitzaizkigun XIX. mendean, euskararen bidez egindako lanak izan ohi zituen oihartzun eta arrakasta zabala ikustean: euskara ez jakitean motz geratzen zitzaien ebanjelizatze-ahalegina, eta, aitzitik, bestelakoak ziren Aita Beobide euskaldunaren edo Dosithée Clémente euskaldun berriaren kasuak (Sabarots 1996: 106-107).

Baina, egoeraz konturaturik ere, arazoak arrazoi estatistikoa zuen bere oinarrian: Probintziako Nekrologioak erakusten digunez, 1855-1990.eko urteetan 491 izan dira Probintzia erlijiosoan hildakoak, horietako 52 Euskal Herrian jaiotakoak, baina hauetako 13 bakarrik euskaraz predikurik egin zezaketenak (eta nahiago bada, bizirik direnetako beste hiru gehi ditzakegu). 1851-1903. urteetakoak dira 13 horietako 10. Baina hauek ez ziren bizi izan beti Donapaleun, eta hemen egondakoetarik batzuk goiz hil ziren (3), eta beste zenbait Hegoaldera itzuli (3). Indarrak, hortaz, oso murriztuak gertatu ziren 1880tik aitzina: hau da, bi ipartar euskaldun bakarrik izan ziren, lehenengoak (Kihilalt, Ithorrotze), eta haietako lehenengoa 1891n hil zen, eta bigarrena, Ithorrotze, beste Probintzia batera pasatu zen (1893). Eta hastapen mugatu hark ere ez zuen izan jarraitasunik XX.eko lehen hamarkadetan, 1960.etako urteak arte (Dedieu 1996: *passim*; 1988: 13, 19. Hor ageri den Landabururen kasua oraingoz albora utzi da).

Apaiz eta Anaia Laiko, komentu honetan zenbat fraide izan diren jakitea ez da samurra, Anaia Laikoak ez baitira zenbait zerrendatan agertzen: 4-5 apaiz ziren 1860a arte edo, eta 6-7, 1880a arte; ondoren, apaiz eta anaia laiko, onenean 12ren bat izatera iritsi ziren, 1903an komentua berriro itxi zen arte (Sabarots 1996: 46, 102; Dedieu 1988: 12, 91-92).

ETXETIK KANPO, BAINA LANEAN (1903-1938)

1901-1903.etan "Kongregazioneen gerra" piztu zen Frantzian: Legez kanpo edo eratutako Erlijiosoen Etxeak ixtea erabaki zuen III. Erre-

publikak, Combes gidari zuela. Donapaleuko komentua bete-betean harrapatu zuen Lege horrek, eta berorren betearazpenak: 1903ko apirilaren 10ean, Ostiral Santuz, adierazi zitzaien Donapaleuko fraideei komentua hamabost egunen buruan uzteko epea. Ondoko asteetan bertan geratu zirelarik, ekainaren 11n utzi zuten, azkenean, komentua (Dedieu 1988: 5-8; Intxausti 1972: 140-148, 174-178).

Donapaleuko gertakariek oihartzun bortitza izan zuten herrian bertan, Iparraldean, Pariseko

Donapaleu: Komentuko eliza, barrutik. (Argazkia: 2002).

Asanblada Nazionalean eta Prentsako eztabaida politikoan ere, eta Fraide Senitarte honek inguruko gizartean zituen onarpen eta estimua agerian azaldu ziren, gertaeraren inguruko ekintzetan (Sabarots 123-166).

Ondoren "Legearen aurkako errebolta" salakizunarekin auzipetu zituzten fraideak, eta kondenatu (isunak). 1905ean saldu ziren komentuko altzariak, eta 1907an, orube eta eraikinak. Herriko zenbait ongile ausartez baliatu ziren frantziskotarrak, zehar bidez, enkantean saldutakoa eskuratzeko; Iriart alarguntsa izan zen ekimenaren erantzukizun ageriena eraman zuena: 5.905 libera ordaindu behar izan ziren orduan dena segurtatzeko. 1922an, 15.000 liberatan saldu zion andre horrek komentua "La Toulousaine" Elkartasunari, berau eratu baitzen frantziskotarren ondasunak bilduz joan zedin eta, azken finean, dena berriro erlijiosoen eskuetara eramateko (Dedieu 1988: 9-10).

Komentua ixtearekin (eta ondotik gobernariek jarri zuten begi zorrotza tartean zela), fraideen egoera guztiz aldatu zen Donapaleun: halabeharrez, komentutik kanpo geratu ziren, baina ahal zutelarik herrian bertan. Herritar ongileen etxeetan babestu zen bat edo beste, eta norbait Serora frantziskotarren Ospitalean. Ahal zen moduan fraide-bizitza antolatu zutenean, Donapaleutik bertatik saiatu ziren aurreko urteetan ondutako emaitza pastoralak zaintzen.

Donapaleu eta Paueko komentuak elkarturik eraman ziren, aldi batez bederen, Nagusi bakarra zutela. Bakoitzaren bizilekua familia adiskideren batena izan zitekeen, edo Sta. Elisabet Egoitza, fraideok egunean birritan elkartzen zirelarik, jatordu eta otoitzetan. Azpimarratzekoa da Leon Landaburu duzunariztarra izan zela hamarkada batez Donapaleuko frantziskotarren herritarrekiko euskarazko lan pastorala eraman zuena (Hirugarren Ordenako Senitarteen ardura, bereziki, baina baita Misioaldi eta erretiroegunak ere: 1905-1915). Egoera hau ez zen, ordea, gobernarien gustokoa, eta beste behin ere eraman zituzten auzitara fraideok (1912); hala ere, batez ere Serora Frantziskotarren laguntzarekin kontatuz, 1925a arte beti egon zen Donapaleun frantziskotarren[ofm] bat (Dedieu 1988: 12-14).

Momentuz, ba, fraiderik gabe geratu zen orduan Donapaleu (1925); hala ere, mugaz bestaldeko gertakariek (Espainiako II. Errepublika, 1931), ostera ere mugaldea astindu zuten. Urte hartako maiatzean bertan, Akitaniako Probintzi Kontseiluak aurreikusita zuen Donapaleun Hegoaldekoei eskain zekiekeen aukera, eta badirudi, hori zela eta, harremanik izan zutela Nagusiek. Ekainekoa da Arantzazuko Probintzia hegoaldetarraren lehen erabakia, Donapaleuko Etxearen bidezko irtenbidea begira zedin, betiere fraide gazteen ikasketen segida segurtatzeko asmoz.

1931ko abuztuan egin zuen Egiluz Hegoaldeko Probintzialak ikustaldi bat Donapaleura, eta berehala jarri zen Akitaniako R. Giscard Probintzialarekin harremanetan. Abenduan onartu zuen Arantzazuko Probintziak bere fraide-taldea Donapaleun biltzea. Udazkenean Aita Elias Zulaika Bordelera joan zen frantsesa ikastera, eta Arantzazuko Probintziako Definitorioak berau izendatu zuen Donapaleuko Nagusi abenduaren 21ean. Hilabete bereko 30ean sartu ziren Hegoaldeko fraideak Donapaleuko komentuan (ACD II: 408, 411, 417; Zarauzko Kronika I: 345).

Hala ere, laster –urtebeteren buruan– ikusi zuen Arantzazuko Probintziak fraide-ikasleekiko xedea (gazteen soldadutza saihestearena, alegia) agian Penintsulan bertan edo Amerikatan hobeki lor zitekeela, Iparraldeko Etxe honetan baino (1932ko abenduan). Iritzi horren ondorioz, 1933ko uztailean utzi egin zuten Etxe hau hegoaldetarrek, eta E. Zulaika Nagusia Zarautzen zegoen hilaren 18an (Zarauzko Kronika I, 371; ACD II: 423, 432).

Hilabete batzuk geroago, Penintsulan urak harro zetozen, eta 1936ko apirilean beste eske bat iritsi zen Hegoaldetik, oraingoan kaputxinoena (Aita L. de Yabar Probintzialarena), aurreikusten ziren egun txarretan Etxea babeslekutzat erabil ote zezaketen galdetuz. Kasu honetan ez zen aitzina egin, agian jada akitaniarrek berriro itzultzeko asmoa zutelako (Dedieu 1988: 14-15).



Donapaleu: Nafarroa Behereko Anaia frantziskotarrak. Juan Jose Iturriotz eta Marie-Gabriel Sallaberenborde. (Argazkia: 2002).

EUSKAL HERRIAREN ZERBITZUANAGO (1938-2000...)

Probintziaz kanpokoak Donapaleura begiratuz zebiltzan hartan, Etxe horretarako eskubide osoak zituen Akitaniako Probintzia ez ote zen gogo-berotuko eta hiri nafar honetara itzuliko? Ibili ere, herritarrak fraideei deika baitzebiltzan.

1935ean Donapaleura etorri zen Aita Benoît Lay —Tarbeseko gazte apaiztu berria—, Hirugarren Ordenako Senitarteari ohiko predikua egitera. Ez zen kanpotik zetorren lehenengoa, noski; baina, hirugarrendarren erreguak entzunik, bihotz-beroturik bihurtu zen, eta baita Probintzialarengana jo ere zuzen-zuzenean, donapaleutarren deia eramanez. Nagusiak beste erronka batekin erantzun zion Aita Benoît-i: "Apprenez le basque et nous verrons ensuite".

Ikusten da, ba, fraideen aldetik zailtasunetako bat non zegoen: etortzekotan, euskara ikasita etorri behar zen, eta ez zen hau, nonbait, baldintza samurra. Piarres Lafitte kalonjeak izan zuen orduan hor lekua: Aita Benoît-ek gogor heldu zion euskara ikasteari, eta bi hilabeteren buruan egin ahal izan zuen euskarazko bere lehen predikua. Laster, alemaniarren eskuetan atxilotuta zegoelarik ere saiatu zen euskaldun preso lagunekin mintza-praktika egiten (Dedieu 1988: 26, 44, 51, 64).

Aita Lay-k erakutsi zuenez, bete zitezkeen Euskal Herrira itzultzeko baldintzak. Asmoa keinu pertsonal horrek indartuta eta Probintzialaren aldaketak ere lagundurik, 1938ko otsailaren 7an itzuli ziren frantziskotarrak 1903an bortxaz utzi behar izan zuten komentura (Dedieu 1988: 26).

Erabaki harekin garai berri bat hasi zen. Ondoko historia, hiru epetan bana dezakegu: 1) Fraide-Senitartearen birlandaketa pastoral eta sozialeko urteak (1938-1960). 2) Elizaren eta Elizako euskal inkulturazio-garaia (1960-1984). 3) Berbiderapen-urteak (1985...).

Birlandaketa pastorala (1938-1960)

Hogeita bost urte eskaseko epe hau, batez ere hasieratik bertatik Probintziak marraztutako Proiektuari jarraikiz egin zen, berriro bertako pastoralari helduz eta Seminarioaurreko Ikastegia zainduz.

Betidaniko zeregin pastoralak utzi gabe, Probintzi mailako proiektu jakin bat eman zitzaion orduan komentu hartu berriari: Euskal Herri hain elizkoian fraidegai gazteak bilatu behar ziren frantziskotar[ofm] izateko. Asmoa bideratzeko bi hezkuntza-gune jarriko ziren Donapaleun: a) Fraide-apaizgaitarako Seminarioaurreko Ikastetxea (Brive-n segida izango zuena), eta b) "Anaia Txikien" taldea, hau da, Anaia Laiko izan nahi zutenen hamabost urtetik gorako gazteentzako lehen Sarrera-Egoitza.

Zeregin bikoitz horrek eman zion komentu berrituari 1938-1960.etan izan zuen eginbehar nagusia, baina, aldi berean, gero eta gehiago



Donapaleu: Aita Areso (1797-1878) fundatzailearen irudi bakarra.

inguruko heziketa-premietara ere irekiz joan zen Etxea: fraidegaien prestatzea, eta inguruko herrixketako gazteen heziketa (Dedieu 1988: 26; L'Echo 1938: 2).

1938-1949.etan eskuratu ahal izan ziren komentuko gela-areto guztiak, eta baldintza hobez bideratu ahal zen Etxeko bizitza. Esan bezala, urte haietan fraidegaien erakartzea eta heziketa izanen da fraideen lehen ardura, baina fraide erdaldunek (gehienak halakoak ziren) izango dute zailtasunik horretan: "Le Basque a confiance en celui qui parle sa langue et se défie des autres qui sont pour lui des étrangers", dio barneko txosten batek (Dedieu 1988: 45).

Ikastegiaren lehen urte haietako haurrak izan dira Marie-Gabriel Sallaberenborde (1938), G. Courros, Xalbat Bellemur eta Manex Erdozaintzi (1943) frantziskotarrak, edo urtetan halakoak izandakoak (J.-P. Berrogain, J.-B. Urrutiager) (Dedieu 1988: 74). 1960a arte, urteroko bere labealdia eman zuen Seminarioaurrekoak (edo Eskolak, nahiago bada), lehenik haurrak Anaia Kristauen Parroki Eskolara bidaliz (1938-1943) eta gero, komentuko bertako Lehen Eskolan (1943-1960), Tillous anderea irakasle zela (1943-1954), ondoren Maddalen Elixondo (1954-1956) eta Piet (1956-1960) andereñoekin (Dedieu 1988: 47; Tokiko lekukotasunak).

Eskola honek bere elkarte babeslea ere izan zuen, "Association des Parents des Élèves de l'École St-Antoine" (1951), baina ez zuen sekula ikaslego handirik izan (onenean, urteren batean 20ren bat); hala ere, eskualdeko baserriei zerbitzu erosoa eskaini zien, haurrak hobeki eskolatu ahal izateko.

Fraidegai gisara Donapaleura apaizgaitarako bildutako mutikoak 127 izan ziren (1938-1960) eta beste 47 Anaia Laikotarako (1938-1950). Bertatik irtendako lehen euskaldun apaiztua G. Curros donazahartarra (Madalena auzokoa) izan zen (1955); ondoren etorriko ziren besteak: Bellemur eta Erdozaintzi (1958), adibidez (Dedieu 1988: 45, 56, 76-83).

Fraideak komentura itzultzean (1938), Hirugarren Ordena ere indarberritzen hasiko da, eta berehala sortu zen buletin berriemailea: "L'Écho Franciscain de Saint-Palais", hiru urtetan atera zena (1939-1941). Hirugarren Ordenaren ardura berritu egin zen, baina, uste dugunez, 1870-1900.etako mailara iritsi gabe. Esan beharra dago, gainera, komentua Lagunarte honen bidez parrokietako kristauarteetara iritsi baldin bazen, Eskeko Anaien bidez 20/25en bat herritara ere heldu ohi zela, hau da, ehundaka sukaldetaraino, betiere eske-lan hau beren eskuetan izan zuten M. Gabriel Sallaberenborde (1947-1972) eta Marie-Albert Bessagnet-en bidez (azken hau Donapaleutik bertatik 1945-1949 eta 1966-2000.etan, Pauetik 1949-1963.etan). Eskeko lan hau, zabalena bederen, 1973az geroztik utzi egin zen (Dedieu 1988: 44, 45, 50; Tokiko lekukotasunak).

ELIZAREN EUSKAL INKULTURAZIO BERRIAN (1960-1984)

1960.eko urte ingurua eman daiteke aro berri baten hastapen-muga bezala, urte-inguru

DONAPALEUKO NAGUSIAK (1851-2000)

1851	Lorentzo Izagirre
1856	Manuel A. Beobide
1861	Pedro Mª Argaia
1863	Jean P. Peyré d'Alcantara
1865	Joaquim Aguilar/Sda.Fam.
1868	J.-P. (Ange M.) Peyras
1871	Jean (Jean-Joseph) Fabre
1874	P.- R. Pontvianne (de Yssingeaux)
1877	Jean Mélis de Ste-Eulalie
1878	Joaquín Aguilar (de la Sda.Familia)
1879	P.- R. Pontvianne (de Yssingeaux)
	1880: Lehenengo Esklaustrazioa.
	1886: Legez isilpeko itzulera.
1891	Fabien Urrutibeheti (Cr. Ithorrotze)
1892	P.-R. Pontvianne (de Yssingeaux)
1897	Jean Mélis de Ste-Eulalie
1902	Basilide M. Laborde
	1903: Bigarren Esklaustrazioa.
	Fraideren bat edo beste, herrian.
	1931-33:Hegoaldekoak Donapaleun.
	1938: Akitaniarren itzulera.
1931-33	Elias Zulaika (pres.:Arantzazuko Pr.)
1938	Hilaire Bury (pres.)
1938	Amé Jorand
1942	Paul Rothenburger
1945	Paul Rothenburger
1948	Paulin Bédrune
1949	Amé Jorand
1951	Laurent Bertrand
1954	Laurent Bertrand (†1956)
1956	Barthelémy Laboirie (pres.)
1957	Calixte Geniès
1960	Léonard Bohler
1963	Xalbat Bellemur (goard.)
1966	Xalbat Bellemur
1969	Abel Moreau
1972	Abel Moreau
1975	Santos Beloki
1978	Santos Beloki
1981	Santos Beloki
1984	Joan Jose Iturriotz
1987	Joan Jose Iturriotz
1990	Joan Jose Iturriotz
1993	Joan Jose Iturriotz
1996	Joan Jose Iturriotz
1999	Joan Jose Iturriotz

Iturriak: Sabarots 1996: Annexe 4. Pavie 1910: 19 (Beobide: 1857), 33 (Alcantara: 1860), Eta nireak.

horretan eta komentuaren ingurumarian hainbat euskal kultur ekimen sortzen delako, alde batetik, eta Kontzilioak Elizara ekarritako asmo-berritzearen ondorioz.

Hasteko, urte hauetan bigarren epealdiko lehenengo fraide euskaldunak datoz komentura apaiz eginda (Erdozaintzi eta Bellemur, biak 1960an). Bellemur, Nagusi izendatu zuten (1963-1969), eta urte berean Urrutiager ere Donapaleura bildu zen. Mementoz, Erdozaintzi erbestera joan arren (1963-1972), begiak hemengo asmoetan zituen ondoko urteetako proiektuak lantzen. Bien bitartean, Hegoaldetik indar estimagarri bat heldu zen B. Mendia Arantzazuko Probintzialaren erabakiz: S. Beloki, ondoko mende-laurdenean euskal herrietako euskarazko pastoralean bizkorki lagunduko zuena (1965-1990).

Lehendik zetorren ikastetxe eta heziketa-proiektuak beste biderik hartu zuen 1960.etik aurrera: fraidegaientzako talderik ez da osatuko, baina inguruko mutiko gazteentzat "kantina" jarriko da, Donapaleuko ikastetxeetara datozen mutikoentzako jatordu-etxe eta kristau heziketarako bizileku gisan (1960-1990). Besteak beste, M.-G. Sallaberenborderi esker haur euskaldun hauek harrera eta giro onak aurkitu ohi zituzten komentuko bizitokian.

Etxe proiektuaren inkulturazio-gogoa gero eta argiago agertuko da, Senitartera bezala ingurura eraman nahi diren ekimenetan ere. 1975etik aitzina bi hegoaldetar izanen dira etxeko Nagusi (Beloki, 1975-1984; Iturriotz, 1984...), horrek ekar ditzakeen ikusbide berriekin. Dena den, Iparraldetik eta bertarako pentsatutako zerbait izan da urte horietan Donapaleuko komentu hau.

Laster, 1968tik edo, Euskal Herriaz eta beronen inkulturazioaz zuzenkiago arduratzeko talde baten premia ere sentitu zen, eta Erdo-

zaintziren gidaritzapean gorputz harturik joango da xede hori. 1972tik aurrera Domintxainen eratutako "Anaitasuna" euskal Senitartearen bidez erantzun nahi izan zitzaion kezkari, Donapaleutik lagundu eta biritxitasun anaikorrean ulertua; berau izan zen Iparraldean —"Jakin" taldea Hegoaldean bezalatsu— frantziskotartasunetik euskal kultura-gizarteen zerbitzuan berariaz pentsatutako talde instituzional ofizialki onartua (1972-1982).

Eta pastoraltzara gatozela, komentu honen misio-tradizioa, berriro ere, Nafarroa Garaiko frantziskotar baten eskutik berbiztu zen. Iparraldera iritsi eta hurrengo urtean, S. Beloki Hazparneko misiolari diozesitarrekin ariko da lanean herriz herri (1966-1969), eta ondotik Ostibarreko apez-taldean jarriko zeregin berarekin bost urtez, egoitza Jutsiko erretore-etxean duela (1969-1974). Bertso-eskolen sortzean izan zen, eta euskarazko eliz irratsaio berrietan ibili ere. Ondoko hamasei urteetan (1976-1990) parrokietako "adorazione", jaunartze eta mota guztietako predikuetan egingo du lan, deiei erantzunez —orain Donapaleuko komentutik bertatik—, Hegoaldera itzuli arte.

Aldi berean, komentuak euskal kultur lanetan hartu zuen parte: Gau-Eskolak Erdozaintzik abiarazi zituen (1976...), eta J. J. Iturriotzek eman zien segida, 1977tik aitzina; Alfabetatze, Kultur Aste eta abarretan eskurik izan zuen. Kulturgintza honetan bereziki aipatzekoa da *Herriz Herri* astekaria (1980-1990), Iparraldeko Barnealdean ahalegin aurrerazale batez M. Erdozaintzi-ren inguruan sortua. Berau izan zen lehen zuzendaria, eta J. B. Etxeberri bigarrena haren heriotze-ondotik, kudeatzaile J. M. Galant zelarik (1984-1990). 1.000 ale atera ohi zituen, inoiz —"Herri Urrats" zelarik eta— 5.000 saltzera ere iritsi zen. Haatik, aurrera-asmo guztiok beren muga hitsa izan zuten, 1982-1984.etan, Bellemur eta Erdozaintzi beren heldutasun emankorrenean hil zirenean. Halabeharrez eta borondatez, molde berri bateko bideak urratu beharra agerian azaldu zitzaien Donapaleuko fraide arduradunei (Maiatz 1995: Iturriotz, 79-85; Galant, 87-89).

Etxea berbideratzen (1984...)

Aurreko urteetan burututako lanak zekartzan iradokizunek Etxearen segida eta berrikuntza aldi berean sustatzera sakatu dute Donapaleu azken urteetan.

Komentuak bere nortasun sozio-erlijiosoari eutsi nahi izan dio beti, eta ahal izanik, datorkeen fraide-eskastasunari aurre egin, Etxeak berean iraun dezan eta herritarren kristau erantzumena akuilatu du. Komentuaren jabetasuna betiere "Association La Toulousaine" elkartearen eskuetan jarraikitzen da, baina etxearen kudeakuntza sozio-pastoralerako "Zabalik" Elkarte sekularra eratu da (1993an bere lehen Biltzar Nagusia), eta berau da orain fraideekin batera Etxeko nondik norako nagusia begiratzen duena. Azken urteetako fraidegaien eskasian ere, B. Merkatbide da azkenik fraidetu zen Iparraldeko frantziskotarra[ofm] (1990) eta orain Probintziako Nobizio-Maisu dena (2000)

Bestalde, esan beharra dago —frantziskotarren komentu gehienetan bezalatsu— hemen ere muntarik handiena izan dutela bertan bizi izan diren fraideen nortasun eta karismek. Hala nola, ezingo da ahantzi Bertrand Duclos Anaia: 1984an, Erdozaintziren heriotze-ondoan, etorri zen Donapaleura, eta laster gaixoak kolpaturik ere, hil arte eutsi zion lanari (†1995). "Pirinioetako haurra", esan ohi zuen bezala, buruz ongi jantzitako gizona zen, antikolonialista suharra, eta ekimen handikoa. Lan iraunkorra egin zuen Akitaniako Probintzian Euskal Herriaz albiste argigarriak ematen, *Franciscains d'Aquitaine. Atellier "Justice et Paix" - Pays Basque* berripaperaren bidez (1985-1995). Haren gogoa bizirik ageri zaigu pertsonalki sustatu zituen taldeetan ("Vivantes Cultures", munduko kulturei zegokiena: 1989) eta lagundu zituen kanpotik etorritakoetan ("Gizona gizon", 1987-1994; "Rompre le silence", Euskal Herriko gatazkei buruzko taldeak: 1986-1987).

Oro har, "Fedea, Kultura, Ekumenismoa" deritzan artxiboko agiri batek ongi aurreikusi zuen Donapaleun 1990.etan egin den lana: sarri eman dira hitzaldiak, bideo-saioak, jaialdiak ere hiru ideia ardatz horien inguruan, kasu bakoi-

Donapaleu: Fuljentzio A. Zabala (1772-1847), Aita Aresoren ongile bilbotarra.

tzean berezilariak bilatuz, Biblia aztertzeko bezala (M. Etxehandi, L. Durban; "Cahiers du Val" deritzan talde bibliazalea), frantziskotartasuna azalduz (B. Duclos, P. Domergue, J. Caminade, G. Caunegre), elizen arteko harremanak indartuz (P. Mothes), munduko beste herriak kontutan hartuz (P. Olhagarai/S. Martinon, G. Jeusset, J.-B. Bonnat), Euskal Herriko kulturaz argibideak bilduz (Cl. Labat, B. Boloki), eta unean uneko gai biziak aztertuz (laikotasuna, emakumea Elizan, sektak, apaiz langileak, indarkeria, etab.). Hauekin batera, urteoro bizpahiru aldiz musika-kontzertuak eskaini izan dira (Amikuze, Iparralde, Hegoalde eta atzerriko kantari eta taldeekin).

Gehienbat frantsesez eman diren mintzaldi horien parean, euskal kulturari behatuz "Manex Gogoan" taldeak (1994an sortua) egindakoak aipatu behar dira: Erdozaintziri omenaldia, hitzez, argitalpenez, kantaldi eta antzerkiz burutu zena (1994). Orduan jaiotako eta Euskal Herriaz diharduten "Otsail Ostegunek" 2002.ena arte iraun dute bederen. Komentutik bertatik lagunduak nahiz ekintzale adiskideek gidatuak (*Maiatz*, etab.) ez dira falta izan. Ezin da, gainera, ahantzi "Manex Erdozaintzi Liburutegia" eratu dela komentuko gela batean, haren liburu-sortak bildu eta osatuz (1986) eta ondoren ere argitalpenez are gehiago hornituz. Euskal kezka honekin loturik dago, *Egunkariaz* baliatuz eta sustatu izan den alfabetatzea.

1990.etako hamarkadan berritze-lan gaitza burutu da komentu honetako eraikinean, batez ere bere barnea egokitzen, Guichon anderearen herentziari esker. Egun, ba, barnetegi baterako zerbitzu egokiak ditu hogeiren bat lagunentzat, fede berritzeko nahiz egonaldi kulturaletarako.

2000. urtera iristean, bizpahiru aldetatik dator Etxe honetara asmo berririk: a) Euskal Herriak Elizarekiko izan ditzakeen eskakizun eta galdeetatik (inkulturazio jatorragoa, zerbitzu sozial ezberdinak, ekimen herritarretarako laguntza, etab.); b) Bigarren, Frantziako frantziskotarrengandik, zeren eta berrikitan eratutako Probintzi banaketan Etxe historiko honi bere lekua berrasmatu beharko baitiote; eta c) Komentuak Santiago-Bideko herriarteko harremanetan izan dezakeen betekizunetik, izan ere azken hau preseskiago aintzakotzat hartzekoa baita ("Santiago-Bideaz Udazkeneko Unibertsitatean" parte hartu zenetik batik bat: 1994).

Batez ere 1990.etan gora egin duten Santiago-Bideko bidaiari eta erromesentzat harreraetxea bilakatu da komentua, bertatik iragandako jende-kopuruak erakusten digunez: 174 lagun (1992), 267 (1993), 299 (1994), 545 (1996), 604 (1997), 943 (1998), 1.340 (1999). Ez da hau batere harritzekoa, Amikuzetik pasatzen baitziren garai batean Santiagorako bideetako hiru (Paris, Vezelay eta Le Puy-tik zetozenak), eta, bestalde, San Frantziskoren —eta beronen jarraitzaileen— bizimolde erromes eta ibiltaria ezaguna baita historian. Horrez gain, herrien arteko elkarren ezagumendu hobe baterako tresna egokitzat hartu dute Donapaleuko frantziskotarrek Santia-

go-Bidearekiko harrera-zerbitzua (Tokiko lekukotasunak).

XXI. mendeko hasiera honetan, Donapaleuko komentua da Euskal Iparraldean historia eta izpiritu frantziskotarrek duten tresna instituzional baliagarriena (are gehiago Baionako kaputxinoek beren Etxea itxi duten honetan), eta espero daiteke zazpi mende eta erdiko historia zaharrari bezala azkeneko mende eta erdikoari beren luzapen emankorra segurtatuko diela ondoko hamarkadetan.

Herri ezberdinetatik etorrita, berehala osatuko den Anaiarte anitzak du orain bere hitza (2002).

DONOSTIA-EGIA: SAN FRANTZISKO KOMENTUA

(...1794-1836, 1923...)

Donostia: Elizako beiratea.

Gipuzkoa Herrialdeko Hiriburua da Donostia. XIX. mendeko bigarren erdialditik hona hiri turistiko bilakatu zen, Iparraldeko Miarritzekin bateratsu. Gaur egun, hiri turistiko eta kulturala da Donostia, eta merkatal zerbitzuak eskaintzen dizkio Probintziari.

Garai bateko murruak eraitsi eta inguruetako padurak lehortzen hasi zirenetik garatu zen Donostiako hiriztapen modernoa. Hogei urtetan azpiegiturazko baldintzak aldatu zitzaizkion Donostiari, gerora erabakigarriak izango zirenak: errepide nagusia azkenik Donostiara ere iritsi zen (1847), hiriburutasuna eman zitzaion (1854), inguruko landetara ireki (1863) eta Madril-Irungo trenbidea ere heldu zen (1864).

Horren arrastoan, hiriko bizilagunek honela egin zuten gora: 5.588 ziren 1800ean, eta gero: 15.911 (1857), 21.670 (1877), 37.812 (1900), 113.776 (1950), 180.344 (1996).

Egia Auzoa Urumearen eskuinaldean dago, eta bertako Atotxa Pasealekuan aurki dezakegu frantziskotarren[ofm] Komentua, aurreko mendeetakotik bostehunen bat metro eskasetara. Auzo honek 1925an 5.081 bizilagun zituen; gerraostean egin zuen Egiak bizilagunetan gora, 1975ean 20.082 izateraino. Eta horrekin batera hiriztatu zen Auzoa.

1836an desagertutako Komentuak baserriarte zabal bat ezagutu zuen Egian, eta XX.ean, ostera, hiria inguruan nola jasotzen zitzaion ikusi ahal izan zuen berriak. Ia berrogei urtez Auzo honetan lan pastoralik zeraman eliza bakarra zen frantziskotarrena, San Ignazioko Parrokia Auzotik kanpo baitzegoen, Gros Auzoan.

Horregatik guztiagatik berariazko ezaugarriak ditu Komentu honen historiak.

LEHEN DONOSTIA FRANTZISKOTARRA

Alde Zaharreko murruak hautsi ondoren ekin zion Donostiak bere hiri-hedapenari (1863), lehenik hegorantz (San Martin eta Amara) eta gero mendebalderantz (Gros eta Egia: Urumea ibaiaz beste aldera, alegia). Eskuinalde honetako Egia Auzoko garapena —hiritarra eta demografikoa— batez ere 1940-1970.etakoa izan da: 5.081 bizilagun 1925ean; 12.000 (1950), 20.082 (1975), 13.291 (1996ko eremu mugatuagoan). Egiako Auzo honetan dago lekuturik frantziskotarren[ofm] komentua, Atotxa deritzan Pasealekuan.

Euskal Herriko Hiriburuen artean, Donostia izan zen Aro Modernoan presentzia frantziskotar urriena izan zuena: fraiden komentu[ofm] bat, baina kaputxino, komentutar eta emakumezkoenik bat ere ez. Fraideen lehenengo komentua Antiguako Auzoan ireki zen (1516), bigarrena

San Martinen (1569), baina biak ere berehala itxi ziren. Azkenik, Egian, Txurrutal zeritzan tokian, eraiki zen Donostiako komentu iraunkorra (1606-1836). Obserbantziako Arantzazuko Probintziako komentu errekolektoa izan zen berau.

Egia-Txurrutaleko komentuari "Jesusen Izen Santuarena" zeritzaion ofizialki, edo inoiz "San Frantzisko", eta sarrita "Donostiako Pasaiakoa" ere (Urumeako ibi edo zubi ondoan zegoelako, noski). Padura eta hondartzaz inguraturik zegoen, baina XVIII-XIX.etan arboladi eder bat ere izan zuen ondoan, pasealeku bezala.

Gipuzkoa "nazioko" errekolekzio-etxea zen berau, eta horregatik bere Nobiziategia zuen; fraide-kopuruz tamaina ertainekoa zen: 29 erlijioso 1680an; 36 beharbada, 1768an. 1761ean esaten zaigunez, euskal eskola ere bazuen: *aquí se enseña la Escuela Bascongada*, dio Ordóñezek (Intxausti s. d.: 26-27). Gaur egungo Ibilgailuen Udal Biltegiko orubean zegoen komentuetxe hau, eta hainbat grabatu zaharretan ikus daiteke bera, Zuhaizti parkean.

Bestalde, Donostiak ez zuen klausura itxiko emakumezko komentu frantziskotarrik izan 1866a arte (Loiolako sorkundetarrena Kristobaldegin). Horretan, Donostiak ez zuen izan gainerako euskal Hiriburuekin antz handirik, batez ere Bilborekin.

TXURRUTALEKO KOMENTUAREN AZKENAK (1794-1836)

Konbentzioko Gerratean (eta ondokoetan), hirietako murruz kanpoko eta ondoko komentuetan ohi zen bezala, eraikinak, bere lekumen estrategikoagatik, erasoka zetozenentzat hiriaren aurkako abia-puntu naturala ziren, eta gerrate bakoitzean arrisku gorrian aurkitu ohi zen komentu hau ere. Horregatik, gudaroste frantsesa ia gainean zutela, fraideek alde egin zuten bertatik, eta Zarauzko komentura joan. Urtebete lehenagotik, erasoaren beldur zirelako, Etxeko nobizio bakarra eta bere Maisua Deba-Sasiolara joanak ziren (Solaguren s. d: 78).

1807ko urrian lehen tropa frantsesak Portugalen gerra egiteko Penintsulan sartu zirenean, ez zuten Donostian geratu behar handirik eta aurrera egin zuten. Komentuak ez zuen ezbeharrik izan; baina, 1808ko udaberrian, Madrilen gerra lehertu zenean, hemengo egoera ere aldatu egin zen. Murat-i utzi behar izan zitzaion komentua, osorik edo partez, eta frantsesek ospitale militar bihurtu zuten berau; gerrate osorako balio izan zuten eliza-komentuek. Baratza ere errentan edo utzia izan zen, 1809ko legeen arabera komentuak desjabetu zirenean (Solaguren s. d: 87, 125-126).

Bien bitartean Fraide-Senitartea Urnietako baserri batera joan zen, agian Galardi Goardianoaren jaiotetxera, eta 1814an handixe hasi zituen bere ahaleginak Aita Galardik, betiere komentua eta bertako ondasunak berreskuratzeko. Baina komentuaren gain interes anitz zegoen begira, eta ez garaitutako frantsesak bakarrik, haiek alde egitean armada espainola ere sartu baitzen bertako ospitalera. Hiriko Udala fraideak itzultzearen alde agertu zen, Egia eta Loiolako kristauen mesedetan, baina eliza bera eskuratzeko ere lanak izan zituen Galardik (1814). Bizitzen, komentu ondoko baserri batean jarri ziren fraideak, komentua bera noiz itzuliko zieten zain eta elizako lanak eramanez (Solaguren s. d: 98-99, 125-126).

1815ean, Nobiziategiaren eraikin-hegala behintzat uzteko eskatu zuen Galardik: Udalaren babesa izan arren, ezinezkoa gertatu zen hori, ospitalea leporaino beteta omen zegoelako, bertako arduradun militarrak erantzun zuenez. Hori zela eta, besterik ezean, fraideen baserri-bizilekuaren errenta ordaintzeko ordena eman zuten Madriletik (1815). 1817an, artean, arazoa konpondu gabe zegoen, eta, uste denez, 1822a arte ez zuten komentua eskuratuko ondoko baserrian zeuden fraideek (Solaguren s. d: 127-128).

Hirurteko Konstituzionala etortzean (1820-1823), Hiriko Udalari esker, Donostiako frantziskotarren[ofm] Etxea aurrera atera izan zen. Irakurtzekoa da horretaz ari den agiria, urte haietan tokian tokiko zenbait Udalek —konstituziozaleek ere— komentuen egon-iraupena nola defendatu zuen ikusteko. Donostiakoak arrazoi hauek eman zituen Txurrutaleko komentuaren



Donostia. Egia-Atotxako Komentua. (Argazkia: 2002).

Donostiako: Komentuko eliza, barrutik. (Argazkia: 2002).

alde: "Está ocupado de hospital militar [komentu hau, alegia]. Una gran parte de la población rural está asistida en sus necesidades espirituales por esta comunidad; reclaman aquellos labriegos la permanencia de ella y apoya esta solicitud el ayuntamiento constitucional; además, diferentes ciudadanos intramurales, representando que estos religiosos se ocupan en la enseñanza primaria de más de 200 niños, piden que no se les haga novedad y prefieren la supresión del convento de los dominicos [= San Telmo], ya que no pueden permanecer los dos". Eskari honen ondorioz irekita utzi zuen Gobernuak frantziskotarren[ofm] hau (1821). Bestalde, badakigu komentuko predikarien artean bi alderdi politiko kontrajarrietakoak egon zirela Etxe hartan, denak ere —arrazoi kontrajarriengatik— geroago zigorrik jasan zutenak. (Solaguren s. d: 155-156, 176).

Gerrate karlista hastean, komentu honetan 9 fraide Apaiz eta 2 Anaia Laiko bizi ziren; hortaz, garai bateko indarrik gabe ageri da Etxea. Gerrak ez zuen harrapatu hasieratik bertatik; baina, karlisten ekintza armatuak larriagotuz joan ziren neurrian, Udaletxeak komentuak bere eskuetan hartu behar izan zituen, Hiriko segurtasuna bermatzeko. 1834ko lehen seihilabetean eskuratu zituen komentu donostiarrak, eta gerra-gidaritza Rodil-ek hartu ondoren, Gobernuak Tolosa eta Donostiako komentu frantziskotarrak[ofm] hartu eta ixteko baimena eman zion. Fraideek, hori jakitean (eta Donostiako portura heldutako itsas untzian atxilotu eta erbestera bidaliko zituztela ere jakinda), alde egin zuten denek komentutik (Solaguren s. d: 289-191).

Ez dakigu zein etekin atera zion Rodil-ek komentuari: bertako fraide bat, J. M. Elortza, predikutan ibili zen Donostia inguruko herrietan liberalen kontra, harik eta atxilotu ahal izan zuten arte. 1835ean, Hiriari erasotzean, Sagastibeltza karlistak hartu zuen komentua, bere gotorgune bihurtuz. Berriz ere, fronte arriskugarrian bertan suertatu zen, beraz, Etxea.

Hurrengo orrialdeak: **Donostia:** J. Aranoaren ojiba margotuak. (Argazkia: 2002).

Donostia ondoan karlista-liberalen arteko gudua jo zenean, liberalen esku erori baino lehen karlistek su eman omen zioten komentuari, liberalek esan zutenez (1836ko maiatzean). Horrela, gerrako ekintza batean, desagertu zen Txurrutaleko komentua (Solaguren s. d: 291-292).

Gero, komentuko apurkinak ospitaletaletarako erabili ziren lehenengo (1836), eta Udalaren eskeari erantzunez, Hiriari eman zitzaion gero, gerra ostean (1840), bertan Ospitalea eta Erruki-Etxea egin zitzan. Komentuko murruetako harriak, asko, Sta. Katalina zubia eraikitzeko hartu ziren, baina eraikineko harri gutxi geratu bada ere, Donostiako "San Frantzisko Pasealekua" (gerora "Duque de Mandas" deitu dena) eta "Miserikordia kalea" komentu honen oroigarriak izan dira ondoko hamarkadetan (Solaguren s. d: 292).

Komentu berria eta inguru soziala (1923)

Aro Garaikideko ondoko historia testuinguru sozio-erlijioso eta bide berrietatik egin da, beste hainbat Institutu Erlijioso frantziskotar eta ez-frantziskotarrekin batera. Hala ere, Egia-Atotxako komentu berria Txurrutalekoaren segida dela esan daiteke, barne eta kanpoko gizarte berri batean izanik ere (Intxausti s. d.: 30-38).

Frantziskotarren Probintziak izanberritzean, fraideen artean kaputxinoek izan zuten lehenengo Etxea Donostian (Garibai kalean: 1909; Okendon, 1913). Hiri honetan XX. mendean 15 Etxe frantziskotar izatera iritsi dira fraide eta mojen artean, batez ere Kongregazio modernoenak, baina komentutar edo hirugarrendar erregularrik ez da Hirian sekula egon. Testuinguru horretan lekutu behar da, ba, Egia-Atotxako komentuaren historia.

Egiako San Frantzisko komentua 1923an eraiki zen, Aita J. A. Urkiola Probintzial zelarik eta Nikolas Bikuña Probintzial izanaren gidaritzapean (ekainaren 3an bedeinkatu zen lehen kapera). Etxagintza proiektua Agirrebengoa arkitektoarena da, baina eraikina ez zen jaso bere jatorrizko osotasunean. Eliza-komentuen estreinaldia berehalako batean egin ahal izan zen, 1926ko maiatzaren 12an.

Eraikina —Agirrebengoak amestu zituen fineziak utzi zirenez gero— ez da gertatu estetikoki balio handikoa; baina elizak, behintzat, barne-espazio erosoa du, eta gogoan hartzeko moduko margolanak ditu, gainera, Aldare Nagusiko bere elizburuan: J. Aranoak San Frantziskoren bizitzako zenbait gertaerari eskainitako freskoak. Oro har, eliza-komentuetako eraikinek, lekumenduaren baldintzengatik, arazo praktikorik franko izan dute, batez ere bere sotoetan.

Komentu hau sortu aurreko frantziskotarren lurralde-banaketan (1915), Donostialdea eta Atotxakoak Nafarroan gerora izango zituen eskualdeak Zarauzko komentuari zegozkion, baina 1923an bertan izendatu zitzaion Egiako Etxeari bere barruti pastoral-ekonomikoa: Donostia eta Irungo Artziprestazgoak, Bidasoaldetik Nafarroa euskaldunera sartuz (Bortziriak, Imotz Ibarra, Basaburua Ttipia eta Aldudeak hartzeko). Komentuaren barruti hau ekialdera hedatzen zen, beraz, eremu hiriztatu eta baserrialdeak besarkatuz.

Egiako fraide-etxe honek Auzoan izan dituen zeregin pastoralekin batera, bestelakorik ere izan du Ordena barruan: Probintziako Nagusien egoitza ofiziala izan da (1925) eta, Donostia Hiriburu, zerbitzugune eta mugaldeko hiria delarik, fraide anitzek ikustatu izan du berau, eta askorentzat ostatu-etxe erosoa ere gertatu da.

Komentuaren historia pastorala bi ataletan banatu behar da: komentu-eliza soila izan zenekoa (1923-1965), eta azken urte horretatik honakoa, hau da, Parroki zereginak bere gain izan dituenekoa. Epekapen-arrazoi horrekin batera, ezin da ahantzi, gainera, 1965aren inguruetan ezarri behar dela Kontzilio-ondoak ekarri zuen erreforma, eta zertxobait geroago bakarrik 1968aren ondoko krisi erlijiosoa. Dena den, epekapen kronologiko horrekin batera egiturazkoak ere ezin dira albora utzi.

Komentua irekitzean, beste bi moja-etxe bakarrik zeuden Auzoan, baina gerora, XX. mendean zehar, 19taraino izan dira (fraide eta



Donostia: Elizako erretabloa. (Argazkia: 2002).

Donostia-Egia: *Eserita, ezker-eskuin:* Bitor Etxebarria, Felix Agirre, Iñaki Etxebeste, Juan Manuel Larrañaga, Jose Maria Arregi. *Zutik, lehen lerroan:* Sabino Aiestaran, Luis Antonio Bilbao, Jorge Gaintza, Jose Maria Bilbao, Zelestino Solaguren, Pedro Huizi, Migel Errandonea. *Atzean:* Bitor Garamendi, Manolo Pagola, Sebero Zinkunegi. (Argazkia: 2002).

moja, frantziskotar nahiz bestelako), eta horietako 12 dira egun bizirik daudenak. Beraz, Egiako komentu honek gainerako ia guztiak jaiotzen ikusi ditu Auzoan. Bestalde, Hiriko Parroki eremuetako banaketari gagozkiola, ohar historikoren bat egin beharra dago. Auzo honi zegokion Parrokia Gros Auzoan zegoen 1923an (San Ignazio), trenbidetik beste aldean. Orduko Donostiako Parroki antolaera (eta Urumearen eskuinaldekoa, noski) 1883an egina zen, eta 1959-1971. urteak arte atzeratu zen, ostera, XX. mendeko berrikuntza. Egun, 2000.ean, Egiak hiru Parrokia ditu: Maria Erregina (1959), San Frantzisko (1965) eta Arantzazuko Ama (1971).

Donostia eta Gipuzkoarako ere, Egiako Auzoan hainbat zerbitzu lekutu zen, irakaskuntza pribatuko ikastetxetan eta osasun-zerbitzutan. Auzoan bertako hazkuntza demografikoarekin batera, ezin dira baztertu, bestalde, horrek guztiak sortu zuen eske erlijiosoa. Komentuari bete-betean eta kasik bakarrik jardutea suertatu zitzaion ia mende-erdi batean

Besteak beste, Erlijioso-Etxe eta Parrokien sare-garapenaren kronologiak baldintzatu du Atotxako komentu honen iragan pastorala. Eliz sarearen barnean komentu-eliza honi suertatu zitzaion egiatarren eliz bizitza eratzea, izatez eskuetan zuen erakarmenagatik: igandetako Mezak, urteko Bederatziurrenak, Garizumetako Gogo-Jardunak, noizbehinkako Misioak, Ikastetxeetako Sakramentu-zerbitzuak, Komunitateetako eta Erietxeetako kapilautzak eta Sakramentu-zerbitzuak, etab.

FRAIDEEN SENITARTEA

Erantzukizun horiek bere bizkar hartzeko, gizarte-egituraketa oso bat gorpuztu behar izan zen Egian, fraideen Senitartetik hasi eta eliz elkarte, kofradia eta lagunarteetaraino. Hortaz, azpimarratzekoa da komentuak eliz kristauartea ez ezik Auzoa bera egituratzen izandako betekizuna.

Atotxako Fraidearte frantziskotarra[ofm] ez da handia izan; esan daiteke, ia beti 20 lagunen azpitik egon dela fraide-kopurua, Probintziako Kuriari atxirik zeuden Nagusi eta lankideak barne. Orotara, 154 lagun zenbatu ahal izan ditugu bertako bizilagun egoiliar bezala (1923-1999). Hona zenbait urtetako datuak: 13 fraide (1933), 14 (1940), 21 (1964), 18 (1988). Epe honetan, komunitate honetako bizilagunetako

% 61 gipuzkoarrak izan dira, % 23 bizkaitarrak, % 7 arabarrak eta % 3 nafarrak; beraz, % 94 euskal herritarrak.

Bizilagunon hizkuntz gaitasunak, honela — hor, nonbait— bana daitezke: 121 izan dira euskaldunak (ia beti, elebidunak: % 79), eta 33 erdaldunak (% 21). Prediku-mundura gatozela, euskaldunetako 41ek ez du euskarazko predikurako arruntki gaitasunik erakutsi, eta 52k sermolari euskaldun jatorra izan da (jeneralean, elebidun osoa), gaitasunez eta praktikaz (gainerako euskaldunak Anai Laikoak dira). Lagun euskaldun eta ez-euskaldun guztietako % 34 euskal predikari jatorra izan da, baina % 79taraino hurrera daiteke aitor-entzuleen euskal gaitasuna. (Uler bitez zenbaki hauek, betiere, hurbilpen gisara). Bere gaitasun linguistikoarekin, inguruko gizarte elebidunera oso irekita egon da, ba, Atotxako fraidearte hau.

Komentuko gobernuan Nagusi izan direnetatik, urte-epe luzekoak dira batzuk (12na urte A. Mitxelena eta B. Garamendi; 9, Lasa), eta zenbaitek bigarrenez errepikatu du gobernualdia (A. Madariaga, N. Lekuona, F. Legarreta, I. Etxebeste, M. Pagola). Beste alde askotatik bezalatsu, etxearen zuzendaritzan Kontzilioak berritasun nabariak ekarri zituen: Komentuko Kontseiluak (*Discretorio*) Komentu-Kapituluari utzi zion bere lekua, hau da, fraide guztien batzar irekiari. Komentuko bizimoduen aldakuntza Senitarte horretako elkarrizketek bideratu dute, 1967aren ingurutik aurrera.

Fraideen lanak eta ekonomiak aldaketa estimagarriak izan ditu XX. mendearen bigarren erdialdian: garai batean, Meza, prediku, kapilautza eta limosnetatik zetozen diru-sarrerak, %90etik gora (1932an bezalatsu 1965ean), baina 1985ean % 49 da sarrera profesional eta erretiroena. Hemen ere XX. mendeko azken laurdenekoa da aldakuntza.

Fraidearteko egitura sozial eta ekonomiko horren ingurumarian bildu izan dira komentuak sortutako erakunde-sarea (*c.* 1925-1975) eta, zenbait urtetan, Egiako gizartea bera (*c.* 1940-1970). Etxea ireki eta laster heldu zitzaion eliz elkarteak sortzeari eliza-komentu honetan, eta bere lehenengo hirurogeita hamabost urteetan, mota ezberdinetako 15 elkartetaraino behintzat zenbatu izan dira bertan.

ELIZ ELKARTE ETA ERAKUNDEAK

Lehenengo hamabost urteetan (1925-1938) eratu ziren komentuko pastoraltzan zinez elkarte ardatzak gertatu ziren seiak: San Antonioren Jaierazko Batasuna, Hirugarren Ordena, Arantzazuko Kofradia, Frantziskotar Misio-Batasuna, Katekesia, Antoniotar Gaztedia; ondoko beste bederatziak, gehienak, Kontzilioaren inguru giroan jaio ziren eta pisu eta segida laburrak izan zituzten (1963-1979).

Frantziskotarren[ofm] garai honetako komentu gehienetan bezala, hemengo elkarte teorian zainduena (baina ez, nahitaez, sozial eta pastoralki azkarrena) Hirugarren Ordenako Senitartea izan zen (1926). Pastoral-ekinbide emankorrenak Katekesia (1932...) eta Antoniotar Gaztedia izan dira (1938-*c.* 1975); hala ere, San Antonioren Batasunak ere bazkide ugari izan zituen (248 lagun, 1926an, 5.000 biztanleko Auzoan, eta 990en bat 1955-1970, gehienak aurreko urteetatik zetozenak).

Hirugarren Ordenako Senitartea

Elkarte hau 1926an sortu zen komentu honetan, eta bere lehenengo hogeita bost urteetan milaren bat lagun izatera iritsi zen, eta berezikiago azpimarratzekoa da 1940. hamarkadan izan zuen goraldia. Hirugarrendartasuna, Lehenengo Ordenarekiko atxikimendua ongi adierazten zuen zerbait izan da, baina, tamalez, ezin daiteke esan hirugarrendar izateak bazkideei heziketa arautu eta zabalik segurtatu zienik, horretarako lan-plangintza formalik ez baitzen egon oso azken urteak arte.

Atotxakoarekin batera Antiguako hirugarrendarren Senitartea ere aipatu behar da, eta Donostian bertakoen ondoan, esan behar da, gainera, Egia-Atotxako komentu honetatik gidatu zirela komentu-barrutiko beste herrietako Senitarte sekularrak ere. Donostiako eta beste

DONOSTIA-TXURRUTAL ETA EGIAKO NAGUSIAK (1794-1836, 1923...)

1792	Pedro Beiztegi
1794	Migel Uralde
1797	Juan Ignazio Altuna
1800	Kristobal Kerexeta
1801	Pablo Errazti
1804	Jose A. Zumalakarregi
1806	Martin Ugartondo
...	Gerrate napoleondarreko hutsartea
1814	Raimundo Txorroko
1816	Raimundo Txorroko
1818	Raimundo Txorroko
1820	Frantzisko Etxagibel
...	Hirurteko Konstituzionaleko hutsartea
1824	Raimundo Txorroko
1827	Jose A. Zumalakarregi
1828	Jose A. Zumalakarregi
1830	Carlos Touset
1832	Carlos Touset
...	Gerrate karlista eta komentua itxita
1923	Nikolas Bikuña (pres.)
1925	Nikolas Bikuña
1927	Agustin Guibert
1928	Manuel Gorri (goard.)
1931	Aingeru Madariaga
1934	Aingeru Madariaga
1937	Arkanjel Mitxelena
1940	Arkanjel Mitxelena
1943	Julian Lasa
1946	Julian Lasa
1949	Julian Lasa
1952	Arkanjel Mitxelena
1955	Arkanjel Mitxelena
1958	Nikolas Lekuona
1961	Nikolas Lekuona
1964	Jesus Biain
1967	Migel Iñurritegi
1970	Fernando Legarreta
1973	Fernando Legarreta
1976	Bitor Garamendi
1979	Iñaki Etxebeste
1982	Iñaki Etxebeste
1985	Bitor Garamendi
1988	Bitor Garamendi
1991	Bitor Garamendi
1994	Manolo Pagola
1997	Manolo Pagola
2000	Bitor Garamendi

SAN FRANTZISKO ETA STA. MADALENAKO PARROKOAK (1965...)

1965-1967	Jesus Biain
1967-1970	Migel Iñurritegi
1970-1976	Fernando Legarreta
1976-1979	Tomas Gondra
1979-1998	Iñaki Etxebeste
1998-...	Jose Maria Bilbao

herrietakoen artean 3.000ren bat hirugarrendar gidatu zituzten hemengo fraideek, 1952ko datuen arabera. Atotxako hirugarrendarren Senitartea bere indar onean iritsi zen 1970ra, baina hori gehiago zen aurreko hamarkadetako ondarea, 1960.etako lanaren emaitza baino. Azkeneko hogeita hamar urteetan indarra galdu du, betiere taldetxo askoz mugatuagoren bati eutsiz.

Arantzazuko Amaren Kofradia

Kofradia hau, izatez, komentua baino lehenagokoa izan da Donostian (hasieran kaputxinoen elizan izan zuen bere egoitza, eta 1927tik aurrera Egia-Atotxan). Arantzazuko Santutegi frantziskotarraren arrastoan bete du Kofradiak ibilera, bere jaierazko jiteari eutsiz. Urteroko erromesaldia, irailetako Bederatziurrena eta betiko Katekesiaren babesa izan ditu zeregin nagusiena elkarteak. Gerraurretik talde handiegia ez bazen ere (242 bazkide, 1935), 1945 ingurutik aitzina hazkuntza handia izan zuen, mila eta gehiago izateraino (1950-1970).

Kofradiaren arrakasta hau Andre Maria honen Gipuzkoako Zaindaritzan, zenbait donostiarren lanean eta Santutegiko Basilika berriaren oihartzunean finkatu zen. Horren ondorioz, Atotxako Kofradia hau Donostiako Hiri osora zabaldu zen, eta kalez kale eta etxez etxe ezaguna da

Donostia: "Sasia sugarretan" (X. Alvarez de Eulate).

izan zuen harrera soziala (1.588 etxetara iritsi ohi zen Ama Birjinaren kaperatxoa).

Katekesia

Kofradia horren babes ekonomikoak lagundurik abiarazi zuten frantziskotarrek bertako Katekesia (1932); handik aurrera etenik gabe bere indar onean egon izan da, gaurdaino. Katekesia, elkartea baino areago eginbide bat zen Etxeko pastoralaren barnean, eta, Parrokia izan aurretik ere (1965), Egia-Atotxako haur-gaztetxoentzako pastoral-ekimenik zainduena.

Katekesiaren garairik onena, edo ikaslekopuruz ugariena, agian 1940-1970. urteetan jar daiteke: izena emandakoak 600-700en bat eta 50-60ren bat dotrina-emaile izan ohi zituen. Izatez, Egia Auzoko haurrak "dotrina" honetara biltzen ziren. Hemen ere, Kontzilio-ondoak bere molde berriak ekarri ditu, eta katekesiondoko heziketa erlijiosoari ireki zaio bidea, Sendotzarako ikastaro edo heziaro berezia irekiz.

Katekisten prestakuntzak garrantzia handiagoa izan du azken hamarkadetan, hain zuzen gizartearen deskristautzea ere gogoan hartu delako; horren ondoan, haurren gurasoei ere, betidanik zegozkien erantzukizunetan, lankidetza eta ardura berriak eman nahi izan zaizkie 1970.etatik aurrera.

Antoniotar Gaztedia

Egia-Atotxan kristau sekularrei eskaini zaizkien elkarte-moldeetan bizkorrenetakoa, eta bertako gizartean betekizun azkarrenetakoa izandakoa "Antoniotar Gaztedia" izan da. 1938an sortua, laster bi adar izan zituen, mutilena eta neskena. Era beretsuan zaindu zituen fede-heziketa, kultura, aisia, eliz jaierak eta gazteen arteko harremanak.

Artean Egiako gizarteak barne-egituraketa eskasa zuenean, "Gaztedia" gertatu zen Auzoan indar gazteak biltzeko topagune ardatzena: adibidez, 1950.etan 300en bat gazte bildu ohi ziren elkartean, bi adarretan ia juxtu erdibana banaturik. 1970etarainoko bizpahiru belaunetan oroitzapen iraunkorra utzi du elkarte honek Egian.

Beste zenbait elkarte

Aipatutako elkarte hauen ondoan, geroago sortu edo eratutakoak ez zuten izan, bazkidekopuruz, pisu bera, eta bizialdi luzerik ere ez (*c*.1965-*c*. 1975). Batzuetan, Auzorako lan eginez ere, gehienbat auzoz kanpoko lagunez osatzen ziren elkarteak ditugu (adibidez, "Conferencia de San Vicente de Paúl"en kasua da: 1939). Inoiz, Auzokoak nagusi izan arren, auzoz kanpokoak ere partaide esanguratsuak gertatu ziren (Arantzazuko Kofradian, adibidez).

Egia-Atotxako elkarteetan hiru gisatako lagunarteak izan dira: batez ere, edo bakarrik, deboziozkoak, heziketarako sortuak eta "gizarte-arazora" emanak. Lehen haietakoa izan zen, adibidez, "Adoración Nocturna" deiturikoa (1950-*c*.1994). Egiako garapen sozio-ekonomikoan, bi epe bereiz daitezke: 1960.etako garapenaren aurrekoak, eta ondokoak. Lehen aldi

hartan, Egian bizi-zailtasun latzak jasan ziren (jatorrizko bertakoen artean bezala etorkinen artean ere), harik eta 1980az geroztik, batik bat, erosotasun sozio-ekonomiko eramangarriago bat garatu zen arte. Lehen garai haietan, "Caritas" eta horrelakorik gabe, San Antonioren Batasuna ahalegindu zen janari-janzkiak banatzen eta familiei laguntzen.

Auzoko pobreziari eta langabeziari aurre egiteko, molde berriko elkarte edo bulegorik ere izan da komentuan, "La Voz del Prójimo" deitua, adibidez (1963-1967). Horren ondoren, Parrokia antolatzean, zerbitzu sozialak beste biderik izan dute, Diozesiko erakundeekin elkarturik.

SAKRAMENTU-BIZITZA, ETA PARROKIA (1965...)

Aurreko ohar hauetan frantziskotarren komentu-eliza hau sozialki nola eratu zen iradoki nahi izan dugu, edo nahiago bada, Egiako Auzoa bilgune erlijioso horretara nola inguratu zen aditzera emateko zenbait datu eskaini dugu. Baina, bistan da, komentua Auzoko kristauartearentzako Prediku eta Sakramentu-lekua zen batik bat, lehenik Kontzilio-aurreko moldeetan, eta gero, Kontzilioak ekarri zituen aldakuntza eta jite berriekin.

Komentuko elizan bertan eta bertatik kanpo eskain zitezkeen zerbitzuetan bete zituzten zeregin horiek frantziskotarrek (Auzoan klinika, ikastetxe eta gaixoen etxeetan; Hirian, eskatzen zitzaizkien laguntzen bidez; eskualdean aitortza eta sermoien bitartez). Elizako mota guztietako ospakizunetara gatozela, 1936ko "Relación de Cultos" deritzan batek erakusten du ongi, fededunen denbora nola "eliztartzen" zen komentu honetan, urte osoko egun, aste eta hilabeteetako, lanegun eta jaietako programa arautu bat tarteko zela. Hori dena guztiz aldatu zen Kontzilioko erreformaren bitartea.

1927-1968.etako urteetan izandako jaunartzeen albiste estatistikoa eskura dago, eliz ohitura eta jaunartze-maiztasunak ezagutzeko: 8.150 jaunartze 1927an; 40.100 (1935), 67.645 (1940), 80.175 (1950), 90.700 (1960), 94.452 (1968). Ondoko urteetako datu zehatzik ez da oraindik bildu ahal izan.

Komentu honetako predikuaren historian ez da hartu behar aintzakotzat bertako eliza bakarrik, baizik eta Hiria, Donostialdea, Gipuzkoako Probintzia eta berariaz Nafarroako Bortziri inguruak ere gogoan izan behar dira. Predikuen estatistikan, komentuaren sortze urteetatik 1955era edo doan gorako kurba bat daukagu, eta gero, Kontzilioaren arau berrien ondorioz ere bai, garai bateko prediku-moduak behera egin zuen (Misioak, Bederatziurrenak, Gogo-Jardunak, etab.).

Atotxako fraideek eskainitako gisa guztietako prediku-ekitaldien historia 192 ekitaldirekin hasi zen, 1932an, Gerra Zibilaren erdian 972 ekitalditara iristeko (1938); ezagutzen dugun zifrarik altuena 1953koa da, 1.358 ekitaldirekin (banaka eta multzokakoak batuta). Prediku klasikoaren Atotxako loraldia 1945-1955. urteetan lekutu daiteke, eta gora-sabai horrek Arantzazuko Santutegiaren inguruan frantziskotarrek abian jarritako ekimenekin zerikusi hurbila du, uste dugunez. Batez ere Donostian eta beren komentu-barrutian egin izan dute lan Atotxako fraideek; baina haragotik deiak iritsi direnean libreki ibili dira hemengo sermolariak, bereziki izen eta itzal zabalagorik irabazi dutenean. Esan behar da, gainera, Donostiako elizetan sarriago eman zitzaiela aukerarik euskarazko sermoiak egiteko.

1965ean, esan bezala, "San Frantzisko eta Sta. Madalenaren Parrokia" sortu zen komentu-eliza honetan. Handik hona, Parrokiako zerbitzu berriak eratu dira (lehengo hainbat elkartek behera egiten zuen bitartean, garaiek halakorik laguntzen ez zutelako ere), eta fededun herritarren partaidetza indartu egin da Parrokiaren gobernu-egituretan, 1980tik aitzina batik bat. Horrekin batera, fede-heziketan metodologia berrituak sustatu dira, betiere Katekesiari bere zereginean eutsiz. 1979-1998. urteetan 891 haur iragan dira "dotrinatik" (631 erdal sailean, eta 260 euskarazkoan).

Sakramentu-bizitzara gatozela, 1966-1998. urteetan 2.131 Bataio izan dira, 1.064 Ezkontza, 1.724 Hileta. Penitzentziako Sakramentuak garai batetik bestelako bideak hartu ditu: taldeko Penintentzietara biltzen da orain jendea, nahiz eta bakarkako aitortza ere indarrean dagoen.

Zerbitzu pastoralen bidez, aipatu diren eliz lagunarteekin, urteroko eliz ospakizun eta auzotarrekin, Egia-Atotxako komentu-eliza hau Egia Auzoko gizarte-gune herritar azkarra bilakatu zen (1923-*c.* 1975). Parrokia izan denetik, testuinguru eliztar eta auzotarrean, betekizun definituagoa du Egian, eta Auzoak berak hainbat balio sozialetan gora egin duenez (elkarte-sare zibil estimagarria), komentu-eliza hau ere gizarte sineste-anitzago batean ari da lanean.

Modernitate hiritarraren aurpegia izan du Fraidearte honek azken hiru hamarkadetan, eta zenbait Anaiak Unibertsitatean eta Goi-Ikastegietan egin du lan (S. Aiestaran eta P. Huizik EHUan; B. Etxebarriak, Hiriko Musika-Kontserbatorioan; B. Garamendik, bere abokatu-bulegoan, adibidez). Aldi berean, goi-mailako beste langilerik ere izan da: M. Pagola (Morala), J.M. Arregi (Frantziskotartasuna), Z. Solaguren (Historia frantziskotarra). Horrek guztiak, Pastoralak eta Probintziako Kuriak osatu dituzte Donostiako Anaion lanbideak.

DURANGOKO ANAIARTEA

(1969-2000...)

Bizkaiko Udalerria da Durango, Durangalde deitu ohi den eskualdeko buru delarik. Lurralde honi buruzko lehen aipua XI. mendekoa da (1051), eta Nafarroako Erreinuari lotua ageri da berori. Tabirako eliza ondoko auzunea izan zen jatorrizko herrigunearen lekua, eta Durangoren nortasuna XII.aren azkenetan finkatu zen.

Aro Modernoan, biztanle-kopuru demasa izan gabe, Bizkaiko herrien artean leku jasoa zuen, Bilbo eta Bermeorekin batera, baliozko industriarik ere bai baitzuen (burdina, ezpatak, oihalak).

Azken bi mendeetako populazio-hazkuntza azkarra izan da, ondoko datuok erakusten dutenez: 1.982 bizilagun, 1802ko urtean; 2.246 (1845), 4.214 (1877), 4.235 (1897), 9.683 (1950), 22.354 (1970), 23.902 (1996). Ikus daitekeenez, kopuru absolutuz hazkuntza bizkorrena azken mende-erdiari dagokio.

XV. mendetik bederen, Durangon beti egon da era bateko nahiz besteko Etxe edo talde frantziskotarrik, eta segida historiko horretaz esan nahi dugu zerbait.

DURANGO FRANTZISKOTARRAZ

Durangon sartzeko gogoa beti izan zuten Euskal Herriko frantziskotarrek[ofm], eta nabariago oraindik XVI. mendetik hona. Baina, horren aurreko mendetik gutxienez, beste Erlijioso-Erakunde frantziskotarrek ere lekurik izan dute bertan.

Durangoko serora frantziskotarren eratzea 1439a baino lehenagokotzat eman behar da, zeren urte horretan onartu baitzien Eujenio IV.a Aita Santuak beren Ahizparte arautua, hain zuzen lehenengo hartan Hirugarren Ordenako elisabetar bezala. Beste hainbat kasutan legez, askoz geroago hartu zuten klaratarren Erregla (1612). Geroztik, moja-etxe hau izan da Durangoko ardatz frantziskotar iraunkorra, eta biltzailea (Uribe 1996: 367-374).

Baina lekaimeak ez ezik fraideak ere Durangon zeuden edo zebiltzan, nonbait, XV. mende hartan. Entzute handikoak izan dira, hain zuzen, "Durangoko heretikoak", Alonso de Mella frantziskotarraren jarraitzaileak (1442), azken urteetako euskarazko argitalpen batzuen aztergai ere izan direnak (Uribe 1988: 247-256).

Ezagunak ditugu, bestalde, XVI.ean Frai Joan Zumarragaren bertako inguru frantziskotarra. Goienkalen jaioa zen berau, eta gurasoek jasotako jaiotetxean izan ohi zuten beren ostatua Durangora limosna-eske, prediku-lanetan edo bidaian etortzen ziren fraideak, Zumarragak berak haurtzaroko oroitzapenak berrituz testamentuan esaten digunaren arabera. Familiako tradizio hori indartu nahirik, Etxe frantziskotar formala eraiki nahi izan zuen Durangon, baina ez orduan (1536) eta ez geroago (1551) lortu zen ostatu finko hura edo komentu amestu hori eraikitzea (Uribe 1988: 353-356, 415-419).

XIX-XX. mendeetan Durangoko egoitza frantziskotarrak[ofm] gisa ezberdinetako egoerak eta Senitarteak ezagutu ditu, baina betiere kla-

ratarren San Antonio Monasterio eta Ikastetxearen inguruan, eta bertako kapilau-etxearen itzalpean. Jada Esklaustrazio garaietan, Estarta izanberritzaileak hemen izan zuen bere abiapuntuetako bat: klaratarren eliza-kapera berria eraikitzen lagundu zuen, lehenik (1849), eta ondoren, Durangoko agustindarren komentu itxian frantziskotarrentzako bat irekiko ote zuen ere ibili zen (1853), baina, atzera ere, Durangorako asmo horrek ez zuen aurrera egin (Solaguren s. d.: 477-479, 482).

Hogeigarren mendean klaratarren Ahizparte azkarrak (1867az geroztik Ikastetxea ere bazuten, eta 1950 inguruan 70 laguneko Senitartea izatera iritsi zen) gertutik lagundu izan ditu fraide frantziskotarren[ofm] asmoak (Hermanas Clarisas 1993: 464-467). Fraide-mojen Senitarteon arteko harremanen historia osoa orain ez egin arren, premiazkoa gertatzen da, adibidez, bertan Senitarte Txikia (1979) eta gero komentua ere (1988-1994) izan aurreko iragan hurbila gogoratzea (Protokoloak 12/1988: 1, 6).

XX. MENDEKO FRANTZISKOTARRAK

Hogeigarren mendeko bigarren partean Kapilautza eta Komentu frantziskotarra egon dira Durangon, eta honetaz esango dugu zerbait hemen.

Mende-erdiko historia honen oinarrian, klaratarren kapilaua zen E. Ryan dago: Apaiz diozesitar hau hirugarrendar suharra zen, eta Durangon frantziskotartasuna sustatzeko ahalegin guztiak egin zituen bere kapilaualdian (†1969), lehenengo kapilau-lagun bezala edo frantziskotarren bat edo beste erakarriz (M. Zinkonandia, S. Larrañaga), eta gero Hirugarren Ordenako Etxea eraiki zedin fraide-talde oso bat bertaratzeko erraztasunak emanez (1967: M. Garaialde, I. Albizu, J. M. Lete, E. Agirretxe, etab.).

Ryan hil zenetik (1969), moja-komunitatearen kapilautza frantziskotarren[ofm] eskutan egon da, Esklaustrazio aurreko mendeetan bezala (nahiz eta orain izendapena Diozesitik datorren, eta ez Probintzia Erlijiosotik). Une horretatik aitzina, kapilautzaren ondoan eta batera, fraide Senitarte berezituren bat sortzeko hiru proiektu egon da, gutxienez, Etxe honetan:

a) Hirugarren Ordenaren Etxe Probintziala egiteko etorri zirenen Anaien artekoa (1968-1976),

b) Gazte fraidegai bokaziodunak erakarri eta hezteko eratutako Senitartea (1979-1991), eta

c) Guztion aurretik eta ondoren bertan bizi izan den apaiz kapilau edo kapilau-ordekoen Senitartea (1950.etan hasita, gisa batean edo bestean).

Kapilau-ordeko eta kapilau gisan, frantziskotarrek ondoko zereginak izan dituzte, batik bat: eguneroko elizkizunen ardura, ikastetxeko katekesi-lanak, Durangoko hirugarrendarren Senitartea laguntzea, han-hemedik eskatzen zitzaizkien zerbitzuak. Gogoratzekoa da, gainera, Serafin Abaituak († 2001) Kontzilio-ostean bizpahiru Federazioetako moja frantziskotar itxietan hemendik eraman duen Heziketa Iraunkorreko lana (beste komentutatik, 1960-1977.etan, eta Durangotik, 1977-2000.etan).

Ia mende-erdiz indarrean egon diren lantegi horien ondoan, Arantzazuko Probintziako Hirugarren Ordenako Etxearena ekarri behar da hona. J. A. Elustondo 1964an Hirugarren Ordenaren Buru izendatu zutenetik ahalegindu zen, Bilbon bizi zelarik, Durangon hirugarrendar herritarrentzat zerbitzugune berria (=Hirugarren Ordenaren Etxea) eta talde berezitua sustatzen (1964-1967). Serioski lehenengo aldiz orduan proposatu zen Probintzian halakorik. Asmo horri E. Agirretxek, eta inguruko beste lagunek, eman nahi izan zizkioten segida eta izaera (1967-1973) (ACD IV, 241, 343).

Hirugarrendarren kopurua handia zen artean, eta halako taldeak Kontzilio-ondo hartan bazirudien barne-eguneratzeko tresna berriak eskatzen zituela. 1966ko uztailaren 28an onartu zuen Definitorioak Hirugarren Ordenarentzako Etxe berezitu baten egitasmoa, eta 1968ko urtarrilean izendatu zen taldeko Nagusi arduraduna (E. Agirretxe). Proiektuaz arduraturik zebiltzan Anaiek, hilburuko bat jaso zuten horretarako erabilgarria (1969); baina eraikin berriarenak ez zuen aurrera egin, eta, izatez, klaratarrek utzitako etxebizitzan hartu zuen egoitza talde honek.

Asmoak asmo, 1973-1976.etan garbi ikusi zen Hirugarrendar Senitarteek deboziozko kofradi izaera gehiago zutela kristau ekintzaleen Senitartearena baino: garai bateko Hirugarrendar gehienek atzera egin zuten garbiki, aurkezten zitzaien proposamen berriaren aurrean. Handik aitzina "Hirugarrendarren Etxea" edo izan zitekeenak ez zuen etorkizunik izan (ACD IV: 281, 286, 350, 385; Tokiko lekukotasunak).

Bestalde, hirugarrendarren zerbitzura bildutako Anai taldeak ez zuen sekula kapilautzaren lana eragotzi, baizik eta orduan eta geroago ere klaratarrentzako eta Ikastetxerako kapilau edo beronen ordekoek beren alorrean segi izan zuten. Hemen esan beharra dago, gainera, bi erabakik aski samurtu zuela Senitarte frantziskotar formala sortzea: lehenengo, kapilautzako zeregina osorik frantziskotarren eskuetan geratzeak (1969), eta bigarren, Gurpide Gotzainak Senitartea eraikitzeko emandako erraztasunak eta Larrea Apezpikuak indar osoan utzi zituenak (1982-04-15). Berritasun historiko bat ekarri zuen horrek guztiak frantziskotarrentzat Durangon. Ondorioz, fraide-taldea indarberriturik gertatu zen, baina, betiere, kapilautzako ohiko lanak eramanez (Artx. Prob., XII, 34, 1).

Hirugarren Ordenaren ondoan, Durangon Bigarren Ordena izan da (klaratarrena) beti eta luzaro segurtasun osoz iraundakoa. Eta horrela izan da XX. mendean ere. Aldakuntza-garaiak ziren Kontzilio-ondokoak (1965...), eta ez zen beti samurra bide-hautapena egin eta asmoak modu egingarrian bideratzen, juridikoki eta taldean. Horregatik, ohiko lanen ondoan, Durangoko kapilauok laguntza onik eskain zezaketen, gaitasunik izanez gero, moja-etxeko erakundea berriztatzen. Klaratartasuna birdefinitzen, ikastetxe/komentuak elkarrekin gisa berrian uztartzen, klausura mugatzen, eta abarretan behar zen zenbait laguntza Anaia frantziskotarrek

Durango: Frantziskotarren Kapilau-Etxea, klaratarrenean. (Argazkia: 2002).

DURANGOKO NAGUSIAK (1968-2000...)

1968	Eujenio Agirretxe (pres.)	1985	Jose Anjel Egiguren
1970	Zelestino Solaguren	1988	Florentino Arruti (goard.)
1973	Bitoriano Iñurritegi	1991	Florentino Arruti
1976	Bitoriano Iñurritegi	1994	Juan Jose Arrieta (pres.)
1979	Jose Anjel Egiguren	1997	Juan Jose Arrieta
1982	Jose Anjel Egiguren	2000	Juan Jose Arrieta

DURANGOKO KAPILAUAK ETA ORDEKOAK (1969-2000...)

1969	Isidro Gerra (kapilaua)	1979	Manuel Albizu
1969	Juan Barturen	1988	Antonio Zubeldia
1970	Zelestino Solaguren	1991...	Juan Jose Arrieta
1973	Bitoriano Iñurritegi		

eman ahal izan zioten klaratarren Monasterioari; hala nola, Z. Solaguren ibili zen horretan (1970-1973) (Tokiko lekukotasunak).

Hirugarren Ordenarako proiektua albora utzita gero, beste xederik izango zuen Senitartea frantziskotarra[ofm] ere moldatu nahi izan zen Durangoko Etxe honetan, 1979ko Kapituluan onartutakoari jarraikiz. Kapilauen ondoan, gazteriaren pastoraltzarako eta fraide-bokazioak erakartzeko bildu zen talde berria. Ardura horrekin elkarturik, hamarkadan zehar 12 lagunetaraino pasatu ziren Senitarte honetatik, gehienak erlijioso gazte apaiz berriak. Laster lortu zen gazteekin lokarriak sortzea, katekumenutza batekin, Senitarte guztiz irekiaren bidez, aisialdiez ere baliatuz. Ikustekoa zen, adibidez, "Gazteen Bazkoak" erdietsi zuen arrakasta, eta bilera, asteburu edo ikastaroetan bildu zen gazteria.

Hala ere, oro har, Probintziak Senitarte berezitu horri eska ziezaiokeena harlosa astuna gertatu zen han bildutako gutxi haientzat, abiada bizian sekulartuz zihoan eta krisi erlijioso larrian ageri zen euskal gizartean. Besteak beste, laster ikusi zen honelako erakarpen-lana ezin zitekeela erdigune jakin bakar batetik eraman; Anaiarte ezberdinetatik lan eginez, eta lan-mota horretarako prestatuago egon zitezkeenei leku emanez jardun beharko zela. Eta, hala eta guztiz ere, nahikoa lan (Tokiko lekukotasunak).

1980.etako azken urteetan bi aldetatik somatu ziren aldakuntzak. Lehenengo, Senitartean bertan, pertsonal aldaketarekin eta bertakoek bestelako zereginak hartu zituztenean (pastoraletik at edo, sozialagoak alegia); eta, aldi berean, Probintziak ere bokazioen zeregina antolaera probintzial orokorrago batera eraman zuelako. Horrela, 1979an sortutako Senitarte berezituak bere historia bururaturik ikusi zuen, eta 1991tik aurrera Talde berezitu honetako Anaia bakoitza beste bizileku eta eginkizunetara pasatu zen (Tokiko lekukotasunak).

Lan-eremu ezberdinekin eta Anaiarteak joan-etorriok zituela, erabaki juridiko berririk ere hartu zen egoitza honi buruz: Durangoko Etxe honi fraideen Goardiano-etxeen molde juridikoa ezagutu zion Probintziak (1988-1994), eta, erabaki horren ondorioz, estreinako aldiz ageri zaigu Durangon Lehenengo Ordena juridikoki erabat finkatuta.

Aurreko urteetan bizi izandako esperientzien ondoren, Durangoko Senitartea Probintziako beste komentuetako bizimodu eta eginbehar berekin geratu zen 1990.etan, betiere Durangoko Etxe honek izan dituen berariazko betekizunak zainduz: klaratarren kapilautza eta ikastetxearekiko zerbitzu pastoralak.

Asmoak asmo, 1973-1976.etan garbi ikusi zen Hirugarrendar Senitarteek deboziozko kofradi izaera gehiago zutela kristau ekintzaleen Senitartearena baino: garai bateko Hirugarrendar gehienek atzera egin zuten garbiki, aurkezten zitzaien proposamen berriaren aurrean. Handik aitzina "Hirugarrendarren Etxea" edo izan zitekeenak ez zuen etorkizunik izan (ACD IV: 281, 286, 350, 385; Tokiko lekukotasunak).

Bestalde, hirugarrendarren zerbitzura bildutako Anai taldeak ez zuen sekula kapilautzaren lana eragotzi, baizik eta orduan eta geroago ere klaratarrentzako eta Ikastetxerako kapilau edo beronen ordekoek beren alorrean segi izan zuten. Hemen esan beharra dago, gainera, bi erabakik aski samurtu zuela Senitarte frantziskotar formala sortzea: lehenengo, kapilautzako zeregina osorik frantziskotarren eskuetan geratzeak (1969), eta bigarren, Gurpide Gotzainak Senitartea eraikitzeko emandako erraztasunak eta Larrea Apezpikuak indar osoan utzi zituenak (1982-04-15). Berritasun historiko bat ekarri zuen horrek guztiak frantziskotarrentzat Durangon. Ondorioz, fraide-taldea indarberriturik gertatu zen, baina, betiere, kapilautzako ohiko lanak eramanez (Artx. Prob., XII, 34, 1).

Hirugarren Ordenaren ondoan, Durangon Bigarren Ordena izan da (klaratarrena) beti eta luzaro segurtasun osoz iraundakoa. Eta horrela izan da XX. mendean ere. Aldakuntza-garaiak ziren Kontzilio-ondokoak (1965...), eta ez zen beti samurra bide-hautapena egin eta asmoak modu egingarrian bideratzen, juridikoki eta taldean. Horregatik, ohiko lanen ondoan, Durangoko kapilauok laguntza onik eskain zezaketen, gaitasunik izanez gero, moja-etxeko erakundea berriztatzen. Klaratartasuna birdefinitzen, ikastetxe/komentuak elkarrekin gisa berrian uztartzen, klausura mugatzen, eta abarretan behar zen zenbait laguntza Anaia frantziskotarrek

Durango: Frantziskotarren Kapilau-Etxea, klaratarrenean. (Argazkia: 2002).

ERRIBERRI/OLITE: SAN FRANTZISKO KOMENTUA

(...1794-1837, 1880...)

Erriberri Nafarroako Hiri eta Udalerria da, eta izen bereko Merindadeko buru, Iruñetik 40 kilometrora, Erriberako atarian. Erriberri batez ere bere Erret Jauregiaren soslai ezagunagatik gogoratu izan da. Gaur egun ere zutik dago Nafarroako Erregeen Gaztelu hori.

Erriberriko hiriaren lehen albistea Suintilaren *Ologicus* hartatik (581) nahiz lau urte geroagoko *Olit* edo *Holit*-etik datorkigu. 1147an eman zitzaion herrigune honi bere Foru-Gutuna, Lizarrako frankoei eman zitzaien bera. Ondoren, XIII. mendea goraldi eder baten gizaldia izan zen Erriberrin: bizilagunak ugaritu egin ziren eta hiria bera ere bai, Barneko Zerkaldea gainditu eta Kanpoko Zerkalde barruan auzo berriak eratuz (Jusué/Ramírez 1989: 30).

XII. mendea bukatu baino lehen San Pedroko eliza erromanikoa eraikitzen ari ziren, eta zerbait geroago baita Sta. Mariako gotikoa ere. XIII. mendearen erdialdetik aitzina Erriberrik goraldi ekonomiko iraunkorra ezagutu zuen, eta garai-modu hartan jarri zuten beren egoitza Erriberrin frantziskotarrek.

Aro Modernoan zehar Garaikideraino heldutako Erriberri hark XIX-XX. mendeetan biztanle-kopuruz gora egin badu ere, patxada onean izan dela esan daiteke, ondoko datuok erakusten diguten bezala. 1.515 bizilagun zituen 1802an, eta honela gehitu ziren hauek ondoko hamarkadetan: 1.998 (1850), 3.528 (1877), 2.662 (1900), 2.949 (1950), 3.042 (1991).

Erriberri/Olite: Koruko faszistola (Argazkia: 2002)

LEHEN HISTORIA FRANTZISKOTARRAZ (1243-1794)

Erriberrin bi Senitarte erlijioso frantziskotar daude gaur egun (2000), fraideena eta klaratarrena. Biak dira sortzez XIII. mendekoak, baina bien historia ez da era berean Erriberrikoa. Argibideren bat behar du honek.

Erriberriko klaratarren Ahizpartea ez da, jatorrizko lekuz, Erriberrikoa, Iruñean sortua baizik eta oso garaiz, gainera (1228), izan ere Ahizparte hau izan baitzen, dakigunez, Italiatik kanpo lehenengoa klaratarren artean, Santa Klara hil baino 25 urte lehenagokoa, gutxienez: Iruñeko klaratarren Sta. Engrazia. XIX. mendearen hasieran aldatu zen Erriberrira Sta. Engraziako Ahizparte hau.

Fraideen Erriberriko komentua, aldiz, Erriberrin sortu da, eta bere historia hirian bertan bete duena. Hain zuzen, hauxe da Nafarroako komentu frantziskotarren[ofm] artean, XIII. mendetik hona segidatasunik zuzenena izan duena, legez, lekuz eta Senitartez.

Nafarroako Kustodiaren barruan Aragoi (1243-1566) eta Burgosko

Probintziakoa (1567-1837) izan ondoren, 1880az geroztik Kantabria edo Arantzazuko Probintziakoa da (Uribe 1988: 67; Uribe 1996: 75-76, 79; Sagüés 1981: 17, 20, 24).

XIII.eko komentua hurrengo mendean Joana II.a Erreginak Erret Jauregirantz hurbilduz berreraiki zuen (1345). XVI.ean, Nafarroaren konkista-ondoko zigor- edo segurtasun-politikak zuzenki harrapatu zuen Erriberriko komentu hau, eta Cisneros-en mandatuz zeharo eraitsi ez bazuten ere, bereak eta bost jasan behar izan zituen komentuko eraikinak: egoera hori gogoratuz, 12 lagun

bakarrik zituela, idatzi zuen Gonzagak (1585). Komentu hura oraingo gerokotik iparralderago zegoen. Luzaro batean, ez zen lehengo tamainara itzuliko, nahiz eta fraideek bertan bizitzen jarraitu zuten (Ariceta 1981c: 83; Intxausti 1998b: 44-46; Sagüés 1981: 24; Gutiérrez 1972: 20).

Ondoko loraldia Erregimen Zaharreko azken mendean ezagutu zuen Erriberriko Etxeak, eta horretan zerikusi zuzena izan zuen garrantzizko erabaki batek. 1745ean Misiolari-Kolegio bihurtu zen komentu erriberritarra, horrek esan nahi zuen guztiarekin: bizimodu

Erriberri/Olite: Komentua, atari aldetik. (Argazkia, 2002).

hertsiagoa, predikarien prestakuntza arautua, pastoral-lan berezitua. 18 fraide jarri ziren elkarrekin bizitzen Senitarte berrituan. Arautegi berriarekin ere, komentuak Burgos-ko Probintzialaren menpe jarraitu zuen (Sagüés 1960: 48-52; Sagüés 1981: 24; Gutiérrez 1972: 14-16; Ariceta 1981a: 69).

Bigarren erabakia zera izan zen: komentu-eraikin berria jasotzea. Zaharra oso hondaturik zegoela eta, zaharberritzen ibili baino berria egitea egokiago zela uste izan zen. Horretarako, orube-trukaketa bat egin behar izan zuten fraideek, hain zuzen Erregeri bere baratzako parte bat eskatuta (1748): hantxe, gaztelu ondoan, geratu ziren eraikita komentua (1749-1754) eta eliza berriak (1757-1763), hegoalderantz baratze zabala zutela, eta dutela (Sagüés 1981: 25; Gutiérrez 1972: 16-20).

Gerra artean eta Esklaustrazioan (1794-1880)

Konbentzioko Gerrateko ekintzak ez ziren Nafarroan Erriberaraino iritsi, eta Erriberri beti egon zen gudu-lekuak baino hegoalderago. Baina gerra-egoerak guztien indarrak eskatzen zituen, eta Erriberriko komentu hau ospitale militar bihurtu zuen Nafarroako Erretordeak, eta frantziskotarrak Antoniotarren Erriberriko komentuan (gaur egun Santa Klara) izan zuten beren aterpea (1794), hurrengo urtean bakearekin itzuli ziren arte (Ariceta 1981a: 75).

Gerrate napoleondarra arazotsuagoa gertatu zen. Lehenengo, gudaroste frantsesaren etorreran ezbehar larri bat izan zen Senitartean: San Martin aldera ihesi zihoan Simon Barranco predikaria hil egin zuten frantsesek (1808-azaroa-19). Dena den, segurtasun pertsonalen faltaren ondoan, erakundearekikoak ere laster agertu ziren (Ent. 1749-1866: 9).

1809an Jose Bonapartek Erreinuko lehenengo Esklaustrazio orokorra jarri zuen abian. Erlijiosoak beren herrietara joan ziren, baina ez denak, hiru apaiz eta anaia laiko bat Erriberrin geratu baitziren, ahal zen neurrian komentua ere zaintzeko. Baina gerrak amaiera txarra izan zuen komentu honentzat: frantsesak komentuan babes-indartu zitezkeelakoan, Espoz eta Minak komentua eraitsi egin zuen badaezpada, eliza eta beheko klaustrua izan ezik (1813). Hala ere, 1814ko lehen hilabeteetan itzuli ziren fraideak beren egoitzara (Ariceta 1981a: 76-77; Sagüés 1981: 27).

1820-1823.etako Hirurteko Konstituzionalak ezarritako esklaustraldia pasata gero, laster zeuden berriro erlijiosoak etxe honetan, eta Martzillako Abade zistertarra, esateko, bertara bildu zen. Bakealdietako ahaleginen ondorioz (1814-1820, 1823-1833), 1833an gerra karlista lehertu zen unean, Senitarte aski bazegoen Erriberrin: 36 lagun (24 apaiz, 7 anaia laiko, 5 donatu) (Ariceta 1981a: 78).

1837ko urtarrilaren 26ko dekretuaren arabera Erriberriko komentu hau "Beneragarrien Etxe" bihurtu zen, fraide-etxe izatetik bertako adineko esklaustratu eta gaixoen babes-etxe bilakatuz: 20 fraide ziren horretarako legezko baldintzak betetzen zituztenak. Ordura arte han bizi izandako beste misiolariek erbesterako bidea hartu zuten, horien artean Aita Jose Aresok (1837 urtarrilean), hau da, gerora Donapaleuko komentua sortu eta Frantziako frantziskotarren[ofm] izanberritzea bideratuko zuenak (Sagüés 1960: 98, 100; Solaguren 1978: 31; Sagüés 1981: 27; ik. Ariceta 1981a: 80).

Fraide izaera ofizialik gabeko esklaustratuak izango ziren, ba, handik aurrera elkarrekin biziko zirenak; erlijioso-senitartea izan gabe, alegia. Gotzainak izendatzen zien taldeko Nagusia. Batez ere denbora eta adina izango zituzten beren kontra: zaharrak ziren eta nobiziorik ezin zuten hartu, taldeari segida segurtatzeko; hala ere, lehen ordukoak edo gerora handik eta hemendik bertaratu zirenak, 10en bat ziren 1850ean, eta 1868an lagun-kopuru bera ageri da "Beneragarrien Etxe" honetan; hurrengo hamarkadan, ordea, behera egin zuen horrek, 2 bakarrik baitziren 1880an. Ekonomiaren aldetik, fraideen zahar-etxe hau mantentzeko, baratza ez ezik artaldea ere bazuen komentuak, herriak uzten zizkien larreetan (Sagüés

1981: 27; Ariceta 1981a: 79, 80-81; 1981b: 52, 54; Ariceta 1982: 39).

Legeak lege, izatez "Beneragarri" esklaustratuek nahikoa poliki salbatu zituzten beren bokaziozko izaera erlijiosoa eta bizimodua. Gertuko agintarien ez-ikusiaz baliatuz, fraide gazteagorik ere bildu zen bertara, baita inoiz beste Ordenatakoak ere, eta anaia laikoen ordez hirugarrendar donatuei irekitzen zizkieten ateak. Hirugarrendarren Senitarte sekularra arreta guztiz zaindu zuten, eta inguruetako misioaldiak kanpoan eta gogo-jardunak barnean ziharduten bitartean Oliten bertan eliza herritarrentzat irekita izan zuten beti. Komentutasuna osorik gorde zuten, eta badirudi erriberritarren estimua irabazita zutela (Ariceta 1981a: 81-82).

Erriberriko Kolegio edo komentu hau izanberritzeko premia ahots ezberdinek aldarrikatu

Erriberri/Olite: Komentua, baratzetik. (Argazkia: 2002).

zuten, jada 1860.ko hamarkadan: Madrilgo Kongresuan J. M. Claros diputatuak aurkeztu zuen horretarako eskaria (1867ko ekainaren 6an), eta C. Nocedal-ek lagundu zion hari. Honen guztiaren atzetik Diozesiko Apezpikua zegoen, izan ere Uriz Gotzainak —erriberritarra bera— Erregeri eske bera egin baitzion. Baina, gogoak gogo, elkorrak suertatu ziren gertakariak ondoko urteetan, hain zuzen 1868ko "Iraultza Loriatsua", Errepublika (1873) eta Gerrate karlista (1872-1875) etorri zirenean (Sagüés 1955: 311; 1981: 27; Ariceta 1981b: 49-51).

Gerrate Karlistakoan, honelako beste kasu anitzetan bezala, komentua ospitale militar bihurtu zen, eta gerra amaitzean, Udalak parterik handiena kaserna egin zuen, Gobernuko gudarostearentzat; hiru urte iraun zuen horrek, eta 1877an Gotzaina bere Bisitaldia egitera etorrita zenean aukera izan zuen Udaletxeari bere kexua azaltzeko. Geroago ikusiko dugunez, horrek bere fruituak 1880an eman zituen, urte hartako udazkenean atera baitziren azken soldaduak komentutik. Bien bitartean elizgizonak ere ari ziren lanean, lekua ez ezik Senitarte erli-

jiosoa segurtatzeko (Sagüés 1955: 311; Ariceta 1981b: 51-52).

1876an, Oliver Gotzaina Donapaleuraino joana zen Aita Aresorekin Erriberriko arazoaz mintzatzera, izan ere Aita Areso 1870az geroztik Donapaleura bildurik zegoen berriro, eta Frantziara baino gehiago Euskal Herrira begiratzen hasita (Frantzian zegokiona eginda zuelako, eta

Erriberri/Olite: Eliza, barrualdetik. (Argazkia: 2002).

sorterriaz arduraturik zebilelako). Donapaleu, Zarautz eta Erriberriko komentuak elkartuta, Ipar eta Hegoaldeko frantziskotar euskaldunen artean —erran nahi baita euskal mintzatzaileen artean, bereziki— eratuko zen misio-erakunde orokor eta bateratua izan zitekeen komentuhirukotea. Honetaz, lekuko eta adiskide baten testu jakingarriak baditugu (Saguës 1955: 312; 1981: 28; Intxausti 1996: 19).

Dena den, Areso jada oso zahartuta zegoen, eta 1878an hil zen. Erriberriko komentua, izanberritu, beste arduradun eta sustatzailek izanberrituko zuen. Hala ere, esan beharra dago komentu honetan begiak jarrita zituzten guztiek ez zutela iritzi-adostasunik proposatuko ziren irtenbide praktikoetan. Beste edozein herritan bezala, hutsik edo ageri zen komentua tentagarria zen: eraikina zergatik ez hartu herrian ikastetxe egoki bat eratzeko? 1878an, Udaletxeak Eskolapioen lankidetza irabazteko erabakia hartu zuen, eta ez dirudi, gainera, Gotzaina ere asmo horretatik urrun zebilenik (Aresorenak kale egin ziolako?). Harremanak bizkor joan ziren, eta Eskolapioen Jenerala bera ere etorri zen Erriberrira (1879), baina esan daiteke ikustaldi honen ondoren bukatu zirela erlijioso hauen eta Udalaren arteko harremanak, aipatuko diren arrazoiengatik (Ariceta 1981b: 52-55).

Erdi isilpean eta berehala, ostera ere bide frantziskotarrari[ofm] heldu zitzaion orduan. Herrian bazen frantziskotar zalerik (hirugarrendarrengandik hasita), eta frantziskotarrak berak ere ez zeukaten ahantzita Erriberriko Etxe hau. Horren ondorioz, urtebeteren buruan urak lehengo errotara itzuli ziren. Gaur egun dakizkigunen arabera, Mugiro familia erriberritarrak egin eta eraginez gertatu zen hori: lehenik, Madrilen Mugiro Kondearekin mintzatu ziren herriko familiartekoak. Hauei erantzunez, Alfontso XII.a bere adiskidea ikustatzera joan zen Kondea, eta Erregeak berak jo zituen Erromako ateak, lehenik eskolapioena geldiarazteko, eta frantziskotarrei bide emateko gero. Bide ofizial horiek urratzen ziren bitartean, Erriberrin ere jarrerak aldatuz zihoazen, eta harremanak berritzen ari ziren.

1880ko udaberria erabakiorra egokitu zen: Aita M. Gereka izan zen Garizumako sermolaritarako deitua, eta badirudi beronek lotu eta bateratu zituela herriko agintarien borondateak (Udala eta Beneragarrien taldea); izatez, 1880ko apirilean Udalak onartuta zuen frantziskotarrei deitzeko erabakia, eta L. Mugiro-ri eskatu zion honek Gotzain eta Gobernariarekikoak egiteko. Laster, maiatzean etorri zen Gotzaina herrira, eta Arantzazuko Probintziako Buruarekin (Aita M. Antuñano) eta Udal-agintariekin elkartuta eman zion begiratu bat komentuko egoitzari.

Une horretatik aurrera, azken urrats ofizialak bakarrik falta ziren: maiatzaren 18an erabaki zuen Udalak Gobernu-Lehendakariarengana ere jotzea (Arantzazun bi urte lehenago lagundu zuen Cánovas berarengana, hain zuzen), berriz ere Mugiro kondea bitartekari zela. Gobernuko dekretua 1880ko ekainaren 30ean sinatu zen, eta Gotzainak uztailaren 14ko datarekin eman zion berorren berri frantziskotarren Komisari Probintzialari. Udalak, bere aldetik, uztailaren 25ean jaso zituen ofizialki agiri eta albistea. Erromako Bisitari frantziskotarraren onarpena uztailaren 2an eman zen. Fraide berriak ondoko egunetan joan ziren iritsiz, eta abuztuaren 25ean egin zen Senitarte erlijiosoaren sarrera ofiziala. Lehenengo Goardiano Dionisio Lz. de Subijana izendatu zuen Probintzialak. Harez gero Erriberriko Etxea Arantzazuko Probintziako komentua izan da (Homenaje 1935: 21; Ariceta 1981b: 56-61; Solaguren 1981a: 38-40).

ERRIBERRI ARANTZAZUKO PROBINTZIAN (1880)

Berriz ere Erriberrin zeuden, ba, frantziskotarrak, eta betidaniko presentzia hura beste behin ere lan pastoral bizkorrez areagotu zuten bertako kristauartean.

Badago, gainera, 1885ean Erriberriko herritarren oroimenean gertakari aipagarri bat, fraideen bertakotze horretan lagundu zuena. Urte horretako kolera-izurriteak inguruko herrietara hainbat heriotza ekarri zuen, baina, Erriberrin —gogoratu ohi denez— komentuko Andre Mariaren irudiak gorde zuen herria izurrite har-

tatik. Harez gero, erriberritarrek abuztuaren 26an ospatu ohi dute Andre Maria Kolerakoaren jaia. Zeharbidez, ba, fraideak herritarren zerbitzari ez ezik, salbatzaile ere gertatu ziren uste herritar honen arabera.

Beste arrazoi batengatik, 1886ko urtea ere aipagarria gertatu zen Erriberrin, zeren eta urte hartako irailean bildu baitzen bertan Arantzazuko *Probintzia* (jada ez "Komisaria") orduan bilakatu zen barrutiko lehen Kapitulu Probintziala, Urturi buru zela eta Dañobeitia Probintzial hautatuz. Geroztik, Probintziako beste zenbait Kapitulu ere ospatu zen Erriberrin (1892, 1898, 1901, 1906, 1909), eta Probintziarteko bi ere bai (1906, 1909) (Homenaje 1935: 36; Solaguren 1981a: 41-42; Ariceta 1981g: 116-120).

Mendebetean komentu honetan bildu den Senitarte handiagatik eta Probintzia erlijiosoan bete dituen egitekoengatik, Erriberriko hau, Zarautz eta Arantzazurekin batera, Etxe behinenetakoa izan da. Bertan jarri zen lehendabizi Probintziako Teologi Ikastegia (1884-1928) eta Filosofiakoa gero (1928-1976), eta berau izan da, denbora luzez (1880-1976), Nafarroan frantziskotarrek[ofm] izandako komentu bakarra, eta Arantzazuko Probintziako apaizgai gazte guztiei Nafarroa ezagutzeko aukera eman diena.

Senitarteko bizilagunen kopurua aldatuz joan da, noski, Teologi nahiz Filosofi ikaslegoaren arabera batik bat. 1881ean, 22 ziren fraideak (horietako 15, bizkai-gipuzkoarrak; 6 gazte korutar); XIX. mendearen azkena aurretik, aski gora egin zuen taldeak, eta zer esanik ez 1940az geroztik: 55 (1894), 52 (1907), 55 (1916), 55 (1940), 80 (1952), 101 (1964). Zenbakirik altuena 1963koa da: 111 bizilagun. Fraide-ikaslegoa desagertzean (1976), Senitarteak oraingo bere tamaina mugatua hartu zuen: 20 (1977), 16 (1988), 17 (1995) (Zinkunegi 1997; Ariceta 1981e: 112).

Behin-behineko datuek diotenez (2000), frantziskotarrak Erriberrira itzuli zirenetik, 49 gazte erriberritarrek hartu zuen berorien abitua. Hauetako zenbait gogoraraztekoa da: Manuel *Gorri* (†1936), Erriberi (1915), Zarautz (1922) eta Donostiako (1928) Goardiano izan zena; Daniel *Elcid* (j. 1917), izpiritualitate-gaietan jakituna eta literaturan erdal luma fina, olertiz zein hitz lauz (Agirrezabala/Beraza 1998).

Non egin dute, ordea, lan komentu honetako fraideek? Beste komentuek bezala honek ere bere komentu-barrutia izan du. 1882an prediku arruntetarako Probintzia zibil batetik bestera iragatea debekatu zen, baina Erriberriko Goardianoari predikariak Logroñora ere bidaltzeko eskubidea aitortu zitzaion hurrengo urtean (1883). Berez, Erriberri-ko komentu-barrutia Nafarroakoa izan zen predikurako (1890), eta 1906an Iruñeko Diozesira mugatu zen hori. 1915eko banaketa formalagoa egitean (batez ere adiera jurikoagoa emanez) komentu hau atzera Iruñeko Diozesiko herriekin geratu zen, baina mugaketa hertsiago batez, izan ere herri euskaldunak Gipuzkoako komentuei atxikirik gertatu baitziren (hala ere, prediku eta zeregin arruntagoetarako Nafarroa osoa eman zitzaion). 1949an arau berak birretsi ziren, komentu honen kasuan. (ACD I: 3, 6, 48; II: 86, 171; III: 269).

Komentuko eraikina eta bizilekua

Eta zer esan komentuko egoitza fisikoaz beraz? Komentu honetako obrak soldaduek Etxea utzi zuteneko hondamendiak konpondu (1880), baratze-ukuiluen produktibitatea hobetu, Senitartearentzat bizi-erosotasun hobeak jarri eta hezkuntza-egoitza handitzeko izan dira, batik bat.

Obra nagusi handienak 1912an eta 1945ean hasi ziren. Aita Mz. de Zuazo Probintzial zelarik, ekin zitzaion komentuko lehen berrikuntza handiari: "Se acuerda la restauración del convento de Olite, la cual deberá obedecer a un plan fijo", dio Definitorioaren erabakiak, 1912ko abuztuaren 22an. 1913ko urtarrilean zehaztu zituen obretarako xehetasunak Etxeko Diskretorioak (Gobernu-Kontseiluak). Erabateko berrikuntza ekarri zuten obra haiek beheko, lehenengo eta bigarren solairuetan, batez ere gazteentzat gela gehiago irabaziz, Arizetak deskribatu digunaren arabera. (ACD II: 131; Ariceta 1981d: 104-107).

Erriberri/Olite: Elizako "Santu nafarren kapera". (Argazkia: 2002).

Bigarren obra-aldi nagusia 1940.etako azkenekoa izan zen: komentuari solairu berri bat gehiago eman zitzaion, eta dorreak jaso ziren ertzetan. 1945ean heldu zitzaion komentua handitzeko asmoari, eta urte berean Filosofi ikasle guztiak Arantzazura pasarazi ziren. 1946ko maiatzean onartu ziren etxeari solairu berria egiteko proiektua eta aurrekontua. 1948ko urtarrilean lanean ari ziren, artean; hurrengo urtean amaitu ziren obrak, eta 1950ean jarri ziren bizitzen solairu berrian Filosofi ikasleak. Hurrengo hamarkadan, gazteen etorria halakoa zelako, berriz ere barne-ikastetxea handitu egin beharko zela ere pentsatu zen (1962) (ACD III: 170, 177, 191, 148; IV, 181; Ariceta 1981d: 108).

Hamarkada luzetan egindako berrikuntza-konponketa guztiak gogoratu gabe, aipa dezagun hobekuntzaren bat edo beste: haize-errota etxerako ura ateratzeko (1913), argiztapen elektrikoa (1914), udalaren ur korrontea (1915), baratzean Zidakos ibairainoko saneamendua (1920), argia (1922, 1925), garbitegia (1924), baratzeko moto-bonba (1944), pelotalekua (1951), elizako koru berria (1951-1952), sukalde berrikuntza (1952-1958), organu berria (baimena: 1953), Probintziarako ehundegia (1953), lastategia (1954), elizako bozgorailuak (1961), ukuilu berriak (1969), etab. (ACD II: 288, 316; III: 159, 305, 308, 360, 363, 373; IV, 41; Ariceta 1981d: 106-109).

Komentu honek, lehenago ere ikusi dugunez, inoiz edo bestetan zerbitzu zibilik ere eman behar izan du, garaiek eskatzen zutenaren arabera, eta hori gertatu zen Gerra Zibilean. 1938an ospitale militar bihurtu ziren goiko klaustrua, hainbat gela, eta komentu ondoko eskolak, beheko klaustruan haurrei eskola ematen zitzaien bitartean. 1886an bezalatsu, gerraostean burua altxatzen ari zenean, 1943ko uholdeak hartu zituen baratze, komentua eta eliza. Galera handiak izan ziren, baina herritarren laguntzarik etorri zen hondamendiari gaina hartzeko (45.891 pta. bildu omen ziren limosnatan) (Ariceta/Sol. 1981: 158; Ariceta 1981d: 108).

FRAIDEEN JARDUERA-ALORRAK

Komentu-barruti hartan eta komentu-etxe honekin, fraideek beren jardunean —barnekoan eta kanpokoan— berariazko xede eta alorrak besarkatu dituzte, 1880-2000. urteetan. Komentu honek bere gain izan dituen egiteko nagusienak puntu hauetara laburbil ditzakegu: a) Fraide ikasle gazteen hezkuntza, b) Nafarroako herri-misioaldiak, c) Inguruko herrietako ohizko predikua, d) Nafarroako Hirugarren Ordena frantziskotarra[ofm], e) Zenbait ekimen sozial eta kultural.

Herrietako Misioak, eta elizako Sakramentuak

Honela, komentua izanberritzean ez zitzaion garai bateko Misiolari-Kolegioaren moldea eman bere barne-bizitzan, baizik eta Pro-

Erriberri/Olite: Zilarrezko kaliza.

Ez dugu ezagutzen beronen nondik norakorik, baina hona ekartzekoa da kaliz hau, batez ere dituen balio estetikoengatik. Kalizaren beraren egitura-moldea estimagarria da, eta oineko hiru erliebeak kalitate handikoak. Hiru gertakari daude bertan jasota: Azken Afaria, Getsemaniko Otoitza eta Jesus Kalbario-bidean.

ERRIBERRIKO NAGUSIAK (1745-1837)
(Behin-behineko zerrenda)

Urte batzuetako Goardianoak:*

1745 Juan Peyro del Castillo
1749 Francisco Otxagabia (†1789)
1772 Francisco Davalillo (†1772)
1773 Antonio Alvarez (†1773)
1782 Juan Francisco Bravo (†1782)
1786 Juan Manuel Zabalo (†1786)
1789 José García
1803 Isidoro Fernández (†1803)
1809 Eusebio Murga (†1842)
1812 Jose García (†1812)
1814 Eusebio Besga (†1840)
1824 Eusebio Murga (†1842)
1833 (?) Simón Martínez (†1838)
1837 Simón Caño (†1839)

Urte ezjakinetako Goardianoak:*

Juan Manuel Zabalo (†1786)
Francisco Otxagabia (†1789; 2 aldiz)
Antonio García (†1789; 4 aldiz)
Domingo Torres (†1790)
Manuel Díez (†1795)
Juan de Mangarres (†1798)
Isidoro Fernández (†1803; 2 aldiz)
José García (†1812; 2 aldiz)
Mariano Bayo (†1838)
Eusebio Besga (†1840; askotan)
Eusebio Murga (†1842; 2 aldiz)

* Emango diren Goardiano-datak agirietako urteak dira, baina ez dute adierazten bakoitzaren gobernu-epea. Bereizita eman ditugu kargua zein datatan izan zuten ez dakigunen izenak. Behin-behineko zerrenda honek bi iturri ditu: Ariceta 1981a (69, 77, 78, 80) eta Ent. 1749-1866 (heriotza-datetan daude albisteak).

ERRIBERRIKO BENERAGARRIEN ERRETOREAK (1837-1880)
(Behin-behineko zerrenda)

Eusebio Murga (†1842)
Fernando Gómez (1850; †1858);
Bernardo Calle (†1851)
Froilan de Barrio (1862; †1862)

Hauek dira bildu ahal izan ditugun datuak; oraingoz ez dakigu zein urte-epetan izan zuten kargua.
Iturriak: Ariceta 1981a eta Ent. 1749-1866.

ERRIBERRIKO NAGUSIAK (1880-2000)

1837-80: Esklaustrazioa
1880 Dionisio Lz.Subijana (†1881)
1881 Manuel Muro (pres. "in capite")
1882 Jose Jabier Ortuzar
1886 Joan Jose Maiz
1888 Joan Jose Maiz
1890 Felix Maria Olariaga
1892 Felix Maria Olariaga
1896 Juan Luis Arrue
1898 Juan Luis Arrue
1899 Bonabentura Mendataurigoitia
1901 Bonabentura Mendataurigoitia
1902 Deogracias Igartua
1904 Deogracias Igartua
1906 Frantzisko Gantxegi (†1907)
1907 Bonabentura Mendataurigoitia
1909 Deograzias Igartua
1910 Deograzias Igartua
1912 Kosme Lamarain
1913 Jose Maria Azkue
1915 Manuel Gorri
1918 Jose Daniel Sáez de Ibarra
1922 Pedro Luis Zaloña
1925 Lazaro Madinabeitia
1928 Jose Antonio Roldán
1931 Jose Antonio Roldán
1934 Gregorio Baltzategi (†1937)
1937 Arkanjel Mitxelena
1937 Juan Errazti
1940 Kasildo Zaldua
1943 Frantzisko Gandarias
1946 Jose Olariaga
1949 Jose Anjel L. de Guevara
1952 Frantzisko Sagues
1955 Frantzisko Sagues
1958 Roke Mitxelena
1961 Lukas Arizeta
1964 Lukas Arizeta
1967 Lukas Arizeta
1970 Felix Jauregialtzo (dim.)

1971	Fermin Altube	1988	Jose Maria Lete
1973	Fermin Altube	1991	Jose Maria Lete
1976	Fermin Altube	1994	Karlos Urbieta
1979	Fermin Altube	1997	Karlos Urbieta
1982	Karmelo Ajuria	2000	Karmelo Ajuria
1985	Karmelo Ajuria		

BEIREKO PARROKOAK (1981-2000...)

1981	Andres Otegi	1994	Karlos Urbieta
	(Laguntzailea: Roman Azkue)	1997	Karmelo Ajuria
1990	Luis Gibelalde		(Hau "kargudun" bezala)

TRAIBUENASKO PARROKOAK (1989-1996)

1989	Andres Otegi	1994	Karlos Urbieta
	(Laguntzailea: Roman Azkue)	1996	(Apaiz diozesitarrek hartu zuten ardura)
1990	Luis Gibelalde		

bintziako komentu arrunt bezala ireki zen. Hala ere, herri-misioak ez ziren ahantzi ez orduan eta ez lehenago: jada esklaustratu "beneragarriek" misio-lanari ahal zuten neurrian eutsi izan zioten (gogora, e. b., Karkar-ekoa: 1864).

Senitarte erlijiosoa izanberritzean misiolanetan serioski saiatu ziren Erriberritik Probintziako predikaririk onenak Nafarroako Erdialdean eta Erriberan (J. E. Epelde, K. Beobide, D. Baertel, Ortuzar, L. Arrue, Aztiria, Igartua, Dañobeitia, etab.), eta baita euskaraz ere Mendialdean (Lekarotz, Garralda, etab.). 1880-1910.etan nabaria da ahalegin hau Erriberriko komentuan. Bestalde, oro har, Abendu, Garizuma, Bederatziurren eta bestelako ospakizunak aukera ona ziren herrietan sermoi-sortak eskaintzeko (Ariceta 1981f: 122-127, 129-130). Prediku-laneko datu estatistikoak behar bezala jasotzeko daude oraindik komentu honetan.

Kanpoko lan horien ondoan, komentuko elizak ere bere bizitza izan du, batez ere Sakramentuetarako erraztasunak eskainiz. Zoritxarrez, beharko liratekeen albiste sistematikoak ez ditugu ezagutzen, urte solteren batekoak izan ezik: adibidez, 1947an, 36.400ko aitortza zenbatu ziren (seguraski goiti jasotako zifra), eta 47.630 jaunartze. (Ariceta 1981f: 129). Kristauarteko ebanjelizatzean komentu honek bere ibilera propioa izan du.

Gizartean txertaturik: Hirugarren Ordena eta "Anaien Etxeak"

Erriberriko komentutik sortu, lagundu eta gidaturiko Hirugarren Ordenako Senitarteak asko izan dira. 1884-1980. urteetako datuak jasoz zera esan dezakegu: lehenengo mendeerdi eskasean (1884-1925.etako datuak dauzkagu), Senitarteek hazkuntza-erritmo ezberdina izan zutela. Lehenengo hamarkadan (1884-1893), Erriberritik zaindutako Senitarteetan 681 lagunek egin zuen profesa Hirugarren Ordenan; hurrengoan (1894-1903), 303 lagunek; hirugarren hamarkadan (1904-1913), 272 izan ziren hirugarrendar eginak; eta laugarren hamarkadan (1914-1923), 129. Ikusten da, ba, Hirugarren Ordena honetarako Leon XIII.aren deiak (*Misericors Dei Filius*, 1883) berehalako erantzuna izan zuela Erriberrin eta Nafarroako herrietan.

Erriberri/Oliteko Anaiartea (2002).
Eserita: José Porto,
Apolinar Mz. de Estivariz,
Xabier Alvarez de Eulate,
Juan J. Arrazola.
Zutik: Jose M. Lete,
Bernardo Garaialde, Julian Larrarte,
Damián Loero, Ricardo Labarta.
Atzean: Marcelino Mz. de Ibarreta,
Karmelo Ajuria.

Gero, olatualdi hura mantsotuz joan zen, baina arrasto luzea utzi zuen (Altube 1981b: 182-185).

Lehenengo ekinaldian Erriberri bera izan zen hirugarrendar berri gehien bildu zuena: 1886an, adibidez, herri guztietako 123 lagunetatik 70etik gora herrian bertakoak izan ziren. Dena den, Nafarroako beste herrietara ere azkarki hedatu zen Hirugarren Ordena: 102 herritako Senitarteak ageri dira Altube-ren mapan, 1880-1980.urteetan: 97 herri, nafarrak dira; 3, Aragoikoak; 2, Errioxakoak. 26 Senitarte ziren Erriberritik bertako eskualdekoak (San Martin, Tafalla, Artaxoa, etab.); bigarren zirkuluan beste 38 Senitarte aurkitzen ditugu (hor zeuden San Adrian, Gares, Zarrakaztelu, Kaseda edo Zubitza, adibidez); hirugarren eremuaren bueltan ditugu Iruñea, Tutera eta Nafarroatik kanpo Uncastillo edo Sadaba; azkenik, Lekunberri edo Otsagiraino ere irits zitezkeen Erriberriko fraideak hirugarrendarren Senitarteak sortu eta gidatzean. Honek guztiak esanahi handiagoa du, Nafarroan frantziskotar kaputxinoek egindako lana gogoan hartzen bada. Gogoangarria da 1952an Xabierra egindako erromesaldia: 32 autobus bete zituzten Erriberriko komentubarrutiko hirugarrendarrek (Altube 1981b: 189; Tokiko lekukotasunak).

Senitarte-talde handi hark azpiegitura pastoral zabala eta ongi antolatua eskatzen zuen, noski, komentu bakar batek modu iraunkorrean indarrez mantentzea zaila zen egitura, alegia. Haatik, ez dago esaterik Erriberriko komentuak halakorik eskain zezakeenik: betiere, modu erregularrean Senitarteei hileroko ikustaldia eta predikua eskaintzeko hiruzpalau laguneko fraide-taldetxoa zegoen komentuan, goitik jota ere, nahiz eta fraide Irakasleek ere inoiz edo bestetan lagundu izan zuten. Hortik, suma daitekeen hutsunea: HOko Senitarte batzuei (ez denei) eta urtean behin edo egiten zitzaien ikustaldia, nahiz eta gutxi batzuri sarriago eta hilabetero ere laguntzen zitzaien. Horrek, beste zenbait arrazoirekin batera, bere ondorioak izan zituen, denboraren harian (Altube 1981b: 197-201).

1966an esaten zenez, hogeiren bat Senitartetan 1.210 hirugarrendar omen zeuden. 1980an, artean 102 Senitarte haietako 21 zeuden bizirik:

Añorbe, Artaxoa, Andosilla, Barasoain, Erriberri, Garinoain, Iruñea, Karkar, Larraga, Miranda-Arga, Ororbia, Olkotz, Oloritz, Orisoain, Oteitza-Iguzkitza, San Adrian, San Martin Unx, Tafalla, Tiebas, Uxue, Zarrakaztelu. Baina aspalditxotik behera zetorren dena, azken profesak aspaldikoak ziren eta: Artaxoa (1959), Andosilla (1957), Garinoain (1959), Tafalla (1961), Erriberri (1974), etab. Oro har, 1970-1980.etako ahaleginek ez zuten indarberritu ahal izan Hirugarren Ordena, jada "Senitarte Frantziskotar Sekularra" deitua, baina Erriberrin bertakoa bizirik dago oraindik 2000.ean (Altube 1981b: 186-197, 199-200).

Pastoralarekin batera, komentu ekonomiak bere bil-sarea zuen Nafarroan, izanberritu ondoren ere Eskeko Ordena bati zegokion gisara antolatu baitzuen komentuak bere baliabide ekonomikoen kudeakuntza, erran nahi baita, limosna-eskeari bere lekua emanez. Horregatik, herri eta parrokietan eraturiko Hirugarren Ordenako sare horrekin batera azpimarratzekoa da Erriberriko komentuaren inguruan moldaturik zegoen herrietako "Anaia-Etxeen" sarea. 358 leku-herritan zeuzkan komentu honek fraide eskalearentzako honelako ostatu-etxeak: fraideen ongileen etxeak ziren hauek, eta berorietara biltzen zen Anaia Limosnaria gauerako (bestalde, hainbat kasutan, sermolariarentzat ere ostatutarako balio izaten zuten Etxe haiek). Beroriek izaten ziren, gainera, limosnen tokiko biltegiak. Horrez gain, 85 parroki etxetan zuten sarrerarik Limosnariek, eta beste 12 erlijioso-etxetan. "Anaia-Etxe" hauek nola sortu ziren garbiki ez ezagutu arren, belaunez belaun iraun zutela jakina da, eta seguraski predikari-misiolarien lanaren fruitu izan zirela ere bai. Dena den, aldi aski luze batez bederen tokian tokiko erreferentzia frantziskotarra[ofm] bilakatu ziren Nafarroako herri eta auzoetan. 1979an, etxe haietatik 38 herrietako ordezkari bildu zen Erriberrin, komentuko mendeurrena ospatzera (Altube 1981a).

Komentuko bertako lan-jarduna: eskolak eta kultura

Gizartearekin komentu honek izan dituen harremanen ondoan, bere barruko bizitza ere gogoratu behar da, parte on batez fraidegaien prestakuntzara zuzendua, eta bestetan, inguruko premietara begira eratua.

Teologia eta Filosofiako fraide gazte korutarren presentziak baldintzatu eta aberastu du etxe hau, izanberritu ondoren Ikastegi izan baita komentua. Probintzia berehala baliatu zen eskuratutako komentu honetan Filosofi Ikastegia jartzeko (1880), eta Filosofia eta Teologia (1882). 1884tik aurrera Teologi Ikastegi izan zen Erriberri, harik eta 1926-28.etan Filosofi ikaslegoa Erriberrira ekarri zen arte.

Erriberri/Olite: "Santa Faz (X. Alvarez de Eulate (2002).

Arantzazuko Probintziako fraide apaizgai ia guztiak Erriberrin bizi izan dira, ba, bizpahiru ikasturtetan (nahiz eta eten bat izan zuen, partez, 1945-1948.etan, obren arrazoiengatik). Ikaslego horrek apurka-apurka gora egin zuen: 28 (1894), 30 (1916), 34 (1933), 39 (1946), 45 (1969). 1970-1972.etan Nobiziatu-aurrean ezarri ziren Filosofiako lehen bi urteetako ikasketak, baina gazteok ere Erriberrin bildu ziren. Azkenik, 1976an Filosofi Ikastegia itxi eta ikasleak Bilbora pasatu ziren (Homenaje 1935: 70-71, 72, 75; Estatistika argitara emanak; ACD V: 20, 51).

Erriberri/Olite: Arantzazuko erretablorako proiektua (X. Alvarez de Eulate, 1956).



Irakasle-ikaslego horien presentziak bere eragina izan zuen, zenbait aldetan. Adibidez, Probintzia erlijiosoan bi Liburutegi Probintzial eratzean (1949), Erriberrin jarriko da horietako bat (bestea Arantzazun zegoen bitartean): Erriberrikoa batez ere Filosofia eta Zientzietako Liburutegia izan zen, betiere bertako ikasle-irakaslegoen zerbitzuan (ACD III: 272-273, 280).

Hau dena etxe-barrurako baldin bazen, kanporako kultur lanik ere egin du komentu honetako Senitarteak. Horrela, herritarrentzat irekitako eskolak ere izan ditu komentuak. Latin-Eskolak berdin balio izan zuen fraidegaitarakoentzat eta herritar soilentzat: 1884an badakigu bi gaztetalde zeudela latin-eskola hartan. Barnetegia izan gabe, Seminario Txikiaren ordezkoa edo zen eskola hura, beste zenbait Nafarroako herritan egon zirenen antzera (Lodosa, Azkoien, Gares, Igantzi, etab.) eta frantziskotarren[ofm] komentuetan orduan gertatu ohi zenaren moduan (Arantzazu, Forua, etab.). Erriberriko tradizio hori lehendik zetorren fraideen artean (1864). Eta beste datu bat gehitu behar zaio albiste horri: Komunitatea izanberritu ondoren, egon zen, gainera, Fraidearte hartan herriko Eskolan bertan aritutako fraide maisurik (1883-1887) (Homenaje 1935: 71, 75, 78, 79; Ariceta 1981h: 148).

Badirudi, ba, komentuko Latin-Eskola hura herrikoari segida emanez edo sortu zela. Komentuko fraide irakasleok, kasu batzuetan, gerora Probintzian edo Ordenan ardura nagusiak hartuko zituzten gizonak izan ziren: Erriberrin jardunak ditugu, adibidez, G. Barandika, geroko Definidore eta Ikasketa-Burua, eta B. Mendataurigoitia, Definidore Jenerala. Erriberriko Latin-Eskola honek gerraurre guztian iraun zuen (52 urte), eta, esandakoez gain, beste irakasle batzuk bederen ezagunak ditugu (M. Arriluzea, G. Monzón, K. Ibarreta, etab.). Ez zen hau Eskola handia: 1885ean 28 ziren "gramatikariak", eta ezagutzen da 1893an edo ikasle ziren 19 lagunen zerrenda. Ikaslego hartatik hainbat gazte iritsi zen apaiz diozesitar eta frantziskotar izatera, eta horien artean Gotzain eta Bikario Jeneralik ere bada (A. Ona de Echave, Lugoko Gotzaina; E. Berdun, Osmako Bikario Jenerala). Eskola honen finantzaketa Udalak zeukan hartuta bere gain, baina ez dena, zeren eta Iruñeko Seminarioak eta ikasleen sendiek osatzen baitzuten falta zena (Ariceta 1981h: 149-152).

Latin-Eskolak bere bidea egiten zuen bitartean, herriko beste haurrentzat ere (kasu hone-

tan mutikoentzat) bazegoen lehen letretarako eskola-premiarik Erriberrin. 1922an fraideek horrelako Eskola bat irekitzeko aurkeztutako proposamenak eta baldintzek ez zuten aldeko giro sozialik irabazi, baina premia lehengoa zen eta Errepublika urteetan Udalak berriz aztertu behar izan zuen arazoa. Irtenbidea, azkenik, fraideen ongile batek eman zion, Justo Garranek (1933), eta honek komentuko baratze ondoan jasotako eraikinak 1935eko urriaren 13an estreinatu ziren. 1949a arte izan ziren bertako irakasle fraideak, eta ondoren herriko eskoletako maisuek eraman zuten Eskola, eta Udalari alokatu zitzaion ikastetxea. Handik honakoan, erabilera ezberdinak izan ditu eraikin honek: igandetarako haurzinema (1950-1951, 1954), egoitza erabil-anitza (haur-biltokia, zinema-antzokia, abesbatza: 1959-1963), ikastoletako udalekua (1975...), berriz ere eskola (1975...), frantziskotarren katekesietako haurren udalekua, kristau-taldeen topaleku, Erriberriko Etxekoandreen biltokia, 1980.etan haurtzaindegia ere bai. Oro har, hona bildu izan dira komentuko kultur ekimen gehienak (ACD II: 433, 485-486; Ariceta 1981h: 158-159).

Komentu hau Ikastegia izan dela dakigunez, galde daiteke bertako ikasle-irakasleek nolako kultur lanak burutu zituzten, ikastaro akademikoen zeregina betetzen zuten aldi berean. Idaztegi emankorregia izan gabe, Erriberriko etxetik lanik franko argitara zuten bertako irakasleek. Izenen bat edo beste ekartzeko, gogora ditzagun A. *Arruti* (†1919), euskal poeta; J. R. *Zulaika* (†1943), bibliografoa; B. *Madariaga* (†1965), pedagogo eta Definidore Jenerala. Eta aipa ditzagun histori alorrean zordun gatzaizkienak: E. *Gutiérrez* (†1997), L. *Arizeta* (†1996) eta C. *Solaguren*, bertan bizi eta orduan edo gero komentu honetaz eta Euskal Herriko frantziskotarrez idatzi dutenak (Intxausti 1998a: 75-98; Ariceta 1981i: 162-165). Beste arrazoi batzuengatik, ezingo genuke ahantzi Aita P. Sagues puioarra, Erriberriko komentuaz eta Nafarroakoez hainbat lan idatzia.

Komentu honetako kulturaren mundua ez da eskola- eta idazle-lanetan bukatzen. Arte plastikoek, zinemak, antzertiak edo musikak ere izan dute lekurik bertan. Azpimarratzekoa da J. Alvarez de Eulate-k (j. 1919) hemen eta bertatik burutu duen margolari-lana, ia berrogei urtetan burutua (1961...), bere lantegia ez ezik obraren parte on bat ere komentu honetako klaustruetan ikus daiteke, ikuslearen gozamenerako.



Erriberri/Olite: X. A. de Eulate bere tailerrean. (Argazkia, 2002).

Orain, etxeko ikasle-barnetegiko kultur historia egiten hasi gabe, balegoke zer esanik ikaslegoak bere eskutik egindako idazketa-lanez eta barne-aldizkariez, erdarazkoez bezala euskarazkoez.*Gure Izarra* aldizkariarena dago ongien aztertuta, hogeita bost urteko historia bete baitzuen beronek. Hori gorabehera, Fraidegai-Ikastegiko historia kulturala aztertzeke dago, oro har. Herritarrentzako Eskoletan ere ez da falta izan eskolaz kanpoko ekimenik: haurrentzako zinema-emanaldiak adibidez (1950-1951, 1954) eta zine-forumeak (1964-1965) (Ariceta/Sol. 1981: 158-159; Iztueta 1981: 57-61).

Baina arrakastarik onena eta bizitza iraunkorrena izandako kultur jarduna musikarena

izan da. Komentuko elizak aspaldidanik izan zuen bere organua, 350 dukat ordainduta (1769); 1899a arte iraun zuen horrek, eta Azkoitiko klaratarren organuak ordezkatu zuen orduan; 1930ean berritu-konpondu zen hau, eta 1956an jarri zen organu berria, 1975ean Santandereko komentura eraman zena. Hiri honetara hain zuzen bidali izana ez da harritzekoa: J. M. *Ibarbia* (†1985), Erriberrin organujole eta orfeoi-zuzendari izana, han baitzegoen orduan (Ariceta 1981c: 99).

Izan ere, Erriberrik bere Orfeoia izan zuen, komentuko musikari eta herriko zaletuek sustatu eta gidatua: "Orfeón Olitense" (1957-1967). Lehenengo hamar urteetan (Aita J. M. Ibarbia Erriberrin bizi izan zen bitartean) Orfeoia komentuari oso lotua ageri zaigu. Gero bere bide propioak urratu ditu, gaur arte, eta orain Koral bezala dihardu (Solaguren 1981b: 170-172). Ekimen ezberdinen bilakaera eta aldakuntza hauek, eta berauekin batera iraun duten segidatasunek, Kontzilio-ondoko historiara garamatzate, nahitaez, komentu barnean bezala bertatik kanpoan hainbat zerbitzu eskaini eta molde-berritu baita urte horietan.

Kontzilio-ondoa gure egunak arte

Beste komentu eta egoitza frantziskotarretan ez bezala, Erriberriko honetan betidaniko edo garai bateko otoitz-ordutegia bere hartan edo mantentzen da oraindik. Horra etxe honetako segidatasun historiko finko bat. Baina, gainerakoan, aldakuntzak bizkor etorri dira hemen ere.

Esate baterako, Etxeko sistema ekonomikoan: 1970eko hamarkaz geroztik desagertu zen abeltzantzako ekoizpen handiena (esne-behiena), nahiz eta 1984.an bazeuden artean 72 abelburu eta 24 erlauntza. Inoizko baratze handi ongi zaindu hura mahasti bihurtu da lautik hirutan, eta kooperatiba batean elkarturik ustiatzen da. Herriz herriko limosna-bilketa desagerturik da erabat. Baina, ekonomiaren hori gogoan dugula ere, Erriberrin Senitartearen eraketa soziala da guztiz aldatu zaiguna, esandako albisteetan ikus daitekeenez: ikaslegoa desagertu, fraideartea urritu, anaiak zahartu. Horrek guztiak etxeko dinamika aldatzea ekarri du.

Erriberrik ez du galdu Probintziarekiko garai bateko irekitasuna, eta, besteak beste, Probintziako gaixotegi ofiziala izan gabe, 1960. hamarkadaz geroztik sarritan hartu izan du Probintziako zenbait ezindu eta gaixo. Hezkuntza munduan, ostera, Filosofi ikasleak desagertu orduko, erlijiosoen Heziketa Iraunkorrerako egoitza bilakatu zen Etxea, eta urte osoko ikastaroak eman zitzaizkien bertan adineko fraide apaiz eta anaiei (1977-1989).

Erriberriko Etxea, 1980az geroztik, Probintziako Senitarte erlijiosoen urteroko plangintzatarako biltokia izan da, hala nola, Donostia, Segura, Durango, Tolosa edo Bilbotik etorrita hemen bildu izan dira fraideak beren taldeetako urteko-egitarauak prestatzeko, eta bide batez Senitartea biziberritzeko.

Pastoralera gatozela, esan dezagun Sta. Engrazia komentu klaratarreko kapilau izan direla fraideak, 1951tik hona. Laikoen eliz elkarteak ia osorik desagertu diren arren, indarrean daude oraindik esandako Senitarte Frantziskotar Sekularra eta "Apostoluen Senitartea" deritzana (1886an sortua), eta frantziskotar bat izan ohi da, arautegiaren arabera, berorren priorea.

Beste lan-barrutietara gatozela, jada 1974an edo hasita, Erriberriko bi parrokietan esku izan zuten komentuko fraideek; laguntzaile ezagutu bezala San Pedron lehenengo eta Sta. Marian ibili dira ondoren. 1996an bi parrokietatik bat bakarra egin zenean, fraide bat apaiz laguntzaile gisara geratu da eta, aldi berean Beireko arduraduna da, zeren eta Beireko parrokia (1981) eta Traibuenas-ko elizgunea (1989) fraideon ardurapean baitzeuden lehendik ere (Tokiko lekukotasunak).

Bere historiako zortzigarren mendea betez doan komentu honek bidezidor aldakorrak izan ditu, eta, nahiz eta komentu-eliza ez den parrokia bihurtu, XXI. mendeari ekitean, inguruko parroki pastoralean oinarriturik ageri zaigu batez ere fraideen jarduna.

FORUA: SAN FRANTZISKO ETA STO. DOMINGO KOMENTUA

(...1794-1839, 1886...)

Bizkaiko Udalerria da Forua, Gernikatik bi kilometrora, Bermeorako kaminoan. Urdaibai ibarrean dago Forua, muino batetik ibaiari begira, itsasotik nahikoa urrundua, baina handik datozkion haizeak, eta urak ere, bertantxe dituela.

Bertako haitzuloetan Goi-Paleolitoko aztarnarik bada, eta erromatarrek ere utzi zuten hondakinik hemen (II-IV. mendekoak). Udalerri beregaina izan ondoren, 1966-1987.etan Gernikari atxikia egon zen, azken data honetan handik bereizi zen arte.

Foruko hazkuntza demografikoak honela egin du bere bidea Aro Garaikidean: 459 lagun (1802), 647 (1897), 977 (1996). Gaurko forutar askok udalerritik kanpo egiten du lan, eta bertako nekazaritza ere Gernikako azokari begira bizi da.

KOMENTU ZAHARRETIK GARAI BERRI ZAILETARA (1794-1839)

Foruko gaurko komentu frantziskotarra[ofm] berria eta izanberritua da, zeren historikoki Esklaustrazio aurrekoaren jarraipena du, alde batetik, baina, bestetik, gaurko eraikina lekuz eta izatez beste bat da.

Foruko lehenengo komentua 1719an jarri zen herri honetan, baina bertara etorritako Senitarteak historiaurrerik ere badu, Izaroko Irlatik etorri baitzen egoitza berrira, hango komentua utzita. 23 fraidetarako lekua ezagutu zitzaion Etxe honi, 1768an (Uribe 1996: 267-271, 277). Komentu horren historia lehen Gerrate Karlista arte luzatu zen, ikusiko dugunez, eta berriko zertzelada historikoak bildu aurretik, Etxe hartako azken aldiko xehetasun zenbait bil daiteke hona.

Gainerako komentu gehienetan bezala, hemen ere Aro Garaikidearen atariko gerrek bertatik bertara harrapatu zuten Forukoa ere, eta kasu bakoitzean ahal izan zen gisara aurre egin behar izan zitzaien.

Konbentzioko Gerratean (1793-1795), 1.711 erreal jarri ahal izan zituen gerra-gastuetan laguntzeko bere pitxi, zilar eta urretan; ez zen, beraz, komentu aberatsetakoa (Bermeoko komentua bera, handienetakoa izan gabe, ia 7.000 errealetara iritsi baitzen orduan). Handik hamabost urtera (1809), Bonaparteren Esklaustrazioa heldu zenean, Bermeokoa baino astebete lehenago itxi arazi zuten Foruko Etxe hau (1809ko irailaren 26an). Orduko inbentariotik ezagut daitezke komentuko ondasunak, hauen artean 100 landare zituen lau urteko harizti gazte batean (Solaguren s. d.: 83, 94).

Gerraostean (1814), aldi berri bat ireki zen komentuetako bizitza bere arautasunera eramateko, eta hori izan zen Probintzia Erlijiosoaren buruhausteeetako bat. Foruko komentua ere erreforma-bide hartatik sartu zen (Solaguren s. d.: 130-138). Hirurteko Konstituzionala etorri zenean, Gotzainak komentuari bere indarrean eustea eskatu zuen (1821), inguruko baserrietatik jendea bertara joaten zelako, eta baserrita-

rron mesedetan gorde beharra zegoelako (Otero 1990: 31; Solaguren s. d.: 156). Hala ere, gerrila eta sortu zenean, Bermeokoa bezala hau ere ixtea erabaki zuten Madrileko Gorteek (1822ko ekainaren 19an); beranduenik, urte bereko urrian hustu zen Foruko komentua (Solaguren s. d.: 179, 182).

Aldarte politiko horietako olatualdia pasatu ondoren, 1827ko Kapitulua berezikiago arduratu zen Foruko komentuko etorkizunaz. Arantzazuko Probintziaren barruan ("Kantabria" deituan), "nazio" bakoitzak izan ohi zuen bere errekolekzio-etxea, hau da, bizimodu hertsiago eta bakarragoan bizitzeko komentu arautu berezia (Uribe 1996: 182-184); Bizkaian, Santimamineko komentua izan zen gisa horretako etxea mende eta erdian (1677-1827), baina azken urte honetan Ikastegi Nagusia jarri zen bertan. Horren ondorioz, Foruko komentua hautatu zen Bizkaiko errekolekzio-etxe izan zedin (Solaguren s. d.: 211, 392, n. 122).

Horrelakoa izanik ere, Gerrate Karlista iristean, bakartegi baketsua izan zitekeena gerrazurrunbiloak inguraturik aurkitu zen, eta zetorren ekaitzaren lehen zantzuak Bilbotik iritsi zitzaizkion, hango San Frantziskotik bizilagun batzuk Foruko Etxera etorri zirenean (1833ko udazkenean). Bestalde, komentu hau Durango-Bermeoko errepideko saihets-ttonttor batean zegoen, inguru guztiaren zelatari eta gerra-indarren zuri asmagarri zela.

Gobernariek gogoan zuten hori dena, eta badaezpada hemengo fraideen xehetasun pertsonalak ere eskatu zizkioten zeharbidez bertako Goardianoari (1834). Horren aurretik, ordea, gauzak mugitzen hasiak ziren han, nonbait, Etxean bertan, zeren fraide bat behintzat (Aita J. A. Torrontegi) Barrikara pasatu baitzen benefiziatu bezala (1833). Hala ere, jakin ez dakigu noiz eta nola hustu zen komentua. Pentsa daiteke 1835eko apirilean Gernika-Errenterian izandako gudu-talkaren ondoren izan zela. Azkenik, karlistak atera ziren orduan garaile, baina asko izan ziren zaurituak. Seguraski orduan bihurtu zen komentua ospitale militar, eta halaxe ageri da berori 1838an. "Bergarako Besarkada" arte bertako kapilaua Aita J. A. Goenetxea kortezubitarra izan zen, baina Senitarterik gabe zegoen Etxea, nonbait, eta 1839ko goardiano-izendapena baldintzatua izan zen, hots, fraideak itzuliz gero balioko zuena; hortaz, 1839koa, itxiera-urtetzat ematean, testuinguru horretan ulertu behar da albistea (Solaguren s. d.: 177-178, 345).

Itxura guztiz, gerra ostean Esklaustrazio- eta Desamortizazio-legeak bete arazi ziren

Forua: Komentua, baratzetik. (Argazkia: 2002).

kasu honetan ere; ez dakigu noiz eta nola. Dakiguna da, 1842an egin zela bertako inbentarioa. 1849an saldu ziren komentua (300.000 errealetan) eta baratzea (30.000 errealetan). Azkenik, komentuko eraikina guztiz hondatu zen ondoko urteetan, eta, ondorioz, berria leku hurbil batean jaso zen gero (Solaguren s. d.: 279).

KOMENTU IZANBERRITUAN (1886)

Bigarren aldiko komentu honen sorrera 1886koa da, Jose E. Epelderen Probintzialaldikoa. Probintzia izanberritzeko bigarren aldian (1876...) Hegoaldeko laugarren komentua izan zen hau, Arantzazu, Zarautz eta Erriberriköen ondoren (Espejoko kasua bereizia

Forua: Eliza, barrutik. (Argazkia: 2002).

izan baitzen, eta laburra). Senitarte bezala ez da izan sekula handia, baina Probintzian eman zitzaizkion egitekoengatik (batez ere Seminario Txikia bertan jarri zelako) bere nortasun probintziala izan du (Solaguren 1978: 87-88).

Komentuen lurralde-barrutiak eratzean, 1890ean prediku-lanetarako (eta horretarako bakarrik) Bizkaia eta Gipuzkoa eman zitzaizkion Forukoari, eta 1915eko banaketan Gernika, Lekeitio, Markina, Areatza, Zeberio eta Arabako Legutioko artziprestazgoak. 1949ko banaketan, berriz, Gernika, Durango, Areatza eta Markinako artziprestazgoak, eta Larrabetzuko herria. Izatez, Gernikaldea eta Urdaibai ibaiaren itsasorainoko bailara izan dira batez ere komentu honek sarrienik zerbitzuak eskaini izan dizkienak (Muxikatik Mundakara, Nabarriztik Elantxobera), Gernika berariazko arretaz zainduz (komentu-, parroki eta talde-lanetan) (ACD I: 48 (1890); II: 170-176; III, 268-270).

Bigarren aldiko komentu honen lehen egoitza dohaintza baten emaitza izan zen: Madrilgo Kristina Calabria andreak bere xaleta eta bertako baratzea utzi zizkien frantziskotarrei[ofm] komentu berria irek zezaten. Aukera horretaz baliatuz itzuli ziren bertara berriro frantziskotarrak, Juan Luis Arrue Etxeko buru zutela. Lau urte geroago komentu-eliza berriak eraikita zeuden, eta berauen estreinaldia 1889ko urriaren 14an egin zen (Solaguren/Maiz 1978: 88; Homenaje 1935: 21-22).

Komentu eta ikastetxearen artean

Foruko Etxeak ia beti izan du bitasun bat: alde batetik irakas-lana eta, bestetik, eginkizun pastoralak.

Izanberritu eta laster ekin zion mendebeteko historia izango zen irakaskuntza-betekizuna-

ri, inguruko herrietako haur-gaztetxoei irekia nahiz Seminario gisara erabilitakoa. Hasteko, 1890ean jarri zen bertan fraide ikasle gazteen Ikastegia (Nobizio-ondoko Latin eta Humanitateena), eta han egon zen berori harik eta Bermeora eraman zuten arte (1897), baina orduan ere irakas-lanek "Preceptoría" deituan izan zuten beren jarraipena (Homenaje 1935: 22, 74).

Komentuaren osagarri gisara eraiki zen Ikastetxea, eta izan ere halakoxea zen hau, eraikinean bezala bizitza sozialean ere: "praileki" mutikoak Foruko paisaiaren parte izatera iritsi ziren XX. mendeko erdialdean (1930-1968).

Foruko Senitartea ez da izan lagunarte handia, baina bere gain hartutako irakas-erantzukizunen arabera, gora ere egin izan du fraide-kopuruz: 1894an, 25 fraide ziren, adibidez, eta ondoko urteetan zifra hauek dauzkagu: 17 (1916), 13 (1940), 19 (1964), 13 (1988). Senitarte hau pastoraltzara ere emana bizi izan da, baina fraideetako hainbat lagunek ikastetxeko bertako lanean jardun du sarritan (Est. gen. 1894; Zinkunegi 1997).

Behin-behineko zenbaketa batean (2000), fraide frantziskotar izandako 19 forutar kontatu ahal izan ditugu. Besteak beste, Ignazio *Aberasturi* (1877-1931), Filosofi Irakaslea (1909-1912) eta, itsututa ere, erdal poeta emankorra; Mariano *G. de Andoin* (1884-1953), kazetaria eta La Habanan "San Antonio" aldizkariko zuzendaria; *Pinagatar* osaba-ilobak (Epifanio, Anesio); Bernardo *Madariaga* (1895-1964), Probintzial (1946-1949) eta Ordena osoko Definidore Jenerala izandakoa (1951-1957), jaiotzez Baldatika auzokoa; Martzelino *Idoiaga* (1903-1991), hainbat urtetan Arantzazuko organujolea; Juan Maria *Torrealdai*, euskal idazle, *Jakin*-en zuzendaria eta beste hainbat urtetan frantziskotar izana, etab. (Homenaje 1935: 88, 142, 163-164, 182, 183, 184; Personal 1998).

Foruko komentu hau suertatu da Arantzazuko Probintzian zeregin edo betekizun oso ezberdinetarako beti egokia ikusi izan den Etxea, baita Probintziatik kanpoko beharretarako ere. 1923an, frantziskotarrak Gasteiza sartu nahirik zebiltzala, hango San Antonioko klaratarren komentuarekin trukatu nahi izan zen; horrek, ordea, ez zuen aurrera egin, eta hurrengo urtean Akitaniako Probintzia frantziskotarrak[ofm] erosi nahi izan zuen berau, hemen Seminario Txikia ezartzeko; bertako Probintzia Erlijiosoa prest agertu zen horretarako, baina azkenik Akitaniak atzera egin zuen (ACD II: 284, 289, 290).

Foruko Anaiartea (2002).
Aurrean: Felix Bilbao, Iñaki Arriaga, Jose M. Laiuno, Pedro Zubiaurre, Jose M. Azkue Irastorza. *Atzean:* Juan A. Barrena, Jose A. Gandarias, Dionisio Ajuria-auzokoa.

SEMINARIO TXIKIA (1930-1968)

Bere aldetik, Arantzazuko Probintziak Etxe eroso eta bizileku atsegina izan du Foruan, Urdaibaiko eskualde gozo honetan, eta bere fraidegai gazteen zerbitzuan erabili izan du egoitza. 1928an erabaki zen bertan Probintziako

FORUKO NAGUSIAK (1792-2000)

1792	Domingo Landazabal
1794	Frantzisko Azkuenaga
1797	Juan Landajo (?)
1800	Domingo Arteabaro
1803	Juan Antonio Enbeita
1806	Antonio Barrio
...	Gerrate napoleondarra
1814	Antonio Barrio
1815	Antonio Barrio
1818	Domingo Mendibil
1820	Domingo Mendibil
...	1820-1823: Hirurteko Konstituzionala
1824	Tomas Obieta
1827	Santiago Zubero
1830	Tomas Obieta
1833	Jose Etxebarria
...	1833-1838: Gerrate Karlista
1839	Tomas Obieta (izendap. baldintzatua)
...	1839-1886: Esklaustrazioa
1886	Juan Luis Arrue (pres.)
1890	Ignazio Egia (goard.)
1892	Ignazio Egia
1896	Bernardo Garaikoetxea
1898	Bernardo Garaikoetxea
1899	Jose Luis Alberdi
1901	Jose Luis Alberdi
1902	Jose Maria Barinaga
1904	Jose Maria Barinaga
1906	Serafin Bidaetxea
1907	Serafin Bidaetxea
1909	Jose Lezertua
1910	Jose Lezertua
1912	Jose Daniel Esnal
1915	Manuel Umerez
1918	Jose Maria Azkue
1922	Jose Domingo Arrinda
1925	Jose Lezertua
1928	Eustakio Arronategi
1931	Eustakio Arronategi
1934	Benito Orbegozo
1937	Fidel Idoiaga
1940	Ignazio Ajuria
1943	Tomas Soloeta
1946	Eustakio Arronategi
1949	Kastor Apraiz
1952	Aingeru Madariaga
1954	Justo Anasagasti
1955	Jon Zubieta
1958	Jon Zubieta
1961	Bitor Anasagasti
1964	Jose Galarraga
1967	Felix Bilbao
1970	Jose Antonio Gandarias
1972	Adrian Maria Kerexeta
1973	Benjamin Erezuma
1975	Pedro Jauregialtzo
1976	Pedro Jauregialtzo
1979	Pedro Jauregialtzo
1982	Pedro Jauregialtzo
1985	Jose Maria Bilbao
1988	Jose Maria Bilbao
1991	Jose Maria Bilbao
1994	Pedro Jauregialtzo
1997	Pedro Jauregialtzo
2000	Jose Maria Azkue

SEMINARIOKO ERREKTOREAK (1930-1994)

1930	Bizente Gorostitza
1934	Basilio Gerra
1937	Ignazio Ajuria
1943	Jose Antonio Urkiola
1946	Juan Aritzeta
1949	Kandido Izagirre
1952	Imanol Berriatua
1954	Frantzisko Jauregi
1955	Frantzisko Jauregi
1958	Jose A. Gandarias
1961	Jose A. Gandarias
1964	Jose A. Gandarias
1967	Jose Luis Zurututza
...	1968ko maiatza: Sutea
1975	Pedro Jauregialtzo
1985-94	Jose Maria Bilbao

AJANGIZKO PARROKOAK
(1987-2000...)

1987 Iñaki Arriaga

Eliza: Jaunaren Igokundea
Eliza atxikia: Kanpantxu

ALBIZKO PARROKOAK
(1981-2000...)

1981 Iñaki Arriaga

Eliza: Sta. Maria Madalena

ERRIGOITIKO PARROKOAK
(1997-2000...)

1997 Dionisio Ajuria

Eliza: Andre Maria Jasokundekoa

FORUKO PARROKOAK
(1976-2000...)

1976 Felix Bilbao
1985 Pedro Urriolabeitia
1989 Rufino Gerenabarrena
1992 Pedro Jauregialtzo

Eliza: San Martin Gotzaina

GERNIKA-LUMOKO PARROKOAK
(1972-2000...)

1972 Felix Bilbao
1976 Jose Maria Azkue

Elizak: S. Pedro (Lumo);
S. Frantzisko (Lurgorri)

GOROZIKAKO PARROKOAK
(1997-2000...)

1997 Juan Barrena

Eliza: Andre Mariaren Jasokundea

IBARRURIKO PARROKOAK
(1997-2000...)

1997 Juan Barrena

Eliza: Andre Maria Jasokundekoa
Eliza atxikiak: Maume, Ajuria

MENDATAKO PARROKOAK
(1978-2000...)

1978 Iñaki Arriaga

Eliza: Mikel Goi-Aingerua

MORGAKO PARROKOAK
(1985-2000...)

1985 Felix Bilbao

Eliza: San Martin Gotzaina
Eliza atxikia: Andre Mari

MURUETAKO PARROKOAK
(1980-2000...)

1979 Felix Bilbao (parroko-laguntzaile)
1980 Andres Uberuaga (Bermeotik)
1992 Pedro Jauregialtzo
2001 Jose A. Irazabal

Eliza: Andre Mariaren Jaiotza

MUXIKAKO PARROKOAK
(1985-2000...)

1985 Felix Bilbao

Eliza: San Bizente Martiria
Eliza atxikia (1996...):
Areatzako Sta. Krutz

bigarren Seminario Txikia egitea, Arantzazukoari segida emanez. Aurreko urtean osatu zen proiektu hori aztertzeko Batzordea (B. Mendata, J. Larrinaga, B. Gerra), eta hurrengo urtean onartu proiektua. 1930-1931.eko urtean jarri zen ikasten Foruan ikastetxe horretako lehenengo fraidegai-taldea (ACD II: 359-260, 364; Homenaje 1935: 119).

1929an eraiki zen fraidegaitegi berria, betiere Arantzazukoaren jarraipen izan zedin, eta apaiz-ikasketetako laugarren (1930) eta bosgarren (1934) urteak bertan eman ziren. Egoera berriak eztenkatuta, egoitzan hobekuntzak egin ziren 1930.eko hamarkadan, orubeak trukatuz nahiz komentu zaharreko baratzea berreskuratuz (1929, 1934, 1941), pilotaleku bikain bat jasoz (1934), ikastetxeko eraikina moldatuz (1934, 1939), nahiz berriren bat eskuratzea deliberatuz (1953). Ikaslegoak gora egitean, hurrengo urteetan ere (1944, 1954) egokitu egin behar izan zen eskas geratutako etxea (ACD II: 364, 366, 431, 474, 478; III: 102, 161, 363, 373; Homenaje 1935: 78, 91).

Komentuaren eta Ikastetxearen arteko gobernu-harmonia bilatuz, bien kudeakuntza esku bakar batean jarri nahi izan zen (Administrazio bakarra, 1931; Goardiano-Errektorea, 1940), baina, itxuraz, bakoitzaren zeregin hain bereziek (pastoraltza eta fraide-bizitza batetik, irakaskuntza eta hezkuntza, bestetik) berriz ere agintaritza banatzea ekarri zuten (Goardianoa eta Errektorea, 1952). Hala ere, Seminarioaren bigarren epealdirako (1975-1994), Nagusi bakarrarengan bildu nahi izan zen aginte-batasun osoa (ACD II: 450, 70, 75; III, 330; V: 149, 153).

1968ko maiatzaren 9an sute batek kiskali zuen Foruko Seminarioa. Alde batetik baino gehiagotatik une sinbolikoa izan zen hura, urte berean ireki baitzen Arantzazun Seminario berria. 1969-1975.etan ikastetxe berria eraikitzen ari zelarik, 1974an ekin zitzaion berriro Foruko komentuko hezkuntz egitaraua berritzeari: berreraikitzea erabaki zen suak eramandako Seminarioa, lekumenduak zituen abantailez baliatuz eta Senitartea bera proiektu berriko xedeetara jarriz. Fradua arkitektoak egin zuen obra-proiektua, eta berori egikaritzeari presarik handiena eman zitzaion. Guadalupe Goitia andrearen testamentuari esker heldu zitzaion eraikuntzari, Aita M. Iñurritegiren ardurapean. Probintziako Definitorioaren agirietan ikus daiteke nolako garrantzia eman zitzaion egitasmo honi, eta aldi berean hezitzaileen taldea eratzeari (P. Jauregialtzo, P. A. García Chasco, etab.). 1975ean ireki zen berriro Ikastetxea, eta 1994a arte iraun zuen bere hartan (ACD V: 138-139, 142, 144).

Foruko Seminarioan, esan bezala, apaiz-ikasketetako laugarren eta bosgarren ikasturteak egiten ziren lehenengo epealdian (1930-1968). Bigarrenean, berriz, apaizgaiek Batxillergoa (1975-1994), eta 1986-1994.etan UBI/COU ere bai, Gernikako Institutuan.

Ikastetxearen lehenengo garai hartan, 953 ikasle iragan ziren bertatik, Erregistroak dioenez. Bi epealdietan 1.230 ikasle, gehienak Arantzazuko Seminariotik etorriak (1.185). Ikasle hauetako 679 Nobiziategira joan ziren zuzenean. Bestalde, Gernikaldea emankorra izan zen fraidegaitan: 1881-1993.etan 67 gazte gernikarrek hartu zuen abitu frantziskotarra, 30 muxikarrek, 16 kortezubitarrek, etab. (Agirrezabala/Beraza 1997: II-V; 1998: *passim*).

Foruko fraideen indarrik gehienak hezkuntzan eman baldin baziren ere, ez zen hau bertako kultur lanbide bakarra izan. Urte gutxitan izan arren, Foruko komentuak izan zuen bere idaztegia, edo idazle-taldea, kasu hartan "Apostolado Franciscano" zeritzan aldizkariaren zerbitzuan (1926az geroztik, "Misiones Franciscanas" dena). Penintsulan, berau izan zen frantziskotarren Arantzazuko Probintzian lehenengo aldizkaria, eta Foruko garaian euskaraz ere idatzia, Arrue eta Arrutik lagunduta. 1910.eko hamarkadan idazle-taldetxoa egon zen, ba, Foruko komentuan: L. Sarasola, M. G. de Andoin, A. Arruti, etab. (Intxausti 1998a: 98-104; Homenaje 1935: 312, 316).

Pastoraltza eta Kontzilio-ondoa

Baina, hezkuntza edo kultur lanen ondoan, komentuko ez-irakasleek pastoraltza izan dute beren zeregin lehena Foruan ere: Predikua,

Forua: San Frantziskoren irudia (Juan Guraia).

Sakramentuak... Beste alde askotan bezala, hemen ere Vatikano II.aren ondoko aldakuntzek bere betean antzaldatu dute komentu honetako jarduera pastorala.

Foruko herri txikian, komentuan bertako elizak ez du lan handirik eman, Parrokian apaiz diozesitar bat zegoen bitartean. Hala ere, fraideen inguruko laikoen elkarteak beren tokia izan zuten, eta batez ere Hirugarren Ordena aipatu beharko litzateke, ez herrian bakarrik, baina komentu-barrutian ere. Markinalderaino zihoan barruti hark, 1886-*c.* 1928 urteetan, 849 lagun zituen izen-emanda barrutiko herrietan (ik. HOko bigarren liburua: Komentuko Artxiboan), eta eman izan diren zifrak sinestezinak direla ere esango genuke (1928): adibidez, Foruan 580 hirugarrendar, Gernikan 660 edo Lekeition 1.895, eta hiru herri horietako 25 apaiz hirugarrendarrak ziren (Ocerin 1928: 64-68).

Kontzilioaren aurretik, parrokietatik etor zitezkeen berariazko deiei erantzunez parte hartzen zen inguruko herrietako elizgintzan. Horretan, ohizko zereginak ez ziren falta: asteburuetako Meza eta aitortzak, beharbada sermoirik ere bai, eta hileroko zerbitzuak (Lehen Ostiralak), eta noizbehinkako Jairen bateko elizkizunak. Bestalde, urteoroko Abendu eta Garizumek bazekarten lanik, Nabarritz edo Mendatatik Errigoitiraino, itsasertzetik Gorozikara. Beharreko estatistikak egiteko daude. Azkenik, beti egon ohi zen Foruan, XX. mendeko lehen partean, herri-misioaldietarako hizlari treberik, etxeko eskaintza nabarmenena hori izan gabe.

Kontzilio-ondoak berrikuntzarik franko ekarri du fraideentzat herrietako zereginetan: parroki bizitzan bete-betean sartu da Foruko Anaiartea, eta baserriarteko hainbat herri eta auzotan frantziskotarrak[ofm] ari dira ohizko parroki jarduna eramaten. Luzea da parrokien zerrenda: Gernika-Lumo (1972...: 1994az geroztik Forutik eramana), Forua (1976-2000...), Mendata (1978-2000...), Murueta (1980: Forutik 1992-2000...), Muxika (1985-2000...), Morga (Meakaur: 1985-2000...), Albiz (1981-2000...), Ajangiz (1987-2000...), Errigoiti (1997-2000...), Gorozika (1997-2000...) eta Ibarruri (1997-2000...). Parrokia hauen ondoan bestelako elizguneak ere aipatu behar dira: Paresi (Busturia: 1955...), Baldatika (Lumo: *c.* 1982...), Areatza (Muxika: 1996...), eta zegozkien parrokiekin batera hartutako besteok: Metxika (Errigoiti), Maume eta Ajuria (Ibarruri), Andra Mari (Morga), Kanpantxu (Ajangiz).

Elizarte zabal honen ardura taldean eramateko eman zien Gotzaindegiak Foruko frantziskotarrei (1997-09-01): halaxe egiten da lan, baina arduradun bakoitzak bere gisara eramaten ditu tokian tokiko lanak, betiere taldean mugaturiko irizpideen barnean.

Bestalde, elizarte horretan lekutu behar dira, gainera, Gernikako kapilautzak, kasuren batean luzaro eraman direnak: Gernikako Sta. Klaran tartean tarteko kapilaualdiak, edo ondoko beste finkoago hauek, hasiera-data beti erabat segurua ez dutenak: San Jose Egoitzan (1981-2000...), Karitateko Karmeldarretan (1950-1990), Kaltzada Aterpetxean (1980-2000...), Sta. Rosa klinikan (1955-1990). Horrek, gero, segida izan

du, kapilautzarik gabe ere, lekaimeei eskaini zaien fede-bidelaguntzaren bidez (Gernikako karmeldarren eta josetarren Ahizparteetan). Azkenik, Kontzilio-aurrean bederen ez zen falta izan aldi baterako asteroko edo hileroko zerbitzurik: Elantxobe, Durango, Urkiola, etab. (ik. Forua 2000).

Hezkuntzako balio kristauei begira eta Euskal Herriaren kultur balioen zerbitzuan, Gernikako San Fidel Ikastolan urte luzez parte hartu dute Foruko frantziskotarrek, bertako arduradun Karitateko Karmeldar mojen ondoan (*c.* 1975-2000...).

Mendea amaitzean, Foruko komentuak guztiz berriztatu du etxe-eraikina, berori Fraidearteearen zeregin eta premia berrietara egokituz (1998ko apiriletik 1999ko martxora bitartean). 2000. urte honetako talaiatik behaturik, Foruko Senitartea inguruko baserri-herrietara begira ageri zaigu batez ere, Gernika-Lumoko herri handiagoa ahantzi gabe, hau da, parroki lanetara buru-belarri emana.

GASTEIZ: ARIZNABARRAKO ANAIARTEA

(...1795-1834, 1973...)

Arabako Hiriburua "Vitoria-Gasteiz" izen ofizialarekin ezagutzen dugu, gaur egun. Arabako lurraldeko bihotz-bihotzean dago hiri hau, Lautadaren erdian.

Arabako beste herri askoren kasuan bezala, Gasteizen lehen aipua 1.025ekoa da; baina Hiriaren sortzea 1181ekoa dugu, orduan eman baitzion Nafarroako Antso Jakitunak bere Hiri-Gutuna. Gasteiz Gaztelako Erregeak hartu (1200) eta Arriagako Kofradia berorren menpe jarri zelarik (1322), Gasteizek betekizun historiko jakinak izan zituen: nafar mugaldean gotorleku izan, Mesetarako bidean merkatal zerbitzuak eskaini, Araba Lurraldeko hiriburutza bete, etab.

Aro Modernoan zehar, hasieran eta bukaeran, Gasteizek biztanle-kopuruan gora-joera eutsiko historia izan zuen, ondoko datuok erakusten digutenaren arabera: 5.000 lagunekin bukatu zuen XV. mendea, eta XVII.eko beheraldiaren ondoren (3.800 lagun, 1683an), 6.300 zituela amaitu zuen XVIII. mendea (Imízcoz/ Manzanos 1997: 52).

Gasteiz-ek, azken bi mendeetan, abiada ezberdineko biztanle-hazkuntza izan du; lehenengo mende eta erdian gora-behar sostengatua izan zuen (1800-1950), baina 1950tik hona, hazkuntza demografiko oso azkartua ezagutu du: 6.500 bizilagun zituen 1802an, 9.553 (1850), 26.921 (1877), 30.701 (1900), 52.206 (1950), 136.873 (1970), 218.809 (1996).

Horrekin batera hirigintzan ere, garai bateko murruak hautsita, bizkorki hedatu da inguruetara. Espainiako etorkinekin batera, ugari dira Gasteizen Araba osotik eta euskal Herrialdeetatik iritsi direnak, industri garapenak eta EAEko hiriburutzak erakarrita.

GASTEIZ FRANTZISKOTARRA (XIII-XX. MENDEAK)

Arabako Hiriburu honek historia frantziskotar luzea ezagutu du, Gasteiz-Ariznabarran (Castillo de Villamonte kalean) Etxe berria ireki arte (1988). Gogoratu besterik ez dago noiztandik eta zenbat elkarte frantziskotar bizi izan den bertan.

Jada 1236an ageri da Gasteizko San Frantzisko komentuaren lehen albistea, eta mende berean behin eta berriz izango da aipatua agirietan komentu hau, besteak beste Tibalt II.a Nafarroako Erregeren hilburukoan (1270). Etxe honek eman zion, gainera, frantziskotarren barruti geografiko bati bere izena: "Bitoriako Kustodia" (1272, 1334). Etxe hori izan zen geroztik (Kantabriako Probintzia sortzean, 1551) Probintziako Buru ere, XIX. mendea arte (1834). Hirian bezala Probintzian, zenbait eginbeharretan komentu hau Herri-Erakundeen egoitza oficiala ere izan zen (Batzar-lekua, Artxiboa, etab.). Horregatik, gogoz eta maitekiro deskribatu zuen berau Landazuri historialari arabarrak (Uribe 1988: 71-101; Intxausti 1998: 83-87).

Non zegoen lekututa San Frantziskoko komentu hura? E. Apraiz-ek honela eman zuen horren berri: "hasta 1850-1851, el área ocupada por el templo y convento franciscanos, con sus dos claustros, jardines y huertas, quedaba delimitada al Norte y Este por la calle de San Francisco, cuesta del Resbaladero y actual calle de los Fueros hasta su encuentro con la hoy llamada de la Independencia; y al Sur y Oeste, por esta misma calle y la que en dirección Sur-Norte asciende, desde el comienzo de Independencia, a unirse con la de San Francisco. Quedaba, pues, interrumpida la calle de Postas por las tapias del convento" (Apraiz 1951: 320).

Gasteizek, Abando-Bilbok bezala, bi komentu frantzizkotar[ofm] izan zituen, zeren XVII.ean beste Etxe bat ere ireki baitzen Hirian, Sorkundeko Komentua (gaur egun, klaratarrek daukaten San Antonio komentuan). Erregimen Zaharrean eta Arantzazuko Probintziaren hedakuntzan berau izan zen fraide-etxeetan azkena eraikitakoa (1648); Probintzia erlijioso hartako fraide errekolektoen komentu bezala ireki zen hau (Uribe 1996: 244-260; Intxausti 1998: 87).

Fraideen artean frantziskotar kaputxinoek Aro Modernoan ez zuten izan Gasteizen komentua jartzerik, eta Biasterikoa bakarrik izan zen Araban izan zutena, eta hori ere ez Nafarroa-Kantabriako Probintzia kaputxinoak eta Gaztelakoak beren arteko auzirik izan gabe, eraiki ere Gaztelak eraiki baitzuen berori, Nafarroakoari zegokion eremu geografikoan. Berrikitan ireki dute kaputxinoek beren egoitza erlijiosoa hiri honetan (1981: Huetos Hirib.; 1984: V. Foronda). Heziketa-Etxea da berau (Intxausti 1998: 89-90; Añorbe 1951: 192-194; Tokiko lekukotasunak).

Frantziskotartasun gasteiztarraren urruneko sortze-urteetara itzuliz, esan dezagun XIII. mende hartan ez zirela izan fraideak bakarrik Gasteizen beren Etxea izan zutenak. Izan zen emakumezkoen etxerik ere: klaratarren Santa Klarako Ahizpartea beranduenik 1247koa zen, eta bere bizialdia komentu horretan bertan XIX.a arte luzatu zuen; gero, komentu-eliza historiko haiek eta orubea Udalaren eskuetara pasatu ziren (1841), eta hiriko hedagune berrian Florida Parkeari leku egin behar izan zion; 1850.eko hamarkadatik hona San Antonioko komentuan dagoen Ahizparte klaratarra da (etxez aldatua, beraz) jatorrizko Ahizparte haren segida eta beraren historia osatzen duena (Uribe 1988: 161-167; Intxausti 1998: 91-93; Clarisas 1993: 71-79).

Klaratarren Gasteizko lehen historia horri bigarren bat gehitu behar zaio, XX. mendean: 1905etik aurrera Zezen Plaza ondoan jarri zen Périgueux-tik iraitzita etorririko Ahizpartea; 1910etik aitzina, Ehariko Atariko komentu berrian izan zuen egoitza, eta gaur egun Badaia kalean daude klaratar hauek. Hau da Gasteizko "Santa Klara Berria" dei genezakeena. Euskal Hiriburu guztietatik Gasteiz da orain (2000) bi Ahizparte klaratar dituen bakarra (Clarisas 1993: 581-588).

Gainerako euskal Hiriburuetan emakumezkoen hainbat Institutu frantziskotar modernoren Etxeak aurki ditzakegun bitartean (Irakaskuntza nahiz Osasun-alorrean ari direnak, gehienbat), Gasteizen ez dugu idoro ahal izan halakorik, XX. mende osoan.

Lagunarte horien guztien artean, hemen frantziskotarren[ofm] San Frantzisko historiatuko dugu berezikiago, San Antonio edo Sorkundeko beste komentuaz[ofm] ere zertxobait esanez. Aro Garaikideko "Gasteiz-Apraiz" eta "Gasteiz-Ariznabarra" deritzenak ditugu batik bat gogoan.

IRAULTZA-ONDOKO KRISIALDIAN (1793-1834)

Gasteizko komentu frantziskotar[ofm] handiena San Frantzisko deitua izan zen; jada ikusi dugu non zegoen lekututa.

Frantzian Iraultzak elizgizonei eraso zienean, Gasteizko Hiriak haietako 160ren bat erlijiosori eman behar izan zien aterpea, eta horrek, noski, gasteiztarren errukia ez eze pentsamoldea eta beldurra ere eragin zituen. Berehala eta hasteko, Konbentzioko Gerra lehertu zenean (1793-1794.eko neguan), bereziki Gipuzkoatik ihesi etorritako fraideei ere babesa eman behar izan zitzaien. Badakigu, adibidez, Sasiolako bi

Gasteiz: San Frantzisko antzinako Komentua (s. XIII-1930). (Argazkia: E. Apraiz Buesa, a. 1930).

nobizioak Gasteizko San Frantziskora bidali zituztela 1794ko irailean eta bertan egin zutela lehen profesa. Artean, 1794an, Araba Armada Frantsesak hartu gabeko lurraldea zenez, honelako errefuxiatuak ugari iritsi ziren. Barria, Zurbao, Dulantzi edo Bastidan aurkitu zuten aterpea Tolosa, Oñati edo Eibarko moja frantziskotarrek; baina, geroxeago, batzuetan Arabatik ere alde egin behar izan zuten Araban bertakoek (Aguraingoek edo Gasteizko Sta. Klarakoek, adibidez) (Solaguren s. d.: 79, 80-81; Goñi 1979: 49).

1795eko uztailaren 15ean frantsesak Hirian sartzean, lortu zen zorionez arriskua ezbehar handirik gabe pasatzea, nahiz eta aldi batez soldadu frantsesei komentuan leku egin behar izan zitzaien, baina fraideek Etxea erabat utzi gabe. Basileako Bakeak berehala samurtu zuen egoera, zeren uztailaren 22an sinatu baitzen akordioa. Ondoren, dozena bat urtetarako bakea izan zuen San Frantziskoko Etxeak (Velasco s. d.: 85-86; Areta 1983: 199; Apraiz 1951: 326).

1807-1808.eko gertakariek bestelako larrialdia ekarri zuten: adiskide gisara zetozenak, bide erraza izan baitzuten Gasteizeraino, baina hemen okupatzaile bihurtu ziren bertan behera. Napoleonen soldaduak hiru olatualditan iritsi ziren 1807ko urrian hasita. Hori baino lehen agintariek ospitaleak eta kasernak prestatu behar izan zituzten: San Frantzisko kaserna eta ospitale bilakatu zen Portugalerako bidean omen zihoazenentzat. Hala ere, fraidearteak (gutxitua izanik ere) bertan geratu ahal izan zuen, aldi batez, 1809ko iraileko Esklaustraziodekretuak kaleratu zituen arte (Solaguren s. d.: 86, 94).

Soldaduen komentuko egonaldiak bere ondorioak ekarri zituen: adibidez, nabarmena zen organuaren hondamendia eta baita liburutegi ongi hornitu hartatik lapurtuz eta sakabanatuz joan ziren liburuak ere. Jose I.a Erregeri babes hoberik eskatu arren, Udaletxeak ez zuen lortu zenbait komentutako liburutegiak batera

Gasteiz: San Frantzisko antzinako Komentuko igeltseria. (Argazkia: E. Apraiz Buesa, a. 1930).

biltzea baizik, hori nola eta non egin zen ez dakigun arren. Fraideek, beren aldetik, ez zuten itzultzerik izan 1814ko urriaren 4a arte (Solaguren s. d.: 122-123).

Itzultzean, komentu-barruko bizitza arautua eguneratzea izan zen lehenengo egitekoa. Eta, besteak beste, 1815az gero nobizioak hartzen hasi ziren San Frantziskon; baina ez zen izan lasaitasuna luzarorako, zeren Hirurteko Konstituzionaleko gertaerek ez baitzuten barkatu hemen ere. 1822an San Frantzisko kaserna bihurtu zen berriro, fraideak etxeko hegal batera alboratuz. (Apraiz 1951: 326; Solaguren s. d.: 183).

Sorkunde edo San Antonion[ofm] gertakizunak latzagoak izan ziren, 1820an: Legearen arabera komentua itxi egingo zen, San Frantzisko ere bazegoenez, Hirian Ordena bereko bigarren Etxea zelako. Fraideek berek hartu zieten aurrea agintari zibilei, zeren Legearen eskakizunak ezaguturik, eta gainerako komentuak horko erlijiosoekin segurta zitezkeela ikusita, itxiera bortxatua aurreratu egin baitzuten beren kabuz. Bertako liburu eta altzariak saldu egin ziren, partez bederen, Estatua haietaz jabetzera etorri aurretik. 1822an kaserna bilakatu zen Sorkundeko komentu hau, eta zalditeria jarri zen bertan (Solaguren s. d.: 151-152, 183).

1823an, "San Luis-en Ehun Mila Semeak" deituriko Armada iristean, egoera guztiz irauli zen Gasteizko bizitza politikoan, Erreinu osoan bezala. Frantziskotarrek[ofm] harrera ona egin zioten aldarte berriari, eta ospakizunetan lehen lerroan agertu ziren, komentura itzuli orduko. Hilabeteren buruan, Probintzia osoko komentu-bizitza bideratzeko bilera Gasteizko San Frantziskon egin zen, Alameda Ministro Jenerala bertan zelarik (1823ko maiatzaren 10-17etan). Ekainean ireki zen komentu honetako Nobiziategia; bazirudien, ba, komentu-bizitzaren geroa segurtatu zela, atzera bere indar betean ageri baitzen hamarkada bat geroago (Apraiz 1951: 326, 327; Solaguren s. d.: 191, 195, 202).

Baina 1833an I. Gerra Karlista lehertu zen. Bilboko komentuetan[ofm] lehenengo (1833ko urri-azaroetan) eta Urduñan gero (1834ko apirilaren 8an) ikusitakoaren ondoren (haietako fraideek, inork bortxatu gabe, utzi egin zituzten komentuak), pentsa zitekeen Gasteizen ere izango zutela oihartzunik gertakariek, agintarien artean bezala fraideetan ere. Sarsfield Jeneral isabeldarra Gasteizko Hirian sartu zenean (1833ko azaroan), San Frantziskoko komentuan jarri zituen bere arma-gizonak, baina, artean, fraideak erabat bertatik iraitzi gabe. Besteak beste, Aldundiaren txostenaren arabera, badirudi gasteiztarrek erlijioso hauekiko zuten estimuak ezarri zuela zuhurtzia politiko hori. Gerragiroa, ordea, ez zen konponbide samurrago horietarako unea, are gutxiago gerra luzatu eta politika oro arrunt zitaldu zenean (Solaguren s. d.: 228-231, 239, 253-254...).

1834ko apirilaren 17an Quesada Jeneralak San Frantzisko zeharo hustutzeko agindu zuen: 70 frantziskotarrek utzi egin behar izan zuten Etxea (Sto. Domingoko beste 35 domingotarrekin aldi berean), Andaluzia, Aragoi, Katalunia eta Valentziako komentuetara bidalita. Garaiko Udaletxe liberalak berak aitortu zuenez, "la providencia [Quesadaren erabakia, alegia] se recibió como un rayo disparado por un brazo fuerte". Bi arrazoi nagusi erabili zituen Jeneralak erabaki hau zuritzeko: kasernak behar zirela, eta bertako fraideek erreboltara xaxatzen zutela herria. Hein batean egia zen hori; adibidez,

1830-1833.etan Goardiano izandako C. Díaz de Acebedoren ibilera politikoa ezaguna baitzen, baina esan behar da, gainera, komentu hartako Senitartean egon zela errebolta baino bestelako zerbait nahiago zuen erlijiosorik franko. Dekretua nola egikaritu zen eta erbesterako bidaia nolakoa izan zen jakiteko Aita Arkaiaren lekukotasuna gorde da iturrietan: 1834ko apirilaren 21ean irten ziren San Frantziskoko fraideak erbesterako, oinez eta herriz herri, izendatu zitzaizkien urruneko komentuetaraino (Apraiz 1951: 327; Solaguren s. d.: 250-253, 254-260).

Gasteizko San Frantzisko eta Sto. Domingon gertatutakoak, goi-politikan elkarrizketa-gai izan ziren orduan, Garelli Ministroaren eta Tiberi Nuntzioaren artean. Nolanahi ere, laster gerrak okerrera egin zuen Erreginarentzat (Gasteiz bera Berastegi karlistaren menpe erori baitzen, eta hilabete eta erdi izan ziren hiriko jabe karlista erreboltatuak, 1834ko urri-azaroetan); bestalde, Madrilgo Gobernuan liberal gordinenek hartu zuten agintea, eta Desamortizazio-legeak bere osoan ezarri zitzaizkion San Frantziskoko komentu honi (1835-1836). Aipatuko dugun 1930eko eraisketaren ondoren komentu honetako eraikin handi haietatik gordetakoak Apraizek aipatzen ditu (Solaguren s. d.: 250-253; Apraiz 1971: 310).

Sorkunde edo San Antonioko komentu errekolektoak[ofm] beste erritmo batean egin zuen Esklaustraziorainoko bidezidorra: 1834ko apirilean, San Frantziskoko fraideak komentutik iraitzi zituztenean, hemengo zazpi erlijioso xahar eta gaixoei agintarien erabakiz San Antonion eman zitzaien egoitza, nahiz eta gero hiru bakarrik bildu ziren bertara. 1834ko ekainaren 9an eta inolako legezko formaltasunik gabe, Osma Jeneralak agindu zuen komentu hau husteko, eta badirudi berehala bete zela agindu hori: 21 lagun ziren bertako fraideak, eta oso zahartu eta eriak horietako erdiak, behintzat. Hemengo fraideek ez zuten erbestera joan behar izan, baizik eta bakoitza bere familiartekoen eta lagunen etxeetara edo bildu zen. Hiriko zenbait zinegotzik (L. Velasco hauetan saiatuena) Santa Klarako eliza-komentuak eta orubea Gasteizko hedagunerako begiz jo zituztenetik, San Antonioko komentu hau izan zen —oposizioa isilarazteko— Udaletxeak klaratarrentzat hautatu zuen egoitza. Komentu honen historia artistikoaz eta gaur egungoaz Larrinaga edo Cantera-ren lanetan ikus daitezke deskribapen txukunak (Solaguren s. d.: 256-257, 260; Larrinaga 1935: 255-257; Cantera 1971).

Honela amaitu zen, ba, Gasteizko Senitarte frantzistotarren[ofm] historia (San Frantzisko eta Sorkunde edo

Gasteiz: Sortzez Garbiaren antzinako komentu frantziskotar errekolektoan (1648-1834) gaur dagoen aldarea. (Argazkia: 2002).

San Antoniokoa), XIII. mendetik zetorrenari ondoren ia 150 urteko parentesia irekiz.

KOMENTU-ERAIKINEN HISTORIA (1834-1930)

Gasteizko hiru komentu frantziskotarrek (fraideen biek, eta klaratarrenak) orube zabalak zituzten, eta batez ere San Frantziskoko kasuan, eraikin bikain eta ederrak. Artean 1950etik honako garapen azkarraren tamainarik ez izan arren, Gasteizek XIX. mendean hirigintza berri estimagarria ezagutu zuen, eta Udalaren eta zenbait herritarren interesek eraikin eta orube haiek beren osoan harrapatu zituzten (Velasco s. d.: *passim*).

Xehetasun handiegitan sartu gabe eman ditzagun hemen, jada Fraidearterik gabeko bi fraide-komentu haien gorabeherak. Velasco eta Apraiz-ek bildu dizkigute ibilera haren albisteak.

San Frantzisko Komentua

Desamortizazioaren ondorioz, San Frantzisko Estatuaren eskuetara pasatu zen, beste fraide etxeak bezala (Solaguren 261). San Frantziskon hiru ondasun-mota zeuden baliagarriak: komentuko eraikina bera, hau da, fraideen etxebizitza eta osagarriak (klaustroa eta eraikineko mota guztietako zerbitzu-lekuak); bigarren, eliza bera, eta azkenik ortua edo baratzea (bere arboladi eta barazki-sailekin). Dena zen probetxagarria, Herri-Erakunde, dirudun eta herritarrentzat, baina bakoitza, agian, zeregin ezberdinetarako. Horregatik, hirurek izan zuten berariazko ibilera ezberdina.

Gisa batean nahiz bestean, eliza elizkizunetarako erabili zen 1843a arte, orduan zerratu zen arte. 1845ean berriro irekiko ote zen ibili ondoren, 1849an errentan eman zuen Udalak zeregin ez-erlijiosotan erabiltzeko (Apraiz 1951: 328).

Bistan da inguruetara ireki eta hedatuz zetorren Hririrako gutiziagarria zela, eta premiazkoa ere, San Frantziskoko baratzea. Udal-Sindiko bezala, arazoan esku zuzena izandako Velascok adierazten du, baratzeaz jabetzeak Gasteizen hedapenerako izan zuen garrantzia; behar zena erosi eta Estatuarena lortu 1851n egin zuen Udalak, eta ondorioz kale eta etxadi berrietarako erabili ahal izan ziren ondoko urteetan (Velasco s. d.: 161-161, 165-166).

Komentuaren beraren inguruan gatazka eta interes kontrajarriak agertu ziren jada 1838an: Gerra-Ministeritzaren zerbitzuan ala bestelako zerbitzu zibiletarako utziko zen hura dena? Madrileko Arte Ederretako San Fernando Akademiak komentu-eraikinak bere hartan gorde nahi zituen, baina Gasteizko Udalak —bestelakorik espero ote zitekeen egokiera hartan?— irrikaz begiratzen zituen Santo Domingo eta San Frantzisko, izan ere hainbat proiektu berritarako baliozkoak baitziren biak ere. 1840tik aurrera komentua kaserna edo/eta ospitale militar bezala ageri zaigu; 1845eko urtea izan zen eraikin osoak guztiz betekizun zibilak hartu zituen urtea. Horrelaxe jarraitu zen, harik eta hirian ospitale berria egin eta osorik kaserna gisara geratu zen arte (1865). Artileriako kaserna berri batekin osatu zen orduan San Frantziskoko gune militarra (Apraiz 1951: 328, 357; Solaguren s. d.: 261-262; Velasco s. d.: 253-254).

San Frantziskoko eraikin-multzoaz Gerra-Ministeritzak eta Udaletxeak elkarrizketa zailak izan zituzten 1902-1927.etan, bakoitzak bere interesak eta ikusmoldeak zainduz, eta hiritarren arteko prentsa-eztabaidarik ere ez zen falta izan, komentua eraistearen ala gordetzearen aldekoen artean. Udalaren eta Ministeritzaren 1920-1921.eko akordioen bidetik joan ziren ondoko pausuak, eta, azkenik, Ministeritzak enkantera ateratako komentu eta gainerakoen jabe Gasteizko Udala egin zen, 1927ko irailaren 11n. Ordurako irekita zegoen Madrilen komentua "monumentu nazional" ezagutzeko espedientea; harrigarriro, hain zuzen horren jakinaren gainean hartu zuen Udalak dena, 607.000 pezetatan (Apraiz 1951: 359).

San Frantziskoko elizaren eraisketak garaiko Udala eta Gasteizko Aurrezki Kutxa Munizipala izan zituen protagonistatzat, betiere Madrilen mantso samar zihoan monumentu-espedientearen aurka lehiatuz, honi nola aurrea har-

tuko. Eztabaida, iritzi eta interes kontrajarrien artean, 1930ko martxoan bota zen klaustro gotikoa, eta apirilaren 10ean eraso zitzaion elizako absideari, Madrileko espedientearen berri jakin eta gero (!). Udaletxean krisia eta Gobernuan bi Ministeritzen arteko gatazka piztu zituen legezko prozeduren kontra egindako balentria hark. Azkenik, Gobernu-Buru zen Berenguer eta Gobernazioko Ministro Marzo Jeneralen babesarekin Gobernariak eraisketarekin jarraitzeko baimena eman ahal izan zuen. Hamazortzi urte geroago eraiki ziren bertan Gobernu Zibila, Justizia Jauregia, etxebizitzak, etab. (Apraiz 1952: *passim*).

San Antonio Komentua

Aurrera baino lehen esan dezagun zerbait Sorkunde edo San Antonioko komentuaz ere. Desamortizazioa iristean, komentuaren XVII. mendeko fundatzaileen borondatearen indarrez komentua bere osagarriekin haien ondorengoen eskuetara itzuli zen, Monte-Hermosoko Markesarenera alegia. Baina urte batzuetan Artileriako kaserna izan zen, 1840ko hamarkadan. Ahal izan zuenean, saldu egin zituen Markesak baratzea eta komentua, baina elizaren jabetza gordez. Azkenik, 1851n eskuratu zuen Udalak eliza, eta aldi berean errentan hartu komentua, 1853an erosi ere egingo zuena. Hortik aurrera, fraideen komentu hau Santa Klara historikoko moja desjabetuei utzi zitzaien, eta han daude geroztik gaurdaino (Velasco s. d.: 163-164, 174; Solaguren s. d.: 261, 466).

ITZULERA BERANTIARRA (1973), ETA LANBIDE ANITZAK

Zaila eta berantiarra izan da Gasteizen frantziskotarrentzat[ofm] Esklaustrazio-ondoko itzulera, Iruñean gertatu den bezalatsu. Badirudi klero diozesitarrak laguntzaile baino lehiakide modura ikusten zituela fraideak, eta nahiago izan zuela haiek berriz Hirira ez itzultzea.

Jada, 1851n, klaratarrak San Antoniora ekartzen ibilitako fraide-ohiei errezeloz begiratu zien Gasteizko kleroak, haien azken asmoak zeintzuk ziren galdetuz eta Gotzainari gaztigua pasatuz. Aurreiritziek luze iraun zuten, harik eta 1970eko hamarkadan iritzi eta uste haiek nahikoa bigundu ziren arte, ziurki bertatik bertarako

Gasteiz-Ariznabarra: San Pablo Parrokia honetako barrutian bizi dira Hirian elizarik ez duten frantziskotarrak. (Argazkia: 2002).

harremanek lagunduta (Solaguren s. d.: 467). Aldaketa horren aurreko historia gogoratu beharko dugu estreina.

Bigarren Gerrate Karlistaren ostean eta Kantabriako Komisariak bere "Probintzia" aitorpena lortu ondoren (1886), laster piztu zen Gasteiza itzultzeko gogoa frantziskotarretan[ofm], baina asmoak ez zuen aurrera egin orduan (1888).

Ia berrogei urte geroago (Donostian Hiriburuetako lehenengo komentu frantziskotar izanberritua[ofm] ireki zenean), ezusteko ekimen batekin topo egin dugu artxiboetan: 1923-1924an

Gasteizko San Frantziskoko Nagusiak (1792-1834)

1792	Migel Ruiz de Alda
1794	Migel Antonio Urbina
1795	Fernando Gebara
1797	Klemente Larrauri
1798	Klemente Larrauri
1800	Frantzisko San Antoniorena
1801	Frantzisko San Antoniorena
1803	Frantzisko San Antoniorena
1804	Frantzisko San Antoniorena
1806	Santiago de Suso
1807	Santiago de Suso
1814	Damaso de Suso
1815	Damaso de Suso
1816	Damaso de Suso
1818	Silbestre de Casal
1820	Silbestre de Casal
1824	Silbestre de Casal
1825	Silbestre de Casal
1827	Buenaventura de Tobalina
1828	Buenaventura de Tobalina
1830	Casimiro Diaz de Acebedo
1832	Casimiro Diaz de Acebedo
1833	Martzelo Gorospe
	1834: Esklaustrazioa

Gasteiz-Ariznabarrako Nagusiak (1967, 1973-2000...)

1967	Benito Beltran de Heredia
1970	Benito Beltran de Heredia
1973	Florentino Arruti (?)*
1976	Florentino Arruti (?)*
1979	Juan Jose Aristi
1981	Migel Maria Otero
1982	Migel Maria Otero
1985	Jesus Ignazio Bilbao
1988	Juan Ignazio Larrea
1991	Jose Maria Arregi
1994	Jose Maria Arregi
1997	Jose Antonio Urdanpilleta
2000	Jose Antonio Urdanpilleta

* Izendapen honetaz ez dugu argibide garbirik atera ahal izan

Abornikano-ko Parroko-ordeak (1992-2000...)

1992 Eusebio Untzurruntzaga
1994 Jesus Maria Madariaga

Anda eta Andagoia-ko Parroko-ordeak (1992-2000...)

1992 Eusebio Untzurruntzaga
1994 Jesus Maria Madariaga

Izarrako Parroko-ordeak (1992-2000...)

1992 Eusebio Untzurruntzaga
1994 Jesus Maria Madariaga

Gasteiz-Ariznabarrako Anaiartea (2002): Jesus M. Madariaga, Frank Miki Ulloa, Joa A. Urdanpilleta, Jose A. Martínez, Esteban Melians, Manolo García, Jose L. Elortza, Iñaki Aranberri, Juan Iñiguez. (Joxe Arregi falta da).

egingarri ikusi zen San Antonioko klaratarren Ahizpartea Foruko fraideen komentura lekualdatzea, eta erlijiosoek Gasteizko komentu hartan egoitza hartzea, baina hurrengo urtean Definitorioak —zergatik ez dakigula— proiektua albora utzi zuen (ADC I: 33-34: II: 284, 288).

Dena den, bide juridiko zaharretara itzuliz, urte berean Ministro Jeneralak Ordenako baimena eman zuen Gasteizko Etxea eraikitzeko; hala ere "oraingoz" ez irekitzeko esanez erantzun zien fraideei Aulki Santuak (1925). Gotzaindegitik etorritako erantzunak erakutsi zuenez (1925), oztopoak edo kontrako arrazoiak (ekonomikoak ere aipatu ziren) Erroman baino areago Gasteizen bertan zeudela esan beharko da (Solaguren 1988: 5-7).

1931-1950.eko giroak ere ez zuen itzulera lagundu. Hala ere, gerra-giroan inoiz uste izan zen Armentiako parrokia frantziskotarrei[ofm] eskainiko ote zitzaien (1938). Urte haietan, badirudi klero sobera zegoela Gasteizen (gogora historialari batek Gasteizi buruz idatzitakoa: "Ciudad levítica"), eta, bestalde, 1942an Lauzurika Gasteizko Administrari Apostolikoarekin behintzat Bilbon ere estropozu txar bat izan zutela frantziskotarrek[ofm] komentua jasotzen ari zirela. Horrek ere ez zion lagunduko, noski, Gasteizko itzulerari (Solaguren 1988: 9; ik. BILBO-IRALABARRI).

1957tik aurrera entseatu ziren eginbide berriak, eta etenik gabeko arduraz lan egin zen, 1959tik aurrera batez ere K. Gastesiren eskutik: arazoaren alde juridikoa aztertu zen (1957), Definitorioak asmoaren aldeko erabakiak hartu zituen (1958, 1966), zenbait kudeakizun egin ziren (1958-1959, 1964), Petra Pz. de Nanclaresen orube-eskaintza jaso (1959, 1961) eta mendeurren baten aitzakiarekin proiektu zaharrak piztu (¡1214-1964!). 1969an, hainbat joan-etorriren ondoren, hartutako orubea saldu eta Ariznabarran erosi zen beste bat (1970), hain zuzen azkenik fraide-etxea eraikitzeko erabiliko zena (1987-1988) (ACD IV, 51, 61, 108, 110, 116, 122, 220, 244, 253, 260, 274, 367, 377, 396; Solaguren 1988: 9, 11-12, 19).

Horren aurretik, ordea, 1960.etako ahalegin haiek ezezko batean trebukatu ziren, Gotzainaren ezezkoarekin. Horregatik, komentua eraiki gabe, etxebizitza soil bat hartu, eta San Frantziskko komentu zaharraren nortasun historiko-juri-

Gasteiz-Ariznabarra: "Paisaia, beltz-arretan" (X. A. de Eulate, 1997).

dikoa artean indarrean omen zegoela eta, preskripzioa saihestu nahirik, egon egongo ez zen "domus religiosa" bat "ireki" zen, bere Nagusi eta guzti (B. Beltran de Heredia, 1967), baina dena Senitarterik gabe eta bertan bizitzeke. Gerorako orubea bere lekuan zegoen bitartean, Apraiz kalean erosi zen etxebizitza bat (1971), baina komentutarako itxaropen barik, berehalakorik gabe behintzat (1972) (ACD IV: 316, 346; V: 40, 50; Solaguren 1988: 15).

Horri esker, eta Seminarioko Teologi Fakultateak ematen zuen erraztasunaz baliatuz, 1973tik aurrera ikasle-etxe bezala erabiliko zen egoitza. Hala ere, Hirian eta Elizbarrutian presentzia hau gero eta onartuagoa ageri da, batez ere euskarazko pastoral-lanetan laguntza eskaintzean, hori gertatu zen 1975-1976.an J. Galarragarekin (Solaguren 1988: 15).

Probintziaren pertsonal-egoera aldatu ahala, frantziskotartasunaren ikuspide berrituak indartzean eta Diozesian mota guztietako aldakuntzak finkatu ahala, Gasteizko Senitarte honen proiektua gisa berri batean definitu zen: bertan parrokia eta elizarik gabekoa izan beharko zuen Etxeak, ebanjelizatzera emana batik bat Sakramentuetara baino gehiago; edozein eratan etxe apala. Bestalde, interes kontrajarriak ahulduz joateak eta elkar ezagumendu hobeago batek, erakundeak hurbildu egin zituzten (T. Larrañaga Probintzialaren eta J. M. Larrauri Gotzainaren elkarrizketa, 1979ko abenduan). Guztiaren ondorioz, 1980ko martxoan eman zuen Gotzainak Senitartea juridikoki eraikitzeko baimena, Apraiz-erako lehenengo eta jasoko zen etxe berrirako ere (Solaguren 1988: 16).

Gasteizko Etxea (1980a aurretik eta gero) heziketa-leku bezala ageri zaigu, eta hori horrelakoen esanahi zabalenean (mota ezberdinetako hezibideak), eta, adiera hertsiagoan, baita "Heziketa-Etxe" gisa ere (eliz hezibide arautua segitzeko).

Heziketa iraunkorraren ildotik, Arantzazuko Probintzian urtebeteko berritzealdi teologikoak antolatu direnean, Gasteiz izan da horretarako egoitza (1973-2000...), eta horretara etorriak Etxe honetan bildu dira, edo Seminarioan egonik, hemen izan dute Hiriko beren egoitza frantziskotarra. Hortaz, pertsonalaren aldetik joanetorri bizkorreko Etxea gertatu da hau, bai Apraiz-ko epealdian (1973-1988), bai gero, Ariznabarrakoan (1988-2000...). Eta Teologia osoa bertatik egin duenik ere izan da (Solaguren 1988: 15).

1985-1986.ko Kapitulu eta Osoko Kontseiluan eman zitzaion azken ukitua Etxe honetarako Senitarte-proiektuari, berau Probintziako "Heziketa-Etxe" izendatuz, eta betiere etxe apal eta egitura txikiko egoitza bezala definituz (Protokoloak 05/1986: 3-9).

Etxearen funtsezko heziketa-betekizun horren ondoan, bertako pertsonal iraunkorragoak pastoralari eta euskalgintzari eman zien leku, hasieran. Lehen urteetan euskararen irakaskuntzan hartu zuten parte, parrokietako lanetan, mojen kapilautzan, gogo-jardunetan, etab.

1988an, Apraiz kaleko etxea utzi eta Ariznabarra auzoko Castillo de Villamonte kalera (2. zenb.) pasa zen Senitartea (gure historia honetan "Gasteiz-Ariznabarra" bezala izendatzen dena, hain zuzen), eta berau Goardiano-Etxe bezala ezagutu zuen 1988ko Kapitulu Probintzialak (Protokoloak 12/1988).

Hona bildu ziren apaizetarako edo eliz ikasketak egiten ari ziren gazteak, beren hezitzaile-

ekin: 1993-1994.an, adibidez, bi irakasle eta sei ikasle. Horretan iraun du gazte fraidegairik izan den bitartean (1999). 1994an Iruñetik hona ekarri zen Postulantadua (nobizio-aurreko bi urteak), eta Teologi ikaslegoarekin batera jarri zen Gasteizko Etxe honetan.

Senitarte honek ez du izan inoiz (ez Apraizen eta ez Ariznabarran) herriko kristauartearentzako elizgune ireki eta publikorik, eta nahiago izan ditu han-hemenka eskaini bere apaiz-zerbitzuak, unean uneko eskeei erantzunez. Halaz ere, 1992ko abenduan, zenbait Anaiaren ardurapean, parroki lan finkoa hartu zuen, baina ez Gasteizen bertan, Urkabustaizko Izarra eta Abornikanon, eta Koartangoko Andan baizik (E. Untzurruntzaga eta J. M. Madariaga izan dira berorietako parrokoak: 1992-1994 eta 1994-2000.etan, hurrenez hurren). 2000. urtean ardura berarekin jarraitzen du Senitarteak.

Azkenik, Heziketa-Etxe izaki, Gasteizen eta Gasteiztik lan egin izan dute bertako irakasle frantziskotarrek[ofm]. Azpimarratzekoa da alor honetan Senitartean burututa eta indarrean dagoen zeregina: J. L. Elortzak zientzia biblikoak irakatsi ditu Gasteizko Fakultatean (1994-2000...) eta Donostiako Seminarioan (1980-2000...), "Centro Pio XII"-n (1990-2000...); Jose M. Arregik frantziskotartasunari buruzko ikastaroak eman izan ditu Euskal Herrian eta erbestean; Joxe Arregik Teologia Iruñeko CSET-en (1989-1996) eta Gasteizko Seminarioan (1994-2000...), era berean baita Bilbon Deustuko Erlijio-Zientzien Zentroan (1999-2000...) eta bertako Teologi Fakultatean (2000...) ere.

IRUÑEA: ITURRAMAKO ANAIARTEA

(1976...)

Itxura guztiz, badirudi Nafarroako Iruñea izan zela XIII. mende urrun hartan frantziskotarrak bere baitan hartu zituen lehen Hiria Euskal Herrian, eta horretan Baiona edo Gasteizi aurrea hartu ziela hiriburu nafarrak.

Denboran zehar, bertako komentu frantziskotarrek (fraide eta lekaime) Hiriko leku ezberdinetan izan zituzten egoitzak, denboran zehar, baina XIX. mende arte betiere Hirian egon ziren, aldatuz zetorren Hirian, esan nahi da.

Aro Garaikideko atarian, Iruñeak 14.066 bizilagun zituen (1786), eta mende bete geroago ia bikoiztu egin zen hori, 26.631 biztanlerekin (1887); are biderkatuagoa ageri zaigu biztanlego hura, 1950ean: 72.394. Jada, 1986an, 183.703 ziren Iruñeko bizilagunak. Gaurko Hiri hazia batez ere azken mendeerdian bildutakoa da, Nafarroako beste eskualdeetatik lehenik, gainerako Euskal Herritik eta erbestetik gero.

Iruñe berri honen barruan, auzoen garapena izan da gorakadaren ezaugarrietako bat. Iturrama da horietakoa, eta auzo honetan jarri zuen egoitza Senitarte frantziskotar batek[ofm], 1976an (irailaren 13an). Artean, Komentu izan gabe, horretarako asmoarekin, inondik ere, Ordenak aspaldidanik Nafarroako Hiriburu honetan izandako tradizio historikoari segida emateko, fraide-bizitzarekin ez ezik Hiriko bizitza erlijiosoan ere. Historia honetaz esango dugu zerbait lehenik.

IRUÑE FRANTZISKOTARRA (XIII-XIX. MENDEAK)

Frantziskotarren Iruñeko presentzia lehen ordukoa izan da, hau da, XIII. mendetik bertatik datorrena, eta gizonezko eta emakumezkoen komentu bana izan zituen Hirian, fraideena eta klaratarrena.

San Frantzisko bera Iruñetik pasa zela ziurtatzerik ez dugun arren, halakorik izatekotan 1214ko urtea eman beharko litzateke ustezko bidaia hartarako. Bestela, berriz, agian ez da desegokiena lehen fraideen etorrerarako 1220ko ingurua emango bagenu, ez gertaera agiriztatuta daukagulako, baizik eta Ordenako historia orokorrak data hori iradokitzen duelako eta klaratarren Iruñeko presentzia goiztarra ere hobeki argituko ligukeelako.

Fraideen lehen etxea San Pedro de Ribas-en egon zen (San Pedro Auzoan, Errotxapea ondoan), 1246an Takonerara lekualdatu zen arte (gaurko Hotel Tres Reyes-eko orubeetan). XVI. mendean eraitsi zen bigarren egoitza hau, segurtasun arrazoiengatik (1521), eta murru-barnean eraiki komentu historiko berria; gaur egun San Frantziskoko Eskolak eta plaza dauden orubeetan zegoen hori (1536-1837). Geroztik, mende eta laurden itxaron behar izan zen Esklaustrazioaren ondoko izanberrikuntzarako (1837-1976).

Hori horrela, esan behar da, gainera, Iruñeko historia frantziskotarrean zinez ezusteko albistea klaratarrena dela: Iruñean eratu zen Ita-

liatik kanpo sortutako klaratarren lehenengo komentua, 1228a aurretik, Gregorio IX.aren (San Frantziskoren adiskide Hugolino Kardinal izandakoaren) agiri batek aditzera ematen digunez. Santa Engraziako komentua zen hori, Cuatro Vientos-en (Sta. Engrazia ere deituriko Auzoan); 1794an, mojek utzi egin behar izan zuten Etxe hau, eta, okerrena dena, Konbentzioko gerratea amaitzean, eraitsi egin zen Monasterio hori, eta egoitza berririk Iruñean bertan aurkitzerik izan ez zutenez, bertako Ahizparte klaratarrak Erriberriko Antoniotar Ospitalarien komentu hustuan jarri ziren bizitzen, gaur arte.

San Frantziskoko komentuko Anaiartea, XIX. mendeko lehen hamarkadetan, ez zen handia: 25 lagun zituen 1820an, eta domingotarren edo karmeldarrena baino txikiagoa zen, baina 1841ean egindako zentsu-kontuemateari sinetsi nahi badiogu, komentu hau zen Nafarroako frantziskotarren[ofm] artean aberatsena, alde handiarekin, gainera: hurrengoak (Tafallakoak), 16.000 errealeko zentsu-kapitala baldin bazuen, Iruñeko honek ia 88.000 errealekoa zuen eskuetan. Hirurteko Konstituzionaleko lehen Dekretuek bere hartan utzi zuten Etxe hau, Erriberri, Lizarra, Zangoza, Tutera eta Bianako frantziskotar besteak bezala, Tafalla eta Rocaforte ixten ziren bitartean. 1822ko Erret Ordenak ere salbuespen gisa irekita utzi zuen komentua hau,

Iruñea-Iturramako Komentua. (Argazkia: 2002).

Hiriburuko beste zenbaitekin batera (Mutiloa 1972: 234, 314-315, 317, 418).

Gerra Karlista lehertzean (1833), berehala suertatu zitzaion Tafallako frantziskotarren komentuari bere ateak ixtea (1834), baina besteen itxiera zerbait mantsoago etorri zen. Gerrak eta Dekretuek ezartzen zutenaren arabera, Tuterako komentu frantziskotarra[ofm] 1836 uztailaren 21ean desamortizatu zen, eta Iruñeko gainerako erlijioso-etxeei bezala, hemengo frantziskotarrenari[ofm] ere 1837an iritsi zitzaion bere ordua: abenduaren 15ean itxi arazi zuten, orduan itxitakoetan azkena. Lehenagotik edo berehala (1837), Eskoletarako utziko zuen Estatuak komentuko eraikina (Mutiloa 1972: 348, 374, 385, 425).

Iruñea-Iturramako Anaiartea (2002).
Belauniko: Juan M. Iturria, Fernando Guillén, Fernando Samaniego. *Zutik:* Juan M. Mz. de Ilarduia, Manuel Gaztelu-Urrutia, Saturnino Urbistondo, Jose L. Idoiaga.

HISTORIA IZANBERRITZEN (1837-1976)

Iruñeko Diozesian nahikoa garaiz heldu zitzaion Ordena Erlijiosoen izanberritzeari. Gizonezkoen artean, agustindar (Martzilla, 1865), kaputxino (Iruñea, 1879), frantziskotar[ofm] (Erriberri, 1880) eta klaretarrek (Iruñea, 1880) ireki zituzten lehenengo Etxeak. XIX. mendearen bukaeran (1899), gizonezkoen 16 Etxe zeuden Diozesian, baina frantziskotarrak ez ziren lekutu orduan Iruñean (Goñi 1991: 186-188, 379-380; Goñi 1999: 691).

Arantzazuko Probintzia izanberritzean (1859, 1876), Hiriburuetan ez, baizik herri eta herrisketan berreraiki ziren frantziskotarren[ofm] Euskal Herriko lehenengo komentuak. Iruñea, hortaz, lehen olatualdi hartatik kanpo geratu zen (1876-1920), Donostia, Gasteiz edo Bilbo bezala. Horren ondoren, beste mende-erdi batean (1920-1970) —hainbat etxe berri, eta Donostia (1923) eta Bilboko (1930) komentuak ere ireki ziren bitartean— Iruñeak, Gasteizen antzera, azken ordua arte itxaron behar izan zuen frantziskotarra bertako komentu batean ikusteko.

Hortaz, izanberritze hau, ba, berantiarra gertatu da Nafarroako Hiriburuan, eta garai bateko San Frantzisko komentutik lekuz urrundua eta orain hiriko beste ertzera eramana, murru-barnetik Iturramara alegia. Egia esan, horren aurretik, frantziskotar kaputxinoak lehenago itzuli ziren Iruñera (1879), eta mojen artean, adibidez, baita Mariaren Frantziskotar Misiolariak ere (1900), Hirugarren Ordena Erregularra ("amigotarrak") ahantzi gabe (1929).

Dena den, frantziskotarren[ofm] ibileran gogoratu beharra dago, jada 1931n bazegoela Iruñean frantziskotarrek zaintzen zuten kapilautza bat, Mariaren Frantziskotar Misiolarien zerbitzuan ari zena. Zerbait geroxeagoa, komentua sortzearen komenentzia ahantzi gabe (1937), gerratean garbi ikusi zen soldadutzara zetozen erlijioso gazteentzako etxebizitza propioren bat izan beharra (1938), eta, urte batzuk geroago, Unibertsitate ikasketak egitera etor zitezkeenentzako egoitzaren premia (1961) (ACD II: 377, 407, 410, 417, 420; III:41, 44, 68).

Gogo hau gorputza hartzen hasi zen hurrengo urtean, 12.000 m^2-ko orubea Fuente del Hierro deritzan inguruetan erosi eta Artzapezpikua-

Iruñea-Iturrama. Komentuko eliza, barrutik. (Argazkia: 2002).

ren oniritziarekin fundazio berria abian jartzean (1962). Orube hartan, edo ondokoren batean, eraikuntzarako bideak samurtuz zihoazela, behin-behineko etxebizitza Batallador kalean (gaurko Pedro I. karrikan) hartu zen, eta batera birretsi zen Komentua Probintziako Heziketa-Etxe bihurtzeko asmoa eta, hartarako ahalbiderik izanez gero, Kolegio Unibertsitari ere (1964-1968) (ACD IV: 151, 153, 181, 182, 183, 220, 244, 264, 314, 372).

Etxe berrirako lehen Nagusiaren izendapena 1971ko ekainean egin zen, fundaziorako legezko prozedura betetzen zen bitartean, eta hartutako erabakiak gauzatzeko bide praktikoa ezartzen zelarik (etxebizitza eta kaperatarako etxabea). Hala ere, mantso joan ziren zeregin ofizialak: 1975ean egin zen proiektuari teilatu-abarra emango zionaren izendapena (J. L. Idoiaga, 1975), eta hiru laguneko lehenengo Senitartea eratu zen. Etxagintza luzatu zenez, 1976ko martxoa arte ezin izan ziren jaso behin-behineko etxeko giltzak (ACD V: 40, 43, 50; Idoiaga 1981: 41).

Iturramako Etxe eta Parrokia berrietan

1976ko udazkenean eman zitzaion Senitarteari bere izaera berria, eliz arduradunak, irakasleak eta fraidegai gazteak elkarrekin bizitzen jartzean: esan bezala, Heziketa-Etxe izango zen, ba, Iturramako hau. Gazteak Teologiako Goi-

Iruñea-Iturrama: "Erriberriko Gaztelua, komentuko baratzetik" (X. Alvarez de Eulate).



Iruñea-Iturrama: "Hiru Gurutziltzatuak" (X. Alvarez de Eulate).

Ikastegian jardutera etorri ziren, Filosofiari ekinez (CSET). Fakultatean egiten zutena etxeko irakasleekin osatzen zen, ikas-egitaraua berariazko ibilera egokitu batera moldaturik. Pastoralean, premiazko ofizialtasunen faltaz, pasaerako urtea izan zen hau (Idoiaga 1981: 42-43).

1978ko urteak berrikuntzak ekarri zituen, etxetan eta gazte-taldean. Abuztuan behin-betirako etxera aldatu zen Senitartea (Pedro I.tik Fuente del Hierro, 27ra, alegia), eta fraidegaien taldea —Filosofiakoaren segida— Bilbora aldatu, UBI/COUko ikasleak Iruñera zetozen bitartean. Bestalde, artean, gauzak ez zeuden bideratuta Artzapezpikutegian: parroki mugak, erantzukizun pastoral ofizialak, parroko izendapena, etab. (Idoyaga 1981: 44).

Hilabete erabakiorrak gertatu ziren 1979koak: otsailean, eginda zegoen eliza berria, eta martxoan eraiki zen ofizialki "San Frantzisko Parrokia", nahiz eta Dekretu hau ez zen indarrean izango parrokoaren izendapena egin arte. Handik aurrera lan pastoralek normaltze bidera egin zuten: katekesia, lehen jaunartzeak, eliz ospakizunak, etab. Azkenik, abenduan sinatu zuten Artzapezpikuak eta Probintzialak bi erakundeen arteko hitzarmena, eta 1980ko urtarrilaren 16an izendatu zen J. L. Idoiaga bertako parroko.

Parrokiaren irekiera ofiziala otsailaren 10ean egin zuen Zirarda Artzapezpikuak. Gernikan edo Karrantzan ez bezala, baina Bermeo, Bilbo edo Donostietakoen gisara hemengo eraikinak (egoitza eta eliza) Probintzia Erlijiosoarenak dira, eta ez Diozesiarenak (Idoyaga 1981: 45.47).

Iturramako komentu-parrokiak baditu bere ezagugarriak: gora zetorren hiri eta auzo batean lekuturik dago, batez ere gainerako eskualdeetako etorkin nafarrek osatua da auzoa; Kontzilio-ondoan sortua da, eta jaiotzatik bertatik ezaguna den krisi sozio-erlijiosoaren barnean lan egin behar izan du, betiere bere iturrietan berriztaturiko frantziskotartasun baten argitan; adierazi den bezala, lehen epean (1976-1994), gazteentzako ikastegia izan da Etxe hau, horren ondorioz irakasle zenbait ere bertara bilduz; azkenik, molde berriko parroki bizitza baten bila jarduteko ahalegina egin du, laikoen partaidetzarako bide berriak urratuz. Bestalde, komentu-etxe bezala, egoitzak "Goardiano-Etxe" aitorpena jaso zuen 1988ko Kapituluan.

Parroki lanari frantziskotartasunaren aurpegia eman nahi izan zaio, ezaugarri hori bertako jardunaren balio erantsia delakoan (honetan zenbait irakasleren presentziak bere eragina izan du): urtero eratzen da, adibidez, "Aste Frantziskotarra", jada hamabost aldiz antolatu dena. Harreman pertsonaletan soiltasun arrunt eta irekia eskaini nahi izan da, jendarteko burubidean xalotasun frantziskotarrari leku emanez. Komunikazioa ongi zaindu da, eta, jendearen sentierari jarraikiz, taldeei formaltasun instituzionala baino areago hurbiltasun-bizitasunak eman nahi izan zaizkie. Horregatik, Kofradia eta Senitarte Frantziskotar Sekularrak ez dira hemengo

Iruñea-Iturrama: "Santa Faz"
(X. Alvarez de Eulate. Brontzezko irudia; urterik gabe).

IRUÑE-ITURRAMAKO NAGUSIAK (1976-2000)

1976	Jose Luis Idoiaga
1979	Jose Luis Idoiaga
1982	Juan Maria Mz. de Ilarduia
1985	Juan María Mz. de Ilarduia
1988	Juan María Mz. de Ilarduia
1991	Juan Maria Mz. de Ilarduia
1994	Jose Maria Bilbao
1997	Fernando Guillén
2000	Fernando Guillén

IRUÑE-ITURRAMAKO PARROKOAK (1980-2000...)

1980...	Jose Luis Idoiaga
2000	Iñaki Bereziartua

kristauartean lan egiteko tresnak izan, beste garai eta tokietakoaren alderantziz.

1984-1985.ean sortu zen behin-behineko "Parrokiako Kontseilu Pastorala", 1988-1989. behin betirako izango zena, eta bertan ordezkaturik daude pastoral-eremuan lanean diharduten taldeak. Handik hona urratsez urrats egin da bidea: Parrokiaren "indar-lerroak" (=*líneas de fuerza*) definitu dira (1989-1990), parroki eremuko egoera sozio-erlijiosoa aztertu da (1990-1991), "oinarrizko irizpideak" eta "helburu orokorra" mugatu (1994), "lan-arloak" (1995) eta berauen arteko lehentasunen araberako urtean urteko "lan-programak" erabaki dira (ik. Parrokia 1991).

Iturramako Senitarte frantziskotarrak[ofm] eta bertako Parrokiako Kristauarteak, zortzi eremutan banaturik dituzte beren bizi-zereginak (1998-1999): Ebanjelizatzea, Ospakuntza, Otoitz-Beilak (asterokoak, eta bereziak: urtean zortzi aldiz), ekimen sozialak (Caritas; gaixoak, zaharrak, hirugarren mundua, etab.), Komunikazioa (berri-papera, ahozko komunikabideak) eta Heziketa (gurasoak, helduak; Aste Frantziskotarra) (Parrokia 1998).

Senitartea handiena izan denean 17 lagunekoa izan zen (7 fraide, eta 10 gazte fraidegai, 1983an). Bertako lanaz gain, Elizbarrutiko pastoral euskaldunean dihardu bertako apaiz batek (J. M. Iturria). Parrokiak 4.000ren bat bizilagun ditu (%17 euskaldun). Iturramako Parrokia gazte hiritar honek frantziskotarrek egin dezaketen planteamolde zehatz bat eskaintzen digu, Bilbo edo Donostiakoetatik bestelako ezaugarriak dituena.

TOLOSA: SAN FRANTZISKO KOMENTUA

(...1974-1839, 1875, 1915...)

Gipuzkoako Udalerria eta eskualde oso bateko burua da Tolosa; Donostiatik hegoaldera, 25 kilometrora dago. Biztanlez, sortu zenetik Tolosa beti izan da Gipuzkoako herrietan nagusienetakoa, eta nagusiena ere. Herrialdeko bide-sarean bidegurutze printzipala izan da Tolosa, Kostaldetik hegorako eta Gaztelarako errepidean, eta aldi berean Nafarroarako bidea hartzeko. Leitzarango autobidea egin den arte hori izan da Tolosaren garrantzia.

Probintzia osoak bezala, Tolosak ere Aro Garaikidean gora egin du bere biztanlerian: 4.165 (1802), 5.129 (1850), 8.557 (1877), 8.111 (1900), 14.971 (1950), 17.979 (1996). Hala ere, bizilagunez bere azpitik zuen hainbat herrik aurrea hartu dio Tolosari garapen demografikoan (Irun, Errenteria, Eibar edo Arrasatek, adibidez).

Tolosalde osoko zerbitzugunea izan da Tolosa, eta gaur ere hala da, eta industrigintza modernoa goizik ezagutu zuen herriak, bere paper-fabrika eta abarrekin, XIX. mendean bertan.

TOLOSA FRANTZISKOTARRA (1587-1793)

Tolosako lehenengo komentu frantziskotarra 1587koa da, eta garai batean murruz kanpo zegoen lekututa. Komentu-elizak XVII. mendean jaso ziren, eta kanpandorrea azkenik (1640-1642). Fraideen etxea ez ezik Ikastetxea ere izan zuen komentu honek, "San Jose" zeritzana.

Komentu hartako bera da XXI. mendera iritsi den eliza, nahiz eta komentu-etxeko eraikina, Ikastetxea eta baratzea desagertu diren. Gaur egungo fraideen egoitza inoizko sakristiaren gainean XX.ean jasotakoa da (Uribe 1996: 151-171; Intxausti 1998b: 64, 69).

Tolosak Bigarren Ordenako Komentu bat ere izan du, klaratarrena (1612), eta Azkoiti eta Zarauzkoak bezala oinarri berritik eratutako Ahizpartea da (eta ez serorategiren batean bere jatorria zuena). Kasu honetan, Migel Pz. de Mendiola tolosarrak eta bere emazteak eraiki zuten Monasterio hau. Gero, komentu eta elizako eraikin berriak bi alditan jaso ziren: komentua, 1657-1666.etan, eta eliza 1710-1732.etan (Uribe 1996: 478-495).

Tokiko herritarrentzat, Aita Frantzisko Tolosa Ministro Jeneralak sortu zuen Komentu honetako Hirugarren Ordenako Senitartea (1588ko San Frantzisko egunean), eta geroztik, etenik gabeko bizitza izan du beronek Tolosan, gure egunak arte, nahiz eta tartean fraide-komentuaren itxierarik ere ezagutu zen.

Tolosako fraideen Komentua Gipuzkoako "naziokoa" zen Arantzazuko Probintziaren barnean, eta "Komentu Nagusitzat" aitortuta zegoen (1688), Bilbo eta Gasteizko San Frantzisko eta Arantzazukoa legez; Ikastegi bezala Bilbokoaren parekoa zen orduan, hiru Teologi irakasle eta Arteetako bat zituena.

1700ean 33 fraide egozten zitzaizkion, horietako 23 apaizak, baina 1719ko "Estatutos Municipales" zirelakoen arabera, "Komentu

Tolosa: Komentua, mendebaletik. Hain gaizki ezkonduta diruditen komentu-alde honek eta ondoko aparkalekuak badute elkarrekin zerikusirik: gaurko Artxibategi Probintziala, aparkalekua eta Beotibar Pilotalekua komentuko baratze-orubean zeuden garai batean. (Argazkia: 2002).

Nagusitasun" hura galdu egin zuen; hala ere, Tolosakoa herri-herrietako etxeen artean lehena izaten jarraitu zen frantziskotarren artean (nahiz eta herrietatik urrunekoen artean Arantzazukoa izan zen, XVIII.ean, handiena). Tolosako honek 46 bizilagun izan zitzakeen 1768an (Uribe 1996: 278, 283-288).

Aro Garaikidera iristean, gainerako komentuei bezala, frantziskotarren[ofm] honi ere garai berrietako aldarte gorabeheratsuak etorri zitzaizkion gainera. Tolosatik Gaztelarako bidean zegoen komentu hau, herritik irtenda berehala. Frantziatik etor zitezkeen bidari eta armada guztiek bide-bidean aurkitzen zuten, hortaz, Etxe hau, eta Konbentzioko Gerratean ere halaxe gertatu zen.

GERRA ETA GUDAROSTEEN ARTEAN (1794-1840)

1794ko uztailaren azkenetan pasa zuen muga Konbentzioko gudarosteak, eta, Donostia hartu ondoren, abuztuaren 9an Tolosan zen bera, baina horren aurretik komentua ospitale militar bihurturik zegoen, eta fraideak Udalaren erabakiz beste etxe batera pasata. Frantsesak iritsi baino lehentxeago fraideak Tolosa utzi eta alde egin zuten. Komentua, itxuraz, etorri berrien esku geratu zen, orduan. Urre-zilar eta pitxiak salbatu ahal izan ziren, baina gero ez zen erraza gertatu berreskuratzea (Solaguren s. d.: 36-37, 78, 84).

Hamabost urte geroago, soldadu napoleondarrak ere Tolosan izan zuten beren pasaerako

bidea, baina baita egonlekua ere. 1807ko urriaren hondarretan, Udalak eskatuta, komentuaren parte bat soldadu haientzat utzi behar izan zen, kaserna eta gudarostearen biltegitarako. Gaurko "Soldadu kalea"-ren izena ordutik dator, nonbait. Orduan edo hustu zuten erabat komentua fraideek, zeren eta ohe guztiak Arantzazura bidali baitzituzten. 1809ko Esklaustrazioak, ba, komentutik kanpo harrapatu zituen Tolosako fraideak (Solaguren s. d.: 86).

Gerrateko urteetan (1808-1814), ordea, ez dirudi fraide batzuek behintzat Tolosa guztiz utzi zutenik, eta esklaustratuek, Udaletxearen babesarekin (beronek zuen komentuaren Zaingoa), parrokian egin zuten lan, eta Udalak ordaindu ere egin zuen haien inguruko zenbait gastu (1809-1810). Lehenengo Esklaustrazio hura indarrean zenez, komentua Udaletxeak eskuratu nahi izan zuen, eraikina erruki-etxetarako hartu nahirik, baina erregimen ezarriak ezezkoa eman zion eskeari (Solaguren s. d.: 124).

1813an, gerrak alderantzizko itxura hartu zuenean, espainolak izan ziren San Frantziskoko komentua osorik ospitale militar egin zutenak (uztailean), eta Udaletxeari ere erabakiaren berri eman zitzaion (urrian). Dakigunez, fraideak, ordea, Tolosan zeuden beren Goardianoa buru zutela, 1813ko udazkenean, hain zuzen Letxuga kalean zuten beren bizilekua. Komentura sartzeko irrikaz zebiltzan, noski, baina Udala ez zegoen prest komentu-elizak beste gabe eta premiazkoak omen ziren prozedurak gorde gabe uzteko (1814ko abuztua). Azkenik, 1814ko irailaren 19an itzuli zitzaien fraideei beren eliza, baina ez komentua, artean. Gerran eta gerra ostean bi sute ere pairatu zituen eraikinak, eta lanik aski eman zuen dena lehengoratzeak (1814-1815). Badirudi 1816an itzuli zitzaiela komentua bera, orduan ireki baitzen ostera Teologi Irakas-Aulkia (Solaguren s. d.: 124-125).

Hirurteko Konstituzionala iristean, eta Esklaustrazio legeen aurrean, Tolosako honek bere burua salbatu ahal izan zuen: 1822an 21 fraide apaiz bizi ziren bertan. Interesgarria da gogoratzea hemen, Tolosako komentuan fraide konstituziozalerik ere egon zela, eta predikuetan politikoki nabarmendu zenik ere bai. Gutxienez bost aipatzen dira historian; horietako ezagunena Aita M. A. Letamendi (†1828), sermoiak egin eta argitara eman zituena eta, 1824an, esandakoaz atzera egitera behartu zutena. Dena den, horien ondoan Konstituzio aurkako ezagunen bat ere izan zen Fraidearte berean (Aita P. Zubia: †. *p.* 1825) (Solaguren s. d.: 154, 175-176).

Gerra karlista lehertzean (1833), artean indar oneko komentua zen hau, aurreko urteetako Esklaustrazioen ondorioz fraide-kopuruz aski murriztua ageri baldin bazen ere: gerra hasieran, 16 apaiz zituen eta fraide gazte talde on bat ikasketak egiten. 1834ko abuztu-irailetan Tolosaldea Rodil-en menpe zegoen. Orduan Arantzazu erretzea agindu eta Donostian gogorki jokatu zuen Rodil berak lortu zuen Tolosako komentua itxi arazteko erret dekretua (abuztuaren 24an). 1834ko irailean sakabanatu ziren fraideak: zortziren bat Andaluziara deportatu zituzten, bat edo beste atzerrira joan zen, batzuk beste komentuetara bildu ziren, gazterik gehienak karlistetara zihoazen bitartean. Gorabehera guztiok tarteko izan arren, egon zen irakasleren bat liberala ere, pertsonalki M. Kristina Erreginak babestu zuena (C. A. Ezkurdia: †. *p.* 1846) (Solaguren s. d.: 287-288).

Lehenengo gerra-ekitaldien ondoren, kaserna bihurtu zen komentua, orain liberalena. 1835-1836.etan Tolosaldeaz karlistak jabetu ziren, eta fraideak beren komentura itzuli; horregatik, Administrazio karlistaren menpeko informazioetan esaten zaigunez, 1838an Tolosako honetan 35 fraide bizi ziren, eta 8 gehiago komentu-barrutian. Ikastegia ere abian jarri zen, eta, horri esker, ondoko urteetan zenbait gazte apaiztu ere egin zen (Solaguren s. d.: 288-289, 342, 335, 345).

Gerra amaitzean (1839), gainerako komentu "karlisten" patua izan zuen Tolosako honek: Gobernu zentralak dekretu zehatzak lehendik emanda zituenez, berehalako batean ezarri zitzaizkion Esklaustrazio-Legeak, Bermeo eta Sasiolan bezala (1839ko urriaren 23an). Biharamunean inbentarioa ere eginda zegoen. 1840an

inbentarioak formaldu zirenean, beheko solairua gudarostearen esku zegoela aitortzen da, eta baratzeak urtean 800 edo 1.000 errealeko errenta izan zezakeela esaten; komentu eta guzti, dena, enkantean ateratzeko prozedura finkatu zen, orduan (Solaguren s. d.: 289, 352, 355-356).

UDALA, FRAIDE OHIAK ETA APAIZAK (1840-1915)

Gauzak nondik nora zihoazen ikusita, Udalak kasernatarako eskatu zion komentua Gobernuari, eta honek eman 1842an. Erretablo eta burdin-lanen salmenta ere hasi zen, baina Udalak Aldare Nagusikoa saldu gabe gordetzea erabaki zuen, Buru Politikoari (Gobernariari) aditzera eman zionez (1843). Horrek salbatu zuen Bengoetxearen obra. Baratzea bestelako bide-zidorretan ibili zen: 70.000 errealetan saldua izan eta bi jaberen eskuetatik iragan ondoren, Udaletxeak erosi zuen, pasealeku eta plaza egiteko. Gaurko Gipuzkoako Artxibo Probintziala, Beotibar pelotalekua, Justizia Jauregia eta abar garai bateko baratza-komentuetako orubeetan daude (Gorosabel 1853: 153-154).

Komentuan aldi batez lehen letretako eskola eduki zuen Udaletxeak (1845), eta eliza, artean kaserna-betekizunetarako erabili arren, eliz eginkizunetarako itzultzeko asmoa zegoen. Hala ere, 1849an komentu-kaserna Ministerio militarrak eskuratzea lortu zuen, eta Udalak kontrako ahaleginak egin ondoren, beste dekretu baten bidez, berreskuratu ere bai, beti kasernatarako izatekotan (1851). Nahasia baina interesgarria suertatu zen ondoko historia (Solaguren s. d.: 356).

Komentuko Zaingoa betidanik Udalak zuenez, Udalerria izan zen berehalako ibileran frantziskotarren[ofm] elizari irtenbidea aurkitzen lagundu zuena, eta berorrekin batera Jose Maria Maiora frantziskotar esklaustratua (*c.* 1811-1853). Horretarako, herritarren iritzia eta aldeko borondatea segurtatu zituen lehenik Maiorak, eta Udalaren laguntza ere. Ekimenari jarraikiz, 1846an Udalak abian jarri zuen "San Frantziskoko eliza egokitzeko harpidetza herritarra"; tolosarrek ongi erantzun zuten beren sinadura eta laguntza-eskaintza behintzat aurreratuz, baina Udalaren eta Ministeritza militarraren arteko lehiak geldiarazi zuen behingoz asmoa.

Maiora Tolosako Bikario-ordea zen Parrokian, baina bere gisara aritu zen arazo honetan. 1851n berriro heldu zion bere xedeari: premia pastoralek eskatzen omen zuten San Frantzisko berreskuratzea, lan eta diru-laguntzarako prest ageri omen zen herria, eta Maiorak berak ere bere aurrezkiak eskaintzen zituen obrarako. Eraikina egokitu eta eliza "San Frantziskoren Santutegi" bezala irek zitekeen, sustatzaileak zioenez. Bertako ardura eta kapilautza ematea eskatzen zuen Maiorak. Udalak ongi erantzun zion dei honi, baina Parrokiako Apaizarteak ez zuen gogo bera erakutsi, Maiorak gauzak bere gisara egin nahi omen zituelako, —Parrokiatik at eta eliza guztiz pribatu batean inolako menpekotasunik gabe, salatzen zen—. Kabildoak bere salakizuna Iruñeko Gotzainari bidali zion (1851).

Maioraren erantzuna aurrez aurre etorri zen, eta Udalari zuzendutako gutunean azaldu zuen bere jarrera zein zen: ez zuen kapilautza ordaindurik eskatzen, biztanleria bikoiztu egin zen azken urteetan eta premia pastoralak zeuden, irekita zeuden elizbarrutiko beste Santutegietako erregimen bera eskatzen zuen, ez besterik, eta, eliza irekita, hango lana Parrokiako Kabildoak berak bere kontura eraman nahi baldin bazuen, prest zegoen Maiora 4.000 erreal hari xede horrekin emateko ere.

Auzia bideratzeko Udalak Gotzaindegira jo zuen. Apezpikuaren erantzunak bi alde izan zituen: a) Maioraren burubidea ez zela izan batere zuhurra deitoratu ondoren (Kabildoari egiten zitzaion keinu gozogarria da, inondik ere, sarrerako erretolika hau), b) Eliza Santutegi bihurtzeko baldintzak ematen zituen Gotzainak, 1851ko abenduan. Hala erabakiz gero, Maiorak har zezakeen kapilautza, eta beste apaiz lagunen batzurekin elkartuz gero, bere garaian ikusiko zen nola eratu talde horren lana eta bizitza.

Udalak berehala mugiarazi zuen arazoa: Kabildoari Gotzain erabakiaren berri eman, eta berorren onarpena segurtatu zuen, lehenik, eta

abenduaren 22an "San Frantzisko komentuko ohiko zaintzaile" izendatu zuen Maiora. Honek egun berean heldu zion bere zereginari, eta, giltzak utziz gero, eliza egokitu eta etxebizitza prestatzen hasiko zela adierazi zion Udalari, horretarako beste bi lagun ere bazituela gehituz. Udalak ere aurrera egin zuen, eta 1852ko ekainean obrak bukatu samartuak zeuden.

Lehendik bertan zeudenak eta kanpotik etorritakoak, Tolosan frantziskotar talde polita bildu zen, dozena erdi bat gutxienez (misiolari, kapilau, etab.). Besteak beste, bi ongi ezagunak, gainera: K. Linatza (†1866) eta J. J. Salazar (†1882). 1852ko ekainaren 8an eman zuen Gotzainak eliza bedeinkatu eta elizkizunetarako irekitzeko baimena. Artean Eliz Kabildoarekin piztuko zen desadostasunen bat tarteko izan arren, afera bideraturik geratu zen, ba, 1852an.

Esklaustratu frantziskotarron bizitzak aurrera egin zuen, baina beren fraidetasun-ezagutzarik gabe, artean ez baitzegoen komentuak izanberritzerik, ofizialki. Hurrengo hilabetean, 1853ko urtarrilaren 12an hil zen Maiora, eta beronen laguna zen Aita J. F. Aranari (†1856) eman zitzaion kapilautza; Linatza izan zen hirugarren kapilaua, harik eta hil zen arte (†1866), eta honen ondoren J. J. Salazar (†1882).

Tartean zenbait gertakari gogoratzekoak dira: Gasteizko Diozesia eraiki ondoren, egon zen Santutegia Parrokia egiteko asmorik, baina proiektua ez zen gauzatu. Bigarren gerrate karlistakoan, Estartak Tolosako hau komentu-etxe bezala ireki zuenean, bertan zegoen kapilaua

Tolosa: Komentua, aurrealdetik. (Argazkia: 2002).

—Salazar, alegia— egin zuen komentuko Goardiano, eta han-hemendik bildutako fraide gazteekin Nobiziategia eta Ikastegia jarri zituen bertan (1875eko apirilean). Baina epe laburrerako, zeren, herritarren eta alderdien harridurarekin, gudaroste liberala Tolosan sartzean Estartak itxi egin baitzuen komentua, ireki eta hamar hilabete geroago. Hala ere, nola hala, presentzia frantziskotar esklaustratua behintzat segurtatzeko modurik izan zen lehen urteetan (Solaguren s. d.: 456-466)

Antonio Beobidek lehenengo (*c.* 1876-*c.* 1882) eta Krispin Beobidek (*c.*1882-1891) gero eman zioten segida kapilautzari. Bien bitartean, Arantzazuko Probintziak ez zuen ahantzita Tolosako Etxe honen izanberrikuntza: Udalak egindako eskaintzari erantzunez, Definitorioak egoki ikusi zuen Probintziari komentu-etxea osorik ematen baldin bazitzaion Fraideartea bertara itzultzea (1887), baina asmoa ez zen aurrera eraman, Fraideartea itzultzeko baldintzak jartzea Udala atzeratuz joan zelako. Horrela, apaiz diozesitarren esku geratu zen bertako eliza, Kapilau diozesitar izendatu bat arduraduntzat zuela (ACD I, 32).

Komentu izanberrituan (1915)

Ez zen samurra hasi Tolosan XX. mendea: 1901eko sute batek eraman zuen, kiskalita, Komentu handi ederra, eta bertako orubea zeregin zibiletarako hartu zuten Probintziak eta Udalak. Eliza zen zutik eta eskuragarri geratu zen eraikin eta orube bakarra. Baina mendeko lehen hamarkadako Alderdien politika erlijiosoak ez zuen batere laguntzen. Tolosan, ordea, frantziskotarrek[ofm] herria zuten beren alde, eta batez ere Hirugarren Ordena, fraideen itzulera eskatuz zebilena.

Itzulerarako eginbideak 1909tik aurrera nola joan ziren deskribatuz hasten du Larrinaga historialariak Komentuko Kronika. Hirugarren Ordenako Senitarteak 1909an egin zion itzultzeko eskea frantziskotarren[ofm] Espainiako Bikario Jeneralari (Madril), eta Aita Mz. de Zuazo izan zen hemen arazoa oso eskuetan hartu zuena. P. Orkaiztegi artziprestea, kronikariak adierazten digunez, itzuleraren alde egon zen, bai hirugarrendarren eskea babestuz (1909) eta baita geroago Gotzainak iritzia eskatu zionean ere.

Eliz hierarkiak jarrera ezberdinak erakutsi zituen: Nuntzioa itzuleraren alde agertu zen, aurka zegoen Cadena y Eleta Gotzainari konponbide bat bila zedila eskatuz; Cadena ez bezala, hurrengo Gotzaina (Melo y Alcalde) malguago agertu zen. Bestalde, Ordenako Erromako Nagusiek berehala eman zuten Komentu-irekierarako baimena, eta Zuazo Kantabriako Probintziala izan zen egiteko honetan interesatuena.

Udalak frantziskotarren asmoen kontrako txostena prestatu zuen, komentu-eliza-baratzearen, guztien, jabetasunak bereak zituela frogatu nahiez (1909). Zuazok emandako erantzunaren ondoren, Udalarenak ez zuen izan segida handirik, eta, fraideek Komentu-orubea eta baratzea galdutzat ematen zituzten bitartean, Udalak -ofizioski eramandako harremanen ondoriozMitrari ezagutu zion elizarekiko jabetasun eskubidea (bertako orubearena gordez, ordea). Horrek irtenbide samurragorik ekar zezakeen fraideentzat. Ondoko urratsa Gotzainak Ordenarekin elizaren jabetasuna esku-aldatzea izan zen. Horixe egin zuen 1915eko azaroaren 30eko Gotzain-dekretuak. Elizarena, ba, fraideen eskuetan geratuko zen, horrela Anaiartea izanberritzeko oinarrizko baldintza bat segurtatuz (Kronika I, 1-6). Erlijiosoen Erromako Kongregazioaren eta Gasteizko Gotzainaren baimenekin jarri zen Tolosan berriro frantziskotarren Fraidearte hau (Kronika I, 1-6; Apostolado 1917: 46-50; Solaguren s. d.: 465-466; ACD I: 32 [1887]; ACD II: 173-174; Homenaje 1935: 25-26).

1915ean egoitza soil bezala ireki zen Etxea, Deograzias Igartua lehendakari zuela, eta 1918an eman zitzaion berorri komentutasun osoa, eta L. Madinabeitia izan zen bertako lehen Goardiano (ACD II: 174, 200). Komentu-barrutia ere mugaturik geratu zen urte bereko abenduan, bere eremu juridiko propio bezala Tolosa eta Ordiziako artziprestazgoak eta Nafarroa euskalduna emanez (hirugarrendarren Senitarteak sortzeko, batez ere), baina Bortziriak, Imotz Iba-

Tolosa: Eliza, barrutik. (Argazkia: 2002).

rra, Basaburua Ttipia eta Aldudeak Zarauzko komenturako utzita.

1949ko birbanaketa egitean, komentu tolosarra Tolosako artziprestazgo eta Nafarroa Garaiko herri euskaldunekin geratu zen (ACD II: 174-175; III: 269). Hurrengo hamarkadetan, Tolosatik bertan-bertako herri hurbilenetara mugatu zen komentu honen eske-barrutia, gainerakoa (eta Nafarroakoa horren artean) Arantzazuko Etxearentzat geratzen zen bitartean.

KOMENTU-ETXEA ETA ELIZA

Zarautzen ez bezala, baina Bermeon gertatutakoaren antzera, Tolosako komentu-etxeak bere eraikin-hersturak izan ditu bertako Fraidearteari, eliz Elkarteei eta guztion jarduerari leku egokirik eskaintzeko.

Herstura hauen arrazoia XIX. mendeko eliz Desamortizazio-politikan dago: garai bateko orube eta komentu-eraikin zabalak desjabetuak, eraitsi edo erre zirenez, frantziskotarrek ez zituzten eskuratu ahal izan beraiek, Fraideartea izanberritu zenean (1915). Eliza izan zen bakarrik hor salbuespena, baina fraide-egoitza eta San Jose Ikastetxea jada desagerturik ziren ordurako.

Hortaz, horrek bere ondorio zuzenak izan zituen Fraitearte etorri berriaren egoitza eratzean, eta jarduera pastoralari bere lekua prestatzeko.

Komentu-etxea

Zutik geratzen zen eraikinaz baliaturik osatu behar izan zen komentu-etxe berria. Eusebia Franconi-ren hilburukoaren laguntzaz egin ziren lanak, G. Eizagirre arkitektoaren ardurapean, eta 1916ko abenduaren 15ean egin zen estreinaldia. Garai batean hegoalderantz zeuden komentu eta baratzea galduen ordez, orain sartaldeko elizburuan eraiki zen komentu-etxe berria, sakristia zaharraren gainean. Egokiturik zuten, beraz, fraideek komentu berria (Kronika I: 8).

Teknika berrian erosotasunak ere bilatu zituen Komentuak, eta 1928an jarri zen bertan urrutizkina, bi aparailu zituela, bata Aita Goardianoaren gelan eta bestea Fraideartearentzako, oro har (Kronika I: 135).

Komentua 1967an zoru-berritu zen, eta hobekuntzen artean aipatzekoa da nola 1934an jada erabaki zen eliza-komentuetan berogailu orokorra jartzea, eta mende-erdia geroago jarri da igogailua (1984: 3.685.000 pta.) (ACD II: 218, 238, 476; III: 97, IV, 205, 287; *Libro de Obras*).

Sakristia gaineko komentu-etxe berri hertsiak, bestelakorik ezean, elizako albo bietako kaperen gaineko solairuetan (eta dorrean ere) bilatu izan du nolabait bere lasapidea, eta baratzerik ez eta arnasa hartzeko terraza erdi-ezkutua. Terraza hau moldatzeko lanak 1964an egin ziren, eta 1986an berregokitu zen berori, 681.000 pezetako gastuekin.

Azken bi hamarkadetan egin dira komentu-etxe honetako berriztapen handiak; gogoangarrienak aipatuko ditugu: teilatu guztien eta eliz ataurrearen berritzea (1987: 23.201.076 pta.), eta sakristia ondoko beheko solairuan eta gaineko lehenengoan egindako egokitzapenak (2000: 40.206.098 pta.) (*Libro de Obras*, aipatutako datetan).

Eliza

Hurrena, eliza zaharkitu eta hondatua zaharberritzeko lanei heldu zitzaien. 1917an egin zen hori, eta 21.076 pezeta kosta zen obra, 1918an burutu zen zoru-berritzea baino gutxiago, bigarren lan hau 16.605 pta. kostatu baitzen. 1919-1922. urteetako lana izan zen eliz alboetako kaperak -berriak eta berrituak- moldatzea. Komentu eta eliza, hau da, oinarrizko eraikin-azpiegiturak egokiturik zeuden, hortaz, eta mantenu gastuak izan ziren bakarrik hurrengoak (1940, 1964) (Kronika I: 9-11, 12r-14r).

Egokiturik bai, baina ez bestelako arriskurik gabe. Izan ere, Tolosak bere jatorrizko arrotik desbideratuta duen Oria ibaiak, urak hazi orduko, bere eskubide zaharrak eskatu ohi baititu: aldian aldiko uholdeek kalterik franko egin izan diote San Frantzisko komentu honi, Kronikak azaltzen digunez. Lehenengo uholdeetakoa

1926koa izan zen, baina honelakoen artean gogorrena, 1953ko urriaren 15ekoa izan zen, komentuko sotoak ez ezik eliza ere osorik hartu zuena (1,90 m.ko altuera izan zuen urak). Alde horretatik, samurragoa gertatuko zen 1956ko maiatzaren 27ko uholdea, sotora sartu zena (Kronika II: 417, 489).

Orduan eta gero, uholde hauek gastu handietarako lanak utzi zituzten, batez ere eliz zorua egokitu ahal izateko. 1953ko uholdearen ondoko txukuntze-zereginetan 162.000 pezeta eman behar izan ziren (1953-1955); baina ondoko hamarkadetan ere, aje berak konpondu beharrez edo, beste gasturik ere izan zen eliz zoru horretan: ia 700.000 pta. 1974an, eta beste parte on bat 1990eko eliz berrikuntzan (Kronika II, 461; *Libro de Obras*, esandako datetan).

Eliza bere osoan berriztatu da 1990.eko hamarkadan, zorua aldatu eta hormak margotuz (1989-1990: 21.822.462 pta.). Bestalde, balio handiko segurtapena eta hobekuntza ekarri ditu erretabloen izanberritzeak, Aldare Nagusian ez ezik albokoetan eta irudi solteetan, Bengoetxearen artelanei ere argitasun berria emanez (1993-1994: 21.248.430 pta.).

Elizako nahiz komentuko obra-gastuetan, bertako Fraidearteak esku zuzena izan du, noski, eta Probintzia erlijiosoak ere bai, Tolosako kristauartearekin batera. Azpimarratzekoa da, bestalde, teilatu guztia berritzeko eta erretabloen zahar-berrikuntzarako Aldundiak emandako diru-laguntza, monumentu probintziala baita komentuko eliza hau (*Libro de Obras*).

Espazio hauetan bizi izan da, ba, Tolosako frantziskotarren XX. mendeko Fraideartea.

FRAIDEEN ANAIARTEA (1915-2000)

Gorago esan dugu, bere unerik onenean, komentu-etxe honek 46 fraidetaraino har zitzakeela, 1768an. Egia esan, ez dakigu horrelakorik inoiz gertatu zenik, baina, dena den, XVIII. mendeko komentu haren neurria adierazten digu datu horrek.

XX. mendean beste jite bat izan du Tolosako Etxeak: Ikastetxerik gabe (beraz, fraide ikasle eta irakaslerik gabe), komentu honetako pertsonal-premiak ere neurri apalagokoak izan dira, aurreko mendeetan baino; bestalde, zer esanik ez, egoitzako baldintza murriztuek ez dituzte batere erraztu komentuko proiektu berriak.

Hasierako lehenengo 3-5 laguneko Anaiarteak (1915-1916) laster hartu zuen mende osorako bere tamaina, hau da, 10-15 lagunen artekoa. Komentuko Kronikak erakusten digunez, tarte horretan ibili da beti Tolosako Fraideartea, urte jakinen batean edo azken urte batzuetan izan ezik: 1974, 1982, 1990-1991 eta 2000.etan 9 lagun izan ziren. Gainerakoan, sarrienik 11/14 lagun izan dira taldean, eta altuenean 15 (1962). 2001. honetan 8 dira bakarrik (Kronika: urteroko kontu-emateak).

Anaiarte honetako fraideak ia denak euskaldunak izan dira Izanberrikuntzatik hona, Nagusiak noski, eta uste dugunez, gainerako lekaideak ere. Besteak beste, Fraideartearen lanbide pastoralagatik (predikua, aitor-entzuletza), zeren komentu honetara bildu izan den kristauartea batez ere Tolosaldeko euskaldungoa izan baita.

Senitarteko zenbait Anaia epealdi luzez bizi izan da Tolosan. Horietakoak izan ziren J. Antonio Loidi Anaia Laikoa (1916-1970) edo J. A. Garate (1941-2000). Biok Tolosako herriak omendu ere egin zituen.

Tolosako Senitarte hau Probintzia izanberrituan lagun-kopuruz erdi-mailatik beherakoa izan da, eta esan dugunez, gorabehera koantitatibo gutxikoa; aldakuntza gutxiko lan-eremu finkoei erantzuten saiatu dena (bertako elizkizun, Sakramentu-zerbitzu eta eskualdeko predikuari batez ere). Batik bat, horrek eman du mendean zehar Komentuaren neurria, nahiz eta epe laburragotan eta Anaia jakinen eskuetan bestelako jarduerarik ere izan den (argitalpenak, erromesaldiak, etab.). Eman diezaiogun, ba, honi begiratu bat.

Baina horren aurretik esan dezagun Tolosako frantziskotarrena ez dela Komentuko Anaiar-

tean bukatzen, eta gogoratzekoa da herriak Ordena frantziskotarrari egindako ekarria ere: Tolosako seme frantziskotar fraideak ez dira gutxi izan, nahiz eta hauetatik bertako Etxean bizi izandakoak ez diren izan hainbeste. Behinbehineko estatistikek diotenez, 39 gazte tolosarrek hartu zuen frantziskotarren abitua, 1881-1993. urteetan. Frantziskotarren tolosartasuna azpimarratzen digun datu osagarria da hau.

FRAIDEEN LAN-JARDUERAK

Izanberritzetik bertatik, Tolosako komentu honek sakramentu eta prediku-lanari jarri zion arretarik nagusiena, baina zenbait kultur alor ere izan zuen aldi batzuetan: Arantzazutik hedatutako ekimen batzuk, edo Hirugarren Ordenari zegozkion zerbitzu orokorrak hemendik ere eraman izan ziren (horretan, Zarauzko Komentuarekin kideko zelarik).

Baina, hasteko, esan dezagun Esklaustrazio aurrean bezalako Irakaskuntza jarduerarik ez duela bere gain hartu, Ikastetxerik behintzat ez baitu izan bere ardurapean. Musika, euskara edo bestelakorik fraideren batek irakatsi duenean, norberaren kontura gehiago izan da, Etxearen ardurape instituzionalez baino. Besterik da, epe batez Tolosako Ikastetxeren batean eskainitako fede-heziketarako laguntza.

Sakramentuak

Herriko hedapen hiritarrarekin batera, komentu-inguruan auzo handia bildu da, eta San Frantzisko askorentzat beren ohizko eliza arrunta bilakatu; baina komentu honek, bere lehenengo berrogeita hamar urteetan batik bat, ingurune zabalagoa ere izan du: eskualdeko herri euskaldunetatik astero edo aldian aldika, eta Bazkoazkoa egitera, etorri izan diren fededunena. Hamarkada luzetan, Kontzilio aurretik eta partez gero ere, aitor-entzuleen lana eskerga izan da eliza honetan, Probintzia frantziskotarreko inongo komentutan baino gehiago. Zoritxarrez, ez dago horren segidako estatistikarik, baina eskueran ditugun zifra ez bereziki fidagarriek diotenez, 1955-1958.eko hirurtekoan 125.000 aitortza entzun ziren eliza honetan, eta 1965ean 90.000 omen (Kronika II: 537, 727).

Jaunartzetan, maiztasun eta kopuru handikoa izan da Tolosako komentu hau, eta, adibidez, Donostia-Egiako komentu frantziskotarraren oso gainetik ibili da. 1920an, 63.000 jaunartzetatik gora izan ziren Tolosan, Donostiakoan urte batzuk geroago ere 8.000ren bat ziren bitartean (1927). Ondoko urteetan, gora egin zuten oraindik, urteroko zifrek 100.000tik gora mantenduz, 1938tik 1966a arte (estatistikarik izan dugun bitartean, alegia). Ezagutzen dugun urterik oparoena 1966koa izan zen, 178.000 jaunartzerekin (geroko daturik ez dugu, ordea) (Kronika, abenduan urteroko berriematea).

Komentu honek bere herri eta eskualdearekin izan dituen harremanak ezagutzeko, Mezatarako jasotako limosnak eta Komentuan bertan emandako Mezen arteko oreka/desoreka ezagutzea interesgarria izan daiteke. Oro har, beti Etxean bertan eman zitezkeen Mezak baino askoz gehiago izan dira Komentuan jasotako Meza-eskeak. Uste dugunez, herriz kanpoko eskualdeko presentzia antzeman daiteke hor.

Sermolaritza

Fraideartearen konformidadean, Tolosako Komentua eskualdera ere zabaldu izan da predikuaren bidez, eta ez Tolosaldera bakarrik, baita eskualde zabalago batera ere: Gipuzkoara (Goierri edo Urolaldea, eta Kostaldea ere, adibidez) eta Nafarroako Iturendik Leitza eta Lekunberriraino, gutxienez. Bizkairako joera, Komentuarena berarena baino areago bertan bizi izandako bizkaitarrena izan da (L. Madariaga, J. Anasagasti, etab.).

Herrietako jaiak ziren irtenaldi horietarako aitzakia ona, eta panegirikoen eskea ugaria izaten zen: 1932an, esaterako, 128 izan ziren honelako hitzaldi eskatuak. Andra Mariaren jaiek ere sarritan eskatzen zuten inguruetako parrokietan laguntzea: Sortzez Garbia, abuztuko Andra Maria, etab.

Liturgi urteko garai "trinkoak" ezin dira gogoratu gabe laga: Abendu, Garizuma eta Aste

Tolosa: Elizako erretabloa (M. Aranburu, A. Bengoetxea). (Argazkia: 2002).

Tolosa: Elizako sagrarioko atea: "Jesus-en Ehorzketa" (A. Bengoetxea).

Santuan Tolosaldea eta Nafarroa euskalduna ziren fraideon lantegia.

Misioak eta Gogo-Jardunak ez zituzten baztertu, eta batez ere lehenengoetan, Etxeko indarren arabera, Tolosako Komentua beti arduratu izan zen. Oro har, sermolariek, egokierarik zutenetan, Gipuzkoan bezala Nafarroa hurbilean lan egin zuten Tolosatik.

Erromesaldiak

Gipuzkoako Goierrin beste lanbide bat ere izan dute hemengo fraideek, Arantzazurako Erromesaldiak prestatu eta gidatzea. Ekimen hau, noski, bertako Arantzazuko Amaren Kofradiak jarri zuen abian, baina Komentutik eta Tolosatik bertatik kanpokoa batez ere fraide jakin batzuen ahaleginaren ondorioa izan da.

Arantzazuko Amaren Zaindaritza ezagutu zenetik (1918) hasi zen Tolosatik Santutegirako erromesaldi modernoa, eta Donostia (1910) eta Zarauzkoekin (1921) hemengoak izan ziren XX. mendeko herrietako taldekako Erromesaldi antolatuak egikaritu zituztenak. Horretan, Tolosako herria erantzun handikoa izan da, antolatzaileentzat erromes-kopuruagatik zinezko buruhaustea izateraino.

Esan bezala, urteroko Erromesaldiak bere egun hautatua ere izan du, Igokundeko Jaia, eta egun bete, bi edo hirukoa ere izan da tolosarren joan-etorri hau. Esperientzia erlijioso honen lehen hamarkadako notiziak baditugu Komentuko Kronikan. Lehenengo urtean 100en bat erromes izan ziren, eta berehalako urteetan ere halatsu; gero, gora egin zuen: 180 (1925), 202 (1926), 172 (1928). Arantzazuko Urtean (1955-1956) tolosarrek biziki ongi erantzun zuten: 700 erromes izan ziren igoaldi bakar batean (Kronika I: 12, 23, 35, 51, 64, 7585, 96, 104, 115, 124; II: 460).

Gerraondoak berritasun nabari bat ekarri zuen Erromesaldien honetan: Tolosako herria ez ezik Tolosaldea eta ondoko eskualdeak ere Arantzazurako bidea hartu zuten, Fraitearte honetatik eraman zen gidaritzari esker. Eskualdeko Erromesaldietan fraideok eskuetan zuten gidaritzaren indarra antzemateko, gogora dezagun 1955.eko Urtean ekitaldi bakarrean 1.270 erromes joan zirela Arantzazura Ordiziako Artzipestazgo eta Urretxu-Zumarragatik (Kronika II: 493).

Baina ez zen hori une jakin bateko beroaldia bakarrik. Aitzitik, badakigu Garatek 170 erromesaldi antolatu zituela 1960.eko hamarkada erdia arte. Esan dugu: frantziskotar jakin batzuen ahaleginaren emaitza izan zen eskualdetako Erromesaldi hauen loraldia, hain zuzen Arantzazuko erromes-historian aparteko kapitulua gertatu dena.

Aita J. A. Garatek hogei urte eman zituen lanbide honetan, 1944an hasi eta 1964ko udazkena arte, eta, ikusiko dugunez, ez bakarrik Tolosaldean, baizik eta Santutegira ibilaldiotan tradizio zahar antolaturik ez zuen Goierriko zenbait herri ere bilduz.

Garatek berak azalduta ezagutzen dugu, norainokoa zen Tolosatik zuzendutako erromes-

geografia hau. Tolosa-Ibarrakoaz gain, urtero sei Erromesaldi handi antolatu ohi ziren, eta bakoitzean herri-multzo bat abiatzen zen goizean goiz Santutegira:

1) Lehenengo Erromesaldian Hernani, Urnieta eta Ereñozu elkartzen ziren (geroxeago baita Astigarraga ere), hau da, Erromesaldi donostiarrera biltzen ez ziren Beterrikoak.

2) Bigarrenak, batez ere Tolosatik Nafarroa alderanzko herriak batzen zituen: Berastegi, Berrobi, Lizartza, Orexa, Elduain, baina baita Legorreta, etab. ere.

3) Hurrena, Andoain-i eskaintzen zitzaion bera bakarrik, talde handian, Arantzazura igotzeko aukera.

4) Laugarren ekitaldian, Tolosa-iparraldearena izaten zen, Anoeta eta Iruratik hasi eta Billabona, Zizurkil, Asteasu, Alkiza eta Larraul-erainoa bilduz, beste zenbait Auzo ere baztertu gabe.

Tolosa: "San Frantzisko Gotzainaren aurrean" (Erretablokoa: A. Bengoetxea).

5) Goierri zen bosgarren Erromesaldiko protagonista, Ordizia, Beasain, Lazkao, Ataun, Idiazabal, Ormaiztegi, Ezkio, etab. bilduz.

6) Azken taldeak, Urretxu eta Zumarraga elkartzen zituen.

Oro har, 60-70 Parrokietako kristauak eramaten zituzten Erromesaldi hauek Arantzazura, otoitz eta jai-giroan, sarritan eguraldi ederrarekin, baina baita zitalagoarekin ere. Hau diogu, batik bat gerraondoko historia honen lehen hamarkadan garraio-ibilgailuak ez baitziren batere erosoak eta seguruak, garaiko fototekak ere erakusten digunez (1944...).

Bukatzeko, bidezkoa da Erromes-tradizio berria Tolosatik sustatu zutenak hemen aipatuta uztea: J. A. Garate (1944-1964) eta F. Agirre (1965az geroztik gaurdaino, nahiz eta azken urteetan Arantzazun bizi den) (Kronika II: 767-771; Tokiko lekukotasunak). Bestalde, zerbait iradoki dugu Erromesaldi hauetan Arantzazuko Kofradiak izan zuen tokiaz, izan ere Komentuaren erakarmen-indarra eliz Elkarteon bidez gizarteratzen baitzen. Hau da, hain zuzen, komentu-historiako beste eremu aztergarri bat, Elkarteena.

KOMENTUKO ELIZ ELKARTEAK

Frantziskotarren Komentuetan, ia denetan, eliz Elkarte ezagutu batzuk izan dira Fraiteartearen lana herrian txertatu dutenak. Hauetako bat edo beste, nahitaezkoa zen Komentu guztietan eta beti; beste zenbait, ordea, tokian tokiko ekimen libreago gisa sor zitekeen, eta inoiz, baita herriko bertako premiaren bati zuzenkiago erantzuteko ere. Orotara, ia beti lauzpabost kristau Elkarte herritar izaten ziren gehienik Komentu bakoitzean.

Tolosako Komentuan denetarik izan da: beste Komentuetan bezala, Hirugarren Ordenako Anaiartea zegoen Tolosan; gisa berean, San Antonioren Jaiera-Batasuna eta Misio-Batasun Frantziskotarra ere. Arantzazuko Amaren Kofradiak, berau sortu zen unetik Tolosan bere Senitartea izan zuen; baina Komentu honetan ez dugu aurkitu Antoniotarren Gaztedirik (Zarautz

edo Donostian halako indarra izan zuen Elkartea). Bada, gainera, 1920.etan sortu, baina, itxuraz, bizitza handirik izan gabeko talderen bat ere (Sagrarioko Mariena eta Heriotza Oneko San Joserena, gutxienez). Ikus ditzagun banan-banan.

Jostun-neskameen Elkartea

Mutilentzat ez bezala, izan da Tolosan neskentzat Mariaren Alaben arautegiarekin eratutako Elkarte bat, elkarte-lagun anitz luzaz bildu zuena: Sta. Luzia eta Sta. Zitaren Mariaren Alaben Elkartea. Jostun eta neskame mirabeentzako eratu zen hau, beraz sektore sozial jakin batentzako; batez ere inguruko herri euskaldunetatik gune hiritar honetara lanera zetozen neskentzakoa zen. Emakume langileen Elkartea zela esan behar da.

Lehenagotik nolabait eratutako taldeari 1920an eman zitzaion bere Elkarte-formaltasun osoa. 1920an, 560ek eman zuen izena lagunarte honetan, eta 1932an baziren 330 lagun. Urte luzez mantendu zituen honek bere urteroko prediku-aldi eta Meza-Jaunartze bereziak; gizarte-sektore honekiko komentutarren sentiberatasun sozio-pastoral arduratua erakusten digu Kofradia honek, fraideen zerbitzu-jarduna bestetan baino mugatuagoa izan zuen arren.

Hirugarren Ordena (Senitarte Frantziskotar Sekularra)

Hirugarren Ordena edo Senitarte Frantziskotar Sekularra izan da XX. mendean fraideek arretarik handienarekin zaindu izan dutena, baita Tolosan ere. Berez, Komentuko Goardianoak pertsonalki zaindu beharreko Elkartea izan da berau; hortaz, ofizialtasunik jasoena izan duena.

Esklaustrazioa indarrean egon zenetan ere eta Fraidearterik ez, Hirugarren Ordena izan zen hemen frantziskotartasunari segida eman ziona, fraide esklaustratuak nahiz diozesitarrak arduradun zirela, eta behar izan zenetan hirugarrendarrek lan egin zuten fraideak berriro herrira itzul

Tolosa: "San Frantziskoren heriotza" (Erretablokoa: A. Bengoetxea).

zitezen. XIX.ean Linatza edo Beobidetarrekin, eta XX.ean Larrinaga edo L. Madariagarekin, adibidez.

Urte askotako lanaren ondorio bezala, gerra lehertzean 1.300 lagun zituen Tolosako Senitarteak (1936); ondoren, ezagutzen dugun zifrarik altuena 1.314koa da (1938), eta hortik aurrera, ondoko hogei urteetan 800 eta 900 tarteko kopurua izan zuen, eta azken zenbaketa ezagunak dioenez, 850 Anaia-arreba zituen Komentuko Senitarte hirugarrendar honek 1959an (Kronika: abenduetako urteko kontu-emateak).

Horrezaz gain, gainerako Komentuek bezala, Tolosakoak ere bere lurralde-barrutia zuen parrokia eta elizatan Senitarte frantziskotar sekularrak eratu eta zaintzeko. Jada 1922an, 30 Senitarte zeuden Tolosako Etxe honen ardurapean, eta iraun egin zuen horrek, zeren eta 1959an, 33 baitziren barruti horretakoak beste hainbat herri edo elizatan, guztira 4.185 hirugarrendar zituztela (Kronika I: 66; Tolosako Artxiboan HOko fitxategia).



Tolosa: "Kalbarioa" (Erretablokoa: A. Bengoetxea).

Bistan da hirugarrendarren talde-azalpen handiak Komentu honetatik antolatu ohi zirela, herrikoak eta eskualdekoak. Bereziki gogoratzekoak dira Tolosan bertan 1921eko Mendeurren-ospakizunak eta 1944, 1955 edo 1965eko Batzarrak, eta erromes gisara Limpias (1920), Lezo (1924: lehenengo aldiz gerriko kordoi eta eskapularioarekin) edo Arantzazura (1958) egindako irtenaldiak (Kronika I: 35, 89; II: 246-247).

Gaur egun (2001), talde txiki bat da hirugarrendarrena; astero biltzen dira elkarrekin, otoitzerako batean, eta Erregla eta antzeko gaiak aztertzeko, bestean.

Jaiera-Batasunak

Jaierazko Batasun hauek (*Pía Unión* deituek, alegia) eraspen edo debozio-bizitza ez ezik kristau izaeraren garrantzizko beste bi alde sozio-pastoral zaindu nahi izan dituzte frantziskotarren komentuetan: lehenik, inguru hurbileko pobreziaren arazoa, eta bigarren, mundu zabaleko Misio bidezko ez-kristauen mundua.

Bi zeregin horietarako, Ordena osoan eta Euskal Herriko Komentuetan Elkarte bana izan dira, batez ere, sustatu izan direnak: San Antonioren Jaiera-Batasuna eta Misioetarako Batasun Frantziskotarra. Tolosan ere indarrean egon dira bi Batasun hauek.

San Antonioren Jaiera-Batasunak (latinez, "Pia Unio Sancti Antonii" deituak) Santu honen herritartasunaz baliatu nahi zuen, kristau-bizitzarako eredu bat proposatuz eta fededunen lagun hurkoarekiko bihotz-beratasuna eztenkatuz. Esan beharra dago, Komentu batzuetan fruitu onik franko eman duela Elkarte honek, hainbat herritar eta familiaren bizimodu larria zerbait arinduz.

1917an baimendu zuen Gotzainak Elkarte hau sortzea. Sortu zenetik hilero egin ohi zuen bere elizkizuna, eta laster San Antonio Eguna jai oso herritarra bilakatu zen (1928an, 2.000 haur bedeinkatu omen ziren, adibidez), gaur eguna arte. Jada 1920ko otsailean abian zegoen herrian Santuaren kaperatxoen famili sarea (158 sendi), izan ere elizan bertako eske-kutxatilarekin batera (1923) kaperatxoen bisitaldi hauek izango

Tolosa: "San Jeronimo" (A. Bengoetxea; sagrario ondokoa).



baitziren "Behartsuen Ogia" zeritzana mantentzen lagunduko zutenak (Kronika I: 126-127, eta dagokien datetan).

Elkarte honetako bazkideak 400 eta 600 arteko kopurua izan dira, zifrarik gorena 1950ekoa da, 598 lagunekin, eta Kronikan aurkitu dugun azkeneko albiste ezagunak dioenez, 515 ziren 1959an. Bazkide hauen ondoan, zenbatzekoak dira, gainera, San Antonioren kaperatxoek ikustatzen zituzten Tolosako sendi-etxeak (Kronika, abenduetako urteroko kontu-emateak).

1935 edo 1936koa izan daitekeen zerrendan ikusi dugunez, 1.149 ziren kaperatxoak familian hartzen zituzten etxeak, kalez kale eta etxerik etxe ezagutzen dira beroriek, eta familietara ez ezik "Soziedade"-lagunarteetara ere iristen zen San Antonio, behartsuentzat laguntza-eske (Kronika I: 126-127; *Libro de Coros de la P.U.*).

Batetik eta bestetik bildutakoekin ondoko diru-kopuruak banatu ziren herriko behartsuenen artean, baita Elkartearen beraren bizitza aski motelduta gero ere: 14.370 pta. (1947), 10.080 (1957), 48.530 (1967), 227.000 (1976), 700.631 pezeta (1986).

Aipatu denez, bigarren Jaiera-Batasunak (latinez, "Unio Missionaria Franciscana"), *Misio Jaiera-Batasunak* alegia, Misioen mundua zuen gogoan, hau da, kristauen ebanjelizatze-bokazioa eta Kristauartetik kanporako proiekzioa, kasu honetan betiere frantziskotarren Misioetara zuzenduta, izan ere XX. mendean (Erdi Arotik honakoan bezalatsu) frantziskotarrek[ofm] Misiohedapen handia izan baitute Eliza Katolikoaren Misio-herrietan. Horko premiei erantzuteko sortu zen Elkarte hau Ordenaren barruan.

Tolosako Misio Jaiera-Batasuna 1922an eraiki zen, eta Tolosatik bertatik inguruko hirugarredarren Senitarteetara ere zabaldu, San Frantzisko Asiskoarentzat bezala Misioak edozein frantziskotarren deia ere bazirela eta (Kronika I: 69).

Elkarte honetako bazkideen estatistikak ondoko hauek ditugu, komentuko liburuetan esaten zaigunez. 1932an 295 lagunekin ageri da, eta gerratea pasa eta gero ere hortxe ibiliko da (298, 1943an), bajualdi txiki bat jasan ondoren, berriro lehengo puntura itzultzeko (279, 1949an).

1950.eko hamarkadan egoera berri batekin aurkitu zen Elkarte hau, Jose Alberdi gidaritzat eman zitzaionean. Aita J. Alberdi (1901-1973) Txinan egona zen hamabost urte, eta Mao Zedong-ek hango ateak ixtean, Euskal Herrira itzuli zen eta geroztik Tolosako Etxe honetan bizi izan, Misio-izpiritua bertan eta inguruetan sustatzeko eginkizunarekin. Horren ondorioz, Misio-Batasun honen goraldia nabaria izan zen urte haietan: eskuratu dugun azken albistearen arabera, 1.374 bazkide zituen Elkarteak 1959an (Kronika, abenduetako urteroko albisteak).

Arantzazuko Andra Mariaren Kofradia

Data zehatza agiriztatu ez badugu ere, badirudi 1918an bertan eratu zela Tolosan Kofradia hau, Arantzazuko Amaren Zaindaritza ezagutu zen urte berean. Begiratu dugu dagoeneko horrekin zerikusi zuzena duten Erromesaldiena. 1925ean dei berezia egin zen jendeak Kofradian izena eman zezan (Kronika I, 99). 1932-1959. urteetan, beti tamaina modu beretsua izan zuen Elkarte honek, 250-280ren bat lagunekoa, nahiz eta 1945ean 345 kofraditar izatera ere iritsi zen (Kronika, abenduetako urteroko kontu-emateak).

Espero zitekeen 1950ko hamarkadan Kofradiak gora egitea, baina, dakigunez, ez zen horrelakorik gertatu, beste Komenturen batean gertatutakoaren alderantziz. Hala ere, Tolosako arantzazu-zaletasuna indar ederrean zegoen urte haietan, baina beronen azalpenak Kofradiaren gidaritza nagusirik gabe gertatu ziren, hau da, fraideek antolatutako Bederatziurren edo Erromesaldien inguruan batik bat

Bestalde, eta hori gorabehera, komentutarren Santutegiarekiko atxikimena zalantzarik gabekoa da, esandakoengatik eta Arantzazuko lanetan izan duten esku hartzeagatik ere. Badakigu, adibidez, Tolosan hiru egun aski izan zire-

TOLOSAKO NAGUSIAK (1792-2000)

1792	Juan Bta. Etxabe
1794	Frantzisko Gojendi
1795	Migel Aizpurua
1797	Pablo Errazti
1800	Pablo Errazti
1801	Pedro Otaegi
1804	Pedro Otaegi
1806	Pablo Errazti
1807	Pablo Errazti
...	1808-1814: Gerrate napoleondarra
1814	Pablo Errazti
1815	Sebastian Letamendi
1818	Pedro Antonio Irazusta
1820	Pedro Antonio Irazusta
...	1820-1823: Hirurteko Konstituzionala
1824	Juan Muga
1825	Kanuto Eguzkitza
1827	Antonio Estabillo
1830	Frantzisko M. Azkarate
1833	Rafael Zubeltzu
...	1833-1839: Gerrate karlista
1839	Frantzisko Arana
...	1839: Esklustrazioa
	1851: "San Frantziskoren Santutegia"
1875	Juan J. Salazar (goard.)
	1876: Fraideak komentutik kanpo.
	Aparteko egoitzan: elizaren zerbitzuan
1915	Deograzias Igartua (pres.)
1918	Lazaro Madinabeitia (Goardianoa)
1922	Deograzias Igartua
1925	Juan Rz. de Larrinaga
1928	Jose Adrian Lizarralde
1931	Pedro Luis Zaloña
1934	Roke Mitxelena
1937	Fidel Zelestino Zabala
1940	Roke Mitxelena
1943	Nikolas Iturbe
1946	Fidel Zelestino Zabala
1949	Justo Anasagasti
1952	Julian Alustiza
1955	Justo Anasagasti
1958	Jose Antonio Garate
1961	Jose Antonio Garate
1964	Frantzisko Agirre
1967	Frantzisko Agirre
1970	Ignazio Sudupe
1973	Iñaki Bereziartua
1976	Manuel Pagola
1977	Iñaki Bereziartua
1979	Manuel Aranguren
1982	Manuel Aranguren
1985	Manuel Aranguren
1988	Juan Jose Muniain
1991	Juan Jose Muniain
1994	Jose Antonio Urdanpilleta
1997	Manuel Aranguren
2000	Manuel Aranguren

KOMENTUKO ELIZ ARDURADUNAK (1979-2000...)

1979	Iñaki Bereziartua
1981	Manuel Aranguren
1997	Iñaki Bereziartua
2000	Joan Jose Muniain

ELDUKO ELIZ ARDURADUNAK (1970-2000...)

1970	Jose Antonio Garate
1994	Joan Jose Muniain
2000	Anjel Gz. De Txabarri

BERROBIKO ELIZ ARDURADUNAK (1978-2000...)

1978	Frantzisko Agirre
1994	Joan Jose Muniain
2000	Anjel M. Gz. De Txabarri

la, 1955ean, Basilika Berrirako herriko etxe guztiak banan-banan pasa eta 200.000 pta. biltzeko, fraideak jarri zuten borondatearekin eta herritarren erantzun ona tarteko zela.

Azken mende-laurdena iristean, frantziskotarren eskualdeko presentzia honek molde berriak urratu ditu eta beste gisa batean antolatu da, Kontzilio-ondoko eske eta aldakuntzei erantzunez.

KONTZILIO-ONDOKO BILAKAERA (1965...)

Kontzilioa eta ondoko urteak erabakigarriak izan dira Komentu honetako lanak eta lanmoduak aldatzen. Beste leku askotan bezala.

Garbi dago fededunen sentiera erlijiosoa aldatu egin dela, eta Elizarekiko eske eta erantzuna ere bai. Fraidearteak, ba, bide berrituetatik aurre egin behar izan dio horrek sortu duen erronkari, Liturgian, fede-hezkuntzan eta aitorpen sozialean.

Hasteko, lehenagoko jaierazko otoitzmoduek Liturgia berriztatuari leku egin diote, eta inoiz arrotza ere bazen Bibliako Hitzak hartu du nagusitasuna. Sakramentu-bizitza beste gisa batean bizi du leial jarraiki den fededunak: adibidez, Tolosan hain zama eta poz handia ziren banakako aitortzak, Penitentziako elkarte-elizkizunetara bildu dira orain, etab. Azkenik, eta eskuarki, bizitza erlijiosoaren sekulartzea nabaria da.

Parrokia eta Elizguneetan

Ikusita dago jada garai bateko eliz Elkarteak behera etorri direla hemen ere, kasik erabat, eta apaiz-urritasunak ezinbesteko irtenbideak ezarri ditu inguruetako Parrokia eta Elizguneetan. San Frantziskoko Komentuari, ba, eskakizun eta aukera berriak sortu zaizkio.

Aldabide hauetako kasuak dira, Komentutik Elduan eta Berrobin hartu ziren eliz Ardurak. Garatek hartu zuen igande eta jaietako Elduko ardura, 1970ean, eta Komentutik eraman da berori gaur artekoan. Berrobin ere pareko zerbait gertatu da: P. Agirre egin zen kargu parrokia horretako Arduraz (1978), eta orain arte Komentutik eraman da hori ere.

Tolosako erdigune nagusiak Sta. Mariako Parrokia bakarra zuelarik (albora geratzen baita 1967an Sakramentinoetan sortua), eta berori erdiguneko albo batean, Kontzilio-ondoan nahitaezkoa gertatu da herriko hiri-hazkuntzari eta demografiari erantzun pastoral egokituagoa eskaintzea. Hori horrela, Setien Gotzainak, Zarautzen edo Arrasaten bezala, betiko Parrokia bakarraren inguruetan lanbide pastoral bateratuko Elizguneak antolatu zituen Tolosan. 1979tik hona Elizgune autonomo eta aldi berean elkartua da San Frantziskoko eliza, eta beronen Arduradun Nagusia bertako fraide bat izan ohi da, ondoan beste bi fraide apaiz laguntzaile dituela: gaur arte, I. Bereziartua, Manuel Aranguren eta Joan Jose Muniain izan dira Arduradunak, eta I. Urbistondo izan da, besteak beste, orain arte ia mende-laurden batean jardundako apaiz laguntzailea (1979...).

Sakramentu-bizitza

Elizgune hauetan, eta hemengoan ere, kultuko elizkizunak daude, alde batetik, eta ebanjelizatze-lana, bestetik. Lehen eremuan, Liturgiaren barnean, Sakramentu-bizitzari dagokiona azpimarratu behar da, eta berezikiago une jakin handietako Sakramentuak (Bataioak, Azken Elizakoak) eta fede-heziketarekin espreskiago loturik ageri direnak (Lehen Jaunartzeak, Sendotzak, Ezkontzak).

1979-2000.etan 928 Bataio ospatu dira San Frantziskon, urteko batezbestekoa ia 44koa dela; urtean lau alditan egiten dira Bataioak, eta Bataio-aldi bakoitzean hiru hitzalditara dei egiten zaie gurasoei (betiere beste Parrokiekin elkar-lanean). Hildakoen hileta-ospakizunak ugariagoak izan dira urte berdinetan: orotara, 1.162 (urteko batezbestekoa, 55). Horrek guztiak familiekiko harremana esan nahi du, kasu bakoitzean nabardura propioak dituena.

Tolosako Anaiartea (2002).
Eserita: Juan J. Muniain, Inozentzio Urbistondo, Rufino Gerenabarrena, Jesus Pellejero, Manuel Aranguren.
Zutik: Jose Migel Esnaola, Anjel M. Gz. de Txabarri, Eduardo Barrenetxea, Jose M. Regillaga, Jose M. Galdos.

Eta gatozen, aurretik edo ondoren fede-heziketa jardunaldiak izan ohi dituzten Sakramentuetara, Lehenengo Jaunartzeekin hasita. 1980-1996 urte arteko hamazazpi urteetan, 1.466 haurrek egin du hemen bere Lehen Jaunartzea (euskaraz prestaturik, 1.056k, eta erdaraz, 410ek); geroztik, 1997-2001.etan, 230 haur izan dira (denak euskaraz).

Sendotzak bere historia interesgarria du: 1983-2000.an 1.057 izan dira Sendotzarako prestatu direnak, eta urte horietako batezbestekoa 59koa izan arren, urtez urteko banaketan nabarmena da azken hiru urteetako zifren erorikoa: 44 (1998), 23 (1999), 13 (2000).

Elizgune ofiziala denetik eliza honetan 800en bat ezkontagiri egin dira, nahiz eta bertan ezkondutakoak oso gutxi izan diren, 31 bakarrik, ziurki horretarako bertako kristauak beste elizetara joan ohi direlako (seguraski, elizako arkitekturak -bere basilika-oinplano erraldoiarekin- badu gertaera honekin zer ikusirik.

Fede-heziketa

Fede-heziketa Pastoraltza bateratuaren barnean eraman ohi da, maila ezberdinetan banaturik (2001): haurren katekesia, gaztetxoen aisialdirako laguntzak, sendotza-inguruko hezkuntza eta helduen katekesia.

Haurren katekesiak sei-hamabi urteko haurrak hartzen ditu, eta 200-2001.eko ikasturtean 150 haur eta 12 katekista bildu ditu egiteko honek, astero hiru egunetan. Lehenengo hiru mailetan, ongi eusten zaio haur-kopuruari, baina laugarrenetik gora behera egiten hasten da taldea. Lehen ikasturtean, sendietan egiten da lana, gurasoekin batera, eta ondoko ikasturteetan katekisten ardura izaten da, zuzenean. Lehen ikasturte hartan gurasoekin egiten dira bilerak, hiruhilabetero (gaiak prestatzeko, ebaluaketa egiteko). Gurasoen heziketarako hamabosteroko beste bileretan, ordea, erantzun eskasa lortu da haiengandik.

Gaztetxoentzako Pastoraltza aisialdiarekin lotuta eraturik dago, eta Diozesiko "Ezkide" Eskolatik pasatako gazteek eraman ohi dute (*Ttenttek*), beti ere herri mailan (asteroko bilerak, lagunarteko jardunaldiak, udalekuak, etab.). 2001.ean 60 lagun dituzte (sei-hamasei urtekoak) bost taldetan banatuta, eta 6 begirale eta 3 laguntzaileren ardurapean.

Sendotza-inguruko lanaz eman da arestian daturen bat; 2001ean, Komentuan monitore gisara lau lagun ari dira (bi fraide eta bi seku-

lar). Lehen garaian (1981-1992) bi urtez egiten zen prestaketa-lana, baina handik hona hiru urtekoa da egitaraua, astean behingo ordubeteko bileratan. Gero eta gehiago, 1994az geroztik, Sendotza-heziketaren zeregina Eskolapioen kristau fede-taldeetan egiten da, eta elizgune honek hor du bere itxaropena; frantziskotarretan Sendotzarako prestatuak gehienak hortik datoz orain. Bestalde, 1996tik hona indarrean dago sendotza-ondoko talde txiki bat ere, hamabostean behin biltzen dena.

Helduen Katekesikoak Ebanjelioaren gogoetarako bildu ohi dira; bat aspaldiko taldea da, eta igandeko Ebanjelio-testuen inguruan jarduten du (J. J. Muniain-en eskutik: 1989...), beste bi taldek Ebanjelioaz baliaturik ikastaroak egiten dituzten bitartean. Aipatu beharrekoa da Helduen fede-heziketan I. Bereziartuak egindako lan zabala, Tolosan eta Tolosaldean.

Zerbitzu soziala

Goian esan den bezala, beharrizan sozialei begira Komentuak beti izan du talde edo elkarte berezituagorik. Gaur egun (2001), *Caritas*-ekin lan egiten da batez ere, Diozesian, eskualdean eta herrian. Bina eske-aldi handi egiten dira urtean, Diozesirako eta eskualderako. Ondoko lanak komeni diren denen bilerekin eta elkar-lan estuan egiten dira.

Garai bateko San Antonioren Jaierazko Batasunak ez du gaur egun bazkiderik (2001), eta limosnatan biltzen denaren gobernua Komentutik eramaten da, baliabideak kulturan eta pobreen artean banatuz. Anaiarteak, bere aldetik, "Izan" giza propiektuari ematen dio laguntza bere ondasunetatik, lehenago atean eskaleei ematen zitzaiena.

KULTUR EKIMENAK

Fraidearte mugatu honetan, baina inguru sozialari ongi loturiko deskribatutako eliz antolaeran, mendean zehar ez da falta izan kultur ekimenik. Horretan, alde batetik, Tolosako kultur giroa izan zen lehenengo eragilea (adibidez, Tolosak 1915aren aurretik zekarren moldiztegi tradizioa), eta bestetik, Probintzia erlijiosoan Arantzazutik kanpo ere premiazkoak ziren ekimen batzuk.

Komentuko Goardianoetako sei gutxienez liburuak idatzi edo kazetaritzan jardunak izan dira Tolosan: gogora J. Rz. de Larrinaga, J. A. Lizarralde eta P. L. Zaloña gerraurrean, J. A. Garate, J. Alustiza edo M. Pagola ondoren. Eta beste fraideetatik batek baino gehiagok egin du lan argitalpen-munduan, batzuetan euskalgintza orokorrean laguntzeko, eta bestetan, Komentuko bertako eliz Elkarteren baten zerbitzuan. Aldizkako argitalpenak izan dira hemendik sustatu zirenak.

Hirugarren Ordenako herriarteko albistari bezala, bat baino gehiago izan da Tolosan sortua, zuzendua nahiz kudeatua. 1935eko otsailean Aita L. Madariagak hemen sortu zuen *Irugarrengoen Irakaslea*, Ugartek garai batean Zarautzen egin zuen bezala. Eta gerraoste izoztuan, Garatek jarri zuen abian *El Maestro de los Terciarios*, hasieran batez ere erdaraz agertua baina berehala euskarari ere leku egin ziona (1944-1949). Hori izan zen, gerora ezagunagoak gertatuko zitzaizkigun *Anaitasuna* euskaldun bien eta erdarazko *Franciscanismo*-ren aitzindaria. Zuzendari nahiz administratzaile bezala, Garatek eraman zuen hauen ardura, 1955a arte.

Esan behar da, bestalde, Tolosan jaio zela hirurogei urteak betetzera doan "Arantzazuko Andre Mariaren Egutegia", Garateren eskutik (1947). Sortu eta kalean jarri ez ezik, herrietan banatu ere, lehen ordu hartan, Komentu honetako fraideek egin zuten, Aita T. Artzallus gidari zelarik. Eta hau ez zen izan une galdu bateko anekdota: oro har, euskal argitalpen frantziskotarren zabalkundea gogoz egin izan dute Komentu honetako fraideek Tolosalde osoan, eta Nafarroan ere. Gerraurrean, adibidez, P. Etxaniz ibili zen inguruotan Arantzazuko aldizkarien ordezkari gisara (1917-1931) (Homenaje 1935: 331; ACD III: 301; Tokiko lekukotasunak; Kronika I: 183r; II: 674).

Baserritarrentzat sortutako *Goiz-Argi* aldizkaria (1958-1986) jaiotzean eta gero, Garate-ren

eskutik ibili zen, honek batzutan Zuzendari-eginkizunak betetzen zituela (1964...), eta bestetan, ondoko talde zuzendari sekularrari hainbat laguntza emanez.

Bertako idazleen oroigarri bezala, Aita Antonio Arruti (1883-1919) ekarri beharra dago hona. Hil aurreko hilabete gutxi batzuk egin zituen hemen, baina olerkari zarauztar hau komentu honetan hil zen eta San Blas-eko kanposantuan eman zitzaion lurra; frantziskotarren bertako hilobian dago ehortzita. Sorterritik heriotze-herrira, Lizardiren antzera, sorterri beretik etorri zen hona poeta aitzindari izandako hau (Intxausti 1998a: 105-110).

Juan Rz. de Larrinaga -Komentuko kronikaria, eta Probintziakoa ere izana: 1909-1954) urte erabakigarrietan egon zen Komentu honetan (1918-1929). Frantziskotarren bibliografiaz eta arte-historiaz, tokiko eta komentuetako iraganaz eta, oro har, Euskal Hegoaldeko frantziskotarren historiaz jardun zuen lanean. Garaiko aldizkaririk onenetan utzi zituen bere lanak, Tolosako Etxe honetan organu-jole gisa ari zen bitartean (ACD I: 105; III: 347; Kronika I: 155).

Organuaren hau ez da harritzekoa Tolosan, bertako tradizioari begiratzen bazaio. 1924an jarri zen organua Komentuan, 39.000 pta. kostata; estreinaldian Garmendia eta Arrue frantziskotarrak eta Mokoroa tolosarrak izan ziren Amezuaren organu hau jo zutenak. 1973an konponberritu zen berori. XX.aren bigarren partean, Garatek eraman du hemengo organu-joletza (Kronika I: 72, 77, 81; ACD II: 275, 281; Homenaje 1935: 360; *Libro de Obras*).

Segidatasun osorik gabe izan arren, Komentuak sarritan izan du bere abeslari taldea, eta inoiz edo beste, formaltasun handiagoz eratu den abesbatza. Aita Pedro Peñagarikano (1916-1983) izan da horretan lanik iraunkorrena betetakoa, 1949an hona etorriz geroztik. Honen musika-eskolan hainbat gaztek eman zituen bere lehen pausuak. 1950-1952.an lehen trebakuntza egin ondoren, 1953an agertu zen jendaurrean kantari-taldea, estreina Sta. Ageda egunean eta berehala "Koru Frantziskotarra" Batzorde Zuzendaria eta guzti eratuz. Koru formal honek 1965a arteko bizialdi emankorra izan zuen, Tolosan bertan eta inguruetako herrietan jai eta ospakizunak alaitu eta jantziz.

1968-1978.ean *Jakin* kultur aldizkaria eta liburu-sorta Tolosako komentutik eraman ziren (Arantzazuko argitaletxerako lanean), harik eta fraide taldekideak Donostiara pasa ziren arte. "Jakin Lantaldea" hemen eratu zen, bere ofizialtasun osoan, Probintziako Kapituluaren erabakiz (1973).

Hauek izan dira Komentu honetako kultur bideak, bere ibilera nagusian.

ZARAUTZ: SAN JOAN BATAIATZAILEAREN KOMENTUA

(...1794-1839, 1875, 1915...)

Zarautz: Gipuzkoako Udalerri hau itsasertzeko herria da; Donostiatik 15 kilometrora dago, sartalderantz. Biztanletan bilakaera bizkorra izan du azken mende eta erdian: 2.204 (1877), 2.838 (1900) 6.729 (1950), 19.115 (1996). Frantziskotarren bertako historia ulertzeko aintzakotzat hartu behar da datu hau.

Historia luzeko komentu frantziskotarrak izan ditu Zarautzek: frantziskotarrena[ofm] (1610) eta klaratarrena (1611). XX. mendeko garai batean, erlatiboki oso frantziskotarra izan zen Zarauzko gizartea, eta fenomenoa aztergai interesgarria da, zinez, zenbait aldetatik.

Hemen, San Joan Bataiatzailearen komentu frantziskotarreko[ofm] historia bakarrik azalduko dugu, Aro Modernotik zerbait gogoratuz, eta batez ere 1794az gero arreta gehiagoz begiratzen diogula. Konbentzioko Gerratetik honako albisteak bilduko ditugu hemen, batik bat. Komentu historiko handienen parekoa izan gabe (Bilbo. Gasteiz, Arantzazu), nortasun finkatuko historia izan du Zarauzko fraide frantziskotarren[ofm] komentuak, gisa batean Esklaustrazio aurreko azken mendean, eta beste moldez, izanberritu ondoren.

KOMENTUKO LEHEN HISTORIAZ (1610-1793)

1610eko maiatzaren 7-8.etan eraiki zen juridikoki komentu hau, Juan Mantzisidor fundatzaile zelarik eta Frantziskotarren Arantzazuko Probintziaren esku eta barrutian (orduan "Kantabria" deituan, alegia). Probintziako ordezkari Aita P. Amuskotegi zela egin zen hori; Sasiola eta Donostiako komentuetako fraideek ere parte hartu zuten sortze-uneko ospakuntza hartan.

Gero, 1616an, Goardiano-Etxe izendatu zen komentu hau, urte hartako Kapituluan. Komentuko etxagintza azkar joan zen, eta 1617an komentu jaso berrira aldatu ahal izan ziren fraideak, nahiz eta eliza erabat bukatu gabea zegoen. Sortzetik bertatik errekolekto bezala eratu zen Senitartea, baina 1617an ezarri ziren baldintzen barnean, komentuak ikastegia ere izan beharko zuen, jatorrizko izaera errekolekto hura ukatzeke (Uribe 1996: 210, 216- 220).

Ondoko mendean, XVIII.ean, jite berri bat hartu zuen komentu honek, Misiolari-Kolegio bihurtu zenean (1746). Ez zen hau berehala egin ahal izan, nolabait ere Probintziako komenturen bat hartu behar baitzen eta erregimen bereziz eratu (nahiz eta Probintzia Erlijiosoaren barnean izan), eta Senitartea borondatezko partaideekin moldatu. 1746ko irailaren 8an estreinatu zen komentuko bizimodu berria, ondoko hilabeteetan misiolari guztiek nobizialdia betez. Berehalako urteetan, Zarauzko predikari frantziskotar hauek gutxienez Hegoaldeko 86 herritan emango zituzten beren Misioaldiak, behin eta berriz (Uribe 1996: 229-233).

Hori dena bere indar ederrean zegoela lehertu zen aipatu behar dugun ekaitza.

GARAI BERRIETAKO GERRATAN (1794-1814).

1789an lehertu zen Iraultza Frantsesa, eta gertakariak Europa osoa astindu zuen ondoko urteetan. Euskal Herria ez zen geratu gertakizun haietatik at, eta Zarauzko herriko kaleetan ere agertu ziren soldadu konbentziotarrak.

Moja-fraideen ikuspuntutik begiratuta Konbentzioko Gerraren albisteak eman zizkiguten bi idazki dauzkagu Zarauzko artxiboetan: bata Aita Añibarro euskal idazleari zor zaio (komentuko "Libro Becerro" deituan), eta bestea herri bereko klaratar batek idatzia da (klaratarren artxiboan).

Konbentzioko armadak 1794ko abuztuan hartu zuen bere menpe Gipuzkoa, eta batez ere kostaldetik Goierrirako bide eta herriak. Zarautz zerbait albora gelditu zen lehen unean, baina irailaren 10ean Zarautzen zeuden frantsesak. Ordurako herritik Bizkai aldera alde eginda zeuden fraiderik gehienak eta Sta. Klarako mojak ere.

Bakarrik, Aita Añibarro eta bi Anaia laiko zeuden komentuan: hirurak hartu zituzten preso, eta Getariara eraman lehenengo, eta biharamunean Baionako gaztelura. Han eman zituzten ondoko bi hilabeteak nolabait, gainerako lagunak ihes eginik ahal zuten tokietan babesa bilatzen zutelarik. Komentua, bien bitartean, ospitale eta kaserna egin zuten frantsesek. Hori guztia gorabehera, fraideek ezkutatu eta salbatutako gauza preziatuak komenturako gorde ahal izan ziren, gerrarako eman gabe alegia, guztiz hondatutako komentuaren errukiz. Orduan bizi izandako estualdiak oso gogoan gorde zituzten Euskal Herriko frantziskotarrek, eta berezikiago Zarauzko Misiolariek (Solaguren s. d.: 78-79, 84).

Hamabost urte geroago, Bonaparteren Esklaustrazioa iristean (1809), Zarauzko komentu hau izan zen ixten azkena Gipuzkoako gainerako frantziskotarren[ofm] artean, 1809ko azaro-

Zarauzko Komentua. (Argazkia: 2002).

aren 15ean; baina behin-behineko bizilagun berriak izan zituen laster: Hernaniko moja agustindarrak jarri ziren bizitzen bertan, 1810ean.

Hernaniko etxea utzita etorri behar izan zuten hauek, eta, ordainetan, Zarauzko komentua eman zien gobernari frantsesak. Abadesak —bere txitoak ongi zaintzea baitzegokion— gerra amaitzear zegoela Aldundiari komentubaratzen jabetasuna eskatu zion eta honek "bestelakorik erabakitzen ez zen bitartean" utzi. Fraideei lanak eman zizkien komentua libratzeak, eta ez hauei bakarrik, baita Udalari ere une batez soldaduentzat hura behar izan zuenean. Azkenik, 1814ko maiatzean itzuli ahal izan ziren frantziskotarrak[ofm] beren Etxera (Solaguren s. d.: 94, 114-117).

Komentu beregaina (1817-1840)

Ondoko urteetan Zarauzko komentu honek ezohiko aldakuntza izan zuen, bere gobernuan. Misiolari-Kolegio bezala jarraiki zen, baina 1817an Arantzazuko Probintziako Nagusien menpetik irten eta zuzenean Ordenako Nagusi Jeneralen esanetara jarri zen. Aita Santuen Bulden arabera, honelako Misiolari-Kolegioek bi menpekotasunetatik bat aukeratzeko eskubidea zuten, eta Zarauzkoak hautapeneskubide honi heldu zion esandako urtean.

Zergatik, ordea, aldakuntza hori? Añibarrok dioenez, Probintziaren aldetik bazeuden "bidegabekeria" batzuk, baina batez ere mingarria zena zera zen: Probintzialak ez ziela ematen Kolegiora etortzea eskatzen zuten fraide misiolarigaiei horretarako baimenik. Seguraski ez zen izan unerik egokiena halako erabakia hartzeko (Probintziako misiolari-premia, etab.); baina, hala eta guztiz ere, harmonia onean egin zen banaketa (Solaguren s. d.: 138-140).

Hirurteko Konstituzionala (1820-1823), zituen bere 23 fraide-apaizekin, sano pasatu ahal izan zuen Zarauzko komentu honek, herriko alkatearen oniritzia ere tartean zela; baina ez larrialdiren bat izan gabe, zeren 1822ko abenduan eman baitzen 250 auzotar ez zituzten herrietako komentuak ixteko erabakia, kasu honetan bete arazi ezin izan zena, zeren 1823an "San Luisen Semeen" gudarostea iritsi baitzen Europatik Penintsulara (Solaguren s. d.: 182).

Jakina denez, Zarauzko hau itzal zabaleko komentua zen euskal-herritarren artean, eta ez da harritzekoa fraideok "Errestaurazio" tradiziozalean herritarren osasun-berritze politiko-ideologikorako erabiliak izatea, egiteko hori premiazkoa ikusi zenetan. Horrela, 1823an Ordenako Alameda Ministro Jeneralak Zarauzko misiolariei eman nahi izan zien berezikiago Euskal Herriko jendeak ideia liberaletatik urrundu eta onbideratzeko eginkizuna, betiere garaiko arrasto politiko ofizialean barna (Solaguren s. d.: 201).

Gerra karlista lehertzean, Zarauzko komentuak ez zuen ezagutu Bilbo (1833) edo Urduñan (1834) izandako ihes-hustualdirik; komentuen bizitzan, Gipuzkoako kostalde honek ibilera bareagoa izan zuen gerra-urte haietan, eta karlisten eremuan zeudelarik, irekita egon ziren, Tolosakoarekin batera, Kosta eta Debaldeko komentu frantziskotarrak[ofm]: Zarautz, Sasiola, Elgoibar eta Arrasate. Gerra zegoen noski inguruetan, baina komentu-barnean betiko bizimodu arrunta egin ahal izan zen. Eta Gipuzkoa eta Bizkaiko hainbat herritan Misioaldiak eman ere bai (Solaguren s. d.: 329, 334, 339).

Gerra amaitzear zelarik, 1838an edo 14 apaiz, 4 anaia laiko eta 3 donatu zituen Etxeak. 1839ko maiatzaren 25ean egin zen Zarautzen Goardianoaren aukera, eta Aita J. M. Zabala euskal idazlea gertatu zen hautatua (Solaguren s. d.: 341, 346).

Gerra bukatzera zihoalarik eta iragan hilabeteetako Gobernuaren eliz politika ezagututa, Fraidearte txiki hark ez zuen ikusten, noski, zerua batere oskarbi. Gertakariek arrazoia eman zieten aldez aurretik zituzten beldurrei.

Esklaustrazio-urteak (1840-1867)

1840ko abenduaren 27an adierazi zitzaien fraideei ondasunen inbentarioa egin eta komentua uzteko mandatua. Badirudi ezarritako agindua nahikoa patxaraz bete zela eta, nolabait

ere, irizpide aski zabalekin. Egindako eskeari erantzunez, komentua eskoletarako utzi zitzaion Udaletxeari, 1842an. Egia esan, fraideren bat edo beste herrian eta komentuan edo komentu ondoan geratu zen, bertako elizaren zerbitzuan ere bai, eta hain zuzen Gipuzkoako agintariak jakinaren gainean zirela (Solaguren s. d.: 370-371).

Esklaustrazio berezi horren ondorioz, ondoko urteetan probetxurik atera ahal izan zitzaion egoerari. *Komenturik* ez zegoen, eta eraikinak zeregin ezberdinei eman zien aterpea: herriko eskolak, maisu-maistren etxebizitza (bide batez gogora dezagun bertan izan zela maisu G. Arrue euskal idazlea), esklaustratu batzuren bizilekua, erruki-etxea, eta aroztegiren bat ere bai jangela handian; eliza Parrokiari laguntzeko irekita mantendu zen, fraide-apaiz esklaustratuak zerbitzari zituela.

Gaur egungo hizkeran, "Anaiarte Txiki" bat egon zela esango genuke, nahiz eta berori aldakorra, iraun-segurtasunik gabea eta fraidegairik ezin hartua izan. Fraide gehienak beren bizileku berrietara joan eta gero ere (1841-1842), zenbait frantziskotar[ofm] Zarautzen zegoen, esklaustratuta: apaizen artean, S. Emaldia (†1847), kasik seguru J. K. Etxeberria (†1853), B. Agirre (†1852), eta Anaia Laikorik ere ez zen falta izan: L. Mz. de Sabando (†1854), A. Agirre (†1859). Badirudi, gainera, lehen urteetan, baratzea errentan hartu, landu eta komentu-eraikina zaintzen saiatu zirela aipatuko ditugun Txopitea eta Altuna Donatuak (Solaguren s. d.: 452-454).

Bestalde, Zarauzko komentu hau beti izan zitekeen, Gipuzkoako eliz politika-administrazioetan, larrialdietako irtenbide erosoa, eta erosoegia ere. Hori zen, hain zuzen, beste arriskua. Ikusi dugu gerrate napoleondarrean Hernaniko moja agustindarrak nola egon ziren hemen. Beste esklaustrazio-aldi honetan ere antzeko egoera errepikatu zen: 1853-1854.etan, Gotzainaren baimenarekin Zumaiako moja karmeldar ortozek hemen izan zuten egoitza, beren Etxea berreraikitzen zitzaien bitartean (Solaguren s. d.: 456).

Gerora Probintzia erlijiosoaren izanberritzeari helduko ziotenek (M. Estarta Komisariak batik bat: 1853, 1859) eta bertako komentuaren ingurumarian zebiltzan fraide ohiek argi izan zuten beti Zarautzen geldítutakoen taldetasunari eutsi beharra, noski, baina baita komentuko ondasunen etorkizunaz arduratzeko premia ere, izanberrikuntza serioski sustatu nahi baldin bazen behintzat. Hau da: Fraideartea eta ondasunak.

Azken kezka honen arrastoan, komentuko baratzearen nondik norakoak ezagutzea adierazgarria izango da, zeren eta garaiko fraide esklaustratuek beren betiko asmoetan —garai hobeak etorriko ziren itxaropenarekin— nola iraun zuten erakusten baitu baratzearen historiak.

Baratze ederra zuen Zarauzko komentu honek, eta desamortizazioarekin Estatuaren eskuetara pasa zen, besterik gabe. "Ondasun nazional" deituriko hauek, ordea, lehentxeago edo geroxeago enkantera atera ohi ziren, eta baratze honi ere iritsi zitzaion bere ordua (Madril/Donostia: 1848-09-21).

Hori jakinda, bi Donatu fraidegaik — J. B. Txopitea markinarrak (†1869) eta M. A. Altuna zarauztarrak (†1877)— behar zena jarriz baratzea eskuratzea erabaki zuten: 9.500 errealetan hartu zuten enkantean (baina ekintza 10.430 erreal kostatu zitzaien). Fraideen ongile bati esker (R. Heriz, Gipuzkoako Aldun Nagusia izango zenari esker) izan zuten eskuetan horretarako premiazko diru-mailegua. Ondoren, ortua landuz eta barazkiak salduz ordaindu zen mailegu hura, eta azken finean 2.000 erreal barkatu zizkien Heriz-ek Txopitea eta Altunari. Gerora, erosketa horri esker ziurtatu ahal izan zen frantziskotarrentzat[ofm] baratzearen jabetasuna (Madoz politikari ezagunaren borondate eta ahaleginen kontra enkantean hartua) (Solaguren s. d.: 455; Homenaje 1935: 56).

FRAIDEARTEAREN IZANBERRIKUNTZAK (1867, 1876)

Mariano Estartak Euskal Hegoaldeko frantziskotarren[ofm] izanberritzea Bermeoko komentuan segurtatu ondoren (1859), Arantza-

zuko (orduan "Kantabria" deituko) Probintziaren izanberritzeari ekin zion, eta 1860ko hamarkadan zenbait urrats berri eman zituen xede horrekin: Errioxako Donemiliagako Monasterioa hartu zuen (1865), eta hurrengo ekimenean Zarauzko komentu hau eskuratu.

Erreginarengandik lortutako Erret Ordenuaren ondoren (1867), Gipuzkoako Batzar Nagusien baimena ere erdietsi zen (1868). Fraide-Senitartea 1867ko urriaren 12an jarri zen bizitzen hemen, ofizialtasun osoarekin, Aita Manuel Ereñotzaga mungiarra Buru zuela. Bermeokoa bezala hau ere Erreginak lagunduta ireki ahal izan zen, eta Alfontso XII.a Printzeari egotzi zitzaion beronen Zaingoa (Zarauzko Artxiboa: Cajón VI, 14 eta 15; Maiz 1878: 55).

Bizialdi laburreko irekiera izan zen hori, zeren eta hurrengo urtean lehertu baitzen "Iraultza Loriatsua" eta hark ekarritako ondorengo komentu-kontrako politika erlijiosoak harrapatu zuen Zarauzko Etxea. Aita Maiz kronikari zarauztarrak eman zuen gertakarien berri: 1870eko irailaren 1ean, Gobernariaren aginduz, preso hartuak izan ziren fraideak, karlisten altxamendua sustatu zuten salakuntzarekin. Donostiako hiri barnean preso eduki ondoren, libre eta errugabetzat utzi zituzten hilabeteren buruan; baina itxitako komentura ez zuten itzultzerik izan (Maiz 1978: 57-58).

Bigarren Esklaustrazio honetarako lezioa ikasia zeukaten fraideek: baratzeko etxetxo batean geratu zen Nagusia, Aita Ereñotzaga, klaratarren Bikario zen bitartean. Hau izan zen Estartak orduan eratu zituen egoitzetako bat (besteak Azpeitia, Aizarnazabal, Eibar eta Bermeon izan ziren). (Maiz 1978: 59).

Bigarren Gerrate karlista bukatzean irekitako lehenengo komentua izan zen Zarauzkoa, bere Nobiziategi eta guzti (1876); bi urte geroago, Etxea Goardiano-Etxe ere egin zuten (1878) (Homenaje 1935: 19).

1877an, pisu handikoak gertatu ziren Zarauzko komentuan egindako bilera zenbait eta Bisita ofiziala, bai Estartaren gobernabidea berbideratzeko, bai Probintzia izanberritzeko ere. Urte hartako irailean bildu ziren, Ereñotzagaren ardurapean, bertako Senitarteko apaizak ez ezik Arantzazutik etorritako zenbait fraide ere (J. E. Epelde, horien artean): ordezkaritza bat Erromara bidaltzea erabaki zen, kexu baitziren Estartak komentu honetako Kapitulua biltzen ez zuelako (Nagusia aukeratzeko, adibidez, usarioz garai batean egin ohi zen bezala). Garai berrien zantzuak ageri ziren. Probintziaren bigarren izanberritzea orduan eta hemen hasi zela esan daiteke (1859an Bermeon bezala), modu berrituz eta gizon berriekin (Maiz 1978: 64-68; Homenaje 1935: 57).

Erromatik heldutako izendapenekin eman zitzaion hasiera epealdiari: Zarauzko Nagusitarako Iparraldean zegoen Aita J. I. Labaka donostiarra aukeratu eta izendatu zuten bertako fraideek eta Guati Komisari Probintzialak (1878ko abuztuaren 21ean). Hain zuzen, Arantzazun aste bete lehenago fraide esklaustratuek komunitatea eratu zutela, eta berriro abitua jantzi, gogorarazi behar da hemen. Urte bereko irailean jarri zen Zarautzen Probintziako Nobiziategia, eta komentu hau orduan bilakatu zen Komisari Probintzialaren egoitza ofizial eta gero, tarte txiki batekin 1925a arte, Ministro Probintzialarena (Maiz 1978: 72-73; Estadísticas 1878: 3).

FRAIDEARTEKO XEHETASUN ESTATISTIKO ZENBAIT

Erregimen Zaharrean Zarauzko Komentuak ez zuen izan sekula fraidearte handirik. Urrun zegoen Zarauzko hau Bilbo, Gasteiz edo Arantzazuko eredu handietatik. Komentuaren oihartzun soziala, Fraidearte handitik baino herrietan zintzoki betetako prediku-lanetik zetorkion, batez ere Misiolari-Kolegio bilakatu zenez geroztik (1746).

XVII-XVIII. mendeetako datuak apalak dira: 19 fraide ziren 1680an, eta 16, urte batzuk geroago (1700). Probintziako Komentuak beren punturik gorenean zeuden unean, 26 lagunen kopurua eman zen Zarauzko honetarako egoki bezala (1768). Eta lortu zuten sona izateko, jende gutxirekin lan estimagarria egin zuten, nonbait, fraide misiolariek (Uribe 1996: 278).

Zarauzko Komentua. Komentuko eliza, barrutik. (Argazkia: 2002).

Izanberrikuntzarekin (1876), Zarauzko Senitarteari tokiko zereginetatik haragokorik ere izendatu zitzaion, ikusiko dugunez. Horrek sortu zuen egoerari erantzunez, eta berdin bertako fraidearteak izan zituen ekimenen ondorioz, San Joan Bataiatzailearen Komentu hau hazi egin zen eraikinetan eta lagun-kopuruan ere. Horregatik, XX. mendea izan da Zarauzko

Fraidearte honen goraldirik jasoeneko mendea.

1880ko ekainean 29 lagun ziren komentu honetan zeudenak, eta 1881eko uztailean baziren jada 34 fraide, nobizioak (7) eta filosofi ikasleak (10) barne. Une hartan Zarauzkoa zen Probintziako komentu ardatza, Arantzazu lehen urratsak ematen ari zen bitartean. 1880an, 10 apaiz eta 5 donatu zituen Zarauzko Etxe honek (Maiz 1978: 78-79; Estadisticas 1878: 3, 6-7).

Lan-eremu ezberdinak eta zabalak izan dituenez, ez da harritzekoa Arantzazuko Probintziak gora egin ahala (1945-1965.etan goia jo zuelarik), Zarautzek bere fraide-lagunartea ere handitzea. Artxiboko berriemate ofizialek 1916tik 1970a arteko hazkuntza zifra hauekin deskribatzen dute: 38 fraide 1916an, 35 (1920), 34 (1925), 46 (1931), 33 (1940), 46 (1950), 68 (1960), 42 (1970). Ondoko urteetarako Idazkaritza Probintzialak datu hauek gehitu ditu: 34 (1977), 32 (1988), 30 (1995) eta 24 (2001.eko maiatzean) (Zarauzko artxiboa: Cajón X, 36; Agirrezabala/Beraza 1997: V; Zinkunegi 1997; Tokiko lekukotasunak).

Azpimarratzekoa da Probintzia erlijiosoko beste inongo eta inolako Komentutan baino pertsonal gehiagok jardun duela hemen irakaslanean (eta anitzek luzaro jardun ere), zeren eta hemengo hau baita Euskal Herriko frantziskotarrek sekula izan duten tokiko Ikastetxe-multzorik handiena. Lan-mundu horretara emana izan da, ba, Fraideartea, bere tamainan gainerako alorrak utzi gabe (predikua, fraidegaien hezkuntza, etab.). Ikusiko dugu hori.

Eraikinen bilakaera

Bizpahiru eskakizun orokorrek bultzatu dute Eliza-Komentu honetan eraikinak aldatu eta osatzera. Eliza bera, haziz joan den kristauartearentzat eta Komentura bildutako eginkizun pastoral ugariagoetarako egokitu behar izan da. Fraideartearentzako eraikinak ere birmoldatu eta osatu egin behar izan dira, estatistikek erakusten digutenez lagunarte hau ere hazten joan baita. Eta hirugarren, batez ere Irakaskuntzako eskakizun sozial eta legezkoei erantzun egin behar izan zaie, 1912.eko eraikin apal hartatik hasi eta gaur egun ezagutzen dugun Eskolarte zabaleraino.

Gatozen elizara

Fraideartea izanberritzean (1876-1878), aurreko mendeetako ondarea jaso zen elizan: hau da, Fraidearte txiki eta apal baterako lain zen eliza, ez gehiagorik. Baina Komentuak bere ekimenak garatu eta herrian erakarmena indartu ahala, premiak ere aldatuz joan ziren. Adibide gisa, Hirugarren Ordena aipatu besterik ez dago: bera bakarrik ehundaka laguneko eliz elkartea zen. Elizak, ba, aurreko mendeetan baino zerbitzu zabalagoak eskaini behar zituen, nahitaez; hortaz, eraikina egokitu egin behar izan zen.

Komentua bezala eliza, biak, XVII. mende hasieran jaso ziren: komentu-etxe berria 1617an hartu ahal izan zuten fraideek, eta eliza berehalako urteetan burutu zen (Uribe 1996: 218-222). Gero, eliza barruak XIX. mendean izan zuen lehen berrikuntza estimagarri bat: Aita J. M. Zabalaren goardianoaldian erretablo nagusia eta alboetako biak egin ziren, estilo neoklasikoan, baina, gainerakoan, elizako egitura arkitektonikoa ukitu gabe (1827-1830).

XX. mendean aldatu da elizako oina, bi ekinalditan: Aita Aranguenaren urteetan (1939), alboetako bi hegalak erantsi zitzaizkion, komentu-etxeari elizaren alde bietan pasabide bana kenduz. Mende-laurden bat geroago, Z. Zabalaren egunetan (1955-1956), osatu zen gaur egun eliza honek duen oinplanoa, erdiko nabea komentuko klaustrorantz luzatuz.

Obra larri hauen artean, ez da falta izan tarteka behin eta berriz egindako hobekuntzarik: 1905ean estreinatutako organua (1994an berriztatu eta handitua), leiho berri handiak egokitzea (1913, 1917), berogailu berria eta margoketa (1971, 1972), teilatu berritzeak (1980) edo Kontzilio-eskakizunen araberako presbiterioko moldaketa (1965). Hori dena gorabehera, elizaren funtsezko berritze orokorra azken hamarkadan

egin da, M. Pagola Goardianoaren ardurapean (1993-1994), eta sekula eliza honetan egin den berritze-inbertsiorik handiena gertatu da berau: orotara, 109 milioitik gorako gastua.

Proiektuak eliza barru osoaren berregitea zuen xedea: zoruak, hormak, leiho eta zuraje dena, aldareen berregokitzapena, margolanen izanberritzea, argindar-instalazioen berritzea, argiztapena, megafonia, kapera osagarria (penitentziarakoa), eta abar luze bat. Azpimarratzekoa da, gainera, berritze-proiektuaren barnean egin den, A. Blocklandt-en triptikoaren (1577) eta P. Claeis-en "San Frantzisko"-ren (1602) birbalioespena, eta Eulateren beirateria zabala (150 m^2). Azkenik, berritze-lan guztion ondoren, Zarauzko komentu honek eliza duin, atsegin eta argiagoa du orain (*Libro de Obras*; Tokiko lekukotasunak).

Komentu-etxea

Komentu-etxeak ere bere berrikuntzak izan ditu, fraidearteko bizitzari erantzun ahal izateko. 1876a ondoren, lehenengo eraikuntza handia, Nobiziategiarena izan zen, Komentuko baratzean iparrerantz eraiki zena (1884); hau da, gero, XX. mendean, Nobiziategia ixtean eraitsitako eraikina (1985).

Eskola izanik ere, eliza-etxeari berari atxiki zen "Antoniana Txikia" deitu izan zena, 1912an jasoa. Gainerakoan, komentuan eraikin-gehikuntza bakarra 1965ean egindakoa izan da, komentu-etxeko hegorantz ezarria. Eraikin gehitu honi esker Fraideartearentzako hainbat zerbitzuk bere leku erosoa izan du (sukaldea, egongelak, biblioteka berria, etab.). Bestalde, komentu-etxe barrua itxuraldatu ere egin da, hainbat obraren ondorioz. Lehenengo eta behin ezin dira ahantzi komentu-etxeari elizarako kendu zitzaizkion aldeak, eta aipatuta ditugunak (alboetako pasabideak eta beheko klaustroa). Era berean, komentuko sartaldeko eraikina, plazatxotik jolaslekura doana, guztiz berritu izan da, barrutik eta kanpotik. Komentu-hegal horri, barrutik hustu ondoren, betekizun berriak eman zitzaizkion, beheko solairuan, atari-inguruko harrera-gelak; lehen solairuan, parroki bulegoa, katekesi-gelak eta alargunen aretoa; bigarrenean, fraideentzako eritegia egokitu ziren (1982), eta, azkenik, kanpoaldeko fatxada guztiz garbi geratu da zituen etxola eranskinetatik (1997). Eraberritze horien ondotik, Ikastetxe berrituarekin adostu ahal izan da Komentuko sartaldeko fatxada hau.

Azkenik, esan gabe doa, komentu-eraikina bere hartan gorde izan denean ere, obrarik franko egin dela barruan hobekuntza berrietarako. Bereziki gogoratzekoak dira San Diegoren komentu-barruko kaperaren berritzea (1986) edo Liburutegi berria (1993-1994), eta bestelako mantentze-hobetze lanak (klaustro-zoru berria, 1980; instalazio elektrikoa, 1995; igogailua, 1981; sukalde-berritzea, 1990, etab.).

Komentu-etxearekin zuzenki loturiko hauek bukatzeko, nahitaezkoa da eliza-aurreko plazatxoaz zerbait esatea. Orube hori fraideena da (684 m^2), baina gaur egun erabilera publikoa du. Hori dela eta, azkeneko itxuratzea Zarauzko Udaletxearen bizkar joan zen, hain zuzen elizako berrikuntza handia egiten zen aldi berean (1994) (*Libro de obras*; Tokiko lekukotasunak).

Eskolagintza

Eskolagintzak ere bere bidea egin du, 1912tik hasita, eta berau izan da mendean zehar abia azkarrena eraman duena. Eraikuntza ezberdinen kronologiari jarraikiz emango dugu alor honetako berri.

Esan dugu "Antoniana Txikia" 1912koa dela, eta gainerako eskola-eraikin guztien aitzindaria; Epelderi zor zaio eraikuntza hau, eta hainbat zereginetarako erabili izan da ordutik hona (Intxausti 1995: 52).

Gerraurretik jasotako bi eraikin larri aipatu behar dira lehenengo horren ondoren: eraikin bakarrean zihoazen Antoniotarren Aretoa (1922) eta "Colegio Antoniano" deitua (1927), eta berorren ondoan baina aparte eraikitako Pilotalekua (1935). Hauek dira geroko eskolagintzako lehen gunea.

Gerraondoan, lehen pausua Langintza-Eskola I.arena izan zen (EPO I: 1946), eta gero, hortik hasita, garatu ziren beste eraikin handiagoak: Langintza-Eskola II.a (EPO II: 1958) eta III.a (EPO: 1965). 1985-1986ean, Polikiroldegiak osatu zuen eskolarte hau guztia. Elkarren jarraiko eraikuntza hauetan B. Gorrotxategi, A. Sorarrain, A. Iruretagoiena eta M. Pagola aipa daitezke bertatik bertarako arduradun bezala.

Beheragoko irakas-mailetan ere, lege eta arautegi berriek ekarri izan zuten aldakuntzarik. Horien artean, adibidez, 1982an Eskolaurrea jarri zen Antoniana Txikian, hainbat urtetan (1965etik aurrera) Ikastolarako erabili izan zen lekuetan, horretarako premiazko egokitzapenak egin ondoren. Ikastola Hendaia Etxera eta Nobiziategira aldatu zen orduan. Erabaki honek Ikastetxeko haurren bertako segidatasuna eta euskararen sustapena segurtatu nahi zituen, txikitxikitatik Unibertsitate-atarirainoko ibilbidea, dena, bertan egin ahal izateko.

Eskolagintza oso honen garapena aurreko mendeetatik jasotako ondareari esker ere burutu ahal izan da Zarautzen, izan ere Komentuak eskueran izan dituen orube eta baratzerik gabe ezina gertatuko baitzen mende osoko eraikingarapen sostengatu hori. Garai bateko etxadiorubeetatik (eraikitakoak eta bestelako zereginetarako zeuden orube libreak, hau da, jolasleku, baratze, plazatxoa, etab.: orotara 16.222 m^2 zirenetatik), eskolek eta berauen zerbitzuek 4.588 m^2 hartu dituzte; 6.300 m^2 herriko etxagintzarako saldu ziren, horrela Kiroldegiko eraikuntza ahalbideratuz. Bukatzeko esan dezagun, elizak eta komentu-etxeak, batera, 2.550 m^2 dutela, eta oraingo baratzeak eta inguru eraiki gabeak 2.100 m^2. Hau da orube eta eraikinek 2001ean duten banaketa (Intxausti 1995: 57-61; Tokiko lekukotasunak).

Azkeneko eraikuntza berri handia Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako Eskolakoa izan da, eta ekimen honen bidez Antoniano Ikastetxe zaharra eraikin berri batera bildu da, lehengotik behar zena bota eta eraberrituz (1996-1997). Proiektu hau Gurasoen Elkarteak eraman du bere gain, fraideengandik ere izan dituzten erraztasunekin. Zama handiko obra berau: 157 milioi pezeta paseak (Beraza 1997).

Oro har, Goardiano (1973-1985) eta Langintza-Eskolako Zuzendari (1970-1987) bezala, bere ardura eta ezagumendu teknikoekin Agustin Biain izan da azken eraikuntzak luzaroen gidatu dituen gizona (1970-2000), unean uneko Goardiano eta Zuzendarien ardurapean.

FRAIDE GAZTEEN HEZIKETARAKO SENITARTEA

Izanberritu eta berehalako urteetan Zarauzko Etxe honetatik gidatu ziren Arantzazuko Probintziako komentu-politika eta garapena. Alde batetik, bertako barnetegian bizi izan zuten Probintziako fraidegai gazte gehienek beren biziera erlijiosoko lehen esperientzia, nobizio gisara, eta bestetik, Zarauzko premietara ez ezik eremu zabalagoetako zereginetara ere irekirik ageri zaigu Etxe hau.

Alde honetatik, aipatzekoa da Zarauzko Etxe honek lehenago eta orain Estatu-mugez haraindi izandako harremana, eta Fraidearte berrituak ezagutu zuena. 1880an, Iparraldetik Gobernu frantsesak iraitzita zetozen fraide batzuen babes-toki izan zen Zarauzko komentua, urte horretan itxi arazi baitzituzten Frantzia eta Iparraldeko Probintziako eta Donapaleu herriko komentuak. Donapaleuko hau da, hain zuzen, garai batez Zarautzen bizi izandako zenbait fraidek Erriberriko Aita Aresorekin batera eraikitako Etxea (Izagirre, Obieta, Beobide).

1878 eta 1880ko urteak izan ziren, gainera, Erromatik etorritako Bisitarien eskutik (hurrenez hurren, J. R. Irigoien eta Aita Gallego), komentuko barne-bizitza berrarututakoak. Garaiko fraide-bizimodua eta pentsamoldea ezagutzeko argigarria da orduan ezarritako arautegia (ADC/Santa Visita I: 27-38; Maiz 1978: 79-81).

Horiek horrela, 1884-1886.etako urteak erabakiorrak gertatu ziren Probintziaren eraikieran, eta Zarautzek ere parte hartu zuen fraide-barruti berriari (1886an Probintzia bihurtuari) bere azpiegiturak ematen: laster ikusi zen Nobiziategia handitu beharra (1883), eta 1884an jaso zen

Zarauzko Komentua. Komentuko Liburutegia. (Argazkia: 2002).

komentu ondoko baratzean horretarako eraikin berria, laurogeiren bat urteko bizitza izango zuena; aldi berean Filosofiako Ikastegia Arantzazura eraman zen (1884). Esan daiteke, geroztik frantziskotar[ofm] guztien oroitzapen pertsonal bilakatu zirela Nobiziategi hori eta Zarautz bera (ACD I: 6; Maiz 1978: 87; Homenaje 1935: 71).

Nobiziategi horrek badu bere historiatxoa. 1886an Arantzazura eramatea erabaki zen, baina, halabeharrez, atzera egin ere bai, izan ere fraide gazteak soldadutza-zerbitzutik libratzea Zarauzko etxe honetarako lortu baitzen Gobernutik (1887), ez bestetarako. Denborarekin, lekualdatzeko arrazoi berriak ere agertu ziren: Nobiziategia herri-herrian egotea ez zela egokia, esan ohi zen; bestalde, Zarauzko garapen turistikoak eta komentuak berak kanpora begira zituen zeregin zabalek lekualdatzea eskatzen zutela, etab. Horregatik, Arantzazura bezala beste tokitara eramateko gogoa behin eta berriz errepikatu izan zen, batez ere sekula egikaritu ez zen Forurako asmoa (1915, 1918, 1955, 1972). Hala eta guztiz ere, zalantza eta asmo hauek gorabehera, bokazioak indar betean egon ziren bitartean, Zarauzko Etxe honek beti izan zuen bere Nobiziategia (ACD I: 22, 50; II: 169, 200; III: 386-387; V: 47, 51; Zarauzko Artxiboa caj. VI, 16).

1960.eko bigarren bosturtekoan berriro heldu zitzaion Nobiziategiaren lekutze egokiago baten premiari. Jada 1964an Definitorio eta Kapituluetan aztertu zen egoera. Definitorioak Nobiziategia La Aguilera-ra (Burgos) aldatzea proposatu zuen, baina Kapituluak ez zuen halakorik onartu, premiazko baldintzak Definitorioak Zarauzkoan bertan bilatu behar zituela erabakiz. Saiatu zen Definitorioa ahal zuena egiten, Zarauzko komentuko egoera horretara egokitzeko, baina batetik konpontzera egin zen bidea, bestetik okerrera joan zen: bokazioen

krisia iristean, Zarauzko Nobiziategi hau 1969an itxi zen arte (ACD IV: 203, 205, 224, 251, 311).

Fraide gazteen heziketa-etxe bezala, funtsezko zeregina bete du Zarauzko komentuak, estatistikek erakusten digutenaren arabera: 1935ean idatzi zenez,1878-1935.etan 799 nobizioetako 660 egin ziren fraide. Ikasketen antolaera aldatzean, Humanitateen bosgarren urte bat ezarriz (1934), behin-behineko irtenbide bezala urte hartako profesa egin berriek Zarautzen egin zuten nobizio-ondoko urte hori ere (Homenaje 1935: 91, 469-472).

Estatistika orokorrago bati helduz, esan dezagun Zarauzko Nobiziategira 968 lagun sartu zirela (1878-1968), gehienak Foruko Seminario Txikitik etorriak (679), gutxiago Arantzazukotik (236) eta gutxi batzuk han-hemendik (53).

ZENBAIT IZEN FRAIDEARTE ZABALEAN

Zarauzko komentuan fraide fin, jakitun eta elizgizon ezagunik franko bizi izan da, azken bi mendeetan. Hasteko, gogora ditzagun XIX-XX. mendeetako bi gotzain, behintzat: F. Sáenz de *Urturi* (†1903), frantziskotarren Espainiako Komisari Jenerala (1884-1891), Kubako Santiagon Artzapezpiku izana eta Zarauzko kanposantuan ehortzia (Homenaje 1935: 42-52); Plácido *Rey Lemos* (†1941), Pelusioko Artzapezpikua (hau ere frantziskotarra), 13 urtez Zarauzko erretiro honetan bizi izandakoa.

XVIII. mendetik zetorren zenbait izen sarritan gogoratu izan da Zarauzko Komentu honen historian. Horien artean, Aita F. A. *Palacios* (1727-1804) oñatiarrak utzi zuen misiolari bezala arrasto iraunkorrena, egin zituen lanengatik ez eze aitortu zitzaion santutasunagatik ere. Askorentzat gertatu zen fraide eredu jatorra (Mogel, Añibarro) (Villasante 1961: 213).

Baina euskal munduan, misio-lanarekin batera euskalgintzan oroitzapenik biziena utzitakoak bertako idazleak izan dira. Hemen aurkezten ditugun azken bi mendeetara bilduz, aipa dezagun lehenik Aita Pedro A. *Añibarro* areatzarra (1748-1830): 1790ean etorri zen Misiolari-Kolegio honetara, eta 1794ko gertakarien lekuko eta berriemailea izatea suertatu zitzaion (bestalde, ia berrogei urtetan izan zen bertako kronikaria, hil zen arte); ondoko hamarkadetan egin zuen bere euskal lana, misiolari ere zebilen bitartean (Villasante 1961: 210-219).

Juan Mateo *Zabala* bilbotarra (1777-1840) da hurrena aipatzekoa: 1815ean sartu zen Zarauzko Kolegioan, jada irakasle zelarik; euskara Hegoaldeko bere lurralde guztietan ezagutu eta aztertu zuen; idazle eta gramatikaria izan zen (Villasante 1961: 235-241).

Jose Antonio *Uriarte* arrigorriagarra (1812-1869) da hurrena ekartzekoa: argitara emandako lanen ondoan, kaleratu gabeko Bibliaren itzulpen osoa burutu zuen, eta Bonaparte Printzearen lankide estimatua izan zen. Azkenik, hiru bizkaitar horien artean, idazle gipuzkoar bat ere badugu, Jose Kruz *Etxeberria* oiartzuarra (1773-1853): 1801ean etorri zen Kolegio honetara; misiolari langilea izan zen, eta euskal idazlea (Villasante 1961: 243-245, 260-266).

Ikus daitekeenez, Zarauzko Misiolari-Kolegiora bildutako fraideak —garai haietan esan ohi zen moldean esateko— "nazio" ezberdinetakoak ziren, hau da, ez gipuzkoarrak bakarrik, baizik eta Hegoaldeko euskal herrialde ezberdinetakoak, berdin komentua Arantzazuko Probintziari atxikia nahiz beregaina izan zen urteetan. 1876tik aurrera, Probintziako Etxe arrunt gisara izanberritu zenez, bertako lagunartea Probintzia Erlijiosotik etorri izan zitzaion. Horietako bat izan zen Jose D. Epelde azkoitiarra, Zarautzera etorri eta osorik bertakotu zena.

Jose Domingo *Epeldek* (1870-1956) berrogei eta gehiago urte eman zituen Zarautzen, bertako gazteria gidatzen eta berorren hezkuntza, kultura eta erlijio-bizitzan laguntzen. Bakarra izan gabe eta lankide onez inguraturik —fraide eta sekular— XX. mendeko lehen erdialdian egitasmo zabala gidatu zuen, belaun berriekiko komentuko ekimen sozio-pastorala egituratuz, bere garairako eta ondokoentzat ere.

XX. mendean bizi izan da hemen euskal idazlerik ere. Gogoraraziko dugu gero Arruti, baina ezin dira aipatu gabe laga J. A. *Ugarte* angiozartarra (1924, 1927) eta J. M. *Azkue* erren-

Zarautz: Diptiko eta Triptiko flandestarrak. A. Blocklandt, 1577.

Orrialde honetan jaso dugu Diptikoa: alde batean, "San Joan Bataiatzailea eta San Andres", eta bestean, "San Frantzisko eta Gotzaina" (segur aski, azken hau Joan Bautista Andersen da, Utrecht-eko Gotzain frantziskotarra).

Hurrengo orrialdeetan: "Hiru Pazkoen Triptikoa". Hau da margolan honen bihotza: Erdian, Pentekoste-Eguneko "Espiritu Santuaren Etorrera"; alboetan, "Jesusen Jaiotza" eta "Pizkundea".

teriarra gerraurrean, edota A. *Sorarrain* alkizarra (liburugilea, 1950 eta 1955; eta zuzendaria, Gipuzkoako *Anaitasuna* aldizkarian), eta hurbilago, A. *Esnaola* azpeitiarra, itzultzaile eta kazetari-lanetan jarduna. Beste alor batean, musikarenean alegia, J. J. N. Garmendia (1883-1954) da aipatzekoa (beherago esango da honetaz zerbait).

Kanpotik etorriek hainbat asmo sustatu izan badute, Zarauzko herriak ere hartu du parte frantziskotarren ekimenetan. Hain zuzen, partehartze horixe izan da arrakastaren alde bat.

Oñatirekin batera, eta beharbada beronen aurretik zenbait ikuspuntutatik, Zarautz izan da Euskal Herrian eta XX. mendean soslai frantziskotar nabarmenena izan duen herria (hiru Ordenak bertan dituela, zenbait elkarte frantziskotarrekin, gazteentzako erakundeekin, eskola-sistema oso batekin, etab.). Bestalde, herriko gizarteak ere bere ekarpena egin dio frantziskotartasunari, inon gutxitan bezala. Besterik ezean eta datu berrien zain, hona xehetasun zehatz bat: uneren batean fraide-abitua hartu duten zarauztarrak 78 izan dira (1881-1993), eta horietan inoiz familia beretako haurrideak (Mitxelena, Eizagirre, Iturria, Urbieta).

Bestalde, bada zarauztar frantziskotar aipagarririk. Ordenako Nagusien artean eman daitezke J. J. *Maiz* (1854-1927), Probintziako kronikari eta aholkaria, Probitziarteko Aholkaria, misiolaria; B. *Mendia* (1905-1983), aldakuntza larrien unean Arantzazuko Probintzian Ministro Probintzial izana (1955-1967); *Mitxelena* anaiek (Arkanjel: 1899-1969; Roke: 1902-1979) bien artean gutxienez hamabi goardianaldi bete zituzten komentu ezberdinetan (hortaz, 36 urte Nagusi-arduretan, Arantzazu, Zarautz, Donostia eta Erriberriko etxeetan).

Zarautzen jaiotako frantziskotarren artean gogorarazi behar dira bi idazle ere: Aita Antonio *Arruti* (1882-1919), Eusko Pizkundean eta Probintzia Erlijiosoko literatur historian leku jakin eta berezia duena, eta Salbatore *Mitxelena* (1919-1965), gerraosteko euskal literaturan bideberritzailea, olertian bezala saiakeran, eta herriko Ikastolari izena eman diona; garaiko historiografia berrian oinarrituta, Arantzazuko Santutegia abestu zuen Salbatorek, betiere ikuspen poetiko batetik.

Zarautz. Komentuko goiko klaustroa. (Argazkia: 2002).

Albiste hauen arabera, beraz, agerian dago XIX-XX. mendeetan komentu honetako historia fraideena ez ezik herritarrena ere izan dela. Lehen hamarkadetan (1876-1940) kaletik oztaozta barruntatzen zen komentu-barruko bizitza; ondokoetan (1940-2000), ordea, elkartasun zabalagoan eta gertuagotik ibili dira herria eta komentutarrak. Nolakoa izan da, ordea, komentu barrukoen bizimoldea?

FRAIDE-BIZIMODU HERTSI ETA BERRITUA

Zarauzko komentua, gainerako Komentu frantziskotarren artean biziera zerbait her-

tsiagoko bezala jaio zen, nahiz eta Kantabriako Probintziaren barnekoa izan ("errekolekziokoa" zen hain zuzen, lehen urteetan bederen). Jatorrizko berezitasun areagotu egin zen gero, Misiolari-Kolegio bihurtzean (1746) eta Probintziatik bereiztean (1817).

1867an izanberritu zenean, ordea, Etxe hau ere Probintziako Komentu arrunt bezala ireki zen, gainerakoen pare-parekoa; baina Esklaustrazio aurreko biziera zaharra bere arau guztiekin berritzeko asmoarekin. Are gehiago, Etxeak bere Nobiziategia bazuenez. Komentuko isiltasuna, gela-gordetzea, irteera arautuak, herritarrekiko harreman neurtuak, eskutizketa kontrolatua, bidaietako oinezko ibilera, apaltasunezko azalpenak, otoitzaldi luzeagoak, etab. Izanberritze-ondoko lehen mende-erdian hori izan zen, oro har, Etxeko araubidea.

Bizimodu zorrotz horren barruan zegoen, adibidez, Matutiak gauez esatea: gauerdian errezatu ohi ziren, neguko egunik gordinenetan izan ezik (1913), baina hogei urte geroago egunez egiteko baimena lortu zuen komentuak Erromatik (Kronika, 1933-06-30), eta hurrengo hirurtekoetan berriro eskea berritu. Beste berrikuntza zenbait bezala, etxe barruko eta kanpoko aldakuntzek sustatzen zuten bilakaera hau. Izan ere, Zarauzko komentua, bere tradizionaltasun hertsi eta guzti, adi baitzegoen inguruari. Badakigu, gainera, hobekuntza teknikoak nahikoa garaiz sartu zirela komentura: adibidez, 1895ean jarri zen argindarra bertan (1995ean eguneratu da instalazioa), eta telefonoa 1922an (ACD II: 139, 424; III: 58, 243; Homenaje 1935: 464; Kronika I, 191).

Ez da hori harritzeko ere, zeren nobizioetxe izateaz gain, Zarauzko komentu honek Probintziara guztiz irekita egon beharra baitzeukan. Arantzazuko Komisari barrutia Probintzia bilakatu ondoren (1886), bederatzi aldiz izan zen Zarautz Arantzazuko Probintziako Kapitulubiltokia, bi aldiz XIX.ean (1890, 1899) eta zazpi bider XX.ean (1902, 1909, 1912, 1918, 1922, 1925 eta 1928). Daten arabera ikus daitekeenez, Probintzialaren egoitza izan zen bitartean suertatu zen horrela, artean batzarkideak ez baitziren gehiegi, eta, bestalde, Etxea erosoa zen. 1931tik aurrerako Kapitulu guztiak Arantzazun ospatu dira.

XIX-XX. mendeetan Zarauzko herri-komentuen aurpegi frantziskotarra bi molde ezberdinetakoa izan da: XIX.aren lehen partean Misiolari-Kolegio bezala ageri zaigu osorik, etxe-barnera begira (ikasketak, otoitza, araubidezko biziera) eta Zarauzko herritarren baino Hegoalde osoko pastoral-ekimenen zerbitzuan. Mende bereko bigarren partean, ikusi dugu Ordenaren izanberritzeari emana ageri dela Etxe hau, fraide gazteen heziketa-ardura bere baitan hartuz.

XX.ean, Zarauzko Etxea bi lan-motatako ekimenen sorburu gertatu zen, betidaniko predikuari uko egin gabe: alde batetik, tokiko eginkizunei heldu zien adorez, Zarauzko bertako gazteriaren heziketa eta irakaskuntzarako egiturak sortu eta garatuz (1911...) eta eliz Elkarte

indartsuak sustatuz, eta bestetik, hainbat hamarkadatan, gerraurrean eta ondoren, Hirugarren Ordenako Arduradun Probintzialek Zarautzen izan zuten egoitza.

ELIZ ELKARTEAK

Hirugarren Ordena, diogu, baina beste eliz lagunarterik ere eratu izan da Zarauzko komentu honetan; guztiei buruz esan beharko litzateke zerbait, baina bi nagusienak gogoraraziko ditugu: Zarauzko bertako Hirugarren Ordenako Senitartea, eta Antoniotar Gaztedia.

Esklaustrazioak berak ere ez zuen ito arazi Zarauzko Senitarte hirugarrendarra, eta XIX. mendeko hondarretan 1.000ren bat anai-arreba omen ziren Zarauzkoak. Lagunarte horretakoak izan ziren, gainera, elizgizon zarauztar ezagunak (L. Azpiazu eta M. Bidaurre kalonjeak, etab.).

Gero, hurrengo mendearen hasieratik, izen jakin bat da eliz Elkarte honen arduradun historikoa, J. A. Ugarte (†1935): bere bizitza osoa eskaini zion honek Hirugarren Ordenari, Zarautzen noski, baina laster Gipuzkoa eta Nafarroa euskaldunerako ardurarekin (1909) eta gero, Probintzia erlijioso osorako Komisari zela (1915). Gerraostean, Komentu honetatik lan egin zuten, J. Olaizola, Z. Zabala eta E. Agirretxek ere (1946-1961: hau da, Hirugarren Ordenaren azken loraldi-une onenean). (Homenaje 1935: 238-239, 244, 249; ACD *passim*).

Behin baino gehiagotan, Zarautza bildu izan ziren Euskal Herriko Hirugarrendarrak, beren Biltzar Orokor jendetsuak egiteko (1921, 1927, 1944, 1952, etab.). 1952an, Sépinski Ministro Jenerala ere presente zela egin zen hori (Homenaje 1935: 242, 243; Crónica II, 212; III, 112). Senitarte Sekular honek egitura onak eta baliagarriak zituen Zarautzen, ez gerraurrean bakarrik, baita gero ere. Gezurra dirudien arren, 1.477 hirugarrendar zeuden Zarautzen 1935ean, eta mende-laurden bat geroago 1.310 (*c.* 1960) zirela adierazi zen Madrilerako txosten batean (Homenaje 1935: 242, 243, 251; Tolosako Komentu-Artxiboan Probintziako HOko txostena).

Zarauzko komentuaren ardurapean zeuden barrutiko Senitarte Hirugarrendarrak ere gogoratu beharko ditugu. Aipatutako 1960ko zerrendan, barruti hark Errezil, Matximenta, Azkoitia edo Elgoibartik kostarainoko herriak hartzen zituen, eta Kostaldean Oriotik Ondarroarainokoa; orotara, 20 Senitarte ziren Zarauztik gidatutakoak, guztira 6.118 hirugarrendar zituztenak (Tolosako Komentu-Artxiboan: Probintziako HOko txostena).

Dena den, Zarauzko komentuan XX. mendeko eliz elkarterik sozialki emankorrena Antoniotar Gaztedia izan da, bildu zuen lagunarte zabalagatik baino areago sortutako irakas-egitura iraunkorragatik. Elkarte hau 1911n sortu zen, Aita J. D. Epelderen eskutik, eta Zarauzko gazteetako parte on bat bildu zuen lagunarte honek. Laster Arantzazuko Probintzian elkarte eredugarria gertatu zen Zarauzkoa, zituen dinamika eta ekimen azkarrengatik.

1912an, 115 bazkide zituen Gaztediak, eta herriko Parrokiarekin elkartasunean egindako lanak laster eman zituen bere fruituak: berehala 600 lagun, eta 1929an 946 gazte, 1930ean 4.786 biztanleko herri honetan.

Antoniotar Gaztediak lehentasun garbia eman zion gazteen prestakuntza pertsonal eta profesionalari, gau-eskolak, irakaskuntza ezarautu eta arautua, katekesia eta abar sustatuz. Zalantzarik gabe, hori izan da gazte-belaun ezberdinei eskaini izan dien zerbitzurik onena, hasi Lehen Eskolatik eta Unibertsitate atariraino. Beste eliz elkarte askoren ondoan, irakas-ibilera horrek erakutsi du, nabariki, Gaztediaren balio sozio-pastorala.

Hirugarren elkarte bat ere hona ekartzekoa da: Arantzazuko Kofradia. Kofradia berri hau eratu, eta berehala antolatu zen Zarautzen ere bertako Senitartea (1918), Arantzazurako zaletasuna herritarren artean biziki sustatu zuena. Badakigu, 1921az geroztik Zarauztarrek urteroko Erromesaldia egin izan dutela Santutegi hartara, kasu honetan egun jakin bat berentzat gordez (Pentekoste eguna, hain zuzen). 1944an, urtero herrian Arantzazuko Ama Birjinaren prozesioa egiteko baimena lortu zen Gotzainagan-

Zarautz: Frantziskotarren Ikastetxeak. Elkarren segidako eta maila ezberdinetako irakaskuntza eskaini dute Eskola hauek. Kasik XX. mende osoan egin dute lan, fraide irakasleen ardurapean gure egunak arte. Herritar sekularren partaidetza gero eta handiagoa izan da bertan, irakasle eta zuzendari gisa ere.

dik, eta ohiturari urte luzetan eutsi zitzaion. Arantzazuren familiartekotasuna Zarautzen bizirik dago gaur egun ere, urteroko azalpen ezberdinekin: aipatutako Erromesaldia, eta Aloñako Andra Mariaren Eguneko jaiak, gutxienez.

SAKRAMENTUAK ETA PREDIKUA

Fraideen asmotan, elkarte horiek —eta ondoren ikusiko dugun eskola-mundua ere— Sakramentu-bizitza sustatu eta ebanjelizatzeari bide emateko eratuak izan dira. Alde pastoral hauetaz esan behar da, ba, zerbait.

Eliz lan pastoralen antolaerak bi epealdi ezagutu ditu Komentu honetan, beste zenbaitetan gertatu denaren antzera: komentu-eliza soilaren garaiak dira lehenengo (1876-1977), eta herriko elizgunearteko parroki lan bateratua da gero (1977-2000...).

Sakramentu-bizitzara gatozela, komentuko kronikaren bidez jakin dezakeguna bil daiteke hona, zenbait urtetako datuak elkarren ondoan emanez. Jaunartzeak, adibidez, honela joan dira XX. mendean komentu-eliza honetan, parrokiaurreko hamarkadetan: 80.532 (1920), 128.250 (1940), 123.300 (1950), 165.099 (1960), 159.000 (1970), 123.000 (1980). Zifra hauek, noski, herriko hazkuntza demografikoa gogoan izanik eta elizgune berrien eratzea ahantzi gabe irakurri behar dira, beste zenbait faktore ere

Zarauzko Anaiartea (2002).
Eserita: Bartolome Aizpurua, Gregorio Iñurritegi, Rikardo Auzmendi, Bizente Guridi, Jose I Ibarbia, Manuel Ajuriagojeaskoa, Florentzio Berasarte, Jesus M. Artola. *Erdian zutik:* Ildefontso Alustiza, Agustin Biain, Jose A. Etxeberria, Anastasio Esnaola, Manuel Beraza, Benito Arregi, Ignazio Gereta, Andres Bengoetxea, Dionisio Arruti. *Atzean:* Eujenio Agirretxe, Jose L. Martikorena, Felipe Ajuria, Hilario Barrena.

aintzakotzat hartuz (azken hiru hamarkadetako aldakuntzak aurrean ditugula, etab.). Oharrak berdin balio du beste Sakramentuen bizitzarako ere.

Komentu izanberrituak, garai batean bezala Misiolari-Kolegio ez izan arren, baliozko sermolariak beti izan ditu, bai bertako lanetarako, bai komentu-barrutiko beste Parrokietarako ere. Gerraurrekoen artean jada aipatutako J. J. Maiz (†1927) zarauztarra gogora daiteke (9 sermoiliburu eskuizkribatuak utzi zituena), eta J. A. Ugarte milaka eta milaka sermoi egindakoa (Homenaje 1935: 152, 153-154). 1878tik bertatik, Zarauzko komentuak beti izan du sermolari eta misiolari-talde egoki bat, hiruzpalau lagunekoa gutxienez: Zelestino Zabala, E. Agirretxe, F. Altube, J. A. Etxeberria, etab. (1950-1965). Lanbide honen azterketa koantitatibo zehatza egiteke dago oraindik.

Parroki lanetan (1977...)

Kontzilioaren ondoren, eta batez ere komentuko eliza parroki lanetarako Elizgunetzat ofizialki ezagutu zenetik (1977), bertako fraide arduradunek eraman duten zeregina aipatu behar da hemen. Zarautzen Parrokia bakarra dago gaur egun, Sta. Mariakoa, eta berorren eremuan hainbat Elizgune, pastoral bateratuan diharduena. Hauetako bat da komentuko San Joan Bataiatzailearen eliza.

Batasun-molde hori egin zenetik, bi frantziskotar izendatu ohi ditu Gotzaindegiak Sta. Mariako laguntzaile bezala, eta berauek eraman

ohi dute komentuko elizako lana, hauetako bat bertako Arduradun delarik. 2000. urtea arte, elkarren jarraian, bi izan dira Arduradunak: J. Galarraga (1977-1986) eta I. Alustiza (1986-2000...). Horien apaiz laguntzaile izan dira J. A. Etxeberria (1977-1978), J. A. Obieta (1978-1980), K. Iturria (1981-1996) eta D. Arruti (1996...).

Komentu-elizako Elizgunetik kanpo ere frantziskotarrek hartu dute ardurarik. Hala nola, eskualdeko Artzipreste izan zen J. Galarraga (1979-1985). Aldi berean, azken urteetan I. Geretak Sta. Klara/Azken Portu Elizgunean lan egin du (1979-2000...), et zeregin bera izan du H. Barrenak Urdaneta-Altzolako Elizgunean (1996-1997) (Tokiko lekukotaunak).

Zarautzen bertan, lehenengo, eta kanpoan gero, hainbat zerbitzu txiki edo iraunkor eskaini izan da komentu honetatik. Hala nola, herrian bertan moja-etxeetako kapilautzak, bakoitza bere historia luze edo motzagoarekin (Sta. Klara, Inmaculada Ikastetxea, Egoitza). Aipatutako horiekin batera, igandetako zerbitzuak ere estimagarriak dira, igandero edo txandaka: Askizu, Elkano, Meaga, Urdaneta edo Urteta daude, adibidez, honelakoen artean (2000).

San Joan Bataiatzailearen Elizgune honetako kristauartea 4.500 biztanlekoa da, eta Elizguneko jarduerak —pastorala eta soziala— antolaera argia du. Hiru arlotan dago egitarau pastorala banatuta: fede-ospaketa, fede-heziketa eta fede-aitormena. Bakoitzari arreta bereziz erantzuten zaio.

1) *Fede-ospaketan* Sakramentu-bizitza, hiletak, liturgia, Hitzaren ospakizunak, eta otoitztaldeen ekitaldiak daude. Parroki aro honetako jaunartze edo igande-mezetako zenbakiak bildu gabe izan arren, epe jakinetako Sakramentuen datuak hauek dira: bataioak 550 (1986-2001.eko maiatza arte), ezkontzak 70 (1987-2001.eko ekaina arte) eta hiletak 412 (1987-2001.eko maiatza arte). Azken urteetan, lehen jaunartzea 35en bat haurrek egiten du urtero Elizgune honetan.

2) *Fede-heziketan*, katekesia, ia erabat eskola-mundutik kanpo eraman ohi da orain, eta hiru maila ditu:

a) Hiru moldetako katekesia zaindu izan da Haur-Katekesiaren eremuan: Giro-katekesia deitzen dena (sendiaren baitan gurasoek lagundua), eta haurraren lehenengo sei urteak besarkatzen ditu; Famili katekesia (guraso-haurrekin batera hileroko bileretan urtebetez Elizgunean landua), eta Parroki katekesia (7-12 urteko haurrei, astero bilduz, Parroki katekesian eman ohi zaiena). Azkeneko bost ikasturteetako lana 17 katekista herritarren bizkar doa.

b) Ondoren dator Gaztetxoen Katekesia (13-16 urtekoentzat), eta herri-mailako erakunde baten esku dago honen ardura, hain zuzen "Xisko" deritzanean elkartuta dauden sekularren taldearen esku. Kasu honetan, bilera, ospakizun, jolas, joko eta elkar-bizitzaren bidez lantzen den "balioen heziketa" da hau.

c) Gazte-Pastoraltzaren barnean datoz Sendotza-aurreko (17-18 urtekoentzat) eta ondoko prestaera eta heziketa: 16ren bat gidari-laguntzaile dabiltza lan honetan. J. Artola frantziskotarra da arlo honetako arduraduna (1994-2001, tartean kanpoaldi batekin). 1994an, herrian urtero 150en bat gazte berrik hasi ohi zuen katekesialdi hau (Elizgune frantziskotarrean 40ren batek), 2001ean herriko denak urtero 40 edo dira bakarrik. 1999tik hona, Sendotzarako katekesia herri-mailan egiten da, eta 120ren bat gazte biltzen ditu, 8 gidari-laguntzaileren ardurapean.

d) Azkenik, Helduen Heziketarako daude Oinarrizko Taldeak (bizpahiru talde Zarautz osoan), Bataio- eta Ezkontza-aurreko prestaketa, eta aldian aldiko mota guztietako hitzaldi eta topaketak. Oro har, helduen fede-heziketa iraunkorrak ez dirudi oraindik Zarautzen etorkizunerako bere bidea guztiz asmatu duenik.

3) *Fede-aitormenean* sartzen dira Elizguneak eskaintzen dituen zerbitzapen sozialak: laguntza pertsonalak, langabetuekiko eskaintzak, zahar eta ezinduekikoak, gaixo eta presoentzako laguntzak, diru- eta profesional-laguntzak, etab. Giza premietarako laguntasunak

garai batean San Antonioren Jaiera-Batasunak "Behartsuen Ogia"-ren bidez bideratu ohi zituen, herritarrengandik jasotako limosna eta opariak bilduta. Herriko pastoral bateratuari bide eman zitzaionetik, denen arteko Caritas da horretarako tresnarik nagusiena Zarautzen, eta komentuak beroni pasatzen dizkio hilero 80.000 pta., "Gizona Helburu" Proiektuari eta besteri ere urtean halako kopuru estimagarri batzuk emanez, eta betiere Hirugarren Munduko Misioak ahantzi gabe.

Horiek horrela, ezin da albora laga *Kontseilu Pastorala*, zortzi sekularrez eta bi erlijiosoz osatua, Fede-Elkarte osoaren lana eratu, sustatu eta gidatuko duena; Elizgune honetako lau sekular Herri mailako Kontseilu Pastoralean ere kontseilukide dira.

Frantziskotarren Elizguneak, bada, bere lanegitura beregain, finkatu eta herri-mailara bateratua du, kristau eta herritarren fede-bizikizunari erantzuteko; ondoan duen eskola-mundua batez ere lagungarri da, baina katekesi zeregina bertan lekutu gabe. Hori horrela dela, hau da unea komentu honetako eskolagintzari buruz albisteak jasotzeko, handia izan baita horretan egindako lana.

IRAKASKUNTZA: ESKOLAK ETA KULTURA

Zarauzko komentuan, berau eraiki zenetik, eta gero Esklaustraziotik hasita ezagutu izan dira eskolak; baina XX. mendean izan du horrek bere garapenik osoena (Uribe 1996: 219.222, 228-229; Intxausti 1995: 64-66, Biain).

Komentu-inguruan XX. mendean sortu den eskolarteak eta kultur guneak, gisa ezberdinetako alorrak eta antolaerak izan dituzte: 1) Katekesia eta beronen lagungarri izan zitekeen eskola, 2) Egun jakin batzuetan edo gau-orduetan eman izan den irakaskuntza, 3) Irakaskuntza ezarautua, baina egun-orduetan eta iraunkorki emandako eskolak (musika, mekanografia, hizkuntzak, etab.), 4) Maila ezberdinetako irakaskuntza arautu eta ofizialki ezagutuak: Eskolaurrea, Lehen Maila, Bigarren Maila, etab. 5) Lanbide-heziketako Eskola.

Errealitate ezberdin horietako batzuk elkarrekin batera eta ondoan bizi izan dira (katekesi ondoko jarduerak eta gau-eskolak, adibidez); beste batzuetan, ostera, ondoko lan-modu berriek aurrekoak ordezkatu dituzte (eguneroko irakaskuntza arautuak, e. b., ordu solteetako irakaskuntza desagertarazi du, gehienetan). Herriko eskeak, komentuko pertsonal eta antolamenduaren gaitasunak eta garaian garaiko egoera orokorrak (legezkoak, sozialak) eraman izan dute aldakuntzen nondik norakoa.

Lehen Eskola 1915ean jarri zen abian, eta 1925ean eman zion bigarren bultzada I. Albizu Anaiak. Gerraurreko gau-eskolan eta eskola formalagoetan ageri da komentu ondoko eskolarte hau nola joan zen oinarriak jartzen, pausuz pausu: Musika- eta Marrazki-Akademiak (1912), Modelatua (1916), Merkatal Eskola (1927), etab. Bien bitartean, 1919-1922.etan jaso zen "Colegio Antoniano" deitua. 1924an eman zitzaion honi ezagutza ofiziala, eta 1925-1926.etan bere antola-arauketa, eta honen arabera, hiru adar ageri dira Antoniotar Ikastetxean: Lehen Irakaskuntza, Merkatal Irakaskuntza Librea eta Arte-Ofiziotako Gau-Eskola.

Esku-ofizioetarako lehen urratsak 1912-1913.etan eman ziren, eta "Arte-Ofiziotako Eskola" 1928an eman dezakegu sortutzat; berau izango zen hamabost urte geroago jaioko zen Langintza-Eskolaren ataria. 1943-1944.etan jarri behar da Langintza-Eskolaren sortzea, frantziskotar, antoniotar, herritar eta enpresariek eztenkatuta zutik jarri zena; 1948an irakaskuntza iluntzeko orduetatik goiz-arratsaldetara pasatu zen (Intxausti 1995: 15-22, 32-35).

Ahal izan zen garaietan (1912-1970), irakasleak, gehienak, fraideak izan ziren eskola ezberdinetan, Lehen Eskolatik hasi eta Langintza-Eskolako azken mailataraino, tarteko Oinarrizko Hezkuntza Orokorra eta Irakaskuntza Ertainak ahantzi gabe.

Langintza-Eskola izan da irakaslez hornituena: 157 irakasle izan ditu, 1943-1995. urteetan, eta beste 16 laguntzaile; guztietako 44, erlijiosoak izan dira (% 28), eta 113 (% 72), ostera, sekularrak. Langintza-Eskolan, Irakaskuntza Ertai-

netan eta Oinarrizko Hezkuntza Orokorrean jardundakoak zenbatzen baditugu, 1960-61ean % 81 ziren irakasle erlijiosoak, % 39 1980-81ean eta % 13 1994-95ean (Intxausti 1995: 252-253, 256).

Ikasleen aldetik ere bada datu jakingarririk. Arte-Ofiziotako Eskolan (1926-1948) izendatuki zenbatu ahal izan diren ikasleak 447 izan ziren. Langintza-Eskolan izenemandakoak 3.873 izan dira (1948-1994): horietako 404k ofiziale titulua atera zuen eta 150ek maisutzarena. Batxillergoko gazte-kopurua 2.797koa izan da, berauetako 1.001 neskak eta 1.796 mutilak (1960-1993), eta lortutako emaitzak zera dira: 419k batxiler-titulua eskuratu zuen, 206k BBB eta UBI gainditu zituen, eta 217k hautapen-proba (Intxausti 1995: 89, 258-262; Agirrezabala/Beraza 1994b: II, IV).

Eskolarte handi eta berrituaren lehen hamarkadetako gorabidea honela joan da

ZARAUZKO FRANTZISKOTARREN ESKOLETAKO IKASLEGOA (1961-1981)

Urtea	*Lehen Irak.*	*Batxilergoa*	*Lan.-Esk.*	*Orotara*
1962				*c.* 500
1963				*c.* 500
1964				>550
1965	*440	105	250	795
1966	*510	134	230	774
1967	328	160	229	717
1968	293	225	213	731
1969	295	285	191	771
1970	250	374	178	802
1971	300	349	176	825
1972	302	308	204	814
1973	322	276	193	791
1974	352	242	199	793
1975	333	257	220	810
1976	321	240	250	811
1977	315	355	331	1.001
1978	327	435	394	1.156
1979	328	416	425	1.169
1980	324	158	444	926
1981	**414	158	368	980
????				
????				

* Hor barne dira orduan sortutako ikastolako ikasleak ere: 130 (1965), 180 (1966).
** 414 horietako 80 Haurtzaindegikoak dira (Parvulario). — Villar Palasí-ren erreformaren ondoren, Lehen Irakaskuntza OHO/EGB bilakatu zen (1970).
ITURRIA: Zarauzko komentuko kronika (urteroko urrian edo abenduan emandako datuak).

Irakaskuntza horren ondoan beste kultur zereginik ere bete da komentu honetan. Argitaletxerik izan gabe, Zarauztik kaleratu izan ziren Gipuzkoako Hirugarrendarren buletin herritarrak: lehenengo *Irugarrengoen Irakaslea* hura (1917-1923) eta *Anaitasuna* edo *Franciscanismo* (1950), eta Antoniotarrentzako, erregulartasun osoz, *Bandera Antoniana* (1920-1945) (Homenaje 1935: 201, 332; Intxausti 1995: 17, 10. oh.).

ZARAUZKO NAGUSIAK (1746-2000...)

1746	Juan Jose S. Palomo
1749	Domingo Agirre
1752	Pedro Antonio Balda
1755	Juan Bautista Irigoien
1758	Jose Etxeberria
1761	Jeronimo Sabando
1764	Domingo Agirre
1767	Jose Etxeberria (†1768)
1768	Jose Agirresarobe
1770	Pedro Ganzabal
1773	Carlos M. Santiago
1776	Carlos M. Santiago
1779	Frantzisko A. Palacios
1782	Enrique Chasco
1785	Carlos M. Santiago
1788	Felipe Landa
1791	Joakin Sarobe
1794	Frantzisko Santos Gerriko
1797	Carlos M. Santiago
1800	Carlos M. Santiago
1803	Joakin Sarobe
1806	Carlos M. Santiago
...	1808-1814: Gerrate napoleondarra
1814	Carlos M. Santiago
1815	Felipe Landa
1818	Jose Joakin Uribe
1823	Manuel Ignazio Aldekoa
1826	Juan Mateo Zabala
1830-39	(Izen ezezagunak)*.
1839	Juan Mateo Zabala (†1840)
1840	Bizente Agirre (pres.)
1840	Juan Ignazio Astigarraga
...	1840: Esklaustrazioa
1867	Manuel Ereñozaga (pres.)
	1870: Bigarren Esklaustrazioa.
	Manuel Ereñozaga (pres.)
1878	Jose Ignazio Labaka (goardianoa)
1882	Jose Ignazio Labaka
1886	Manuel Maria Dañobeitia
1888	Manuel Maria Dañobeitia
1890	Manuel Maria Dañobeitia
1892	Manuel Maria Dañobeitia
1896	Frantzisko Gantxegi
1898	Frantzisko Gantxegi
1899	Lazaro Madinabeitia
1901	Lazaro Madinabeitia
1902	Frantzisko Gantxegi
1904	Frantzisko Gantxegi
1906	Jose Maria Azkue
1907	Jose Maria Azkue
1909	Kosme Lamarain
1910	Kosme Lamarain
1912	Justo Treku
1915	Jose Daniel Esnal
1918	Pedro Luis Zaloña
1922	Manuel Gorri
1925	Jose Maria Azkue
1928	Kasildo Zaldua
1931	Kasildo Zaldua
1934	Pedro Luis Zaloña
1937	Domingo Aranguena (†)
1940	Jose Antonio Roldan
1940	Juan Errazti
1941	Fidel Zelestino Zabala
1943	Leonardo Zelaia
1946	Roke Mitxelena
1949	Roke Mitxelena
1952	Fidel Zelestino Zabala
1955	Fidel Zelestino Zabala
1958	Julian Alustiza
1959	Pedro Aranguren
1961	Justo Anasagasti
1964	Pedro Aranguren
1967	Jesus Larrinaga
1970	Feliziano Eizagirre
1973	Agustin Biain
1976	Agustin Biain
1979	Agustin Biain
1982	Agustin Biain
1985	Manuel Pagola
1988	Manuel Pagola
1991	Manuel Pagola
1994	Dionisio Arruti
1997	Dionisio Arruti
2000	Dionisio Arruti

*Oraingoz ezin izan ditugu eskuratu 1830-1839.etako Nagusien izenak.— Iturriak: Probintziako Patenteak; C. Solaguren-en argibideak; ACD.

ELIZ ARDURADUNAK (1977-2000...)

1977	Jose Galarraga	1986	Ildefontso Joakin Alustiza

LANGINTZA-ESKOLAKO ZUZENDARIAK (1944-2000...)

1961	Antonio Sorarrain	1987	Manolo Pagola
1968	Benito Arregi	1991	Jose Luis Martikorena
1970	Agustin Biain		

LEHEN HEZKUNTZAKO ZUZENDARIAK (1925-2001...)

1925	Jose Domingo Epelde	1977	Luis Zabala
1939	Joakin Arriaran	1987	Manolo Pagola
1940	Joan Ibabe	1991	Manuel Beraza
1942	Bitor Gorrotxategi	2000...	Andoni Puyadena*
1970	Manuel Aranguren		

*Bertako irakasle sekularra.

BATXILERGOKO ZUZENDARIAK (1960-2001...)

1960	Benito Arregi	1987	Manolo Pagola
1979	Jose Iturria	1991...	Jose Luis Martikorena

Antoniotarrek bereziki beti zaindu zituzten, irakaskuntzaren ondoan, bestelako kultur jarduerak: antzertia, liburutegia, hitzaldiak, ikastaldeak, etab. Musikari gagozkiola, herritarren heziketan laguntza ona eman zuen komentuak, bereziki 1900-1950. urteetan. Hasteko, 1907an estreinatu zen elizako organua, eta berehala organujole iaioa izan zuen etxeak: Aita J. J. N. *Garmendia* (1883-1954). Honen lana garrantzizkoa eta kalitatezkoa izan zen XX. mendearen lehen partean: Musika-Akademia (1912), abesbatza, orkestra, kontzertuak, konposaketa, etab. Esan daiteke bere bizitza osoa eman zuela honetan, Zarautzen (Homenaje 1935: 351-352, 360; Intxausti 1995: 18, 27, 56).

Zarauzko komentuan ezin da ahantzi bertako Liburutegiaren historia. Misiolari-Kolegioa izan zenetik eta berorretako ikas-egitaraua gogoan izanik, ez da harritzeko liburutegia ongi zaindua izatea (azkeneko hamar-hamabost urtetan, M. Beraza-ren ardurapean). Besteak beste, berton bildu izan dira erdal eta euskal sermoitegiak: balio historiko estimagarria dute bilduma hauek Euskal Herriko XVIII-XIX.etako mentalitate erlijiosoa ezagutzeko, eta beronen kanpoko eta barruko iturriak aztertzeko. Horrez gain, aipatu beharra dago Liburutegi honetan gorde ahal izan direla Mogelen "Peru Abarka" eta Etxeberri Sarakoaren obra, Urkixok bertan aurkitua. Liburutegiko katalogazio-lan handia berrikitan burutu du M. Berazak (Villasante 1961: 101, 208).

Zarauzko komentu honek "Historia" landu eta egokia merezi du, oraindik bideratu gabe dagoena.

III. Atala

Anaiarte Txikiak herriz herri

BEASAIN: SAN MARTIN IGOKUNDEKOA

(1972-1994)

Goierriko herri gipuzkoarra da Beasain, Donostiatik 40 kilometrora. Historikoki, Igaratza auzoko bidegurutzeak esanahi berezia eman zion herri honi Gipuzkoako bidesarean. Igokundeko San Martin martiri frantziskotarraren (†1597) Basilika dago bertan, Loinatz auzoan, eta XX.ean, ia mende-laurden batez, bertan izan du egoitza Anaiarte frantziskotar[ofm] batek.

Aro Garaikidean aldakuntza larriak ezagutu ditu Beasain-ek. XIX. mendeko erdi aldera Gorosabelek zera idatzi zuen: "El cuerpo de la villa se compone de un grupo de bastantes casas [110 etxe], en su mayor parte aisladas y sin orden de calle formal, con una plaza y la iglesia mayor". Albiste horretatik gaur eguneko izaerara egindako bidea esanahitsua da oso. Trenbidea iritsi zen Beasaina 1860. hamarkadan, eta ordutik hona itxuraldatu da erabat herria, hazkuntza hiritarrean eta demografikoan.

1860an, 1.385 biztanle zituen Beasainek, eta 1877rako 2.144tara egin zuen jauzi. Aro berria hasi zuen herriak, eta geroztik ondoko hauek izan dira datuak: 5.260 (1930), 10.095 (1970) eta 12.554 (1996). Trenbideak eta industriak eratu dute herriko bizitza, eta gaur egun Beasain eskualde industrial bateko buru dela esan daiteke.

Anaiarte bezala, frantziskotar talde bat egon da bizitzen Beasain-en, eta orain bizilekua bertan ez izan arren, Beasaingo herrigunean eta auzoetan pastoral-laneko parte bat frantziskotarron ardurapean dago, ikusiko denez (2001...).

SORRERAKO URTEAK

Anaiarte hau sortzeko arrazoi bat baino gehiago egon zen, asmoa bultzatzen zutenen artean: Beasaingo Udalerriak Loinazko San Martinen Basilika era itxuroso batean zaindu nahi zuen, bertako Zaingoa zegokionez, eta Santuarekiko jaiera sustatu horrela, bide batez; bigarren, inguruetako hiriztapenak ere gero eta urrunago uzten zuen bertako auzotik herriko parroki eliza (Jasokundekoa, alegia), eta, bestalde, frantziskotarrek[ofm] bazuten Santutegiak gidatzeko aski esperientzia aberasgarri (Arantzazun horren adibide hurbila), Beasainen ere baliagarri izan zitekeena, eta kasu honetan Santu frantziskotar eta herkide baten ohoretan erabil zezaketena.

1970ean, alde batetik, Udaletxe eta San Martingo Kofradiaren eta, bestetik, Probintzia Frantziskotar eta Diozesiaren arteko elkarrizketen ondoren, Probintziako Kapitulua prest agertu zen proiektuan parte izateko. Argaia Gotzainak ere agertu zuen Auzoan parrokia berria sortzeko bere asmoa (1971), frantziskotarrek beren ardurapean har zezaketen San Martinen Basilika zaintzen zuten aldi berean. Laster batean mugatu zen Parrokiaren barrutia (1971ko azaroaren 22an), eta 1972ko apirilaren 2an egin ziren estreinaldiko ospakizunak eta erlijiosoen etorrera eta arduraz jabetzea (Iñurritegui 1997: 77-79).

Horren ondoren etorri ziren Udaletxe eta Diozesiarekin akordioak sinatzea: Hark Basilikan, Loinatz Etxean eta ondoko orubeetan zuen jabetasun-gozamena utziko zion Elizari. Dioze-

BEASAINGO NAGUSIAK (1792-1994)

1972	Migel Iñurritegi (pres.)	1982	Migel Iñurritegi
1973	Migel Iñurritegi	1985	Jose Luis Arrizabalaga
1976	Migel Iñurritegi	1988	Jose Luis Arrizabalaga (goard.)
1979	Migel Iñurritegi	1991	Dionisio Arruti

BEASAIN LOINAZKO PARROKOAK (1972-2000...)

1972	Migel Iñurritegi	1991	Roberto Linkel

ARRIARANGO ELIZ ARDURADUNAK (1972-2000...)

1972	Migel Iñurritegi	1988	Roberto Linkel
1973	Roberto Linkel	1994	Santos Beloki
1980	Jose Luis Arrizabalaga		

ASTIGARRETAKO PARROKOAK (1972-2000...)

1972	Migel Iñurritegi	1991	Migel Iñurritegi
1973	Roberto Linkel	1994	Santos Beloki
1980	Jose Luis Arrizabalaga Erretoreorde: M. Iñurritegi		

OLABERRIKO PARROKOAK (1972-1984)

1972	Jose Maria Lete	1972	Martin Mendizabal Diozesiko apaizen esku, 1984

GARINGO ELIZ ARDURADUNAK (1984-2000...)

1984	Migel Iñurritegi	1991	Roberto Linkel

siarekin Parrokia berrirako baldintzak ere finkatu ziren, atzerapen txiki batekin izan arren (hurrenez hurren, 1973 eta 1976an).

Udaletxearekin sinatutako akordioaren arabera, 50 urterako udal jabetasun-laurdenaren gozamena utziko zuela onartu zuen hark, eta egindakotzat ematen zen Aldundiak ere beste hainbeste egingo zuela zegozkion jabetasuneko hiru laurdenekin (hitza emanda zuenez). Hitzarmenak, gainera, Basilikan eta inguruan hobetze-obrak egitea ahalbideratuko zuen (Iñurritegui 1997: 81-82).

Diozesiarekiko akordioan, honelako parroki zereginetarako Diozesi eta Probintzia Erlijiosoaren arteko beste hitzarmenetan ohizko irizpideak zaindu ziren, pertsonal-hornikuntzarako prozedura eta zenbatekoa (3) ezarriz, elizbarrutiko beste kleroarenekin eskubide eta betebeharrak

Beasain: San Martin Igokundekoaren Basilika. (Argazkia: 2002).

berdinduz (nominetan, erantzukizun pastoraletan, etab.), gastuetarako finantzaketa-bideak definituz eta sarrerak elkarren artean nola bana arautuz, komentuko eta elizako administrazioak bananduz, etab. (Iñurritegui 1997: 82-83).

FRAIDE ANAIARTEA ETA BERTAKO KRISTAUARTEA

Elizgunearen sortze-garapenerako egitaraua betez joan zen pixkaka: berehala iritsi ziren lehenengo hiru erlijiosoak, M. Iñurritegi Anaiarteko Buru zutela; berau izan zen, gainera lehen erretorea ere (1972ko martxo-apiriletan), etxez etxe barrutiko familiak bisitatzeari ekin zitzaion, Astigarreta eta Arriarango parrokien ardura ere hartu zen (1972...), eta geroago baita Garingoa ere (1984...), azken hau Olaberrikoa bukatutzat eman zenean, hain zuzen (1972-1984). Gudugarreta batzean geratu zen osatuta parrokiako barrutia (1972); urrats horien ondoren, kultua eta ebanjelizatze-ekimenak antolatuta zeuden, azkenik (Elkarrizketak 2000).

Anaiarte honetako lagunak 18 izan ziren guztira, aldi luze edo laburragoan bertan bizi izandakoak, baina Anaiartea aldi berean 5 lagunetatik gora inoiz pasa gabe. Irekiera-ondoko epe luzeko Nagusia, M. Iñurritegi, izan zen Beasaingo historia hau hurbilenik jarraitu zuena. 1994ko Kapitulu Probintzialaren erabakiz, Anaiarte honetako bizi-egitasmoa, lan-egitaraua

eta Anaia batzuk Segurako Anaiartera bildu ziren (Iñurritegi 1997: 77, 88).

Anaiarte honen lehen aldian bi egiteko izan dira nagusienak: parroki gune berria eraikitzea, jada eta behin-betirako Basilikaren ondoan bertan jasota, berau berritu eta handituta, zeren eta beste parroki eliza berriaren garai bateko asmoak ez baitzuen aurrera egin, eta, bigarren, fededunen kristauarte ongi lotu bat ia ezerezetik eratzea. Esan beharra dago, ba, bi eginkizun horietaz zerbait gehiago.

Basilikan eta elizondoko etxean lehen konponketa premiatsuenak egin ostean, partez bederen aurreikusigabeko zailtasun eta eragozpen urbanistiko eta juridikoei egin behar izan zitzaien aurre, 1982-1888.etako urteetan obrak burutu ziren arte, elizan bezala ondoko "Katekesi Etxean". Eraikuntza eta egokitzapenen kostu orokorra 70 miliotaraino heldu zen, eta berorien finantzaketa mailegu bidez (30 milioi hor nonbait), obretarako diru-eske eta limosnatan (14 milioi), Gotzaindegitik (13 milioi) eta abarretatik lortu zen. Egindakoarekin, ba, Parrokia egokiro horniturik geratu da, bere oinarrizko zerbitzuetan (Iñurritegi 1997: 79-80, 84-88).

Hasieran, Basilikako elizkizunek bazuten ohizko bere kristauarte fededuna, beti izan baitute beasaindarrek San Martinekiko atxikimendu mina, eta Loinatzen segurtatuta zegoen, ohi zenez, fededunen presentzia. Gainerakoan —han bertan eta fraideen ardurapean zeuden beste elizetan— garaiko parroki bizierari zegozkion bideetatik eraman ziren elizkizunak. Pastoraltzan ezkontzaurreko taldeetan, gazteen katekesian eta Sendotzako taldeetan egin zen lan batez ere: hau izan zen eginkizun lehenetsia, eta plangintza bateratu baten barnean eraman ahal izan zena, Jasokundeko beste Parrokiarekin batera, Lasalletar Anaien lankidetzarekin eta tokian tokiko kristauen laguntza tarteko zela (Iñurritegi 1997: 80-81).

Esanda dagoen bezala, 1994az geroztik Anaiarte honek Segurara lekualdatu zuen bere egoitza, eta handik zaintzen ditu orain Beasaingo Elizgune hau eta bere ardurapean dituen aipatutako herri edo auzoak. Ik. SEGURA.

BILBO: ERREKALDEBERRIKO ANAIARTEA

(1970-1982)

Errekaldeberri Bizkaiko Bilbo Hiriburuko Auzoa da, eta hamabi urtean nortasun handiko Anaiarte frantziskotarra[ofm] egon zen bertan. Jatorrizko frantziskotartasunaren alde apalenak, Kontzilioko "Gaudium et Spes" agiriaren argitan, Joan XXIII.aren xalotasunaren bidetik eta Euskal Herriak zituen arazoak bertatik bertara bizitzeko bildutako Anaiartea izan zen hau.

Hasieratik, esku-lanaren balioa azpimarratu zen Anaiarteko proiektuan, eta era berean, apaiz-lanetan diru-saririk ez hartzea erabaki (adibidez, familiarteko hildakoren baten aldeko meza-diruak eginbehar sozialetan eman ziren, Auzoari laguntzeko, eta Meza haiek ematearen erantzukizuna Anaia apaizen kontu geratu, beste gabe).

Anaien diru-iturri bakarra eskulaneko soldatarena izan zen, batzuetan lan arautuan (ordutegi finkoekin, eta legezko egoera arruntean) eta bestetan gisa libreagoan, baina betiere etxeko premiei erantzun behar zitzaien neurrian lan eginez. Estreinako esperientzia eta arazoak Iralabarriko komentuan bizi izan zituzten Anaiek, ondoko Harino Panaderako lantegian lan eginez (J. M. Agirresarobe, P. Zia) (1969ko maiatz-azaroak).

Hurrengo urratsa —egoera instituzionalki bideratuz joateko ere bai— Diozesiko Arduradun zen Obieta jaunarekin mintzatzea izan zen, eta honen proposamenari jarraikiz, eskulana beren kontura bilatuko zuten orduan bi Anaiek, eta eliz lanerako, ostera, Bikario Jeneralak Errekaldeberriko Parrokiaren menpeko San Antonio Auzoa izendatu zien (1969). Gordoniz kaleko 80an jarri zen bizitzen Anaiarte Txiki hau.

Bide berrien urratzaile izanik, ez zen beti samurra izan —garai sozio-politikoak ere halakoak ziren— Senitarte Txiki honen eta gainerako komentu eta Probintziako Anaien arteko harremana beti leunki eramatea. Asteroko Anaiarteko Meza lasai eta sakonean begiratu ohi ziren arazoak eta harremanak Senitartean, eta hizkuntz inkulturazioa oso seriotan hartu zen, Anaiarteko hizkuntza ofizial bakartzat euskara hartuz.

Etxea mota ezberdinetako bilera-leku bilakatu zen laster, eta, halaxe irekita bizitzea erabakita zegoelako, askorentzat izan zen etxe hura bizileku eta pausatokia, garaiko egoera politiko-polizialari aurre egiteko eta norberaren arazo pertsonal larrietan bidea bilatzen laguntzeko. Sinesgaberik ere izan zen, etxeko asteroko Mezatan, gogoz eta arretaz egon zenik.

Proiektuarekin kideko gertatu zen beste Anaia frantziskotar[ofm] hainbat ere bildu zen Gordoniz kaleko egoitza honetara, zenbait hilabetetan beren gisara lan egiteko, edo urtetan Senitarteko anaia izateko ere (J. Zulaika, P. Telleria, P. M. San Pedro...). 1976tik aurrera inguruko egoera sozialak eta politikoak orokorki hagitz aldatu ziren, eta Senitarteko barne-harremanak ere bai.

Esku-lanaren eskarmentu jaraitua izan zuten Anaiarte honetako kide batzuek: Bilboko portuan karga-deskargan (Zorroza, Olabeaga,

Bilbo-Errekaldeberriko Nagusiak (1970-1982)

1970	Pedro Maria Zia (?)	1979	Pedro Maria Zia (?)
1973	Pedro Maria Zia	1982	Kepa San Pedro
1976	Pedro Maria Zia		Galde-ikurra dutenak agiriztatu gabeko izendapenak dira

Deustua), Mercabilbao-n ere bai, batez ere arrain-munduan (Pescanova, Agirre, etab.: Zia bereziki), moldiztegietan (E. Vasca Miriam: Agirresarobe, 1970-1975).

Senitarteak bizpahiru motatako lan-eremuak zaindu zituen: a) Auzokoen elkarte-premiak (bilerak, proiektuak, talde-kudeakuntza, etab.). b) Errekaldeberriko euskalgintza arloa (alfabetatzea, AEK, etab.: Agirresarobe, Telleria), c) San Antonio auzoko premia erlijioso-sozialak (mixeria handiko auzoa zen orduan, eta bertako pastoraltza J. M. Agirresaroberen esku egon zen), eta Errekaldeberriko Parrokia nagusian euskarazko Mezak eraman zituzten Anaia berek. Auzoko bizitzan esku zuzena izan zuen, gainera, *El Libro Blanco de Recalde-Berri* deituan ikus daitekeen bezala.

Zentzu zabalago batean, garaiko sindikatugintzan (Zia) eta euskalgintza politiko eta kulturalean gogoz jardun zuten Anaiek, eta baita ikastolan ere, Lauron (Agirresarobe, 1975-1983). Frankismoaren azken hilabeteetan Senitarteko zenbait lagunek presondegia ezagutu zuen, eta tortura gaiztorik ere bai (Zia, 1974; Agirresarobe, 1975ko urrian).

Urteak pasa eta lan-antolamenduak gora egin ahala (alfabetatze-taldetan batez ere: 1972...), Probintzia Erlijiosoko beste etxeetatik ere jaso zen laguntzarik udako ikastaldietarako (Arantzazu, Forua: 1974-1975) eta, hala behar izan zenean, preso hartuari edo ihes egindakoari etxea eskaintzeko (Donapaleu, Forua: 1975).

1982an eman zen bukatutzat esperientzia hau, garaiak ere aldatu baitziren.

DOMINTXAINEKO ANAIARTEA

(1972-1982)

Domintxaine (*Domezain*) Zuberoako udalerria da, eta Nafarroa Behereko eta Biarnoko mugetan dago; bestalde, Donapaleuko kantonamendukoa da. 1975ean 608 bizilagun zituen, eta 1990ean 452 biztanletara murriztu da bertako populua. 1150.eko urteaz geroztik da ezaguna Domintxaine historian.

Frantziskotar Senitarte bat jarri zen bizitzen hemen, 1973an, Rafottoenea baserrian, lehendik zetorren (1969) asmoari eta jada aurreko urtean (1972) eratutako taldeari bertan egoitza emanez. "Anaitasuna" Senitartea deitu zitzaion beroni, eta "Senitarte Txikien" gisakoa izan zen (Agiriak 6. 37).

Elkarte-asmo honi buruzko lehen agiri ezagun eta datatua 1969ko otsailekoa da, eta ideia non eta nola sortu zen esaten digu. Erdozaintziren anaia apezak deiturik Nafarroa Behereko Mendiben bildu ziren M. Erdozaintzi, S. Beloki eta J.-B. Urrutiager, eta bertako "Salbatoreko Beilan" zeudelarik elkarri erran zioten: "Euskal Herri osoari atxikiak giren frantxixkotar anaien batasun bat moldatzea" komeni da (1968-ekaina-15). Horretarako premiazko lehen urratsak hurrengo urtean eman ziren (Agiriak 6. 32).

Tarteko zenbait bileraren ondoren, eta betiere lehen sustatzaileak Iparraldeko frantziskotar gazteak zirela eta M. Erdozaintzi guztiaren gidari nagusi izaki, 1971n onartu ziren proiektuko irizpide eta xedeak, 1971ko ekainaren 18an, Iparraldeko hiru lagun eta Hegoaldeko biren artean. Xede eta irizpideok honela eman ziren: a) Akitaniako Probintziako frantziskotar bide berrietako bilaketaren barnean lekutu zen euskaldun Senitarte honen asmoa (Akitaniako Probintzian "III. Tendentzia" deituaren barnean). b) Euskal Herriko askapen-bidea laguntzeko eta taldearen euskaltasuna aitortzeko gogoz eratuko zen Senitartea. c) Elizaren barnean bizi- eta lantalde kritiko bezala moldatu beharko zen (Agiriak 6. 34).

Horretarako, "Anaitasuna" Senitartea ohizko eliz egituretatik at jarriko da bizitzen, herri xumearekin biziz, euskaldun baserritar eta laborarien munduan, euskal kulturan lanean dihardutenekin eskuz esku eta Euskal Herriko askapen ahaleginetan dabiltzanengandik hurbil eta batera (adibide M. Bellemur-en gose-greba: 1973ko azaroa). Oro har, frantziskotartasun berrituaren arrastoan jokatuz nahi izan zuen bizi Senitarte honek. Latin Amerikako Askapen-Teologiaren iturrietan aurkitu zuen taldeak bere gogoetamundu hurbilena: G. Gutiérrez (Agiriak 6. 39).

Proiekturako kideko lagunak, zerak gertatu ziren: Donapaleun bizi ziren batzuk (M. G. Sallaberremborde, S. Beloki), bertara bil zitezkeen Iparraldeko frantziskotarrak (Erdozaintzi, Urrutiaguer) nahiz Hegoaldetik etor zitezkeenak (Torrealdai, J. J. Iturriotz, "Jakin" Taldeko besterik). 1973ko udazkenean Pradoko apaiz bat ere bildu zen Domintxaineko Senitartera (Jean Erbin), eta Iturriotz 1976an taldeko bezala ageri da, nahiz eta Donapaleun bizi zen. Une eta erabaki bakoitzean eta norberak bere egoeratik, konpromezu pertsonalak gisa ezberdinetan hartu zituen. M. Bellemur eta M. Erdozaintzi

ageri dira beti bikote ardatz eta iraunkor bezala (Agiriak 6. 32, 33, 34, 39, 43).

Inguruetako herri eta parrokietan lankidetza zuzenik eskaini zen arren, eskulanak eta lan profesionalak bere munta hartu zuten berehala. Batez ere, laikoen kristau talde ekintzaleei leku berezia aitortu zien Senitarteak, Euskal Herri askatu eta kristauagoaren zerbitzuan jokatzeko asmoz. Horrela, Erdozaintzik "Fededunak" talde kristau abertzalearekin jardun zuen, liberatu gisara lanean. Baina, oro har, tradiziozko eliz taldeak —garai bateko Hirugarren Ordena barne— hautatutako helburuetarako ez ziren baliagarri ikusi, nahiz eta, azken urteetan, beroriengana ere hurbildu beharra azpimarratu zen inoiz (Agiriak 6. 43).

Eskura ditugun agirietan Domintxaineko esperientzia hau batez ere bilaketa saiatu bat bezala ageri zaigu, hautapen pertsonal eta instituzionalen artean bide bila dabilena, betiere frantziskotartasun ebanjeliotarraren barnean, euskal gizarte eta nortasun berri baten alde ahalenginduz (6. 34, 35, 41).

Ipar-Hegoaldeetan giro sozio-kultural berria sortzeak (1975 ondoren), taldeko zenbait lagunek Domintxainetik at ardura berriak hartu beharrak eta, bereziki, bertako bi lagun oinarrizko heldutasun betean galtzeak (M. Bellemur, †1982; M. Erdozaintzi, †1984) Senitarte hau berriro Donapaleuko komentu ingurura biltzera bultzatu zuten (Agiria 6. 42).

DONOSTIA: JAKIN-EKO ANAIARTEA

(1978...)

Donostiako Gros Auzoan jarri zen bizitzen, 1978an, "Jakin" bezala ezagutu izan den Anaiarte Txiki frantziskotarra[ofm], izen hori zeraman kultur taldea Fraidearte beregain gisara antolatu zenean.

Probintziako Kapituluak "Jakin Proiektua" erakunde-talde berezitutzat aitortzean (1973), asmo eta lagunarte horretara bildu zen euskararen alde eta euskaraz kultur lanetan ziharduen zenbait Anaia, lehendik izen bereko aldizkarian eta argitalpenetan lanean ari zena (*Jakin*, 1956). Horrela eratu zen sei erlijiosoren arteko Senitarte hau, batzuk Tolosako komentutik zetozenak, eta besteak atzerriko Unibertsitateetatik zuzenean.

Esandako argitalpenen inguruan jarraitu zuen Anaiarteak, 1990a arte, eta bestelako ekimen ezberdinak ere eraman zituen, batzutan bere bulegoan bertan eta bestetan kanpoan sustaturiko ekimenetan. Etxeko bulegoetan bertan egindako lanen artean daude, adibidez, *Euskal idazleak, gaur* (J. M. Torrealdai-rena, 1977), *El hombre cooperativo* (J. Azurmendi-rena, 1984) eta kanpoko lankidego zabalarekin buruturiko *Euskal Herria* argitalpen entziklopedikoa (Zuz., J. Intxausti, 1984-1985). Bestalde, taldeko lau lagunek ardura zuzena izan zuten UZEI abian jarri eta garatzen (1977-1990.etan bereziki), harik eta erakunde horrek bere egitekoa osorik beregainki eramatea segurtatu zen arte.

1990.ean, Senitartea lagun berriz berrantolatzean, Jakin Anaiarte honek kultur alorreko zereginari bere horretan eutsi dio, nahiz eta *Jakin* aldizkaria bera Jakinkizunak, S. A.ren ardurapean geratu den, erran nahi baita, batez ere sekularren eta frantziskotar ohien ardurapean. Ingurune berritu horren barnean, Jakin Senitarteak geroztik "Mendu" bulegoetako zerbitzuak eta erraztasunak eskaini izan dizkie euskal kulturako euskaltzaleei (*Egunkaria*-ren lehen kanpainak, 1994-1996; SEI Institutu Soziolinguistikoaren proiektua, 1999-2000; Euskal Unibertsoa eta Euskal Kontseilua, 1996-1998, etab.), taldeko Anaien lanak ere gizarteratzen dituen bitartean.

Azpimarratzekoa da, gainera, Anaiek euskalgintzako hainbat erakunde, talde eta antolamendutan izan duten eskua: Euskaltzaindian (J. A. Aduriz: Hiztegi Batuko Batzorde/Lantaldeko idazkaria, 1992-2000; J. Intxausti: aditz batzordekidea, 1973), UZEI erakundean (zuzendari: J. Intxausti, 1977-1982, eta lankideak: P. Agirrebaltzategi, J. A. Aduriz, P. Huizi), Euskal Kulturaren Batzarre-ko (EKB) bateragile-lehendakari lanetan (P. Agirrebaltzategi, 1983-1996), Euskal Herriko Teologi Fakultateetan (Deustua: P. Agirrebaltzategi, 1973-1977; Donostia eta Gasteiz: R. Irizar, 1996-2000...), euskal entziklopedien proiektuetan (P. Agirrebaltzategi, 1992-2002), Bibliako itzulpenetan (koordinatzaile: P. Agirrebaltzategi, 1977, eta itzultzaile-bateratzaile: R. Irizar, Itun Berrian 1978-1984, Itun Zaharrean 1986-1994).

Etxe barneagoan ezin dira aipatu gabe utzi, Ordenako euskal lanetan izan den partehartzea (adibidez, San Frantziskoren idazlan eta garaiko biografia eta idazkien itzulpenean). Berrikitan sortutako "Franciscalia Vasconica" liburu-sorta

Donostia/Jakin-eko Anaiartea: Paulo Agirrebaltzategi, Anjel Maria Ezeiza, Ramon Irizar eta Jose Antonio Aduriz. (Argazkia: 2002).

ere gogoratzekoa da (1998...), Euskal Herria bere osoan harturik hemengo frantziskotartasunaren albiste historikoak, iturriak eta agiriak eman nahi dituena (zuzendaria: P. Agirrebaltzategi). Gisa berean, gaur egun frantziskotarrek munduan eta Euskal Herrian duten oinarrizko kezka zenbaiti erantzunez, "Justizia eta Bakea" Batzordeko hainbat lan ere Jakin Senitartetik eraman izan dira (1991-2000...).

Jakin Senitarte frantziskotar kulturalaren eratzea Ordena[ofm] eta Arantzazuko Probintziako ildo historiko ezagunetatik etorri zen, izan ere frantziskotar euskaldunek hizkuntz inkulturazioa aintzakotzat hartu baitute, beren zeregin pastoraletan beti eta orokorrean euskararen historiako une jakinetan hainbat Anaiaren ekimenez. Zentzu honetan hona ekartzekoak lirateke izen batzuk: E. Materre (liburua, 1617), J. A.Ubillos (†1789), P. Astarloa (†1821), P. A. Añibarro (†1830), J. M. Zabala (†1840), J. A. Uriarte (†1869), A. Arruti (†1919), S. Mitxelena (†1965), eta berrikitan galduak: L. Villasante (1920-2000), B. Gandiaga (1928-2001), eta urte luzez frantziskotar izandakoa: J. Azurmendi (j. 1941). Oro har, Jakin Senitarteak hizkuntz tradizio eta leialtasun horiei heldu zien, gerraosteko beste hainbat euskal ahaleginen ildoari jarraikiz.

XX. mendea bukatzean, lau lagun dira Senitarte honetan. 1997.ean bertako bosgarren bat, Aita Nikolas Zumalde, frantziskotarren[ofm] Ordena osoko munduko misioen Idazkari Nagusi izendatua izan da. Azkenik (eta taldearen arrasto behinenean), esan dezagun XX. mendean euskarazko kulturan frantziskotarrek[ofm] izan duten lantalderik jaso eta emankorrena gertatu dela Jakin Senitarte hau.

DONOSTIA: KAIALDEKO ANAIARTEA

(1970-1982)

Donostiako Alde Zaharreko lagunarte eta zerbitzugunea izan da "Kaialde", Auzoari zerbitzu sozial eta kulturalak eskaini dizkiona. Berezikiago, bertako arrantzale-gizarteari laguntzeko sortutako elkarte herritarra zen hau, eta beronek deiturik etorri ziren bertara fraide frantziskotarrak[ofm], 1970ean, hiru apaiz laguneko Anaiarte Txiki bat osatzera.

Berez lehendik zuen testuinguru sozialagatik, une hartako erakunde-egokierak eraginda eta Senitarteko Anaia bakoitzak hobetsi zuen lan-moldeagatik, Anaiarteak hiru motatako zeregin sozio-pastoralak zaindu zituen bereziki: a) Alde Zaharreko herritar xumeentzako osasunzerbitzuak segurtatzea, dispentsario baten bidez; b) Arrantzaleen langile-egoerak arauz bideratzea; c) Zerbitzuguneko hezkuntz eginkizunak eramatea ("Orixe" Ikastola, nahiz eta beronekiko azken kudeakuntza Kaialde Elkartearena berarena zen, eta ez Senitartearena).

Baliabide eskasekin baina lanean jarri zen ahalegin eta gogoagatik, oroitzapen iraunkorra utzi zuen Auzoan arrantzaleei eskainitako lanak, epe laburrekoa izan arren (1970-1973). Osasunzerbitzua Senitartearen bizialdi osoan luzatu zen, eta geroago ere bai (1988), Dispentsarioa Alde Zaharrean zinezko erakunde ezagutua izateraino, hau da, eginbeharra ondoko urteetako zerbitzu ofizialek Osakidetzatik beren kontura hartu zuten arte.

Tokiko eskola-lanak, ordea, bere zailtasunak izan zituen, parte behintzat Kaialdeko eraketa instituzionaletik sortuak, baina Senitarteak 1982a arte luzatu zuen bere hezkuntz jarduera, azkenik Jakintza Ikastolan, jada Alde Zaharretik kanpo.

Donostia-Kaialde:
Eraikin honetan bizi izan zen Anaiartea, Ikastola ere ondoan zuela.

ERRENTERIA: ZAMALBIDEKO ANAIARTEA

(1977-1991)

Errenteriako edo Oreretako herria Gipuzkoan dago, kostaldeko Jaizkibel mendizerraren hegoan, eta Pasaiako portuaren eta Txingudiko badiaren artean.

Errenteriak sekulako gorakada ezagutu du bere ibilera demografikoan: XIX. mendeko hasieran, 1.262 bizilagun zituen (1802), baina bikoiztu egin ziren horiek berehalako mendeerdian: 2.543 lagun (1857); XX. mendeak berriz ere biderkatu egin ditu, eta nola gero, zifra horiek: 4.081 (1900), 12.784 (1950) eta 38.708 (1996).

Dena den, Udalerri berean izanik ere, biztanleriaren hazkuntza gunetik albora dago frantziskotarrak[ofm] bizi izan diren auzunea, baserriauzoa baita Zamalbide, herriko erdigunetik bi kilometrora dagoena, Oiartzungo mugaldean, eta Astigarragarako kaminoan.

Zamalbiden etxe banatan bi Senitarte frantziskotar egon izan dira bizitzen, XX. mendeko azken hamarkadetan: bata fraideena[ofm] (1977-1991), eta bestea mojena, Mariaren Frantziskotar Misiolariena (1978...). Lehenengoaz esan behar dugu hemen zerbait.

Bederatzi lagun izan dira fraide Anaiarte honetan bizi izandakoak, baina aldi berean gehienez hiruzpalau lagun bakarrik. 1977ko ekainaren 6an jarri ziren bizitzen frantziskotarrak[ofm] Zamalbiden, eta Etxeko azken albistea 1991ko azaroaren 12koa da.

Inmigrazio handiko herri bateko baserriauzo euskalduna da Zamalbide, eta baserrimundua aski utzia eta sozialki goitik behera zetorrela ikusirik, frantziskotar talde batek bertatik bertarako laguntza pastoral eta gizatiar bat eskaintzeko pentsatutako Anaiarte Txikia da hau, Arantzazuko Probintziaren barnean. Alde horretatik, Karrantzako esperientziarekin izango

Errenteria-Zamalbideko Eliza.

luke honek antzik, baina Enkarterrietako parroki lan zabala bezalakorik eskuetan hartu gabe.

Fraidearte hau irekitzean, Diozesiaren eskeari erantzun nahi izan zitzaion, izan ere zaila baitzen herri-erdiguneko parrokiatik behar bezala Zamalbideko premiei erantzutea. Hortaz, Zamalbideko elizatxoa auzoko Elizgune ofizial gisara erabili zen, baina bataio, ezkontza eta

abar betiere herriko parroki elizan eginez. Elizkizunak berritu eta arduraz eramatearekin batera (liturgi berrikuntzak), auzoko gaixo, zahar, behartsu eta laguntza-eske zetozenei eman izan zitzaien arretarik onena.

Haur eta gazteekiko ardura katekesiaren bidez, eskola-lanetan eta auzoko harremanetan zaindu izan zen hemen. Ondoko Ikastolan lan egin du Senitartekoren batek; molde berean, baita Errenteriako Lanbide-Eskolan ere (Pasaian, salestarrek zeramatenean), Gotzainak espreski eskatuta. Mariaren Frantziskotar Misiolariak etorri zirenetik, berauen Etxeko kapilautza ere erlijiosoen Senitarteak eraman zuen.

Oro har, taldeko Anaiek —oinarrizko irizpideetan batasun garbia izan arren— lanaren ikusmolde nahikoa aldenduak zituzten, jardun ere bizitza praktikoan bakoitzak lan-inguru aski berean eta berezian ziharduelako edo (baserri-pastorala, hiriko eskola-eginbeharrak, etab.). Arrazoi ezberdinengatik, Kapitulu Probintzialak 1991n erabaki zuen Senitarte honetako lagunei bestelako bizi- eta lanbideak eskaintzea, eta horrela eman zen bukatutzat Zamalbideko bizialdia.

GERNIKA-LUMOKO ANAIARTEA

(1972-1994)

Gernika eta Lumo Urdaibaiko ibarrean daude, Bizkaian. Udalerri bakarrean elkartutako herri biok 14.678 bizilagun zituzten 1970ean, eta 1996an, ostera, 15.618.

Gernika-Lumoko Lurgorri Auzoan, frantziskotarren[ofm] Senitarte Txiki bat jarri zen bizitzen 1972an, Santa Luzia Ermitaren inguruan eta parroki zereginen arduradun zela.

Lehen bi frantziskotarrek 1971n hartu zuten beren egoitza Gernikan, eta Parrokia 1972an jarri zen abian Frantziskotarren Arantzazuko Probintziaren (orduan "Kantabria") eta Bilboko Diozesiaren hitzarmen baten ondorioz, nahiz eta artean berariazko parroki elizarik ez zegoen. Probintziak halaxe deliberaturik, Parrokia hau diozesitarra da alde guztietatik (jabetasunak, etab.), eliz erretorea eta beronen apaiz laguntzaileak frantziskotarrak baditu ere.

Elizgune egoki propiorik ez izan arren, Parrokia sortu berriak bazuen Lumon parroki eliza; hau, ordea, parroki barrutiko erdigune hiritar nagusitik urrun zegoen, Santa Luziako Ermita Lurgorriko Auzoan bertan zegoen bitartean; ostera, Ermita hau bai ongi lekutua baina txikiegia. Bestalde, noizbehinka baliagarriak

Gernika:
San Frantzisko Parrokia. Atzean, mendian, Lumoko eliza. (Argazkia: 2002).

gerta zitezkeen bi Moja-Komunitatek zituzten kaperak, Parrokiako eremuan zeudenak.

Egitura horietaz baliaturik hasi zen Auzoko pastoral-lana: harreman pertsonalak, haurren katekesiak, gaixoekiko zerbitzuak, Ermita inguruan antolaturiko liturgi ospakizunak, etab. Denak lagundu zuen giza hurbiltasunak eta pastoralak hariltzen, nahiz eta Auzoa bera 1970.etako krisi ekonomikoaren ondorioz uste baino mantsoago garatu zen. 1976tik aurrera batik bat, Senitarteak ikusi ahal izan zuen nola zihoan sortzen Parrokia berriko kristauartea, Auzoa bera haziz zihoan aldi berean eta Lumoko fededunei ere laguntzen zitzaien bitartean.

Proiektu ezberdin eta aski zailak ere sortu ziren Gernikako Lurgorri honetako Parrokiaren asmoa burutu ahal izateko; inoiz pentsatu ere egin zen, esaterako, ez ote zitekeen eraiki han Bakearen Aldeko Santutegi eusko-alemaniar bat, izan ere Gernikako bonbardaketa (1937) oso gogoan baitzegoen gernikarren oroimenean.

1997an behintzat estreinatu ahal izan ziren parroki eliza berria eta Elizguneko beste eraikinak. Hortaz, parrokiako bizitza ongi lekutu eta egonkorturik zela, eraikiera-urteak atzera geratu ziren, azkenik.

Azken urteetan, Gernika-Lumoko Senitarte Txikia Foruko komentura bildu da berriro (1994), etorri ere jatorriz bertatik etorriak baitziren lehen fraideak Gernikara. Orain Forutik eramaten da Parrokia honen ardura, inguruetako beste hainbat Parrokiarena bezala. Ik. FORUA

IRUÑEA: SOTO-LEZKAIRUKO KAPILAUTZA

(1932-1976)

Fraide frantziskotarren[ofm] kapilautza hau fraide apaiz bakar batek eraman izan du, baina inoiz izan da bizpahiru laguneko talderik. Emandako zerbitzuarekin batera, fraideen Probintziako beste Etxe-izanberritzeen arrastoan Iruñean lekurik irekitzen lagundu zuen kapilautza honek. Horregatik dakargu hona orain.

Nafarroako hiriburuan, XX. mendeko lehen hamarkadaz geroztik, Mariaren Misiolari Frantziskotarrek ("Moja Zuriak" deituek) beren Etxea izan dute, Nobiziategi ere izana. Ahizparte horri laguntzeko izan zuten frantziskotarrek[ofm] kapilautza hau, ia berrogeita bost urtez irekita egon zena.

Iruñea: Soto-Lezkairuko Kapilau-Etxea, eta Mariaren Frantziskotar Misiolarien lehen Nobiziategi izandako egoitza.

1931n etorri zen lehen kapilau frantziskotarra, hain zuzen lekaimeek Arantzazuko Probintziari eskatuta, barruti honetako fraideek zuten Misio-jitea gogoan harturik, ez baita ahantzi behar Probintzia hau kanpoko herri eta Misioetara emana zela, batez ere Kubako ardura (1904) eta Txinako Saanxi-ko Misioa eman zitzaionetik (1913). Bestalde, gogoan izan behar da, gainera, Mariaren Misiolari Frantziskotarren Kongre-

Iruñe-Soto Lezkairuko Kapilauak (1931-1976)

1931	Anjel Zuatzubizkar
1934	Anjel Zuatzubizkar
1935	Maurizio P. de Arriluzea
1936	Buenaventura Salazar
1938	Bizente Urdapileta
1939	(?)Agustin Guibert (1937an izendatua)
1943	Pablo Salinas
1946	Leokadio Miangolarra
1952	Martin Astaburuaga
1958	Esteban Gaubeka (†1967)
1967	Pedro Urrutia
1968	Jose Angel L. de Guevara
1973	Eliseo Bengoa (1976a arte)
1976	(Utzi egin zen kapilautza)

Iturriak: ACD, eta emandako Mezen liburuak (azken hauek Artxibo Probintzialean, Donostia).

gazioa izan dela Eliza Katolikoko emakumezkoen Institutu Erlijioso misiolari handiena, eta Euskal Herrian mojagai andana bildu zuena (ACD II: 377, 407, 410, 417, 420).

Kapilautza honetako zerbitzuan, ahal zelarik, Misioetan egondako erlijiosoei eman izan zitzaien ardura, batez ere Txinan egondakoei (Zuazubizkar, Astaburuaga, Gaubeka), bertara bildutako mojagai ugaria ere Misioetarako baitzen, aldez aurretik egindako hautapenaren arabera.

Urte haietan guztietan (...1976), frantziskotarrek ez zuten izan Iruñean komenturik, eta hemengo kapilau-etxea izan zen beste komentuetatik Hiriburu honetara zetozen fraideentzako harrera-etxea. 1976az geroztik, kapilautza beste Institutuetako fraideek eraman dute, horien artean Anaia Kaputxinoek.

KARRANTZAKO ANAIARTEA

(1975-1997)

Karrantzako Bailara Bizkaiko Enkarterrietan dago; 1981ean 3.392 biztanle zituen, bere 47 Auzoetan banatuta. Eliz bizitzarako 18 Parrokia zituen, eta hauetatik 14 frantziskotarren ardurapean egon ziren. Izan ere, Karrantzan Senitarte Txiki frantziskotar bat jarri zen bizitzen 1975ean, parroki lanetara emana batik bat.

Bilboko Diozesiarekin sinatutako hitzarmen baten arabera lanean jarduteko, 1975eko urriaren 31n iritsi zen bertara lehenengo Fraideartea. Hasieratik bertatik azkena arte frantziskotarrek zaindutako Parrokiak ondoko hauek izan ziren: Ahedo, Lanzas-Agudas, Bernales, Aldeacueva, Sierra, Presa, San Esteban, Soscaño, Pando, Treto, Matienzo, Ranero, Santecilla, Biañez (Larrarte 1996; Tokiko lekukotasunak).

Zereginik nagusiena Diozesiko norabide pastoralak bertan egikaritzea izan zen, lehentasunak ondoko puntu hauetan ezarriz: haurren katekesia, Sendotza-aurreko prestakuntza eta Ezkontza-aurrekoa, helduen heziketa biblikoa, emakumearen sustapena, behartsuenei eskainitako Caritas-en laguntza eta zaharren zainketa. Lan-egitarau honetarako Diozesiko talde tekniko berezituen laguntzaz baliatu ziren fraideak.

14 erlijioso bizi izan ziren Karrantzako Anaiarte honetan, elkarrekin edo elkarren

Karrantza: Apaizetxe honetan bizi izan ziren bertako fraideak.

Karrantza:
Ezker-eskuin: Anjel M. Gz. de Txabarri. Julian Larrarte, Eulojio Agirregabiria, Juan Migel Pagola. (Argazkia: 1997).

ondotik, praktikan denak ere Bailarako Parrokietako erretore edo erretore-laguntzaile bezala. Herritarren, mojen eta fraideen arteko lankidetzak pastoraltzan saio berritzaile interesgarriak izateko aukera eman zuen aipatutako urteetan: Hitzaren ospakizunak, katekesia, Sendotzarako hezibide bateratua, etab. (Tokiko lekukotasunak).

OBANOS-KO ANAIARTEA

(OBANOS, 1969-1977; ESPARTZA, 1977-1980; UHARTE, 1980-1992; IRUÑEA-LA MILAGROSA, 1992...)

Iltzarbe Ibarreko herri nafarra da Obanos, Iruñeko Merindadean (637 bizilagun zituen 1981ean). 1969an jarri zen hemen, bizitzen, Senitarte frantziskotar[ofm] bat, Arnotegiko Andre Mariaren Ermitan (San Gilen-ena ere deituan). Hona iritsi aurretik taldearen planteamolde zaindu bat landu zen, egikaritzen batere samurra ez zena, ezarri nahi ziren baldintzak gogoan hartuta. Hasieratik bertatik, Probintzia Erlijiosoan ezohiko itxaropenak piztu zituen asmo honek, eta Iltzarbeko eskualdean bertan ere aski oihartzun izan zuen jendartean.

1969ko abuztuaren 2an eman zitzaion hasiera bertako Senitarteari, berori osatuko zuten hiru Anaiak eta herritarrak ere presente zirela. Helburua esanda zegoen: frantziskotarren bakar-lekuetan hainbat aldiz abian jarritako bilaketari ekitea, eta "zuzenki San Frantziskogandik datorren eta Ordenako erreforma-tradizioan iritsi zaigun bizimolde errotik ebanjeliotarra gauzatzea" zen xedea.

Lehen taldea aski irekia gertatu zen beste frantziskotar Anaiak erakartzeko, eta elkartu ere Anaia berriak elkartu ziren bertan, gehienetan aldi baterako. Hasierako hiru Anaiez gain, beste 11k parte hartu zuen lehen aldiko esperientzia honetan. 1969tik 1999ra doazen urteetan bi Anaia izan dira bereziki elkartean egindako bizimodu proiektu honen sostengu eta ardatzak, Obanosen eta aipatuko ditugun ondoko lekuetan.

Gogoratu beharra dago, bestalde, Arnotegikoaren inguruetan bi Ahizparte sortu zirela, gainera, bata Mariaren Frantziskotar Misiolariena, Obanosko San Lorentzon (1971-1987), eta bestea Ahizpa Txikiena, Jaierazko Batasun elkarte diozesitar gisara eratua eta gaur egun ere Garesen bizirik dena. Gizonezko eta emakumezko Senitarte hauen bizimoldea beretsua zen: goizetan eskulana, inguruetako lurretan eta herriko etxeetan, eta arratsaldean otoitza.

1977an, Obanos-Arnotegiko Senitartea Espartza-ra lekualdatu zen, taldeko egitasmoa hiritartuz eta pastoralera ere zuzenduz. Ondoko urteetan, Anaia frantziskotar[ofm] bat bizi da tarteka bertan (M. Errandonea), Arnotegiko Ermita zaintzen eta goraino doazen kristauei harrera eginez.

ESPARTZA, Galar zendeako herri nafarra da, Iruñeko Merindadean (143 bizilagun 1981ean). Hemengo egonaldian Taldearen lehen xedea zera zen: zuzenki San Frantziskogandik datorren eta Ordenako erreforma-tradizioan iritsitako bizimoldeei berriz ere bide ematea.

Obanosko urteek eta hango gogoetak Senitarteko Anaiak ondorio jakin batzuetaraino eraman zituzten: "premiazkoa zen jada taldeak jatorriz nahi zuen errotiko ebajeliotasuna testuinguru hiritar eta sekulartuan txertatzea", eta gizarte horretan ebanjelizatze-lanean jardutea. Honegatik lekualdatu zen taldea Espartzara, berez txikia zen herri batera, baina Iruñeko Hiriburutik 8 kilometrora zegoena.

Obanosko eguneroko bizi-ordutegia alderantzikatu egin zen Espartzan, goizak otoitzera-

ko gordez eta arratsaldeak ebanjelizatzeari eskainiz. Pasaerako pausaldi eta haztamu bezala ikusi zen Espartzako bizialdia; horregatik ere, bi urte eta erdi soilik luzatu zuen Senitarteak hemengoa. Aldi honetako helburuak bete ahal izan zirenean Egueseko Uhartera aldatu ziren Anaia hauek, 1980an.

UHARTE, Egues ibaiko arroan dagoen herri nafarra da (2.771 bizilagun, 1991n); Iruñetik 6 kilometrora dago. Uharteko hau, beraz, esperientzia frantziskotar bat beraren hirugarren aldia zen. Uharteko egonaldiak hirira hurbiltzea ekarri zuen, eta ebanjelizatze-lana hiriak dituen bere bizimolde eta baldintzetan egin beharra.

Urte hauek bat datoz Ordenaren barnean eta Probintzian orduan bizi izandako "Anaiarte Txikiekiko" gogoeta orokorrarekin. Testuinguru zabal horretan 1982tik aitzina aukera egon zen beste antzeko Anaiarte Txikietakoekin (Iruñea, Durango) bilerak egin eta bide-berritzea lantzeko.

Probintziako anaia berrien eta gazteagoen sentiberatasunak akuilatuta, errotiko ebanjeliotasunaren jatorrizko proiektuak (1969) azkarkiago bereganatu zuen Uharten hiriko bizitzan barneagotik txertatu beharra. Horren ondorioz, eta bizitzaren bilakaera logiko batez, bizilekua bera ere hirira bertara eramatea erabaki zuen azkenik Anaiarteak, Iruñera alegia (1992).

LA MILAGROSA deituriko hau Iruñeko Auzoa da, eta bertako Manuel de Falla karrikan hartu zuten Anaiek egoitza. Horra iristean xede jakina zekarten beren asmoetan: Hiri-ertzeko Auzo batean jarri eta klase hiritar pobreen zerbitzurako ahalegintzea, fisikoki bertan eta gizarte hiritarrean bizi izanik.

Alde batetik, Senitartea handitu egin zen (bost lagunetaraino), eta, bestetik, bere jardunean zereginak ugaldu-ezberdindu egin ziren: inguru hiritarreko zokoratuen ardura hartuz, Misioen aldeko lanak zainduz, parroki eginkizunetan parte izanik, kristauen bide-lagun pertsonal izanez, Caritas erakundean eskuhartuz.

Obanos-ko garaien ondoan bazegoen, ba, aldaketarik: proiektuaren "errotasunean" galdu egin zen zerbait, baina Probintziaren aurreko "normaltasunean" irabazi. Azpimarratzekoa da, gainera, Senitarte berrituan "klerotasuna" eta laikotasuna elkarren ondoan bizi izan direla.

Obanos-Arnotegi:
Arnotegiko Andra Mariaren Ermita (edo San Gilen-ena ere deitua).

Iruñea-La Milagrosa:
Ezker-eskuin: Fausto Yudego, Juan Jose Aristi, Javier Garrido.

2000. honetan egitasmoaren lerro nagusi horiek beren indarrean daude, nahiz eta gero Anaiarteko lagunen nondik norakoak bide ezberdinetatik joan diren.

Obanos-en hasitako esperientzia hartan 17 Anaia izan dira presente egon direnak, aldi luzeago edo laburragoz; baina Obanos-Espartza-Uharte-Iruñea/La Milagrosetako ibileran (1969-2000...) talde-barneko gogoetak eta elkarrekin bizi izandako bizipenak segidatasuna eta etenik gabeko talde-bilakaera segurtatu dituzte. Jarraipen horretan esan behar da, gainera, hasierako J. Garrido (1969...) eta J. I. Idoiaga (1969-1999) Anaiek bereziki lagundu dutela asmoen jarraitasuna, beren egonaldi luzeagoaren bidez.

Bukatzeko azpimarra dezagun, aldi berean, Senitartearen Arduradunak gogoeta idatzi zabala eskaini duela, kristautasunaren eta frantziskotartasunaren ikusera pertsonala azaltzeko, hainbat argitalpenetan agertu duena. Honela, agian ulergarriagoa gerta daiteke, teorikoki ere, Senitarte honetako historia bera, izan dituen une ezberdinetan.

OÑATI: BIDAURRETA-KO ANAIARTEA

(1915...)

Hamaseigarren mendeko lehen hamarkadetatik hasita, Oñatiko Bidaurretan Anaiarte frantziskotar[ofm] bat bizi izan da, bertako klaratarren Monasterio ondoko Kapilau-etxe eta Ospizioan. Aro Moderno osoan, Esklaustrazioa arte, Fraideartea bezala klaratarren ondoko Monasterioa Kantabriako Probintzialaren menpe zeuden.

Hortaz, 1840raino, Bidaurretako Mojen Monasterioa eta Kapilau-Etxea Kantabriako (hau da, Arantzazuko) Probintzia erlijiosoko Etxeak izan ziren, biak, eta bertako Kapilauartea (honelakoen artean, Probintziako handienetakoa) bospasei fraideko taldea zen. Nolabait esateko, alde horretatik, gaur egungo komentu txikien neurria zuen Bidaurretako Kapilau-Senitarteak. Juridikoki Santutegiaren menpeko Fraideartea zen hau, eta XX. mendean ere halakoa izan da.

Santutegiak bizi izandako une eta premia historikoei erantzunez, Kapilau-Etxe edo Ospizioak, komentu-nortasunik izan gabe, eta horrelaxe hain zuzen, zerbitzu-mota ezberdinak eman izan dizkio Arantzazuri. Hasteko, Santutegirako edo handik kanporako joan-etorrietan, Bidaurretako Fraide-Etxea pausa-leku erosoa izan da, eta Oñatiko herriarekin, edo ingurukoekin, lotu behar ziren harremanetan bil-puntu ona ere bai, Anaia Limosnari, Aita Predikari nahiz edozein fraiderentzat.

XIX. mendean, Fraide-etxe edo Kapilau-etxea ezinbesteko bizilekua gertatu zen Arantzazuko fraideentzat, Santutegia 1834ko suteak erre zuenean, bertara bildu baitzen hango Fraideartea: badakigu, gainera, Santutegiaren etorkizunaz eztabaidarik ere egon zela Bidaurretako fraide arantzazuarren artean (Santutegia berreraiki ala ez, zen arazoa). Esklaustrazioa konplitu zenean sakabanatu zen Anaiarte hura (1840). Eta, orduan, legeak ematen zuen zirrikitu batez baliatuz, "Beneragarrien Etxe" bilakatu zen, hau da, fraide zahar esklaustratuen babesetxe.

Anaiarte izanberrituaren XX. mendeko historia klaratarrek Arantzazuko Probintziari egindako esketik dator, Ospizioan antigoaleko fraide-kapilautza ostera irekitzeko haiek eskatu eta Probintziak asmoa ontzat eman zuenetik; betiere bi baldintzok betez gero onartu zen irekiera: Gotzainaren baimena erdiets zedila lehenik, eta bertako fraideak Arantzazuko Nagusiaren menpe egon zitezela (1909). Proiektuak 1915ean lortu zuen Erromako onarpena (1915) (ACD II: 165).

Ondoko urteetan mugatuz joan ziren Bikario-Etxe edo Kapilautza honen nortasun eta zeregina (1917), baina Egoitza izatera iritsi gabe (1946). Bestalde, 1942an, ondoko klaratarren Monasterioak Arantzazuko Probintziaren eskumenera pasatu nahi izan zuen, baina asmoak ez zuen bere bidea egin (ACD II: 110, 111, 191; III: 117, 199).

Hemengo Kapilau-Etxea izanberritu ondoren, Oñatiko bi kapilau frantziskotarrak (Santa Ana eta Bidaurretakoak) Anaiarte honetakoak izan dira, gainerako lagunen bat edo beste ere tartean dela, unean uneko Etxeko premiei eran-

Oñati-Bidaurretako Anaiartea:
Fermin Altube, Jose I. Agirre,
Migel Iñurritegi, Jose M. Garaialde.
(Argazkia: 2001).

tzuteko edo norberaren gogo pertsonalaren arabera bertara bilduak.

XX. mendean, Bidaurretako Senitarteak betekizun ugari eta aldakorrak izan ditu: a) Lehenik, Oñatiko moja frantziskotarren aipatutako Kapilautza biak; b) Santutegiarekiko eguneroko zerbitzu txikiak (hango mandatariaren lana erraztuz, ortuko lanetik barazkiak eta eskainiz,

Oñati-Bidaurretako Nagusiak (1915-2000...)

1915	Jose Luis Alberdi	1952	Agustin Guibert
1918	Daniel Baertel	1955	Kosme Lamarain
1922	Jose Lezertua	1956	Frantzisko Arozena
1925	Jose Maria Barinaga	1957	Silbestre Larrañaga
1928	Berardo Ortuzar	1958	Silbestre Larrañaga
1928	Jose Maria Barinaga	1960	Martin Astaburuaga
1930	Jose Lezertua	1961	Martin Astaburuaga,
1931	Agustin Guibert	1964	Martin Astaburuaga,
1934	Agustin Guibert	1967	Martin Astaburuaga,
1937	Agustin Guibert	1970	Martin Astaburuaga,
1940	Agustin Guibert	1973	Martin Astaburuaga,
1943	Agustin Guibert	1976	Martin Astaburuaga,
1946	Agustin Guibert	1979	Martin Astaburuaga,
1949	Agustin Guibert	1981	Jose Manuel Garaialde (...2001...)

Iturria: ACD II: 165, 210, 264, 306, 357. Arantzazuko Kronika: urteroko "Estado de Personal"; tokiko lekukoak: E. Bengoa eta J. M. Garaialde. Oharra: Hau uste dugu dela zerrendarik zuzenena, baina ez dago oraingoz behar adina agiriztatuta. Bidaurretako Kapilau-kargua eta Nagusitza garbiki bereizi behar dira, nahiz eta ez den hori beti erraza.

etab.); azkenik, 1980az geroztik Oñatiko pastoral bateratuan hainbat erantzukizun eta lan hartu du Senitarteak.

Hamarkada horretatik hona, fraideen Anaiarteak bezala klaratarren elizak ere beren bizkar dituzte inguruetarako pastoraltza bateratuak eskatzen dituen zereginak, eta 1981etik aurrera, bertako fraide bat San Migel elizako erretore-laguntzailea da, hemen biltzen baitira Oñatiko Parroki gobernabideari dagozkion oinarrizko egitekoak, Bataio, Ezkontza eta Hiletetarako, eta Parroki Batzordeen betekizunak ere (ekonomia, liturgia, gazteria, etab.). Fraide laguntzaileak eliza horretan parte zuzena hartzen du.

San Migelgoaren ondoan, lantegi osagarri bezala, fraide horrek elizkizunetan eta ebanjelizatzean Bidaurretako eliza du bere berariazko elizgunea, ondoko Olakua Auzoari eliz zerbitzuak eskaintzeko, berau azken hamarkadetan gora etorri baita bere hiriztapenean, eta inguruko auzotarrek Bidaurretako elizan baitute aukerarik erosoena Meza eta Sakramentuetarako.

Lan pastoralen ondoan, laguntza sozialetarako ere ahaleginik egin da Bidaurretako Kapilau-Etxean, pasaerako behartsuentzat Aterpea sortuz, txukuna eta egokia (fraideek berek ordaindu dute gastuen %50, eta beste erdia kanpoko laguntzetatik osatu da). Bestalde, Fraide-Etxea bera ere guztiz berritu da (1996, 2000): kostuen 24 milioietako gehiena etxeak berak hartu du bere gain, eta Probintziaren (6.000.000 pta.) eta klaratarren (milioi bat) eskuzabaltasunek osatu dute finantzaketa.

Kanporako eskaintza horien ondoan, Arantzazuko Santutegi eta Probintziari begira zera gogoratu behar da: Bidaurretako Etxe honetara bildu izan dela, egun batzuetarako atseden bila, bai Arantzazuko hainbat fraide, eta era berean beste fraide-komentuetako erlijiosorik ere. Horrelakoetan, aukerako gogartetxe pertsonala ere bada Bidaurretako egoitza hau.

SANTURTZI-KO ANAIARTEA

(1990...)

Bizkaiko Udalerria da Santurtzi, Nerbioi ibaiaren Ezkerraldean. Eskubidez, 53.919 bizilagun zituen 1981ean, 50.466 (1991) eta 49.863 (1996). 1990az geroztik frantziskotar Senitarte Txiki bat dago herri honetan, bertako San Joan Auzoan.

Auzo honek 2.700 biztanle ditu (XX. mendebukaeran), gehienak etorkinak, Galizia, Extremadura, Andaluzia eta Portugaldik iritsiak. 1950-1960.etako hamarkadan sortu zen San Joan Auzoa, eta, hiriztapenaren aldetik, elkarren oso gain metaturiko eraikinak dira bertakoak, etxebizitza txikiak. Arrisku handiko gerriko industriala du, autopista bertan duela, zentral termikoa, gas-zentrala, industria kimikoa.

Santurtzi-San Joango Senitarte frantziskotar hau berria izan arren, frantziskotartasunak izan du lehendik Santurtzin aurrekinik. Beharbada, Abandoko Santimamine komentuak (1446) irabazitako izenonak akuilaturik, XV. mendean santurtziarrek komentu frantziskotar bat eraikitzeko baimena eskatu zioten Aita Santuari (1473). Hala ere, ezagutzen ez ditugun arrazoiengatik ez zen bere burura eraman asmo hura (Uribe 1996: 228, 283).

Hutsune horren ondoan, ordea, gogoratzekoa da frantziskotarrak ez direla erabat arrotzak izan aurreko mendeetan, besterik ez bada hurbileko Portugaleten klaratarren komentua eta bertako fraide kapilauak gertu egon zirelako beti.

Gaur egungo Anaiartea 1990ean ireki zen, 1988ko Kapitulu Probintzialaren erabakiari jarraikiz, eta lehendik egitasmoa lantzen ari zen fraide-talde baten kezkei erantzunez: hurrengo hirurtekoan "pobreen artean txertaturiko anaiarte bat sortzea" zen asmoa.

Santurtziko San Joan Auzoa hautatu zen horretarako, Barakaldo, Sestao eta Santurtziko egoera sozio-hiritarra begiratu ondoren. Euskadiko Erkidegoan Bizkaiko Ezkerralde hau da, izan ere, eskualde behartsuenetako bat, eta Santurtzin ertzekoena zen San Joan Auzoa aukeratu zen Senitarte berriarentzat: erdigunetik urrun zegoen, eta iganderoko apaiza baizik ez zuen presentzia erlijioso bezala.

Anaia talde zabal batean landu zen proiektua, eta gerora partaide izango zirenak baino gehiagok izan zuen eskurik gogoeta hartan. Gero, 1999.a arte, sei Anaia izan dira esperientzia honetan parte zuzena hartu dutenak.

Frantziskotarren pobre-karisma gogoratu zen sarritan, eta Ebanjelioa erakusteko gizaki anaiei bidera irten beharra, hirietako auzo baztertuenetara heldu beharra. Ondoko baldintza material hauen barnean lekutu nahi izan zen Anaiartea.

Etxebizitzaren aldetik, auzoko beste bizilagun xumeen parekoa izan beharko zuen berorrek. Langile-egoeraren aldetik, soldatazkoa izan behar zuen, eta zuzendari-lanetatik kanpokoa, eta Anaiek, neurriren batean edo bestean, sarigabeko lanik ere onartuko zuten, bolondres-zereginetan.

Etxeko ekonomiaren aldetik, auzo-lagun gehienen paretsuko maila mantenduko zen, eta

Santurtziko Anaiartea:
Felix Askasibar, Jose Ignazio Idoiaga, Pello Ezeiza eta Jose Anjel Egiguren.

Santurtzi edo inguruetako zerbitzu sekularretan jardun beharko zuten fraideek; horregatik, Auzo-Elkarteetan ere parte hartzea erabaki zen. 10.000 pezetako etxe-errenta, eta, moldatu, 100.000/200.000 pezetako diru-sarrerekin moldatu da Senitartea.

Azkenik, Senitartea fraidegai gazteentzat bizileku ireki bezala eskainiko zen: hortaz, berau fraidegaien heziketarako Senitarte Txikietako eredu jakin bat izatea nahi zen.

Izatez, Senitarteak bete duen bide-ibilera ondoko datuetara bil daiteke. Ez du bertan eliz edo parroki lanik hartu, eta lan sozialei eman zaie lehentasuna; eratutako inoren elkarteetan egin da lan, adibidez "Edex" enpresan kaleko hezitzaile bezala, San Joanen bertan (1991-2000: J. A. Egiguren, P. Ezeiza), Bilboko drogadiktoen lagunartean (P. Ezeiza), eta Eskola Publikoan (F. Askasibar). Orain gutxitik, auzoz kanpoko besterik ere egiten da: mojekiko zerbitzuak (J. I. Idoiaga), lehendik zetozen eginbeharrak zabalduz. Etxebizitza bera guztiz irekita eduki da, langabetuentzat, gazteentzat, gizartetik baztertuentzat, Senitarteko ordutegia ere horretarako egokituz.

SEGURA-KO ANAIARTEA

(1981-2000...)

Gipuzkoako Udalerria da Segura, Probintziako hegoaldean, Goierrin. Oria Goieneko bailara-buru historikoa izan da, eta Gipuzkoan garai bateko Errepide Nagusian Mesetarako edo handik azken/lehenengo abiapuntua, San Adriango bidean.

Probintziako lantegiztatzeak albora utzi zuen herri hau, eta bertako langileen ogibidea nekazaritza, artzantza eta inguruko herrietako industria izan dira batez ere. Horregatik, etorkin-uholde handiek albora utzi zuten Segura, eta biztanle kopuruan gorabehera gutxiko herria izan da Aro Garaikidean: 1802an, 900en bat bizilagun zuen; 972 (1850), 1.578 (1877), 1.278 (1900), 1.267 (1950), 1.261 (1996).

HERRIAREN SOSLAI FRANTZISKOTARRA

1981az gero fraide Senitarte frantziskotar[ofm] bat dago Seguran, sorkundetarren kapilauetxean; gainera, berau Goardiano-Etxe izendatu zuen 1988an frantziskotarren Kapitulu Probintzialak, berorri komentu-izaera osoa aitortuz (Protokoloak 12/1988). Bestalde, horregatik, baina lehenagotik, Segurako herriak bere soslai frantziskotarra bizirik du luzaro, moja sorkundetarren komentu, bertako Aita Kapilau, Hirugarren Ordena, Antoniotar eta Arantzazurekin betidanik izan dituen harremanen indarrez.

Izan ere, gaur egungo moja sorkundetarren Ahizpartea eta komentua aurreko mendeetatik datoz. Taldearen lehen albiste ofizial agiriztatua 1519koa da, nahiz eta badakigun lehenagotik bizi zirela elkartuta Serora haiek, halabeharrez San Agustinen Erregla jarraituz, harik eta, hain zuzen 1519an, Arantzazuko fraideen babesean Hirugarren Ordenako frantziskotar egin ziren arte. Ezagutzen dugun komentu berria 1654an estreinatu zen, eta eliza, berriz, 1703an, eta erretabloak 1745-1755.ekoak dira. Elisabetar bezala arautu zuen bere bizitza Ahizparte honek, eta 1596an bildu ziren klausura hertsian; 1933an egin ziren sorkundetar aspaldidaniko moja elisabetar hauek. Aro Moderno osoan komentu honetakoa izan zen herriko moja-elkarte bakarra.(Uribe 1996: 417-427; Lardizabal/Mendizabal 1990: *passim*).

Gehiagotara pasatu gabe, gogoraraz dezagun, behintzat, bigarren datu osagarri bezala, moja elisabetarrak Arantzazuko Frantziskotar Probintziakoak zirela: barruti horretako Aita Probintzialaren menpe zeuden, beraz, eta eskumen horren ondorioz, XIX. mendeko Esklaustrazioa arte fraide frantziskotarrak izan ohi ziren komentuko Aita Bikario edo Kapilau, aldian aldiko Kapitulu Probintzialek izendatuta. Hortaz, XVI.etik XIX. mendeko 1840a arte (eta gero ere zenbait hamarkadatan) beti zegoen Seguran kapilau frantziskotarrik.

Hala ere, orain frantziskotar Senitartea bertan izate horrek berritasun nabaria ekarri du, areago oraindik fraide horien herriko eta eskualdeko betebeharrak nolakoak diren gogoan baldin badugu. Segida izan arren, zerbait berria ere bada Oria Goieneko eskualde honetako presentzia frantziskotarra.

Segurako Nagusiak (1981-2000...)

1981	Roberto Linkel (pres.)	1991	Jesus Artsuaga
1982	Roberto Linkel	1994	Juan Migel Dorronsoro
1985	Esteban Agirre	1997	Joan Migel Dorronsoro
1988	Jesus Artsuaga (goard.)	2000	Pedro Urriolabeitia

Segurako Parrokoak (1981-2000...)

1981	Roberto Linkel	1994	Josu Elortza
1988	Karlos Urbieta		

Zegamako Parrokoak (1981-2000...)

1981	Iñaki Bereziartua	1989	Pedro Urriolabeitia

Zeraingo Parrokoak (1981-2000...)

1985	Jose Maria Lete (izendapenez) Erretoreordekoa: Jose A. Urdanpilleta (1985-1989)	1989	Jesus Arsuaga (izendapenez) Erretoreordekoak: Joseba Etxeberria (1989) Bitorio Zabalgojeaskoa (1990-1994) Santos Beloki: 1994...

Mutiloko Parrokoak (1981-2000...)

1981	Jose Maria Lete	1988	Jesus Arsuaga

SENITARTE FRANTZISKOTARRA

Senitarte honen nortasuna ondoko datuek nolakotzen dute: txikia da (hasieran hiru lagun), parroki lanetara emana, eskualdez eta giroz baserriartekoa beti edo batez ere, Oria Goienean dago lekutua.

Senitartearen sortzean Arantzazuko Probintziaren eta Donostiako Diozesiaren arteko hitzarmen bat egon zen, hau da, Oria Goien edo Seguraldeko bailarari premiazko zerbitzu pastoralak ziurtatzeko asmoz sinatutako hitzarmena: Segura, Mutiloa, Zegama eta Zeraingo parrokien ardura hartu beharko zuen Senitarte berriak. Beste herrien artean, Segura aukeratu zen Senitartearen egoitzatarako, bere iragan historiko eta erdigunetasun geografikoagatik eta beste Etxe Erlijiosorik ere bazuelako.

Akordioaren ondorioz, bailara honetako parroki zerbitzuak frantziskotarren ardurapean daude, eta egitekoari erantzunez, eskualdez haragoko pastoral-eremuko batzorde eta elkartasunetan ere parte hartzen dute, gainerako klero diozesitarraren gisa berean.

Bien batasunaren ondoren (1994), Beasaingo eta Segurako Senitarteek lehendik zituzten erantzukizun eta eskubide pastoral-sozialak orain Seguratik eramaten dira, eta ez Oria Goie-

Segurako Anaiartea:
Aurrean: Roberto Linkel, Pedro Urriolabeitia, Jose L. Agirretxe.
Atzean: Iñaki Bereziartua, Jesus G. Arsuaga, Santos Beloki.

neko bailara horretakoak bakarrik, baita Beasaindik zeuden besteak ere: San Martin Loinatz, Arriaran, Astigarreta eta Garin.

2000n, zortzi dira Senitarte honek zaintzen dituen parrokiak, eta ezin dira ahantzi beste elizguneak ere: lehenik Lierniko Andre Mariaren ermita-santutegia (Mutiloa), bere iganderoko Mezarekin, eta urteko egun jakinetan Mezarik duten beste ermitak: Segurako Sta. Krutz (maiatzaren 3an, irailaren 14an), Sta. Barbara (Igokunde-ondoko igandean), Sta. Engrazi (apirilean), San Sebastian (urtarrilean) eta San Andres (azaroan) ermitetan, eta Zegamako San Pedro (ekainaren 29an), San Bartolome (abuztuaren 25ean), San Adrian, Santispiritu eta Aizkorrin; hauetako zenbaitetan maiz kanpoko edo herriko seme apaizen batek esku hartu ohi du.

Kapilautzarik ere bada Seguran bertako Ahizparte erlijiosoentzat: Komentuko frantziskotar sorkundetarrena, eta Zaharren Egoitzako Karitateko Lekaime eta egoiliarrentzakoa.

Seguran gogoratzekoa da, gainera, bertako "Segura Irratiak" Arantzazuko Santutegiarekin duen lotura, handik ematen baitira eguneroko Meza eta hainbat zerbitzu erlijioso, eta Irrati horren bidez hedatu Goierrira.

Senitarteko apaiz bakoitzaren ardura da izendatu zaizkion herri eta parrokia, inoiz bat baino gehiago ere bai, erretore gisan edo erretore-ordeko bezala. Ik. BEASAIN.

ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA

A) ERABILITAKO ITURRIAK

Artxiboetako langaiak erabiltzeko erraztasun guztiak izan ditugu, bai Probintziako artxiboetan, bai Komentutakoetan. Eskerrak zor dizkiegu, bai Probintziako artxibozaina den Anaia Kandido Zubizarretari, eta berdin Komentu edo Anaiarte bakoitzekoei. Iker-proiektu hau une eta modu honetan bideragarri izan zedin, geu izan gara lanari eta iker-bilaketari mugak jarri behar izan dizkiegunak (esan dugu honetaz, behar zena sarrerako hitzaurrean).

Aro Garaikideko Arantzazuko Probintziako Artxiboak bi lekutan daude gaur egun: Artxibo zaharra Zarautzen, eta Artxibo berria Donostiako Egia-Atotxan. Biak ordenatuta daude, eta K. Zubizarreta-ren *Provincia franciscana de Cantabria. Catálogo del Archivo* da berorietaz baliatzeko lanabesik erosoena. Esklaustrazio aurreko epean, oso gutxitan jo dugu Artxiboetara, eta hemengo argibideak A. Uribe eta Z. Solaguren-engandik jasotakoak dira, gehienbat.

Artxibo Probintzialen ustiaketa -azken sakoneraino iritsi gabe, noski- samurra izan da, batez ere *Actas Capitulares y Definitoriales* deritzan bildumaren bidez (*ACD* bezala aipatu dugu), eta berorretarako sarrera ematen duen K. Zubizarretaren *Catálogo-Diccionario* deritzanaren bitartez.

Komentuetako Artxiboak maila ezberdineko erosotasunak dituzte lanerako: baliatu ahal izan ditugu gure mugen barruan, batzuetan, gainera, tokian tokiko laguntza onekin, eta beti, emandako erraztasunekin. Hori horrela, XX. menderako (edo zehazkiago nahi bada, 1915-1970. urteetarako), Etxeko *Kronika* edo *Album Histórico* deritzana oso iturri emankorra izan da beti.

Artxiboekin batera, XX. mendeko bigarren parterako tokian tokiko lekukoak izan dira garrantzizko bigarren iturria. Hainbat albiste jaso ahal izan dugu elkarrizketa eta kontsulten bidez. Saiatu gara eman dizkiguten albisteak zuzen jasotzen, eta ia beti baita idatzi dugun gure testua lekukoen kritika-galbahetik pasatzen. Eman diguten laguntzengatik aipatuta utzi behar dira testigu horiek (liburuko aipuetan, beste gabe, "Tokiko Lekukotasuna" bezala agertu direnak: 2000-2001.eko testigantzak dira):

Arantzazu: Joan Ignazio Larrea, Nikolas Segurola, K. Zubizarreta, Joseba Etxeberria.

Arrasate: Patxi Irizar, J. L. Agirretxe.

Bermeo: J. Abaroa, J. Aristi, P. Arruti, A. Zabalgojeaskoa, J. Zabalgojeaskoa, A. Zubizarreta.

Beasain: M. Iñurritegi, R. Linkel.

Bilbo-Errekaldeberri: J. M. Agirresarobe.

Bilbo-Iralabarri: B. Iñurritegi.

Donostia-Kaialde: P. Arruti, A. M. Gz. de Txabarri.

Donapaleu: S. Beloki, J. J. Iturriotz, G. Sallaberenborde.

Durango: S. Abaitua, E. Agirretxe, J. A. Elustondo, J. J. Arrieta, J. A. Egiguren.

Errenteria-Zamalbide: E. Agirretxe.

Erriberri: J. M. Lete, J. A. de Eulate, K. Urbieta.

Forua: P. Jauregialtzo, J. Barrena.

Gasteiz: M. Treviño, J. A. Urdanpilleta, M. García.

Iruñe-Iturrama: J. L. Idoiaga, J. M. Iturria.

Iruñe-Milagrosa (Obanos, Espartza, Uharte): J. Garrido.

Karrantza: J. Larrarte, P. Urionabarrenetxea.

Santurtzi: J. A. Egiguren.

Segura: P. Urriolabeitia, S. Beloki, J. M. Lete, R. Linkel.

Tolosa: M. Aranguren, J. J. Muniain.

Zarautz: I. Alustiza, E. Agirretxe, D. Arruti, J. Artola, H. Barrena, A. Biain, M. Beraza.

Informazio egokia bildu ahal izateko, zinezko lana egin behar izan dute horietako batzuek; bestetan, agiriak eskuratu dizkigute (txostenak, agiri zehatzak, etab.); inoiz, aholku-emaile edo irakurle kritiko gisara jardun dute.

Oro har, **Z. Solaguren** eta **K. Zubizarreta** izan ditugu ibilera honetan gure maisu, ohar-egile eta argibide-emaile eskuzabalak, iturriez ohartaraztean eta eskueran zituzten albisteak gure errota honetara bideratzean.

B) Bibliografia orokorra

AGIRREZABALA/BERAZA 1997

AGIRREZABALA, L.; BERAZA, M; INTXAUSTI, J. (1998): *Aportación de personal de Euskalerria al movimiento regular franciscano. (Edición a modo de borrador).* Zarauz. (Frantziskotar [1881-1993] eta kaputxinoen [1900-1979] izenzerrendak dakartza. Behin-behineko datu eta edizioa dira).

AGIRREZALA/BERAZA 1998

AGIRREZABALA, L.; BERAZA, M.] [1999]: *Alumnado de nuestro Colegio/Seminario de Aránzazu y Forua.* (Argitalpen mugatua).

CLARISAS 1993

FEDERACION DE HERMANAS CLARISAS (1993): *El ayer y el hoy de nuestros monasterios.* Zamora.

ESTAD. GEN. 1878

(1878-1886): *Estadísticas de conventos y religiosos.* Probintziako Artxiboan (Zarautz: Armario XX, 1, 1). (Data ezberdinetan argitara emandakoak).

HOLZAPFEL 1909

HOLZAPFEL, H. (1909): *Manuale Historiae Ordinis Fratrum Minorum.* Romae.

HOMENAJE 1935

(1935): *Homenaje a la Seráfica Provincia de Cantabria.* Aránzazu: Tip. de la Rev. "Aránzazu".

INTXAUSTI 1998

INTXAUSTI, J. (1998): *Euskal historialariak eta frantziskotarrak. Azterketa historiografikoa.* Arantzazu: EFA ("Franciscalia Vasconica").

IRIARTE 1979

IRIARTE, L. (1979): *Historia franciscana.* Valencia: Editorial Asís.

OCERIN 1928

OCERIN- JAUREGUI, A. (1928): *Historia de la Orden Tercera de la Seráfica Provincia de Cantabria.* Zarauz: Editorial Vasca.

OTERO 1990

OTERO, M. M. (1990): *Obispado de Calahorra. Documentos sobre la reducción de Conventos, 1820-1822.* (Kalahorrako artxiboan jasotako agiri-bilduma; komentu frantziskotarrei dagokien sorta aberatsa. Arantzazun dago ale azaleztatua).

PROTOKOLOAK

FRANTZISKOTARREN ARANTZAZUKO PROBINTZIA (1973...): *Protokoloak.*

SOLAGUREN 1978

MAIZ 1978

SOLAGUREN, C.; MAIZ, J. J. (1978): *La Exclaustración y Restauración de los Franciscanos de Cantabria y el P. Mariano Estarta (1804-1878).* [Arantzazu]: Editorial Franciscana Aránzazu.

SOLAGUREN S. D.

SOLAGUREN, C. (s. d.): *Los franciscanos vasco-cántabros en el siglo XIX. Vicisitudes y nomenclador bio-bibliográfico.* (Argitara gabea. Arantzazuko Probintziako fraideen historia pertsonala eta instituzionala ezagutzeko gaur egun daukagun lanik agiriztatuena. Liburu honetan jasotako albisteak zuzenki eta erruz dira zorretan obra eta autore honekin. Beronen eskuzabaltasunari esker erabili izan dugu idazlana, 1998an eta 2000n egindako fotokopia banatan).

URIBE 1988

URIBE, A. (1988): *La Provincia franciscana de Cantabria. I. El franciscanismo vasco-cántabro desde sus orígenes hasta el año 1551.* Aránzazu: Editorial Franciscana.

URIBE 1996

URIBE, A. (1996): *La Provincia franciscana de Cantabria. II. Su constitución y desarrollo.* Aránzazu: Editorial Franciscana.

VILLASANTE 1961

VILLASANTE, L. (1961): *Historia de la literatura vasca.* Bilbao: Sendoa.

ZINKUNEGI 1997

[ZINKUNEGI, X.] (1997):

Kantabriako fraide frantziskotarrak, etxez etxe [1916-1995]. (Idazkaritza Probintzialean landutako lauki estatistiko argitaragabea).

CF = *Cantabria Franciscana*
Frantziskotarren barne-aldizkaria.
OFM = *Ordo Fratrum Minorum*
Anaia Txikien Ordena.

C) BIBLIOGRAFIA BEREZITUA

ARANTZAZUKO KOMENTUAZ

INTXAUSTI 2001

INTXAUSTI, J. (zuz.) (2001): *Arantzazu. Euskal Santutegi bat XX. Mendean / Un Santuario vasco en el siglo XX*. Arantzazu: Edizio frantziskotarrak.

LASA 1961

LASA, J. I. (1961): "La Escuela rural del barrio de Aránzazu", in: CF. XVI, 1961, 195-199.

LASA 1977

LASA, J. I. (1977): *Tejiendo historia (Contribución a la pequeña historia de Guipúzcoa)*. San Sebastián: Caja de Ahorros Municipal.

LIZARRALDE 1950

LIZARRALDE, J. A. (1950):

Historia de la Virgen y del Santuario de Aránzazu. Oñate: Editorial "Aránzazu".

MITXELENA 1951

MITXELENA, S. (1951): *Ama-semeak Arantzazuko kondairan*. Oñate: Editorial Aránzazu.

MONFORTE 1994

MONFORTE, I. (1994): *Arantzazu. Arquitectura para una vanguardia*. San Sebas-tián/Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia/Diputación Foral de Gipuzkoa.

ZUBIZARRETA 2001

ZUBIZARRETA, K. (2001): *Los orígenes del franciscanismo en Arantzazu / Frantziskotar bizitzaren basiera Arantzazun*. Arantzazu: Edizio Frantziskotarrak.

ARRASATEKO KOMENTUAZ

ANASAGASTI 1955

ANASAGASTI, P. (1955): "La brillante y accidentada historia del convento de San Francisco de Mondragón (1581-1954", in: *Bol. de la R. Soc. de Amigos del País*. XI; 1955, 233-247.

GARMENDIA 1990

GARMENDIA, D. (1990): *Arrasateko fraideen komentua (1954-1990)*. Arrasate. (Argitaragabea).

LARRINAGA 1952

LARRINAGA, J. Rz. de (1952): "Fundación del Convento de San Francisco de Mondragón", in: *AIA*. XII, 1952, 397-446.

BEASAINGO ANAIARTEAZ

IÑURRITEGI 1997

IÑURRITEGI, M. (1997): "Bodas de Plata en Beasain", in: CF. LI, 1997, 165. zenb., 71-88.

MENDIZABAL 1997

MENDIZABAL, M. (1997): *Gipuzkoar ezezaguna Loinazko San Martin Amunabarroko semea*. Beasain: Udala. (Ik. *Beasaingo paperak*, 6. zenb., 1997ko Urria).

VILLASANTE 1962

VILLASANTE, L. (1962): "Enfoque pastoral del "caso San Martín"", in: CF. XVII, 239-240.

BERMEOKO KOMENTUAZ

ANASAGASTI 1958-62

ANASAGASTI, P. (1958-1962): "El primer Convento del Señorío de Vizcaya", in: *Boletín de la R. Soc. Bascongada de Amigos del País*. XIV, 1958, 39-54; XV, 1959, 163-180; XVIII, 1962, 37-57.

ANASAGASTI 1962

ANASAGASTI, P. (1962): "La novelesca historia del hundimiento y de la restauración de San Francisco de Bermeo (1834-1859)", in: :*Bol. de la R. Soc. Bascongada de Amigos del País*. XVIII, 1962, 265-277.

ARISTI 1961

ARISTI, J. (1961): "Nuestro Colegio de Bermeo", in: CF. XVI, 1961, 182-185.

ATELA 1959

ATELA, L. de (1959): "Orfeón Bermeano", in: CF. XIV, 1959, 15-20.

CF: 1959A

REDACCION (1959): "Grandioso proyecto en Bermeo [Izaro]", in: CF. XIV, 1959, 41-42.

CF: 1959B

REDACCION (1959): "Bodas de Oro de Mons. Carlos Anasagasti y nuevo Convento de Ntra. Sra. de Aránzazu", in: CF. XIV, 125.

CF: 1962

REDACCION (1962): "Nueva fundación franciscana en Bermeo", in: CF. XVII, 1962, 63-64

CURIA 1954

CURIA (1954): "Convento de Mayor Observancia. Reglamento ad experimentum", in: CF. XII, 1954, 98-101.

CURIA 1960

CURIA (1960): "Reglamento del Convento de Mayor Observancia de Bermeo", in: CF. XVIII, 1960, 8-11.

GARAMENDI 1996

GARAMENDI, B. (1996): "Informe sobre el Convento de Bermeo", in: CF. L, 1996, núm. 164, 85-94.

MAÑARICUA 1956

MAÑARICUA, A. E de (1956): "El convento mercedario de Burceña [1384]", in: *Boletín de la R. Soc. Bascongada de Amigos del País*. XII, 1956, núm. 297-309.

URIBE 2000

URIBE, A. (2000): *San Francisco de Bermeo. Luces y sombras de su historia*. Bilbao: Doniene.

BIDAURRETAKO ANAIARTEA

GARAIALDE 1997

GARAIALDE, J. M. (1997): "Bidaurretako San Antonioren Aterpea", in: CF. LI, 1997, núm. 165, , 47-49.

MENDIZABAL 1999

MENDIZABAL, M. (1997): "Origen de los franciscanos en Oñati", in: VARII (1999): *Historia de Oñati: Siglos XIV-XIX / Oñatiko historia: XIV-XIX. mendeak*. Oñati: Udaletxea. 101-111.

BILBO-IRALABARRIKO KOMENTUA

CF 1945

VARII (1945): *Cantabria franciscana. (Número extraordinario dedicado al nuevo convento de Bilbao)*. III, núm. 3, Abril-Septiembre.

INFORME 2000

(2000): *Informe de la parroquia San Antonio de Padua de Iralabarri, con motivo de la visita pastoral de Don Ricardo Blázquez*. Mayo, 2000.

IÑURRITEGI 1996

IÑURRITEGI, B. (1996): "Los franciscanos en Iralabarri", in: CF. 1996, 55-73.

DOMINTXAINEKO ANAIARTEA

AGIRIAK

Domintxaine: "Anaitasuna" Anaiartea (1972-1982). Agiriak. (Senitarte honen sortze eta bizitzako agiri-bilduma. J. Intxaustiren artxiboan, eta Donapaleuko komentuan. Agiri ia denak M. Erdozaintzik idatzitakoak dira).

LASA 2000

LASA GORRAIZ, X. (2000): *Manex Erdozaintzi-Etxart. Bizitza eta pentsamendua*. Arantzazu: EFA.

DONAPALEUKO KOMENTUA

DEDIEU 1988

DEDIEU, H. (1988): *Les Franciscains à Saint-Palais. Cinquantenaire de la réouverture du Couvent (1938-1988)*. Toulouse/Limoges.

DEDIEU 1996

DEDIEU, H. (1996): *Nouveau nécrologe de la Province de Saint-Louis*. (Euskal herritarren albisteak jasoz egindako saio argitaragabea).

E. R. 1938

E. R. (1938):

"Une résurrection. Saint-Palais (Basses-Pyrénées)", in: *Revue Franciscaine*. 1938, 141-146.

INTXAUSTI 1972

INTXAUSTI, J. (1972):

Iraultzaren bildotik. Oñati-Arantzazu: Jakin.

LASA 2000

LASA GORRAIZ, X. (2000): *Manex Erdozaintzi-Etxart. Bizitza eta pentsamendua*. Arantzazu: EFA.

L'ECHO 1938

(1941): "Premières paroles", in: *L'Echo Franciscain de Saint-Palais*. I, 1939 (janvier). (Ik. Dedieu 1988: 42-43).

L'ECHO 1941

(1941): "Le Tiers Ordre Franciscain en Pays Basque", in: *L'Echo Franciscain de Saint-Palais*. III, 1941 (avril-mai). (Ik. Dedieu 1988: 48-49).

MAIATZ 1995

MAIATZ TALDEA (1995): *Manex Gogoan*. Baiona: Maiatz.

MENDI 2000

MENDI, I. (2000): "Donapaleuko frantziskotarrak", in: *Gara*. 2000ko martxoaren 7a, "Aitzina" tartekoa.

PAVIE 1910

OTHON DE PAVIE (1910): *Cinquantenaire de la Province St-Louis d'Anjou, O. F. M., en Aquitaine. 1860-1910*. Bourges: Typ. Vve Tardy-Pigelet & Fils.

PÉREZ 1988

PEREZ DE VILLARREAL, V. (1988): "Capuchinos navarros en Ustaritz (Francia), 1842-1848", in: *Estudios Franciscanos*. 89, 1988, 449-490.

PÉREZ 1990

PEREZ DE VILLARREAL, V. (1990): "El Convento de Bayona en la Restauración de la Orden Capuchina", in: *Estudios Franciscanos*. 91, 1990, 371-411.

SABAROTS 1996

SABAROTS, S. (1996): *Les Franciscains à Saint-Palais, de 1851 à 1903*. (T.E.R. d'Histoire Contemporaine). (Argitaragabea).

SAGÜÉS 1956

SAGÜES, P. (1956): "Un vizcaíno ilustre. Don Fulgencio Antonio de Zabala (1772-1847)", in *Boletín de la R. Soc. Bascongada de Amigos del País* XII, 1956, 319-340.

SAGÜÉS 1960

SAGÜES, P. (1960): *El Padre José Areso, O. F. M. Misionero y Restaurador (1797-1878). (Ensayo de biografía crítica)*. Madrid: Editorial Cisneros.

VENTS 1996

(1996): *Vents d'Ouest. Bulletin de liaison de la Province Franciscaine de France-Ouest*. Numero spécial, Mai, 1996.

DONOSTIA-EGIAKO KOMENTUA

INTXAUSTI S. D./A

INTXAUSTI, J. (s. d.): *Un Convento en la ciudad. Crónica del siglo XX. Historia de los franciscanos en San Sebastián y Egia-Atotxa* San Sebastián. (XVI-XIX. mendeetako sarrera historiko bat du, komentu honen XX. mendeari heldu aurretik. Argitaratzeko).

INTXAUSTI S. D./B

INTXAUSTI, J. (s. d.): *Donostiako Egia Auzoa*. (Egia-Atotxako komentu frantziskotarraren iragana bere testuinguru hiritarrean ulertzeko idatzia. Auzoko beste eliz erakunde eta elkarteen berri ere ematen du. Argitaratzeko)

LASA 1982

LASA, J. I. (1982): *Los franciscanos en San Sebastián, 1512-1606*. San Sebastián: Caja de Ahorros Municipal.

RZ. DE CORO 1978

RODRIGUEZ DE CORO, F. (1978): "La consejera de Isabel II y la ciudad de San Sebastián. La fundación de Cristobaldegui", in: *Bol. Est. Hist. de SS*. 1978, 143-187.

SOLAGUREN 1998

SOLAGUREN, C. (1998): *Moradores del Convento de San Sebastán*. (Autoreak utzitako argitaragabeko zerrenda).

DURANGOKO ANAIARTEA

RODRÍGUEZ 1997

RODRIGUEZ CONDADO, E. (1997): *El Monasterio de San Antonio de Durango*. S. l.

SOLAGUREN 1981

SOLAGUREN, C. (1981): "Fray Juan de Zumarraga y la Hospedería de los franciscanos en Durango, en el más extenso texto arcaico vasco, recientemente descubierto", in: CF XXXIX, 1981, núm. 146, 75-83.

ERRIBERRIKO KOMENTUA

ALTUBE 1981A

ALTUBE, F. (1981): "Las "Casas de Hermanos" del convento de Olite", in: CF. 1981: 173-178.

ALTUBE 1981B

ALTUBE, F. (1981): "El convento de Olite y la Tercera Orden (1880-1980", in: CF. 1981: 173-178.

ARICETA 1981A

ARICETA, L. (1981): "Retazos de historia, anteriores a la restauración franciscana de la comunidadd de Olite", in: CF. 1981: 65-82.

ARICETA 1981B

ARICETA, L. (1981): "Restauración de la comunidad e incorporación a Cantabria", in: CF. 1981: 49-64

ARICETA 1981C

ARICETA, L. (1981): "Apuntes sobre la iglesia de San Francisco de Olite", in: CF. 1981: 83-100.

ARICETA 1981D

ARICETA, L. (1981): "Desarrollo material del convento de Olite", in: CF. 1981: 101-109.

ARICETA 1981E

ARICETA, L. (1981): "Estado personal del convento de Olite, de 1880-1980", in: CF. 1981: 111-113.

ARICETA 1981F

ARICETA, L. (1981): "Misioneros y predicadores de la comunidad de Olite (1880-1980)", in: CF. 1981: 121-136.

ARICETA 1981G

ARICETA, L. (1981): "Olite, sede de Capítulos provinciales e interprovinciales", in: CF. 1981: 115-120.

ARICETA 1981H

ARICETA, L. (1981): "La preceptoría de latín del convento de Olite", in: CF. 1981: 147-152.

ARICETA 1981I

ARICETA, L. (1981): "Escritores de la comunidad de Olite (1880-1980)", in: CF. 1981: 161-166.

ARICETA/SOL. 1981

ARICETA, L.; SOLAGUREN, C. (1981): "Las Escuelas de San Francisco", in: CF. 1981: 153-159.

ARICETA 1982

ARICETA, L.(1982): "De "rebusca" en la viña de la historia local", in: CF XL, 1982, núm. 148, 35-45.

ARRUTI 1998A

ARRUTI, A. (1998): *Olerki galduak. Recuperación de un poeta olvidado*. Donostia: Elkarlanean. (Ik. "Una visita a mi aldea" edo "Vestigios": 132-134, 209-210).

CF: 1981

(1981): *Cantabria Franciscana*. XXXIX, 1981, n. 147. (Erriberriko komentu honen historiari eskainitako zenbaki berezia. Lankideak: Solaguren, Sagues, Arizeta, etab.- Gure lanerako egokien zetozenak aparte aipatuko dira; baina bada besterik ere, eta horietarako erabiliko da "CF: 1981" aipu-modua).

ENT. 1749-1866

(1749-1866): *Entierro de Religiosos desde la Erección de este Colegio* [de Olite] *que fue el año de mil setect^os^ quarenta y cinco*. (Erriberriko komentuko artxiboa: eskuizkribua).

GUTIÉRREZ 1972

GUTIERREZ, E. (1972): *San Francisco de Olite*. Pamplona: Diputación Foral (Col. TCC, 149).

INTXAUSTI 1998A

INTXAUSTI, J. (1998): "Antonio Arruti, olerkari galdua (1882-1919)", in: Arruti 1998a: 75-98 (Erriberriko egonaldia).

INTXAUSTI 1996

INTXAUSTI, J. (1996): *Euskara eta erdarak Aita Aresoren baitan*. (Argitaragabea).

IZTUETA 1981

[IZTUETA, P.]: "Eliz ikastetxeetako aldizkariak", in: *Jakin*. 1981, 21. zenb., 49-71.

JUSUÉ/RAMÍREZ 1989

JUSUE SIMONENA, C.; RAMÍREZ VAQUERO, E. (1989): *Olite*. Pamplona: Gobierno de Navarra.

SAGÜÉS 1955

SAGÜES, P. (1955): "El Padre Areso y el convento franciscano de Olite", in: *Aránzazu*. XXXVI, 1955, 310-314, 320.

SAGÜÉS 1960

SAGÜES, P. (1960): *El Padre José Areso, O. F. M.. Misionero y Restaurador (1797-1878). (Ensayo de biografía crítica)*. Madrid: Editorial Cisneros. (Aresoren Erriberriko bizitzaz [1824-1836]: 43-95).

SAGÜÉS 1981

SAGÜÉS, P. (1981): "Franciscanos en Olite, hasta 1880", in: CF. 1981: 15-28.

SOLAGUREN 1959

SOLAGUREN, C. (1959): "El Orfeón Olitense", in: CF. XIV, 1959, 69-74.

SOLAGUREN 1981A

SOLAGUREN, C. (1981): "Franciscanos en Olite, desde 1880", in: CF. 1981: 37-48.

SOLAGUREN 1981B

SOLAGUREN, C. (1981): "El Orfeón Olitense", in: CF. 1981: 170-172.

URBIETA 1996

URBIETA, K. (1996): "Olite, Fraternidad de acogida de la Provincia", in: CF. 1996, núm. 162, 90-91.

FORUKO KOMENTUA

FORUA 2000

JAUREGIALTZO, P; BARRENA, J. (2000): *Azken berrien txostena*. (Argitaragabea, J. I.ren artxiboan).

INTXAUSTI 1998

INTXAUSTI, J. (1998): "Antonio Arruti, olerkari galdua (1882-1919)", in: Arruti 1998: 31-113 (Foruko egonaldia).

GASTEIZ-ARIZBANARRAKO KOMENTUA

APRAIZ

APARIZ Y BUESA, E.: "El Convento de San Francisco en Vitoria y nuestros conquistadores espirituales", in: *Revista Nacional de Arquitectura* (Madrid). (Ez dugu ikusi ahal izan).

APRAIZ 1951, 1952

APRAIZ, E. (1951-1952): "El "caso" del Convento de San Francisco de Vitoria", in: *Aránzazu*. XXXI, 1951, 319-329, 354-360; XXXII, 1952, 25-28, 57-60.

APRAIZ 1971

APRAIZ BUESA, E. (1971): "San Francisco y Santo Domingo (Conventos desaparecidos)", in: (1971): *Catálogo Monumental. Diócesis de Vitoria. III. Ciudad de Vitoria*. Vitoria: Obispado/Caja de Ahorros Municipal de Vitoria. 303-310.

ARETA 1983

ARETA, L. M. (1983): "El período del racionalismo [en Alava]", in: LLANOS, A. (zuz.): *Alava en sus manos*. Vitoria-Gasteiz: Caja de Ahorros de Alava. III, 169-200.

BILBAO 1988

BILBAO, J. (1988): "Inauguración de la nueva casa franciscana de Vitoria", in: CF. XLVI, 1988, núm. 155, 21-24.

CANTERA 1971

CANTERA ORIVE, J. (1971): "Convento llamado de San Antonio", in: (1971): *Catálogo Monumental. Diócesis de Vitoria. III. Ciudad de Vitoria*. Vitoria: Obispado/Caja de Ahorros Municipal de Vitoria. 237-243.

GOÑI 1979

GOÑI GALARRAGA, J. M. (1979): "La Revolución Francesa en el País Vasco: la Guerra de la Convención (1793-1795)", in: *Historia del Pueblo Vasco*. Donostia: Erein. III, 5-69.

IMÍZCOZ/MANZANOS 1997

IMIZCOZ J. M.; MANZANOS, P. (1997): *Historia de Vitoria*. San Sebastián: Txertoa.

LARRINAGA 1926

LARRINAGA, J. Ruiz de (1926): *El templo de San Francisco de Vitoria no debe ser derribado. Memoria-Moción al IV Congreso de Estudios Vascos de Vitoria*. Tolosa.

SOLAGUREN 1988

SOLAGUREN, C. (1988): "Un siglo de gestiones para conseguir la fundación de Vitoria", in: CF. XLVI, 1988, 155 zenb., 3-20.

VELASCO S. D.

VELASCO, L. DE (s. d.): *Memorias del Vitoria de antaño*. Vitoria: Est. Tip. de Domingo Sar.

GERNIKA-LUMOKO ANAIARTEA

SOLAGUREN 1997

SOLAGUREN, C. (1997): "En Gernika-Lumo ha nacido "San Francisco de Asís"", in: CF. LI, 1997, núm. 165, 50-55.

IRUÑE-ITURRAMAKO KOMENTUA

GOÑI 1991

GOÑI GAZTAMBIDE, J. (1991): *Historia de los Obispos de Pamplona. X. Siglo XIX*. Pamplona: Gobierno de Navarra.

GOÑI 1999

GOÑI GAZTAMBIDE, J. (1991): *Historia de los Obispos de Pamplona. XI. Siglo XX*. Pamplona: Gobierno de Navarra.

IDOYAGA 1981

IDOYAGA, J. L. (1981): "Crónica de la fundación de la fraternidad de Pamplona", in: CF. XXXIX, 1981, núm. 146, 41-49.

MUTILOA 1972

MUTILOA POZA, J. M. (1972): *La desamortización eclesiástica en Navarra*. Pamplona: Ed. Univ. de Navarra.

PARROQUIA 1991

PARROQUIA SAN FRANCISCO DE ASIS (1991): *Líneas fuerza de la Parroquia de San Francisco de Asís*. Pamplona.

PARROQUIA 1998

PARROQUIA SAN FRANCISCO DE ASIS (1998): *Organigrama de la Parroquia*. Pamplona.

KARRANTZAKO ANAIARTEA

LARRARTE 1996

LARRARTE, J. (1996): "Franciscanos en Carranza", in: CF L, 1996, núm. 164, 62-66.

LARRARTE 1998

LARRARTE, J. (1998): "Epílogo de la estancia franciscana en Carranza", in: CF 1998, núm. 167, 92-95.

SEGURAKO KOMENTUA

LARDIZABAL/MENDIZABAL 1990

LARDIZABAL, M. de Sta. Isabel; MENDIZABAL, M. (1990): *Reseña histórica del Convento de la Concepción de Segura, con motivo de la restauración de 1990*. (Argitalpen mugatua).

TOLOSAKO KOMENTUA

APOSTOLADO 1915

(1915): "Nueva Residencia franciscana en Tolosa", in: *Apostolado Franciscano*. III, 1917, 46-50.

GOROSABEL 1853

GOROSABEL, P. (arg.) (1853): "De cosas concernientes a los conventos de San Francisco y Santa Clara de esta villa", in: *Bosquejo de las antigüedades, Gobierno y Administración y otras cosas notables de la villa de Tolosa*. Tolosa: Impr. de la Vda. de Mendizábal.

ZARAUZKO KOMENTUA

AGIRREZABALA/BERAZA 1994A

[AGIRREZABALA, L.; BERAZA, M.] [1994]: *Antoniano Ikastetxea. Gure ikaslegoa (1925-1994). Enseñanza Primaria, Educación General Básica / Haur Hezkuntza, Leben Hezkuntza*. Zarautz.

AGIRREZABALA/BERAZA 1994B

[AGIRREZABALA, L.; BERAZA, M.] [1994]: *Colegio Antoniano. Alumnado del Bachillerato. 1960-1993*. Zarautz.

ARRUTI 1998

ARRUTI, A. (1998): *Olerki galduak. Recuperación de un poeta olvidado*. Donostia: Elkarlanean.

BERAZA 1997

BERAZA, M. (1997): "Zarauztik: A propósito de una inauguración [Nuevo Colegio Antoniano]", in: CF LI, 1997, núm. 165, 57-67.

BIAIN 1996

BIAIN, A. (1997): "Restauración de la iglesia de San Juan Bautista. Zarautz", in: CF. 1996, núm. 162, 83-89. .

INTXAUSTI 1995

INTXAUSTI, J. (arg.) (1995): *Euskal Herriko Lanbide-Heziketa, eskualde bateko historiatik: Zarauzko EPO*. Zarautz: Langintza-Eskola. (Komentu honetako Antoniotar Gaztediaren eta irakaskuntzaren historia ezagutzeko bibliografia: 84-86)

MITXELENA 1977-84

MITXELENA, S. (1977, 1984): *Idazlan guztiak*. Arantzazu: EFA.

HISTORI HIZTEGI LABURRA

AHIZPARTEA. Lekaime edo mojen lagunartea adierazteko erabili dugu liburu honetan hitz hau, hain zuzen *Senitarte* edo *Anaiarte* terminoei kontrajarrita, edo berorien osagarri bezala.

ANAIA LAIKOA. Frantziskotartasuna komentuetan apaiz izan gabe bizi duena, erlijioso-bizierako hitzarmen guztiekin, eta gainerakoak bezala Ordenako partaide osoa dela.

ANAIA. Fraideek elkarrekin duten giza eta erlijioso-senidetasuna adierazten du hitzak, denen arteko elkartasuna anaitasun bezala azalduz. Gaur egun, fraide apaizek eta fraide laikoek, denek, *Anaia* izendapena daramate, Ordenako Aita Jeneralarengandik azken fraidearenganaino, apaizentzako *Aita* hura albora utziz.

ANAIARTE TXIKIA. Frantziskotarren Fraidearte-mota hau 1968az geroztik hedatu da Euskal Herrian, eta Komentuek izan duten egitura konplexua utzi eta modu xumeagoan antolatu dira beste hauek, betiere San Frantziskoren lehen urteetako talde-esperientzia gertuagotik jarraitzeko asmoz.

ANAIARTEA. Fraidearteko harremana senidetasun bezala definitzen duten Eskeko Erlijiosoentzat erabilitako terminoa; frantziskotartasunean balio berezia du hitz honek. Euskaraz bereziki gizonezko erlijiosoentzat egokiagoa, hain zuzen *Senitarte* edo *Ahizparte* terminoei kontrajarrita nahiz termino osagarri bezala erabil daitekeena. (Azken hamarkadetan sarritan erabili izan da *Anaidi* hitza ere).

ANAIDI. Ik. ANAIARTE.

ARANTZAZUKO PROBINTZIA (2000...). Euskal Hegoalde osoa besarkatzen duen frantziskotarren Probintzia Erlijiosoa. 1551-2000. urteetan "Kantabriako Probintzia" bezala ezagutu dena. 2000.eko Probintzi Batzarrak aldatu zion izena, inolako beste aldakuntzarik gabe, Kantabria probintzia zibilak sortzen zuen nahasmendua saihesteko. Arantzazuko Probintzia honek Gaztela Berria ere bere baitan du.

ARO GARAIKIDEA (1789...). Aro hau bi gertaera kontrajarrik (Esklaustrazioak eta Izanberrikuntzak) definitzen du hein batean, eta, horren ondoren, 1940-1970.etako loraldiak. Bilakabide berria Frantziako Iraultzarekin hasi zen, Komentuak itxi araztean (1791) eta Hegoaldean 1833-1840.etako Esklaustrazioarekin; gero, 1851 eta 1859an ekin zitzaion Komentuen izanberritzeari, nahiz eta prozesu horrek bere etenak ere izan zituen (Hegoaldean, 1870ean; Iparraldean, 1880 eta 1903an). Geroztik Izanberrikuntzaren garapenak Kontzilioa arte gora egin zuen; 1970aren ingurutik, Euskal Herriko Institutu Erlijiosoak epealdi berri batean sartu ziren, arrazoi bat baino gehiagogatik.

ARO MODERNOA (1453-1789). Aro Modernoan, Bizkaikoa osatu ondoren, batez ere Gipuzkoan sartu ziren frantziskotarrak[ofm] (1501-1610), eta horrela osatu zuten ia euskal geografia osoa. Frantziskotar komentutarrak bazterturik (1567), Obserbantzia nagusitu zen erabat Euskal Hegoaldean. Bestalde, XVII. mendea frantziskotar kaputxinoena izan zen, Nafarroan hedapen deigarria lortuz. Denek ere XVIII.ean izan zuten fraide-kopuruz unerik jasoena, handik laster data ezberdinetan Euskal bi Aldeetan moztuko zena.

BIGARREN ORDENA: Ik. KLARATARRAK.

BIKARIOA. Komentu frantziskotarretan Nagusi-ordeari (Goardiano-ordeko edo ondokoari, alegia) deitu izan zaio honela.

DEFINITORIO: Ik. PROBINTZI KONTSEILARITZA.

DISCRETORIO: Ik. KOMENTU-KONTSEILARITZA.

ELISABETARRAK (OSE). Hirugarren Ordena Erregularreko moja frantziskotarrak. Herrietako seroratzaldeak elkartu eta biziera erlijiosora pasatzean, sarritan Sta. Elisabeten Erregla hirugarrendarra hartu zuten beren biziera moldatzeko. Honelako asko izan da Euskal Herrian, gerora sorkundetar edo klaratar bihurtu dena. Beste Ordena hauetara azkena pasatakoak 1960.etakoak dira (Oñatiko Sta. Ana, etab.). Gaur egun ez dago gure artean elisabetarrik, baina ezin ahantziak dira Euskal Herriko emakumearen historian.

ERDI AROA. Frantziskotarrena XIII. mendean sortutako Ordena erlijiosoa da, eta mende hartan bertan izan zituen Euskal Herrian bere lehenengo

Etxeak, batez ere Nafarroan (Iruñea, Zangoza, Tutera, etab.), Gasteiz eta Baionan, adibidez. Hurrengo bi mendeetan Bizkaia irabazi zuen, eta Gipuzkoan sartzen hasi zen.

ERREGLA. San Frantziskok bere fraideei hiru araubide eskaini zizkien guztien Anaiarterako: a) Ebanjelioetatik jasotako esaldi hautatuz moldatutakoa, eta Aita Santuak hitzez onartu ziona (1210). b) Santuak idatzi eta Anaiarteko Batzarrak 1221ean onartuta, baina Aita Santuak buldatu gabe geratu zena. c) Santuak proposatuta eta Aita Santuak Buldaz onartu ziona (1223). Azkeneko biak San Frantziskoren idazki-edizioetan ikus daitezke, baina 1223koa da indarrean dagoen Lehenengo Ordenako fraideen Erregla. Berau, komeni izan denetan, Aita Santuek ofizialki argitu eta azaldu izan dute. Hau da, ba, fraide frantziskotarren oinarri-oinarrizko legea eta bizi-araua: interpretatu egiten da, baina aldatu, sekula ez. Ik. KONSTITUZIOAK.

ESKLAUSTRAZIOA. Honela deitu izan zaio Europa eta Ameriketako Estatu ezberdinek XVIII-XIX. mendeetan abian jarritako Komentu-itxierari, fraideak klaustro edo Komentuetatik kanpora iraitzi zituelako. Euskal Herrian, Iraultza Frantsesak itxi arazi zituen lehenengoz Iparraldeko Komentu denak (1791), eta aurreko hamarkadetan egindako zenbait ahaleginen ondoren, 1833-1840.etan itxi ziren Hegoaldean fraideen Komentuak: hori da Penintsulako "Lehenengo Esklaustrazioa"; bigarrena, 1870ekoa izan zen, aurreko hamarkadan sortutako Komentuak itxi arazi zituena. Iparraldean, beste datetan gertatu ziren hurrengo Esklaustrazioak (1880, 1903). Kasu bakoitzean, erlijiosoek Izanberrikuntzarekin erantzun zioten Esklaustrazioari. Ik. IZANBERRIKUNTZA.

ESTATUTUAK. Frantziskotarretan[ofm] Probintziako arautegiari deitu izan zaio horrela, *municipales* izenlaguna gehituz, gainera: Arantzazuko Probintziako "Estatutos Municipales" (1719), adibidez.

FRAIDEA. Eskeko Ordenetako erlijiosoari eman izan zaio titulu edo izendapen-modu hau (beneditarrak, ostera, *monjeak* dira). Jatorriz, latinetik dator, eta *anaia* esan nahi du; erlijiosoen arteko senide-berdintasuna azpimarratzen du.

FRAIDEARTEA. Erlijiosoen lagunartea adierazteko erabili dugu liburu honetan hitz hau, eta erdarazko *Comunidad* edo *Communauté* hitzen parekoa izango litzateke, baina berezikiago Eskekoen Ordenetarako balio du.

FRANTZISKOTARRAK (OFM). Lehenengo Ordena frantziskotarreko fraideen Adar nagusia; obserbante, errekolekto, erreformatu eta ortozak bateginda eratu zen Institutu Erlijioso hau (Batasun Leondarra, 1897). Harez gero, XX. mendean berauek izan dira frantziskotar guztien artean gizonezkoen Ordena Erlijioso handiena. Ik. OBSERBANTZIA, KAPUTXINOAK, KOMENTUTARRAK.

GOARDIANOA. Frantziskotarren Komentuetako Anaia Nagusiari ematen zaio izen hau; izendapen-modu honen bidez, agintarien nagusitasuna baino halakoek Anaiekin behar duten zaintzaile-eginkizuna azpimarratu nahi izan zuen San Frantziskok, eta "Abade" edo "Priore" bezalako tituluak ez zituen nahi izan bere Anaiarteko Nagusientzat.

HIRUGARREN ORDENA; HIRUGARRENDARRAK. Herritar edo sekularrek mugimendu frantziskotarrean parte hartzeko duten tokian tokiko eta nazioarteko elkartasuna (erakunde bidez, Senitartean elkartuta baina erlijioso izan gabe). San Frantziskoren garaikotzat eman izan da Hirugarren Ordena frantziskotarra (1221), baina Aita Santuak bereziki berorrentzat onetsitako Erregla formala beranduagokoa da (1289). Leon XIII.ak laiko katolikoak elkartzeko erakunde egokientzat proposatu zuen frantziskotarren Hirugarren Ordena hau (1883), Erregla zaharra ere eguneratuz. Euskal Herrian ere hirugarrendar anitz izan da, batez ere XX. mendeko lehen erdian.

IZANBERRIKUNTZA, IZANBERRITZEA. Zerbait bere lehengo izate eta/edo izaerara eramatea. Hitz honekin adierazten da liburu honetan, erdaraz "Restauración/Restauration" hitzarekin aditzera ematen dena. Besteak beste, Historian une edo gertakari jakin batzuk aipatzean erabili izan da hitz hau: Iraultza-ondoko Europan 1814a ondorengo erregimen-ezarpena "Izanberrikuntza" izan zela esan ohi da; Espainian, "Izanberrikuntza kanobistaz" hitz egin ohi da (1876). Historia erlijiosoan, Institutu Erlijiosoak leheneratze horri ere "Izanberrikuntza" deitu izan zaio, hau da, Esklaustrazioa pasatu eta zenbait urtetara egindako Probintzia erlijioso, Komentu edo Monasterioen irekierari. Komentuen izanberritze hau da, izan ere, liburu honetako gai nagusi bat, Euskal Herrian XIX.aren bigarren partean eta berezikiago azken Gerrate Karlistaren ondoren garatuz joan zena. Izena eta beronen kideko aditz eta izenlaguna ere erabiltzen dugu: *izanberritu* (='restaurar, restaurer').

KANTABRIAKO PROBINTZIA. Ik. ARANTZAZUKO PROBINTZIA.

KAPITULUA: Ik. PROBINTZI BATZARRA, KOMENTU-BATZARRA.

KAPUTXINOAK (OFMCAP). Ordena frantziskotar bateko fraideak. Mugimendu frantziskotar orokorre-

ko zenbait joera eta balio berezikiago zaindu nahirik sortutako Institutu Erlijioso frantziskotarra (1525, 1528). Euskal Herrian hedapen ona izan du Ordena honek, Nafarroan batik bat, XVII. mendetik hona. XIX. mendeko Esklaustrazioa jasan ondoren Izanberrikuntza indartsua ezagutu zuen Ordenak gure artean (Iruñea, Lekarotz, Donostia, etab.). Kaputxinoak ez ziren "Batasun Leondarrean" sartu (1897), eta Ordena guztiz beregaina izaten jarraitu zen hauena, gaur arte. Ik. OBSERBANTZIA, KOMENTUTARRAK, FRANTZISKOTARRAK[ofm].

KLARATARRAK (OSC). Bigarren Ordena frantziskotarreko mojen Adar nagusia, Asisko Santa Klarak sortua (1212). Italiatik kanpoko lehenengo Monasterioa Iruñekoa izan zen (*a.* 1228). Klausura itxian bizi izan dira, eta Euskal Herrian Komentu edo Monasterio andana bat izan dute. Gaur egun 28 dira klaratarren Etxeak (Oñati, Bermeo, Agurain, Erriberri, etab.).

KOLEGIO SERAFIKOA. Ordenan eta Euskal Herriko frantziskotarren artean Fraidegaitegi edo Seminario Txikiari eman zitzaion izena (1909-1968); ondoko urteetan Seminario Frantziskotarra deitu zitzaion (1968-1990). Arantzazun eta Foruan (Bizkaia) egon ziren Ikastetxe hauek.

KOLEGIO, MISIOLARI -: Ik. MISIOLARI-KOLEGIOA.

KOMENTUA. Eskekoen artean hitz hau erabili izan da beren Etxeak adierazteko, beneditarren artean Monasterio erabili den bezala. Frantziskotarren artean, Komentuak egitura jakin bat du (etxebizitza, eliza eta gehienetan baratzea ere), eta hauetako Fraideartea ia beti Anaiarte Txikietakoa baino handiagoa izan ohi da.

KOMENTU-BATZARRA. Komentu bateko fraide guztien biltzarra; aholkuak eman eta erabakiak har ditzake. Aro Garaikidean, 1960.etako hamarkadan jarri zen indarrean erakunde hau. Komentu anitzetan, Komentu-Kontseilaritzako bilerak desagertu egin dira, eta Komentu-Batzarrak hartu du haren egitekoa. Inoiz (Komentu handienetan, alegia) bi organuak mantendu dira indarrean, gobernu-zereginean elkar osatuz.

KOMENTU-KONTSEILARITZA. Komentuaren gobernurako Anaia Goardianoari ematen zaion aholkulari-taldea (*Discretorio*), legeen arabera zenbaitetan kontsultatu beharrekoa eta indar erabakiorra ere izan dezakeena. Normalean, lauzpabost lagunekoa izan ohi da, eta Goardianoa eta Bikarioa ere Kontseilaritzakoak dira berez.

KOMENTUTARRAK (OFMConv.). Ordena frantziskotar bateko fraideak. Gaur eguneko fraide frantziskotarren hiru Institutu Erlijioso handietako bat, frantziskotar[ofm] eta kaputxino frantziskotarrekin batera. Erdi Aroan frantziskotarrak Komentusarea egin eta bertako bizimoldea finkatu ahala, "Komentutartasunak" eta "Komentutarrek" osatu zuten Ordena bakar hartako gorputz ofizial nagusia; berorren ondoan, XIV-XV. mendeetan, "Obserbantzia" eta "Obserbanteen" erreforma berria sortu zen; 1517an berau bihurtu zen Ordenako gorputz ofizial nagusi. Espainiako Monarkiak babes berezia eman zion Obserbantziari, Penintsulan bezala kolonietan. Hobespen horren ondorioz, Felipe II.ak artean geratzen ziren Hegoaldeko Etxe komentutarrak obserbanteen eskuetara pasarazi zituen (1567). Ondorioz, Nafarroara 1968an itzuli ziren arte, Euskal Herrian ez zen egon frantziskotar komentutarrik. Ik. OBSERBANTZIA, KAPUTXINOAK, FRANTZISKOTARRAK[ofm].

KONSTITUZIOAK. Ordenak bere gobernu orokorrerako eman izan duen lege-sorta, Kapitulu Jeneraletan onartua eta Aulki Santuak berretsia. Komeni izan denean aldatu izan dira Konstituzioak, eta XX. mendean ere hainbat moldaketa eta edizio izan dute Konstituzioek. Ik. ERREGLA, ESTATUTUAK.

KORUTARRAK. Apaizgai diren fraide ikasleei deitu izan zaie horrela, fraide apaizekin batera Koruko errezoak egitera behartuta zeudelako (*Breviarioa*). Filosofia eta Teologiako ikasleak izan ohi ziren hauek, normalean.

LEHENENGO ORDENA. San Frantziskoren Erregla buldatua (1223) jarraibidetzat duten fraide frantziskotarren Institutu Erlijiosoek osatzen dute "Lehenengo Ordena" deitua. Ik. FRANTZISKOTARRAK[ofm], KAPUTXINOAK, KOMENTUTARRAK; KLARATARRAK, HIRUGARREN ORDENA.

MINISTRO PROBINTZIALA, MINISTRO JENERALA. San Frantziskoren Ordenako Nagusiak Ministrari (latinezko *ministrare* aditzetik dator hitza) izan behar zuten, hau da, *zerbitzariak*. Titulu hau eman izan zaie bereziki Probintziako Nagusiari eta Ordena osoko Nagusi Jeneralari.

MISIOLARI-KOLEGIOA. Misio-lurraldeetarako nahiz Herri-Misioetarako sortutako Komentu bereziak dira Misiolari-Kolegioak. Penintsulako lehenengoa Sahagún-en ireki zen (1680). Euskal Herriko frantziskotarren biak XVIII.ekoak dira, eta garrantzi handikoak gertatu ziren (Erriberri, 1745-1836; Zarautz, 1746-1840). Araubide berezia zuten honelako Etxeek, betiere Misio-lanetan zuten zereginari begira pentsatua.

MOJAK, LEJAIMEAK. Frantziskotar mugimenduan beti egon da emakumezkoen Erakunderik, batzutan komentu itxietan bilduta, eta bestetan, Etxe erlijioso irekietan. Lehenengoetakoak dira Erdi Arotik hasita eratuz joan diren klaratar, sorkundetar

eta elisabetarrak, eta Aro Garaikidean Kongregazio Modernoak agertu dira (irakaskuntzan, osasun-zerbitzuetan, etab.). Denak ere frantziskotarrak.

Obserbantzia; Obserbanteak (OFMObs). Erreforma eta Ordena frantziskotar baten izena, eta berorretako fraideak. Lehenengo Ordenaren barruan, Obserbanteen erreforma bizkorki garatu zen XIV-XV. mendeetan, XVI.ean guztiz nagusitu zen arte. 1517an Obserbantziari eman zitzaion Lehen Ordenako fraideen Burutasun teorikoa, eta beronek hartu zuen handik aurrera berorri zegokion jatorrizko izen soila ere: "Ordo Fratrum Minorum" (OFM: Anaia Txikien Ordena). "Obserbantzia" Batasun Leondarrean sartu zen (1897), beste hiru Ordena frantziskotarrekin batera (errekolektoak, erreformatuak eta ortozak), eta denen artean osatu dute gaur arte frantziskotar[ofm] bezala ezagutzen ditugunak (Arantzazuko Probintzia eta Santutegikoak, adibidez, Euskal Herrian). Ik. Frantziskota-rrak[ofm], Komentutarrak, Kaputxinoak.

Probintzi Batzarra. Hiru urtetik behin bildu ohi den Probintziako biltzarra; berau da Probintzia erlijiosoko gobernu-erakunde gorena. Probintziako Kontseilariek, Etxeetako Goardianoek eta fraide guztien artean guztiek hautatutako zenbait ordezkarik osatzen dute Probintzi Batzarra edo Kapitulu Probintziala. Beronen eginkizunen artean daude Ministro Probintziala eta beronen Kontseilariak hautatzea, Komentuetako Goardianoak izendatzea, eta Probintziako arazo nagusienetan erabakiak hartu edo gobernu-irizpideak ezartzea. Hirurtekoa amaitzean, Nagusiek Batzar honen aurrean eman behar dute beren gobernaldian egindakoaren kontu.

Probintzi Kontseilaritza. Anaia Ministro Probintzialari eman ohi zaion Kontseilaritza *(Definitorio)*; Probintziako gobernu-kontseilua da, eta legeen arabera aholkuak eman ez ezik erabakiak hartu ere egin dezake. Probintziako Ministroa eta Kustodio edo Bikarioa berezko Kontseilariak dira.

Probintzia. Frantziskotarren Ordena Erlijioso edo Institutu Erlijiosoak Probintzi barrutitan eratuta daude bere bizitza eta gobernurako: Komentuen barruti-eremuek osatzen dute Probintziako lurralde geografikoa. Euskal bi Aldeetan, frantziskotarrak[ofm] Aro Garaikidean Probintzia erlijioso banatan antolatu dira: Hegoaldea Arantzazuko (Kantabriako) Probintziakoa izan da, eta bere Ministro Probintzialak, Zarautzen eta Arantzazun izan ondoren, Donostian du orain egoitza ofiziala (1925...); Iparraldea, ostera, Frantziaaldeko Probintziei atxikia egon da, Ministro Probintzialaren egoitza Euskal Herritik kanpo zuela.

Senitartea. Fraide nahiz lekaimeen lagunartea. Gizonezko edo emakumezkoena berdin izenda daiteke terminoarekin; bi Senitarte-motak elkarrengandik bereiziz izendatu nahi direnerako, *Anaiarte* eta *Abizparte* dauzkagu euskaraz.

Serora. Eliz zerbitzuetara emandako emakumeak deitu izan dira horrela. Beste herrietan bezalatsu, Euskal Herrian ugariak izan dira zerbitzari hauek, zeregin ezberdinetan enplegatuak: ermitazainak, erizainak, eliz zaintzaileak, katekistak, etab. Erdi Arotik hasita, serorak taldean elkarrekin bizitzen ere jarri ohi ziren, gerora beharbada botoak egin eta klausurara bildurik biziz. Euskal Herriko frantziskotar moja-komentu gehienek jatorri sozial hori izan zuten.

Sorkundetarrak (OIC). Moja frantziskotarrak; Sta. Beatriz Silva-koak sortutako moja itxien Ordena (berariazko Erregla: 1511). Euskal Herrian hainbat Komentu edo Monasterio izan dute lekaime hauek (lehenengoa, Bilboko Sorkundekoa, 1614). Une honetan, 9 Komentu dituzte sorkundetarrek Euskal Herrian.

IZEN ETA KONTZEPTUEN AURKIBIDEA

Garrantzizkoa:
Liburuan laukietan eman ditugun kargudunen izenak ez dira hona bildu

Komentuetan kargudun izandako Nagusi, Errektore, Zuzendari, Parroko edo Eliz Arduradunen izenak liburu barnean daude, herriz herri laukietan emanda, baina aipu horiek ez ditugu zerrenda honetara berriro ekarriko. Gerta daiteke, adibidez, Pedro Aranguren bezalako nortasun ezagunekoren bat edo beste zerrenda honetan agertu ere ez egitea, nahiz eta berori, dakigunez, laukietan dozena-erdiren bat bider agertzen den.

Abaitua, Serafin: 88, 281.
Abando: 6, 29, 30, 46, 83, 105, 106, 107, 108, 114, 116, 275.
Abaroa, Justo: 95, 101, 281.
Abornikano (Araba): 8, 186, 189.
Acebedo, Casimiro Díaz de: 183, 186.
Adoración Nocturna: ik. Gau-Adorazioa, Gauezko Adorazioa.
Aduriz, Jose Antonio: 255, 256.
AEK: 252.
Agirre (lantegia): 252.
Agirre, A.: 223.
Agirre, B.: 223.
Agirre, Esteban: 278.
Agirre, Felix: 140.
Agirre, Jerman: 95.
Agirre, Jose Ignazio: 272.
Agirre, Luis: 77.
Agirre, Patxi (Frantzisko): 77, 101, 209, 214.
Agirrebaltzategi, Paulo: 16, 255, 256.
Agirrebengoa, D.: 138.
Agirregabiria, Eulojio: 77, 266.
Agirresarobe, Jose Maria: 251, 252, 281.
Agirretxe, Eujenio: 59, 79, 148, 236, 238, 281.
Agirretxe, Jose Luis: 279, 281.
Agirrezabala, Luis: 16, 36, 50, 80, 158, 176, 226, 241, 282, 288.
Aguilera, La: Ik. Aguilera.
Agurain (*Salvatierra*): 71, 74, 181, 291.
Ahizparteak, Moja frantziskotarren -: 67, 91, 99, 147, 148, 151, 180, 187, 192, 197, 277, 279. Ik. Ahizparterik duten herrietako soslai frantziskotarrak.
Aiestaran, Sabino: 140, 145.
Aitortzak: Ik. Penitentziako Sakramentua.
Aizarnazabal: 11, 12, 34, 224.
Aizkorri: 279.
Aizpurua, Bartolome: 238.
Ajangiz: 175.
Ajuria, Dionisio: 175.
Ajuria, Karmelo: 162-163, 164.
Ajuria-auzokoa, Dionisio: 173.
Ajuriagojeaskoa, Manuel: 238.
Akitaniako Probintzia erlijiosoa: 36, 51, 118, 120, 124, 125, 128, 173, 253, 173.
Akize (Dax): 22, 23, 120.
Alameda y Brea, Cirilo (Ministro Jeneral eta Kardinala): 96, 182, 222.
Albaina: 23.
Albelda: 24.
Albeniz, D.: 73, 78.
Alberdi, Jose: 212.
Albisu, Jose Luis: 77.
Albiz: 8, 175.
Albizu, Iñaki: 148, 240.
Aldeacueva: 265.
Aldudeak: 138, 204.
Aldundiak: 71, 74, 78, 92, 96, 113, 182, 205, 222, 248, 283,
Alemania: 55, 79.
Alfabetatzea: 115, 128, 252.
Alfaro: 49, 59.
Alhama, Josefa: 109.
Aljeria: 44.
Alkiza: 209.
Aloña: 70, 237.
Altube, Fermin: 164, 165, 238, 272, 285.
Altuna, M. A. (donatua): 223.
Alustiza, Ildefontso: 86, 238, 239, 281.
Alustiza, Julian: 77, 79, 80, 216.
Alustiza, Luis (ark.): 80.
Alvarez de Eulate, X.: ik. Eulate, Xabier A. de
Amara: 131.
Amerika: 21, 34, 36, 49, 51, 54, 55, 56, 59, 124, 253, 290.
Amezua (organugilea): 217.
Amiens: 120.
Amikuze (Nafarroa Beherea): 22, 117, 129.
Amunabarro (Beasain): 283.
Amurrio: 99.
Amuskotegi, P.: 219.
Anaiarte Txikiak: 6, 11, 12, 37, 57, 60, 61, 62, 106; bakoitza, herriz herri: 245-279.
Anaitasuna (aldizkariak): 115, 216, 234, 241.
Anaitasuna (Anaiarte Txikia): 128, 253, 284.
Anasagasti, Justo: 206.
Anasagasti, Karlos (gotzaina): 103.
Anasagasti, Pedro: 103, 283.
Anda (Araba): 8.
Andagoia (Araba): 8.
Andaluzia: 118, 182, 199, 275.
Andersen, J. B.: 131.
Andoain: 209.
Andoin, Mariano García de: 173, 176.
Andonegi, Xabier: 116.
Andosilla: 165.
Anoeta: 209.
Antigua (Donostiako auzoa): 30, 131, 141.
Antoniana Txikia: 227, 228.
Antoniano Ikastetxea: 227, 228, 240, 288
Antoniotar Gaztedia: 7, 101, 141, 143, 236, 240, 277, 288.
Antoniotar Ospitalariak: 192.
Antso Jakituna: 179.
Antuñano, Manuel (Komisari Probintziala): 99.
Anuntziazioa (Gasteizko kapera): 41.
Añibarro, Pedro Antonio: 221, 230, 256.
Añorbe, Celestino: 180.
Aperribai, Bernardo: 79.
Apraiz Buesa, E. (ark.): 179, 180, 181, 182, 183, 184, 185, 187.

Apraiz kaleko Egoitza (Gasteiz): 188, 189.
Apraiz, Kastor: 109, 110, 112.
Aquitaine: ik. Akitania.
Araba: 12, 22, 23, 25, 26, 30, 32, 39, 40, 46, 48, 64, 78, 166, 172, 179, 180, 181.
Arabaolatza, Juan: 88.
Aragoi: 48, 54, 151, 164, 182.
Araia (Araba): 78.
Aralarkoa, San Migel (Nafarroa): 24.
Aramaio (Araba): 78.
Aramendi, Juan: 77.
Arana, J. F: 201.
Arana, Jose Ignazio: 74.
Aranberri, Iñaki: 187.
Aranburu, Jose Maria: 77.
Aranguena, Domingo: 226.
Aranguren, Manuel: 214, 215, 281.
Aranjuez: 96.
Aranoa, Juan: 135, 138.
Arantzazu Argitaletxea: 80.
Arantzazu/Aránzazu (aldizkaria): 79.
Arantzazu: 5, 6, 7, 8, 11, 12, 13, 16, 17, 32, 35, 36, 37, 38, 39, 40, 42, 46, 47, 48, 49, 50, 51, 52, 54, 55, 56, 58, 59, 60, 64, 67, 69, 70, 71, 72, 73, 74, 78, 80, 81, 84, 87, 88, 90, 91, 96, 97, 99, 101, 106, 111, 124, 127, 132, 140, 141, 142, 143, 144, 152, 157, 158, 165, 166, 170, 171, 173, 176, 197, 199, 202, 204, 208, 209, 212, 216, 217, 219, 222, 224, 226, 228, 230, 234, 235, 236, 252, 261, 163, 271, 272, 272, 277, 278, 279, 281, 282, 283, 288, 289, 290, 292.
Arantzazuko Artxiboa: 109, 148.
Arantzazuko Basilika: 79, 81, 142, 214.
Arantzazuko Frantziskotar Probintzia: 5, 15, 36, 39, 42, 47, 48, 49, 50, 55, 56, 74, 83, 84, 96, 152, 157, 166, 170, 198, 206, 208, 209, 211, 216, 219, 224, 217, 180, 188, 193, 199, 208, 209, 224, 229, 256, 261, 281, 282, 286, 289, 292.
Arantzazuko Herri-Eskola: 283.
Arantzazuko Ikastegia (Filosofia, Teologia): 158, 159, 229.
Arantzazuko Komentua/Santutegia: 16, 37, 42, 64, 69, 70, 71, 72, 73, 74, 78, 79, 80, 8135, 236, 237, 247, 271, 277, 282, 283, 291, 292.
Arantzazuko Seminarioa: 79, 81, 100, 176, 188, 230. Ik. Foruko Seminarioa.
Aranzabe, Jesus Maria: 116.
Araotz (Gipuzkoa): 83.
Araozkoa, Juan: 83.
Aras (Nafarroa, Biana ondoan): 30.
Areatza (Bizkaia: Arratia): 172.
Areatza (Muxika): 175.
Arenaza, Agustin Pérez de: 77.
Areso, Aita Jose: 13, 15, 34, 35, 118, 119, 121, 122, 126, 129, 154, 156, 157, 228, 285, 286.
Areta, L. M.: 287.
Argaia, Jazinto (gotzaina): 247.
Argantzun (Araba:*La Puebla de Arganzón*): 46.
Argentina: 50, 55.
Ariceta: Ik. Aritzeta.
Aristi, Juan: 95, 100, 101, 281, 283.
Aristi, Juan Jose: 269.
Aritzeta, Lukas: 15, 153, 154, 155, 156, 157, 158, 159, 162, 163, 166, 167, 168, 285, 286.
Arizeta: Ik. Aritzeta.
Ariznabarra (Gasteizko auzoa): 8, 62, 179, 180, 186, 187, 188, 189.
Arkaia, Manuel: 183.
Armentia (gotzaindegia): 22.
Armentiako Parrokia: 187.
Arnotegiko Ermita, Andre Mariaren -: 267, 268.
Arozena, Enrike: 77, 80.
Arozena, Jose Maria: 77.
Arraiago, Luis: 77.
Arrasate: 6, 12, 35, 37, 38, 46, 53, 60, 78, 83, 84-90 , 197, 214, 222, 281, 283.
Arratia, Pilar: 109.
Arrazola, Juan Jose: 164.
Arregi Arrimarlo, Jose Maria: 79, 101.
Arregi Guridi, Jose Maria: 140, 145.
Arregi Olaizola , Joxe: 187.
Arregi, Benito: 238.
Arregi, Elias: 73, 74.
Arrese-Beitia, Felipe: 78, 109.
Arriaga, Iñaki: 173.
Arriagako Kofradia: 179.
Arriagako Kofradia: 179.
Arriaran (Beasaingo auzoa): 9, 248, 249, 279.
Arrieta, Juan Jose: 281.
Arriluzea, Maurizio Pz. de: 166.
Arrizabalaga, Jose Luis: 87.
Arroa (Gipuzkoa): 34.
Arrue, Gregorio: 78, 223.
Arrue, Jose: 79, 101, 176, 217.
Arrue, Juan Luis: 163, 172.
Arruti, Antonio: 76, 79, 99, 167, 176, 217, 230, 234, 256, 286, 287, 288.
Arruti, Dionisio: 238, 239, 281.
Arruti, Patxi/Frantzisko: 95, 101, 281.
Artaxoa: 164, 165.
Artebakarra (Derio): 106.
Artola, Jesus Maria: 238, 239, 281.
Artola, Miguel: 34.
Artzallus, Teofilo: 216.
Artziniegako artziprestazgoa: 78, 110.
Asia: 51, 54, 55.
Askasibar, Felix: 276.
Askizu (Getariako auzoa): 239.
Asociaciones: Ik. Elkarteak.
Astaburuaga, Martin: 264.
Astarloa, P.: 106, 256.
Asteasu (Asteasu): 209.
Astigarraga (Gipuzkoa): 209, 259.
Astigarreta (Gipuzkoa: Beasain): 248, 249, 279.
Astigarreta (Gipuzkoa: Beasain): 9, 248
Ataun: 209.
Atharratze (Zuberoa): 118.
Atotxa (Donostiakoa): 131, 133, 138, 140, 141, 142, 143, 144, 145, 281, 285.
Atxukarro, Jose: 77.
Aubert, R.: 32.
Aurrekoetxea, Alberto: 101.
Auzmendi, Rikardo: 238.
Axular, Pedro: 29.
Azantza Egoitza (Lapurdi: Kanbo): 118.
Azkoien/*Peralta* (Nafarroa):166.
Azkoitia: 168, 197, 236.
Azkue Goñi, Jose Maria: 230.
Azkue Irastortza, Jose Maria: 173.
Azkue, Roman: 95.
Azpeitia: 34, 224.
Azpiazu, L.: 236.
Aztiria, Frantzisko Maria: 163.
Azurmendi, Joxe: 255, 256.
Badaia kalea (Gasteiz: klaratarren komentua): 180.
Baertel, Daniel: 74, 163.
Baiona/Bayonne/Bayona: 12, 22, 23, 25, 26, 29, 30, 33, 44, 48, 46, 64, 71, 117, 118, 119, 120, 121, 130, 191, 197, 221, 226, 285, 290
Baja Navarra: ik. Nafarroa Beherea.
Baldatika (Bizkaia: Forua): 173, 177.
Balmasedako artziprestazgoa: 99.
Bandera Antoniana (aldizkaria): 241.
Barakaldo: 275.
Barandika, Gil: 103, 166.
Barasoain: 165.
Barcelona: 26.
Barrena, Hilario: 239.
Barrena, Juan A.: 173, 281, 287.
Barrenetxea, Eduardo: 215.
Barria: 181.
Barrika (Bizkaia: 170.
Barronea, Jesus: 77.
Barrundia (Araba): 74.
Basabe, Luis: 110, 113.
Basaburuak (Nafarroa): 138, 204.
Basileako Bakea (1795): 181.
Basilika (Arantzazu): Ik. Arantzazuko Basilika.
Bastida/*Labastida* (Araba): 12, 29, 30, 40, 46, 47, 181.
Basurto (Bilbo): 106, 112.
Bataioak: 145, 214, 239, 273.
Batasun Leondarra (1897): 29, 290, 291. 292.
Baztan: 22.
Beain, Bitorio: 77.
Beasain: 9, 38, 60, 62, 209, 247, 248, 249, 250, 278, 279, 281, 283.

Bederatziurrenak: 63, 81, 111, 140, 144, 63, 212.
Begoña: 30, 106, 111, 112
Beire-ko parrokoak: 7, 163, 168.
Belgika: 55.
Bellegra-ko Komentua (Italia): 118.
Bellemur, Xalbat: 126, 127, 128, 253, 254.
Beloki, Santos: 127, 128, 153, 281.
Beltran de Heredia, Benito: 188.
Beneditarrak: 24.
Beneragarriak (Fraide -): 7, 155, 157, 162.
Beneragarrien Etxea: 11, 34, 154, 271.
Bengoa, Eliseo: 172.
Bengoetxea, Anbrosio: 200, 205, 207, 208, 209, 210, 211.
Bengoetxea, Andres: 238.
Beni, El (Bolivia): 50.
Beobide, Krispin: 202.
Beobide, Manuel Antonio: 118, 121, 122, 202.
Beotibar (Tolosako pelotalekua): 198, 200.
Berasarte, Florentzio: 238.
Beraza, Manuel: 16, 36, 80, 158, 176, 226, 228, 238, 241, 243, 281, 282, 288.
Berdun, E.: 166.
Bereziartua, Iñaki: 214, 216, 279.
Bergara: 78.
Bergarako Besarkada: 170.
Beristain, Iñaki: 77, 81, 238,
Beristain, Jose Maria: 77, 238.
Bermeo: 6, 11, 15, 35, 36, 38, 40, 44, 46, 47, 51, 58, 59, 60, 61, 91, 92, 93, 94, 95, 96, 97, 99, 100, 101, 102, 103, 110, 169, 170, 195, 199, 223, 224, 283, 284, 291.
Bernales: 265.
Berriatua, Imanol: 101, 102, 115.
Berrobi: 9, 209, 213.
Berrogain, J.-P.: 126.
Bessagnet, Marie-Albert: 126.
Beterri: 209.
Biain, Agustin: 228, 238, 240, 281, 288.
Biain, Jesus: 113, 116.
Biain, Salvador: 116.
Biana (Nafarroa): 30, 46, 48, 192.
Biarno: 253.
Biasteri/*Laguardia* (Araba): 180.,
Bibliografia: 282-288.
Bidasoaldea: 138.
Bidaurre, M.: 236.
Bidaurreta (Oñatiko auzoa): 10, 11, 38, 63, 67, 73, 271, 272, 273, 284.
Bikuña, Nikolas: 62, 138.
Bilbao, Biotza: 95.
Bilbao, Esti: 95.
Bilbao, Felix: 173.
Bilbao, Jesus: 287.
Bilbao, Jose Maria: 140.
Bilbao, Luis Antonio: 103, 140.
Bilbo (Uria): 101, 102, 105, 147, 254.
Bilbo-Errekaldeberriko Anaiartea: 9, 38, 60, 251-252, 281.
Bilbo-Iralabarriko Komentua: 6, 12, 14, 35, 38, 46, 59, 62, 80, 105, 106, 107, 109, 113, 115, 193, 195, 196, 219, 281, 284.
Bilboko artziprestazgoa: 99.
Bilboko Diozesia: 22, 102, 115, 261, 265
Bilboko San Frantzisko: 20, 30, 39, 40, 64, 94, 180, 182, 197, 222, 224. Ik. Santimamine, Bilbo-Iralabarri.
Bilboko Sorkundea: 292.
Billabona (Gipuzkoa): 209.
Biotz Alai (taldea): 113.
Biotzari (Nafarroa: *Bigüezal*)): 108.
Bizkaia: 12, 22, 26, 30, 32, 35, 39, 40, 46, 60, 63, 80, 91, 92, 94, 96, 99, 105, 109, 170, 172, 206, 221, 222, 261, 265, 289, 290, 291.
Blázquez, Ricardo (gotzaina): 284.
Blocklandt, A.: 227, 231.
Bolivia: 55.
Boloki, B.: 129.
Bonaparte, Jose: 33, 92, 107., 92, 154, 169, 221
Bonaparte, Louis Lucien: 97, 230.
Bonnat, J.-B.: 129.
Bordale: 44, 118, 124.
Bortziriak (Nafarroa): 22, 138, 144, 202.
Burceñako mesedetakoak: 284.
Burgos-ko Diozesia: 22
Burgos-ko Eliz Probintzia: 22.
Burgos-ko Hiria: 54.
Burgos-ko Probintzia erlijioso frantziskotarra: 30, 31, 48, 49, 64, 151, 154,
Burgos-ko probintzia: 42 , 49, 54, 229.
Busturia (Bizkaia): 177.
Cadena y Eleta, Jose (gotzaina): 202.
Cádiz: 33.
Calabria, Kristina: 172.
Canalejas, José: 49.
Cánovas del Castillo, Antonio: 74, 157.
Cantabria Franciscana (aldizkaria): 284.
Cantabria, Prov. Franciscana de: ik. Arantzazuko Frantziskotar Probintzia.
Caritas: 115, 144, 196, 216, 240, 265, 268.
Carranza: Ik. Karrantza.
Carrión, Luis: 49.
Caspe-ko Komentua: 48.
Centros de culto: Ik. Elizguneak.
Cicognani (Nuntzioa): 110.
Claeis, P. (margolaria): 227.
Claros, J. M.: 155.
Clémente, Dosithée: 122.
Colegio Antoniano: Ik. Antoniano Ikastetxea.
Colegio Seráfico: Ik. Arantzazuko Seminarioa, Foruko Seminarioa.
Combes, E.:123.
Cristobaldegui: Ik. Kristobaldegi.
Curros, G.: 126.
Deba: 83. Ik. Sasiola.
Dedieu, Hugues: 15, 118, 119, 122, 123, 124, 125, 126, 284.
Definitorio: Ik. Probintzi Kontseilaritza.
Derio-Artebakarra: 106.
Desamortizazioa: 45, 74, 84, 170, 183, 184, 204.
Deustua: 105, 107, 116, 189, 252, 255.
Diozesiak: Ik. Donostia, Bilbo, etab.
Diriart (Donapaleuko notarioa): 121.
Discretorio: Ik. Komentu-Kontseilaritza.
Domintxaine/*Domezain*: 9, 60, 253, 254, 284.
Donapaleu: 7, 14, 33, 34, 35, 36, 38, 44, 61, 64, 117, 118, 119, 120, 121, 122, 123, 124, 127, 128, 129, 130, 154, 157, 228, 252, 253, 254, 284-285.
Donatuak: 93, 154, 222, 223, 226.
Donemiliaga Kukullakoa/*San Millán de la Cogolla*: 24, 47, 224.
Donibane-Garazi (Nafarroa Beherea): 117.
Donibane-Lohizune (Lapurdi): 29, 46, 70, 121, 122, 138.
Donostia Irratia (*R. San Sebastián*): 80.
Donostia (Hiria): 74, 80, 135, 138, 140, 208,
Donostia-Egia (Atotxa Komentua): 7, 12, 35, 37, 38, 46, 58, 62, 63, 64, 66, 101, 103, 131, 135, 168, 193, 198, 206, 234, 285.
Donostia-Jakineko Anaiartea: 9, 38, 255-256.
Donostia-Kaialde: 9, 38, 257, 281.
Donostiako Artziprestazgoa: 138.
Donostiako Diozesia: 22, 84, 278.
Donostiako Seminarioa: 189.
Donostialdea: 138, 144.
Dorronsoro, Juan Migel: 279.
Duclos, Bertrand: 128.
Dulantzi/Alegría de Alava: 74, 78, 181.
Durango: 7, 99, 147, 172, 178, 268, 281, 285.
Durban, L.: 129.
Ebanjelizatzea: 115, 196. Ik. Pastorala.
Ebro: 24, 49.
Egia-Atotxa: Ik. Donostia-Egia.
Egiguren, Jose Anjel: 276., 281.
Egiluz, Jose Maria: 73.
Egiluz, Julio: 109.
Egues: 268.
Ehariko klaratarrak (Gasteiz): 180.
Eibar: 34, 101, 181, 197, 224
Eizagirre, G: 204.

Eizagirretarrak (Zarautz): 234.
Elantxobe: 178.
Elcid, Daniel: 158.
Eldua (Gipuzkoa): 9, 213, 214.
Elduain (Gipuzkoa): 209.
Elejabarriko klaratarrak (Bilbo-Basurto): 106.
Elgoibar (Gipuzkoa): 12, 222, 46, 236.
Elisabetarrak, Moja frantziskotar -: 67, 147, 277.
Elixondo, Maddalen: 126.
Elizak (erakundeak): 22, 23, 28, 44, 64, 212.
Elizak, Komentuko (eraikina): 41, 61, 68, 70, 85, 89, 94, 97, 111, 123, 133, 134,138, 153, 156, 172, 193, 200, 201, 202, 203, 204, 205, 220, 225, 226, 249. 259, 261.
Elizbarrutiak: Ik. Gotzainak, eta Diozesiak Gotzaindegien hiri-izenetan.
Elizegi, Juan: 77.
Elizguneak: 89, 189, 214, 215, 216, 237, 238, 239, 240, 250, 259, 261.
Elkano (Zarauzko auzoa): 239.
Elkarteak, Eliz -: 8, 9, 50, 59, 88, 101, 128, 141, 142, 143, 168, 177, 209, 210, 212, 214, 226, 228, 236, 257.
Elortza, J. M. 135.
Elortza, Jose Luis: 187, 189.
Elustondo, Jose Agustin: 148, 281.
Enkartazioak, Enkarterriak: 12, 259, 265.
Epekapena (*periodización*): 14, 21, 35, 36, 61, 138,
Epelde, Jose Domingo: 101, 230.
Epelde, Jose Esteban: 42, 74, 78, 163, 171, 224, 236
Eraikinak, Komentuetako -, orokorrean: 7, 8, 12, 16, 45, 46, 58, 62, 78, 86, 87, 99, 103, 119, 132, 138, 141, 148, 157, 158, 167, 169, 171, 176, 178, 183, 184, 192, 197, 199, 200, 202, 204, 223, 226, 227, 228, 229, 257.
Eraikuntza, Komentuen -: 58, 79, 80, 81, 119, 121, 127, 227, 228, 250,
Erakunde zibilak: 184, 239, 255, 257.
Erakundeak, Eliz -: 7, 14, 23, 25, 28, 29, 34, 62, 64, 67, 83, 117, 141, 147, 157, 188, 255, 285, 290, 291, 292. Ik. Elkarteak.
Erbestea(k): 50, 51, 52, 53, 54.
Erbin, Jean: 253.
Erdozaintzi-Etxart, Manex: 126, 127, 128, 129, 253, 254, 284.
Erezuma, Benjamin: 116.
Ermita: 23, 261, 262, 267, 268,
Errandonea, Migel: 140, 267.
Errasti, Eleuterio: 77.
Erreglak: Sta. Elisabetena, 289; Hirugarren Ordenakoak ,211, 290; Klaratarrenak, 147;San Agustinena, 277; San Frantziskorenak, 40, 290, 291; San Fruktuosorena , 24; Sorkundetarrena 292.
Errekaldeberri: 9, 12, 38, 60, 281.
Errekaldeberriko Anaiartea: Bilbo-Errekaldeberriko Anaiartea .
Errekolektoak: Ik. Frantziskotar Errekolektoak.
Errektoreak, Seminarioko -: Arantzazukoak, 81-82; Forukoak, 174.
Errenteria (Gernika): 170.
Errenteria/Orereta (Gipuzkoa): 10, 12, 38, 42, 60, 62, 197, 281.
Errepublika: 26, 35, 80, 121, 123, 124.
Erretablo: 84, 200, 209, 210, 211, 226,
Errezil: 236.
Erribera (Nafarroa): 22, 151, 154, 163.
Erriberri/*Olite*: 7, 11, 12, 35, 36, 38, 46, 47, 48, 59, 60, 61, 151, 152, 153, 154, 155, 156, 157, 158, 159, 160, 164, 165, 166, 167, 168, 192, 193, 281, 291.
Erriberriko Ikastegia: 157, 166-167.
Errigoiti (Bizkaia): 8, 175, 177.
Errioxa: 24, 25, 48, 49, 50, 78, 164
Errioxako Donemiliaga/*S. Millán de la Cogolla*: 25, 97.
Erroma: 24, 33, 34, 41, 42, 47, 88, 96, 109, 118, 121, 157, 187, 202, 224, 228, 235, 271.
Erromesak: 8, 64, 70, 74, 77, 88, 101, 129, 142, 164, 205, 208, 209, 236, 237.
Erromesaldiak: Ik. Erromesak.
Errosarioko kaperak: 74.
Errotxapea Iruñea): 191.
Eskeko Ordenak: 5, 23, 25, 27, 126, 165, 289, 290.
Esklaustratuak: 33, 45, 73, 99, 154, 163, 201, 223,
Esklaustrazioa: 34, 47, 48, 49, 74, 86, 92, 98, 99, 127, 162, 169, 171, 186, 210, 221, 242, 271, 277, 290, 291.
Eskolak (Komentuetakoak eta kanpokoak): 7, 27, 57, 60, 70, 73, 78, 81, 84, 88, 94, 99, 100, 101, 115, 126, 128, 132, 159, 165, 166, 167, 191, 200, 227, 228, 236, 237, 239, 240, 276.
Eskolapioak: 157, 216.
Eskolaurrea: 228, 240.
Eskualdeak, Euskal Herriko -: Hegoaldea, Iparraldea, Herrialdeak, Tolosaldea, Amikuze, Bortziriak, Goierri, Basaburua, etab.
Esnal, Luis: 77.
Esnaola, Anastasio: 234, 238.
Esnaola, Jose Migel: 215.
Espainia: 29, 33, 34, 55, 117, 124, 179, 202, 230, 290, 291.
Espartero, Baldomero: 34, 95.
Espartza (Nafarroa): 267-277, 281.
Espejo: 12, 171.
Espoz y Mina, Frantzisko: 154.
Estarta, Mariano: 34, 41, 42, 47, 73, 74, 96, 97, 148, 223, 282.
Estatistikak: 5, 31, 32, 50, 52, 55, 58, 88, 111, 165, 230.
Estatutos Municipales (1719): 39, 197, 290.
Estatutuak: 41, 61, 121, 290.
Estivariz, Apolinar Mz. de: 164.
Etxabe, Txopi: 95.
Etxaniz, P.: 216.
Etxebarria, Bitor: 140, 145.
Etxeberri Sarakoa, Joanes: 243.
Etxeberri, J. B.: 128.
Etxeberria, Andres: 77.
Etxeberria, Jose Agustin: 238, 239
Etxeberria, Jose Kruz: 223, 230.
Etxeberria, Joseba: 16, 77, 281.
Etxebeste, Iñaki: 140, 141.
Etxegarai, Karmelo: 78.
Etxehandi, Martzel: 129.
Etxekopar, Auguste: 119.
Etxenagusia, Tomas: 73.
Etxezarraga, Bonaventura: 96.
Etxezarreta, Juan: 77.
Eulate, Xabier Alvarez de: 79, 102, 143, 164, 165, 166, 167, 188, 194, 195, 227.
Europa: 21, 24, 30, 33, 51, 221, 290.
Euskadi Irratia: 81.
Euskal Herria: 22, 30, 50, 52, 54, 221.
Euskaltegia, "Juan Mateo Zabala" -: 115.
Euskaltzaindia: 115.
Euskara: 14, 81, 88, 115, 122, 125, 163, 176, 206, 215, 230, 286, 289, 292.
Ezeiza, Anjel Maria: 256.
Ezkerraldea (Bizkaia): 110, 275.
Ezkontzak: 214.
Faido (Araba): 23.
Fernández
Filosofia: Ik. Arantzazuko Ikastegia, Erriberriko Ikastegia.
Fitero: 24.
Florida Parkea (Gasteiz): 180.
Forua: 7, 35, 36, 37, 38, 46, 58, 59, 60, 61, 94, 103, 166, 169, 170, 172, 173, 174, 175, 176, 177, 178, 281, 282, 287,
Foruko Seminarioa: 8, 80, 174, 176, 230. Ik. Arantzazuko Seminarioa.
Fradua (arkitektoa): 176.
Frantzia: 11, 25, 26, 29, 32, 34, 44, 117, 118, 119, 120, 228, 129, 154, 289.
Frantziskotar Errekolektoak: 29, 40, 56, 61, 183, 219, 290, 292.
Frantziskotarrak: *passim*.
Gaintza, Jorge: 140.
Galardi, Aita -: 132.
Galarraga, Jose: 101, 188, 239.
Galdos, Jose Maria: 215.
Gandarias, Jose Antonio: 173.
Gandiaga, Bitoriano: 16, 80.

Garaialde, Jose Manuel: 84, 88, 148, 272.
Garaialdea, Bernardo: 164.
Garamendi, Bitor: 103, 140, 141, 284.
Garate, Jose Antonio: 95, 205, 208, 209, 214, 216, 217.
García Chasco, Jose A.: 176.
García, Manuel: 187, 281.
García, Patricio: 77.
Garelli (Ministro): 183.
Gares/*Puente la Reina* (Nafarroa): 164, 166.
Garibai, Esteban: 83.
Garin (Gipuzkoa: Beasain): 9, 248, 249, 279.
Garinoain (Nafarroa): 165.
Garizuma: 140, 157, 163, 177, 206.
Garmendia, Demetrio: 79, 84, 86, 87, 88, 89, 90, 283.
Garmendia, Juan Jose Nat.: 217, 234, 243.
Garralda (Nafarroa): 163.
Garran, Justo: 167.
Garrido, Javier: 103, 269, 281.
Garro, Txomin: 77.
Gasteiz: 8, 22, 25, 35, 38, 40, 41, 46, 59, 62, 63, 116, 179, 180, 181, 182, 185, 186, 187, 188, 281, 287,290.
Gastesi, Karlos: 187.
Gau-Adorazioa: 113, 115.
Gaubea (Araba): 99.
Gaztela: 12, 30, 49, 48, 49, 50, 51, 52, 54, 55, 179, 180, 197, 198, 289.
Gaztelu-Urrutia, Manuel: 192.
Gebaratarrak (Oñatiko Kondeak): 67.
Gereka, Migel: 99, 157.
Gerenabarrena, Rufino: 215.
Gereta, Ignazio: 238, 239.
Gernika: 8, 10, 30, 38, 46, 60, 62, 169, 170, 172, 175, 176, 177, 178, 195, 287.
Gernikaldea: 172, 176.
Gerra, Basilio: 79, 176,
Gerrak, Gerrateak: Karlistak: 26, 34, 35, 84, 86, 95, 99, 105, 136, 138, 154, 155, 182, 183, 184, 192, 198, 199, 222; Konbentziokoa, 7, 8, 11, 71, 84, 92, 106, 133, 136, 154, 180, 198; Napoleondarra, 86, 107, 132, 154, 199, 222; Zibila (1936), 79, 144, 159, 187, 210.
Getaria (Gipuzkoa): 221.
Getaria (Lapurdi): 122.
Gipuzkoa: 12, 22, 25, 26, 27, 30, 32, 35, 39, 46, 63, 64, 67, 71, 72, 74, 78, 80, 81, 83, 84, 132, 142, 144, 158, 172, 180, 197, 200, 208, 219, 221, 222, 223, 224, 234, 236, 241, 247, 277, 289, 290,
Giscard, R.: 124.
Goardianoa: 210, 292.
Goardianoak, Komentuetako -: Ik. Nagusiak, Komentuetako -.
Godoy, Manuel: 32.
Goenetxea, J. A.: 170.
Gogartetxea, Arantzazuko -: 67, 78, 80.
Gogojardunak: 111.
Goierri: 206, 208, 209, 221, 277, 279.
Goitia, Guadalupe: 176.
Gomiztegi: 81,
Gondra, Tomas: 116.
Gonzaga, Frantzisko: 31, 84,155.
González, Valentín: 77.
Gorosabel, Pablo: 200, 247, 288.
Gorozika: 8, 175, 177.
Gorrotxategi, Bitor: 228.
Gotzainak: 22, 73, 74, 84, 92, 108, 109, 149, 154, 155, 156, 157, 166, 169, 188, 200, 201, 202, 211, 214, 231, 247.
Gregorio IX (Hugolino): 192.
Guadalajara: 54.
Guatemala: 55.
Guati, Hilario: 224.
Gudugarreta (Gipuzkoa: Beasain): 249.
Guraia, Juan: 177.
Guridi, Bizente: 238.
Guridi, Jesús: 101.
Gurpide, Pablo (gotzaina): 149.
Gutiérrez, Enrique: 153, 154, 167, 286.
Habana, La (Kuba): 173.
Hampson, N.: 32.
Hazparne: 121, 128.
Hegoaldea, Euskal -: 15, 22, 25, 26, 27, 29, 32, 33, 34, 35, 37, 41, 44, 47, 48, 115, 122, 128, 129, 235, 289, 290, 292.
Heriz, R. 223.
Hernani: 209, 222, 223.
Herrialdeak: 21, 22, 24, 25, 26, 30, 32, 35, 39, 41, 51, 64, 70, 179, 230.
Hezkuntza: Ik. Eskolak, Ikastegiak, Ikastetxeak, Ikastola.
Hiletak: 116, 145.
Hirugarrendarrak: 59, 64, 69, 101, 106, 112, 113, 121, 125, 138, 141, 142, 148, 149, 155, 163, 164, 177, 202, 210, 211, 236, 241, 290.
Hirurteko Konstituzionala (*Trienio Constitucional:* 1820-1823): 26, 32, 34, 71, 72, 84, 86, 92, 94, 98, 107, 114, 142, 154, 169, 174,182, 192, 199, 213, 222,
Hizkuntza: 115, 122.
Hiztegia (liburu honetakoa): 289-292.
Hondarribia: 22, 101.
Hugolino Kardinala (Gregorio IX.a): 192.
Huizi, Pedro/Pello: 140, 145.
Ibabe, Joan: 101.
Ibarbia, Jose Ignazio: 238.
Ibarbia, Jose Maria: 144, 168.
Ibarra (Gipuzkoa): 209.
Ibarreta, Carlos Mz. de: 166.
Ibarreta, Marcelino Mz. de: 164.
Ibarruri (Bizkaia): 8, 175, 177.
Idazleak: 77, 79-80. 102, 166, 167, 176, 216, 230, 255-256.
Idiazabal: 209,
Idoiaga, Jose Ignazio: 276.
Idoiaga, Jose Luis: 192, 194, 281, 287.
Idoiaga, Martzelino: 173.
Igantzi (Nafarroa): 166.
Igaratza (Beasaingo auzoa): 247.
Ikastegiak: 36, 39, 40, 58, 59, 70, 78, 80, 84, 95, 97, 125, 158, 165, 167, 170, 173, 195, 197, 199, 202, 219, 229. Ik. Eskola, Ikastetxeak, Arantzazuko Seminarioa, Foruko Seminarioa.
Ikastetxeak: 26, 51, 59, 125, 148, 159, 167, 173, 176, 197, 204, 237. 239, 288.
Ikastola: 88, 115, 228, 234.
Ilarduia, Juan María Mz. de: 192.
Inbentarioak: 107.
Ingalaterra: 118.
Inprimategia: 80.
Instituciones, Institutos: Ik. Erakunde.
Intxaurbe, Andres: 116.
Intxausti, Joseba: 1, 32, 80, 106, 107, 109, 112, 117, 122, 123, 132, 138, 153, 157, 167, 176, 179, 197, 217, 227, 228, 240, 241, 243, 282, 283, 284, 285, 286, 287, 288.
Iñiguez, Juan: 187.
Iñurrigarro, A.: 72.
Iñurritegi, Bitoriano: 109, 110, 112, 113, 114, 115, 116, 281, 284.
Iñurritegi, Gregorio: 238.
Iñurritegi, Migel: 247, 248, 249, 250, 281, 272, 283
Iparrraldea, Euskal -: 22, 26, 30, 32, 64, 117-129, 292.
Irakaskuntza: Ik. Ikastegiak, Eskolak, Hezkuntza.
Iralabarri (Bilboko auzoa): Ik. Bilbo-Iralabarri.
Iralabarriko Komentua: ik. Bilbo-Iralabarri.
Irantzu-ko Monasterioa: 24.
Iratxe-ko Monasterioa: 24.
Iraultza Frantsesa: 32, 33, 44, 117, 180, 221, 290.
Iraultza Loriatsua (Espainia: 1868): 155, 224.
Irigoien, Jose Ramon: 41, 42, 43, 47, 228.
Iriondo, Jose Luis: 88, 109.
Irizar, Frantzisko/Patxi: 87, 281.
Irizar, Ramon: 255, 256.
Irun (Gipuzkoa): 131, 138, 197.
Iruñe-Iturramako Anaiartea: 191-196, 263-264, 168-169, 287-288.
Iruñe-Milagrosa: 268-269, 281.
Iruñea: 8, 35, 191-196, 263-264, 168-169, 287-288.
Irura (Gipuzkoa): 209.
Iruretagoiena, Antonio: 228.

Iruretagoiena, Lukas: 87.
Italia: 18, 29, 34, 55, 151, 291.
Ithorrotze, Cr.: 121, 122, 127.
Ituren (Nafarroa): 206.
Iturralde, Pura: 113.
Iturrama: Ik. Iruñe-Iturrama.
Iturria, Karmelo: 239.
Iturria; Juan Maria: 192, 196, 281.
Iturriatarrak (Zarautz): 234.
Iturriotz, Joan Jose: 15, 125, 127, 128, 281.
Itxaropenaren Ahotsa: 113.
Izagirre, Lorentzo: 118, 121, 122, 228.
Izanberrikuntza, Izanberritzea (*Restauración*): 5, 6, 12, 13, 18, 26, 36, 37, 47, 61, 96, 97, 117, 118, 154, 202, 223, 224, 227, 290, 291.
Izaro Irlako Komentua: 12, 28, 29, 30, 91, 169, 283.
Izarra (Araba): 8, 186.
Izpura (Nafarroa Beherea): 118.
Iztueta, Paulo: 167, 286.
Jakin (Anaiartea, Lantaldea, Aldizkaria): 9, 38, 60, 63,80, 81, 128, 173, 207, 217, 286.
Japonia: 50, 55.
Jatsu (Uztaritze: Lapurdi): 117.
Jaunartzeak: 110, 111, 194, 206, 214, 215, 237.
Jauregialtzo, Pedro: 95, 176, 281, 287.
Jutsi (Nafarroa Beherea): 128.
Kaialdeko Anaiartea (Donostia): 12, 38, 60, 63, 257, 281.
Kalahorra-ko Diozesia: 22, 73, 92, 282.
Kanada: 118.
Kanbo: 118
Kanpezu (Araba): 12, 30, 46, 48.
Kantabria: ik. Arantzazuko Frantziskotar Probintzia.
Kantabriako Probintzia erlijiosoa: Ik. Arantzazuko Frantziskotar Probintzia.
Kapilauak: Arantzazu, 67, 71, 73, 78; Arrasate, 87; Bilbo, 109; Durango, 149, 150; Erriberri, 168; Oñati-Bidaurreta, 148, 271; Portugalete, 275; Segura, 277; Tolosa, 201; Varia, 30, 34, 54, 61, 62, 101.
Kapilauak: Iruñe-Soto Lezkairu, 263.
Kapitulua, Komentuko -: 63, 224, 290, 291.
Kapitulua, Probintziako -: 84, 99, 110, 158, 170, 188, 224, 247, 235, 249, 275, 277, 290, 192.
Kaputxinoak: 29, 31, 46, 64, 105, 118, 121, 130, 138, 164, 180, 193, 285, 290.
Karibe: 49.
Karkar (Nafarroa): 163.
Karlistak: Ik. Gerra Karlistak.
Karlos V.a (1539): 106.
Karlos V.a (1833-1839): 72, 73, 84, 94
Karlos VII.a: 35.
Karmeldar Ortozak, Moja -: 223.
Karmeldarrak, Karitateko Moja -: 78, 102.
Karrantza (Bizkaia): 12, 38, 60, 63, 265-266, 281.
Kaseda (Nafarroa): 164.
Katalunia: 182.
Katekesia: 87, 89, 110, 115, 142, 143, 144, 148, 215, 216, 227, 239, 240, 250.
Kerexeta, Adrian: 112.
Kihilalt, Zeferin: 122.
Klaratarrak: 30, 33, 46, 54, 67, 99, 105, 106, 112, 113, 117, 148, 180, 185, 192, 271, 291.
Klaustro: 41, 91, 185, 227, 290.
Koartango (Araba): 189.
Kofradiak: 7, 8, 60, 64, 67, 112, 113, 140, 141, 142, 143, 195, 208, 209, 210, 212, 236.
Kolegio Serafikoa: Ik. Arantzazuko Seminarioa, Foruko Seminarioa.
Kolonbia: 55.
Komentu frantziskotarrak: Ik. horrelakoak dituzten herrien izenak, edo liburuko aurkibide orokorra.
Komentu-Batzarra: Ik. Kapitulua, Komentuko -.
Komentu-Kontseilaritza: 141, 289, 291.
Komentutarrak, Frantziskotar -: 29, 289, 291
Konbentzioko gerra: Ik. Gerrak, Gerrateak.
Kontzilioa: 44, 127, 141, 289.
Korea, Hego -: 50, 54.
Korutarrak: 291.
Kristobaldegi: 132, 285.
Kristobaldegi: 285.
Kuba: 12, 37, 49, 55, 57, 61, 62, 96, 97, 230.
Kultura: 7, 24, 128, 143, 167, 230, 240, 265.
La Aguilera (Burgos): 42, 49, 50, 51, 229.
Labaka, Bizente: 95.
Labaka, Jose Ignazio: 224.
Labarta, Ricardo: 164.
Labat, Cl.: 129.
Lacroix, François (gotzaina): 118.
Lafitte, Piarres: 125.
Lagundia, Jesusen -: 25, 26.
Laiuno, Jose Maria: 173.
Landaburu, Leon: 122, 124.
Landazuri, J. J.: 179.
Laño (Araba): 23.
Lapurdi: 12, 22, 30, 46, 117.
Lardizabal, Isabel: 277, 288.
Larrabetzu (Bizkaia): 110, 172.
Larraga (Nafarroa): 165.
Larrañaga, Jose: 116.
Larrañaga, Juan Manuel: 140.
Larrañaga, Silbestre: 109, 148.
Larrañaga, Tomas: 116, 188.
Larrarte, Julian: 164, 266, 281, 288.
Larraul (Gipuzkoa): 209.
Larrauri, J. M. (gotzaina): 188.
Larrea, Antonio: 77.
Larrea, Joan Ignazio: 77, 281.
Larrea, Luis Maria (gotzaina): 149.
Larrinaga, Felipe: 116.
Larrinaga, Juan Ruiz de: 17, 109, 176, 183, 202, 210, 216, 217, 283, 287.
Lasa Gorraiz, Xabier: 284.
Lasa, Jose Ignazio: 283, 285.
Lasa, Julian: 141.
Lasalletarrak: 26, 250.
Laukoitza, Akordio edo Banaketa -: 39.
Lauro Ikastola: 115.
Lauzurika, Frantzisko J. (Administrari Apostolikoa, Gasteiz): 109, 187.
Lazkaibar, Domingo: 73.
Lazkao (Gipuzkoa): 209.
Lefebvre, G.: 32.
Legarreta, Fernando: 141.
Legorreta (Gipuzkoa): 209.
Legutioko artziprestazgoa: 84.
Lehuntze-ko Monasterioa: 25.
Leire -ko Monasterioa: 23, 24.
Leitza (Nafarroa): 206.
Leitzarango
Lekarotz (Nafarroa): 173, 291.
Lekeitio (Bizkaia): 12, 99, 172, 177.
Lekunberri (Nafarroa): 164, 206.
Lekuona, Nikolas: 141.
Leon XIII.a (Aita Santua): 163, 290.
Lertxundi, Jose: 42.
Leskar-eko Diozesia: 23.
Letamendi, M. A.: 199.
Lete, Jose Maria: 148, 164, 281.
Lete, Julian: 77.
Lete, Pablo: 79.
Letona, Julian: 77.
Ley del Candado (1911): 44.
Lezo: 211.
Libourne (Frantzia): 118.
Libro Becerro (Zarautz): 221.
Liburuak: 181, 216. Ik. Bibliografia.
Liburutegia: 77, 78, 80, 129, 166, 181, 227, 229, 243.
Lierniko Ermita (Gipuzkoa: Mutiloa): 279.
Limoges: 120.
Limosnaria, Anaia -: 70, 163, 165, 271.
Limpias-ko Santutegia: 211.
Linatza, Kristobal: 201, 210.
Linkel, Roberto: 279, 281.
Liturgia: 80, 81, 115, 206, 214, 239, 273.
Lizarra: 12, 46, 48, 151, 192.
Lizarralde, J. Adrian: 69, 70, 71, 74, 78, 79, 216, 283,
Lizarrondo, Mariano: 77.
Lizartza: 209.
Lodosa (Nafarroa): 166.
Loero; Damián: 164.
Logroño: 107. 108, 158.

Loidi, Jose Antonio: 205.
Loinatz (San Martin-en Basilika: Beasain): 9, 247, 248, 250, 279, 283.
Loiola (Donostia): 132.
Loiu: 106.
Lojendio, J.: 78.
Londres: 97.
Lugo: 166.
Lumo (Bizkaia): Ik. Gernika.
Lur Santuak: 49, 55, 101, 118.
Lurgorri (Gernikako auzoa): 175.
Madariaga, Aingeru: 102, 103, 141.
Madariaga, Bernardo: 79, 84, 167, 173.
Madariaga, Jesus Maria: 187, 189.
Madariaga, Leon: 206, 210, 216.
Madinabeitia, Lazaro: 202.
Madinabeitia, Lorentzo: 95.
Madoz, Paskual: 223, 84.
Madril: 50, 54, 93, 96, 131, 202, 108, 170, 184, 185, 223.
Maiatz (aldizkaria): 128, 129, 285.
Maiora, Jose Maria: 200, 201.
Maiz, Juan Jose: 16, 42, 47, 162, 172, 224, 226, 228, 229, 234, 238, 282.
Mantzisidor, Juan: 219.
Manzanos, P.: 179, 287.
Mañaricua, A. E. de: 91, 99, 284.
Mañu (Bizkaia: Bermeo): 6, 98, 102.
Mao Zedong: 212.
Mariaren Legioa: 115.
Mariel (Kuba): 62.
Markina Gipuzkoa): 95, 172, 177.
Marokko: 49, 55.
Martikorena, Jose Luis: 238.
Martín, Micaela: 113.
Martínez, Jose A.: 187.
Martzilla (Nafarroa): 24, 154, 193.
Matutiak: 40, 42, 43, 57, 58, 235.
Matximenta (Gipuzkoa): 236.
Maule (Zuberoa): 32, 117, 120.
Maume (Bizkaia: Ibarruri): 175, 177.
Meaga (Gipuzkoa: Getaria): 239.
Meakaur (Bizkaia: Morga): 177.
Medina del Campo (Valladolid): 54.
Melians, Esteban: 187.
Mella, Alonso de: 147.
Melo y Alcalde, Prudentzio (gotzaina): 202.
Mendata (Bizkaia): 8, 175, 177.
Mendataurigoitia, Bonaventura: 166, 176
Mendia, Benito: 80, 127, 234.
Mendiola, Migel Pz. de: 197.
Mendizabal, Martin: 77, 277, 283, 284, 288.
Merkatbide, B. 128.
Metxika (Bizkaia: Errigoiti): 177.
Mexiko: 55.
Mezak: 40, 43, 58, 80, 81, 111, 112, 140, 141, 177, 206, 210, 273, 279.
Miami: 50.
Miarritze: 121, 131.
Ministro: 291.
Miranda de Ebro: 48.
Misio-Batasuna: 88, 141, 209, 212
Misioak, Atzerri edo Lurralde ez-kristauetako -: 36, 49, 51, 5 Misio 5, 211, 212, 240, 291.
Misioak, Herrietako -: 7, 111, 112, 121, 128, 140, 144, 157, 159, 163, 208, 230.
Mithiriña (Nafarroa Beherea): 118.
Mitxelena, Arkanjel: 141, 234.
Mitxelena, Roke: 234.
Mitxelena, Salbatore: 79, 80, 234, 283, 288.
Mitxelenatarrak (Zarautz): 234.
Mogel, Juan Antonio: 230, 243.
Moja frantziskotarrak: Ik. Ahizparteak.
Mokoroa (organujoleak): 217.
Monasterioak: 22, 23, 24, 25, 26, 30,49, 67, 148, 224, 271, 291, 292.
Montpellier-eko moja frantziskotarrak: 118.
Monzón, Gil: 166.
Morga (Bizkaia): 8, 175, 177.
Mugiro Familia: 157.
Mugiro, L.: 157.
Mujika, Mateo (gotzaina): 109.
Mundaka (Bizkaia): 101, 172.
Mungia (Bizkaia): 99
Muniain, Joan Jose: 214, 215, 216, 281.
Muñoz, Lucio: 75.
Murueta (Bizkaia): 6, 8, 98, 175, 177.
Musakolako Sta. Teresa (Arrasateko elizgunea): 89.
Musika: 70, 71, 79, 80, 81, 129, 143, 167, 206, 217, 240, 243.
Musikari: 101, 168.
Mutiloa (Gipuzkoa): 10, 278, 279.
Mutiloa Poza, J. M.: 192, 288.
Muxika (Bizkaia): 175, 177.
Nabarritz (Bizkaia): 172, 177.
Nafarroa Beherea: 22, 33, 35, 117, 118, 121, 125, 253,
Nafarroa Garaia: 5, 15, 22, 24, 25, 26, 30, 32, 48, 49, 60, 64, 70, 118, 128, 138, 144, 147, 151, 154, 158, 159, 163, 164, 165, 166, 179, 191, 192, 193, 202, 204, 206, 208, 209, 236.
Nafarroa-Kantabriako Probintzia kaputxinoa: 29.
Nagusiak, Komentuetako -: Arantzazu, 72; Arrasate, 86; Beasain, 248; Bermeo, 98; Bilbo-Errekaldeberri, 252; Bilbo-Iralabarri; 114; Bilbo-San Frantzisko, 114; Donapaleu, 127; Donostia, 142; Durango, 150; Erriberri, 162; Forua, 174; Gasteiz, 186; Gasteiz-Ariznabarra, 186; Iruñe-Iturrama, 195; Oñati-Bidaurreta, 272; Segura, 278; Tolosa, 213; Zarautz, 242.
Nanclares, Petra Pz. de: 187.
Nancy: 71.
Napoleon I.a: 33, 181.
Napoleon III.a: 35.
Napoleondarra, Gerra-: Ik. Gerrak, Gerrateak.
Naxera: 49.
Nobiziategia (*Casa de Noviciado*): 39, 40, 42, 47, 58, 59, 62, 70,71, 97, 107, 108, 132, 182, 202, 224, 227, 228, 229, 235, 244.
Noble, Migel: 87.
Nocedal, C.: 155.
Noviciado: Ik. Nobiziategia.
Nuntzioak: 110, 183, 202.
Obanos: 10, 38, 60, 267-268, 281.
Obieta, Jose Antonio: 95, 239.
Obieta, Juan: 118, 121, 122, 228.
Obserbantea: Ik. Obserbantzia.
Obserbantzia (Erreforma frantziskotarra): 29, 28, 31, 39, 49, 61, 91, 132, 289, 292.
Oiartzun: 60,
Olabeaga (Bilbo): 106,
Olaberri (Gipuzkoa): 9, 248, 249.
Olaizola, Jose: 59, 236.
Olakua (Gipuzkoa: Oñati): 273.
Olazabal, Tomas: 95.
Olhagarai, Peio: 129.
Olite: Ik. Erriberri.
Oliva-ko Monasterioa, La - : 24.
Oliver Gotzaina: 156.
Olkotz (Nafarroa): 165.
Oloritz: 165.
Oloroe-ko Diozesia: 23.
Omaetxebarria, Ignazio: 79.
Ondarroa: 236.
Oñati: 6, 10, 11, 30, 34, 38, 51, 67, 72, 73, 74, 78, 91, 181, 271, 272, 273, 284, 289, 291. Ik. Bidaurreta, Arantzazu.
Ordizia: 78, 202, 208, 209.
Orexa: 209.
Orfeoiak: erriberritarra, 168, 286, 287; bermeotarra, 101, 283.
Orio (Gipuzkoa): 101, 236
Orisoain (Nafarroa): 165.
Orkaiztegi, Patrizio: 74, 202.
Ormaetxea, J. A.: 108.
Ormaiztegi (Gipuzkoa): 209.
Orokieta, Manuel: 112.
Ororbia: 165.
Ortese/*Orthez*: 120.
Ortuzar, Jose Javier: 163.
Ospizioa: 271.
Ostibarre (Nafarroa Beherea): 128.
Ostiralak, Lehen -: 177.
Otadui, Julio: 86.
Otero, Migel Maria: 170.
Otoitza: 39, 40, 44, 57, 115, 168, 209.
Otsagi: 164
Otxarkoaga (Bilbo): 106.
Ozerin-Jauregi, Andres: 101, 177, 282.
Ozollo, Jose Antonio: 96.
Pagola, Juan Migel: 266.
Pagola, Manolo: 140, 141, 145, 216, 227, 228, 141.

Palacios, Frantzisko A.: 230.
Palestina: 118. Ik Lur Santuak.
Pamplona: Ik. Iruñea.
Paraguay: 50, 55.
Paresi-ko Andra Maria (Bizkaia: Busturia): 177.
Paris: 129.
Parlamentua: 49.
Parrokiak: 7, 8, 23, 45, 60, 61, 62, 92, 102, 107, 115, 131, 140, 143, 144, 145, 148, 177, 185, 191, 196, 200, 201, 214, 216, 238.
Parrokoak eta Eliz Arduradunak: 8-10 (herrietakoak), 86, 98, 114, 142, 163, 175, 189, 195, 239, 248, 278,
Pastorala, Pastoraltza: 6, 58, 88, 89, 101, 110, 115, 116, 121, 125, 138, 141, 143, 154, 164, 176, 188, 194, 196, 214, 215, 226, 235, 237, 238, 240, 247, 273, 278, 283, 284.
Patronato: ik. Zaingoa.
Pavie, Othon de: 118, 119, 120, 127, 285.
Pazifiko Anaiaren Probintzia (Frantzia): 120.
Pellejero, Jesus: 215.
Penintentziako Sakramentua: 122, 144, 145, 163, 206.
Peñagarikano, Pedro: 217.
Pérez, Antonio: 116.
Pérez de Villarreal, V.: 118, 285.
Périgueux: 180.
Pertsonala: Ik. Estatistikak.
Peru Abarka: 243.
Peru: 49, 55.
Piedrolako komentua (Araba: Kanpezu): 12, 29, 30, 46, 48.
Pirinio Beherea/Basses-Pyrénées: 23.
Porto, José: 164.
Poza-ko komentua (Burgos): 48.
Predikari. Prediku/Sermolari, Sermolaritza: 8, 35, 40, 58, 70, 77, 79, 80, 111, 112, 121, 122, 141, 144, 147, 158, 163, 165, 172, 206, 210, 219, 224, 271.
Probintzi Batzarra: Ik. Kapitulua, Probintziako -.
Probintzi Kontseilaritza: 49, 229, 289, 292.
Probintzia erlijiosoak: Ik. Akitania, Aragoi, Arantzazuko Frantziskotar Probintzia (=Kantabria), Burgos, Nafarroa-Kantabriako Probintziak.
Puebla de Arganzón, La: Ik. Argantzun.
Ramírez Vaquero, E.: 151, 286.
Regillaga, Jose Maria: 215.
Rekondo, Antonio: 109.
Restauración: Ik. Izanberrikuntza, Izanberritzea.
Rocaforte-ko Ermita (Zangoza, Nafarroa): 29, 192.
Rodil (jenerala): 72,135, 199.
Ryan, Eduardo: 148.
Sabando, L. Mz. de: 223.
Sabarots, S.: 119, 120, 121, 122, 124, 127, 285.
Sadaba (Zaragoza): 164.
Sagasta, Práxedes Mateo: 49.
Sagrarioko Mariak: 210.
Sagues, Pio: 15, 118, 119, 120, 121, 122, 152, 153, 154, 155, 156, 167, 286.
Sahagún-go Misiolari-Kolegioa: 291.
Saint-Palais: Ik. Donapaleu.
Sakramentinoak: 214.
Sakramentuak: 6, 7, 8, 9, 58, 111, 112, 115, 140, 144, 145, 159, 163, 177, 188, 205, 206, 214, 237, 238, 239, 273.
Salas, Jose Antonio: 77.
Salazar, Juan Jose: 201, 202.
Sallaberenborde, Marie-Gabriel: 125, 126, 127, 281.
Samaniego, Fernando: 192.
San Adrian (Nafarroa): 164, 165.
San Adrian-go Koba: 277, 279.
San Andres (Arrasateko elizgunea): 89.
San Andres (margolana): 231.
San Andres (Segurako ermita): 279.
San Antonio Paduakoa: 6, 8, 46, 60, 81, 88, 111, 112, 113, 148, 173, 180, 185, 211, 212, 284, 285, 287.
San Antonioren Astearteak: 111.
San Blas (Tolosako hilerria): 217.
San Frantzisko (pertsonaia): 21, 28, 112, 212, 129, 191, 230.
San Frantzisko komentuak: Ik. halakorik duten herrien izenetan.
San Fruktuoso: 24.
San Joseren Poz-Atsekabeak: 111.
San Mames: Ik. Santimamine.
San Martin (Donostiako auzoa): 131.
San Martin Igokundekoa: 9, 247, 249, 279, 283.
San Martin Igokundekoaren basilika: 247, 248, 249, 250.
San Martin Unx: 154, 164, 165.
San Migel Aralarkoa: 24.
San Pablo (Gasteizko Parrokia): 185.
San Pedro (Erriberriko parrokia): 168.
San Pedro Regalado (Burgos: La Aguilera): 49, 51.
San Telmo (domingotarren Donostiako komentua): 135.
Santa Ageda: 217.
Santa Barbara (Segurako ermita): 279.
Santa Beatriz Silvakoa: 292.
Santa Elisabet: 118, 124, 289.
Santa Engrazia (Iruñeko komentu klatarra): 151, 168, 192.
Santa Engrazia (Segurako ermita): 279.
Santa Faz (Eulate): 165, 195.
Santa Klara Komentu edpo Monasterioak: Ik. Klaratarrak.
Santa Luzia: 210.
Santa Madalena: 41, 142, 144, 175.
Santa Marina (Arrasateko elizgunea): 6, 86, 89.
Santander/Santandere: 22, 39, 47, 50, 99, 110, 168.
Santiago, Jaione: 95.
Santiago, Kubako: 97.
Santiago-Bidea: 24, 129.
Santiago-ko Probintzia frantziskotarra: 49, 55.
Santiagoko Kolegioa: 55.
Santimamine (Bilbo-Abando): 29, 30, 40, 46, 107, 108, 170, 275.
Santispiritu (San Andrian: Zegama): 279.
Santo Domingo Irla: 50, 55.
Santurtzi-ko Anaiartea: 38, 175-276, 281.
Santutegiak: 6, 13, 49, 51, 67, 69, 70, 71, 72, 73, 74, 78, 79, 80, 102, 200, 201, 234, 236, 247, 271, 273, 283.
Sánz de Urturi, Frantzisko (artzapezpikua): 97, 157, 230.
Sarasola, Luis: 79, 176.
Sasiola: 12, 31, 46, 132, 180, 199, 219, 222.
Segura: 10, 34, 38, 60, 63, 78, 81, 168, 250, 277-279, 281, 288.
Segurola; Nikolas: 77, 81, 281.
Seminario frantziskotarrak: ik. Arantzazuko Seminarioa, Foruko Seminarioa.
Seminarioak (orokorrean): 125, 126, 166, 188, 189.
Sendotzako Sakramentua: 89, 115, 214, 215, 216, 239, 250. Ik. Sakramentuak.
Senitarte frantziskotarrak: Ik. herrien izenetan, eta Ahizparteak ere.
Senitarteak: Ik. Anaiarteak.
Sépinski, Agustin (Ministro Jenerala): 56, 236.
Sermolari. Sermolaritza: Ik. Predikari, Prediku.
Serna, Karmina: 95.
Serorak: 124, 277.
Sestao (Bizkaia): 275.
Setien, Jose Maria (gotzaina): 89, 214.
Shaanxi, Ipar - (Txina): 50.
Sindikari, Sindiko: 121.
Soboul, A.: 32.
Solaguren, Zelestino: 13, 16, 42, 71-73, 84, 91-97, 106-108, 132-138, 140, 148, 150, 154, 157, 158, 181-188, 167, 169-172, 198-202, 221-223, 242, 281.
Sondika: 112.
Sorarrain, Antonio: 228, 234.
Soria: 50, 51, 59.
Sorkundeko Komentua (Gasteiz: San Antonio): 40.46, 180, 182, 183, 185.
Sorkundetarrak: 30, 87, 292.
Sorozabal, Pablo: 101.
Soto Lezkairu (Iruñea): 38, 263-264.

Soto-ko komentua (Santander): 47.
Suitza: 55.
Tabira (Durango): 147.
Tafalla: 30, 46, 48, 164, 165, 192.
Takonera (Iruñeko 2. bizilekua): 191.
Tarazona-ko Diozesia: 22.
Tarbes: 125.
Telefonoa, Esperantzaren -: 113.
Teologia: 59, 70, 79, 80, 95, 158, 165, 188, 189, 194, 197, 199, 291.
Teologia: Ik. Ikastegiak, Arantzazuko Ikastegia, Erriberriko Ikastegia.
Tibalt II.a (Naafarroa): 25, 117, 179.
Tiberi (Nuntzioa): 183.
Tiebas (Nafarroa): 165.
Tillous andrea: 126.
Toledoko: 95, 96.
Tolosa: 8, 9, 14, 34, 35, 36, 37, 38, 39, 40, 46, 58, 60, 61, 63, 86, 135, 168, 181, 197-217, 236, 281, 288.
Tolosakoa, Frantzisko - (Ministro Jenerala): 197.
Tolosaldea: 197, 199, 205, 206, 208, 216.
Torrealdai, Joan Mari: 173.
Toulousaine, La -: 124, 128.
Traibuenas (Nafarroa): 7, 163, 168.
Trebiño: 22.
Trenbidea: 42, 247.
Trento-ko Kontzilioa: 30.
Treviño, Modesto: 281.
Trienio Constitucional (1820-1823): Ik. Hirurteko Konstituzionala.
Trillo (Guadalajara): 54.
Tulard, J.: 32.
Tulebras (Nafarroa): 24.
Tutera (Nafarroa): 12, 22, 46, 47, 48, 164, 192, 290.
Txabarri, Anjel Maria Gz. de: 215, 266, 281.
Txikiak, Anaiarte -: Ik. Anaiarte Txikiak.
Txina: 50, 212.
Txinparta (taldea): 113.
Txistulariak, Bermeoko -: 101.
Txopitea, Juan Bautista: 223.
Txurrutal-eko komentua (Donostia): 7, 46, 132, 138.
Uberuaga, Andres: 95, 101, 112, 175.
Udalak: 8, 74, 87, 94, 96, 99, 103, 107, 108, 132, 138, 155, 157, 166, 167, 169, 180, 184, 185, 199, 200, 201, 202, 222
Udalerriak: 83, 91, 105, 147, 151, 169, 197, 200, 247, 275, 277.
Udaletxeak: 84, 93, 95, 99, 135, 155, 157, 181, 182, 183, 184, 185, 199, 200, 223, 227, 247, 248.
Ugarte, Jose Antonio: 59, 216, 230, 236, 238.
Uharte (Nafarroa): 267-268, 281.
Ulloa, Frank Miki: 187.
Uncastillo (Zaragoza): 164.
Unibertsitateak: 59, 129, 193, 228, 236.
Unión Cerrajera: 88.
Untzurruntzaga, Eusebio: 189
Unzurrunzaga, Idoia: 1, 17.
Unzurrunzaga, Imanol: 113.
Urbia (Gipuzkoa): 81.
Urbieta, Karlos: 87, 281.
Urbietatarrak (Zarautz): 234.
Urbistondo, Inozentzio: 214, 215.
Urbistondo, Saturnino: 192.
Urdaibai (Bizkaia): 16, 172, 173.
Urdaneta (Zarautz): 239.
Urdanpilleta, Jose Antonio: 187, 281.
Urduña: 12, 29, 30, 46, 47, 99, 110, 182, 222.
Uriarte, Jose Antonio: 96, 100, 230.
Uribarri (Arrasateko auzoa): 83, 89.
Uribe, Anjel (historialaria): 15, 13, 29, 67, 69, 70, 71, 83, 84, 91, 92, 94, 95, 96, 97, 99, 103, 104, 106, 147, 152, 169, 170, 179, 180, 197, 198, 219, 224, 226, 240, 275, 277, 281.
Urionabarrenetxea, Pedro Maria: 95, 281.
Uriz, Pedro Zirilo(gotzaina): 155.
Urkabustaiz (Araba): 189.
Urkiola, Jose Antonio: 138.
Urkiola-ko Santutegia: 178.
Urkixo, Julio: 243.
Urnieta: 132.
Urolaldea: 206.
Urretxu: 208, 209.
Urriolabeitia, Pedro: 279, 281.
Urrutiager, J.B.: 126, 127.
Urrutibeheiti, F.: 121, 122, 127.
Urteta (Gipuakoa: Zarautz): 239.
Uruguay: 50, 55.
Uruguay: 50, 55.
Urumea (ibaia): 131, 132.
Usun-go Monasterioa: 24.
Uxue (Nafarroa): 165.
UZEI: 255.
Uztaritze (Lapurdi): 118, 177, 344,
Villasante, Luis: 80, 230, 243.
Villimar (Burgos): 54,
Vovelle, M.: 32.
Yabar, L. de: 124.
Yudego, Fausto: 269.
Zabala, Funjentzio A.: 129, 285.
Zabala, Juan Mateo (idazlea; euskaltegia): 115, 222.226, 230.
Zabala, Pello: 77, 81.
Zabala, Zelestino: 226, 236, 238.
Zabalgojeaskoa, Adrian: 95, 101, 281.
Zabalgojeaskoa, Jon: 95, 281.
Zabalik Elkartea: 128.
Zaballa, Pedro Luis: 113.
Zaindaritza, Arantzazuko Andre Mariaren -: 78, 81, 142, 208, 212.
Zaingoa (*Patronato*): 199, 200, 224, 247.
Zaloña, Pedro Luis: 216.
Zamalbide (Errenteriako auzoa): 12, 38, 60, 62, 259-260, 281. Ik. Errenteria.
Zangoza (Nafarroa): 12, 29, 46, 48, 192, 290.
Zapata (Aratzazu bidekoa): 74.
Zaragoza: 22, 48.
Zarautz (Komentua): 9, 11, 12, 14, 34, 35, 36, 37, 38, 46, 47, 51, 58, 59, 60, 61, 62, 80, 97, 99, 157, 158, 171, 121, 122, 124, 132, 138, 204, 206, 209, 219-243, 281, 288, 291.
Zarautz (herria): 46, 219, 221, 229, 234, 239,
Zarrakaztelu /*Carcastillo*(Nafarroa): 164.165.
Zeberio (Bizkaia): 110, 172.
Zegama (Gipuzkoa): 10, 278, 279.
Zelaia Letamendi, Juan: 16.
Zelaia, Anaia Juan: 77.
Zelaia, Jose Maria: 77.
Zerain (Gipuzkoa): 10, 278.
Zia, Pello: 251-252.
Ziburu (Lapurdi): 12, 29, 46, 47, 56, 64, 69, 117, 119, 121, 122.
Zinkunegi, Xebero: 16, 140.
Zornotza: 101.
Zorrotza (Bilboko auzoa): 106.
Zuberoa: 22, 117, 118, 120, 253.
Zubiarrain, Bizente: 77.
Zubiaurre, Pedro: 173.
Zubieta, Jon : 77, 101.
Zubieta, Sabin: 95.
Zubikoa (Gipuzkoa: Oñati): 67.
Zubillaga, Bitoriano: 77.
Zubitza (Nafarroa): 164.
Zubizarreta, Antonio: 95, 281.
Zubizarreta, Kandido: 13, 16, 77, 281.
Zuhaizti (Donostiako parkea): 132.
Zulaika, Elias: 124.
Zumaia: 223.
Zumalakarregi, Tomas: 72.
Zumarraga, Frai Joan: 147, 285.
Zumarraga: 209,
Zurbao (Araba): 181.
Zuriarrain, Telesforo: 77.
Zurutuza, Jose Luis: 77.

ARGAZKIEN AUTORETZA-AITORPENAK

Agirrebaltzategi, Paulo
140, aurreko hegala.

Anaiarteak
Arantzazu: 45, 53, 56. Bermeo: 33. Donostia: 59. Bilbo: 107. Iruñea-La Milagrosa: 269. Santurtzi: 276. Zarautz: 231, 232-232.

Jose Maria Arregi
266.

Beristain, Iñaki
76-77, 272.

Garamendi, Bitor
95.

Intxausti, Joseba
28, 31, 63, 87, 99, 112, 125, 149, 164, 173, 183, 185, 187, 192, 196, 198, 215, 256, 257, 261, 265, 279.

Unzurrunzaga, Idoia
Azaleko aurre-atzeak, 68-69, 70, 75, 79, 85, 88, 89, 91, 93, 94, 96, 97, 100, 101, 102, 109, 111, 119, 120, 123, 128, 131, 133, 134-135, 136-137, 139, 140, 143, 151, 152-153, 155, 156, 159, 160-161, 165, 166, 167, 171, 172, 177, 188, 191, 193, 194a, 194b, 201, 203, 207, 208, 209, 210, 211a, 211b, 220-221, 225, 235, 236-237, 239, 240, 249.